



SERMOIAK (I)

Juan Mateo Zabala

Iturria: *Sermoiak (I)*, Fray Mateo de Zabala (Luis Villasanteren edizioa).
Euskaltzaindia, 2000.

Klasikoen Gordailuan:

<http://klasikoak.armiarma.com/idazlanak/Z/ZabalaSermoiakI.htm>

Klasikoen Gordailuak egindako lanak oro dominio publikokoak dira,
eta, Jabego Intelektualaren Legearen arabera jatorrizko idazlanak
bestelako eskubiderik ez baleuka, nahi bezala erreproduzi daitezke.

1. ATALA



1. MISIÑOAREN SARBIDEA

(J, 1-12. or.)

Sicut misit me Pater, et ego mitto vos.
Joan. 20. v. 21.

Barri onak, eta guztizko onak dakartzueguz, kristiñauak. Pekatupean bizi zareen pekatarri errukigarriak, pekatu mortalaren katea gogorraz loturik, eta katigu zagozenok, poztu zaiteze. Zeuen arimeen salbaziñoa-gaz itxirik, edo erdi itxian, eta ernegadu aginean aurkituten zareenok, zabal zabal egizuez zeuen biotz estu-larri orreek, bada gaurko arratsaldean dator zeuek gana zeuen egillea, eta zeuen aita gozoa. Datortzue zeuek ainbeste bider zeuen pekatuakaz oñen-azpian erabili izan dozuen yaun errukior au, zeuek-gaz bakeak egitera, eta zeuen arimaak pekatuen kartzela ilun-ikaragarri orretarik ateratera. Datorkizue Jesus zeuen, eta guztioen aita, ta erredentore maitagarria, zeuen arimaak pekatuen loikerietarik garbitutera, eta bere graziaz edertutera, ta apaindutera. Ikusten dau daukazuezala zeuen arima orreek ikatz baltza bera baño bere baltzago; zagozela iya infernuan amilduteko, eta betiko galduak izateko bidean; eta onek erdibitu deutso bere biotz biguna; eta atera gurarik zeuek zeuen bide okerretarik, biralduten deusue misiño santu au zeuen errira, zeuei adietan emoteko, bene benetan ondu gura badozue, prest dagoala bera baita ondo prest, zeuei parkatuteko, eta zeuen adiskide izateko.

Bai, neure erri noblea, Yaungoikoak bere erruki andiz biraldu gaituz ona neure lagun maitea ta ni; eta ori egiteko onetara ekarri dituz geure biotzak, eta beste guztienak bere: eta esan giñaike egia oso osoagaz, eta ao betean eze, etorri egin gareala alan gura izanik bertoko kabildu benegarriak, yustiziako yaun prestuak, eta erriko zar-gazte, andi-txiki eta umegiñoakoak. Eldu yako Jesus gozoari berak zeuri eta inguruetako erriai bere ontasuna erakusteko, eta mesede andiak egiteko izentadurik eukan aldia. Ai, N.N.! Zeinbat eta zeinbat izango ete dira zeure semeen artean, eta alborengo errietako semeen artean aspaldiko urteetan Ygkoa ganik igesi eta deslai dabiltzazanak? Zeinbat ete dira pekatuan bizi direanak, eta gaistakerian begi bietagiño ondaturik dagozanak? Ai! orain ementxe berton agertuko balituz geure guztioen barruak, zelan ikusiko ete gendukez geienen arimaak? Geienak zeuen pekatuakaz barrien barri kurutzean eskegi egin dozue Yesukristo geure yaun maitea; geienak pekatuakaz gal-

durik daukazue Ygkoaren grazia ederra, galdurik daukazue zerurako zeunkeen eskubidea: galdurik daukazue zeuen Ygko laztana; eta oraintxe elexa au beera baletor, eta guztiak azpian zapaldu, deretxat eze geienak infernurako izango ziñatekezala. Eztiñot nik au albastroan ta destaiuan: lar bere lar dakit zelan bizi direan gaurko egunean kristiñaurik geienak.

Baia, neure entzula maiteak, biotz zabala. Oraintxe da zeuen aldia: auxa da Jesus gozoak zeuei bere ontasuna erakusteko iminirik izan daben abegune ederra. Onetarako biraldu gaituz geu erri onetara; eta geuri dirausku beste aldi baten Apostolu santuai legetxe: *sicut misit me Pater, et ego mitto vos*. Neu neure aitak biraldu ninduan legetxe, alantxe nik bere zeuek biralduten zaituedaz. Ni yatzi nintzan mundura galdurik egozanak billatuten eta onduten, eta zeuek bere ori egiten yoan bear dozue. Nik ondu neban Samaria-ko emakume pekatuan askotan yausia: izango dira erri orretan bere zar-gazte asko seigarrenekoan sarri yausi izango direanak, eta onek ondu bear deustazuez. Nik ona izatera ekarri neban santa Maria Madalenea, errian zer esan andiak imini zituzana: izango dira erri orretan bere, ta ez gitxi gitxi, euren pekatuakaz berba leku andia imini izango dabeenak, eta orreek ondu bear deustazuez. Nik san Pedro-ri ezagutu eragin neutsan bere deungaro egina, eta negar andiak egin zituzan bere biraoak gaitik, eta guzurraren ganeko yuramentu okerrak gaitik: badira erri orretan bere birao egiten dakienak, eta guzurragaz yuramentu egin izan dabeenak, eta ea orrei garbatu eragin al badeiozue alan egina. Nik atera neban san Mateo esku artean erabiltzazan tratatu okerretatik; badira erri orretan bere tratatu okerrak egiten dakiezanak, eta orrei galarazo bear deustazuez alango tratatuak. Nire esanagaitik Zakeok atzera emon zituzan ondasun deungaro irabaziak: badira erri orretan bere iñoena eureneturik eta mamiñ eginik daukeenak, eta orrei esan bear deustazue erreskatak egiteko, eta bakotxari berea emoteko. Eta azkenean izango dira beste era askotako bekatarriak, eta egin bear dozuez aleginak oneek pekatuetarik ateretako, nik atera nituzan legez adore bagarik egozan gizon kadenak, eta beste asko.

Ara emen zetarako biralduten gaituzan Jesus maiteak, eta zetarako etorri garean geu erri onetara: zeuek pekatuarik aterata zerurako bidean iminteko. Ez zatoz, ez, zeuon ondasunen atzean (billa): zeuen etseak, zeuen basterrak, zeuen abereak, beekariak (giberriak, umerriak) zeuen esku-artekoak zeuentzako: geugaitik ortxe oso osorik geldituko yatzuez. Baia arimeen atzean gatoz, eta arimaak emon bear deuskuzuez, ez geuretzako, ezpada Jesus maitearentzako. Pekatuz baltziturik, eta bete beterik badaukazuez bere, ezta ezer orregaitik. Yaun onek eztau gura pekataria



galdu dedin, eta betiko il dedin: gura dabena da ondu daiteala, eta betiko bizi daiteala. Itxi gura badozuez bada orain arteko bide okerrak, eta lengo pekatuai bein betiko agurra egin, eta Yaunaren esanak egiten dozuezala, gura badozue berak erakusten deusuezan bide artezetatik ibili, berak artuko zaituez, berak parkatuko deusuez pekatuak, eta gero, eriotzea ezkerro eroango zaituez zeruko gloriara. Orretarako galdu bear dozue orain arteko izkune txarrak, alde egin pekatuak izan dozuezan, eta izan daikezuezan bideetarik, itxi lagun deungaak, bakotxari berea biurtu, guztiakaz bakeak egin, berba baten emetik aurrera kristiñau on batzuk izan beartzare (dozue).

Baia alan egin bearrean, aurrera eroan gura badozuez orain arteko zantarkeriak, loikeriak, gorrotoak, biraoak, ordikeriak, lapurreriak eta osterantzeko pekatuak, yakin bear dozue eze, etzala Yesukristo bakarrik etorri mundura pekatariak ondutera, baita bere etorri zala pekatari gogortuak galdutera. Simeon santuak esan eutsan Maria santisimeari lelengo bere besoetan yaun au elexara eroan ebanean: yakin egizu eze, umetxu au izango dala asko galduteko, eta asko biztuteko: *positus est hic in ruinam, et resurrectionem multorum*. Eta alan misioño santua entzunda onduten ezipazare, bildur izan beartzare, zeuen buruen ganera etorriko dala yaunaren aserre gogorra. Bear bada auxe da Ygkoak zeuentzako daukan azkenengo grazia; bear bada auxe da azkenengo egingo deusuen deia: eztozue bear bada beste misioñorik entzungo; beintzat yakina da guztiok entzungo eztozuela, eta zeuen zorigaistokoak, atan izanik, misioño onegaz baliatan ezipazare.

Baia, nor izango da neure entzulen artean alan egingo dabena? Nok zarratuko (gortuko) dituz bere belarriak Jesus-en dei gozoak ez entzuteko? Nok gogortuko dau bere biotza Jesus-en dei gozoai ez erantzuteko? Ez, eztot uste alangorik izango danik. Biotzerik gura izan dozue misioño, gogo onagaz asi zare etorten; eta deretxat eze aleginak egingo dozuezala aurrera bere etorteko, zeuen arimaak garbituteko. Yangoikoaren bideetan sartuteko, eta aurrerantzean onak izateko. Eta au gogo obeagaz egin dagizuentzat esan bear deusuet eze, elexa ama santuak bere orixe gura dabela, eta ori egitea gaitik guztizko induljenzia, eta parkamen ederrak aginduten deusuezala.

Lelengo bada, misioño denporarako Aita Santuak emonik daukaz lau induljenzia plenaria, edo parkamen oso osoak. Lelengo parkamena irabazi lei misioñoak dirauan arteko edozein egunetan, eta edozein bere elexatan konfesadu, ta komulgaduta. Bigarrena, eta irugarrena irabazten dira geuk izentaduko doguzan komuniño jeneraleko egun bietarik baten, edo-

zein elexatan konfesadu, eta gero elexa onetan komuniño santua artuta: eta bata egun atan berean irabazten da, ta bigarrena geratuten da eriotzako ordurako beste egun baten esango deusuedan legez. Laugarrena arimeen funziñoa egingo dan egunean, edozein elexatan konfesadu ta komulgadu, eta elex'onetan oraziño eginda; baita egun atan bertoko altara guztiak dira purgatorioko arimea ateratekoak. Onezaz ganetik misioño santua entzun eskero, ilean bein daukazuez zazpi urte ta zazpi berrogei eguneko parkamenak konfesadu ta komuniño santua artuta. Entzuten duzen doktrina bakotxeko eun eguneko parkamena. Iñor aginduten (botetan) badozue misioño doktrinara, edo etorteko biderik emoten badeusazue, beste berreun egunekoa, eta au irabazi zinaie gurasoak, ugazabaak, eta ugazaba-andreak, zeuen umeak, eta ogitukoak (otseiñak) biralduta: Misioño esaten dan eguna bada bulda santuak dakazan estaziñoetako eguna, irabazten dira Erromako zazpi elexak ikusita (bisitautan) irabazi leitekezan induljenzia guztiak.

Onek induljenziok irabazteko arimea pekatu mortalerik garbi izatez gane euki bear da guztien bulda santua, baita eskatu bear yako Ygkoari, arren bada begiratu dagiola bere elexa santuari, galdu dagizala herejia guztiak, ekarri dagizala hereje eta fedebagakoak bere lege santura, eta emon dagiela errege eta prinzipa katolikuai euren artean bake ona egiteko, eta alkar ondo artuteko grazia. Edo laburrago ta errazago, eskatuko deusazue Ygkoari, aita santuak aginduten dituzan gauzaak gaitik. Ara zelango induljenzien ondasunetgia irabazi ziñaikeen misioñora etorrita. Eta obeto aditu (ulertu) dagizuen ondasun onen balioa, zerbait esan bear deusuet induljenzien ganean.

Batek pekatu mortala egiten dabenean merezidu dituz infernuko betiko penak. Konfesiño onaren bidez parkatuten deutso Ygkoak pekatua, eta kenduten deutso bere infernura bearra: baia ezteutso beti parkatuten pekatuaren zor guztia, zein kitadu ta pagadu bearko daben edo mundu onetan gauz'onak eginagaz, edo bestean purgatorioko pena ezin gogorraokaz. Konfesoarek aginduten daben penitenziagaz bere ateraten da zor ori: baia ez orregaz bere beti guztia, ezta onago bere. Azaz ganetik pitian pitian egin daroaguz pekatu benialak, zeintzukaz bere zor andiak artu daroaguz geure lepo ganean. Elexa ama santuak emon gura leuskioe bere semeai zor orreek ateretako (pagetako) modua. Eta, zer deritxazue egiten dabela? Daukaz bere kontura Yesukristo-k emonda, Yesukristo beraren merezimentuakaz, Maria santisimearenak gaz, eta santu-santeenak gaz egiten direan ondasunen gilitzaak. Ondasun orrek bada idigiten dituz, eta emoten deutse bere semeai gauza onen bat egiten



dabeenean merezimentu oneetarik batzuetan geiago, batzuetan gitxiago zegaz atera, edo bai zegaz buruzpeeratu euren zorrak. Esaten yatzuenean bada induljenzia dagoala, edo irabazten dala, da esatea legez aita santuak, edo obispo yaunak zabaldu dabeela elexearen ondasun au, eta eurak esaten dabeena eginagaz artuten dogula, eurak emoten deuskuen beste ondasun, zegaz erantzun Yaunari deusagun zorrari.

Induljenzia edo parkamen au da modu bitakoa, bata da osoa, ta beste ez osoa. Induljenzia osoa da Ygkoari zor guztia pagetako bestekoa dana. Ez osoa da zorraren zati bat pagetako baxen eztana; kontu egizue zazpi urteko induljenzia, edo eun egunekoa. Eta entzuten dozuenean au edo au egin da, zazpi urteko induljenzia irabazten dala, eztozue uste bear eze, batek zazpi urtean purgatorioan egon bearko beeban, orren parkaziñoa irabazten dabela. Esan gura dabena da, egingo balituz batek antxina elexa santuak aginduta egin oi zirean zazpi urteko penitenziak, orregaz irabaziko eban gaña parkaziño irabazten dabela orain zazpi urteko induljenzia irabazita. Baia eztakigu geuk zeinbat parkatuko leuskion Ygkoak purgatorioko peneetatik zazpi urteko penitenzia egiten dabeneri, eta orregaitik ezin esan giñaike zeinbat laburtuten yakan purgatorioan egon bearra zazpi urteko induljenzia irabazten dabeneri. Baia alandere beti da asko, eta geuk uste giñaikean baño askoz geiago.

Ea bada, neure entzula onak, aleginak egin bear dozuez ez galduteko, ez elexa ama santuak zabalduen deusuezan induljenzia eta parkaziño ederrak, ezta Yesukristo-k beragaz bakeak egiteko opa deusuen era ezin ohea. Nagikeriak, eta gogo txarrak bost atxakia eta atzera-bide iminiko deusuez ez etorteko: batzuetan esango deusue lan estuak dozuezala, eta denpora asko galdu bear dozuela misinora etorrita; beste batzuetan burura emongo deusue, ea zer egingo dozuen emen ordu t'erdian misionisten kontuak entzuten, eta onetarikoa beste milla gauza. Diabrua bere ezta lo izango ea galarazo al baleizue arimako ondasunak. Baia zeuek kontu egin bear dozue eze, bear bada misinora etortean dagoala zeuen betiko salbaiziñoa; eta deritxat eze, alan izango dala zeuen arteko askorentzat. Lanak barriz, goxagotxu yagi, bearrari gogoz ekin, eta alan aurreratu ta biribilduko dozuez. Eztozue eguño entzun izango misinora etorteagaitik inor pobretu ta meetu izan dala, edo arto ta gari gitxiago artu izan dala. Ai! balegoz or alboko erriren baten ilteko zezen entzute andiko batzuk, nonbaitebere elitzake lan esturik izango: elitzakio luze eretxiko ango egon bearrari.

Baita bear bada bateri bateri entzungo deusazue geuk misionistok argiroegi berba egin daroagula, askoren begiak pekaturako idigi daroagu-

zala. Baia ori diñoenak eztabe misinora denporan (aldian) konfesonario andirik berotu. Geu legez orko ol arteetan yarriko balira, ikusiko leukee ez geure esanetatik pekatu barriak egiten dituezala, ezpadaze geuri entzunda konfesetan dituezala geuri entzun baño leen egin zituezanak, eta inos konfesetako biotzik izan eztabeenak, uste izanik eze konfesearek alango pekatuto tzar andien barririk eztakiela, edo ibilirik bein pekatu badireala, bein eztireala, beti biotzketaz, beti euren barruko kezka, baia bein bere esaten asartu bagarik. Begiak idigi! eta gaurko egunean! Nori? Nori gero? Ai! Larregi izan doaz errietan gazteai begiak idigiteko tokiak, ta lagunak. Larregi izaten dira gazteai lotsarik artu bagarik, euren aurrean esan oi direan berba nasaia, eta larregi egin oi direan zantarkeriak. Badi-ra bere guraso ardurabagako nasai (zabar) asko, bakarrean egin bear leukeena, umeak alboan dituezala, edo ez beintzat urrun urrun, egin oi daroenak. Eztozu geuk esango seigarrenekoan, berbarako, bigira edo zelai batu baten egiten dan amarrenik. Eta beste aldetik barriz guztientzat egiten danean, guztien onari begiratu bear yako, eta ez alango uste-ezeko norbaiten kalteari, diño Martxant yakitunak. Alan bada onelango ipuiñai yaramon bagarik, eurrez, eta ertzean, eta bide beteetan etorri beartzare misinora santura; ergoienetan, eta basetse goietan bat itxi etsea yagoteko, eta ganeko enparaduak sermoira.

Eta etorte au zeuen onik andienerako izan dedin, yakin bear dozue zelan etorriko zareen, zelan egongo zareen, eta arantzean zer egin bear dozuen. Onantzean eta arantzean etorriko zatee gisasemeak gisasemeetara, eta emakumeak emakumeetara, ez nasteen, eta ez batzaan. Eztiñot nik au senar-emazteak-gaitik, ez guraso eta seme-alabaak gaitik, ez neba-arrebakgaitik. Ondo dirudie senar-emazteak alkarregaz; ederto gurasoak umeak alboan dituezala; eta polito ta ez deungaro neba-arreba onak euren lotsa onean datozeanak. Baia izan oi dira gazte zorapillo, gogo arin batzuk, baita urteetan gazte gazte eztirean beste batzuk, baia sentzuna gazte ta ero daukeenak, zeintzuk ez misinora santuari, ez gauzarik santuenari bere itzalik artuten eztakien, eta onelangoak gaitik esaten deusuet: eta bein danik bein ondo dirudianak ondo dirudi, eta ondo da alan egitea. Eta bideetan etzaree etorriko ipuinak esaten, ezta txantxa burristaak, eta barre eragingarriak bere. Errosario santua, edo beste oraziño batzuk esaten bazentze, ori ondo litzateke, eta ori zan antxina leku askotan egin oi zana. Beinik bein berba onak esaten etorriko zatee, eta orregaz gero misinora santurik on geiago aterako dozue, Zer egin daroa atxurlariak zerbait erein bear dabenean? Aurretiaz prestetan dau bear dan legez lurra.



Alantxe prestadu bear dira biotzak, Yaungoikoaren berbearen azia erne, azi, eta laborea emotera etorri dedintzat.

Sermoian zagozen artean egongo zaree moduz, eta ixiltxurik, barri-keta bagarik, entzuten predikadorearen esanak. Estula baletortzue, lotu-tera egin bear dozue. Baakit nik ezin beti egin izaten dala, baia askotan ikusten dana da, batek estula badagi, besteak bere alkarren leian legez egin bear izaten dabeela. Gero galduten dira berba asko, edo beintzat ezta ain ondo entzuten, ez eta ain gogoz bere. Loak bazaroaze, lo ori uxatu eta galarazo bear dozue, eta albokoak lo badakutsuez, iratzartu, baia moduz eta iñori barrerik eragin bagarik. Zetarako izango dozue misinora etortea, gero sermoian loak artuta sangilika egongo bazare? Ume titikoak bere misinorako eztira onak: aek gaixoak eztakie asko zer egiten dabeen, eta onik onenean negarrez asten dira: eta predikadoreari galarazo, entzulaai galarazo, eta beste gauz'onik estabe egiten. Baia iñor nori itxi euki ezta, umeagaz baletor, ori at'ondoan paradu bear da, umetxuak negarrari emoten badeutso bere berlan kanpora urteteko. Eta onelangoak egin bear leu-keana da, umeari elexara baño leen ordu biz edo iruz leenago loa galera-zo, gero emen loak artuta ixi ixilik egoteko. Baia esana esan, oba da ume txikirik ez ekartea.

Eta ez yatzue aserratu bear geuk esango doguzanak gaitik. Ezkagoz geu iñoen kontra: ezteusku iñok gaxik egin: ezteutsagu iñori gaxik opa: guztiok maite zaitueguz Yesukristogan eta Yesukristogaitik: eta, geure eskuan balego, orain bereon zeuek besondotik artuta guztiak eurrez, garaurik bere itxi bagarik, zeruan sartuko zindukeeguz. Eta alan geuk bagenki geure berbaren batek iñori min emongo leuskiola, ez geunke alango barbarik aorik bere aterako: eta alangorik yazoko balitz, yakinik zagoze eze, yakin-ez ean, eta gogoaz bestera dala. Geure gorroto guztia da pekatuen kontra: oneek nondi-nora galduko doguzan gabiltz, oneek erri onetarik erbestetu gura gendukeez, eta orretarako izango dira geure nekeak, geure izerdiak, geure buruko-minak, geure deadarrak, geure ase-rreak, eta geure guztiak. Beste areriorik geuk eztogu, besteri kalterik egin gura ezteutsagu, besterik lotsatu gura eztogu.

Baita onen kontrako geure berbak entzuten dozuezanean, etzare ibili bear, zeuen artean batari ta besteari limosnea balitz legez zabalduten, eta esaten: onek urlia oso osoan atrapetan dau; bestea urleziari (urlinaia), ze ederto yatorkion! Ez, bakotxak bere buruari ondo yatorkana, beretzat legez artu, kontu eginik a bere onerako esan dala, eta besteai bake bakean itxi. Ai! alan egingo balitz sermoietan, eta ez predikadoreen berbaak bata-ri eta besteari ezarten ibili, beste onaririk aterako litzateke sermoietarik.

Baia askok okerreko guztia egin daroe. Egongo da misionistea ordien kontra gogor eta irrime egiten: eta emakumeak edaten eztakienak egongo dira orduan zabal zabalik, ezpanetatik beera adurra dariela, eta biotza pozen pozez urtuten daukeela, urliari eta besteari orduko sermoia ezar-ten. Egingo dau besteren baten murmuraziñoaren kontra, eta esango dau, orretan emakumeak deungaro esateko latzak direala, eta orduan egongo dira gizonak arro arro, zabalen zabalez azalak bere ezin artu dituzala, eta emakume a, edo bestea gogoan dabeela. Esaten badau misionistek zer-bait tratu okerrean dabilbazanen kontra, beingoan diñoe askok euren artean: a bada! urliak oraingoan baaroa bear dabena. Beti izan da egia atxi-nako esakerea: iñoren buruko sitza ikusi oi da, eta norberen buruko otsoa ez. Baia ez, neure kristiñauak, geure buruari begiratu bear deutsagu, eta ez besteenari; geuretzat ondo datorrena artu, eta besteai itxi geldi geldi, eta onelan guztioentzat ona izango da misinora.

Gero sermoia ezkerre artez artez artuko dozue etserako bidea: ez ibili or etseetan sartu-urtenetan gastuak eragiten, ezta erbestekoak bere. Au erri guztietan esan daroagu, eta baakigu geuk zegaitik dan, eta onetan gustu emon bear deuskuzue geure esana eginik. Ez ibili bere ardan-gelan (tabernan) sartuten: sermoi osteko berbeteak, eta barriketeak sermoian artu zan biotzeko berotasuna, eta samurtasuna galarazoten dau. Zer egi-teko izango da azi ona ereitea, estaldu etzalako txoriak yaten badabee? Onelango ereitzeagaz ezta gose andirik kenduko. Alantxe izango da bada geuk ereiten doguzan berbakaz bere, zeuek biotzean ondo gordetako ale-ginak egiten ezpadozuez. Beragaitik etserako bidean bere, leen esan yatsuen legez, yoango zare gizonak gizonetara, eta emakumeak emaku-meetara, misinoran entzun dozuezan berba onak zeuen artean darabil-tzuezala. Eta gero gaubean, edo zeuek esan, edo gazteai eraso zeen ganean izan dan sermoia, etsean gelditu (lotu) direanak bere guztia galdu eztagientzat.

Onezaz ganetik misinora arteko egunak penitenziatzko eguntzat artu bear dozuez, eta euretan besteetan baxen zertxubait geiago egin bear dozue. Ondo izango da gauza orretarako barau bat edo beste egitea; elexa inguruetoak egunean eguneango mezea entzutea, eta baserri goikoeta-koak, eta guztiak zeuen lanetan, eta bearretan diñarduzuela, errezu batzuk esatea. Onetara dator bere, eta penitenzien artean egin ziñaie leen esan deutsuedana tabernetan, eta etseetan ez ezer (arean) artuteko. Gogora ekarri bear dozue Ygkoa zeuen pekatuakgaz aserratu izan dozuela, eta bear bada urte osoetan bizi izan zareela. buruan ulleak gaña pekatu mor-tal egiten dozuela. Eta Yaun au datortzuenen zeuekgaz bakeak egin gura-



rik, zeuek bere zeuen aldetik aleginak egin bear dozuez zeuen biotzak bigunduteko, eta aren deiari ondo erantzuteko.

Orain bada baakizue zer egin bear dozuen misiñora zatozenez, zelan egon bear dozuen sermoian, zelan biurtuko zareen etsera, eta zer egin bear dozuen misiñoak dirauan artean. Egizue bada alan, eta deretxat ze orregaz Ygkoak esku beteakaz botako dituzala zeuen biotzetara bere grazia, bere argitasunak, ta bere laguntzaak, eta pekatari asko eta andiak sartuko direala Yaunaren bideetan. Alan gerta dedintzat imini daigun bitarteko geure ama Maria santisimea.

Geure ama lastana, geure biotzeko guraso maitea, ara emen non batu direan N.-tarak, baita inguruetaoak bere zeure semeagaz bakeak egin gurarik. Bai, ama, bai, lotsaturik gaukeez geure pekatuak, ikusirik ze andiak, ze eskergaak, eta zeinbat direan. Guztioen parkaziñoa gura genduke, eta orretarako gatoz zeure oñetara, zeuri eskatuten, arren bada izan zakigula zeure seme orregaz geure bitarteko. Zeuri emoten deusuz elea ama santuak geuri gozo egiten yakuzan izen ederrak. Zeu zara aren esakeran pekatarien iges-lekua; zeu larri dagozanen poza eta zabaltasuna, zeu kristiñauen laguntasuna. Oneek yakiteak biotza zabalduten deusku, eta uste bete-betean gatoz zeugana, pekatari andiak izan arren, ez gozuzala zeure oñetarik botako. Eta zeu bitarteko zaitugula guztia egintzat egiten dogu. Zer ukatu leio semeak amari? Zer ukatu Ygkoak bere sabelean erabili eban amari, bere ugatzagaz azi eban amari? Bear dogu argitasuna geure pekatuak ezagututeko: bear dogu damuaria geure pekatuakgaiti negar egiteko; bear dogu biotz andi bat urrengoan alangorik ez egiteko gogoak artuteko. Orreek guztiok eske gagoz. Bakizu zeuk ondo zeinbat balio daben geure arimeak. Ea bada ama maitea...

[EGIN PENITENZIA]

Paenitemini igitur, et convertimini
ut deleantur peccata vestra. Act.3.v.19.

San Pedro apostoluak Israeldarrai bein baten egin eutsen sermoian, mosuan esan ezker zelan eurak il egin eben Yaungoikoaren seme Yesukristo, bere bizian pekatuak eta erruren izpirik izan ez ebana, berba egin eutsen onelan. «Neure anaiaak, baakit nik, alan zeuek, alan zeuen agintariak ondo ez yakinean ori egin izan zenduela. Egizue bada penitentzia, eta biurtu zaiteze Ygkoagana, pekatuen parkaziñoa izateko». Auxe berau esan

bear deusuet nik bere zeuroi neure entzula maiteoi. Egizue penitentzia pekatuen parkaziñoa izateko. Bai, bada, zeinbat eta zeinbat izango ete dira zeuen artean pekatu eginda Yesukristo geure yauna barrero kurutzan yosi izan dozuenak, eta ez bein, ez birritan, eta bai askotan eta askotan? Zeinbat gazte izango dira Madaleneak legez euren nasaikeriak errian berba-leku andia imini izan dabeenak? Zeinbat emakume bai neskatillak, bai andra ezkonduak, Samaria-koa legez bear eztanagaz, eta euren eztabenagaz ibili izan direanak? Zeinbat gisaseme ezkondu eta ezkontzagakoak, Herodes legez aragizkoetan ondaturik bizi direanak? Zeinbategi Ygkoa ofendidu izango dozue san Pedro berak aldi baten legez zeuen biraoakaz, yuramentu okerrakaz, eta ernegamentuakaz? Zeinbategi Zakeok legez lortu izango dozuez zeuen diruak lege eztan bidetik, eta artu-emon eta salduerosi okerrakaz?

Izango dira seme-alabeen artean, baita berein, gurasoiak lotsa txarra artuten dakienak. Izango dira, baita ez gitxi gitxi, gurasoen artean euren umeak bear dan Ygkoaren bildurtasunean aziten ezituezanak. Izango dira ezkonduen artean bere banakaak alkarregaz bear leukeen bizitza ona eztaroenak. Eta azkenean izango dira asko ta asko aserrekor-okasiñotsuak, ordiak, loiak, lapurrak, deungaroesalaak, eta beste era askotako pekatariak. Baia, zer diñot nik: «izango dira, izango dira?». Zeinbat ete dira geure artean nondi andi zetan edo atan pekatu egin eztabeenak? Eta, zeinbat pekatu egin ezker bear dan konfesiño ona egin izan dabeenak, eta lotsaz dala, bildurrez dala esan ezinik ibili ezituezanak? Ai! Orain ementxe berton agertuko balituz Ygkoak geure guztioen barruak, zelan ikusiko ete gendukeez geienen arimaak! Bai geienak zeuen pekatuak direala medio (lasio, bitarte) galdurik daukazue Ygkoaren grazia ederra, galdurik daukazue zerurako zeunken eskubidea, galdurik daukazue zeuen Ygko lastana, eta oraintxe elea au beira baletor eta guztiak azpian zapaldu, deretxat eze geienak infernura izango ziñatekezela. Eztiñot nik au albatoan eta destaiuan; lar bere lar dakit zelan bizi direan gaurko egunean kristiñaurik geienak.

Bada kristiñauak, san Pedro-k ziñoana: egizue, egizue penitentzia, eta biurtu zaiteze Ygkoagana, pekatuen parkaziñoa izateko. Baakit nik ondo ez yakinean egin izan dozuezala zeuen pekatuak. Batzuk bestearen kontrako su beroak itsutu zinduezan bengaia artuteko: beste batzuei odolaren berotasunak, edo iñoganako on-eretiak itsuak lañotu eutsuen burua lege etzirean zantarkeriak, eta nasaikeriak egiteko; beste batzuk premiña estuak, eta gauzea bearak eraginda iñoena egin zenduen: eta geienak egin izan dozue pekatu, kontuak ondo atera ez izanagaiti: munduko gauzen



keagaz itsuturik, zerukoai bear zeunkeen begi argiakaz begiratu ezteutsa-zuelako, eta nekez izango da zeuen artean pekatu egitea gaitik, beste bagarik, bear eztana egin izan dabenik. Onek pekatua garbituten ezpadeutsue bere, atxakia apur bat baukazue orregaiti Ygkoaren begietan, eta yaun onek zeuen ez yakinari, eta argaltasunari begiraturik lasterrago, eta errazago parkatuko deutsuez pekatuak beragana biurtuten bazare, osterantzean, ondo yakinaren ganera egin izan bazendue baño. Penitentzia bada, penitentzia: biurtu zaiteze biotz-biotzerik Ygkoa gana penitentzia benetako baten bitartekoz, zeuen pekatuen parkaziñoa izateko.

Ezin orretarako opa lekikezue orain daukazuen baño abegune obarik. Aita Yaungoikoa deiez yagotzue, eta berak yuramentuaren beian esaten deutsue eze, gaistoari onduten dan egunerik eta geiago ezteutseela kalterik ekarriko ordura arteko gaistakeriak. Ygko Semea izango dozue, eta dozue bere Aitagaz bitarteko ederra eta esku andikoa, zeuek gaitik beti eskatu bai eskatu dagokana. Espiritu-santu yaunak dei gozoak egiten deutsuez zeuen biotz barruan, eta emongo deutsuez penitentzia egiteko, eta onduteko bearko dozuezan laguntza guztiak, zeuek zeuengan dagoana egiten badozue. Mariasantisimea izango dozue zeuen ama gozoa zeuek gaitik bere Seme laztanari eskatuko deutsana, eta Aingeru santuak, eta zeruko Santu-Santaak izango dozuez beste ainbeste bitarteko, zeuek gaitik Yaungoikoari erregututeko.

Ea bada, pekatari maiteak, biotz zabala. Oraintxe da zeuen aldia: auxe da Igoko gozo-bigunak zeuei bere ontasuna erakusteko izentadurik izan daben aldi ederra. Onetarako biraldu gaituz neure lagun maitea eta ni erri onetara, zeuei adietan emoteko, bene benetan ondu gura badozue, bera prest dagoala, baita ondo prest, zeuei parkatuteko, eta zeuen adiskide egiteko. Pekatuz atsiturik, eta bete beterik bazagoze bere, ezta ardura: orain artean zeuen arimeen salbaziñoagaz itxirik edo erdi itxian, eta ernegatu aginean bizi izan bazare bere, ezta ezer orregaitik. Yaunak eztau gura pekataria galdu dedin eta betiko il dedin; gura dabena da pekatari ori ondu daiteala, eta betiko bizi daiteala. Itxi gura badozuez bada itxi orain arteko bide okerrak, lengo pekatuak beti betiko agurra egin, eta Yaunaren naia egiten dozuela, berak erakusten deutsuezan bide artezetatik ibili, berak artuko zaituez, berak parkatuko deutsuez pekatuak, eta gero eriotzea ezkerro eroango zaituez zeruko gloriara.

Zetan zagoze bada, pekatariak? Zeintzuk dira zeuen gogoak? Baia, zetan nago ni? Gogo-gogotik, eta egarri andiagaz gura izan dozue misión santu au, eta esan giñaike eze, geu etorri izan gareala erri onetara alan gura izanik bertoko kabildu beneragarriak, yustiziako Yaun prestuak, eta erri-

ko zar-gazte, andi-txiki eta umegiñoak. Gogo onagaz asi zare etorten, eta nago eze aurrera bere aleginak egingo dozuezala etorteko. Eta, eztozuela Ygkoagana biurtu gurako? Eztozuezala zeuen bizi-moduak ondu gurako? Ez beintzat, ezteust niri biotzak alangorik aginduten (emoten). Nik deritxot eze, alegin guztiak egingo dozuezala konfesiño on bat egiteko, zeuen arimaak garbituteko. Ygkoaren bideetan sartuteko, eta aurretantzean onak izateko. Eta gogo obeagaz egin dagizuentzat, esan bear deutsuet eze, elexa ama santuak bere ori gura dabela, eta orretara zeuek ekartearren, misión denporarako induljenzia ederrak, eta parkamen andiak emoten deutsuezala. Ara zelangoak.

Lelengo bada, etc.



2. ARIMEAREN BALIO ANDIAREN GANEKO SERMOIA

(B, 203-208. or.)

Cognosce justitias, et judicia Dei.
Eccli. cap. 17. v.24

1. Izan zaitez zure arimearen erruki Jaungoikoari gustu emonagaz, dirausku Espiritu Santuak. Au egingo dogu bere lege eta agindu santuetatik ibiliagaz: orregaitik esan ezkerro Eskritura Santeak biurtu gaitezala Jaungoikoarengana, itxi daiguzala pekatuak, iñes egin daigula euren bide ta pelleburuetatik, dirausku bertatik ibili gaitezala Jaungoikoaren lege eta aginduetatik. Auxe da bada geure arimearen erruki izaitea, eta Jaungoikoari gustu emoitea. Obeto ta obeto erruki au eukiteko, eztaukagu begiratu baxen ze laztan izan daben geure arimea, eta ze erruki andia euki deutsan, zer egin daben beragaitik, eta noragiño eregi daben, eta auxe izango da asko ez bakarrik al daigun guztia arimeagaitik egiteko, baita ezagututeko bere ze gitxi egiten dogun guk beronegaitik. Auxe da gaurko egun onetan esan gura neuskezuena puntu bitan. Lenengoan zer egiten daben Jaungoikoak geure arimeagaitik. Eta onerik ezagutuko dozue bigarrenean ze gitxi egiten dogun guk beragaitik. Jaungoikoaren arimeaganako karidadearen anditasuna, eta gure ardura gitxia beraganako, izango da sermoe guztiko geia.

Lenengo zatia

2. Beti betiko amodioagaz maite izan zaitudaz, dirausku Jaungoikoak Jeremias-en aotik. Ez egoan oraindikoaeren luurrik, ez egoan zerurik, ez egoan beste gauzarik Jaun andi au gukanako amodioan errerik egoanean. Oneek egin zituzanean guretzat egin zituzan. Aingeruak izaitea artu be eben gure gordetzalla ta yagola izaiteko artu eben. Zeruak zabaldu bazituzan, gure bizilekutzat zabaldu zituzan. Luurrik ifini beeban, guri yanari emoiteko ifini eban: txori, animalia, arrain edo beste gauzarik bada-kusku, guztia da guretzat. Eta alan gizona bere eskuetatik bere antz edo irudira atera ebanean guztien agintari egin eban, eta direanak imini zitu-

zan bere agindura. Ezagutu eta eskerrak emon bearrean lenengo gizon onek neurribako mesede oneek gaitik, yagi zan bere egille andiaren kontra, eta artu zituzan asmuak bera beste izateko, eta ara non galdu eban eukan nagusitasuna, eta gelditu zan Demonioaren menpeko edo esklabo eginik. Ze kastigu merezidu ez eban Adanek pekatu onegaitik? Baia, o Jaungoikoaren gizonaganako amudio paregabea! Atera eban pekatutik eta biurtu eban bere adiskidetasunera. Esker deungakoa izan bazan bere ongilleaganako, etzirean obagoak izan bere Semeak. Ez kastiguagaz, ez palaguagaz, ez mesedeakaz ekarri al izan zituzan Jaunak bere amodiora. Ain modutan egoan lur guztia pekatuz beterik ze, etzan Noe baño beste onik aurkituten mundu guztian. Kastigetan dituz uriolakaz, eta eztira gizonak obago: emoiten deutso munduari bere legea, erakusten deutse zelan bizi bear dabeen, eta eurak eztabee gorde gura bere agindurik. Egiten dituz miraari arrigarriak euren Jaungoikotzat euki dagien, eta eurak adoretan dituez urregorri, zirar (edo urre), arri eta zurezko idoloak edo talluak. Ikusirik Jaun andiak ze bide galduetatik ibiltzazan gizonak, biralduten deutsez bere serbitzalle, Igarla edo Profetak esan daioen biurtu deitezala daroen bidetik betiko galduak izan ezteizan: datozala atsera benetako Jaungoikoagana; emon daioela zor deutsezan egikera edo obra onen frutu gozoak. Baia eurak ez bakarrik etzituezan enzun gura izan Patriarka, eta Profeta oneen deiak, ezpabere batzuk azotadu zituezan, beste batzuei arrika egin eutseen, eta beste batzuk modu askotara il zituezan. Etzan orregaitik bere akabadu, ez amaitu Jaungoikoaren errukia: bialduten dituz beste bere kriadu batzuk ea ondu al daitezan gizon galduak, esaten deutse oneek emon daioela Jaunari zor deutsen adoraziñoa, ezautu daiela euren yaube eta ongillatzat, auxe eginagaz beste bagarik zorionekoak izango direala, euren pekatuak andiak badira bere, eztaielai bildurrik artu, ze itxiten badituez darabiltzezan bide okerrak eta badatoz beragaz, berak parkatuko deutsezala, egin dabeen gatx guztiak; eguzkia baño bere garbiago egingo dituzala, bere beso artean estuturik mozu ta laztan gozok emongo deutsezala eta bere Seme maite egingo dituzala. Baia gogorturik gizonak eztituez enzun gura Jaungoikoaren bigarren bialdu oneek, botaten dituez, ilten dituez, (banatuten, ta) birrinduten dituez. Biralduen dituz Jaunak bere otsein edo serbitzalleak irugarrenez, laugarrenez, bostgarrenez, eta bardin egiten dabee eurakaz.

3. Ikusirik Jaungoikoak gizonen itsumendi au, ifinten da pensetan legez (esate baten) ea ze modu artuko ete daben gizonaren biotza bigunduteko; eta alan diño: zer egin nei gizona galdu eztedin? Ze modu artu neike gizona neure adiskide egiteko? bere borondatea irabazteko, neuga-



na ekarteko, zorioneko eta neure Seme egiteko? Emon deutset nire legea, eta eurak eztabe artu gura izan: dei egin deutset, eta ezteuste yaramonik egin: bialdu deutsedaz neure serbitzalleak mandatar, baita eurak il dituez. Ze modu artuko dot, bada, ain laztan dodan gizona galdu ze dagidan? Ara or ze ardura andia daukan Jaungoikoak gure arimeagaz, ze atsakabe andia emoitén deutsan gu galdu bearrak. Baia zer deritxazue egiten dabela, edo ze modu artuten dabela gu beretzat irabazteko? Arritu ta ikaratu zaiteze lur, zeru eta Aingeruak. Neure Seme maitea biraldutera noa, diño bere artean. Zetara edo zetako biraldu gura dozu, Jauna, zugaz izaite bat, Jaungoikotasun bat, zugaz gauza bat dan Seme bakarra? Da benturaz kastigetakó gizonaren zukanako lotsabakotasun neurribagea? Bialduko dozu beragaz naste Aingeruzko exerzitu ikaragarriren bat zatitu daiezan zure serbitzailleak il dituezalako? Ez, Kk., ez, eztau bialdu gura Jaungoiko andiak bere Semea munduak euki deutsan esker deungea bengetara, larregi bere lar gura deutso gizonari onelango gauzarik egiteko; bialdu gura dau aurkitu dagian galdu zan arimea, osatu daiozan bere zauriak eta gatxak, aberaztu dagian miraarizko ondasunakaz, eta arturik bere lepoan, eroan dagian bere etxera, an betiko zorion eta gozotasun artean bizi dedin. O Jaungoiko baten gure arimeaganako amudio parebagea! O kari-dade neurribakoa! Nekez sinistu leiteke fedeak erakutsiko ezpaleu ain ardura andia emon deutsanik zeru-lurren egilleak geure arimeari.

4. Yatzen da bada zerutik lurrera Jaungoiko baten Seme bakar maitea. Baia zelan deritxazue? Ez zeruluurren egilleari datorkion anditasunagaz, ez mundu guztiaaren yaubeari datorkion majestadeagaz (itzalagaz), ezpada gure aragizko yazteko zar, urratu eta zantarragaz yanzirik, gure anaie eginik, gure pekatuak lepoan dituzala. Yaioten da ez yauregi, edo etse zabal ederretan, ezipabere abel-etxe pobre, zar, eta zatar baten; otzak ilik, kikildurik, neke eta premiña artean; bere lenengo kumea aska bat dau, bere oea lasto puska bat, eta bere gela eta salea zimaurrez edo tela-arañaz (aramauaz) beteriko animalien korta bat. Orra zelangoa dan geure billa lelengo emoten daben pausua, Zer egin ez eban ogeta amairu urtean gure onerako? Zelango ibillerak, zelango izerdiak, zelango nekeak, zelango otzak, eta beroak, zelango gose eta egarriak, zelango barauak eta gogortasunak (gogortadeak), zelango gaubela eta oraziñoak! Izanik mundu guztiaaren yaube ez eban bere etse bat non bizi, bere yaztekoa zan pobrea, guztiz ortosik, eta mundu guztia bere kontura ebalá. Batzuetan erbestetuten dabe, beste batzuetan bizitzea kendu gura deutse: orain dirautse Demonioa daukela, gero gizon ordiakaz batzainduten dala. Oneek deituten (dei egiten) deutse Moises-en arerioa, aek guzurti eta engañadorea;

eta Yudegu eta Yentilak bat eginik, artuten dituez al daiezan asmuak, eriotzarik gogor eta lotsagarriena emoiteko. Auxe zan, Ne.Kk., Jaungoikoaren seme benetakoaren guraririk andiena, ekialako bere eriotzeagaz aterako ebalá geure arimea Demonioaren agindupe eta poderiotik, egingo zituzala Jaungoikoaren eta gure artean bakeak; egingo ebalá bere odolagaz gure arimaak garbituteko bañu bat, idikiko zireala zeruko atea, egingo ginduzala Jaungoikoaren seme, eta zeruko yaubegei, ta herederu Yakinik pasiño gogorra, eta eriotza kruela geure arimearen onerako zana, poz andi bategaz, eta borondate oso osoagaz irago eban, eutsen amudioaren anditasunagaitik; poz pozik artu zituzan bost milla azote eta geiago. Poz pozik euki eban burua arantzazko koroe gogor bategaz zulaturik. Poz pozik euki eban bere gorputz guztia burutik beatzera zauri bat eginik. Poz pozik emon eban bere zanetako odol guztia. Poz pozik igon eban kurutzera, eta poz pozik galdu eban bere bizitzea untze gogorrakaz yosirik. Auxe zan bere guraari guztia, eta alan sarri askotan esan oi eban, bere biotzeko guraari guztia gugaitik bere bizitzea emoitea zala.

5. Ar-or, Kk., zeinbatean euki eban Jaungoiko batek gure arimea. Egin dau eguño gurasok semeagaitik, edo semek bere gurasoagaitik, mundu guztiko Jaunak gure arimea gaitik egin daben beste? Eztakit aurkitu al daikezuen. Baita asko eretxi eutsan gure Egilla andiak oneri? Ez, N^e.E^a. M^k, ez: aurrera daroa bere gure a?imearen ganean daukan ardurea. Igoten dau zeruetara gure bitarteko Aita betikoagaz izaiteko. Antxe gugaitik erregututen deutso, gure erruki euki dagiala. Orretarako erakusten deutsaz gugaitik artu zituzan zauriak; eta seguridade andi bat euki daigun dirausku ze, ezteuskula ukatuko bere ta gure Aitak bere uzenean eskatuten deutsagun gauzarik. Izanik ain ona guretzako bera lango bitarteko bat zeruan eukitea, orregaitik bere nekatu ez gengizan bere yoateak, itxi euskun Alexa bat zein garbitu eban bere odolagaz, guztiz garbi, eder, eta orban ta loitasun bagea izan zedin, artu eban bere esposa maitetzat, aberazu eban bere bizitza, pasiño, eta eriotzako merezimentuakaz. Ifini zituzan bere ondasun guztiak nai genduzan guztian artu gengizan. Onerarako idigi dituz bertan zazpi Sakramentuak, zazpi iturri ugari legez, zeintzuei darioezan zeruko doe, ondasun, eta graziak gura dogun guztian eurakaz aberaztuteko gure arimaak. Ezteusku iñok galaazoten euretara elduten, eta darioen Jaungoikozko ur gozo eta zerukoagaz naiko bestean aseten; ez yaku onetarako dirurik eskatuten, doa doarik emoten yaku zeinbat gura. Gizonik aberatzenak, Erregerik andienak, eta mundu guztiak ezin emon leikegu Jaunaren iturri oneetan emoitén yakun beste onda-



sun. Eurak irabazteko eztozu mundu onetako ondasunak batuteko igaraiten dan lainbeste neke igaro bear: eztaukagu zer emon izardirik, eztaukagu zer nekatu, ez adikatu. Bein irabazi ezkeru, geuk gura ezipadogu, ezin kendu leikegez, ez lapurrak, ez Demoniñoak, ez infernuak, ez eriotzeak. Zer geiago egin leikean Jaunak gure arimeagaitik? Ze ardura andiagorik euki leikean? Ze amudio erreagorik erakutsi leikion? Bada orregaitarren bere gitxi eretxi deutso oneri guzti oneri, eta bere neurri bagako yakituriagaz asmau dau gizon eta Aingeruri buruak emon bere ezin al leikion modu bat geiago ta geiago adierazoteko deuskun amudioa, eta zeinbetean daukan gure arimea.

6. Ain zan andia ongura au ze beti gura eukean gugaz egon, eta alan gatx egiten yakan gu bakarrik itxita zerura yoatea. Baia ekusan ze, guztiz konbenidu yakula bera yoatea Aitaren aurrean gure bitarteko izaiteko, eta guretzat lekua prest iminteko: gura euskun mesede neurribako au guri egin zerura yoanagaz, baia gogor egiten yakon gu bagarik egotea puntutxu bakar baten bere. Eta, zer deritxazue egiten dabela zerura yoateko eta gugaz egoteko? Nok asmadu eukean onelango gauzarik, Jaungoikoak berak bere kabubako yakituriagaz ez izanik? Egiten dau Altarako Sakramentu Santua gugaz betiko egoteko, berak esan ebana legez. «Aror zelan nagoan zuek munduaren azkeneragiño». Yoan zan zerura gure arimearen ardurea eukiten ta lotu zan gugaz gu bera bagarik egon ez gaitzean, urrago euki daigun etzan leku baten bakarrik geratu mundu onetan egon zanean legez; errian errian aurkituten da. Orra non daukazuen, ortxe ortxe, Altara orretantxe daukazue. Gura dozuen guztian eztaukazue beragana etorri baxen, beragaz egon, berari berba egin, eta beragaz poztutera eldu. Onetarako dago Altara orretan, gure lagun eginik, eta au guzti au gitxi bailitzan legetxe, ain da andia gure arimeari deuskan amudioa, ze gura dau zeuk zeure barruan euki dagizun, eta zeu bat izatera eldu zaitez. Naien daben gauzea da Altara orretako maira eldu zaitezala, artu dagizula zure aoan bere gorputz eta odola, iraga dagizula zure zamatik bularre-
ra, zeugaz estutu dagizula, eta beragaz gauza bat izatera eldu zaitezala.

7. O Jauna, o Jauna! zer esan ginaike ainbeste ardura zagan gure arimeaganako ikusirik? Ez zeuntsan asko eretxi mundu guztia guretzako egiteari, gure agindura guztia ifinteari, eta gure ardurea eukiagaz ez zeuntsan asko eretxi gure pekatuak zure ganean arturik eurakgaitik, eurak gaitik zure odol eta bizitzea, eurak gudanik kendutearren emoteari, ezteutsazu asko eretxi zure Aita eta gure artean bakeak egiteari, zeruko ateak idigiteari, eta betiko erreinu bat guretzako irabazteari. Ementxe, ementxe geratu yaku geure ogi, geure ardao, geure yanari, eta edaari eginik, guk

artu daiguzan, eta zeu izaitera igaro gaitzean. Asko edo balio dau gure arimeak, bada au guztiau egin dozu bera zuretzat erostearren. Bada zuk ainbestean euki badozu gure arimea, eta ainbeste egin badozu beragaitik, zer egin bear eztozu guk? Eta alan da guzti, ain gagoz itsuturik ze, onegaz guzti onegaz bere nagi gagoz beragaitik ezer egiteko. Zorakeria andia benetan; baia larregi bere lar yazoten dana. Auxe da neure Sermoearen

Bigarren zatia

8. Itanduko baneu pulpitu onetarik ea gorputzaren ala arimearen ardura geiago euki bear dogun, deritxat guztiok ao bategaz eranzungo zeuskedala: Jauna, bada, ori nok eztaki? Leenago da arimea gorputza baxen, ze arimea galduten bada, guztia galdu zan, eta eztabe arean bere balio mundu onetan aberatz ta Errege bera izaitera arimea infernuan yaus-
ten bada. Auxe diño mundu guztiak, guztiak dauke egia au sinisturik. Baia orregaito ezer gaitik bere ezta gitxiago egiten arimeagaitik baño. Baderitxazue au ponderaziño andiren bat dala, begiratu egizue zer egiten dan gorputzagaitik, eta onexegaz bakarrik esan bearko dozue egia diñodala. Nok egiten dau arimeagaitik, diruak irabaztearen egiten dan lainbeste? Gizon bat aberastu gura bada, ze lanak igaroten dituzan! Gau ta egun (egun ta gau) dago pensetan ze modu artuko, geien irabazteko; ze saldu-
erosik ondo urtengo deuskan, zelan urten leian tratu onetan, edo bestean, eta bein onetarik batera gogoz itzuli ezkeru ezta atseginik artuten, batzue-
tan galdu, beste batzuetan erosi; orain yoan batera, gero etorri bestera. Irapazi on baten itxaromen edo esperanzarik badauko, itxiten da etxea, itxiten da familia, itxiten da atsegina, iragoten dira otzak, beroak, euriak, edurrak, ekatxak eta afrontu guztiak; botaten da burua itxasoaren erdira onzi baten pensura; fietan yako bizitzea ol zati bateri, Ze gaubelak! ze nekeak! ze gose ta egarriak! Ibiltan da erririk erri, uririk uri, eta probin-
ziarik probinzia, eta au guztiau ontzat eroaten da diru zati bat irabazte-
aren bada; eta osteria osteria okasiñorik bada, beste onenbeste batuteko, poz pozik igaroko dituz beste ain beste. Barriz arimako ondasunak irabazteko, ze atserakuntzea! Aste osoak igaraiten dira beragaitik ezerbere egin bagarik, ez gomutau bere bagarik. Esango balitz parkamen edo induljenzia andi bat dagoala urlia Elexea bisitadu ta ikusiagaz, eranzungo litzateke leenago dala bearra egitea. Elduten da yaieguna, enzuten da



meza bat arrastaka, al deitean arinena, eta orra arimeagaitik egiten dan guztia.

9. Gexotuten bada gorputza, betor bertatik medikua edo barberua gexoak indarra artu baño leenago, laster artuten da osasunagaitik botikekoa, aginduten bada edatekorik garratzena bere, topetan da zegaz pagadu, eta gatxa igaroten bada, ondo osatu artean itxiten da tabernea, itxiten da yolasa, itxiten dira zaleago direan gauzaak. Austen bada azurren bat, urteiten badau oiñ, kadera, esku edo besoak, billatuten da nok imini, eta min andiak bear badira, direanak ontzat artuten dira, azurra, oña, besoa, edo eskua konpondutarren. Yausten da arimea gexorik pekatuan, eta eukirik osagillea ta osasun-geia, edo medikua ta medizinea ezta ezer egin gura: egunerik egunera, asterik astera, ilerik ilera eta urterik urtera isten da gatxagaz egoten. Elduten da konfessoreagana, zein dan arimako mediku osagillea, astun eta garratz egiten dira aginduten dituzan osasungei edo medizinar. Agindu badagi itxi deila tabernea, ezteila yoan yolasera, biurtu dagiola yaubeari ostu edo kendu yakona, parkatu daiola gatx egin deutesnari, edo deungaro esan dabenari: «ezin osasungei edo medizina au artu leiteke, laarregi estututen dau konfessore onek, ez nas beragana geiago biurtuko». Dirautso Konfessoreak osatu arren arimea, itxiten ezpadituz arako leen gexotu ebeen gauzaak, arako berba aldiak, arako adiskidetasunak, arako ibillerak, barrien barri geixotuko dala, pekatuan beste bein yausiko dala, ezta yaramonik egiten; ezta artu gura arimearen onerako osasungei edo medizina oneek. Zer esango dot, bada, gorputzari yanaria, yaztekoak, eta beste bear dituzan gauzaak emoiteko artuten direan neke eta arduraak gaitik? Zelango izardiak! zelango nekeak! zelango euriak! zelango beroak! Zer egiten ezta? Goxerik arratsera zagoze atxurra, laiea, yorrea, edo beste onelango instrumenturen bat eskuan dozuela, eguzki begian, erre eta kiskilduten; gitxitan daukazuez euriak, gitxitan izotzak, gitxitan edurrak, eta gitxitan zeuen nekatu eta adikatuteak, ze artuten badozue laborea, area, bedarra, edo matsa, ontzat eta pozik daroazuez egin dozuezan bearrak, eta emon dozuezan izerdiak. Nok egiten dau beste onenbeste arimeagaitik? Zer esango zeunkee aginduko beleutsue bear guzti au egin daizuela, neke guzti oneek igaro daizuezala, izerdi guzti oneek emon daizuezala arimeagaitik?

10. Eztirautsut, Ka., eztaizula bearrik egin gorputzagaitik; errazoe andia da bear egitea, ze auxa da Jaungoikoak Adan-eri, eta Adan-egan guri guztioi agindu euskuna, esan euskunean: «zeure arpegiko izerdiagaz yango dozu ogia». Eta S. Paulo Apk. diño ze, bearrik egiten eztabenak eztagiala yan bere. Gura neunkeana da, ezteila bearra gorputzarentzat

izan, aazturik daukezuela arimea. Gauak, egunak, asteak eta urteak daroaguz gorputzak; beretzat bearra, beretzat etsea, beretzat oea, beretzat yatekoa, beretzat nekea, beretzat bearra, beretzat guztia; arimea, barriz, aitzurik: eguño bere gomuta eztogula, gorputzari egunean egunean emoitzen yako yaten goxean, eguerdian eta arratsean, eta arimeari sei ilabete, eta ameneko urtebeterik urtebetera Sakramentu ori, zein bakarrik dan bere yanari ta edaria, eta orduan bere ez arimearen ardurea daukalako, ezpada txantelen bildurrez, eta Abade Maisua Jaunak kastigadu ze dagian. Au da, Kk., arimea leenago izaitea gorputza baño? Au da arimearen ardura geiago eukitea gorputzarena baño? Eztakit azartu edo atrebiduko zareen baietz esaten. Baia, ai Kk.! Ze zorakeria andia, ze itsumendi negargarria! Konfesetan dogu, sinistuten dogu arimea Jaungoikoaren alabea dana, gorputza, barriz, lur zati bat, simaur, eta satz puzka bat baxen eztana eta alan bere gorputzak daroaguz ardura guztiak eta arimea daukagu azturik. Esan egidazue, ezpabere, sartuko bazine Jauregi edo Palazio baten, ikusiko bazendue otsein menpeko, edo kriada baltz ezain bat, seda, urregorri, zirrar edo urrezurizko soñekoakaz apaindurik sala edo estradu baten yarririk etseko guztiak aora begira zer aginduten daben bertatik egiteko, eta beste aldetik etseko andrea, Yauregiaren yaubea berez guztiz ona, ta ederra erropa zar etendu batzukaz, bazter baten sarturik, iñok yaramoitzen ezteutsala, goseak ilik, zer esango zeunke? Etzeunkee esango au egiten dabenak eztaukala sensunik, zoro dala eta eroa? Bada beste onenbeste egiten dozue zuek Arimea da Jaungoikoaren Alabea, zeruko yaubegei ta herederua, eta gauza guztien yaubea, da guztiz ederra berez Jaungoikoaren antz edo irudira eginga dalako. Gorputza da arima onen otsein eta agindukoa, baita onetarako egin eban, egin, Jaungoikoak; ezaina da, bada ezta luur zati bat, simaur eta korta, itz puzka bat, eta usteltasuna baño; eta alan da guzti gorputz au apainduten dozue al daizuen guztia, zeuen sensunak dagoz begira zer aginduten daben berpertatik egiteko; beretzat dozuez, beretzat atseginak, beretzat yan edanak, eta beretzat al dozuen guztia, eta arimea daukazue bazter ta okelu baten sarturik kausiñorik egin bere bagarik eta goseak ilik.

11. Baia, zer diñot, gorputza? Zeuen abere edo animalien ardura geiago daukazue arimena baño. Egunean egunean emoitzen deutzazue yaten: gexotuten badira, austen baiake oiñ edo besoren bat, bertatik alegiña egiten dozue; galduten baiatzue idi, bei, zaldi, aari edo aume bat, edo auntzen bat, zabiltz mendirik mendi bere atsean. Ze naibagea, ze nekea, ze tristezea bera galdu dalako! Galdu da arimea, eta eztago sentimenturik, eztago atsakaberik, edo penarik; eztago ardurarik billatuteko. Zorakeria



neurribakoa bene benetan, diño S. Agustin-ek: galduten da asto bat, bertati doaz bere billa; yausten da trokaren baten, guztiak doaz bera ateratera. Jausten da arimea pekatuaren trokan, ezta yaramonik egiten. Lotsaz beterik euki bear gendukez, asto bat arimea baño geiagotan eukiteak, dirausku S. Juan Krisostomo-k. Ezpabere ikusi daigun Jaun onegan ze andia dan gure arimearen balioa. Aurkitu al zinaikee zeruan ez lurean Jaun onen beste balio daben gauzarik? Sinistuten dozue gizon sensun bakoa Jaungoiko benetakoa dana kurutze onetan dakusun au? Bada yakin egizu eztabela auxe baño gitxiago balio zure arima orrek, bada onexegaz erosia izan da; Jaun onek erosi zinduzan ez zirarragaz, ez urregaz, ez arri baliotsuagaz, ez eguzki, irargi edo izarrak gaz; ez AingerurenATEGAZ, ezpabere beronen odolagaz, Eta atan bere ain gitxitan eukiko dozu zeure arima ori? Nor engañetan ete da, ala Jaun au ain bestean erosi dabenean, ala zeu ain gitxitan daukazunean? Kk., ez gaitazan ain zoroak izan; eza-gutu daigun gure arimearen balioa, eta arturik damu andi bat, ain itsuturik egon garealako, esan daiogun Jaun oneri: Neure J.K° Jauna.

3. JAUNGOIKOAREN GRAZIAREN GANEKO SERMOIA

(B, 209-214 or.)

Sta in sorte propositionis. Eccli. c.17.v.24

1. Bein Jaungoikoaren adiskidetasuna, eta grazia artutera eldu bazara, zagoz sendo egokera edo estadu orretan. Ezin euki leike gizonak zorion andiagorik mundu onetan, bein emon yakan grazia ondo gordetean baño; eta alan gizonen artean aurkituten dan zorakeriarik andiena da ain yaramon gitxi egitea, Jaungoikozko doe au bagarik badagoz, bera eukiteko, eta daukeenean ez galduteko. Euki dagizuezan begien aurrean, ezagutu dagizuen zer egiten daben Jaungoikoaren graziak gure ariman, zorakeria auxe nai neunke ezagutu dagizuen; eta onetarako esango deutsuet sermoe onetan: Lenengo zer egiten daben grazia onek gure ariman; eta emetik ezagutuko dozue bigarreanean, ze gitxi egiten dozuen grazia onegaitik. Lenengoan egingo dot alegina adierazoteko ze onra eta anditasun neurribakoa eregiten daben graziak gure arimean; eta auxe ezagutugaz bakarrik ikusiko dozue ze itsumendi andia daukagun grazia onegaitik ezer ez gura izaitean.

Lelengo zatia

2. Ain dira andi eta Jaungoikozkoak graziak guran egiten dituzan miraariak ze, nekez iñok sinistuko leukez fedeak erakutsiko ezpaleu. Ain da zoragarria emaiten deusana edertasuna ze, ez begik ikusi, ez belarrik enzun, ez gizonen gogotara eldu al leiteke bera leezkorik. Irargi eta izarren argitasuna geiagotu egizu al daizun guztia; bada au guztiau, bat egin da bere, ezaintasun eta iluntasuna baño ezta grazian dagoan arimearen parean. Eta alan ikusiko bagendu arima bat grazian dagoanean, zeruan gagozala usteko geunke; mundu onetarako gauzarik ederrenak antoju emongo leuskegue; gure guraaria bera ikusten egotea izango litzateke, antxe egongo ginatekez kokoturik berari begira, gomutarik izan бага ez yaterik, ez edaterik, ez lorik. Orregaitik ez eban gura Jaungoikoak ikusi gengian geure arimea grazian dagoanean, arroturik bere edertasuna ikusiagaz, galdu ez ginaitezan, Luzifer bere edertasuna gaitik galdu zana



legez; bada ainbeste edertasun ikusiagaz geugan, usteko geunke Jaungoikoa beste gareala; ak uste izan ebana legez. Zeruko aingeruak arritu eta muturik dagoz grazian dagoan arimearen edertasuna ikusiagaz; euren guraari guztia da berari adi egotea, diño S. Juan Krisostomo-k. Eta auxe adierazo gura izan eban Dabid Erregeak esan ebanean bere arpegia ikusi gurako ebal zeruko aberatsak, eta alan dirautse biurtu zaitez, biurtu zaitetz onantza, ikusi zaiguzan. Ikusirik bere edertasuna ain zoragarria, itanduten deutse bata besteari: Nor da datorren au egunsentiko izarra baxen ederrago, ilargia baxen miragarriago, eta eguzkia baxen argiago, eta bere arerioentzat exerzitu ondo ifiniak baño bildurgarriago? Au guzti au eta geiago esaten oi dabee Aingeru santuak grazian dagoan arimeagaitik.

3. Baia ze mirari Aingeruak modu onetan berba egitea eta arriturik egotea arimearen edertasunagaz, Jaungoikoa bera guraariz beterik badago bera ikusteko, beragaz egoteko, eta beragaz berba egiteko, diño S. Juan Krisostomo-k? eta auxe berau aitu gura ebal Dabidek esan ebanean: ikusi gurako dau Erregek zure edertasuna. Ze berba gozoak esaten deutzaz zoraturik legez beragaz ain ederrik dagoalako! Dirautsa: guztiz zara ederra, neure maitea, ikustekoa da zure yanzia. Ai ze ederra zarean! Beste batzuetan dei egiten deutso bere esposa laztana, bere usoa, bere bakarra; eta beste batzuetan Erregiña. Berba guzti oneetan gura dau ezagutu daigun ze andia dan deutzan amodioa, eta leku altura eregiten daben graziak ari mea, bada egiten dau bere Esposa maite, eta orregaitik Erregiña ez lur zatiren bateko, ez urien batzuetako, ezpada lur guzti eta Zeruko; bada S. Paulo Apk. dirausku ze, grazian dagoana J.K^ogaz batera dala Aita betikoren herederu. Auxe berau diño Apostolu onek beste leku baten. Graziak, diño, egiten gaituz Jaungoikoaren seme: baita seme bagara, bere ondasun guztien herederu ta yaubegi. Geratu gaitzean ementxe piska baten, eta begiratu daigun, al daigun ondoen, S. Paulok diñoana ezagututeko zerbaist noragiño erantetan gaituzan graziak. Jaungoikoaren herederu diño egiten gaituzala, eta J.K^o.ren lagun herenzia onetan. Herenzia onek emoit deuskun eskubidea, J.K^o.ren direan gauza guztietara elduten da, eta alan, esan ebanean gauza guztiak ifini zituzala Aita Eternoak bere eskuetan, zan esatea onek guztiok emon euskuzala guri bere. Biztu egizuz orain zure pensamentu eta guraari guztiak, eta ikusi egizu ea aurkitu al daizun graziak emoten ezteuskun gauzarik. Alperrik ibiliko zara billatuten, bada ez bakarrik eztozu aurkituko, ezta ezin gogora bere iñori eldu leikio onelango gauzarik, bada graziak emoit deuskuna ezta urre gorria, ez arri baliotsoak, ez luurra, ez eguzkia, ez irargia ez zeruak, ez Aingeruak;

Jaungoikoa bera da, bere ondasun, ontasun, eta yakituriagaz eta orregaitik zirautsan Dabid Erregeak Jaunari, zu zara neure herenzia.

Begiratu nosbait, Ne.Ea.Mk. (neure entzula maiteak), graziak ari-meari emoit deutzan ondasun miragarri au. Yagi zaitetz nosbait pekatuaren lupatzatik. Iratzartu zaitetz nos edo nos lozorro orretarik, eta ikusi egizu Jaungoikoak opa deutzan zorion, sinistu bere nekez leikeana: zure eskuetan daukazu, gura badozu Jaungoikoaren seme izan. Jaungoikoak emon deutzan eskubidea gura dozunean bere Seme (izaiteko) egiteko, dirautsu S. Juan Ebanjelisteak. Mundu onetako agintari, Errege eta andiak izanik gu legez gizon ilkor ta ilbear batzuk, auts puska bat, zimaure zati bat, gu legez il bear direanak, gu legez luur biurtu, eta ustelduko direanak sepultura baten, ez gaituez euki gura adiskidetzat, ozta berba egiten deuskue, ozta begiraturen deuskue. Baia Jaungoiko neurribaga, kabubaga, eta azken-bageak, izanik mundu guztiaren yabea, zeruluurraren egillea, ez bakarrik begiraturen deusku, ez bakarrik izan gura dau geure adiskide, ez bakarrik nai dau beragaz bizi gaitzean, baita bere gura dau bere seme izan gaitzean, eta geure borondatean itxiten deusku nai dogunean graziaren bitartez bere seme egiteko. O ontasun parebakoa! O Jaunaren gizonagana amudio sinistu bere ozta leikiana! O karidade erre! Zer da, Jauna, gizona bere gomuta izan zaitzean, edo gizonaren semea ainbestean euki zengian? Gizon batek bestea baño puskatxu bat andiago dalako, hazien-da apur bat geiago daukalako, edo diru zati batzuk dituzalako, ozta begiratu gura deutzan besteari, ozta berba egin gura deutzan, ozta beragaz ibili gura dau, eta nekez bere adiskide ta laguntzat gura dau, eta izanik zeu zeru-lurraren yaubea, eta gizona pobre, nekatu eta kaden bat; zeu Ange-ru, eguzki, ilargi, izar eta gauza guztiak adoretan zaituezana, eta gizona yaio orduko iges egiten dauen geriza bat; zeu mundu guztia zeure anditasun neurri bageagaz betetan dozuna, eta gizona luur puskatxu bat: zeuk gauza guztiak eta gizona bera ezer-bere ezetatik egin zenduzana, eta gizona zeu zeure eskuakaz egin; eta alan-da guzti zeure aldean ezer eztan gizon oneri ez bakarrik begiraturen deutzan, ez bakarrik berba egiten deutzan, ez bakarrik gura dozu zeure adiskide izan dedin, ez bakarrik isten deutzan zugaz naste etse baten bizi izaiten, mai baten yanari bat yaten, ezpabere nai dozu zeure seme izan dedin, eta aginduten deutzan izan dedila, emoten deutzan onetarako eskuikunea nai dauenean egiteko Jaungoikoaren seme. Kk., ze poz ta atsegin, ze olgura emon bear ezteusku, Jaunak emoit deuskun eskubide onek? Zer egin bear eztozu anditasun onetara eldutarren? Zeinbatega euki bear eztozu semetasun onetara eregiten gaituzan grazia?



Esan egidazu, N^e.E^a.M^a., artuko bazenduz Errege Españakok bere semetzat, aginduko baleu ezagutu zagiezala Asturia-ko Prinzipetzat, artu edo eskojiduko bazinduz bere ondasun ta Erreinu guztien oñordeko ta herederu, zelango izango litzateke zeure onrea, ta zelango poza ta atsegina asmauko etzenduke zeure biotzean? Eta kastigaduko ta biralduko baleutsue oraintxe zoazala bere yauregi-palaziora, bertan bizi izateko, beragaz mai baten yan, beragaz ibili, Errege baten semeari datorkion anditasun guztiagaz, luzatuko zeunke egunerik egunera yoatea, etxeko zeregin bategaitik, diru puska bategaitik, hazienda zatiren bategaitik, edo olgura, yolas ta dibersiñoren bategaitik? Zein gitxi. Leenago sinistuko neunke nik zer-egin guztiak, diru guztiak, hazienda guztiak, eta fiesta guztiak, itxiko zeunkezala ta bertatik, al dagizun baxen laster, yoango ziñatekezala Erregegana, ikustearren zeure burua an onra andian. Baia, zer da Errege Españakok emongo leuskezun onra ta ondasun guztiau, Ygkoaren graziak emoten deusunaren parean? Ezer-bere ez, neure Kristiñauak; eze Erregek emon leikezun semetasunak, zeu legezko gizon baten seme baño etzeunkez egingo, ta beti geratuko zintekiz ilkor ta il-bearra, lur puska bat eta gatxez ta nekez beterik beterik leen legez; barriz graziak egiten gaituz Yangoikoaren Seme Zeruko, ta eriotza bagak Erregek emon leikezun ondasunak eta erreinuak, luur zati baño ezin izan leitekez; baia graziak emoten deusun herenzia da zeruko ondasun guztia. Erregek emon leikezun onreak guztiz gitxi iraungo dau, denpora puska baterako baño izango ez da: baia graziak emoten daben beti betikoa izango da. Erregek emon arren erreinua, kendu leikezue, edo galdu zinaike; baia graziak emoten deusun erreinua, zeuk gura ezpadozu, ezin iñok kendu leikezu, ez eriotzeak, ez Demonioñak, ez infernuak.

Gizon arroak, gizon andiguraak, zabaldu egizue zeuen gurariak: biztu egizue zeuen gogoa, eta ikusi ea eldu al bazinatteekezan Yangoikoak emoten deusun beste gura izatera, nai dala ondasunetan, nai dala onran, nai guztietan. Nekazale triste, gaixo ta nekatuak, zetaako daukazue gizon aberatsen ondasunen, diruen, yanarien, etse ederren, ta onreen enbidia? Zeuek euki zinaike au guzti au baño geiago; Yangoikoak emoten deusue onetarako eskubidea. *Dedit eis...* Egin zaiteze graziaren bitartekoz Yaungoikoaren seme, eta eukiko dozue gizonik aberatsenak eta onraduenak euki leian onra, ta ondasunak baño geiago. Aterik ate eskean zabiltzen edadeko tristeak, zetako daukazue Erregeen, Prinzipeen, Duke-en, ta Markesen enbidia? Zeuen eskuan daukazue aek baño onraduago ta andiag izateko esku-eskuinea. Egin zaiteze Yaungoikoaren Seme, grazian ifi-

nirik zeuen arimea, eta ezta aurkituko Errege, Prinzipe, Duke, ez Markesen artean zuek baño gizon onraduagorik, ez andiagorik. Neure Kristiñauak, zetako nekatu zuen buruak, mundu onetako ondasun, onra, dignidade, eta leku eregiak alkanzatarren? Ez egizue urten zeuen biotzetatik; ortxe ortxe daukazue bakotxak erreinurik zabal, eder, eta andiena, eta aberatsena, dirautsue Yesukristo-k. Baliau zaiteze Yaungoikoak emoten deusun eskubideagaz, eta egin zaiteze Yaungoiko. Arritutentzare berba oneek entzunda? Eztozue sinistu gura? Ara bada zer dirautsuen san Paulo Apostoluak: Yaungoikoak emon deusue, diño, grazia bere izatearen parte ta lagun izan zaitezen. San Paulo Apostoluak diño, Yangoikoagaz graziaren bitartekoz batuten dana, espiritu bat beragaz egiten dala. Yesukristo-k dirausku: Neuk esan dot, Yaungoikoak zare zuek, eta zeruko Yaunaren semeak guztiok. Pozturik bada anditasun onegaz esan dagigun san Yoan Ebanjelisteagaz: Yaungoikoaren semeak gara. Ara or, neure kristiñauak, zer egiten gaituzan graziak. Eta orregaitik bere, mundu onetako gauzak-gaitik bear geiago egiten dogu Yaungoikozko doe augaitik baño? Larregi itsumendi auxa adierazoten da bigarren zatian.

Bigarren zatia

Eztauka gizonak mundu onetan gurago daben gauzarik, andi izatea baño. Eztau ezegaitik bear geiago egiten, leku eregira igotea gaitik baño; eztau beste gauza gaitik, augaitik baño neke geiago iragoko. Augaitik artuten dira nekeak, augaitik igaroten dira pellebruak, augaitik galduten dira ondasun eta diruak, au gaitik gitxitan izaten dau batzuetan bizitzea bera. Zeinbat bizitza dakusguz galdurik, gizon batzuen Errege izateko gurariagaitik? Zeinbat odolegaz lurra bustirik; zeinbat etxe errerik, zeinbat uri irulirik? Zelango gerrak, zelango ibilerak, zelango eriotzak, zelango gas-tuak? Mundu guztia errebolbidurik ibili da, batac baño besteak andiago izan gurarik. Eta, zer atera dabe gizonak euren neke, lan, izerdi, eta ibile-ra onekaz? Zer atera dabe ainbat gerra, ainbat degrollu, ainbat eriotza, ta ainbat odolegaz? Ezer-bere-ez. Iltzirean: yaio ezpalira legez ixilik gelditu zirean, aztu zan euren izena eta sepultura baten lurpetu zan beti iraungo ebalu uste izan ebeen onra, anditasun, eta gloria guztia. Oneek gura izan, ta alkanzadu ezin izan ebeen onra eta anditasuna baño andiagoa opa deus-tu Yaunak. Badaki gizonen biotzetik ezin kendu leitekeala gurari au, eta nai ta nai ez legez, aurkituten dala gogo onegaz: eta dirautsue benetako



anditasuna eta gloria billatuteko. Au alkanzetako eztozue bear mundu onetako gizon arroak egin ebeen beste. Ez yatzue aginduten batuteko ejerzitu andiak, aurkituteko ondasun andiak onei pagetako; ez irulietako uriak, irabazteko gazteluak, ilteko gizonak. Ezteutsue aginduten egiteko ontziak, sartuteko eurretan, igarroteko itxasoak. Ezteutsue aginduten isteko zeuen etseak, aztuteko gurasoak, umeak, senarra, emaztea, eta aideak. Berba baten, munduan aurkitu al leitekean baño onra andiagora elduteko, ez yatzue eskatuten gizon askok bertatik iragoten dan axe puska bat alkanzetako igaro daben nekeren eungarren parterik.

Zer eskatuten yatzu bada? Yangoikoaren grazian zagozela, eta nosbait zeuen argaltasunez galduten badozue, ainbat lasterren barriztadu dagizuela zeuen ariman, Yaunari parka eskatu, eta konfesaduagaz. Au egin zinaik ee zeuen etseko atsegin onean zagozela, zeuen zereginak aztu-bagarik, zeuen senar, emazte ta familia itxibagarik, loa galdu-bagarik. Eta orregaitik bere nekez egin gura da zerbait Yangoikoak opa deuskun leku eregi onera elduteko; eta aror non yazoten dan, ozta sinistu leitekean gauza bat. Geugan daukagu onra, dignidade, eta leku gorera eregiteko gurari bizi bat, zeinek indarrez legez garoazan axe alkanzetara; zeinbat eta andiagoa eta altuagoa dan onrea, ainbat eta geiago ixiotuten da bere guraritan, bera yadiesteko ta alkanzetako esperantzarik badago. Onetarako ez da aleginik egin bagarik isten; dirua bear bada, topetan da; adiskideai berba egiten yake; billatuten dira bitartekoak. Eta au alkanzadu ezkeroko. Beste aldetik, sinistuten dogu ta autortuten dogu eztagoala munduan, ta ezin izan bere leitekeala, Yangoikoaren Seme izatea baño onra andiagorik. Eta izanik ain erraza leku onetara igotea, eztogu auxe, gauza erraz au, egin gura, Yangoikoaren Semetasun onetara elduteko; Dei egiten badeutsue lapurra, esaten badeutsue guzzurren ganean yuramentu egin dozuela, norbaitek badiño yudegu-kastak zareela, bertatik diñozue: «ondra galdu deust, ezin itxi neio»; belan kerellea; eskribaua batetik, letradua bestetik; gastetan da dirua, itxiten da bearra, eta au guzti au ontzat eroaten da, yagotearren onrea. Galduten da arimako onrea pekatuagaz, eta izanik ain erraz barriro onra orretara biurtutea, gogor egiten da. Esaten bada nongura daukazala konfesoareak, yaiegun gox bat artu dagiala Yangoikoaren Seme izatera biurtuteko, onetarako eztabela bitartekorik zer billatu, eztabela dirurik gastau bearrik, gox bateko zeregina dala graziara biurtutea, ezta falta izaten atxakiaren bat: norabait yoan bear dala, norbaitegaz egon, edo zer egin daukala, familia andia daukala, euren arduareak ezteutsala isten astirik konfesetan yoateko. Modu onetan luzatuten

da Yangoikoaren Seme egitea. Badago esperantzaren bat (nobere burua edo) seme bat ondo ifinteko, leku onen baten sartzeko, gizon andi egin dedintzat; ze zeregintsu ibiltan da: gitxituten dira, al daitean guztia, etxeko gastuak, berari lagundutearren, bada biar edo etsi izango da geure onragarri. Baia Yangoikoaren Seme izatera elduteko pagadu (atera) bear badira zorrak, biurtu bear bada ostua, kendu edo egin dan kaltea, eztago zegaz, ozta ozta elduten yat mantenietako (etxea estalduteko).

Bada Kristiñauak, ain astun, ain gogor egiten baiatzue Yangoikoak eskatuten deusuen puskatxu au egitea, bere Seme izateko, bere erederu, bere ondasun guztien yaube, eta beragaz batera zeruko andi, zeruko Prinzipe, eta zeruko Errege, zer esango zeunke eskatuko baleutsue egiteko, gizon arroak egiten dabena, mundu onetako gaur bada, biar izango eztan nagusitasuna gaitik? Baia, zer diñot? zer esango zeunke eskatuko baleutsue beragaz bat izan gura bazare, egin dagizuela mundu onetako ondasun, onra, edo guztiz gura dozuen gauza bategaitik egiten dozuen? Ai, neure kristiñauak! Bakizue zer adierazoten dozuen alan eginagaz? Geiago balio dabeela mundu onetako ondasun, onra eta olgurak, bere seme izaiteak baño; bada zeinbat eta geiago egiten dan gauzaren bategaitik, ainbat eta geiago egiten da gauza ori, ainbeste alegin eder egiten da beragaitik; baia gitxitan badaukagu zerbait, eztogu ezer egiten beragaitik. Da esatea deungaro egiten ebeela santuak, ainbat lan, neke, gose, egarri, oraziño, barau, gaubela igarotea (egitea) Yangoikoaren Seme izatearren. Da esatea deungaro egin ebala Yesukristo-k ainbat azote, ainbat zauri, pasiño ain garratza, ta eriotza ain gogorra igarotea (ikustea) zuek bere seme egitearren, eta graziagaz zuen arimak apaindu ta edertutearren. Esan egidazue, neure kristiñauak, deritxazue yakitunagoak zareela santuak, eta santuen santua baño? Esan ziñaike aek baño obato dakizuela zer balio daben Yangoikoaren Semetasunak? Eztakit asartuko bazare, ta biotzik ta arpegirik izango badozue au esateko. Bada ainbestean euki badabe aek Yangoikoaren Seme izatea, zelan zuek daukazue ain gitxitan? Ainbeste maitatu badabee aek Yaunaren grazia, zela zuek ain gitxi egiten dozue grazia ori? O itsumendi arrigarria! O zorakeria guztien artean zorakeriarik andiena! Yangoikoaren Semea egiten da gizonaren seme, gizonaren semea Yangoikoaren seme egitearren; eta gizonaren semeak eztabee Yangoikoaren Seme izan gura. Yangoikoa egiten da aragi, aragia Yangoiko egitearren, eta eztau aragiak Yangoiko izan gura. Yangoikoa yazten da lurrera, lurra zerura eroatearren, eta lurak eztau zerura igon gura.



Iratzartu zaiteze nosbait pekatuen lotan zagozenok: eta ezagutu egizue Yaungoiko baten Seme onegan, zeinbat maitetu bear dozuen (ze balio andikoa dan) Yaungoikoaren seme izatea.

Begiratu egizue Yangoikoaren seme onegan, ze laztan izan bear dozuen Yaungoikoak opa deusuen grazia. Zuei doe au ekartera etorri zan mundu onetara, zuek beragaz aberastutearren egin zan pobre guztiak baño pobreago; zuek beragaz edertutearren dago dakutsuen moduan ezaindurik; zuek beragaz edertu ta apaindutearren, dago guztiz billosik; zuek beragaz osatutearren dago berau geixorik eta zauri bat eginik; eta zuei beragaz bizitzea emotearren dago berau ilik; zuek beragaz onretearren dago ain lotsari eta desonra andian kurutzeko urkamendi onetan yosirik. Begiratu egiozue, eta ikusiko dozue zer egin bear dozuen beronen seme izateko, beronek ainbeste egin ezkerro. Nori yoako geiago, neure kristiñauak, zuek Yaungoikoaren seme izatean, zuei ala Yaun oni? Zer yoakan Yaun oni mundu guztia galdu balitz bere? Etzan ain andi, ain altsu ta poderosoa, eta ain yakituna izango, zein da gizon guztiak salbau balira? Ezin ukatu zinaie. Eta, zer izango da zuekaz, Yaun onenak ezipazaree? Demonioaren menpeko, galduak betiko infernu baten. Eta orregaitik bere ainbeste eginik Yaun onek zuek bere seme betiko zorioneko, eta zeruko Prinzipe izan zaitezen, eztozue zerbait egingo ain leku altura, ain onra arrigarrira eldutearren? Benetan diñot eztaukazuela sensunik, etzareela gizonak, bada gizon guztiak dauke gurari bizi bat leka altu eta onragarrirako; ta zeinbat leku eregiago ta onragarriago, ainbat gurari biziago. Eta alan bazeunke gizonaren biotza, gura ta gur'ez legez egingo zeunke alegiña Yaungoikoaren seme izatearren: bertatik sartuko zinatekez gurari bizian konfesiño on bat egiteko, eta bizitza barri bat (egiteko) asiteko. Ezagutu, bada, nos edo nos; eta ikusirik ze gitxitan euki dozuen orain artean Yaungoikoaren grazia, parka eskatu egiozue Yaun oni. Emon egiozue berba oso bat, ainbat lasterren konfesetako, eta ementxe agindu egiozue, onik aurrera eukiteko beti zeuon arimea bere grazian; esan egiozue biotz guztirik: Neure Ye.K°.

4. JAUNGOIKOAREN ERRUKIA

(J, 121-128. or.)

¡Quam magna misericordia Domini et propitiatio
illius convertentibus ad se!
Eccli. 17. v. 28.

Neure entzula onak, nondik edo zegaz asi nei nik obeto gaur asten dogun misino santu au Ygkoaren errukitasunaren ganeko sermoiagaz baño? Misiñoak izan oi dira geien pekatariak Yaunaren bideetara ekarte-ko. Eta onetarako: zer izan leiteke obeto datorrena Yaun onen errukita-sunaren gañeko sermoi ori baño, zeinek zabalduko deutseezan pekatari-ai euren biotz larri-estuak, eta ekarriko dituzan bete betean Yaun oneri euren pekatu andien parkaziñoa eskatuten? Igoikoaren errukitasuna, Ygkoaren errukitasuna! Berba gozoa beintzat: geure erraiak urtu bear dituzan berbea. Ai, nok ekarri leikeezan ona gaurko arratsalde onetan mundu zabaleko gisaseme eta emakume guztiak, Ygkoaren errukiaren ganeko sermoi gozoa entzutera! Bada bai neure biotzeko pekatari laztan-ak, gaur entzun bear deustazue geure Ygko maitea dala errai samurreta-koa, biotz bigunekoa, eta guztia errukia beragana biotzetik damututa dotozan pekatari-entzat.

Baakit nik, eta alantxe diraust S. Zirilo Yerusalen-goak, munduko miñ guztiak, bat eginda bere, ez leukeela Yaunaren errukitasun orren dan izpirik txikiena bere adierazoko. Baakit nik, eta alantxe diraust S. Yoan Krisostomo-k ain dala andia Ygkoaren erruki ori eze, ezin ezetara bere berbeagaz iragarri eta azaldu leikean: eztagoala ori ulertu eta adituko daben bururik: eta geure argiak eta zuertasun guztia baño goragoko gau-zea dala Yaunaren errukitasun ori. Alanbere zelan-alan onen ganean zer-bait esango al deusuet, eta deritxot eze, Ygko beraren grazia lagun doda-la, bateri bateri biotza zabalduko yakala.

Ara bada zeen ganean izango dan arrastegi onetako sermoia. Era-kutsiko deusuet guztizkoa dala Ygkoak pekatari damutuentzat daukan errukia, eta eztala mundu onetan pekatari ain galdurik, zein da Ygkoak parkatuko ezteutsan, benetan damututa, parka eskatuten badeutso. Orre-tarako nik iragarriko deusuet Eskritura Santuak onen ganean dakarrena, eta zeuek egunean egunean ikusten dozuena. Eskritura Santuetatik esan-go deusuet Ygkoak zer esanik daukan bere errukiaren ganean, eta zer



egin izan daben geure pekatuen parkaziñorako; eta onen osteian gogora ekarriko deusuet zelan pekatariak itxaroten deuten, eta zelan dei egiten deuten beragana etorteko, zuek ikusten dozuen legeaz. Aror bada arras-tegi onetako nire sermoi-gei guztia.

Baita, barriz, nondik asi nei nik obeto Ygkoaren errukikuntza onen ganeko berbetea, Ygkoak berak onen ganean esanik dituzan berba gozo-etatik baño? Ai, eta zeinbat berba zoragarri esanik dauka, erruki andi onen ganean! Eta nok leukean guztiak batuta, zeuei bein banaan esateko astia! Elitzateke besterik bear sermoi luze eder bat egiteko. Baia ganeko guztiak ixilik gorde bearko badodaz bere, ezta ixilik igaroteko Ezekiel santuaren bitartez esan zituzan berba gozoak. «Esan egiezu, esan eutsan bein baten Ygkoak Ezekiel-eri, esan egiezu nire partez Israel-go pekatari galduak: Zeuek diñozue: geure pekatuak ganera egin deuskue, eta gu baxen geiago dira: eta orregaitik galduta gagoz. Zelan bizi gintekoz bada? Esan egiezu zeuk; Ygkorako, diño Ygko Yaunak, eztot nik gura gaistoa il ta galdu dedin, ez: gura dodana da gaisto orrek bide txarrari itxi dagiola, eta bizi dedila. Ausi egizue, ausi, zeuen bide okerrok. Zer egiteko il beartzare? Ara bada, gaistoa onduten dan edozein bere egunetik aurrera ezteutse gatzik ekarriko bere gaistakeriak. Eta nik esan arren gaistoari: ilgo zara, il: berak penitentzia egiten badau, eta geiago ondo bizi bada, ezta ilgo, ez: etxako arteko pekatuak ari ezarriko».

Zer geiago gura dozue, pekatari gaixoak, zer geiago? Ygkoak berak zeinen berbaak eguño eztabeen utsean ez yo ta ez yoko: Ygko andiak, zeinen berbaak iraun bearko dabeen zeru-lurra yoa da bere berbea emoten deusue zeuen pekatuak, direanak direala, parkatuak izango yatzueza-la, baldin zeuek orain arteko bide txarrak itxi eta beragana penitentzia benetako baten bitartez biurtuten bazare? «Ez, diño S. Lorenzo Yustinianok, ez eban Ygkoak izentadu ez penitentzia egiteko bearko zan aldirik, ez pekatuen zeinbatik, ez parka eskatuteko lekuri. Eztiño, betoz gatzetan, edo onenbeste urtera artean penitentzia egin gura dabeenak, betoz, osasun onean datozanak; baia zartzaroon eta gaixoa datozanai ezteutset nik parkatuko. Eztiño, nik parkaziñoa emongo deutset bein edo bein bategaz edo alan seigarrenekoan errakuntzaren bat izan dabeenai: baia ez urte osoetan zoro zantar eginik bizi izan direanai: edo nik parkatuko deutset ezkonbaakoagaz ibili direanai, baia ez ezelanbere ezkonduakaz egin dabeenai. Ezta esaten eztagoala parkaziñorik abere mutuakaz, ganadu zantarrakaz deungaro ibili direanentzat, edo iñoren etseari edo basoari su emon deusenentzat, edo iñoren kalte txarrean guzurragaz yuramentu egin dabeenentzat. Ezta esaten ni prest nago parketako euren bakarrean,

edo euren buruen aurreti baño pekatu egin eztabeenai, baia, besteak galduten ibili direanak eztaue nigaz zer eginik. Ez beintzat, eztiño Ygkoak alango gauzarik. Bete betean diño: gaistoa onduten dan edozein bere eguneti parkatuko yakazala bere pekatuak; ezteutsela kalterik ekarriko bere pekatuak; onegaz iragarten deuskula eztabela berak erruki izateko lokarrik ez laburgarrik». Eta bere berbea asko ezpalitz legeaz, berbea emon ez eze, baita bere berba orren ganean yuramentu egiten dau. Eldu leiteke geiagora Ygko baten guranako ontasuna? «Ai, gure zorionak, esan bear dogu pozen pozez Tertuliano-ren berbakaz, geure zorionak, bai, Ygkoak yuramentu egin gurea, geuri pekatuen parkaziñoaren usteak (esperantzea) bete betean emoteko!». Ez aida asko izango au guzti au, pekatari gaixoak, zeuen biotzean esperantza ederraren sua biziuteko? Baiez nago.

Baia ori asko ezpalitz bere deritxat eze, askoko dozuela gogora ekartea, zer egin eban Ygko onek, guk pekatuen parkaziñoa izan daigun. Fedea darakusku, eta zeuek guztiok dakizue ondo, Ygkoaren semea, Trinidad santuko bigarren personea, Aiteagaz eta Espiritu Santuagaz Ygko bat dana, gizon egintzala geure guztioen pekatuen parkaziñorako dana. Entzun dozuez berba laburrok, entzun dozuez? Laburrak dira, bai, baia asko baño geiago esan gura dabee. Ygkoa gizon egintzan geure pekatuen parkaziñorako!». Errukitasun andia! esaten dau S. Agustin-ek orregaz poz arren dana urtuta; Errukitasun neurribakoa! Zeuk, zeuk bai ta ez bestek ekarri eukean zerutik lurrera Ygkoa bera». Bai barriz, geure pekatuen parkaziñorako etorri zan mundura Ygkoaren Semea, auxa izan eban bere betiko esku-arteke zeregina, berau bere yana, bere edana, bere loa, eta berau bere guztia.

Emetik etorkan pekatari damutuakaz ain bigun izatea, eta beragana etozanean ain gozaro artutea. Baiatorko damuturik eta negarrez ito bear ebal arako errian zer esan andiak imini, eta deungerako bidea askori emon eutsan emakume galdua? Bada, Yaunak bigun bigun artuten dau, eta dirautso gozaro: «Emakumea, parkatuten yatzuz zeure pekatuak; zoaz bakean». Ekarten deutse bere aurrera andra ezkondu bat aragizkoan bear ez ebanagaz topau ebeena? Eta Yaunak, dakusalako lotsaturik eta damuturik dirautso: «eztot nik zeure kontra emongo. Zoaz bada eta ez geiago alangorik egin». Elduten yakaz beste pekatari asko bere berba gozoak entzuten? Eta berak ondo artuten dituz, eta bear bada eztauko atzerabiderik eurenara bazkalduten yoateko, ezta bear bada euren artekoak bere eskolan artuteko bere.

Baia ezta ori guztia. Y.K°: bera dabil dandarrez pekatarien atzean. Ai egon bazine Sikar-go iturriaren parean, zeuek ikusiko zenduen zelan



egoan Yesus bideaz nekaturik izerdiz galdurik, eta goseak ilik, Samaria-ko emakume, zantar eginik bizi zan, baten begira; zelan agertu eutsazan berak gordeta eukazan pekatuak, eta zelan geldi geldi ekarri eban Ygkoaren bideetan sartutera. Egon izan bazine Yerusalen-go pozu uzabalaren ertzean, ikusiko zenduen zelan Jesus begira yoakan itanduten ogeta amazortzi urtean oaturik egoan gizon kadena gorputza artuta eukanari, eta alango amesik burutan artu bere ez ebanari, ea osatu gura beeban, eta zelan gorputzeko osasunagaz batera arimakoa bere emoten deutan, esaten deusala, ez geiago pekatuak egiteko okerragoren bat etorri (yazo) ze dakion. Eta, zer zirean Yaun onek pekatariak onduteko ikusi zituzan goseak, egarriak, ibilerak, izerdiak, burukominak eta arrastakak?

Baia, zer? Deritxazue ori izan zala Ygkoaren Semeak pekatarien onerako egin eban guztia? Deritxazue ez ebalu besterik egin? Bai beintzat, ori baño geiago eta geiago egin eban. Baakutsue zeinbat doian gerizarik eta gorputzera, irudinerik eta izatera? Bada ori guztiori eta geiago doa nik esan dodanarik eta J.K.^o egin ebanera. Gerizea da, irudina baño ezta, utsa da niri entzun deustazuena Ygkoaren semeak egin ebanaren aldean. Au zeuei erakusteko ezteutsuet gogora ekarriko zelan zeru-lurraren yau-bea yaio zan abel-etse edo eskepe baten: ez zelan bizi izan zan guztiz pobre eta artu. Alde batera itxiko dot zelan yaiota zortzigarren egunean emon bear izan eban bere odola. Alde batera berak egin zituzan barau gogorak, bere errotarrakganik eta beste askoganik ikusi bear izan zituza-nak, eta beste onetariko asko. Bakarrik bada gogora ekarri gura deusuet Y.K.^oren pasiño garratza.

Zatoze, bada, orain zeuen gogoagaz Yerusalen-go errira. Sartu zaitzeze Jesemaniko ortuan, eta antxe ikusiko dozue Ygkoaren Semea ain larri, ain estu eze, larriaren larriz odol garbi garbia dario izerdi orde bere gorputzeko alde guztietati. Ikusiko dozue oraindo zelan bertan preso artuten dabeen bere arerio gogorak. Yarraitu egiozue gero Anas-enera, Kaifas-enera, Herodes-enera eta arrituko zare ikusirik zelango guzur tzar-rak asmetan deutsezan eguño pekatuak egin ez ebanari; gogortuko zare ikusirik zelan zoro egiten dabeen Ygkoaren yakituria: eta betiko ikaraturik eta biotzketaurik lotuko zare ikusirik zelan darabilen barregarri belarr-ondoka, kokotekoka, ostikoka. Pilatos-enean sartuten bazare, ai! antxe ikusiko dozue zelan bost milla eta geiago azote emonda, gorputz guztia bana bana egiten deuten: ikusiko dozue oraindo zelan arantzazko koroe gogorragaz bere buru guztia galduten deuten. Baia Kalbarioko mendi ganean, zer ikusi bear dozue? Ai! Emen, leku itzal onetan ikusiko dozue Ygkoaren Seme au geure pekatuakaitik kurutze baten eskegirik

dingilizka, esku-oñetatik untze lodiakaz yosirik, eta minen-minez bizitzea galduten.

Eta onek guztiok, zer esan gura dabe? Geure Ygko laztanak biotzetik, eta ondo biotzetik parkatu gura deuskuzala geure pekatuak, orretarako bere Seme bakarra mundu onetara agindu ebanean, geure anaie egin ebanean; gugaitik ainbeste neke erakutsi eutsanean, eta azkenean geu pekatuetatik ateratearren kurutze baten ain gogor il ebanean. Pekatari gaxoak, bear dan legeaz damututa zagoze? Bada errazki bildurak alde batera botako dozuez. Zelan galdu gurako zaituez zeuek irabaztearren ainbeste egin ebanak? Zer? diño S. Paulo-k; Zer? bere Seme bere bereari parkatu ez eutsanak, eta bai gu guztiok gaitik Seme ori emon ebanak, zelan beragaz batera emongo ezteuskuz osterantzako gauza guztiak? Eta Ygkoaren Seme ori geure pekatuen parkaziñoagaitik gizon egina, ainbeste neke ikusia, eta kurutze baten ila, eztogu geure alde izango parkaziño ori izan daiguntzat? Bai beintzat, bai. Pekatu egin badogu, diño S. Juan-ek edo obeto esateko, diño Ygkoak berak S. Joan-en bitartez, «J.K.^o gan daukagu bere Aiteagaz geure bitarteko, eta berak gozatuten eta bigunduten dau aren aserrea, ez bakarrik geure pekatuak gaitik daukana, baita mundu guztiko pekatuak gaitik daukana bere». Eta Ykoa geure alde dogula, nor izango da geure kontra? Alan bada eldu zaiteze bete betean Ygko errukior onegana konfesiño on baten bitartez, eta berak izango dau zeuek azerruki.

Orain artean bere Yaun onek ondo, eta ondo baño obeto erakutsi deusue parkatu gura deusuela. Begira ezipabere zelan artu zaituezan Ygkoak bere kontra pekatu egin dozuenean. Ixilik egon yatzue kastigurik emon bagarik; epea eta astia emon deusue beragana gura badozue bere, eta berak zeuei orretarako dei egin deusue. «Bai, dirausku S. Buenaventura-k, bai, ondo ta ondo agiri da Ygkoaren errukitasuna, pekatariari luzaro itxarotean: zegaiti eze, zelan gizonak pekatu egiten dabenean Ygkoari bide-bagako andi bat egiten deutan, eta Ygkoaren Semea barrien barri beragan danetik kurutzean yosten daben, ordu beretik galdua izan bear leuke Ygkoaren errukia bitarteko sartuko ezpalitz». Alantxe da, pekatariak; zeuek pekatu egin da Ygkoaren kontra yagi ziñeenean, zeuen kontra aserre parau zirean munduko gauza guztiak, eta galdu egingo zinduezan, Ygkoak itxi izan baleutse. Lurrak irunziko zinduezan, suak erre, urak ito, abere uzu mistoak eta pistia zantarrak apurtu eta etzan izango munduan zeuei al eban kalte guztia egingo ez eutsuen gauzarik. Begitanduten yat entzuten nagoala zelan Ygkoari esaten eutsan zeuekgaiti onetariko bako-txak: banoa ni, Yauna, eta il bear dot txakur gaisto ori.



Baia, Ygko errukiorrak? *Expectat Dominus, ut misereatur vestri*. Ez bein, diño Yaun bigun onek, bego bein. Neure kontra dabilen ori, nik egin dot neuk, eta eztoz nik galdu gura nire eskuetako gauzea. Neure kontra aserre diñarduan orregaitik neure Semeak eskatuten deust, eta nik entzungo dodaz Seme on onen eskariak, berari zor yakan lotsa onagaitik. Bego bada bein, eta ikusiko dogu ea bere senera badator, eta sartuten bada bear dan bidean. Ezteuste nire erraiak itxiten ori, orren gaistoa dala bere, ain laster galduten; eze nik aserre nasanean bere ezin aztu nei nire errukia. Alantxek egin dau bada zuekaz pekatari gaixoak, alantxek, Yaun errukiorrak. Orain artean ezteutsue bere aserrikerik erakutsi.

Osterantzean, zer izango zan zeugaz gizona, zer zeugaz andrea, guzurraren ganean testigai okerra emon zenduana? Etsizean egongo oraingotz infernuko ondarretan erretan eta kiskalduten? Ygkoaren errukiagaitik eze; zer izango zan biraoti orregaz, batek gauzarik txikiena egi-ten deutsun orduko zeure biraoakaz luurra gora, eta zerua beera ekarri bear dozunagaz? Etsizean infernuan egongo? Ygkoaren errukiagaitik eze, zer izango litzateke zeugaz, loi orregaz, zeinek zeure buruagaz dala, lagunagaz dala, eta, lotsagarri gogorra! ganadu mutuakaz bere bai, beti ibili bear izan dozun zantarkerietan, aragizkoetan, beti loi-zikin eginik? *Ai! Misericordiae Domini quia non sumus consumpti*. Ygkoaren errukitasunari esker andiak bizi bagara, galdu ez bagara, ondatu ezipagara. Bai, ze ganekoan geureak egingo eban, bein betiko galduak izango ginean. Galdua izango zinean zeu lotsaaren zeure pekatua konfesau ezinda ainbeste urtean erabili dozuna, bitartean Konfesiño eta Komuniño okerreaz ase ta bete egi-ten zareala. Galdua izango zinean zeu arako pekatutik sortu yatzun seiña galduteko Ygkoak dakizanak egin zenduzana. Galdua izango zinean zeu iñoren ondasunakaz aberaztuta galanto bizi zareana. Eta berba baten esateko, Ygkoaren errukiagaitik eze oraingotz galduta zengozen, infernuan ondatuta egongo zinean pekatari errukarri guztiak.

Baia Ygko errukiorrak etzaituez galdu gura izan, eta orregaitik itxaron deutsue, eta beragana biurtuteko astia emon deutsue. Ezta ori guztia; orrez ganetik berak dei egin deutsue, beragana ekarri gura izan zaituez. Yaunak berak esanik dauko aserre danean bere, bere sumina ta guzti, erakutsi bear izaten dabela bere errukitasuna, eta ondo ta ondo agertau dau ori zeuekaz pekatari gaixookaz. Ai zeinbat bider dei egin deutsuen Yaun onek, zeinbat bider esan deutsuen antxina Yudeguai Yermias-en bitartez legetxe: «begira, begira guztiz dozuela oker zeuen Ygkoa itxi izana! Ezta egia pekatu eginda gero berein bider zeuen barruan Ygkoaren deia asmau izan dozuela? Ezta egia pekatu egin barritan, (eta gero bere, eta bear bada

zeuen poz-zoroen onen onenean) zeuen biotzak erretan zinduezala, min emoten eutsuela, eragiten zinduezala? Bada ori zan Ygkoak zuei pekatutik urteteko egite'etsuen deia. Ezta egia urlia eguneko sermoia entzunda, artu zenduzala zeure bizitzea onduteko gogoak? Bada ori izan zenduan Ygkoaren dei gozo bat. Ezta egia zeure laguna, edo zeure ume-galanta il yatzunean, edo adiskidea, aldea edo atzea iltzanean zeure barruak estutu-ta artu zenduela konfesiño on bat egiteko burua? Bada ori zan Ygkoak egin eutsun dei gozo bat.

Ai! Eta zeinbat bider gogora ekarri deutsuezan, berak zuei eginiko mesede ederrak zeuentzat pretauta daukan gloria zoragarria, onelan ondo esanean zeuen biotzak erosteko! Zeinbat bider ikaratu gura izan zaituezan infernuko pena eta neke gogorak zuei gogora ekarrita ea gatxean egin al beeban onean ezin eban! Ezin ukatu zinaikee gogotik igaro yatzuela, eta ez bein, ez birritan, eta bai sarri eta sarri, ea norako zareen zeuek daroazuen bizi-moduagaz; ezin zerurik ikusi zinaikeela; infernuak izan bearko dabela zeuen betiko tokia, ta bizi-lekuan beste bizi-modu bat ikasten ezipadozue. Eta orreek, zer deritxazue izan direla? Ygkoaren argitasunak, Ygkoaren deiak, Ygkoaren grazia gozoak, Ygkoaren deiak izan dozuez modu berean, Ygkoak berak alan gura izan da zeuek ikusi izan dozuezan gaixoak, atsakabaak, naibakoak, laburkeriak, nekeak, eta osterantzeko ikusi bear guztiak, eta bein baxen sarriago euretati etorri izango yatzuez zeuen bizitzea onduteko amesak.

Eta, zer da Ygkoaren deia eta dei andia baño, berak zeuen errira ekarri deutsuen Misiño santu au? Esan egidazue, arren, ezta egia Misiño au zeuen errira etorriko zanaren barria entzun zenduenetik asi zineela batzuk batzuk, zer diñot batzuk? ezta egia asko eta asko asi zineela zeuen artean konfesiño on bat egin bear zenduela; zeuen bizi-modu txarra ondu bear zenduela? Autortu egizue bada Ygkoak bide askotati billatu zaituezala, beragana eroateko dei-gozoak egin deutsuezala, eta bere aldetik aleginak eta ezin eginak egin dituzala. Eta ori guztiori egin deutsue zuekaz aserre dala, zuek bere arerio zareela. Eta, parkatu gurako ezteutsue, beragana parka eske, pekatuen damuagaz, elduten bazare? Ai! Esan bear deutsuet Yuditek beste aldi baten bildurrez ilik egozan batzuei zirautsena: Yaunak galdu gura izan bazinduez, ez eutsuezan onek guztiok erakutsiko.

Ara bada, Kristiñauak, zeinbat aldetatik itxaron bear dozuen Ygko-aganik zuen pekatuen parkaziñoa. Ygkoak berak esanik dauko, pekatariari parkatu gura deutsala, eta benetan ondutera badator, ezteutsela kalterik ekarriko ordura arteko pekatuak. Ygkoak berak geure pekatuen parkaziñorako bere Seme bakararra mundu onetara biraldu eban, eta neke



andiak, pasiño garratza eta eriotza gogorra erakutsi eutsazan. Ygkoak epetasun andia egon yatzue begira, ea beragana bihurtuten bazare, eta ori egiteko berak sarri ta sarri era askotara dei egin deusue. Eta, zeuek? Zeuek, zer diñozue? Oraindo bere egongo zare ez etorriko bai etorriko, parkatu gurako ezteutsuenen bildurrez? Ai! ori alan egiten dabenak ezta-ki asko geure Jangoikoa parketako nor dan. Onenbeste egiten dabenak pekatariak beragana ekarteko, eztituz artu gurako beragana datozanean? Parkaziñoa opaka dabilenak, ezta parkatu gurako parka-eskatuten deusenean? Nok ori esan lei? eta geure Ygko on-laztan maitegarriagaitik?

Zeuek pekatuetatik alde egin gura ezaudue: aurrera eroan gura badozue orain arteko bide txarrak, orduan ez, ezteutsuet nik esango Ygkoak orain artean legez itxarongo deusuela: gero bere zeuen pekatuen parkaziñoa emongo deusuela. Ygkoak berak, ez nik, dirautso alan egiten dabenari: «ez egizu esan: Yaunaren errukia andia da, eta nigaz izango dau aurkiz nire pekatuak parketako; eze Ygkoagan errukitasuna eta aserretasuna alkarren urrean dabiliz, eta bere aserretasunak pekatarietara dauka begia. Orregaitik ez berantau Yaunagana bihurtutea: ez luzatu egunerik egunera, eze supitoan eta beingo beingo baten bere aserrea zeure ganera yausiko da, eta galduko zaituz bengai artuteko aldia yator Kanean». One-lan dirautso Ygkoak beragana bihurtu gura ezik dabilen pekatariari, eta zeuek bere alan bazabiltze, bildur izan beartzare alan yazoko yatzuela.

Baia pekatuetatik alde egiten badozue, konfesiño on bat egiten badozue, eta gero bizitza on bat badaroazue, ez bildurrik izan. Ygkoak parkatuko deusuez pekatuak, baita munduko eskergeenak eta ikaragarrienak badira bere. Eztago J.K°.ren odolagaz osatu ezin leian zauririk (Bernr.). Batek il izan balituz Apostolu santu guztiak, aragizkoan munduko emakume guztiakaz yausi izan balitz, J.K°. bera kurutzean yosi izan baleu, eta gero baletor Y.K°. berberagana biotzerik damututa, eta parka eskatuko baleutso, beingoan parkatuko leuskio Yaun onek, diño S. Bizente Ferrer-ek. Alan bada eriotzak egin izan badozue, aleginak egin izan badozue sabeleko seiña galduteko, izan bazare seigarrenekoan alde askotara loiak eta zantarrak, zeuen buruagaz, dan legezko lagunagaz, edo abereagaz, ibili izan bazare urte askoan zeuen pekatuak lotsarren konfesau ezinik, izan bazare biraotiak, lapurrak, iñoren gorrotoan bizi izan zareenak, eta egin izan badozue buruko ulleak baño edo itxasoko ondarrak eta ur tantaak baño pekatu geiago, ezta ardura. Inkisiziñora bagarik, Erroma-ra bagarik, zeuen buruak agertu bagarik, zeuen errian izango dozue guztien parkaziñoa konfesiño on baten bitartez. Orren gura da Ygkoa; orren begira dago Ygkoa. Ez aida asko orrenbestegaz, neure bio-

tzeko pekatariak, zeuen biotzak bigunduteko? Ez al dozuez asko entzunak zeuen erraiak laxatuteko eta zabaldateko? Izan bedi bada gitxienez, izan bedi J.K°.k berberak bere ao gozotik esan eban parabola edo irudin ederra. Entzun bada.

Seme bi zituzan guraso batek, eta gazteenak esan eutsan bein: Aita, betor niri yagotan senipartea. Emo'eutsazan Aiteak bere diruak, eta Seme gazte ori diruok artuta yoantzan erri urrunetara (asagoetara). An oparo yan, naroro edan, galanto yanzi, emakume zantarrakaz deungaro ibili, eta yokoetan eta zorakerietan beingoan yan ta ondatu zituzan bere diru ederrak. Onetan goseta andi bat etorri zan erri atara eta goseak ilten ebilen gaixoa. Bere burua alan ikusi ebanean gazte onek ain arlote, eta ain artu, billatu eban ugazaba bat, eta ugazaba onek agindu eban laguñekoak yagoten. Emen bere gosea emendatuteko yan gurako zituzan laguñekoai emoten yakeezan ezkur, zeruka, leka eta anabakeetatik, baia ori bere ez eutsen laketuten. Premiña estu onek kontuan yausi eragin eutsan gazte zoro oneri, eta esan eban bere artean: Ai, bada! Nire aitenean zeinbat otsein eta alogereko dagozan ogi andi gura ezta daukeela, eta ni nago emen goseak ilten! Banoa bada, gurasoagana, eta esango deusat zelan pekatu egin dodan zeruaren eta bere kontra, eta eztodala nik merezi berak semetzat artutea: baia alan ta guzti artu nagiala alogerekotzat. Esan ta egin. Artuten dau errirako bidea. Aiteak ikusten dau urruneti zelan datorren; eta bere erraiak ezin-itxita, baioako arin arinka, artuten dau besartean, emoten deusaz mosu gozoak. Esaten deutse otseinai: ea gazteak: arin ekarri egiozue yantzikirik onenak eta oñetarako zapatak; il egizue txalik gizene-na, bada gaur alazoko konbit bat egin bear dogu, eze seme au il yatan, eta biztu egin yat, galdurik neukan eta aurkitu egin dot.

Geu gara, neure Kristiñauak, geu J.K°.k esan eban Seme galdu eta galtzalea, pekatua dala medio Ygkoaganik urrun bizi izan gareanak, bere graziazko ondasunak, ondatu eta galdu egin doguzanak. Baia geure zeruko Aiteak barriro artu gura gaituz bere adiskidetasunean; atzera emon gura deuskuz geuk galdu doguzan graziazko ondasunak, eta ain egarri andia erakusten dau geure arimen eze, berak dirausku bere aotik eze, pozkari andiagoa izango dala Aingeruen artean pekatari bat Ygkoagana bihurtuten danean, eze ez laurogeta emeretzi on penitenziazik bear eztabeenakgaitik. Zeri begira gagoz bada Yaunagana bihurtu ez egiteko? Esango dogu geuk bere antxina beste batzuk legez: geureak egin dau, onezkero ezin ondu gintekez, aurrera eroango doguz geure gogo txarrak eta okerreriak?



5. JESUKRISTO-K GU EROSTEA

(J, 129-141. or.)

Sic Deus dilexit mundum,
ut Filium suum unigenitum daret, ut omnis,
qui credit in ipsum, non pereat,
sed habeat vitam aeternam.

1. Yesukristo geure Yaunak esan eutsazan Nikodemus-eri oneek ber-book: «onenbestean maite izan eban Ygkoak mundua eze, emon eutsan bere seme bakarra, beragan sinistuten ebeenak galdu etzitezentzat, eta bai euki dagientzat betiko bizitzea». Eta zan esan izan baleu legez: beti ta beti izan deutse Ygkoak gizonai onerexi (amodio) andi bat, eta agertu izan deutse berak egin izan deutsezan ainbeste mesedeetan. Berak egin zituzan eurak ezer-ezerik, emon eutsen arima eder bat gorputz galant bategaz batera: berak euren bizitzeari iraun eragiten deutso: berak emoten deutse yan-edana, oña ta soña, eta ganeko ondasunak. Eurentzat egin zituzan munduko baster guztietan direan gauza ederrak; eta direanak imini zituzan euren agindu-pean. Berak egunean egunean onentzat eta gaistoentzat agertu eragiten deutso eguzkiari, eta bitzuoentzat biraldu daroaz bear direan euri gozoak. Baia etzan onetan lotu (gelditu) Ygkoaren gizonak ganako asko-gurea. Bere seme bakarra, beragaz bat eban seme laztan au giñokoa, emon eutsen, beragan sinistu gura ebeen guztiak galdu etzitezentzat infernuan euren buruak ondatuta, ezpabere gauz'onak eginagaz betiko zerua irabazi legientzat. Orretarako biraldu ninduan ni, mundu onetara, eta ordena estua emon eustan neure bizitzea gizonak gaitik emoteko (emon bearko nebala). Eta alantxe izan bearko dau izan bere; preso artuko nabe, azotaduko nabe, eta kurutze baten eskegirik ni ilgo naz gizonak pekatuetarik ateretearren.

Ze berba gozoak oneek, geure biotzak Ygkoaganako amodioan sutu, exetu, eta erre eginbear leukeenak! Ygko bat berak eginiko gizon esker-gaistokoak-gaiti gizon egin... Ygko bat berak eginiko gizon esker-gaistokoak-gaiti neke andiak ikusi, eta bere bizitzea galdu... Ai bada au beti begien aurrean bageunko, Ygko ain laztana maite izateko, eta aren esana gauza guztietan beti egiteko! Bai alperrik eze (nonbaiste bere, aurkitx.) ori gogoan ondo ondo artuta ez geunke ainbeste bider aren kontra egingo, ez aren lege santua ainbeste bider ausiko. Auxe bada entzun bear

deustazue arratsalde onetan, ea berotu al balediz zeuen biotz otz edo epel orreek Yesus maitearen amodioan. Ikusi bear dozue zeinbat egin eban Jaun onek geure onerako, geu pekatuetarik aterata zeruan sartuteko. Onewen ganean bada izango da gaurko sermoia. Erdue bada kristiñau onak, Jaunak erakutsi dituzan bideetatik zabiltzenok, ikusi egizue zer egin eban zeuek gaiti Ygkoak, eta orregaz ezagutuko dozue zeuek egiten dozuen guztia eztala ezer ari zor deustazuenen parerako. Erdue zeuek bere pekatari gaixoak. Yaunaren kontra gorroto gogorrean zabiltzenok edo itsu-itsurik ebili zareenok, eta ikusi egizue zeuen esker gaisto eskergea: baita ezagutu egizue zelan Ygkoak errai erraietarik gura izan daben zeuen ona, eta zelan orain . bere besoak zabalik dagoan zuek artuteko beragana biurtu gura badozue.

Eta gauza oneri sustraia artuteko, gogora ekarri bear dozue zelan Ygkoak osterantzeko gauza guztiak egin ezkerok, egin eban gizona guztien buru, nagusi, eta agintari izateko. Emon eutsan buru iratzarri-argia, biotz zabala, prestua eta noblea, gurari ederrak eta zitelkeria bagakoak. Edertu eutsan arimea grazia santuagaz, eta ain egin eban bere adiskide eze, bete betean esan leitekean eze, Ygkoak gizonagaz eukala bere gozo guztia. Gizon au betiko zorioneko egin gurarik, prestau eutsan gloria eder bat, non, munduko egot-aldia egin ezkerok, egon bearko eban bere aurrean, bera ikusten, eta bera gozetan betiko eta betiko, munduan bizi zan artean Yaunaren esana egiten beeban. Erraz eukan orduan Adan-ek Ygko orren agindua egiten. Ez eukan geuk legez arerio gogor indar andikorik: aragiak ez eutsan gerrarik egiten, biotzak ez eutsan zitelkeriarik ez okerreriarik emoten, diabruak ez eukan bere kontrako indarrik, etzan iñon lagun txarrik; eta berba baten, zan bere buruaren yaube oso osoa, eta eukan bere alde Ygkoa gauza guztietan lagunduteko. Eta, ai, alan egin izan baleu! Ez bera ez eze, baita beraganik gentozan, guztiak bere bera legezko (lango) zorionekoak izango ginean geuk geure erruz geure burua galdu ezik.

Baia eta, zer yazo zan? ai! ta, nok gogora ekarriko dau negarrik egin bagarik Adanek egin ebana? Esker-gaistoko gizon onek ez eban egin gura izan Ygkoaren esana. Yaunak esan eutsan (zaigetz) sagar-ondo bateko frutaeitarik ez yateko (yan ez eiteko), baia berak Yaunaren esanari ez yamon eginda yan egin eban, eta gauza ain erraza ez egin gurea gaiti galdu eban Ygkoaren grazia eta adiskidetasuna, egintzan beragaz arerio, guztizko indar andiak artu zituzan diabruak bere kontra, gorputza bere mukerka abiadu yakon arimeari esanik egin gura ezik, galdu eban zerurako eukan eskubidea (eskuikunea), eta ekarri eutsan bere buruari betiko infernuan erreten egon bearra. Eta ez eban bere burua bakarrik galdu, geu



guztiok bere galdu egin ginduzan, eta gareanok (danok) geure lenengo izaterik aldean izan genduan beraganik dakargun (yatorkun) pekatu orijinala, eta pekatu onetarik yatorkuzan negargarritzko kalteak.

Zer egin bear eutsan Ygkoak ain esker-gaistoko agertu yakan gizon oneri? zer egin bear eutsan ainbeste mesede bere eskuetarik artu ezker, alango ezer-ezkeria bat egin gura izan ez eban gizonari? Parkatu bear eutsan, ala infernuko ondarretan ondatu eta galdu bear eban? Eztakit nik zer esango leukeen gauzarik txikiena parketan eztakienak, eta iñogaz ezer izan orduko, N.ra ta ostera dabiltzanak kerellaak mundu guztiari ekarten. Baia geure Ygkoak geiegi gura eutsan gizonari ez errukirik artuteko, eta ez eutsan biotzak itxi alan galdurik ikusten, Zer egin eban, bada? Erabagi (ebatsi) eban bere Seme bakar laztana, Trinidad santuko bigarren persona, Aiteagaz eta Espiritu-santuagaz Ygko bat dana, gizon egin zidila, gizon pekatuan yausia pekatuik aterateko. Erabagi eban oraindo geiago; erabagi eban Ygko gizon eginiko onek neke, irauna, eta ala gogorrak ikusi, eta kurutze itzal baten untzeakaz yosita bizitzea galdu legiala, gizonari galdu eban arimako bizitzea atzera emoteko.

Zer? Ygkoa gizona pekatuik ateretearren gizon egin? Zeru-lurraren egillea berak egin eban gizonari mesede egitearren gizon egin? Ygko andia iñoren bearrik eztaukana bere kontra yagi yakon gizona bere adiskide egiteko gizon egin? Eta gizon egin bere gizon eskergaistoko orregaitik nekeak ikusteko, iraunak eroateko, eriotza ikaragarria igaroteko? Zer geiago egin eukean Ygkoak bera gizon izan eta gizona Ygko? Eta, zer eutsan Ygkoari gizona galduagaitik? Ezer ez (Bapere ez, arean ez). Ain andia zan Ygkoa, ain gloria andikoa, ain atsegintasunez betea gizon guztiak galdu ezker, zein da gizonak irabazirik. Milla asko urteetan, edo obeto esateko, betiko guztian egontzan Yauna bapere gizonik bear bagarik, berak beragan gaur alaiña (edu, lainbeste) gloria eta atsegintasun ebal. Gizonarentzat zan mesede eta on guztia, bada Ygkoak pekatuetarik askatu ezpaleu, egon bearko eban gizon orrek Ygkoa Ygko dan arte guztian infernuko ondarretan erreten eta kiskalduten.

Baita bein gizona pekatuik atera gura izatekoan, ez eukan Ygkoak orretarako bera gizon egitea baxen beste biderik? Baia eta, nok ukatu lei, diño san Bernardo-k, gura daben guztia egin leikeanak bere eskuan beekazala ori egiteko beste milla ta milla bide? Aingeruai emon euskioen ori egiteko ordena: egin eukean pekatu bagako gizon barri bat, eta ak kitadu leiala beste gizon errudunen zorra: parkatu euskion doan (doarik) gizonari bere bekatua. Baia ez, diño Ygkoak. nire kontra ibili dan gizonari, nire arerio egin izan dan gizonari egin bear deusat egin al neikion mese-

derik andiena: egin bidi gizon neure seme maitea, il bidi lapur bat legez kurutze baten eskegirik, eta orregaz egingo dira gizonagaz nire arteko bakeak. Egin euskigun Ygkoak beste onango mesederik? Erakutsi euskegun on-eritxi, eta ondo-gura andiagorik? Ygkoak berak emoten deutso *amodio larregiaren* izena. Eta Zakarias santuak esan eban izantzala Ygkoari errai erraierarik urten eutsan errukia. Baia obeto ezagutu eta adituko dozue amodio onen anditasuna ikusirik zer egin eban Ygkoaren seme onek geu pekatuetarik askatuteko.

Eta onen ganean berba egiten asi baño leenago, guztien sustraigarritzat esan bear deusuet zelan Ygkoaren seme gizon eginak egin leikean gauzarik txikien txikiena askoko zala geure guztioen pekatuen parkaziñorako. Eta alan aren negar anpulu (malko) bat, izerdi tanta bat, odol tistilla bat, oraziño labur bat, eta beste edozein bere gauza asko zan gizona pekatuik ateretako eta (ori bere bai baia) arik gora egin eban guztia geuri euskun amodioak erazota egin eban. Dakusgun bada orain Ygkoak lagunduten deuskula, Yaun onek egin zituzanen arteko batzuk. Eldu zanean Ygkoak izentadurik eukan aldia (denporea) Ygkoaren seme-gizon egin-tzan, eta yaio zan andra Maria Birjineaganik Yesukristo geure Yauna. Baia eta, zelan yaio bere? Ai! zerulurraren egillea, Yaun guztien Yauna, Errege guztien Errege; Ygkoa bera yaio zan ama pobre bateganik, ez etse barruan, ez oerik egoan lekuan; ezipabere abel-etse baten, edo esan daigun korta zantar baten: askea (estramiñea) izantzan Yaun andi onek lenengo izan eban kumea, lastoak bere oea (ogea). Yaiota zortzigarren egunean asi zan bere balio andiko odola emoten.

Eta, Zeinbat neke, burukomin eta izerdi ikusi etzituzan gugaitik Ygkoaren semeak? Gugaiti egontzan Ygkoa andra baten eta gizon baten mendean, bere amaren eta san Josepe-ren esanak ixiltzurik, semerik esanekoenak legez, egiten zituzala. Gugaitik bizi izantzan ogeita amar urtegiño bere izerdiagaz ogia irabazten ebal. Gugaitik ibili bear izan eban erririk erri baster guztietan Jgo bere Aitaren berbea zabal duten ebal, eta sarri izerdia, gosea, egarria, nekea aldean ugari zituzala. Gugaitik egin eban bapere (arean) artu bagarik berrogei eguneko barau gogorra. Gugaitik entzun bear izan zituzan lanzean lanzean (pitean pitean) eregiten, erantetan eutsezan milla deitu txarreko guzur oker: yan-edan ondo egiten zalea zala; deungakaz batzanduten (batuten, lagunduten) zala; bera bere gaisto oker bat zala, eta beste asko. Gugaitik erabili ebeen il gurarik bai Herodes erregeak, bai bere erritarrak, bai beste askok. Gugaitik. Baia bere pasiño gogorrak daroat niri gogo guztia: emen iñon baño obeto agiri da



Ygkoaren guganako on-erexi eder lastana; eta alan onen ganean astiro-xeago egin bear dogu.

Baita gauza bik nauke ni Yesukristoren pasiño orretan ikaraturik, eta konorte bagarik legez: bata da Ygkoaren semea guztien ostikopean ikus-tea: bigarrena, barriz, Ygkoaren seme orrek ikusi zituzan ala gogor-ezin geiagokoak: eta deretxat eze, zeuek bere niri entzunda beste orrenbeste esan bearko dozuela. Entzun bada. Bai satza legez darabilde guztiak Jesus. Bere eskolako batek, beragaz ogi baten bizi izantzanak, salduten dau, eta dollorkeriarik zitelenagaz iminten dau bera ilteko ebilko zan are-río okerren eskuetan. Beste batek biraoka eta erneguka diño beragaitik eze, berak eztazuela alango gizonik: Eta ganeke guztiak, atzea emonda, iges egiten deutse. Mutil otsein ikusi batek emoten deutan belarrondo-ko eskergeagaz lotsea dariola iminten (itxiten) dau Pontifize nagusiaren eta erriko bana-banazeen aurrean, iñok orregaitik berba bat otsein orreri esaten ezteutsala. Soldaduak barriz begiak estaldu (estari) barregarri darabilde, matrallakoka, txistu (tistu, txu) loiak eta gorro atsituak arpegira urti-ka, dirautsela destañez barre zantzo artean: «ea igarlari, ea zelan igarten doan nok yo auban».

Eta, nok negar bagarik gogora ekarriko dau zelan santutasuna eta ontasuna bera danari milla guzur oker lenagokoaz ganetik (ostean) ezarri eutseezan: erriai yagi eragiten ebilela, Erregeari zor yakazan kontribu-ziñoak (petxuak) pagatea galarazo gura ebala; Ygkoaren kontrako berba deungaak esaten zituzala, eta onelangoak: Zelan barrabas okerra baxen okerrago egiten dabeen; zelan lapur biren erdian ilten dabeen bera buru eta nagusi balitz legez? Nori biotza ausiko ez yako ikusirik Ygkoaren yakit-uria Herodes-ek zoro egiten dabela, eta berak burla-zar yantzi eragin eutsen soñeko zuriagaz daroela kaleetatik zear, mundu guztiak irri ta barre egiten deusala? Nori azkenean erraiak apurtuko etxakoz dakusa-nean arako gizon noble odol onekoa, Ygkoa bera Aita dabena, eta ama-tatik ogeta bat erregeen odoletik datorrena billau bat legez azotadurik, eta lotsagarritzko kurutzean (kurtzioan) ilik?

Baia ezta beingoan igaroteko arantzazko koroaren zera..., barre lotsarizko negargarria. Soldaduak, iñoren leporik barre egiteko beti prest egon doazanak, ikusirik Jesus lastana nekerik andienetan bere ixi ixilik egoala, eta bakerik bapere (arean) galdu bagarik, eta yakinik beste aldetik ari edozein txarkeria eginagaitik, Pilatos-ek ez eutsela buruko-min andirik emongo, Yudeguai barriz orregaz biotza zabal zabal egingo eutseela, artu zituezan asmuak (buruak), beragaz barre aldi bat izateko. Eztakit nik obato esango ez neunkean diabruak gauza ori burura emon bear izan

eutsela, bada eurak asmadu ebeena ezituzi iñondi bere munduan danek ames bere egin leikeala. Entzun izan ebeen zelan Jesus gozari beste gauzeen artean ezarten eutseen bere burua errege egin gura izan ebalakoa, eta orretarik buruak emon eutsen burlazarrezko errege egin bear ebeela.

Esan ta egin. Eioten dabe arantza gogorrekaz koroe ikaragarri bat, erantziten deutseez soñekoak, ezarten deutse sorbaldeetatik beera (atxi-na) kapa gorri zar bat, yesarri (yarri) eragiten deutse aulki (lenka) baten ganean, eta buruan yosten deutse indarka arantzazko koroe ori. Emoten deutse eskura zetro orde, kañabera bat eta asten yakaz erregeri legez agu-rrak eta esku-munak egiten. Paretan (iminten, yarten) yakaz batzuk aurrean, belauniko (belaunbiko) eta algaraz eta karkiaz dirautse: «agur Yudeguen errege». Besteak artuten deutse eskuetako kañaberea eta bera-gaz, blast, yoten dabe buruan. Baia asko zirean legez, ezin guztiak ain urrera eldu yakazan orrenbeste egiteko; baia orreek bere euren zitalkeria erakusteko (arren, arrik) gorro atsitu loiak egiten eutseezan arpegira. An zirean algarak, an barre-zantzoak, an iji-ajak, an berba zantarrak, antxe barallea eta iskanbillea.

Neure biotzeko kristiñauak, ete dira oneek ipuiñen batzuk, edo ames-zen batzuk? Egin ete zirean onelango gauzaak gizon oker gaisto bizi bere bear ez leukeanen bategaz? Ez, eztira egia uts utsak baño, eta zeru-lurra-ren egilleagaz, Ygkoagaz beragaz egin zireanak. Yaun au da arako yaun andia, zeinen aurrean aingerurik goienak eta nagusienak bere euren aur-pegia estaldu bear izaten dituezan; eta zerutar guztiak auspez lurraen (zelaian yarririk) etxunik opa (opatuten eskinduten) deutseezan euren buruetako koroiak. Baia soldadu aldra billau batek darabil munduko gizo-nik okerrera legez, edo satzena legez, dandarrez barregarri. O Yesusen pazienza diño san Bernardo-k, o umiltasun miragarria, eta o amodio parebagakoa! Ezagutu dagigun gugaitik egin izan dituzanetan, zeinbat gura deuskun. Zeinbat eta bere burua gitxiago egiten daben, ainbat eta geiago eta geiago agiri da geuri deuskun legea eta ondo-gurea. Baia ezta orretan bakarrik agiri: agiri da bere gugaitik ikusi zituzan neke eta ala ezin esanezkoetan.

2. Ez eukan orretan bere Yesukristo geure yaunak geu pekatuetarik ateretako ainbeste ikusi bearrik: baia bere amodioak eta geuganako on-eritxiak arr-arazo eutsazan, eguño munduan gizonek ikusi dituzan gogo-rrenak. Munduko gogorrenak esan dot, eta eztot nik neure berbea yango. Baakit nik munduan askok ikusi izan dituezala Yesukristo-k ikusi zituzan gauzaak langoak, baita aek baxen askozaz eta askozaz gogorragoak bere; baia ez eutseen aei orreek gauzok onenbeste min eta ala emon, zeinda



Yesukristo-ri bereak. Zagoze puska baten, eta nik esango deusuet zegaitik. Zeuek ondo dakizue geure fedeak darakuskuna, eze, Yesukristoren gorputza zala Espiritu-santuak bere graziaz eta birtutez egina, eta esaterako moduan Espiritu-santuak berak bere eskuz egina. Beragaitik Yesukristo-ren gorputza zan osterantzeko gizon guztien gorputzak baño obeto egina. Zan bada edozein bere gauzatarako besteenak baxen zuurragoa. Mina emoten dau bear dan baño gogorrigo, latzago, edo bear ez leukean legez ukutu, yo, edo sartu egiten dan gauzeak, eta bardinean zuurrago dan gorputzean min geiago egin bear dau edozein gauzaak, sorrago danean baño. Alan bada izanik Yesukristoren gorputza Espiritu-santuak egina legez, beste ganeko guztienak baño askozaz zuurrago, askozaz bere minbereago izan bear eban besteenak baño, eta bardinean, eta gitxia-gogaz bere, askozaz gogorrigoa izango zan ak artuko eban mina, besteak artu leikeena baño. Au aurretik dozuela entzuzue orain zelango min emoteko gauza ikaragarriak ikusi bear izan zituzan Ygkoaren Seme onek.

Ain ikaragarriak izan zirean eze, preso artuko ebeen gau atan berean gogora etorteak zeinbat eta zelangoak zirean ikusi bearko zituzan onen-beste larritu eutsan biotza eze, gorputzeko alde guztietatik eriozan zara zara odol garbizko izerdi tantaak. Eta alan egin beutsan etorteko egozanen gomuteak, zer egin bearko ez eutsen orreek gero etorrita igaro bear izan zituzanean? Bai beintzat: ez Yesukristo-k legez gorputza eginik eukanari ez eze, baia gizonik gogorrenari, eta sorrenari bere ikaragarriak eta latzak eretxiko yakazan neke eta ala orreek, berak igaroteko izan balituz. Isaias profeta santuak zazpireunta urtegaz leenagorik (aurretitik) ikusi eban geure pekatuak gaitik birrindurik, bururik eta beatzetara zati (atal) osorik ez eukala: eta esan bear izan eban eze, beintzat ak alen eta gaixoen barri ondo ekiala. Eta Isaias-ek ain antxinarik ikusi ebana, ondo ta ondo, eta ondo baxen obeto yazo zan pasiño santuan. Onen ganean orain artean bere makina bat gauza entzun deustazue, baia alanbere zeuei obeto adietan (ulertuten) emoteko bere aldia elduta esku artean darabilgun gauza au, gogora ekarri gura deusuedaz Yesukristoren pasiño gogor orreko neke arrigarri bi, eta onek dira bere azoteak, eta kurutzeko eriotzea.

Ea bada entzula maiteak, errazki orain biotzera egingo dozuez zeuen indar guztiak, bada edo biotzik izango eztozue edo erdibitu bearko yatze, zeuen begien aurrean imintera noianagaz, beintzat bai Yesukristoganako amodio apurren bat badozue. Goazan bada lenengo Pilatos-en etsera, ikusteko an ze aserre, ze barregarri darabilen Jesus lastana. Pilatos bildurtia ikaraturik Kristo-ren kontra txakur eginik egozan Yudeguen zemakuntzakaz, agindu eban geure Jesus biotzeko ori azotetea, ea ezeta-

ra bigundu al balegizan Yudegu gogor orren errai (gogorrak) aserreak. Eta Yudeguen aserre au txitozko aserre gogorra zan legez, ikaragarria zan legez, alan gura izan eban bere Yesukristo-ri emongo yakazan azoteak guztizko gogor-ikaragarriak izan zitezen. Esan ta egin. Ozta ozta (nekez) aotik atera eban Pilatos-ek berba ori eta orra non artuten dabeen Jesus borrreru nabarbenak, erantziten deusez soñekoak billos billosik narru gorrian itxi artean (giñokoan) lotu, estuten dabe sendaro irrimete tarri (pillare arri-abe) batera, eta asten yakaz draunba draunba emon ta emon. Baia, zelan emon bere? Euren indar itzal guztiagaz. Entzuten dan zume-nen (mimenen) brina zoliak bildurtu lei, ugalen eta kordelen burrunberia aserreak ikaratu lei, eta azoteen durundio itzalak gogorturik itxi lei. Ai Jesus gaixoaren gorputz biguna, oraingoan beintzat zelan gelditu bear dozun! Baltzunak egin..., aragiak anditu..., zauri zakonak idigi..., zanak urratu..., azurrak agirian imini..., eta gorputz guztia bururik beatzetara lla luze bat eginik itxiten deuse. Ostikopean dabilte aragi atalak (zatiak, lurrean egin da odolezko erreka bat, borrreru tzarrak ezin besoai eragin deuse, eta oraindo bere (oraindokoarren) antxe dago Yauna azotekada barrien begira. Kristiñau maiteak, begiratuko zeunskioe negar bagarik? Elitxakezue erdibituko minen minez biotza Jesus biotzeko lastana alan ikusirik? Orain bada egizue zeuen artean zelangoak izango zirean Yesukristo-ren alaak, Espiritu-santu yaunak egin eban gorputz bigunaren minak atan banatu eta trimindu ebeenean. Eta kontuak luzeak eta zabalak egin izan dozueanean, nik esango deusuet eze, ori baño min geiago emon eutsan beste gauza bat ikusi bear izan eba, eta auxe da kurutzean untzeakaz yosita iltea.

Jesus maitea kurutzean untzeakaz yosita il ebeen. Ai ze laster esaten dan au, baia zelango arrigarritzko alaak ikusi bearko zituzan yaunak ori egin eutsenean! Kurutzean yosita il... Egontzare iños zeuen artean ea zer izan leitekean alan iltea? Antxina ori askotan ikustentzan gauzea zan, eta aldi atako yakitunak diño eze, ori zala eriotza gogor guztien artean gogorrana, eta ori baño askoz bere ohea zala surtan erreta iltea bere, lasterrago egitentzako. Gizon bat esku-oñetatik untzeakaz yosirik dagoana, odola zara zara gelditu bagarik dariona, mementorik mementora argalduaz doiana, dardar ikara dabilena eta egarriak ito bear dabena, baliteke bera baño gauza errukigarriagorik? Beso baterik ordu betean eskegirik egotea asko izaten da gizonik gogorrenari eta sorrenari egia aitortu eragiteko (erasoteko). Bada, zer izango zan esku-onetarik untzeakaz yosirik egotea, eta iru orduan egotea, Jesus lastana bizirik egontzan legez? Esku-oñetan batuten (batzaiten) dira zan guztiak, eta orregaitik esku-oñak dira



txitozko minberaak: besoak zabalik (idigirik) egotea, eta zabalik bere, kurutzean bear dan legez kurutzean yosirik egoteko, da guztiz nekegarria: gorputzaren pisua beti egongo zan untzeen zilloak (zuloak) etenduten eta gordinduten, eta geroago eta zabalago egiten; eta orregaitik beti egongo yakon odola urten eta urten, beinbere lotu bagarik. Onetarik etorriko yakon ikara bildurgarritzko bat, egarri eta argaltasun guztizko andi bat, eta gorputz guztiko ala ikaragarriak, zeintzuk geldi geldi bizitzea kenduko emuten kurutzean egoan gaixoari. Onelango eriotza gogorra (aserrea) emon izan deutse Jesus gozoari, onen gogor il izan dabe Ygkoaren semea.

Niri begitanduten yat oraintxe, antxe dakusdala kurutzean eskegirik bururik beatzetara alde oso bagarik, antxina Isaias-ek ikusi eban legetxe. Burua dauko arantzaz galdurik, gorputz guztia azotez ebagirik, eta alde guztietatik odol beroa dariola, arpegia matrallakoakaz anditurik eta baltziturik, miña, ao-sabaia, eta eztarria (samea) egarritz leorturik eta sikurik, eta beartzunez mindurik, esku-oñak untzez yosirik. Zer geiago ikusiko eban geugaitik Jesus laztangozoak? Baauko bere gorputz guztian min barri batentzako lekuren apurrik? Ainbestera eldu zan bere nekea eze Yaunak berak, pasiño guztian ez ai bat, ez zotin bat egin ez eban. Yaun onek, bere burua kurutzean alan ikusi ebanean, asi yakon bere Aita Yaungoikoari esaten: «Ene Ygkoa, ene Ygkoa, zegaitik alan itxi nozu? berba laburrak beintzat, baia alango Yaun pazienza eta bake andikoaren aoan asko baño geiago esan gura dabeenak.

Baakutsue orain, neure kristiñauak, baakutsue nogiño elduten dan Yaungoiko maiteak geuri erakutsi deuskun amodioa? Baakutsue? Geugaitik gizon egintzan, geugaitik ikusi zituzan neke, izerdi eta buruko-ala andiak: geugaitik ibili zan guztien oñen azpian; geugaitik eroan (igaro) eban eriotzarik gogorrena. Bai geugaitik, bere kontra ainbeste bider yagi izan garean okerrok gaitik; bere esanak egin gura ezik ainbeste bider ibili izan garean mukerrok gaitik ainbeste ikusi izan dau zeru-lurraren egilleak, geu egin ginduzan, eta bizirik gaukazan Ygkoak. Eta au entzunda, zeuen biotzak, eztira bigunduko? Pekatari gaixoak, onenbeste gura izan deutsue Ygkoak, eta, zeuek ezteutsazue ari ondo gurako? Eztozue aren esanik egin gurako? Aren gorrotoan bizi gurako dozue? Alan egiten yako Ygkoari? Zer da au, neure kristiñauak? nongo zorakeriak artu deutsue burua? Ygkoak zeuei ainbeste amodio erakutsi, eta, zeuek salduko dozue arrak yango dabeen aragiaren gustu zantar bategaitik? Ygkoak zeuei ainbeste amodio erakutsi, eta, zeuek salduko dozue egun bireko baño izango ezti-rean diruak gaitik? Ygkoak zeuei ainbeste amodio erakutsi, eta zeuek

saldu gurako dozue laster itxi bearko dozuen adiskide txar batzuk gaitik? Ygkoak zeuek gaitik ainbeste ikusi, eta, zeuek neke eretxiko deutsazue bere esana egiteari? Etzare lotsa bere seme-alaba gazteak Ygkoa zeuei mesede egitearren bere amaren eta san Josepe-ren agindupean esanak ixilik egiten ikusita, zeuek gorasoak ezer esaten deutsuen orduko erremux-kadaka, burrufadaaka, karkabu txarka agindua egin gura ezik (eztozuela) ebiltan? Etzare lotsa senar-emazte bake txarrekoak, Ygkoa zeuen onerako ainbeste txarkeria eta ainbeste neke bake onean eroaten ikusita, zeuek beti alkarren kezkan, beti txakur katuak legez alkarren aserre gogorrean ibiltan? Etzare lotsa kristiñauak ikusirik zeuen Ygkoa ixi-ixilik bakean deungaro andiak entzuten, min ala eskergaak ikusten, eta eriotza arrigarria igaroten, zeuek deungaroren bat esan dagizuen orduko? txatxarkeria apurren bat egin dagizuen orduko, bengai, kerellea, demandua gorrotoa, besterik ez erabiltan? Ygkoaren Semea geugaitik alaz eta minez ase ase eginik, eta loi zantarrak aragiaren atsegintasun zikinez euren buruak asazkatu ezinik. Ygkoaren Semea geugaitik barau gogorrek, goseak, egarriak ikusten: ordi konkorrak ardaaz sabelak bete ezinik. Ygkoaren Semea geuri on egitearren bizitza nekoso, eta eriotza itzala daroiala: testigu okerrak adiskidea serbidutearren aren damu gorrian aren izen santu lotsa andikoagaz guzurragazko testigantza (gaia) gaistoa emoten dabeela.

Zer da au, neure kristiñaua? Non da geure aurpegia? Non da geure biotza? Ygkoaren Semeak geure onerako ainbeste egin, eta, geuk eztogu aren esanik egin gurako? Eztot ondo esan. Geuk geure pekatuakaz, geure pekatu anditzarrakaz, barrien barri kurutzean yosi bearko dogu? Ez, neure biotzeko entzulaak, ez. Amodioari amodioagaz erantzuten yako: on-eretxiari on-eretxiagaz, eta ondo-gureari ondo-gureagaz. Eta bada Ygkoaren Semeak zeuek gaitik ainbeste egin izan dau, zeuek bere aleginak egin bear dozuez bera ondo serbietako, bere esanak gauza guztietan egiteko. Au eskatuten deutsue Jesus maiteak; eta au egin bear deutsazue Jesus maiteari. Eta au egiteko gogoak artuten badozuez, errazki yoango zare bete betean beragana: berak esan eban bere aotik bera pekatarien billa etorri zala mundu onetara. Jesus gozoak eskatuko deutso bere Aitari zeuen pekatuen parkaziñoa. Kurutzean min alaz ilten egoala eskatu eutsan bera alan imini ebeenak gaitik: eta oraintxe gugaitik egiten dagoa-la dirauskue San Yoan eta san Paulo apostoluak, eta ez geure pekatuak gaitik ez eze, baita mundu guztikoakgaiti bere. Zeruan dagoala bere eztau galdu izan Ygkoaren Seme onek lengo gudanako on-eretxi eta laztantasun gozoa, eta alantxe dirausku esatera noatzuen urrengo exenplu onek.



San Karpo izantzan obispo santu arima-zale, eta bere kontura eukazanen ardura andikoa. Yazo zan bein, onetariko bat fedebagako yentil batek engañaduta euren fiesta zantarretara eroatea. Arako san Karpo-k ori yakin ebanean, sumin andi batek artu eban dana, eta bere artean erreten ebilen euren kontra, ez zer esan, ez zer egin bere ez ekiala. Gaubean gaubean gaubedirik gorako guztia emon eroian oraziñoan, eta gau atan Ygkoari beragan egoan berorik andienagaz eskatuten eutsan arren bada, eta arren bada kastigadu legizala gaiskin bi aek, galdu legizala besteen onerako bere alango gizon oker-nabarbenak. Onetan egoan santua ekin ta ekin, bere eretxian beartzana baxen Ygkoari eskatuten ez eutsala: baia Yaunak besterik uste eban, eta besterik agertu eutsan urrengo bisioño eta ikusgarri onetan. Lur-ikara bat izantzan bera oraziño egiten egoan lekuan, eta erdiz erdi zabaldu yakazan zeru ederrak eta ikusi eban aingeru artean Yesukristo, argiz eta gloriáz yantzirik egoala. Idigi yakon bea bere, eta ikusi eban ondo-bagako zilo eta leza ikaragarritzko bat, eta aren ertz ertzean larri egozala yausi aginean bere pekatari biak, eta leza bee atarik etozan suga eskerga askok euren agin zorrotzakaz eta busten luzeakaz aleginak egiten zituezala biak antza eroateko.

Argitu yakon orregaz san Karpo-ri biotza eta luze eritxola aen yausteari berak bere bultzadaka bota gura zituzan andik beera. Baia orra non ikusten daben zelan Jesus gozoa ta gozoa eta milla bider gozoa, gizon errukarri orreen larria ikusirik, zerurik yazten dan aingeruak lagun dituzala, eta bai eskua emon ta kenduten dituzala lezaren munarik. Au egin da Jesus-ek berak Karpo-ri arpegi artuten deutso dirautsala: ea Karpo ementxe nakazu: eta ainbeste suz beterik zagozan ezkerro esetsi egidazu barriro ta barriro bere. Prest nago beste bein, eta beste milla bider bizitzeta emoteko arimaak zerura eroatea gaitik: eta ori iñoren pekatu bagarik egin al baledi, atsegintasun andi bat artuko neunke nik orregaz. Eta bada zeuk ainbeste arimeen zelo eta egarri erakusten dozu, ea begira zeuretzako zein guraago dozun, ala infernuan demoniñoakaz betiko erretan egoitea, ala zeruan aingeru ederrakaz beti beti Ygkoa ikustea.

Onelango Jesus-en berba gozoak entzunda eztira geure biotzak bere amodioan bigunduko? Eztira urtuko? Bai beintzat: oraintxe bigundu bear doguz Jesus maitearen oñetan. Jesus laztana, neure biotzeko Jesus gozoa, zek egin zaituz geugana orren etxuna eta onen urtua? Baia, zek? zer ikusi dozu geugan zeure biotza geuri onelan emoteko? Erakutsi deutsugu geuk besterik ezpada laburtasuna, txatxakeria, eta okerreria? Bada, zek zaukaz gugana ain itsuturik? Zer dirauskuzu? Baia, zer esango deuskuzu? Antxina israel-darrai esaten zeuntsezanak. «Andra batek aztu lei

berak egiñoiko seña errukirik ez izateko bere erraietako umeari? Bada ak aztuko baleu bere, ez nik zeuek. Nik neure eskuetan eskribiduta zaukeedaz». Bai Jauna, eskuetan eskribiduta gaukazuz untzeak egin eutsuezan zuloakaz, gorputz guztian eskribiduta gaukazuz guganako amodio berorak artu eragin eutsuzan ainbeste zaurigaz eta orregaitik ezin aztu giñauzuz. Oneek erakusten deutsazuz zeure Aita eternoari geugaz bigun egiteko, eta geure pekatuen parkaziñoa yadiesteko. Erakutsi egiozuz arren oraintxe geuk, zeu bitarteko iminirik, biotzeko minagaz pekatuen parkaziñoa eskatuten deutsagun arte onetan.

Aita-eternoa, geugaitik zeure Seme maitea mundu onetara ilteko ordena estuagaz biraldu zenduana, «Ecce homo», ara emen, begiratu egiozu ondo zelan egontzan kurutzean, geure pekatuen parkaziñorako bere bizitzeta emon ebanean. Begira, aita, buru arantzaz galdu oneri: begira aurpegi anditu eta baltzitu oneri: begira sorbalda zatitu onei: begira gorputz banatu eta trimindu oneri: begira esku-oñ untzez yosi onei: begira albo zulatu eta irigi oneri. Oneek guztiok zeuri geure pekatuen parkaziñoa eske yagotzuz: onen odolak deadar egiten dau ez geure kontra, ezpada geure alde. Beronek bizi zanean egin eutsuzan eskariak entzun zenduzan bere lotseagaitik: entzun egizuz orain egiten deutsuzanak bere, eta parkatu egiguzuz geure pekatuak. Baia zelan entzungo eztozuz zeure Seme laztan onen eskariak? Zelan ukatuko deuskuzu zeure Seme laztan onek guretzako eskatuten deutsuna? Berau seme gozo au geuri emon zeuskun: zelan bada beragaz batera (nastean) emongo ezteuskuzuz ganeko gauza guztiak?



1. YESUKRISTOAREN PASIÑOAREN GANEKO SERMOIA

(A, 1-18. or.)

Opressit me dolor meus... Aperuerunt super me
ora sua, et exprobrantes percusserunt maxillam meam,
saturati sunt poenis meis.
Azpian artu nabee alak: idigi dituez nire kontra egiteko
euren aoak, ni ostikopeian erabilteko matrallan yo nabe:
aspertu ta asazkatu izan dira neure nekiakaz.
Iob c. 16. v.v.8. et 11.

2. ATALA

Il da Yesukristo gugaiti: gugaiti il Yesukristo. Ze besterik, bear da, onek berbok esatea, eta santokristo bat begien aurrian imintia baño Pilatosen beinolako berbokaz: *Ecce homo*: Kristiñau direanen biotzak damuz, minez, eta atsakabez beteteko ? Bai: ze onegaz gogoak beingoan emongo leuskioe Yaungoikoaren Semea, Trinitade santuko bigarren personea, Aitagaz, eta Espiritu santuagaz Yaungoiko bakar bat dana, zeru-lurren egillea il dala, eta il bere egin dala, gu bere arerioak adiskide egiteko bera-gaz: guri okerroi, galduta genduan zerurako bidea emoteko. Emongo leuskioe oraindo eurak dakiezan Yaun orren neke andiak, bada begiak erakutsiko leuskioez buru arantzaz galdua, arpegi matrallakoz baltzitu, ta mallatua, sorbalda azotez apurtuak, eskuan unzez yosiak, eta gorputz guztia bururik eta beatzetara birrindua, eta zati osorik baakoa.

Alantxe da: baia zuek etzare onenbestegaz aspertuten, eta obeto berotuteko zeuen biotzak, zeatzago entzun gurako zendukez Yesusen neke orreek. Ondo eginik dago bada, neure entzula onak, eta ori izan da beti giza-aldi guztietako kristiñau guztien guraria, eta Elexa ama santeak berak egunokaz irakurri eragiten deusku meza santuan, neke onen ganean ebanjelista santuak eskribidu ebeena. Egingo deusuet bada, eta ondo ta ondo gogoti, bada nik neuk, nasan epela izan da bere, neugan ikusten dot, antxina san Leon-ek ziñoana, eztala gauza gozoagorik, ez atsegintasun geiago emoten dabenik, gure Salbatzallearen pasiñoaren ganeko berbetea baño.

Eta au zuei bear dan argi bidean egiteko, gogoak emon deust, Yesukristoren aotan imintia, arako Yob santuak burutik eta beatzera zauriz beterik, alde guztietati atsakabez, eta naibakoz inguraturik, eta iñondi bere



onik ez eukala, esan bear izan zituzan berba larri oneek: «Azpian artu nabe alaak, zabaldu dituez nire kontra euren aoak, eta ni ostikopean erabilteko matrallan yo nabe: aspertu ta asazkatu izan dira niri emoniko nekiakaz». Bai beintzat, oneek berbok Yesukristok bere pasiño aldian Yob santuak baño askoz ta askoz, eta milla bidar askoz obeto esan eukezan, bada ordu onetan bere iñon dirian nekeak uriolatu dabe, eta ez zelanaiko nekeak, ezpabere beragaitik aspaldiko urteetan esanik egoana, infernuko nekeak: ostikopean, ta zatz eginik erabili dabe, gizona ez, eta lurreko ar-tzantar bat balitzan legetxe, eta azkenean alango yoteak, alango zauriak, alango desgarrioak egin izan deutez eze, beragaiti esan bear da Isaias Profeteak antxinarik esanik eukana, burutik eta beatzetara ez eukala atal osorik, ez urratirik, ez eukan zatirik.

Auxe zuei erakustea da nik neure buruari emoten deitsadan gaurko goxerako arloa ta sailla. Eta pasiñorik geienean, eta guztiz bere atsenengo neketan, guztiak erabatera agiri badira bere, orregaiti alde batzuetan batzuk, beste batzuetan beste batzuk argiroago ikusten dira, eta beragaiti iru zati egingo dot Yesukristoren pasiño ori. Lenengoan erakutsiko deutsuet, ze itzalak, eta zeinda geiagokoak izan zirean Yaun onek Jesemaniko ortuan ikusi bear izan zituzan biotzeko min-alaak. Bigarrenak artuko dau andik eta azoteak artu bear arteko guztia, eta berean ikusiko dozue Yaungoikoa zatz eginik guztien oñ azpian. Eta irugarrenian entzungo deustazue enparaduan Yaun berak irago zituzan gorputzeko ala ikaragarri lotsa-garrizkoak. Orregaz eroangarriago egingo yaku zuei eta niri, luzexeago izan doian pasiñoko sermoia, eta itxi aldietan arnasa apur bat, eta indar barriak artuko doguz, nik esateko, eta zuek enzuteko, esan ta entzun bear direan ainbeste gauza. Barriz bitartean ezin esan bagarik itxi neikezue, Yesukristoren pasiñoa entzutean, bigundu bear yatzuezala biotzak: baia bigundu, pekatuen damutasuna, ta garbaia izateko, eta geiago ez egiteko, goguak artuteko. Bada, zetarako izango da Yaunaren pasiño ori entzutorduan erraiak samurtutea, eta gura badozue apurtutea, eta gero lengo pekatari gelditutea? Yerusalengo andra batzui esan eutsena: «ez niri negarrik egin, eta bai zuen buruai, eta zuen umeai; bada oneek zugatz (arbola) ezeagaz egiten badira, egur igarrakaz zer egingo dira?»

Baia ezteutsazue orreri bere asko eretxi bear, ezpada ze, ikusirik, zelan Yesukristok Aitaren esana egiteagaitik, poza alde batera itxi, lotsariari etxaramon eginda, bakean eroan izan eban, gaisto oker batzuk erakutsi eutsen alango pasiño garratza, alantxe zuek bere Yangoikoaren borondatea egitearren, penitenziatzko bizi-modu bat egin bear dozue, munduko zorakeri, poz zoro, ta atsegin guztietati albora egiten dozuela

(aldenduten zareela) zeuen buruai nekegarria, ala ta damuaria emoten deitsazuela, eta ezta munduagaiti bere pekatu egiten eztozuela. Auxe adierazo (ulertu eragin) gura izan euskun Yaunak berak esan ebanean: «neure atzean etorri gura dabenak, artu bere kurutzea, eta yarraitu begit». Eta san Pedrok dirautsue: «Kristo iltzan gugaiti, guri bidea erakusten euskula, bere oñatzai (lorrotzai) yarraitu dagiozuentzat. Auxe da Jesus lazta-naren pasiño garratza gogoan erabilteko modu egokia, ta mesedegarria.

Eta Yaunari ondo eretxiko yakon moduan egiteko, etxun gaitezan orain bere Ama Birjiña Maria-ren oñetan, eta eska gagiozan arren bada yadietsi deigula, guk orretarako bear doguzan laguntasunak. O Ama biotzeko gozoa! inok eztaki zuk baxen ondo zerzuk eta zelangoak ikusi zituzan zeure Seme laztanak. Zeuk, andrea, zeuk ikusi zenduan, zelan egoan kurutzean eskegirik, alde guztietatik min alaaz, atsakabez, ta naibagez inguratutik eta urjolututik. Orduko eta pasiño guztiko Ama Semeen nekeagaiti, arren izan zakiguz Yaungoikoaren aurrean bitarteko, bitzuo-en Seme orren pasiño garratza au bear dan legeaz orain gogoan erabilteko, beratarik gero bear dogun arimako onurea aterateko. Mesede au eskatuten deitsagu biotz biotzeti, eta orretarako guztiok esaten deitsugu: Abe Maria.

Lenengo zatia

Eldu zanean Yaungoikoaren Semeak bere bizitzea gizonen onerako emon bear eban aldia, yoan zan Yaun andi au, Apostoluak lagun zituzala, Jesemaniko ortura. Emen san Pedro, Santiago, ta san Yoan-egaz besteak-ganik alde eginda, beinguan artuten dau Yauna bildur ikaragarritzko batek, ilun ilun egiten yako biotza, eta eztakus iñondi bere, atsegin apur bat emon leikion gauzarik. Dirautse bada onei: «guztiz ilun daukat biotza: zagoze emen oraziño giñan, tentaziñoan ez yausteko». Eta puskatxu bat aldendu ta, belauniko yarririk, asten da bere Aitari eskaari au egiten: «Aita, ezetara al bada, eztagidan nik edan kaliz au: baia ori ezin bada, egin bedi zuk gura dozuna».

Ai ene Kristiñauak, auxe gogoan artuten dodanean, beingoantxe gogoak emon daroat: Zer da au, edo zer dau Kristok, onelan bildurtuteko, eta biotza onen yausi izateko, bere il bearra begien aurrean dakusanean? Ezta Yaun au orain artean esaten izan dabena bera, estu bai estu dagoala, eta luze deritxola egun au eldu artean? Ezta berau beti eriotza ta



pasiño au gora eta bera erabili bear izan dabena, berau balitzan legez mundu onetan atsegin geiago emoten deutsan gauzea? Zek bada, zek, orain onen larri ta ikara egiten dau. Zegaiti ilunduten yako ainbeste biotza? Ete da ilteko beldurrez? ete da iya ganean dakusazan neke ta ala gogorren itzalez?

Zer izango da, neure entzula onak? Yesukristo gure Yauna, Yaungoikoa bazan bere, zan orregaiti gu lango gizon egin egina; berak ondo ta ondo daki zerkuk eta zelango ikaragarriak ikusi bear dituzan; eldu yako orretarako aidia: iya dakusaz bere ganean, eta eztau galarazo gura izan, onelangoak gizonai egin daroaken eraso. Baita barriz ikusi izan da, eta ez bein, eriotzako sententzia irakurrita, buru guztia urdinduten, odolez izerdituten, il aginian, baita ilik bertantxe beste bagarik geldituten. Eta dana dala, beti izan doa egia, san Gregorio andiak dinoana eze, oraño neke geiago emon daroakela gizonari, ganean dakusden eriotzeak, ilteak berak baño.

Yesukristok ikusten eban, gau atan berean asita, biaramon (biarau-me) arratsalde erdira artean bearko zituzan nekeak: baia zelango nekeak? Ez berakautako nekeak, ez alborik arako ala arinen batzuk: ezpada neke gogorrak, neke itzalak, ezin geiagoko nekeak. Eta ikusten etzitzuzan bestiak oi dogun legez, albastoa, erdi ikusian ta nastea legez; ezpabere zeatz, argiro, eta bakotxa berez. Antxe dakusaz bere kontra atzeak eta oratuak, aide nagusiak, Elex-gizonak, erriko agintariak, eta Errege giñokoak. Antxe dakus, zelan bere eskolako batek saldu bear daben: zelan beste bat lotsatuko dan bera maisua dabela autortuten; eta zelan besteak, bera bakar bakarrik itxita, iges egingo deutsen. Danzuz erneko deutsezan guzurak eta emongo deutsezan iraunak: bere ganean asmetan dituz artu bearko dituzan otzak, azotiak, arantzaak, untze gogorrak, eta kurutze itzala. Berba baten, gero bana banazea ikusi bearko dituzan guztiak, antxe erabatera, ta argiro argiro begien aurrean iminten yakaz: eta esan giñaike eze, orduantxe ikusi bear izan zituzala alde batera, gero bein banan eroango zituzanak. Eta bakotxak ainbeste zer ikusi beukan, zer izango zan, guztiak erabatera bere ganean yausi zireanean? Ai! Orduan esan eukian nonbait Dabid-ek baxen obeto, eriotza-minak, infernuko alaak alde guztietatik (inguratu) erdian artu nabe.

Eta arren bada orrek baño besterik izan ezpaleu: gatx-erdi baño etzan izango orduan. Baia, Ai! orrek eta orrek, geiago eta askoz bere geiago ikusi bear izan eban; edo obeto esateko, orrek besten aldean ezer ez tira. Geiag, esango dozue, geiago? eta orren parean ain andiak? Zertzuk gero? Ai! bai, izan zituzan orrek baño min geiago emon eutsen gauza bi, eta oneek

dira, ikustea munduan Yaungoikoaren kontra egin eta egingo zirean pekatu guztiak, eta ainbeste ta ainbeste betiko infernura galdu bearra.

Yaungoikoak biraldu (agindu) eban Yesukristo, munduko pekatuen zorrak bere eriotzeagaz ateratera. Orretarako bere lepura ezarten deutsaz gure guztioen okerreriak eta pekatuak, eta guztien zorkide bera egiten dau, berberak guztiak egin bailituzan legez. Eta yakin legiantzat zertzukaz zan zordun, eta zeen kontu luzeak garbitu bearko zituzan dan-danak (direan direanak) begien aurrean iminten deutsaz. Ez ezteutsaz Yesus laztanari erakusten Ezekiel-eri legez, bakarrik Israel-eko aldi atako nagusien okerreria ikaragarriak, ez: erakusten deutsaz argiro argiro, ta bein banan aldi guztietan mundu zabalean ikusi, ta ikusiko direan pekatu eskerga tzarrak.

Ai zelango pekatu errenkada luzea, ze okerreria itzalak ikusi bear izan zituzan ordu atan Yesus gozoak guztiakaz errudun bere burua egiten ebal! Zeinbat erejia deunga! Zeinbat Yangoikoaren kontrako lotsagalduko berba! Zeinbat yuramentu oker iñoren kaltean, edo ainbagan eginak! Zeinbat lotsa txar, ta gogorkeria gurasoi, ta nagusiai erakutsiak! Ikusten dituz mundu zabaletik antxina seigarrenekoan aragiz, eskuz, berbaz, gogoz alde askotara egingo direan ainbeste ta ainbeste pekatu ikaragarri: ikusten dituz lapurretak, bestiai erriko guzurto tzarrak, eta Yangoikoak dakizan osterantzeko pekatu eskergak: eta ikusten dituz direanok euren ezain ta itzal guztiagaz, orduantxe bere begien aurrean egingo balira legetxe. Eta ezta ori guztia: ezpada ze, dakus bere burua pekatu onen guztionen errudun andi: ze Isaias-ek diñoan legez, Aitak bere ganean ezarri zituzan gure guztioen okerreriak eta pekatuak. Gure guztioen pekatuak, bai, zuenak bere, neure Kristiñauak, zuenak bere. Zeuek pekatu egiten dozuen orduan, ondo azturik, eta atzera botarik izaten dozue: baia Yaunak ortuan begien aurrean eukazan zuen okerreria guztiak.

Ara emen, nire entzula onak, Yesus gozoari biotzean damu, min, ta lotsa ikaragarritzkoa emon bear izan eutsana. Zan Yesukristo Yaungoikoaren Seme laztana: maite eban inok ez legez Aita, eta eukan bere biotza agana etxunik, eta urturik. Ondo ekian zetagiño elduten dan pekatuaren okerreria itzala, eta zelango bidegabe eskergea egiten yakan Yaunari, pekatu egiten dan bakotxian. Zer egingo eban bada, ikusten ebanean ainbeste pekatu ta ain andi tzarrak egin, ta egingo zirela? Zelango min andiak artuko ez eutsan biotza? Beste aldi baten kordel batzukaz azotea lango bat eginda, saltzallaak Yerusalengo Elexati kanpora bota zituzanean, esan bear izan eban san Yoan-ek eze, bere Aitaren etsea lotsa onean ikusteko eukan garrak, Yaun oneri erraiak guztiak yan eutsazala. Zer egingo eutsan Aitaganako gar orrek, Aita ori onenbeste pekatu eskerga tzarregaz osti-



kopean zatz eginik ikusten ebanian? Erre egingo eutsazan? Urtu? Dese-
gin ta ezereztu? Ai kristiñauak! Guk bekorrok, guk Yaungoikoanako epe-
lok, edo obeto esateko guk argi-baako itsuok eztakigu ondo, zelango
nabarben azia dan pekatua, eztazaugu, ze bide baako andia egiten yakan
Yaungoikoari; eta bear bada argaltasuna dala, gazte-zaroak dakarrena
dala, zera dala, atxakia billa ibili goaz gure pekatuak edertuteko, edo ame-
neko (bear bada) ezer eztireala geure buruari, ta bestiai iruditeko: eta orre-
gaiti ezin egin dogu, zetara giñoko mina artuko eban Yesukristoren bio-
tzak, munduko pekatuen pillo eskerga tzarra ain argiro ikusita. Baia esan
bear dogu, alantxe da eta, munduan bestek eztabela alangorik izan bere
gurasoari, eta oratuai, edo berari, edo Yaungoikoari egin izan deutsezan
bide бага, nabarbetasun, kalte, ta okerreriak-gaiti. Alan, eztira aotan bere
artutekoak ez Dabid-ek Yaungoikoaren kontrako okerkeriak-gaiti izan
eban min-ala, ez Elias-ek Yangoiko guzurrezkoai lege gaistoa Israel-go
errietaryk garbituteko, erakutsi eban garramore, ta egarri errea, ez Yere-
mias-ek Yerusalengo pekatuak gaiti artu eban damua, eta egin zituzan
negar saminak. Eta au da alde bateti.

Baia besteti, zer irago bearko eban Yaunaren arima gaixoak, ikusten
ebanean bere burua ainbeste pekatu, ta ain ikaragarrien azpian, eta bera
guztien yaube? Zer, ikusten ebanean atarik bere ganera etorrela bere Aita-
ren aserre gogor guztia, eta arerio gorrotogarria legez aserre artu, eta
onek erabili bear ebalá? Ai! Pekatariari berak eginiko pekatu uts utsak,
zer-egin andia, ta lan gogorra emongo deutse, eta onenbestekoa izango
da Judizioko egun ikaragarrian euren pisua eze, betiko yausiko dira, geia-
go indar bagarik. Zer egingo eutsen bada Yesus gozoari bere bizkarrean
zituzanak ez gizon batenak, ez bienak, ez millenak, ez milla milloenak
ezpada mundu guztikoenak: eta ez gizaldi bat, edo bikoenak, ezpada
mundua danik eta izango dan arteko guztienak?

Zegaitik eze Yaun biotzekoak eztaukaz ganean bakarrik Dabid-ek
legez seigarreneko eten bat, eta eriotza gaisto bat, beti begien aurrean era-
bili bearko zituzanak: ez san Pedro-k legez, maisua ukatua, guzurrezko
yuramentuak; eta arrenezko birao okerrak egina, negar garratz ta zoli era-
giteko: ezta Manases-ek legez alde askotara berak egin, eta bestiai eragin
eutsezan pekatu ikaragarritzko eskergak; euren penitenzia egin bear izate-
ko: ez beintzat, ez: Yesus biotzekoak, berak garaurik egin ezpadau bere,
bere lepoan dakusaz munduan izan direan, ta izango direan dan danak,
koskolik bere atera бага, euren ezaintasun, eskergetasun ta itzal guztiagaz:
dakus euren kontra Yaungoikoak daukan sua, ta aserre erria: dakus euren
zor guztia pasiño garratzagaz, eta eriotza krueilagaz aterateko arduria.

Ai Yesus lastana! Eta zelan zakusdazan besteen pekatuakaz guztiori
loiturik, ta zikindurik. Edo san Paulo-k legez berba egiteko, zelan zago-
zan, zuk pekatu egin ezta, zu zeu pekatu eginik! Baia eta, zer egiteko?
Zeure irudia san Yakob-eri bere amak estaldu eutsazan (sama) idun-
eskuak aumeen narru ulletzuakaz, Aitaren (bendiziñoa) bedeinkaziñoa
atrapetako. Zeure izena (uzena) eukan Yesus Sazerdotea Zakarias Profe-
ta santuak ikusi eban soñeko zantarrez, Aingeruaren aurrean egoala; baia
aingeru orrek aginduta bertati (berbelan) yantzi eutsezan soñeko ederrak;
eta garbitu, euki eukian gaistakeria guztia. Baia, Zuri? Zuri yantzi deutsuz
Aitak munduko okerreria guztiak, zu bein madarikatuteko, edo zu zeu
madarikaziñoa bera egiteko: eta ezteutsuz erantziko (erontziko) arik-eta
kurutze baten ilik ikusi artean. Zeuk, bai, zeuk esan ziñaike oraindo Yob
santuak baño obeto: «ene berba guztiai mina darie, ze Yaungoikoaren
sagitak nigan dira, eta euren aserre gogorrek gogo guztiak daroaz, eta
Yaunaren itzal bildurgarriak ene kontra yagita dagoz».

Kristiñauak, Zer da au? Gure pekatuakaz onenbestean larritu izan
dogu Yaungoikoaren Seme lastana? Baia, guk, bere eskuti ainbeste mese-
de eder artu izan dogun geuk? Nora begira egon gara ori egiteko? Ai ze
itsuak, eta eskergaldukoak ibili izan garian! Arpegia yausi bear litxakegu,
eta biotza erdibitu ori egin izan dogulako. Baia, eta... Eta... Ikusi zituzan
Yesukristok gure pekatuak: ikusi ginduzan pekatari? Baia; ikusi ete gindu-
zan betiko infernuan galduak? Ai! Eztakit nik: bildur izatekoa bada, geure
arteko batzuk batzuk ikusiko zituzala. Beindanik bein ikusi zituzan asko
ta asko, eta munduko geienak, infernu gogor itzal orretan betiko galdu
bearko zireala, eta auxa izan zan Yesus maitea larritu eban irugarren gau-
zea: eta larritu bere larritu bear. Enzun, ta ikusiko dozue.

Gizon-emakumeak pekatu-pean galdurik, eta galdu bearrez ikustek
biotza yota, yatzi zan Yauna zerurik eta lurrera: orretarako izantzan gizon
egitea: orretarako orain artian bere bizi nekosoan ikusi izan dituzan
goseak, egarriak, ibilteak, izerdiak, eta bestiak, eta orain ikusi bear dau
pasiño gogorra, eta eriotza aserrea. Eta alan-da guzti, Zer da dakusana?
Ai ene! Negar bagarik esan bere ezin dana. Gizon oneek ain nekez ero-
siak, bere odolagaz garbituak, geienak galduko direala. Bai geienak, Kris-
tiñauen artekoak bere, san Agustin-ek, san Gregoriok, san Yoan Krisos-
tomok, eta beste askok dirauskueneti. Ai zeinbat gure arteko ikusiko zitu-
zan bear bada infernurako gintzala! Eta onek ez eutsan min emongo? Ez
eutsan biotza apurtu bear ain gora erosi zituzan arimak galdu bearrak? Ez
eban onen lastan Dabid-ek bere seme Absalon: ez eban bere odolagaz
erosi; eta alanbere yakin ebanian seme ori il ta galdu eutsela, minen andiz



burura eragin balitxakon legez, asi zan deadar bai deadar: «Ene seme Absalon, Absalon ene seme! Ai eta nok emon leikedan neu zure lekuan zugaiti iltea, Absalon ene seme, ene seme Absalon». Onenbeste eragin leio gurasoari umeaganako on eretxi andiak. Zer egingo eutsan bada Yaungoikoaren Semeari berak bere odolagaz erosiko zituzan arimaakganakoak?

Ai! Esango eutsan Aitari, *In vacuum laboravi*. Yauna, zer da au? Zuk egin nozu zeure mandatar, gizonen artean zeure izena ta ondrea zabal-duteko. Nik aleginak, eta ezin eginak egin dodaz. Baia, eta, zetarako? Alperrik bearra egin dot; utsean ta ezer ezian erakutsi izan dodaz nik neure indarrak. Zer Yauna? Nik ainbeste lan, ainbeste buruko ala (min) eta ainbeste neke gizonai pekatua galarazoteko, eta, oneek leengo gaistokak? Nik pasiño garratza, nik eriotza ikaragarria, gizonak zeruan betiko zorionekoak egiteko, eta oneek, Betiko infernuan galduko? *In vacuum laboravi*. Aita, *si possibile est transeat a me calix iste*. Ezelan al bada, kendu egidazu onelango edaari mina edan bearra. Baia, Yauna, zuk dakizu ondo zer egin bear dan: eta egin bedi zuk gura dozuna eta ez nik nai neunkeana.

Onek iru gauzok, bada, berak ikusi bearko zituzan nekeak, gizonen pekatuak, eta onen galdu bearrak estututa larritu eben ezin esan giñokotan Jesus laztanaren biotz andia. Begira, zelan dagoan belauniko, lurrean auzpaz, bekokiz etxunik, iru ordu osoetan Aitari eskariak egiten: geroago ta larriago egiten da: eta agonia ikaragarri baten sarturik, zara zara dario lurreragino alde guztietati odol tantazko izerdi labana. Aitak orren larri Semea ikusita, Aingeru bat biralduten (botetan) deutso biotz puskar-txu bat emoteko.

Yangoiko andia, zeinen begietan mundu guztia, ta berean dagozan gauzak iñurri bakar bat alagiña bere eztirian: Zer da au? Zer da ene begiak dakusdena? Zelan dagoz zeure soñekoak odolez gorriturik? Gero azoteak, arantzak, eta untzeak ebagi edo zilloak egin dagizuezanian, orduan bai, baakit nik zek egin izan deutsun. Baia, orain? Orain iñok ukutu bere bagarik, nok edo zek? Ai bada! Zer izango da? Larriak, bai, larriak, estutasunak, biotzeko ala (itzalak) ikaragarriak emon eragin deutse alango izerdi arrigarria. Eta gu onezkero, izango gara leengo deungak? Onenbesteko larrira eldu, arako Yaun andia, zeinen ukutza (ukiera, ukutu) bakar bat asko zan gaixoak osatuteko, kadenak indartuteko (gogortuteko), itzuak argituteko, eta ilak biztuteko. Onenbestera eldu da Yaungoikoaren Semea, Aitagaz ta Espiritu santuagaz Yangoiko bat dana: eta gu onezkero lengo okerrak? Esango dau gugaiti antxina beste batzuk-gaiti Ezekiel-en aoti ziñoana: «nekearen andiz izerdia emon izan da: baia orre-

gaiti ezin garbitu izan yake ugerra? Zure loiak loi guztizko okerrak, eta gorrotogarriak dira: garbitu gura izan zaitudaz; baia zeu leengo zikina gelditu zara.

Zer? Yesukristo larriaren larriz odolez izerdituten, eta, Kristiñauak seigarreneko atsegin loiak euren buruai emon ezinik? Yesukristo estuaren andiz odola izerdi dariola, eta, kristiñauak yan-edanetan, eta ordikerietan? Eta onek dira kristiñauak, Kristoren gizonak edo emakumiak? Ez, eztira Kristoren lotsagarriak, eta lotsagarriak baño. Pekataria, zariana zariala, alan baderitxazu, ondo, aurrera eroaizuz zure pekatuak: esaiozu Yesukristori, zure egiteakaz beinik bein: makurtu adi; auzpaz yarri adi, gu igaroteko. Orain Yaun onek zugaiti edan bearko dau Yaungoikoaren aserrearen edari samina: baia etorriko yatzu zeure elorrio, eta orduan zeuri bere Yangoikoak iminiko deutsu edari min ori, eta infernuan betiko edaten egon bearko dozu. Baia ez, kristiñaua; Jesus gozoaren nekeak bigundu beartzaituez, eta bere ortuko larriak erasuren bat egin badeutsue, entzuzuz orain, ikusi bear izan zituzan lotsariak ea orregaz bigundu al bazintezke. Eta oneek esatera noa orain, esango dodan bigarren zatian.

Bigarren zatia

Guztai gogor eresten yake iñoren ostikopean ibili bearra. Gaistoak ezin eroan izaten dabe: onak nekez, eta batzuetan erraiak itxi ezta, arbindu egiten direala: eta Yaungoikozko andia bear da bakean ta onean eroateko, eta orduan bere ez biotzak min eta min andia artuten eztabelako, ezpada min ori barruan itotera, eta Yaunagaiti, bengairik opabagarik, iragotera egiten dalako. Baia, zer diñot nik ostikopean ibili? Bateri zor yakan, edo berari deritxon lotsea ez yagoteak bere zeregin, ikusikizun latza ekarri daroio. Aman Asuero Erregiaren adiskide kutunak utsa ta ezerbereza (arean-eza) egiten zituzan bere ondasun, zorion, ta anditasun guztia, Mardoqueo, besteak legez, bera igarot-orduan, belauniko yarten (paretan) etxakolako.

Alde onetati andiak, eta txitozko andiak izan zirean Jesus Yaungoikoaren Semeak ikusi zituzanak, eta ain andiak eze, san Paulo-k Hebreotarra, kurutzeaz ostan, auxe baño besterik aitatuten ezteutse. Guztia Jesus laztana, guztia ostikopean, gizonik satzena legez, erabili bear izan ebeen. Guztia bai, bere eskolakoak, elxgizonak, agintariak, andikiak, erri guztia on azpian, sorkia legez, darabilde. Ai ondo ikusi eban Isaías-



ek, gizonik satzena eginik, eta inok-pere yaramon (eramon) gura ez eutsala: ondo esan eban Yeremias-ek, iraunez ase ase egingo ebeela.

Lenengo bere eskolakoak oñen azpian darabilde. Batak salduten dau, bestiak ukatuten dau, bestiak iges egiten deutse. Yudas-ek, Yesus onak, mundu gaistorik aterata, bere Apostolu andi egin ebanak: Yudas-ek Yesusegaz bizi, mai baten yan, ta beti beragaz, bere barru guztia zabaldu-ten eutsala, bizi zanak: Yudas onek bada salduten deutse Yesus ori bere arerio okerrai; ilteko ebilkozan arerioai. O ze lotsakizuna maisuarentzako, bere eskolarik, eta bere etse barrurik alango gizon dollorgaldua, alango billaukeria egingo ebana urten bearra! Kleitu ona zabalduko yakan beintzat, ori guztien belarrietara zabaldu zanean!

Baia eta, zelan saldu eban? Egizue zuen artean, zelan saldu leitekian zamea baño balio eztaben gauzea, eta ezteritxat, asko esan izango dozuela. Ara entzun. Baioake Yudas danori, Yesukristo iltea, ya erabagi ebeen elex-gizonen nagusiai, eta dirautse: «zer emon gura deustazue, eta nik iminiko deusuet eskuetan?». Besteak aginduten (eskiniten, opa) deustsez ogeta amar urrezko (zidarrezko) diru, eta onenbestegaz bardinduten dira. Kristinauak, zeuen arteko zeinek saltzen dau onelan beia, aaria, edo olloa? Baia, ze bei, ze aari, ze ollo? Arrautza bat, sagar bi, zamea (zamarra) salduteko bada, eztabilaz saltzallak eta eroslaak, zeinek pizka bat bera bere malla bat botako daben? Baia Yudas-ek Yangoikoaren Semea salduteko? Zeinbat emoten deustazue, eta nik zuen eskuetan iminiko deusuet? Eta lenengo berbaan bardindu: eta nago ze ogei, edo amar diru opa (eskini) izan baleutse, beste ainbeste egingo ebala. Ez eban nonbaitabere alan salduko, Magdaleniak Yesukristoren burua ta oñak igozten emon eban ubientu usaintzua, eta irureun diru egingo leukiala, berak esan ebana. Baia, zelan izango da? Yesukristo ezta Yudas-entzat ubientua, ezta onago bere; edo obeto esateko, ubientuaren parean zamea da, eta zamea baño gitxiago. Onen gitxi egiten dau gizon gaisto onek Yangoikoaren Seme laztana.

O Yangoiko andia, zeru-lurren egillea ta yaubea, eta zeñenak direan urre-gorri guztiak! Urteak dira Zakarias, zure Profeta santuaren bitartez saltzai lotsarizko onen mina erakutsi zenduala, esanik: «neure igartzallaak ogeta amar (zidarrezko) diru egin nabe. Prezioaren bizarra! (Alaroko). Bestelako prezioa beintzat! Baia, ai! Yudas zure barri iñok (izateko) yakiteko yakin bear ebanak, ezta orrenbeste bere egin etzaituz. Nonbait arentzat kaltegarritzko mataratzuren bat izan bear dozu, edozegan mundurik garbituko zaituezanai, saltzen zaituezanen. Eta auxe izantzan Yesukristoren saltzaiera lotsagarria: baia bera emotea, etzan izan obea.

Arturik Yudas-ek gizon pillo (aldra) andi bat lagun euren ezpata ta egurrakaz (makillakaz) bator ortura gaisto baten billa baletorren legetxe. Onei dirautse: «ara nik mosu emongo deusadana, orixe dozue, zuek bear dozuena; oratu bada, eta kontuz ondo ondo lotuta ekarri». Aurreratuten yake, bada, lagunai, eta eldurik Yesus Yaungoiko, eta gizon egiazkoa egoan lekura... O Aingeru santuak, Yaunaren aurpegia ikusteko garrez beti zagozeenok, estaldu egizue orain zuen begiak, ez ikusteko Yudas-ek egin bear dabena. Eldurik bada dollor zital au Yesus gozoa egoan lekura, alde aetati adiskideak alkar ikustean, egin eroaken agurra egiteko legez, mosuan laztan egiten deutso, dirautsala: «Agur maisua».

Ze okerrago, ze dollorago ta nabarbenago egin eukean Yudas-ek? Etzan ori mundu guztiari esatea legez, etzala Yesukristo, berak esaten eban Yaungoikoaren Semea: Bere milagroak, eta arteko (arte atako) gauza arrigarriak guzurrak, diabruen lanak, eta irudi utsak, besterik etzireala: gizon oker bat, bizi bere bear ez eban deunga bat zala? Etzan Yaunari berari, au guztiau mosuan esatia legez? Ez zirautsan Yudas-ek bere egina-gaz, baita ondo argiro: ik esan dok Yangoikoaren Seme asala i: guzurra dok ori. Ik esan deustak, baakiala ik, ni zetan naiabilen: etxoat nik ire ardurarik. Ortze yaiozak, iri erakutsiko deuenak? Eta au eskolakoak maisuari, mendekoak ugazabari, mesedetuak mesedegileari, Apostoluak Yangoikoari? ta Yangoikoari bere bere arpegian? O esker-galdua! O nabarbenkeria munduan iños izan bada! Nago ze, Yesus-eri bere pasiño guztian ez eutsala bestek ainbeste min emon.

Baita arren, bada, berau bakarria balitz bere eskolakoen artean Yesus laztana lotsatu bear dabena! Baia, ai! San Pedrok beste alde bateti, okerre ez, baia argalez, kleitu txarra eta lotsatuteko bide andia erakutsi eutsan. Ara zelan. Euken Yesukristo gaikin oker bat legez esturik Yuesen aurrean, karguak egiten: ebilkozan atxakiak asmetan ibili ta ibili, egin eutsen legez, kurutzean bizitzea kenduteko. San Pedro antxe inguruan ebilen, ikusteko, ea zetan yoten eban bere Maisuaren gauza (kontu) onek. Onetan bertako neska batzuk, eta an egozan beste batzuk, dirautse iru bidarreko aldiz iraunez, ta destañez legez: «Zu bere, bada, orren diszipulu-ten artekoa zara, ze berbeak esaten deustu Galile-arra zareala».

Lotsatu zan betiko san Pedro, au entzunda, eta asi zan Yaungoikoak obea, ezetzka bai, ezezka, yuramentuka, eta bere buruaren kontra birao-ka, ta arrenka; berak ez eukala agaz zer eginik: nor zan bere berak ez ekiala. Ea, zer deritxazue, zelango lotsarikizun gogorra izango etzan Yesus laztanarenzat bere bigarren Apostolu batek alan ukatu bearra? Alantxe ezagutu eban san Pedrok berak; eta ollarrak bigarrenez yo eban soñua



entzun, eta Jesus gozoak egoan lekurik begirata, konturatu zanean, belan urten leku atarik, eta asi zan negar ta negar, damuaren andiz biotza apurtu bear yakola. Baia egina egin, eta san Pedrok Yesukristos atz egin eban.

Eta alan egiten badeutse bere eskolakoak: zer egingo deutse atzeak? Yarraitu daiogun geure maisuari, baia ez bera lotsatuteko, ez geure pekatuak bera ukatuteko; ezpada ikusteko, ze barregarri, ta lotsa gorrian (txarrean) darabilden. Ozta ezagutu eben Yudasegaz yoazanak Jesus ona, eta orra otso amurratu oneek esesten deuten pekatuak kentzen dituzan bildots oneri, eta lapurra ta gaiskilla galdua bailitzan legetxe oratu, estu, ta Yuezen aurrera daroe. Bada Yaungoikoaren Seme au, zeñeri Aita eternoak emonik deutsan gizonai kontu artu, ta sentenzia emoteko esku (eskurantza, eskuikuna) guztia: zeinen aurrean ikaraz dagozan Aingeruak, itzalararen andiz euren arpegiak estalirik, daroe oker deungetzat gizon Yuez okerraren aurrera. Eta asko ezpalitzan legez baten aurrera eroatea, darabilde oker baten etserik beste okerrago batenera; Anasenerik Kaifas-enera, Kaifas-enerik Pilatos-enera, Pilatos-enerik Herodes-enera, onerik ostera Pilatos-egana. Begira, zelan dagoan santua, errubakoa, eguño pekatu-rik egin ez ebana, esturik, loturik, ixi-ixilik, arpegia yausi yausi eginik, eta lotsea dariola: berba baten, gaiskilla oker eginik. Non-gura milla guzur ernetan deutsez, non gura milla bidebaako, ta lotsakizun erakusten deutsez; non-gura satz eginik ostikopean dandarrez darabilde.

Eta ellex-gizonetarik asten gareala, sartu gaitezan Anas, ta Kaifase-
nean. Aitagiñarraba, eta suiñ oneek zirean Pontifize nagusiak, kontu egizu gaurko egunian Aita-santu Erromakoa legetxe; Anas leen izana, eta Kaifas aldi atakoa, eta bitzuen etsera eroana izantzan Yesukristo. Anas Pontifizeak bada, bere aurrean ikusi ebanian Yauna, asi yakon itanduten bere eskolakoak-gaiti, eta irakatsi zituzan gauzak gaiti (gauzen ganean) Jesus-ek bigun bigun erantzun eutsan: «nik beti agirian berba egiten izan dot; sinagogan ta elehan, Yudegu guztiak batzandu oi direan lekuetan; eta enas ni eguño bere ibili basterretati ezer esaten. Zer itanduten deustazu bada niri? Itandu eikiezu entzun deustenai; eurak dakie ondo, zer esan deutse-dan».

Orduan bertako otsein morrosko tzar lotsa galduko batek Pontifizearen aurrean, eta guztien aurrean, alango gizonari egiten yakanean, ezeri begiratu bear ezpailtxakon legez, besoa gora eginda, blausta, emoten deutso belarrondoko eskerga bat, dirautsala nabarbenak: ala erantzun bear deusak bada Pontifizeari? Nongo Yuezen aurrean egiten yako alan-go.... ezta dan gizonik deungenari, eta satsenari bere: otsein ikuski batek,

iñok agindu bere bagarik, matrallan yo? Bada Yangoikoaren Semeari egin yakon: eta orregaiti ez Pontifizeak, ta ez iñok ezteutso aurpegi-rik artuten, ez txitik (mistik) egiten, Yesukristori egin ezkerro, ondo eginik dagoalata.

Baturik Kaifas-enean Sazerdoteen eta agintarien batzarra, bertara daroe Jesus gaixoa bere kausea ikusteko. Ai bada, zelangoen aurrean agertu bear daben Yaunak! An dagozan guztiak, Kaifas ori aurrengo dala, bere kontra txakur eginik dagoz: eurak oraindo aurtemin erabagi eben, oba zala, bera iltea, erri guztia galdutia baño: eurak dira, bera preso artu-tera, lagunak eurenaz agindu dituezanak: eurak Yudaseri diruak emon deutsezanak: eurak testigu oker billa ibili direanak. Zelan bada urtengo dau alangoen tribunalean? Ai! deungaro. Egiten dituez aleginak testigu oker orrekaz, ea andi edo emeti eder dirudienen bat ezarri al baleioe, errudun aterateko, eta il bearra egiteko. Baia alperrik guztia: Yaungoikoaren Semeak eztauko atxakiarik. Baña dala oker edo makur, Jesus-ek il bear dau, eta eurak zelan-naiko edergarriren bat baxen bear eztabe, orren erio-tzea on egiteko.

Asmu onegaz Kaifas-ek, nonbait ordura arteko aleginen alperrek su emonda, yagiten da dagoan lekurik, ta dirautso Yaunari: Yaungoikoaren partez aginduten deusut, esan deiguzula, ea zu zareanez Kristo, Yaungoiko bedekatu orren Semea? Bekian Jesus laztanak, guztia ekian legez, zetara yoko eban bere erantzuteak. Baia entzun dau Aitaren izena, eta Aitaren izenari lotsea yagon bearko deutso, eta artean, bere burua garbituteko, ezta ao bete berba bere atera eztabena, oraintxe erantzungo deutso, yakinda bere, onik aterako eztabela, eta bai bere buruaren kaltea. Dirautso bada Yesukristok: «Bai, ni nas orixe. Eta dirautsuet eze, laster ikusiko nozuela Yangoikoaren eskoatati yarririk, eta odoi ganean etorten. Au erantzun eban Jesus-ek, baia ori izan zan asko pekatari ezin geiagoko galdua, Yaungoikoari lotsea galduten eutsana, eta il bearra egiteko. Kaifas gaistoak bada, Yangoikoaren ondrearen alde egin gura dabelakoaz, soñekoak tirakada bategaz eten ta urratu, ta diño guztien aurrean: «Yaungoikoaren kontra berba egin dau: zer egiteko bear doguz testiguak? Eztozue entzun blasfemia? Zer deritxazue oneri?». Eta besteak amen eginda, diño ao baten eriotzea merezi dabela. Onelan galdu batzuk pekatari egiten dabe ontasun berbera: Yaungoikoaren kontrako Yaungoiko orren Seme laztan biotzekoa: eta il bearra, guztiai emoten deusena bizitzea.

Ai! Zelangoak egin eutsezan onen ondoren gogor aretan! Gizonik galduenari, eta zamea bere eztanari egitea oker direanak. Ezin geiagokoak deiegiten deutse san Yoan Krisostomok Yesukristoren gau atako irauna ta lotsagarriai. Asten yakaz arpegira txistu (txu) loiak, eta gorro



atzituak egiten: asten yakaz otsak emoten: estalduten begiak: onek kokotean yo, ak belar-ondoan, besteak ostikoagaz or emen: besteak ukabil biakaz arpegira emon: bata tira, bestiak bultza, barregarri darabilde zoro eginik. Miñak bitartian eztaukez geldi: «igarri egik, dirautse, igarri egik nok (zeinek) yo auban», eta aoak dakarkioezan Yaungoikoak dakizanak. Au da Yaungoikoaren Semea? Au munduaren egillea? Bai; auxe, berberau; baia gugaitik oñen azpian erabilia.

Onelantxe irago eban Yesus gaixoak eguen-gureneko gau guztia, Yaungoikoak berak, bestek ez dakizan lotsagarritzko gauzaak egiten eutsela. Baia, ai! Bariku-gureneko egun itzala, eta ze lotsariak, eta lotsagarriak gorderik daukazuzan Yaun biotzeko onenentzat! Ozta ozta eguna zabaldu eban, eta orra non barrien barri Kaifas-ek, eta bere lagun agintariak batzarra egin, eta bart-arratsean legez ebasten (erabagiten) daben, Yaungoikoaren kontra berba eginagaiti Yesus-ek il bear ebala eta orretarako Pilatos Erromako Presidentiagana eroan bear ebeela. Baia euren alegin guztiak, eta euren edergarri guztiak alperrek izan zirean, Pilatos-eri sinistu eragiteko Yesus gaikilla oker eriotza-bearra zala. Laster igarri eutsan, gizon onek errurik ez eukala, eta ezin-ikusiz eta gorrotoz baño ilgura ez ebela. Arren bada ori ezagututa, askatu izan baleu, bere eskuan eukan legez! Baia bere biotz txikiak ez eutsan lagunduten, eta gura ez eukeala bere, lotsakizun andiak; eta oiñpean ibili bear-ez gitxi berak erakutsi, eta Herodes-eri bere erakusteko bideak emon eutsazan. Baita bestelan: zelan Yaunak aterako ginduzan geure lotsagarritzko pekatuetati? Yarraitu dagiogun Yesus lastanari, Herodes-enerik asita.

Aspaldi zan Errege deunga onek Yesukristo ezagutu gura ebala, entzun izan zituzan bere gauza miragarriak gaiti, eta argitu yakan biotza aurrean ikusita. Gura eukean ikusi Jauna milagroak egiten, eta milla itauna gora ta bera egin eutsan. Baia Yesukristok ez eban iñoz alangorik egingo, ez bear bere, Erregearen ikus-gura zoroagaiti; eta ain gitxi orduan, bere Aitak bera guztien ostikopean gura ebanean: eta alan ezta berbatxu bat bere ez eutsan erantzun. Eta, Herodes-ek? Errege arro, loi, san Yoan (Doneane) Bautistaren iltzalla (eralla), buru-eretri orrek ontzat artuko deutso ixilik egote ori? Ez beintzat. Herodes-ek bada aintzat bere artuten eztau: zoro ta gitxien egiten dau; eta orren izenian soñeko zuri batez yanzirik, barre ta burla galantak egin ezkerro, atzera biralduen deutso Pilatos-eri. Orra Kristo Yaungoikoaren yakituria, Aitari munduko gauza eder andiak egiten lagundu eutsana, zoro ta, gitxien eginik, eta burlazar barregarri erabilirik.

Ya daukagu Yesus lastana azkenez Pilatos-en aurrean. Ai eta esan bear banituz emen erakutsi eutsezan lotsari guztiak! Eliteke besterik bear-ko sermoe luze bat egiteko. Baia onetariko batez guztietan lotseaz ganeti, ala andiak bere ikusi bear izan zituzan legez, bat ori baxen orain ezteutsuet esango: baia berean ikusiko dozue, Yesus ona gizonik okerreña baño okerrago erri guztiak eginik. Pilatos egoala, Yudeguai sinistu eragin ezinik, Yesus-ek ez eukala ilteko errurik, asi yakan laguntegi andi bat deardarka eske, urtean urtean egin oi eban legez, karzelako preso bat ateretako libre. Pilatosek egin eban bere artian eze, auxe ebala era ederra Yesus eriotzarik libre aterateko. Zer egiten dau bada? Karzelan egoan presorik okerreña, Barrabas lapur gaistoa, eriotzagillia, eta osteranzean bere ez ona, eta Yesus santutasuna berbera bat egiten dituz, uste izanik eze, alango gizon errebes bat ez askatutearren, Yesus eskatuko ebeela: eta dirautse: «Zein gura dozue libre emon deizuedan, Barrabas, ala Yesus, Kristo deritxona?»

Orra non daukagun alkarturik Yaungoikoaren Semia, eta alde atako gizonik deungena, eta ori bere yakiteko, zein libre emongo dan, ta zein ez. Ai bizitza emollea eralleagaz bat egin da! Pekatuaren eta deungearen suindarik (usainik) bere eztaukana okerto andi tzar bategaz! Eta Yueza-ak itanduten dau: ea zein gura daben askatu, Barrabas ala Kristo esaten yakan Yesus! Ori baño besterik izan ezpalitz bere, lotsa txar asko zan Yesukristorentzako, alango gizon galduagaz bere burua bat eginda ikusi bearra. Baia ez, etzan ori, ain andia izan da bere, asko izan bere Aitak gura ebana egiteko. Eta ori baño lotsari andiagoa ikusi bear izan eban. Alantxe izan zan bada. Elex-gizonak eta agintariak puztuta, asi zirean guztiak erabatera dearka: «il egizu Yesus, eta libre emon Barrabas!», eta asten yakoz Pilatos-eri zemaka, eta euren deadarrakaz matxinadea legez eregiten, eurak gura ebeena egitera ekarri-artean. Profeta santua, zuk esan zenduan eze, Yauna deungen eta errebes okarren artean sartua izango zala. Baia orain euren artekoa ez eze, baita eurak baño okerrago eginik bere bakusgu, eta ain okerrago eze, bere aldean ezteritxe ezer dala Barrabas, eta alan oneri karzalarik kanpora yoateko dirautse, eta Yesus kurutzean il bear dabe. O Aingeru santuak! Zer esaten zenduen, ikusi zenduenian zuen Yaun santua, zeinen parean zuek ez onak, ez garbiak ezaren, alan arturik? Ai zelan kantaduko eutsen, antxina Isaias-ek entzun eutsena: Santua, santua, santua, da exerzituen Yaungoiko Yauna.

Zer geiago gura dozue, neure enzula onak? Bere eskolako Yudas-ek saldu dau, san Pedrok ukatu, lapurra legez preso artu izan dabe; gaistoa, okerra, ilbearra, zoroa egin izan dabe: kokotekoka, belar-ondoka, ostiko-



ka barregarri erabili izan dabe; eta azkenean, Barrabas bera baño deungo eginda, kurutzean iltera kondenadu izan dabe. Eztira onek Yaunaren-tzat lotsakizunak? Eztira bidebakoak? Ezta au izan, Yangoikoaren Semea satz egitea, ta oñen azpian erabiltea? O Jesus-en umiltasun andia! Esan bear dot san Bernardoren berbakaz, eta, O gunganako amodio parebakoa! Ezagutu daigun gugaitik egin izan dituzanetan, zeinbat gura deuskun. Zeinbat eta bere burua gitxiago egiten izan daben, ainbat eta geiago, ta geiago agiri da geuri deuskun legea, ta ondo gurea. Baia ezagutu daigun, guk pere aleginean beste orrenbeste egiteko: gure burua gitxi egiteko: bakean ta onean eroateko, bestek egiten gaituzanean, eta guztiai biotzerik paretako. Baia ezta orretan bakarrik agiri Yaunaren gunganako on-eretri ori: agiri da bere, gugaiti ikusi zituzan neke eta ala ezin geiagoko gogor lotsagarritzakoetan, eta auxe erakutsiko deusuet neure sermoiaren irugarren zatian.

Irugarren zatia

Zeinbat eta geiago sartuten garean Yesukristoren pasiñoko gerta-kuntzetan, ainbat eta gogorrango, eta lotsaarizkoago agertuten yaku pasiñori. Ya onezkero biotza minberaturik, edo guztiz mindurik izango dozue, entzunik Jesus laztanaren ortuko larriak, eta Yuez aurreko lotsakizunak, eta ostikopean erabilteak: baia ain erdibitu bearko yatzue nonbait, enpa-raduko ala gogorrek, eta lotsaari garratzak entzunda. Jesus-en min gogor-rrak! Jesus-en lotsakizun eskergak! Bai beintzat, eta munduan bestek alangorik ikusi eztituzanak. Bakit nik, munduan askok ikusi izan dituzala, Yesukristok ikusi zituzan gauzak langoak, baita aek baxen askozaz ta askozaz gogorrangoak bere: baia ez eutsen aei oneek gauzok ainbeste min emon, zeinda Yesukristori bereak. Zagoze puska baten, eta nik esango deusuet zegaiti.

Zeuek dakizue ondo, gure fediak dirauskuna eze, Yesukristoren gorputza zala Espiritu Santuak bere graziaz ta birtutez egina, eta guk esateko moduan, Espiritu Santuak berak bere eskuz egina. Beragaiti Yesukristoren gorputza zan osterantzeko gizon guztien gorputzak baño obeto egina. Zan bada edozein bere gauzatarako besteenak baño zuurrangoa. Mina emoten dau bear dan baño gogorrango, latzago, edo bear ez leukian legeaz ukutu, yo, edo sartu egiten dan gauzeak, era bardinean, zuurrango dan gorputzean, min geiago egin bear dau edozein gauzak, sorrango

danean baño. Alan bada, izanik Yesukristoren gorputza Espiritu santuak egina legeaz beste gañeko guztienak baño askozaz zuurrango, askozaz minberiangoa, izan biar eban besteenak baño, era bardinean, eta gitxiagogaz bere; askozaz gogorrango izango zan ak artuko eban mina, besteak artu leikena baño. Au beti begien aurrian izan bear dozue, eta ez aztu, entzuteko dozuezanen kargu ohea egiteko.

Ea bada, ene entzula onak, egizuez biotzera zeuen indar guztiak, entzuteko Yaunaren ganeko neke, ta ala gogor lotsarizkoak. Eta asi gaitetzan lelengo lelengo Pilatos-en etserik. Pilatos bildurtiak, bada, ikaraturik, Kristoren kontra txakur eginik egoan Yudeguen zemakuntzakaz, agindu eban, Jesus laztanori azotetako, ea ezetara bigundu al balegizan Yudegu gogor aren errai sutuak. Eta Yudeguen aserre au zan legeaz txitozko aserre ikaragarria, alan gura izan eban bere, Yesukristori emongo yakazan azoteak, guztizko ikaragarriak izan zitezten. Azotiak eta kurutzeango erio-tza lotsagarria zirean Erromatarrai, eta euren foruak zituezan nobleai ezin emon leikioezanak; baia Yaungoikoaren Semiari, Amatati ainbeste erregeren odoleti etorrenari etxakazan nonbait Erromatarren Foruak zor. Baia, Zer diñot Foruak? Ezta erri atan, gizonik satzenentzat egozan legeak bere, etxakazan gorde, eta ogeta emeretzi azote ez eze, baita milla-kadaak emon yakazan.

Ozta ozta, bada, aorik atera eban Pilatos-ek berba ori, eta orra non (artuten daben Jesus) borraru azkar, nabarbeenak ganean ezarten yakazan, otzo gosiak-ilak bildotz (azuri) gaixoari ezarri oi yakazan baño bere oraindo amorru andiangoagaz, erantziten deutsez soñekoak, billosik narru-gorrian itxi artian (giñokoan), estuten dabe sendaro (irrima) arriabe batera, eta asten yakaz draunba draunba emon ta emon. Baita, zelan emon bere? Euren indar tzar guztiagaz. Eztau uda-goieneko urriak ainbeste astrapalada ta dregollu (trillu) ateraten (egiten) maztuetan, ezta uriola andi batek ainbeste desgarrio ta kalte egiten doian lekuetati, zeinda borraru kuelak (gogorrek) egin ebeen Jesus laztanaren gorputz bigunean. Entzuten dan zumenen (mimenen) brina zoliak bildurtu lei: ugalen ta kordelen brunberia itzalak ikaratu lei: azoten durundio aserriak gogorturik itxi lei. Ai Jesus gozoaren gorputz biguna, oraingoan beintzat zelan gelditu bear dozun! Baltzunak egin ..., aragiak anditu..., zauri zakonak idigi..., zanak urratu..., azurrak agirian imini... eta gorputz guztia bururik eta biatzetara lliga luze bat eginik itxiten deutse. Ostiko-pean dabiltz aragi atalak (zatiak) lurrean eginda odolezko erreka bat, borrarro tzarrak ezin besoai eragin deutse, eta oraindo bere antxe dago Jesus azotekada barrien begira.



Ainbeste ta ain gogorrek artuta bere, etxako Yaunari entzuten ez ai bat ez zotin bat. Begiak zerura egiten dituz: baia eztakus an beretzat errukirik: begiraturen deutse gozaro borrareru gogorrai, baia onek ain gitxi bigunduten yakoz. O gizon gogorrek, o gizon biotz bakoak eta arrizkoak! Onen aserre artu bear dozue, bada, Yesus gozoaren gorputz biguna? Zer geiago egingo zeunskioe, aragizkoa, ta aragi bigunetakoa dan legez, arrizkoa, edo burdiñazkoa balitz? Kristiñau maitiak, begiratuko zeunskioe negar bagarik? Elitxakezue erdibituko minen andiz biotza, Yesus biotzeko laztana alan ikusirik?

Baia etzan onetan gelditu bear. Yesukristok izan bear eban munduko guztien artian alezko gizona, eta gizonen arteko satzena; eta beragaiti beretzat gorderik egoan, munduan eguño bere ikusi eztan lotsarizko ala. Soldaduak iñoren leporik barre egiteko beti prest (gertu) egon doazanak, ikusirik Yesus laztana nekerik andienetan bere ixi-ixilik egoala, eta bakearik bapere (arean) galdu bagarik; eta yakinik beste aldeti, ari edozein txarkeria eginagaiti, Pilatos-ek ez eutsela buruko min (ala) andirik emongo, Yudeguai, barriz, orregaz biotza zabal zabal egingo yakeela, artu zituezan asmoak (buruak) beragaz barre aldi bat izateko. Eztakit nik obato esango eztodan: Diabruak gauza ori burura emon biar izan eutsela, bada eurak asmadu ebena, ezitirudi inundi bere munduan danek ames bere egin leikeala. Beinik bein san Yoan Krisostomo-k bete betean alantxe esaten dau. Entzun izan eben, zelan Yesus gozoari beste gauzen artean ezarten eutsen, bere burua errege egin gura izan ebaalakoa, eta orretati buruak emon eutsen eze, burlazarrezko errege egin bear ebeela. Esan ta egin. Artuten dabe Yauna guztien erdian, erle aserratuak bat artu daroen legez: eioten dabe arantza gogorrekaz koroe ikaragarri bat, erantziten deutsez soñekoak; ezarten deutse sorbaldetati atxina (beera) kapa gorri zar bat; yesarri (yarri) eragiten deutse aulki (lenka) baten ganean; eta buruan yosten deutse indarka arantzazko koroe ori. Emoten deutse eskura zetro orde, kañabera bat, eta asten yakaz erregeri legez agurrak, eta eskumunak egiten. Paretan yakaz (yarten yakaz) batzuk aurrean belauiniko, eta algaraz ta karkaiatz dirautse: «agur Yudeguen errege». Besteak artuten deutse eskuetako kañaberea, eta beragaz, blast, yoten dabe buruan. Baia asko zirean legez, ezin guztiak ain aurrera eldu yakazan, orrenbeste egiteko: baia orrek bere euren zitalkeria erakusteko, gorro atsiu loiak egiten eutsezan arpegira. Antzirean algarak, an barre-zantzoak, an ifi-afaak, an berba zantarrak, eta antxe barallea (bullako fusa), ta iskanbillea.

Zer asmadu leiteke au baño gogorragorik, eta lotsagarriagorik? Bai beintzat, berbakaz esan leitekeanak baño bere gogorrangoak dira gizon

nabarben orrek, ezer uts egin ze teien (ez egiteko) bildurrez legez gogor asmadu ta lotsagalduan egin eutsezanak. Onelantxe egiten deutse arako Yaun andiari, zeinen aurrean aingerurik goienak eta nagusienak bere euren aurpegiak estaldu bear izaten dituezan eta zerutar guztiak auspez (lurrian yarririk) zelaian etxunik eskinduten (opa) deutsezan euren buruetako koroaiak. Ez eukean iñok uste, izango zala biotzik, Yesukristo one-lango taiuan ikusita, bigunduko etzanik, eta orregaiti Pilatos-ek atera eban Yauna egoan legez kanpora guztiai erakusten, ea onegaz amatau al beutzen euren sumin aserrea. *Ecce homo* dirautse. Ara: begira gizonari. Ekarri deustazue, bere burua Yangoikoaren Seme egiten dabela, errege egiten dabela, zera egiten dabela. Onen bildurrik ez izan. Yaungoikoaren Seme ta errege izateko bestelakoa dago. Okerrik egin izan badau, artu dau bai, bere saria. Begira, begira gizonari. Eta Yudeguak? Bigundu dira? Errukitu yakoz? Bai zera. Ze bigundu ta bigundu oste? Len baño gogorrango, eta okerrango egintzirian, eta asi zirean deadarrez ezin geiagoan: «Toile, Toile, ken, ken; kurutzean yosi egizu, kurutzean yosi egizu». Alperrik izantzan, bete betean esatea: Yesukristok ez eukala errurik; geroago ta deadar geiago, ta iskanbilla geiago. Azkenian Pilatos-ek bildurrez emon eban bere kontra eriotzako sententzia okerra.

Ya daukagu Yesus biotzekoa eriotzako sententzia ganean daukala (lepoan daukala), ya yantziten deutse bere soñeko luzea: ya egiten deutse sorbalda ganera, bera ilteko izango eban kurutze astuna, ya daroe Kalbariora lapur biren erdian. Baia, eta esan bearko ete deusuet bide nekezko onetako nekea, aragi biziari (eratziari) oratuta eukan soñekoa erantzi-torduko min arrigarria, ta bere burua ainbat milla lagunuen begietan (aurrean) billox billoxik ikust'orduko lotsari gogorra? Oneek zuek egizue zeuen artean, zer izango zirean. Nik bakarrik berba egin gura deusuet kurutzeko ala, ta neke ikaragarrien ganean.

Baita igarteko zelanbait, zelangoak izango zirean Yesukristoren alaak kurutzean untze (ultze) gogorrekaz yositekoan (yosi eben orduan), kontu egizu, entzula ona, ortxe elexearen zelaian kurutzean ezarten dabela, eta aginduten deusuela, ganean aratinik luze luze etxuteko. Batzuk dautsue pixo (indar) besorik, beste batek ezkerreko eskuan untze lodi luze bat artu, eskoakoan (eskuman) mallu bat, eta draunba draunba errukibagarik esku zabaleti yosten deusula. Beste orrenbeste egiten deusue eskoako eskuagaz, beste orrenbeste gero oin biakaz. Ea, zer deritxazu, ze alaak, ze min ikaragarriak ikusiko etzendukez? Etzinatekez geldituko (lotuko) minen minez zoraturik legez, non zagozan bere ozta dakizula? Ai! bai, ze eskuoñetan batuten dira zan guztiak; eta orregaiti dira txitozko



minberak. Bada orixe egin eutsen Yesukristori geuk baño askoz ta askoz gorputz bigunagoko Yaunari. Zer ikusiko eban, bada, orduan?

Eta, zer gero kurutzea zutunik, lurreko zuloan sartuta, itxi ebenian, ago or, ta il adi nox-gura? Zer ea, zer ikusiko eban, antxe egon zan iru ordu aetan? Ai bada! beso baterik ordu betean eskegirik egotia, da ain bildurgarrizko neke gogorra eze, asko izan doa, egia esa-arazoteko gizonik zorrenari, eta gogorrenari, yakinda bere alan esanagaiti, urkamendian il bearko dabela. Zer izango zan bada Jesus laztanarentzat iru orduan besok zabalik, untzeakaz yosirik, esku-oñetati eskegirik egotia? Ori antxina askotan ikusten zan gauzea zan; eta aldi atako yakitunak diñoe ze, ori zala eriotza guztien artean okerrera eta ori baño askozaz bere ohea zala, surtan erreta iltea, lasterrago egiten dalako.

Ea bada, ya daukagu Jesus gozoa, Yangoikoaren Semea esklaboentzat, lapurrentzat, eta erallentzat (eriotzagillentzat) baxen etzan zur gogorrean eskegirik, eta madarikatu eginik. Eta eriotza oneri oraindio lotsari geiago emoteko, lapur oker bi, albo banatati bat euren kurutzetan yosita, iminten deutsez, lapurren buru, eta euren arteko gaistoena Jesus egiten dabela. Begira ondo, neure entzulak, begira bururik biatzera zelan dagoan. Burua dauko arantzaz galdurik, sorbaldak azotez ebagirik, esku-oñak untzez yosirik, aosamaak (eztarriak) egarriz igarturik, eta dana dago alaz errerik. Bauka min barri batentzako lekuri? Eztakit nik, baia bai lengoak geldi bagarik barriztetan yakazala. Gorputzaren pisua beti yagoko eten ta eten geroago eta zabalagoak, eta gordinagoak egiten untzen zilloak: geldi bagarik zara zara dario lau zuloetati odola, mementorik mementora argalduaz ta indargetuaz doa: ikara itzal batek artuten dau, eta egarriak, egarriaren andiak ito bear dau. Ai ze iru ordu Yesukristok kurutzean ikusi zituzanak! Orain bai esan leikiala Yaun oneek, bera dala arra eta ez gizona, eta minen barri ondo ekiana.

Eta au bada gorputzeko minen aldeti, ezta gitxiago arimakoenetati (biotzekoenetati). Bada, Zer dauko edo zer dakus Jesus errukarriak biotza alatu biar ezteutsanik? Nora biortu leiz begiak, min artuko eztaben lekura? Gora, bera, alboetara, urrunera? Ai! inondi bere ezta agiri atseginarrik, ez biotza argigarrik. Goiko Aitak aztuta legez dauka, yaramoten ezteutsala (eramaten) atseginerako beinik bein. Kurutzearen parean dakus Ama, biotza minez erdibiturik daukala. Urrunxeago dakusaz aldeak, diszipuluak, ta adiskideak, ondo agiri dabeela arpegian, euren barrua zelan dauken larririk. Eta onek dira onak. Barriz gaistoak? zeinbat erakusten ezteutse? alboko lapur bata, soldaduak, sazerdoteak, erriko agintariak, aide-nagusiak, meeak, guztiak iraunez, ta deungaro esaka ito

bear dabe. Buru-eraginakaz, siñuakaz, kiñuakaz, irribarreakaz dirautse: «A panparroia! Elexea bera eginda, barriro iru egun barru egingo enduana, ea zelan ire burua ateraten doan agoan lekuti. Bestiai mesede egiteko izan dok, bere buruari egiteko, ez yaukak indarrik. Yaungoikoaren Seme baas, yatsi adi kurutze orretarik ta sinistuko deubagu», eta onetariko asko.

Onenbestera eldu zan Jesus onaren aldi onetako nekea eze, Yaunak berak, pasiño guztian ez ai bat, ez zotin bat egin ez eban. Yaun onek bere burua kurutzean alan ikusi ebanian, asi yakon bere Aita Yaungoikoari esaten: «Ene Yangoikoa, ene Yaungoikoa, zegaiti alan itxi nozu?». Berba laburrak beintzat, baia alango Yaun epetasun ta bake andikoaren aon asko baño geiago esan gura dabenak! Neure biotzeko kristiñauak, Bazauzue zeru lurren erregia, egillea ta yaubea? Bada nik bazaut, baia san Bernardok legez, ezaugarri eztagoalako: bazaut oraintxe egiñik dagoalako Isaias-ek antxinarik esanik euskun modu-modukoxea, edertasun guztia, ta antz guztia galdurik; guztien oñen azpiko eginik, alaz ta (gatxez) minez galdurik, eta lepraz betea, ta Yaungoikoak kastigadua dirudiala.

Baia nosbait yoan bear yakazan bere nekeak: egin izan dau, aitag egiteko esanik eutsana: eta orain Aita orregana bear dau. Osasun onean dagoan baten indar, ta askortasun guztiagaz deadar egiten dau: «Aita, zeure eskuetan emoten dot ene arimia», eta orrenbestegaz burua makurtuta, ilten da. Il da Jesus gozoa: il da Jesus laztana: il da Jesus biotzekoa: eta il egin da alaz, nekez, iraunez ta lotsariz asazkaturik. Baia, zer diñot: il egin dala? Il egin dogu guk: guk il dogu geuk gure pekatuakaz. Ez esan: Yudeguak il dabeela, soldaduak il dabeela: Pilatos-ek il dabeela. Egia da, Yudeguak bere eriotzea eskatu izan dabela, eta Pilatos-eri deadarka, ta zemaka sententzia okerra emon arazo deusela: egia da, soldaduak azotez apurtu (ebagi,erazi), arantzaz koroatu, ta kurutzean yosi izan dabela: baia eta, nok dauko errua pekatuak baño? Ementxe dago sustraia; auxa da Yesukristoren neken ta lotsarien etorburua. Pekaturik izan ezpalitz, ez Yudeguak, ez Pilatosek, ez soldaduak, ta ez iñok ez eutsan, ezer egingo.

Geure pekatuak il dabeela Yesukristo? Geure pekatuak birrindu dabela Yaungoikoaren Semea? Non zara lotsea? Non zara damua? Zelan yausten etxaku aurpegia, ta erdibituten biotza? Eguzkiak eztau argirik emon gura izan, Yauna kurutzean dagoan artean, lurra ikaratuten da, eta atxak eurak apurtuten dira, euren egillea il yakenian, eta gure biotzak, egongo dira pekatuan geldi, atxak baño gogorrigo eginik? Yesukristo ilten ikusi ebenak, yatsi zirean Kalbariorik, damuarren bularrak yoten, eta gu egongo gara geure pekatuetan, okerrerietan gogor? Ez beintzat, ez. Damutu bekigu, Jesus laztana ilteko bidea guk emon izana; baia ez Yudas



okerraren damuaz, zeinek bere biotzeko garbaia, ta lotsea eroan ezinda, bere burua urkatu eban; ezpabere Lapur onaren damuaz, eta san Pedoren garbaiaz, eurak legez parkaziñoa izateko. Yesukristok berak orretarako bide andia emoten deusku, bada kurutzean dagoala, Aitari bera il dabenen parkaziñoa eskatu deutso, dirautsala: «Aita, parkatu egiezu, eztakie, zer egi-ten dabeen eta». Etxun gaitezan bada Yesus ilaren beraren oñetan.

Ai Yauna! Zer dakusgu guk emen? Zer da au? Ai! Burutik eta bea-tzetara, eztaukazu zati osorik. Ez beintzat, ez. Orrako buru eder, zeinek beti ta beti Yangoikoaren gloriarik andiena, eta gizonen mesederik onena, besterik erabili izan eztaben, arantzaz galdurik dago. Orrako begi ederrok, euren begirakunakaz (adikunakaz) ainbeste pekatarien biotzak bigundu izan dituezanak, dagoz aunzturik, ta itzuturik. Orrako aoa, ainbeste berba gozo esan dituzana, dago mututurik: orrako eskuok, gizonai mesede egi-ten baño yakin eztabenak, untzez yosirik; eta oñ orrek pekatarien onera-ko ainbeste ibilte egin izan dabeenak, kurutzean errukibagarik[...] Ezta ori guztia: ezpada ze, arantzazko koroe gogor orrek diraust, zelan barrezko errege eginik, dandarrez erabili izan zaituezan: arpegiko baltzunak, eta andituak, zelan gizon zoro, gitxien, ta bekor eginda barregarri yoka erabi-li zaituezan, eta kurutze onek, eta sorbalda[...] oneek esten deuste ao betean eze, lapurra ta gaistoa egin izan zaituezala.

O Yaungoiko lastana, ze eriotza gogorra ikusi bear izan dozun! Ze eriotza lotsagarria! Eta ori guztiori, zer egiteko? Gu pekatari okerrak, gu nabarben zarrok, zure kontra ibili bear izan dogunok, pekatuturik aterata, betiko zeru ederrera eroateko. O Yangoiko baten gizonaganako on-eres-te, lastantasun, ta ontasun gozoa! Betor Yauna gure ganera zure odola, baia ez Yudeguen ganera legez gure galtzaigarri geiagorako, ezpada geure pekatuen loi guztiak garbituteko. Ez Kristiñauak, ezin guk esango dogu eze, eztaukagula, guri on egiteko gizonik, ez: ara emen gizona: Ecce homo eta gizon bat Yaungoikoaren Seme egiazkoa dana, eta bere Aitari beti ta beti gure pekatuak gaiti, eta mundu guztikoak gaiti parkaziñoa eske yago-kana. Pekatariak orain artian izanagaiti, ez uste eze, guretzako eztagoala parkaziñorik: baago, bai, biotzerik damututen baiaku onduteko asmu ede-rrak artuten badoguz: Yaun onek [...], eta beti Aitari eder eresten deusku. Ea bada, aux egin bear dogu orain: bai arren, gugaiti il dan Yaungoikoaren Seme onegaiti: gugaiti ainbeste ikusi izan dabeen Yaungoikoaren Seme lastan biotzeko onegaiti. Biztu daiguzan biotz epelok, eta al daigun bero-tasun, damutasun, ta lastantasunik andienagaz esan daigun biotz biotze-rik. Neure Yauna Yesukristo.

2. BARIKU-GUREN ARRATSALDERAKO YAZKERAKO SERMOIA

(B, 1-11. or.)

In hoc apparuit charitas Dei in nobis,
quoniam Filium suum unigenitum missit Deus
in mundum, ut vivamus per eum.
Epist.1 Joan. c.4 v.9.

Yangoikoak egin dituzan gauza guztiak dirauskue ze neurribaakoa dan bere guganako karidadea ta ondo-gurea, bada guztiak egin ebazan getzat. Egin bazituan Aingeruak, ge. gordetzailletzat egin zituan. zeruak ge. bizi-lekutzat. Luurra bear genduaana emoteko. Eguzkia, irargia, ta ize-rrak guri argi egiteko. Berba baten, begiratu dagigun gauza guztietara, eta aurkituko ez dogun geuretzat egin ez eban gauzarik. Orregaitik esaten deusku san Paulo Apostoluak: (Yangoikoak egin dituzan gauza guztiak adierazoteko deuskue ze neurri baakoa dan gugana daukan ondo-gurea, bada guztiak egin zituzan guretzat. Egin bazituan Aingeruak, gure gorde-tzailletzat egin zituzan: zeruak zabaldu bazituzan, gure bizilekutzat zabal-du zituzan, luurra ifini beeban guri bear genduaana emon egigun ifini eban: eguzkia, irargia, eta izarra izatea artu beeben guri argi egiteko artu ebeen. Berba baten esateko, begiratu dagigun gauza guztietara eta eztogu aurki-tuko gauzarik guretzako eztanik. Orregaitik zirautesen S. Paulo-k Korrin-to-arrai): «Zuenak dira gauza guztiak, nai dala mundua, nai dala bizitzea, nai eriotzea, nai aurrean daukazuena, nai gero etorriko dana. Eta alan (orregaitik) diño san Agustinek ze, zelan Jaungoikoak gizona beretzat egin eban, alan gizonentzat egin ebazala gauza guztiak, eta orregaitik esan ditekeala Ygkoak. beste ardurarik euki ez dabela, gizona zorionezkoa egi-tea baño. Baia a! andiak badira mirarizko mesede onek (onek mesede mirarizkook), orregaitik bere eztauke zer ikusirik bere Seme bakarra biral-duagaz egin deuskuanagaz, zegaitik eze bere bizitzea kurutze orretan emonagaz erakutsi euskun Yaun onek erakutsi al litekean ondo-gurarik, ta lastantasunik andiena, eze berak ziñoanetik, ondo-gurearen anditasuna ez dala ezetan bere obato ezagututen, zein da bizitzea adiskidea gaitik emo-tean. Eta san Yoan Ebanjelisteak diño ze, onetan agiri dala, Ygkoak deus-kun maitetasuna ta karidadea, bada bere Seme bakarra biraldu ebana mundura, gu beragaiti bizi gaitezan.



Andia izan bazan bada au mundu au egin ebanean, Ygkoak, gu era-
kutsi euskun asko-gurea ori egiteko ez (zan) eban bere burua ezertxu bere
nekatu: bere esan bat asko izantzan gauza guztiak ezer ezetik izatea artze-
ko; baia, zeinbat kosta ez yakon au mundu au barriztetea? Zeinbat neke
artu ez eban onetarako? Ez eutsan asko eretxi gizon egin, ta gure peka-
tuak bere ganean artuteari. Ez eutsan asko eretxi abel-etse baten lasto
artean, ez euki andienean, otzak ilik yaioteari. Ez eutsan asko eretxi ogeta
amairu urtean neke, lan, gose, egarri, ta izerdi artean bizi izanari. Ez
eutsan asko eretxi bere negargarritzko pasiño garratzean ainbeste azote, ta
zauri artuteari. Ez eutsan asko eretxi bere zanetako odol guztia emon ta
bere bizitzea galduteari: ezpada ze gura izan eban bere eriotza au izan
zidin gizon batek igaro al leikean lotsagarriena, minbereena, ta gogorre-
na. O Ygkoaren gizonaganako ondo-nai neurribaakoa! O maitetasun
beintzat miragarria! Ygkoak gizonari ondo-gura izatea izango zan,bai,
mesede neurririk eza: Ygkoak gizonaren ardurea eukitea izango zan amu-
dio txito andia: Zer izango da bada, gizonagaitik kurutze orretan lotsari
artean bizitzea emotea? Nok adierazo leike nogiño eldu zan asko-gura
onen sugar bizia? Izanik san Yoan Ebanjeliste Ygkoaren gauzetan ain
zuurra ta yakituna, diño San Yoan Krisostomo-k eze, ez eukala berbarik
ulertu eragiteko maitetasun onen anditasuna, eta alan bakarrik esan ebal
eze, onenbeste maitetu ebal Ygkoak mundua eze bera pekatuetatik aska-
tuteko emon eban bere Seme bakarra. Orregaitik diño San Agustin-ek:
«Ez gizonak, ez Aingeruk ezagutu daike noraiño eldu zan Ygkoak kuru-
tze orretan iltzanean guri euki euskun ondo-gurea; Ygko bat pekatuaren
aragiz yantzirik, Zeru-luurren egillea billosik? Bizitzaeriotzen yaubea
kurutzean illik? Mundu guztiaren yaubea gurutze batetik eskegirik! Gizo-
nen ta Aingeruen Erregea lotsariz ta desonraz estaldurik!

O Yauna ta Aita-Eternoa! Zer egin dau zeure Seme maite orrek, era
orretan kurutze gogor baten yosirik, eriotza ain itzaltzua eroateko? Il al
dituz gizonen batzuk? Erre al dituz uri edo erriren batzuk? Edo, yagi al
da Erregeren baten kontra? Baia, zer diñot, Yauna, neu banaz eriotza ain
itzal ori emon deusadan borrreru gogorra? Neu naz, bai, neu kurutze ika-
ragarri orretan yosi dabena. Neurea da kastigu orren errua. Nik pekatu
egin dot, eta zeure ganean Jesus neurea, etorri da kastigua. Nik aser-erazo
neuntsan Ygkoari, eta zeure ganera bota dau Yaunak bere aserrearen su
guztia. Ao betean autortuten dot, eta bete betean nago, neure erruz dago-
ala urkamendi lotsagarri orretan. Neureak dira Yauna, azote orreek, zauri
orreek, untze, kurutze orreek, eta eriotza ori. Bai ne. kristiñauak, bai. Bil-
dots orrek ez dauko beste errurik, guri ondo-nai izatea baño. Maitetasun

onek idigi eutsazan zauri orreek. Maitetasun onek urratu, ta zatitu eutsa-
zan bere aragiak. Maitetasun onek yosi eban untze gogorraz kurutze
orretan. Eta maitetasun onek emon eban bere kontra eriotzako sententzia
Yesusen kontra. Ikusi ginduzan eriotzara kondenadurik, eta sententzia
gogor onen papela urratu, eta kurutzean yostearren igon eban kurutze
orretara. Madarikatuak gengoan, ta birao au gukanik kendutearren dago
kurutze orretan bera birao eginik, San Paulok dirauskun legez.

Baia, zetarako erakutsi gura izan euskun ainbeste laztantasan, ta
asko-gura onen andia? a? Guk bera maite izan dagigun, dirausku san Ber-
nardok. Nai izan eban, geuk geure biotza berari emon gengion, eta one-
tarako erakutsi euskun berea kurutze orretan laztantasanaren sugar bizian
errerik. Auxe bakarrik da, kristiñauak, Yaun orrek eskatuten deuskuna.
Beste eskerrik eskatuten ez deusku, egin deuskuzan mesede neurribako-
en alderako. Pagu erraza, baita bere zorionekoa guretzat, kristiñauak:
Baita eskatuten ez deusku, geure bear dalako, eta bai ori emonda bedein-
katuak izan gaitezkan. Orregaitik Ygkoak. bere semea kurutze orretan il
zidin emonagaz, erakutsi euskun bere asko-gura pare-baakoa, eta geuk
zeinbat zor deusagun ondo-gura onegaitik: baita ar-emen neure ser-
moiaren berba (bidea)-geia zati bitan. Lenengoan erakutsiko deusuet
zelan kurutzeko sakrifizioaren anditasunetik igarten dan Ygkoak guri
deuskun ondo-gurearen anditasuna. Bigarreanean, zelan kurutzeko sakrifi-
zioaren anditasunak adierazoten deuskun zein maitetasun andia ta beroa
zor deusagun Ygkoari, eta ze gogorra dan ge. esker gaistoa maitetasun
ori ezpadeusagu. Berba baten lelengoan ikusiko dozue nogiño elduten
dan Ygkoaren gukanako laztantasan gozoa: eta bigarreanean, nogiño eldu-
ten dan geuk beraganako daukagun esker deungea.

Ai Yauna! Guk esan daikegun guztia zer da, zuk guri egin deuskuzun
on andiaren parean? Zer da gure biotza zure neurribagako ontasuna page-
tako? Baita Yauna, ain gara pobreak ta eukiezak, ain gara ezetarako-ezak,
ain otziturik gagoz eze, eskatuten deuskuzun zor txiker au bere ez dau-
kagu zegaz pagadu, zeuk emoten ezpadeuskuzu. Biraldu egiguzu, arren,
zerutik amudioaren su au, eta erre gagizuz azurretagiño, eta erakutsi egi-
guzu zeinbat maitetu ginduzuzan kurutze orretan biurtu dagigun amudio
au, zeuk eskatuten deuskuzun moduan. Auxe eskatuten deusugu bitarte-
kotzat iminirik orrako kurutzearen oñean dagoan zeure ama laztana. Abe
Maria.



Lenengo zatia

Mundua egin baño antxinagokoa da Yaungoikoaren gizonaganako maitetasuna, bada san Yoan Krisostomo-k dirauskun legez, mundua gizonagaitik egin eban, eta alan ez eban gizona beste gauzak legez egin. Zerua, lurra, eta beste gauzak egiteko berba bakar bat izan eban asko. Eguzkia ta irargia egin zituzanean, esan «egin bedi eguzkia, egin bedi irargia, ta orrenbestegaz egin ebazan. Gizona barriz ez eban onelan atera bere eskuetatik: ez eban esan egin bedi gizona; ezpada ze, gelditu balitz legez, bere artean balego legez zelan gizon ori egingo eban gauzarik miragarriena, ta osoena, diño: «Egin dagigun gizona ge. antzera ta irudira, ta imini dagigun arrañen, txorien, ta abere guztien agintari: Onetara bada egin eban Ygkoak. gizona. Apaindu eban gizon ori grazia ta onra zoragarritz, eta ifini eban Paradisuko gozotasun artean, mundu guztiaren yaube, ta agintari eginik. Baia, ai zori-gogor negargarria! Ondo gitxi iraun eban geure lelengo guraso onek zorion ta grazia onetan. Sinisturik suge madarikatuaren berba labanai, ausi eban Ygkoaren agindua, eta alan ez bakarrik galdu eban eukan arimako edertasun guztia, baita bere gelditu zan ezin begiratu leikion moduan. Ze kastigu uste dozue merezidu leukeala Adanek egin eban pekatu ikaragarriagaitik? Artuten dau Yangoikoaren eskuetatik bere izatea, eta orregaitik bere artuten dituz bere egillea lain-beste izateko asmu zoroak. Ifinten dau Ygkoak bere ordeko ta gauza guztien agintari: eta egiten da Demoninoaren mendeko. Emoten deutso Ygkoak yakituriarik andiena: eta orregaitik bere gura dau Ygkoak lainbeste (alagiña) yakin: Ygkoak egiten dau Adan mundu guztiko errege: eta Adanek nai dau zerua bera bere agindura euki. Ygkoak egiten dau Adan gizon guztien buru: eta ilten dituz Adanek guraari zitai bategaitik bere seme ta ondorengo guztiak. O! zeinbat pekatu ta zeinbat gatx eta nekegarri ekarri zituan mundura desobediencia gogor onek! Nok usteko ez eban berpertatik infernura botako ez ebal Ygkoak au gizon esker gaistoko au, ikusirik berak zer egin eban Aingeru gaistoakaz? Baia, o Ygkoaren gizonaganako maitetasun azken-baukoa! Gizonaren erri izantzan, eta emon eutsan penitentzia egiteko astia, eta atera eban egin eban pekatutik.

Baita etzan onetan gelditu Yaun andi onen gizonaganako maitetasun ori, ezpada ze ikusirik Adanen pekatuagaitik gelditu gintzala aren seme guztiak gatxez, nekez, eta lazeriaz galdurik artuten dau gogoa geu egoera negargarri atatik aterateko. Eta, zelan gero uste dozue, egin gura izan ebal mesede au? O! Ain andia zan gizonak pekatu onen bitartekoz

ganean artu eban zorra eze, ez egoan ez zeruan, eta ez lurrean zegaz atera. Gizon ta Aingeru guztiak bat eginik bere etzirean asko zor au garbituteko, eta alan beartzan kriatura guztiak baño garbitzalle andiago bat, eta au ezin izan zaitekean Ygkoa bera baño besterik. Zorpe onetatik urtengo bagintzan, eta aspertuko bazan Ygkoaren justizia zuzena, yatzi, bere neurri-baako yakituriak iminirik eukan legez bear eban bere Seme bakar maitak, eta gizon egin beartzan, artu bear eban bere lepoan ge. zor guztia, eta gelditu beartzan kurutze orretan, or dakutsuen legez. Niri begitanduten yat, kristiñauak, ikusten dodala Ygkoaren biotza, maitetasun biren erdian estuturik legez: eta biak sendoak, biak indartsuak ta gogorrak: Bata bere Semeaganakoa, ta bestea gizonaganakoa. Semeaganako maitetasuna zirautsan eze, etzala ondo bere Seme ain laztan Ygko egiazkoa gizonakgaitik agindutea ain eriotza gogorrera: eta ea berari zer eutsan ta zer yoaikon mundu guztia galdugaitik: bera ain andia, ain yakituna, ta ain zorionekoa izango zala gizon guztiak galdurik, zein da orrek betiko zorioneko izanda. Adanek pekatu egin beeban, berak gura izanda egin ebal, ta ea zegaitik, bada, errurik ez eukanak eroan bearko eban bestearen errua: ori lege etzalata. Eta ea zegaitik bada, berari emon bearko eutsan ainbeste ardura gizonaren erremedioak, gizon ori auts ta luur puska bat baño etzan ezkerro. Gizona baxen askoz ta askoz ederragoak, ta izate obeagokoak izan zireala Aingeruak; baia orregaitik pekatu egin ebeenean, ez yakela aei parkatu, ta ez eutsela erremediorik billatu. Zegaitik bada egin bearko eban gizonagaz, Aingeruagaz egin ez ebana. Beste aldetik barriz, gizonagana eukan ondo-gureak ekiten eutsan, arren ta arren erremedio bagarik ez itziteko bere arerioen eskuetan, eze arro arro geldituko zala Demonioa gizona galdurik ikusita. Ondo ekiala berak gizonaren argaltasunaren barri, eta Demonioak aren kontra eukan su erre bizia, eta pekatuan yausi eragingo eutsala. Arren bada, gizon orren erruki izateko eta barriztadu legiola lenengoan euki eban edertasuna.

Ea bada kristiñauak, edo gizona gelditu bear da galdurik, edo Ygkoaren semea imini bear da bere areriorik gogorrenen eskuetan kurutze itzalean galdu dagien. Gizonaganako asko-naiak geiago egiten badau Ygkoaren biotzean, bere semeak galdu bear dau bizitzea kurutze arrigarrian ortxe ikusten dozuen baño gogor Semeaganakoak geiago egiten badau, gizonak naita ez gelditu bear dau gauzarik errukarrienak. Zein uste dozue izango dala geiago Ygkoaren biotza irabazteko? Noren bizitzea deritxazue gurako dabela Yaunak gorde, bere semearena, ala gizon pekatariarena? Nori parkatu gurako deutsal, esango zeunke beragaz izate bat, eta Ygkotasun bat daukan Seme egiazkoari, ala auts la luur puska bat baño



eztan gizon ilkorriari? Nok usteko ez eban Ygkoak geiago geiago egingo ez ebalá bere seme maitearen bizitzea, gizon bere arerioarena baño ? Baia, o Ygko baten gizonaganako ondo-gura neurribaakoa! O gure Egillearen maitetasun azken-baakoa! Guraago dau gizonaren bizitzea, bere Seme maitearena baño. Bere Seme maiteari parkatu ez eutsan, dirausku san Paulo Apostk., gizonari parkatutea gaitik. *Proprio Filio suo non pepercit Deus*, Orc. Il bedi neure Semea, diño, gizona bizi dedin. Gizonari parkatu guraago deusat, neure Seme maiteari baño. Artu begi ne. Semeak bere buruaren ganean gizonaren errua ta zor guztia, eta zor au aterateko galdu begi bizitzea. Aita-Eternoaren agindua izantzan, Kristiñauak, bere seme maitea kurutze itzalean ifini ebana. Sentenzia gogor ori emon eragin eutsan Ygko ta gizon orren kontra guri euskun laztantasan andiak. Ondo-gura onek zauritu deutso Yaunaren Semeari bere gorputz guztia. Ondo-gura onek zulatu deutso bere buru guztia. Ondo-gura onek yosi dau kurutze orretan, eta ondo-gurea izan da bizitzea kendu deusan borrarua. Eta, zelan deritxazue egin ebalá Ygko ta gizon orrek bere Aita-Eternoaren agindua? Ai, kristiñauak! Gogo-gogotik ta pozarren ozta, berak geuri euskun amodioak eraginda. Maite ginduzan, eta yakinik geure onerako zireala, igaroten zituan neke, lan, zauri, eta eriotza gogorra, gogo betez artu ebazan, lepoan ge. zorrak: eta oneek garbitutearren igaro eban pozen pozez pasiño ta eriotza itzal ori. *Oblatus est quia ipse voluit*.

Noraiño Yauna, eldu da ze. guganako asko-gurearen garra? Noraiño igon dau ze. karidadearen indarrak? Ez al eban ondo ta ondo adierazoko zein laztan ginduzan, Aingeruren bat biralduagaz, bekaturik gu aterateko, zu zeu mundura esklabo-yantziagaz yatsi bagarik? Eta ge. gizontasuna artu nai beeban bere, zetarako, Yauna, zetarako ainbeste neke, ta ainbeste min ikaragarri? Ez zeunkan, Yauna, beste biderik, gu pekatuaren, ta Demonioaren eskupeetik aterateko? Ze. gura-izate, edo ze. berba bakar bat ez altzan askoko geuri mesede-on au egiteko, mundu au ezer ezetik egiteko asko izantzan legez? Ai! Bai Yauna, bai Yauna. Baia obeto geuri iragarteko ze. guganako asko-gurearen andia, ikusi nai izan zenduan eriotza arrigarri ori. Barriz, zer ikusi eban Yaunak gizonagan ain maite izateko? Ze mesede artu eban beraganik? Ze adiskidetasun, edo ze edertasun egoan gizonagan, ain zoraturik legez beragana egoteko?

Ezer bere ez, kristiñauak, ez egoan gizonagan Ygkoak maite izan al leikeanik, bada egoan bekatz ezaindurik ta loiturik. Bere arerio ginean, eta bere kontra genbiltzan gerra bizian sarturik. Onetan, bai, igerten dala bere asko-naiaaren anditasuna! Onen ganetik dirausku san Paulo Apostoluak: «Izanik geu Yaunaren arerio., orregaitik bere gugaitik iltzan Yaun

ori. Bere adiskide, bere ongilla, ta bere guraso gu izan bagina bere, izango zan ondo-gura guztizkoa, gugaitik bere bizitzea galdu gura izatea. Ze au da ondo-nairik andienaren agiria ta ezagugarri argia, Zer izango ez da bada, arerioak gaitik eriotzea igarotea, ta eriotzarik bere lotsagarriena, gogorrera, itzalena?

O on-este neurri-baakoa! O ontasun pare-bagea! Bada Ygko txito altsua ta eskurik ezin da andieneko dakust begien aurrean ilik, gizona lango puskeagaitik. Errurik izan ezin leukeana dakust urkamendi baten untzeakaz yosirik pekatariak-gaitik. Bere izatez santua dana dakust mada-rikatu eginik gu madarikatuak-gaitik. Zeru-lurren egillea dakust lotsaririk andienean, gizona onraz yantzitearren. O Yesus ona! Eta, ze sendoa ta andia izan dan zeure gure alderako ondo-naia! Bada geiagotan euki dozu ge. zorientasuna, ze. bizitzea baño. Zer biurtu neinkezu bada, Yauna, ainbeste mesedeen orde? Ez daukat, eta euki bere ezin neike, Yauna, zegaz erantzun alango asko-gura miragarritzko orreri. Baia, ai Yauna! baakit nik eze, zuk gauza bategaz asko dozula, eta besterik guganik gura ez dozula ge. zeuganako maitetasuna baño. Baita guk, kristiñauak, izango dogu arpegirik gauza orren apurra berari ukatuteko? Eukiko dogu biotzik, ainbeste deuskun Yaunari ge. biotza ez emoteko? O gogortasuna! Geiegi daukagu, geiegi kristiñauak, bigarren zati onetan ikusiko dogun legez.

Bigarren zatia

Ygkoak atera gura izan bagenduz pekatutik bere berbeagaz bakarrik, ez eban zer igarorik pasiño ain gogorra, ez eriotza ain bildurgarria. Baia gura izan eban ge. errendenziñoa era onetara egin, ge. biotzak irabazteko, eta geu berari asko nai izatera eroateko. Guk obligaziñorik asko ta asko geunkan Ygkoa maite izateko; baia ikusirik Yaun orrek ge. biotza otz, atzera ta gogor egoala bere eskutiko mesedeak ezagututeko, yatzten da bera mundura, egiten da ge. anaie, artuten dau ge. aragia, eroaten dau pasiñorik garratzena, eta ezteritxo asko, kurutze orretan, zuek dakutsuen legez, bizitzea galdu artean, O zelan egon bear leukeen ge. biotzak, dea-dar egiten dau san Bernardo-k, asko-gurearen su garretan erexegirik ta exeturik, ge. Ygkoa. gugana ain maitetsu ikusita! Eta alan izan bear leuke benetan ne. kristiñauak: bada yakiteak nor dan kurutze orretan dakuskun ori, ezaturik ze santu, eta miragille dan, eta noragiño eldu zan bere humildadea, eta ikusteak be ikaragarriak direan iragoten dituzan neke, eta



ala aziak bete bear gendukez geure biotzak aganako ondo-guraz, yakinik au guzti au egiten dabela guk bera maite izateagaitik. Eta, orregaitik bere, egongo gara otzik, ta pena bagarik? Begiratu deusagu begi legorrazaz Aingeruen pozgarri orreri, egonik gugaitik ain minez beterik? A! emen ageri da abererik uzuenak baño bere ezaukera gitxiago daukagula, bada idiak ezagututen dau bere yaubea, eta astoak bere yaunaren askea, eta guk eztogu ezagutu gura Yaungoiko orrek bere eriotzeagaz egiten deuskuzan mesedeak. A Zeruak! Arritu ta ikaratu zaiteze, ikusirik gizonaren esker deungeau: bada Ygko batek bere burua ezereztuko da kurutzeko eriotzagiño, gizonaren bizitzea irabaztearren, eta, gizona egongo da alegin guztia egiten, Yaun maite orreri bere biotza ez emotearren? Ygko bat emoten bere zanetako odol guztia esklabo zital bat Demoniñoaren eskupetik ateratearren, eta, esklabo onek eztituz ezagutu gurako egiten yakon mesede parebaako au? Ygko. batek galdu bere bizitzea, gizonari bizitzea emotearren, eta, gizon onek ez maite izan gura bere ongilla andi au?

A gogortasuna! A atxak baño gogorragoko biotzak! Auxe esker deunga au da ne. kristiñauak Jesus laztan orren biotza erdi bi egiten dabena. Eztabee ainbeste nekatuten koroe, azote, untze, eta kurutze orreek, zein da ge. astutasunak. Ge. gogortasun onek deadar erazoten deutso kurutze orretatik»: Ne. Semea, ne. maitea, ne. laztana, betiko asko-gura egiazkoagaz maitetu zaitudaz. *In charitate perpetua te dilexi.* Oraindiño ez zeunkan izaterik eta ne. asko-gura bizian nengoan erretan zukanako: Ni enintzan ze. bear: banenkian zuk niri ezer egin ezin zinaikedana; baia orregaitik bere ezin egon zan ne. ontasuna zu maitetu bagarik. Ezagutu gura bozu ne. zugako askonaiaren berotasuna, gora egizuz ze. begiak kurutze onetara, eta onexegaz bakarrik ezagutuko dozu zer egin daben zugana daukadan ondo-gureak gorputz onetan. Ondo-gura onek ifini nau zauri bat eginik burutik beatzetara, eta ondo-gura onek kendu deust bizitzea, eta alan (da guzti) bere; au guzti au ezta asko izango ze. biotz ori bigunduteko? Oraindo bere geratuko zara gogorturik? Bada, zer falta yat (daukat) zugaitik geiago egiteko? Ze beste ondo-gurearen ezaugarri andiagorik nai dozu emon dagidazudan? a! Eztakit geiago eskatu al dai-kedazun. Eta orregaitik bere eztozuz ezagutu gurako egin deusudazan mesedeak? Oraindo bere ez deustazu ondo-gurako? Ea ne. kristiñauak, Zer deritxazue Ygko. Yaun orreri? Zer erantzuten deusazue zeuen aita, zn. ongilla, eta salbatzalle orreri? A! Deritxat eze en. miñak diñoala ezagututen dozuezala onek mesede guztiok, eta maite dozuela zeruko Errege ori, baia zeuen biotzak, zeuen egiteak, ta zn. bizitza moduak dagoz gutiz urrun berba orreetarik; bada ikusten dana da ze, eztozuezala gor-

detan Yaun onen legeko aginduak. Alde baten ikusten da loikeria eta aragizko pekatua; eta bestetik entzuten direanak dira berba loi, pekatu zabal-dugarriak. Alde batetik ikusten dana da ordikeria, lapurreria, eta tratu engañuzkoak; eta bestetik ikusten dana da gorrotoa, aserrakuntzea, eta alkar ezin-ikustea. Eta alan da guzti esango dozue Yaun Ygko ori maite dozuela? Bada nik dirautsuet san Yoan Ebanjelistaren berbakaz eze, guzurtiak zareela, eta guzurra diñozuela. *Qui dicit*

Orra ze esker moduak emoten deusazuezan gizonak, Jesus laztana, Mundu guztia yagoku esaten maite izan daigula ze. majestadea, egin deuskuzan mesedeak gaitik leku guztietan: Kurutze orretan ikusten dodan sakrifizioan dago deadarrez ne. ondo-gurearen eske: altara orretan ikusten dan karidadezko suak ezagutu eragiten deust nik daukadan obligaziñoa zeu maite izateko koroe orrek, azote orreek, zauri orreek diraste: maite izan egizu biotza emon egiozu ain laztan izan zaituzanari. Eta, onek guztiok eztira asko izango ge. biotzak bigunduteko? Ai Yauna! Andia edo da ge. gogortasuna, eze mundu guztia ikaratuteko asko izan dan eriotza ori ezta asko ge. erraiak samurtuteko. Zeu kurutze orretan illik ikusirik eguzkia ilunduten da, irargia odolez betetan da, sepulturak idikiten dira, mendiak eurak erdibi egiten dira, arriak eta atxak zatituten dira, eta beste gauza guztiak euren egillearen eriotzan erakusten dabee damutasunik ta naibagerik andiena eta gizona bakarrik egongo da bere gogortasunagaz? Gizona egongo da naibagerik ta biotzketarik bapere bagarik?

Ne. Kristiñauak, etzan Ygko Yaun ori il kurutze orretan zeruakgaitik, eguzkia gaitik, irargi, izar, arri eta mendiak-gaitik: gugaitik, gugaitik bakarrik iltzan; gugaitik emon eban bere azkeneko arnasea: eta orregaitik bere atxak, mendiak, eta arriak baño gogorrako egongo gara gu? Zer egingo ebeen senzun baako gauza onek eurak gaitik il zan balitz gugaitik iltzana legez? Non da bada ge. fedea? Non da ge. buruko argia? Non da ge. sentzuna? Autortu dagigun, ne. kristiñauak, arriak, atxak, eta mendiak eurak guk baño sentsun geiago daukeela: ez gaitzezan azartu esaten fedea daukagula, ez sinistuten dogula dakusgun ori dala Ygkoaren Seme egiazkoa, bada gauza guztiak yagiko litzatekez ge. guzur au argituten. Ez dagigun esan maite dogula gugaitik kurutze orretan dagoan Yaun ori, bada ge. eginak, ge. bizi-moduak deadar egingo leukee ge. kontra, eurak esaten dabee, ge. asko-gura guztia miñean baño eztagoala.

Zer deritxazu Jesus gozoa, ge. biotz atxak eta arriak baño gogorrako onei? Ai, ne. semeak! diño, Nondik nora daukazuez ain biotz gogor ta arrizkoak? Nik ez neuntsuen emon alangorik, ezpada aragizko bigun ta errukiorrak: nik zeuen biotzetan eskribidu neban ne. lege barria, eta mai-



tetasunaren agindua, eta gura izan neban erre ne. karidadearen suagaz. Su au ekartera etorri nintzan zerutik lurrera, eta auxe isioten ibili naz ogeta amairu urtean munduan: auxe ondo-gurazko su au exetuteagaitik igaro dot pasillo ikaragarri bat: igon dot kurutze onetara eta emon ne. bizitzea. Baia, A! eta ze ikaragarria dan zeuen biotzen gogortasuna! bada mundu guztia erretoko asko izan dan karidadearen sua ezta asko zuen biotzak berotuteko bere. Otz otzik eta biotz-min bagarik kurutze onetara begira zagozelako, eta deungeago dana pekatuen eta Demonioen bizi-leku egini zagoelako. Auxe zeuen esker deunga au da ne. biotza erdi bi egiten deustan ezpatarik gogorrera, eta kurutze itzaltsu onek baño neke geiago emoten deustana, Zegaitik zagoze bada ain gogor, ne. seme maiteak? Ete da zuek-gaitik asko egin eztodalako? Ete da zuen biotzak oraindiño ez geiago bigundutea merezi dodalako? Ea bada ne. Semeak, emen nago prest edozein gauzatarako egin egizue nigaz zuek gura dozuena, eze pozik eroango dot edozein bere gauza zn. arimak irabaztearren: edozein moduko eriotza iragoko dot ostera zeuen biotzak amudioan exetuteagaitik. Ea bada ne. seme maiteak, ezagutu egizue ni nazala zen (zeuen) aita ona, zn. ongilla andia, eta zn. on guztia: eta orain artean niganik igesi ibili bazaree bere, erdue erdue zn. aitagana, eta ez egizue bildurrik euki, bada ementxe nago ni poz andiagaz besa-artearen arturik ne. bularraren kontra estutu, ta laztanduteko. Emen nago zn. arimak irabaztearren edozein gauza egiteko prest: erdue bada ne. Semeak neugana, erdue laster, eta idigi egidazue zn. biotzeko atek, bada zeuek bizi gura dot, eta zori-oneko egin gura zaituedaz.

A ne. kristiñauak! Nos artean egongo gara gogorturik Ygko baten deietara? Nos artean eukiko doguz ge. biotzak astundurik? nos artean izango gara esker deungakoak Yaun andi onegaz? Ezagutu dagiguzan nos edo nos, ne. kristiñauak, beraganik artu doguzan mesedeak. Idiki dagioguzan ge. biotzeko atek: eta emon dagiogun atsegin guztia ge. borondate onagaz. Auxe biotz au da eskatuten deuskuna: ondo-gura onegaz pagaduko deusaguz ge. zor guztiak. Ea, zer diñozue? Al zagoze orain bere gogorrik? Ezteutsazue oraindiño bere emon gura zen. arimea? Eztozue oraindiño urten gura pekatuaren egoera negargarri orretatik? Enzuzue edolanbere bere Ama guztiz santearen negarrak ta zispuruak. Begiratu egiozue zelan dagoan kurutze orren oñetan, nok poztu eztaukala, bada eregiten badituz be. begiak kurutze orretara, erdi bi egiten yako biotza, ikusirik bere ume maitea arnasa bagarik. Eta alan negarrezko iturri bi egini bere begiak dirautso Semeari: «A ne. Seme maitea! Modu onetan itxiten nozu? Zein ba obago izango zan, neuk igaro izan baneban, zuk igaro

dozuzan neke-alak, zu bizirik geldituteagaitik? Ai ene Seme biotzeko, ze bakartasun ilunean itzi nozun! Zu zinean ne. aita, ne. poz, atsegin, eta on guztia: eta orain geratu naz ume zurtz guraso бага, alargun lagun бага, neke eta naibage artean iik bizitzea бага, Nogana biurtuko naz bada? Nok poztuko nau ain zori gogor andien erdian? Aita Eternoak? Ai! Bere justiziako ezpateak il dau ne. Seme errubaako Isaak. Poztuko nabee Aingeruak? Ai! Eurak dagoz negarrez euren egillea, ta Erregea iik dakuselako, Poztuko nabee gizonak? Ai ene penea! Eurak eurak, bai, emon deutse (euren) pekatuakaz eriotzarik gogorrera ne. Seme laztanari. Euren pekatu ta gaistakeriak gaitik, ne. semea dago ilik: eta eurak dira oraindiño ne. biotzari damu ta atsakaba geiago emoten deustena; ezagutu gura ezta-beelako ne. semeak egin deutsezan mesedeak: eurak dira ne. areriorik eskergeenak, daukeelako nabarbenkeria azia, oraindo bere ne. Seme maiteari ekiteko. Baita, ai! onango tristura ilun ta lan minen erdian baneunka gitxienez ne. seme biotzeko onen korpua kurutzetik eratsia! Baia, A ene zori-txarreko! bada au nai au, eta atsegin apur au bere eztaukat nok emon. Aita-Eternoa, ezta oraindo bere amatadu ze. justiziaren aserrea? Eztau oraindo bere pagadu bioen Seme onek bere ganean artu eban pekatarien zorra? Eztozu oraindo bere gura sepultura bat emon dakion ze. Seme bakarraren gorputz ilari?»

Bai, Ama naibagez ta nekez bete: entzun dituz Ygkoak ze. deiak, eta gura dau obiratu dedin ze. Semearen gorpu ori. Aror non biralduen deutzuzan gizon errukior orreek ze. guraria egiten. Ea gizon onak, eldu zaitetez ama neke beteriko orregana, eta eskatu egiozue zeuen biotzakaz bere baiezkoa gogotik igarota daukazun lan andi ori egiteko. Ez bakarrik emon gurako deusue, baita bere eskerrik asko emonik esango deusue Dabid Erregeak Saulen gorpua luurpeetu ebeenai baño obeto: «Ygkoak bedein-katu zagiezala zeuon Yaunagaz egin gura dozuen eginen onagaitik. Eta nik bere emongo deusuet zeuon borondate on orrek merezidu daben saria. Ea bada gizon beteak, igon egizue arbola orretara eta betor gugana frutu gozo ori, kendu dedin mundutik Adanek frutu garratza yanagaz ekarri euskun eriotzea. Igon dagigun ne. kristauak mendi santu onetara, eta ikusi dagigun noragiño eldu dan Yaunaren gudanako amodioa, eta ge. pekatuen gogortasuna, eta asko ezpada Ygkoaren semearen eriotza ori ge. biotzak bigunduteko, autortu dagigun ao betean eze, arriak eta atxa baño gogorragaok gareala.



Errotulua

Asi egizue Ygkoaren ministroak egiteko andi ori; kendu egizue kuru-tzearen buruan dagoan ol ori; ortxe irakurriko dozue nor dan gizon ori, bada orixe guztiori bear da nor dan yakiteko ainbeste azote, zauri, eta yotegaz itzi dabeelako ezin ezagutugarria. Eroan egiozue bere ama nekez ta atsakabez bete orreri. Ara or Martiri guztien Erreginea nori biralduen deutsun ze. Semeak ol orren bitartez, ez bere erreinuaren erdia Asuero-k Ester-eri legez, ezpada oso osorik: nai dau zeu izan zaitezcan zeru-lurren, ta gizon-aingeru guztien Erregiña, baita bere gu guztioen ama ondo-guraz beteriko bat. Kendu egizue Ygkoaren serbitzalleak eta emon egizu Aingeruren bateri ondo gorde dagion.

Arantzazko koroea

Eldu zaiteze gizon errukiorrak lotsa ta itzal guztizko bategaz Yaun orren buru santura eta kendu egiozue arantzazko koroe gogor ori, eta erakutsi egiozue eleaxako yente oneri. Orra gizon esker deungakoa ze andiak direan zure pekatuak, bada zeruen yaubearen burua zulatu dabee. Koroe gogor orren sustraiak ze. biotzetik urten dau: ze. biotzean erne da, eta ze. biotzetik igon dau buru atara. Eretzi egizue beera Ygkoaren ministroak bada ori ikusiagaz bere eztira bigunduten gizon oneen biotzak. Erakutsi egiozue beinik bein bere amari, eta esan egiozue zeuen biotzakaz batera: «Ara emen andra bedekintua ze. semearen buruan sarturik egon dan koroia: Onexek arantza arro (punto) dira santu guztien burua zulatu dabeenak. Baia arantza oneen sustraiak urten badau gizonen biotzetatik, badiño ze ebagiko dituezala sustraitik, au da, kenduko dituezala euren pekatu ta gaistakerien bide guztiak, eta eregingo dituezala egite on, eta birtute guztien lora eder usaiñtsuenak, Eztiñoze au ne. kristiñauak? Ea bada kendu egiozu Ygkoaren ministroa bere begien aurretik ori ikaragarriko koroia ori, eta emon egiozu Aingeruren bateri.

Untzeak

Atera egizue Yaunaren ongilleak untze gogor orreek. Baia, ai! ze sendo yosirik euki dozuezan Ygkoaren eskuak! Atera egiozu lelenko esko-ako hori yaitzi deitezan ge. ganera esku orretan dagozan benediziño ugariak. Atera egiozue ezkerreko untze ori, eta betor gugana or gorderik dagozan ondasun parebaakoak. Atera egiozue o orreetan daukan untze arrigarrikori ori. Eta, a! Nok esan leike oiñ orreek direala infernuko dragoe indartsua zapaldu eta humildu dabeenak? Eroan egiozue be. amari, ia zer diñoan orreek ikusirik». O untze gogorak! esango eban negarretan

urturik. Zelan azartu zaree Ygko ta ne. Semearen esku-oñak zulatu ta zatituten? Nolan eldu ta azartu zaree yosirik eukiten mundu guztia ezer-bere-ezetik egin zituezan eskuak? Ai! naiago izango neban ne. biotza zulatu izan bazendue! Bada onelan eneban ainbeste min artuko, Ai! ze arrigarria dan pekatuaren gogortasuna, bada eldu da Ygko egiazko baten esku-oñak yostera! Kendu egiozuz Yaunaren ministro yauna Birjina orreri bere begien aurretik burdina gogor orreek, negarrez zatitu ezteitean bere biotz atsegin-baakoa.

Gorputza-erestea

Ea gizon bedekintuak, azkena emon egiozue asi dozuen errukizko lan orreri: Betor betor beera arbola orretarik Adan barria, bada orrera igon badau, izan da Adan zaararen kateak urratuteagaitik. Yaun orren erru orrera igoteko izan da, gu laztan izan gaituzalako: kurutze orretara igon badau izan da Ygkoagaz ge. artean bakeak egiteko. Betor, betor beera, eta eroan egiozue bere amari, ea ezagututen badau bere Semearen gorputza dan ala ez. Zeruko Erregiña, ete da gorputz ori Espiritu santuak ze. errai garbietan egin ebana? Bai auxa da, diño Birjina orrek; baia ain dago zatituri, ain urraturi ze, eneunke ezagutuko ne. biotzaren asko gureak esango ezipaleust berau dala. Baia, A ene Semea! Nok imini zaituz orrelan? O zeruetako edertasuna! Nok orrelan kastigatu zaituz? Nok zatitu deutsu buru ori? Nok urratu deitsuz ze. aragi orreek? *Ehu mihil! fera*, etc. Ai! Pistia uzuren batzuek galdu dabee ne. semea, bada, gizonen artean zein topadu leiteke ain biotz gogorrik. Ai ne. Seme maitea! Nun da ze. edertasuna? Zelan dagoz orreek begiok, eguzkia baño argiago izan direa-nak? Zelan dagoz ainbeste mesede egin dituezan eskuok? Ai! Gizonak izan badira modu orretan imini zaituezanak, gizonen asko-guraz bazagoz modu orretan, ai! ze erruki-baakoak izango direan alegin guztiagaz maitetuten ezipazaituez!

Adanen Semeak erdue, erdue ikusten pekatuaren kalteak, begira zer egin daben gorputz orretan zen. gaistakeriak. Orra pekatari lotsabagea zer egin dozun: ze. pekatuak dira gorputz Ygkozko ori modu onetan zatitu dabeenak: ze. gaistakeriak gaitik yausi da gorputz orren ganera Aita Eternoaren aserre artez guztia. Eta etzagoz oraindo bere asperturik? Ezteutsazu orain bere itxiko pekatuari? Erdu bada, eta ezarri egiozuz ze. eskuok, azotadu egizu barriro, eta yosi egizu barriro kurutze atan: emon egiozu eriotzea gogorrigo bat: erdu pekataria, eta egizu Ygkoaren Seme orregaz gura dozun guztia. Baia, nor azartuko da au egiten? Nor? Zu zara pekataria ze. biotz gogor orregaz pekatu bakotxean oneek guztiok egiten



dozuzana: zuk ze. pekatuagaz emoten deutzazu ze. aldetik danetik Yudeguak baño eriotza gogorragea. Eta, azartuko zara esaten ezteutsazula gura emon eriotzarik? Izango dozu arpegirik esateko maite dozula Ygko Yaun ori? Guzurrea diñozula dirautsu Yesus maite orrek, baldin itzirik pekatuari, beragana biotzetik biurtuten ezpazara. Ea bada, zer diñozue pekatariak? Biurtutentzaree edo ez?

Bai ge. Yesus salbatzalea: badazaugu orain artean izan gareala ze. arerio, ta borreru gogorrak, eta ezkagukera onegaz gura dogu zeugaz bakeak egin: eztogu geiago luzatu gura zugana biurtutea, eta oraintxe bertatik astearren bizitza barri bat diñogu biotzak urratuaz. Ne. Yesukristo Yauna.

3. BARIKUGUREN ARRATSALDEKO ERESKERAKOA

(B, 169-176. or.)

Spiritus oris nostri Christus Dominus
captus est in peccatis nostris.
Thren. c.4.v.20.

1. Jaungoikoak berak esan eta fedeak irakatziko ezpaleusku Jaungoiko benetakoa iltzala urkamendi baten eriotzarik gogorrenagaz, ez litzateke aurkituko misterio arrigarri au sinistu gurako leukeanik. Arako agindu eutsanean Jaunak Isaias-eri eskribietako bere seme maiteak igaroko eban pasiño gogor eta eriotza kruela uste izan eban Igarla edo Profeta onek, ez ebalatzen sinistu gurako, eta alan esan eutsan Jaunari: Jauna, nok sinistuko dau nire esana? *Domine, quis credit auditui nostro?* Eta orretan bere Ne. Kristk., ezpageunko federik zorakeria anditzat eukiko geunke sinistutea arako Jaungoiko neurribako, andi eta azken-bagea il dala? Nor eskandalizauko ez litzateke enzunik arako Jaungoikoaren seme benetakoa, beragaz izaite eta Jaungoikotasun bat daukana, Zeru eta Aingeruak edertasunez yanzi zituzana, eta izaitea daukan guztia ezerbere ezetatik egin ebana ez bakarrik il dala, imita bere igaro dauen eriotzea izan dala gizonik madarikatuenak, eta deungeenak irago al leikean lotsagarri, minbera, eta dexonragarriena? Alantxe uste ebeen Yudegu Yentilak, bada S. Paulo Apostoluak dirausku: Jesus kruzifikadua eskandalua da Yudegentzat, eta zorakeria Yentilentzat. Orregaitik diño S Juan Krisostomo-k, ain dala gatx gizonari adierazotea misterio au ze, sinistuko bazan Elexa Santaan, Espiritu Santua yatzi izan bear zala, bada bestelan ez ebalatzen sinistu gurako. Artu dogun ezkerro bada Jaungoikoaren Espiritu au Bautismo Santuan, sinistu bear dogu Elexa Santeak irakazten deuskuzan misterio andi oneek. Ikargarriak dira, arrigariak dira: baia konfesau bear dogu kurutze orretan madarikatu eginik dakusgun ori dala Jaungoiko guztiz altsu edo poderoso benetakoa: urkamendi lotsaari orretan lapur bat legez yosirik dagoan ori dala zeru, luur eta izaitea daukeen gauza guztiak egin zituzana. Menpeko edo esklabo zital eta geisto bat legez azotadu eta odol-usturik dakusgun ori dala berez bereinkatua eta Aingeruak bedeinkatu eta zorioneko egin dituzana.



2. Bai Jaungoiko andia, bai egille edo Kriadore altsua, badakuzgu bere kurutze orretan pekatari madarikatu bat legeaz kastigatu ta illik, konfesetan dogu dana Aita Eternoaren Seme maitea, nogan daukan bere atsegin guztia. Guztien burlagarri, eta oiñ-azpiko eginik badago bere, dakigu dana Errege guztien Errege eta Agintarien Agintari, dagoana yarririk Aita betikoaren eskomatatik, non adoretan daben ainbat milla Aingeruk ezagututen dabeela euren egille, ongille eta burutzat; bekatu antzeko aragiaren soñeko loiagaz yanzirik badakuzgu bere dakigu zeruetako edertasuna dana, eta eguzki, irargi, izar eta Aingeruak argiz apaindu zituana. Arantzaz zulatutrik, azotez aserik, burutik beatzetara zauri bat eginik, giztiori birrindurik, eta untze gogorrekaz esku-oñak yosirik badago bere siñistuten dogu dala arako Jaun andi zeru zabalak ezin artu dabena, [...] atzetik mundua dingilizka daukana, luurra esku barruan eskutautean dabena. Baia, nok edo zek ekarri dau zeru alturik mundu onetara? Zek borrreru kruel gogor, eta erruki бага, asartu edo atrebidu Jaungoiko ain andi bat modu orretan humildu, azpiratu, zatitu, birrindu eta eriotza ain ikaragarriagaz iltera? Ai Ne. Kk., ementxe bai miraariz bete bear gareala; ementxe bai arritu, mututu eta gogor gogor izosturik geratu bear gareala. Gure pekatuak ekarri dabe zerutik lurrera, gure pekatuen katee eta sokak lotu eta estu dabe. *Spiritus oris nostri, etc.* Gure pekatuak zauritu, zatitu, eta birrindu dabe. *Vulneratus est propter iniquitates nostras, et attritus est propter scelera nostra.* Gure pekatuak ifini dabee kurutze orretan dakuzkun moduan zauri bat eginik, odolosturik, gizonen antzik bere bagarik eta ain ezain, ain itxusi, ze ezin ezagutu bere leike. O pekatuaren ikaragarrizko indarra! O gure zauri, gatx eta enfermedadeen usteltasun bildurgarria! Osatuko bada zeru-luurraren egillearen odolagaz egin bear da osasun-gei edo medizinea.

3. Baia, nondik nora uste al leian gizonak Jauna galdu gurako ebalatzen? Zelan asartu edo atrebidu zatekean luur uts puska batek itxaroten mundu guztiaren yaubea, ez bakarrik yatsiko zala zerutik beera bera bisitetara, baita bere beragan artuko zituzala eukazan gatx ikaragarriak, eta bera osatutarren iminiko zala kurutze orretan? Baia zeuk zeure kabubagako ontasunagaz irago dozuz bere itxaromen edo esperanza eta uste guztia. Baia, zer yoakon, Jauna, gizonaren zorionean ainbat ardura beragaitik artuteko? Etzan ain andi, ain altsu, ain yakitun, eta ain Jaungoiko izango mundu guztia galdu balitz, zein da bera barriztadu ezkeror? Bai, Jauna, bai Jauna: baia ainbeste errukitu zinean gu ain nekegarri ikusiagaz ze, ezin zure biotz samurrak sufridu al izan eban gu erremedio bagarik itxitea, ainbeste kostako baiakon bere. Baia Jesus lastana, etzeunkan au baxen beste modurik gu pekatupeetik aterateko? Bai, Kk., beukazan beste modu asko gu demo-

niñoaren menpeetik aterateko, baia nai izan eban igaro eriotza itzaltsua ezagutu gengian pekatuaren anditasuna eta ezaukera onegaz bildur izan gintezan pekatupeera biurtuten. Baia itsuturik pekataria bere guraari zitelakaz, eztau ezautu gura ze prezio emon bear izan zan bera pekatuperik aterateko, eta orregaitik biurtuten da Jesukristo-k urratu eutsazan kateakaz estutera. Itsumendi ikaragarria benetan! Zorakeria eskergea! Ilten dau J.K.°k pekatua bere eriotzeagaz eta biztuten dau gizonak bere borondateagaz. Kenduten deutso J.K.°k gizonen Demonioari ganean eukan nagusitasuna, botaten dau mundutik eta itxiten dau loturik ta esturik, eta emoitzen deutso gizonak Demonioari, J.K.°k kenduriko eskubidea, biurtuten dau leen eukan nagusitasunera, eta iminten dau azkaturik. Jaungoiko batek galduten dau bizitzea gizonari bizitzea emoitearren, eta gizonak galduten dau bizitzea, pekatuari bizitzea emoitearren. Jaungoiko batek egiten dau Demonioaren menpeko zan gizona bere Seme, eta gizona egiten da Jaungoikoaren semetik Demonioaren menpeko. Anditasun ikaragarria pekatuarena, bada Jaungoiko bat il bear izan zan bera goitu edo benziatuko, baia andiagoa da gizonen itsumendi eta gogortasuna; bada bere guraz biurtuten da Jaungoikoak eriotzeagaz benziaduko pekatuara. Aror neure Sermoe gei edo asuntua. J.K.°ren eriotzean ezagututen da pekatuaren anditasuna, lenengo puntua. J.K.°ren eriotzan ezagututen da pekatu biurtuten dan gizonaren zorakeria, bigarren puntua.

Lenengo zatia

4. Guztiok Adan-egan il egin ginean, beragan pekatu egin genduala, diño S. Paulo Apostoluak. Eztauke neurrik pekatu oneganik etorri yakuzan kalteak. Berak sarratu euskuzan zeruko ateak, aserratu eban Jaungoikoa gugaz, idigi eban guretzat Infernua, kondenadu ginduzan eriotzara, imini ginduzan Demonioaren menpean, eta ekarri euskuzan geugan daukaguzan negar, zispuru, eta aiariak. Ain erkin, ain kaden, ain argal gelditu zan gizona, ain izan zirean kruelak, ain gogorrek, pekatu onek egin zituzan zauriak ze, ez egoan eurak osatuteko osasun gei edo medizinarik. Eukan Demonioak bere azpian presondegi, edo kartzela ilun atsitu, ta itsaltsu baten, baita ain sendo gorderik, eta ain irrime loturik ze, ez egoan gizon eta Aingeruen artean andik atera al leian indarririk. Etorri zan Moises Lebitea legeagaz, baia ezin atera al izan eban egokera edo estadu onetarik, bada legea ona, santua ta Jaungoikoak emona izan



arren, ez eukan indarrrik gizona libretako, diño S. Paulo Apk.: «Etorri zan Aaron Sazerdote nagusia sakrifizioakaz, baia onek bere ezin osatu al izan zituzan gizonaren gatx eta zauriak; ze Apk. berak diño: ezin leitekean gauzea dala, auntzen, eta zezenen odolagaz pekatuak parkatutea. Baia, zer diñot, abere edo animalien odola? Arpelik botako zan munduaren asikeratik eta azkenegiño izan ta izango direanen odola, etzan asko izango gizonaren gatxa osatuteko. Arpelik batuko zirean odol onegaz Aingeru guztien santidade eta merezimenduak, ze ain zan andia gizonak pekatuaren bitartez artu eban zorra, ze guzti guztiok etzirean elduko bera pagetara. Bake andi baten geunkazan Demoniñoak bere agindupean, ez egoalako zeru luurreko kriaturatan indarrrik bere azpitik aterateko. A, gizon geixoa! Andia da itsasoa legez zure zori galdua! Nok osatuko zaituz? Eztago iñondi bere zure gatx onentzako erremediorik.

5. Atera gura eukean Jaungoikoak Demoniñoaren eskupeetik eta egin bere seme, baia onetarako kitu egin bear zan (eutsan) gizonak Jaunaren justiziari (eutsan) zorra, eta ez eukan zegaz. Ebilen Jaungoikoa begira ea agiri bazan bere artean gizonagaz bitarteko izan al leitekeanik, baia ez egoan, eta orregaitik guztia egoan estutu eta larriturik. Ikusirik Jaungoiko andiak ez egoala iñondik modurik bere antzera eta irudira eginiko gizona bere zori gogorretik aterateko, abietan da asmetan ea zelan biurtu al leion gizonari galdu eban zoriona, ta alan diño: Zer egin nei ain laztan dodan gizona erremedietako? Legeak eztauko indarrrik onetarako, Sakrifizioak eztira asko, oraingiño biraldu dodazan Patriarka, Profeta eta osterantzako nire serbitzalleak ezin urratu al izan dituez bere kateak, ezin goia-artu izan deutse Demoniñoari, ezin kendu al izan dabe pekatua. Zer egingo dot bada gizona galdu eztedin? Zer deritxazue egingo dabela Jaungoikoak? Ze asmu artuko dau pekatua munduti kenduteko? Nok sinistu leike? Nori buruak bere emon leio? *Mittam filium meum dilectum*, biralduko dot, diño bere artean, neure seme laztana, Jaungoiko andia. Zetarako bialdu gura dozu zeru altutik lurrera zeure Seme maitea zugaz izaite bat eta Jaungoikotasun bat daukana? Da, bada, kastigu ikaragarritzoren bat egiteko gizonakaz, zugaz egin daudeen esker gaistoak gaitik? Edo uriolez lurra estalduteko Noe-ren egunetan legez? Edo zeruko suagaz erretako mundua zure kontra egin dituezan pekatuak-gaitik antxina Sodoma ta Gomorra legez? Ez, Kris.k, ez, eztau onetara biralduten Jaungoikoak bere Semea ezpada mundua salbetako.

6. Eta, zelan bialduten dau ain maite daben Seme au? Ez Jaungoiko bateri datorkion anditasunagaz, ez zeruko Errege bateri datorkion gloria-gaz, biralduten dau, diño S. Paulo Ap.k, pekatuzko aragiz yanzirik, gure

pekatuak bere ganean dituzala eta eurak gaitik menpeko, edo esklabo eta madarikatu eginik yoten dau, azotetan dau, zaurituten dau, birrinduten dau, ilten dau kurutze orretan dakusuen moduan. Aror pekatari itsua, zer bear izan dan zure pekatua mundutik kenduteko; aror zelango osasungei, edo medizinea bear izan dan zure zauri eta gatxak osatuteko; aror zelango prezioa bear izan dan zure zorrak kitu ta pagetako. Erdue, erdue, Adanen Semeak, kurutze onen oñetara, baita ikusi egizue zer egin dozuen zeuen pekatuakaz. Gatzexko uriolez eztaldu zenduan mundua, eta uriola oneek kenduko bazirean, Jaungoiko bat ondatu bear izan da neke, pena eta tormentuzko uriola garratzetan, zeintzuk sartu yakozan arimagiño. Zuek arrotu eta puzturik Jaungoikoaren kontra, eta arrokeria au kenduko bazan, Jaungoikoa bera humildu bear izan da eriotzagiño, eta kurutzeko eriotzagiño. Egin zinduezan Jaungoikoak bere seme, eta zuek iges eginik Jaungoikoaganik, egin ziñeen Demoniñoaren agindupeko; urtengo bazenduen bada, ugazaba gogor onen azpitik, eta biurtuko baziñeen Jaungoiazen seme izaitera, Jaungoikoa egin bear izan da gizonaren seme, eta igon bear izan dau kurutze orretara, ortxe urratu, eta yosteko Demoniñoak zuen kontra eukan eskriturea. Begira kurutze orretara, ortxe ortxe ezagutuko dozue nogiño elduten dan pekatuaren anditasuna.

7. Orretan bere, Ne.K.k., ezta ezetan bere obeto ezagututen pekatuaren ikaragarritzko gogortasuna Jaungoiko baten eriotzan baxen. Andiak dira pekatuak munduari ekarri deutzan kalteak. Urioleak luur guztia estaldu badabe, eta zortzi gizonez besteak ito badira, yausi bada zerutik sua eta erre badituz uri osoak, gerreak erri, Probinzia eta Erreinu zabalak ermu ixil biurtu badituz neke lan, atsakabe, naibage, sotin, zizpuru, premiña, ta larritasunez inguraturik badagoz, pekatuak ekarri dituz gatx guzti oneek. Baia, au guzti au zer da Jaungoiko baten eriotzearen aldean? Ezta au pekatuak eukelako, ez pekataria zalako, ezipabere pekatu antzeko aragiz yanzirik egoalako. Auxe bakarrik asko izan zan bere Aita-ren aserrakuntza guztia bere ganean yausteko, eta bere areriorik gogorre-na bailitzana legez kurutze orretan dakutsuen moduan ifinteko. Begira, gizona, zelangoak direan pekatuak egin deutzan zauriak, ze osatu bazirean J.K°. zauritu bear izan da, diño S. Bernardo-k. Goia-artu eutsan J.K°.k pekatuari; baia pekatuak berak bere goia-artu eutsan zelan-alan J.K°.ri. Il eban J.K°.k pekatua; baia pekatuak berak bere il eban Jaungoikoa. Arerio eskergea Jaungoikoa pekatuarentzat, baia arerio eskergea pekatua bera Jaungoikoarentzat. Arerio bi onen artean yazo zan arkal ikusi ezin direan gizon biren artean yazo leitekeana. Urteiten daudee peleetan, eta biak geratuten dira ilik, bata besteari emon deutzan golpe



ta zauriakaz. Goiartute karua benetan, bada irabazteko bota bear dau zanetako odol guztia, eta galdu bizitzea eriotzarik lotsagarrienagaz.

8. Zer izango zan gugaz, Js laztana zeu gure bitarteko zure Aitagaz izan ezik? Guztiok uts egin genduan ardi galdu, deslai dabiltezanak legez, guztiok sartu ginean gure bide okerretatik. Galdu gintzan guztiok, eta ez egoan iñondik bere gu aurkitu giñaikezanik. Zuk, o Arzain ardura-tsua, urten zenduan Aitagani gure billa, eta aurkitu ginduzuzan; baia zelangoak gengoan? Sarna atsitu bategaz usteldurik, zauri ikaragarritzkoz beterik, zorren pisu andiagaz zapaldurik eta infernuko otso amurrutuaren erpe ta agin artean. Guztiz errukiturik gu ain negargarri ikusiagaz, artu ginduzuzan zure lepoan, eta orra non erantzi geuntzuzan gere sarna, geure eskabi, eta geure gatx guztiak. Bai, Jauna, gu osatutarren zuga artu duzuz gure gatx, eta gure ala ta miñak. Ain modutan bete dogu gure sarna atsitu, eta eskabi ustelez ze, eztau agiri arpegia bere, eta alan ezin ezagutu leike. Baia, Js. laztana, zer dira zeure esku, oiñ bular eta gorputz guztian dakusdazan zauri orreek? Zer da zeure buruan dakusdan koroe burlazko ori? Etzara zeu, Jauna, Aita betikoaren Seme maite, zeinegan daukan iminirik atsegin guztia? Zelan bada yausi da bere aserre guztia zure ganean? Etzara zeu arako Jaun andi noen aurrean bildurren bildurrez ikara dagozan zeru-lurreko guztiak eta nor adoretan daben ainbat milla millinoe Aingeruk belauniko yarri eta auspaz lurregiño makurturik? Nondik nora bada dagoz madarikatu eginik urkamendi orretan eskegirik, narrugorrian billosik guztien burla ta barregarri? Etzara zeu arako Jaungoiko benetako, nogan bizi garean, gabiltzan, eta izaitea daukagun? Nondik nora bada zagoz arnasa bagarik, odol bagarik, gizonaren antzik bere bagarik, guztiori mallatu, puskatu, eta birrindurik? Madarikatua izan deila nire pekatua, ze bera da zure borregu kruela. Alantxe bear geunke gere miñ eta egikerakaz: baia gagoz emetik, bada yakin arren zer kosta zan gu pekatupetik ateratea, lotsabagatasun andienagaz biurtuten gara pekatupeera; auxa da nire

Bigarren zatia

9. J.K°.k atera egin ginduzan bere odolagaz Demoniñoaren agindupeetik, baita igaro egin ginduzan bere Erreinura, diño S. Paulo Apk. Onetarako igon eban kurutze orretara, itxi eban yosirik kurutzean, eta kendurik geure arerioak eukin guztia, irabazi eban eurak ganik goitute edo bito-

ria, eta triunfo miragarri bat, dino Ap.k berak. Kurutze orretan il egin eban eriotzea, erbestetu ta kanpora bota egin eban pekatua, zapaldu eban Infernua, idigi Zerua, eta leen Jaungoikoaren arerio gineanak, ez bakarrik egin ginduzan bere adiskide, baita bere seme, eta bere ondasun guztien yaubegei edo herederu. Orra ze mesede arrigarriak egin euskuzan J.K°.k bere eriotzeagaz. Baia, o gizonaren itsumendi negargarria! O pekatariaren astuntasun bildurgarria! Ez bakarrik ez deusaz emon gura Jaunari eskerak egin deusazan on pare bako oneek gaitik, ez bakarrik ez dituz gomuta, ezpabere ilundu gura dau J.K°.ren goi-artute edo bitoria andia, barriro biztuten dituzala Js. maiteak il eta zapaldu egin zituzan arerioak.

10. Bai pekatari sensun bagea, auxa da pekatu bakotzean egiten dozu-na: J.K°.k galduten dau bizitzea pekatua iltarren, eta zuk biztuten dozu pekatua zure arimearen eriotzeagaz. J.K°.k kenduten deutso Demoniñoari zure ganean eukan nagusitasuna eta eskuikunea, eta egiten zara barriro bere aginduko ta bere eskupeko. J.K°.k kenduten deutso Demoniñoari zure kontra eukan eskritura, borretan dau, urratuten dau; eta yosten dau kurutze orretan, eta zuk egiten dozu eskritura barria Demoniñoagaz, zeinen bitartez ezagututen dozu zeure ugazaba ta nagusitzat. J.K°.k botetan dau bere sanetako odol guztia, egiten dau osasungei, edo medizina zerukoa, garbituten dituz beragaz zure loikeria atsituak, osatuten dituz zure zauri guztiak; eta kenduten deusaz gatx ta geixo guztiak, eta zuk kenduten dozu zugaanik Jaungoikoaren odolezko osasungei au; ezarten dozu luurrera, eta zapalduten dozu, loituten dozu arimea; idigiten dozuz leengo zauriak baxen andiangoak, eta betetan zara leengo gatxa baxen andiangoagaz. J.K°.k madarikatu eginik kurutze orretan galduten dau bere bizitzea zu zorioneko egitarren, eta zuk naiago dozu madarikatu izan bedeinkatu baño. J.K°.k emoten dau daukan guztia, ezteutso parkatuten bere odol, eta bere bizitzeari zure arimea erostarren, eta zuk guraari zitel bategaitik ondasun apur bategaitik zabalduten deusazu Demoniñoari Jaungoiko baten odola, eta eriotzea balio daben arima ori.

11. Js. ona, zeuk esan zenduan kurutze orretara igon zengiane kanpora botako zenduala Demoniñoa; eta gauza guztiak eroango zenduzala zugana; baia pekatari itsu eta astunak guzturadu gura zaituz, ez leuke gura bete edo egin dedin zure esana, bada bere biotzean emoten deutso bizilekua Demoniñoari eztagian euki zer urten kanpora. Eztau gura kurutze orretan zugana eroan daizuzan gauza guztiak, esan zenduana legez, bada ikusi ez dedin egia au, ezteutsu emon gura bere biotza, galazo gura dituz zure alegin guztiak; guraago deutso Demoniñoari emon zeuri baño; guraago dau bere arerioaren sar leku eginik euki, zure baño; geiagotan



dauko guraari apur zitel bat zeuk zeure eriotzeagaz irabazi zeuntsan betiko gloria baño. Zuk esan zenduan Moises-ek ermuhan sugea eregi ebana legez, alantxe konbeni zala zeu kurutze altu orretan egotea, zeu ikusten zinduzanik galdu ez dedin, eta bai guztiak euki egien betiko bizitzea; baia pekatari gogorrek ezteutsu zeuri begiratu bere egin gura, bere begiak zarratuten dituz zeu ez ikustarren. Naiago dau Infernuko suge madarika-tuak pekatuaren beneno gogorragaz il dagian, kurutze orretara zeugana elduagaz betiko bizitzea euki baño. Zorakeria sinis-ezgarria benetan gizonarena! Astutasun bildurgarria!

12. Kristiñaua, non da zure fedea? Non da zure arrazoia? Non da gitxienez zure sensuna? Jaungoiko bat daukazu begien aurrean kurutze orretan yosirik, azotadurik, zauriturik, odolozturik eta ilik; ta, orregaitik bere geiagotan eukiko dozu Demonioak iskitzen deitsun guraari apur bat, Jaun orrek irabazi deitsuzan zeruko ondasun ugariak baxen? Benetan diñot eztaukazu federik, ez errazoerik, ez sensunik. Ba'kizu zer deritxadan yazoten dala Jaun orregaz eta zugaz pekatu egiten dozun bako-txean? Ara obeto ezagutu dagizun zure pekatuaren anditasun ikaragarria. Deritxat, bada, zakusdazala Jaun orren eta Demonioaren artean. Biok egiten daudee alegina zu erosteko. Alde batetik Jaun orrek bere besoak zabalik dei egiten deitsu kurutze orretarik, eta beragana eroateko ifinten deitsu begien aurrean zer egin daben zugaitik. Begira kurutze onetara, dirautsu, eta ikusiko dozu nogiño eldu dan nire zukanako amodio eta ongureak. Ain modutan galdu zinean ze, ez egoan nok atera zengizan estadurik negargarrienetik neu zure erruki izan ezpanintz. Zu pekatupee-rik aterateko eneban biraldur Aingeruren bat, ez serafinen bat, ez Kerubi-nen bat; neu izanik guztien Jaun, Jaungoiko eta Yaube yatsi nintzan zeru-tik luurrera, eta egin neban oraindio gurasorik maiteenak egin eztabena semegaitik. Zugaitik yaio nintzan abel-etsetxu pobre baten, zugaitik bizi izan naz ogeta amairu urtean neke pena, gose egarri, otz, bero, izerdi ta pobreza artean. Zugaitik artu ditudaz bost milla azote ta geiago; zugaitik zulatu deust neure burua arantzazko koroe ikaragarri batek; zugaitik gera-tu neure gorputza zauri andi bat eginik burutik beatzera, zugaitik igon neban kurutze gogor lotsaari ta iltalsu batera; zugaitik emon neban neure zanetako odol guztia, eta zugaitik galdu neban bizitzea eriotzarik ikaragarrienagaz. Nai badituzuz egia onen testiguak irakorri egizuz begiak kurutze onetara, eta ikusiko dituzuz. Testigu dira nire gorputz au estaldu-ten dituezan zauriak. Testigu nire buruan dakutsun koroe au; testigu yosi-rik nauken untze oneek; testigu nire gorputz zatitu, banatu, odoloztu eta birrindu au; eta testigu kurutze au non nagoan esegi eta ilik, lapur gesto

eta madarikatu bat legez. Zer geiago egin neunkean zugaitik eta eneban egin? Eta, au guzti au ezta asko zure biotz ori irabazteko? Ezta asko izan-go zu esker oneko egiteko? Zu nigana ekarteko? Bada ezpazara nigana etorri gura esker oneko, erdu gitxienez beti betiko zorioneko izatarren. Neure eriotzeagaz idigi deitsudaz zuk zure pekatuagaz zarratu zenduzan zeruko ateak, aintxe daukadaz zuretzat gorderik, ez begiak ikusi, ez bela-riak enzun, ez gogotara eldu al leitekezan neurri bagako pozak, azken bagako atseginak, eta kabu bagako gloria. Erdu bada nigana Jaungoikoa-ren seme izaitera, zeruko Prinzipe, eta ondasunen yaube.

13. Beste aldetik deiegiten deitsu Demonioak, egiten dituz aleginak beragana eroateko. Ezin esan leikezu mesederik egin deitsula, bada beti egin deitsu al dagian gatx guztia; baia eskintzen deitsuz beragana bazo-az guraari ziteltxu bat, ondasun bertatiko bat, diru apur bat, eta gerizea baxen ez tirean gustu amesak; eriotza zori galduko bat, infernu ikaragarri bat, su bildurgarri beti betiko erretan egongo dan bat, tormentu, ala, neke kabubaga, azken бага iraungo daben batzuk, eta atsakabe, naibage, deses-perazino eta gatx guztiz beteriko eternidade madarikatu bat. Orain bada, noren aleginak izango dira altsu edo poderosoagoak zure biotza irabazte-ko ainbeste mesede egin deitsuzan Jaungoiko orrenak, edo al daian gatx guztia egin deitsun Demonioarenak? Noen deiak enzun gurago dozuz zeure egille, zeure Jaungoiko, zeure ongille, eta zeure erredentzaile orre-nak, ala zeure areriorik gogor eta kruelenak? Nor eukiko dozu geiagotan J.K.º ala Demonioa? Nogana yoango zara? Nok esango ez leuke Jaun onen lenengo deira etorriko zareala itxirik zeure arerioa, bere asmu guz-tiakaz. Baia o pekatari itsuaren zoramendia! Botetan dozu zeugandik Jau-naren legea; eranzuten deitsazu Jaunari: eztot zure serbitzaille izan gura. Lotsabagatasun ikaragarriagaz emoiten deitsazu atzea Jaun orreri, eta zoaz arin aringa zeure burua Demonioaren eskuetan ifintera, ezagututen dozu bera zure Ugazabatatzat, eta egiten zara bere aginduko. Ukatu zinaike auxa egiten dozula pekatu bakotxean? Ori ezin ziñai, ze Jaungoikoak berak diño ze, pekatariak pekatu egiten dabenean, atsea emoten deitsala, beraganik iñes egiteko. J.K.º.k berak diño ze, pekatu egiten dabena peka-tu eta Demonioaren eskupeko egiten dala.

14. Auxa da pekatari zoro, eta sensun bakoa Jaun oneri zor deitsa-zuna egin deitsuzan mesedeak gaitik, euki deitsun amodioagaitik, eta zugaz artu daben ardurea gaitik? Ezta zure Aita maite ezerbere ezetatik egin zenduzana, zaindu ta yagon zaituzana?. Gomuta egizuz arako antxi-nako egunak, eta ikusiko dozu zelau aurkitu zenduzan pekatuaren basa-mortu itsalsu, eta bildurgarrian, eriotzara kondenadurik, euki bagarik



nok atera zengizan, abere edo animalia uzuen atzamarretatik. Berak euki eban zure erruki, eta eginik zure arzain artu zenduzan lepoan, eta eroan zenduzan bere Aitaren etsera. Zuri mesede au egitarren artu dituz bere ganean zure gatz guztiak, eta eurak gaitik geratu da kurutze orretan daku-tsun moduan eta alanbere ezta au guztiau asko izan zu esker oneko egiteko zeure ongilleaganako, bada itxi zenduan egin zinduzan Jaungoikoa. Aitzu egin zenduan zure Jaun egillea yausi egin zinean Demonioñoagan. Euki zinaike gitxiagotan Jaungoiko baten eriotzea; egin zinaio desprezio andiagorik zeure Jaungoiko eta ongilleari? Ai N^e.K.^a, zure esker deunga onexek emoitzen deutsa Jaun orreri nekerik andiena. Eztabe ainbeste nekatuten zauri orreek, ultze orreek, koroe orrek, eta kurutze orrek, zein da zure itsumendi, eta beraganako gogortasunak; onexek deadar erazoten deutso kurutze orretarik. Nos artean izango zara nire arerio? Nos artean ibiliko zara niganik igesi? Nos artean nai dozu itxaron daizudan?. Nox artean euki gura nozu kurutze onetan? Ezta nox edo nox denporea nigan bihurtuteko, eta neure pasioño, odol eta eriotzeagaz erosi neban arima ori bihurtuteko? Erdu, erdu zeure Aitagana seme galdua, biurtu egin zaitez Ama batek baxen laztanago zaituzan Jaungoikoagana, eta niganik geiago iñes egin ze dagizun, sartu nagizu zeure biotzean. Kristiñaua, etzaitez gor izan Jaun onen deietara, bada zure biotzean sartu gura badau, ezta zure bear dalako, ezpada zu zeruko ondasunez betetako; emon egiozu atsegin au zeure biotzean, eta egin zadiz Jaunaren gorputzaren yaube. Erdue bada, erdue pekatari guztiok, igon egizue Jaunaren mendira ikustera ze ikaragarria dan pekatuaren gogortasuna, eta zer bear izan dan bere gatzak mundutik kenduteko; baia eldu gaitzean arako kurutzearen oñean dagoan Jaungoikoaren Amaren bitartez.

15. O Ama, neke, pena, atsakaba, eta naibagez bete, ba'kigu geuk zauritu doguna zure biotza, geuk geure pekatuakaz bizitzea kendurik zeure errailetako Semeari, eta eztoguna orregaitik merezi zeure seme izaita; baia dakigu beste aldetik zeu emon deuskuna gure Amatzat; onexek emoten deusku zeugan konfianza andi bat, bada pekatari andiak izan bagara bere, daukagu zeure Semeari biotza emoteko guraari andi bat, baia leenago nai geunke ondo garbitu geure pekatuak, damu benetako bategaz, izan dedin obia edo sepultura barri bat non atsegin artu dagian zure Semearen gorputz orrek. Alantxe izango da gure bitarteko bazara. Betor gure barrura, bada, Jaungoiko eta gizon egiazko ori, berorregaz etorri dakigun on guztia. Jaunaren serbitzalleak igon egizue kurutzeko arbola orretara, eta eretzi egizue or dagoan frutu bedeinkatu ori, zeinek kendu

dauen mundutik, Adan antxinakoak arbola bateko frutuagaz ekarri eus-kuzan gatzak.

Errotulua

Kendu egizue kurutze orren goian dagoan ol ori non dagoan eskribidurik kurutze orretan ilik dagoan ori dala Judugen Errege. Eroan egiozue bere amari. Ezteutso asko eretxi zeure Semeari, kurutzetik esanari euki gagizuzala zure semetzat, ta guri artu zaiguzala geure amatzat, nai bere dau izan zaitezan munduko Erregina, zaindu gaizuzan gere arerio gogorrek ganik. Artu egizu, Anrea, Zeruetao Erregeak emoten deutsun ofizioa, ta ezagutu gagizuz zeure serbitzalletzat; bada izanik gure agintari eta gordetzalle, eztaukagu iñoen bildurrik.

Aranzazko Koroia

16. Kendu egizue, gizon errukiorrak, Jaunaren burutik ikaragarritzko koroe ori, eta erakutsi egiguzue guztioi, ezagutu dagigun gure pekatuen anditasuna. Orra ze frutu emon daben, pekataria zure biotzeko mastuiak. Jaun orrek landaratu, atxurtu, garbitu, eta yagon eban ardura txitozko bategaz, eta uste ebanean santidade ta birtute mats gozoak emongo zitu-zala, etzenduan ekarri sasi eta aranzea baño, zeinekaz zulatu dozun Jgko orren burua. Eroan egiozu Erregiña penaz beteriko orreri, ezagutu dagian koroe orretan, ze andiak direan gure gatzak. Ar-or, geure Ama ona, ze esker moduak emon deusagun zeure semeari, egin deuskuzan mesedeak gaitik; baia ezagututen dogu, geure Ama ona, geure itsumendia, eta atera gura doguz sustraitik pekatuaren arantza guztiak euren orde emon dagian gure biotzeko lurak Santidadeko frutu gozoa.

Ulzeak

Urten begi Jaun altsu edo poderoso orren eskoia yosirik euki dauen untze gogor ori, yatzirik gudanantz artu dagiguzan bertan dagoan bendiziño ugariak, merezidu daigun alde orretatik egotea ardi bedeinkatuak lege mundu juzgetara datorrenean, enzun daigun bere bendiziño gozoa. Urten begi ezkerretiko orrek bere, artu daiguzan esku orretan daukazan zeruko ondasun ugariak, eurakaz aberazturik, pagadu daiguzan pekatuagaz artu doguzan zorrek, kendurik geure ganetik euren pisua, eregi al daigun burua, bere azpitik ifinirik Jaun orrek ezkerre, emon daigun beti laz-tana. Atera egizue ainbeste pausu eder egin dituezan oñ orreek yosirik daukazan untze gogor ori. Untze gogor ta indartsua benetan, bada eldu da yosirik eukitera, arako mundu guztia aulkitzat daukezan oñak, arako



Demoniño, eriotza ta infernua zapaldu dituezanak. Eroan egizuz bere amagana. Orra, Anrea, zelango burdinagaz yosi dauen gure pekatuak zure Semea. Guk egin doguz il-ultze orreek, geuk zulatu doguz eurokaz zure Semearen esku ta oñak, eta geuk eurakaz yosi dogu kurutze baten. Ondo ezaguturik daukagu egia au, eta alan gura geunke untze orreek yosi daiezan gure eskuak, gauza deungara zabaldu eztaiguzan geure oñak, bide okerretatik ibili ez gaitezaz, eta geure aragiak, Jaunaren bildur santu bat euki daigun.

Gorputza erestea

17. Betor kurutze orretarik gugana orrako Adan barri ori, kendu dagian guganik Adan zarraren irudia, ta barriztadu dagian paradisuan galdu zana. Betor betor gorputz birrindu ori, ze ain zatitu, ain ezainik badago bere; gizon antzik ezpadauko bere, ortxe dago Jgkotasuna bere ondasun guztiakaz gu aberaztuteko. Eroan egioezu bere amari. *Fera pessima devoravit (filium)*. Ai ene penea! diño zispuru artean Erregiña triste onek; pekatuaren abere uzuak il dau nire semea, berak lotu dau soka eta katea sendoakaz; berak zatitu, zauritu, eta odol ustu dau. Baia, ene Semea! Ze gatx egin deutsezu gizonai modu orretan imini zengiezan? Ostu dozuz ondasunen batzuk, il dozuz gizonen batzuk, edo egin dozuz beste kalte andiren batzuk? Ez, ene Semea, ezin daitekean gauzea da, zuk onelango gauzarik egitea. Zegaiti zakusdaz, bada, gizonik gestoena baño gogorrago kastigadurik? Badakit, Seme laztana, gizonak ganako amodioak egin dauela au guztiau zukan, eta guztiau bear izan dala urtengo beeban pekatupeek. Baia, ai zelango penazko itxaso mingotzean ondatu dozu zure ama au! Ai ene Semea!

Yenteari erakustea

Kendu egiozue aurretik Birjina orreri bere Semearen gorputza eta erakutsi egiozue gizonari. Ara pekataria sensun bagea, zer egin dozun Jgko bategaz. Zu, zu izan zara modu orretan ifini dozun borregu kruela. Zuk zatitu deutzazuz bere aragiak; zuk zulatu deutzazuz esku eta oñak; zuk yosi dozu kurutzean; zuk bota eraso deutzazu bere zanetako odol guztia. Eta oraindino bere beste ainbeste egiteko gogoaz zagoz? Iratzartu zaitez nos edo nos pekatuaren lo zorrotik, eta ikusi egizu noraiño eldu dan zure gogortasuna, ta arritu ta bildurturik ezaukera onegaz esan egiozu zeure biotz guztitik. Ne.J.K°. Jauna.

3. ATALA



1. AUTSEN EGUNERAKO SERMOIA

(B, 161-166. or.)

Memento homo quia pulvis es
et in pulverem reverteris.
Gen. cap. 3.v.19.

Eginik Jaungoikoak gure lelengo gurasoa bere antz edo irudira, imini eban paradisuko gozatasun, eta atsegin artean mundu guztiaren agintari. Zorionekoa izango zan Adan ezagutu gura izan baleu bere Egille andia- ren eskuetatik arturiko mesede neurribako au, bada elduko zan nosbait betiko gloria artutera. Baia etzituzan ezagutu, eta arroturik, suge madari- katuaren berba labanakaz artu zituzan Jaungoikoa beste izaiteko asmu zoroak. Yan egin eban Jaunak eragotziriko sagar garratza, eta enzun eban pekatu onen kastigu Jaungoikoaren aotik bere eriotzako sententzia. Luu- rra zara, dirautsa bere ongilleak, eta luur biurtuko zara. *Pulvis es et in pulve- rem reverteris*. Sententzia itsaltsua benetan, baia baita miserikordia ta onta- sunez betea, bada ekarri beeban lelengo gizonak bere ganera bere sober- biagaitik sententzia auxa berau da arrotasun onen osasungei edo medizi- nari alsu eta poderosoena. Pekatu egin beeban gure lelengo buruak yagi bazan Jaunaren kontra bere burua ez ezauialako egin beban zorakeria au; yakin egian bada nondik etorren, eta zetan geratuko zan adi-erazo eutsan gure Yaubeak sententzia. Auxa berau gugaz egin gura dau Elexa santeak geure buruan autsa iminten deuskunean urtean bein. Gura dau ezagutu daigun gure ezer-eza, humildu gaitezan ezaukera onegaz. Nai dau yakin daigun zetan geratuko garean penitentzia egitera biztu gaitezan, eta orre- gaitik dirausku: autsa zara, eta auts biurtuko zara. Esango baleuskuna legez. Zareana zareala nai Markes, nai Konde, nai Duke, nai Errege etza- ra beste gauza bat auts puska bat baxen. Orra zetan geratuko direan diruak, ondasunak, edertasuna, indarrak, eta munduan direan beste gauza guztiak. Etzaitez bada arrotu euren yaube izanagaitik; Aror zetara etorri dan gura dituzan guraari guztiak emoiten deutzazuzan gorputz ori ifini egizu bada arimearen agindura penitenziaren bitartekoa. Auxa da Elexa santeak guganik atera gura daben frutua autsa buruan iminiagaz. Auxa berau da nik adierazo nai neukezuna gox onetan puntu bitan, zeintzuk emongo dabeen sermoiaren gei edo asuntua. Artu dogun autsak adiera- zoten dau mundu onetan euki al daigun guztia ezala irudi igarokor bat

baxen, eta orregaitik ez gara arrotu bear eurak eukiagaitik, lenengo pun- tua. Artu doguzan autsak dirausku gure gorputza auts biurtuko dana, eta orregaitik penitenziaplean euki bear dogu, bigarren puntua. Berba baten, gaurko autsak dirausku zer dan mundua, eta zer garean gu. Yakituria andia bene benetan, eta guztiz bearra, bada baleuke gizonak ez litzatekez ainbeste adikatuko ondasun galdukorren billa, ez litzatekez aurkituko ain- bat gizon munduko ondasunak gaitik amurruturik.

Lelengo zatia

Geriza utsa da munduan dagoan guztia diño Salomon-ek. Alperrik ibiliko da gizona bere guraariak emen anditzat daukaguzan gauza guztia- kaz beteetan; bada ezta iños bere elduko kontentu egotera. Salomon-ek berak iñok baño obato ezagutu eban egia au. Esan eban bere gogoan emetik aurrera batuko dodaz gizon batek euki al leizan gozatasunak ta biziko nas olgura artean. Guraari onegaz urteiteko ustiagaz egin zituzan yauregi, edo palazio zoragarriak, imini zituzan maaaztiak, egin zituzan ortuak, bete zituzan fruta genero guztiakaz, batzandu eban guztiz ugari urrea, zirarra, eta arri baliotsuak, eukazan nai zituzan otsein eta kriaduak, ez eukan neurririk bere ondasunak, bada beretzat zan probinzia, eta erre- nu areetan bazan gauza onik. Etxakazan falta ardao gozorik ez yanari ede- rrik, ez kantore enzungarririk. Azkenez guztia beingoan esaterren, ez eutsen ukatu bere begi eta biotzari nai al leikeen gauzarik. Ikusi ebanean bere burua ainbat gozatasunez inguraturik uste izan eban eldu zala gizon batek euki al leizan zorionik andienara, eta bera zala munduan aurkitu zan, edo aurkituko gizonik suertetsuena. Baia imini zituzanean bere begiak bere azkenengo egunean, eta ikusi ebanean zetan geratuko zirean ainbeste neke eta arduraz beteriko ondasun oneek bertatik ezagutu eban ez zireala axe puska bat baño eta alan deadar egin eban; *Vanitas vanitatum et omnia vanitas*. Alperrik adikatu nas, alperrik nekatu nas ondasun eta olgura onen atsean, ze eztira ezer, guztia da utsa.

Eta orretan bere Kristiñauak, eztago munduan eriotzea baxen juez artezagorik. Berak dirausku mundu onetako anditasun eta nagitasuna ezta la satz puska bat baxen, ondasunak auts zati bat, gorputzeko ederta- suna guzturtia, honra eta leku altuak axea, eta munduko gizonak anditzat daukeen guztia ezer bere ez. Mundu onetan gagozan artean uste dogu gizon batzuk zorionekoak direala eta beste batzuk zori galdukoak dakus-



kuzalako lenengoak yauregi edo palazio zoragarrietan, bigarrenak barriz burua non sartu eztaukeela; areek dagoz yanari gozoz aserik, oneek atetik ate eskean ogi kopau bat zer yan baleukeela; batzuk dagoz soñeko zoragarri apaindurik, eta beste batzu aragiak agirian: batzuk ondasunez yosirik, otseinez inguraturik olgura eta gozotasun artean, eta beste batzuk pobrerik bakarrik, neke lan eta naibagepean makurturik. Baia ez egizue sinistu eurenak dituezala diru, ondasun, yauregi eta yanzi eder orreek, iñoenak dira, prestaduak dira (eta ondasun, yauregi, eta yanzi eder areek besteganik artuta daukez), eta baderitxazu au egia eztala yarraitu egiezu euren etsera zein dan obia edo lurpea, eta antxe ezagutuko dozu zer direan. Aintxe ikusiko dozuez guztiak nastaurik aberatzak pbreakaz, andiak txikiakaz, agintariak eskekoakaz, ugazabak otseinakaz, yauregi apainduetan bizi zireanak txableetan etxuten zireanakaz. Eztozue or ezagutuko zein dan koroe urregorritzkoagaz egon oi zan burua, eta zein estalgi zaarragaz, nor dan errege eta nor menpeko, ez nor gizon arro erropa arrigarritzkoz yanzia, ez nor alsi osorik ez eukana, ez zein dan prinziipe ez zein dan atxurlari: guztiak dagoz bardindurik, guztiak nastaurik, kalaberak kalaberakaz, azurrak azurkakaz, autsa autsagaz. Non dira orain arako olgura atsegin, ondasun eta arrotasun artean bizi zirean Errege, Duke, Konde, eta Jaun andiak? Il zirean, eta yatzi zirean luurpera, obi batera sepultura batera. *Distenti sunt, et ad inferos descenderunt.*

Baia ez yoan ain urrin, begiratu egizu zer yazo dan zeuen egunetako ezagun, adiskide, aide eta gurasoakaz, eta ezagutuko dozue dirautsuedan egia au. Erdue bada eta ikusi egizue. *Veni et vide.* Atxurru egizue sepultura ori. Nor da agiri dan ori? Ori da arako Jaun andi aberatsa. Eukazan ondasun andiak, hazienda zabalak, eta diru ugariak. Eukazan yauregi ederrak, gela apainduak, yanzi zoragarriak, eta nai zituzan gauza guztiak. Bere agindura eukan erri guztia, bere esana egin bear zan alde guztietan, bere berbeak bildurrez betetan zituzan guztiak, eta ez egoan bere borondatea baño beste legerik. Aror bada zelan dagoan orain, ze bakar, ze pobre, ze billoz. Non dituz arako etse ederrak, non gela apainduak, non diru andiak, non bere arrotasun andigura eta agintasuna? Galdu dau guztia. Etzirean bereak, prestatuak emon eutseezan, etorri zan eriotzea, eta geratu zan ain-bagarik. *Veni et vide.* Erdue gizon gazte sendo, indartsu eta buru eretxia, idigi egizu sepultura ori. Nor dakutsu or? Ori da zure arako lagun maitea. Ai ze mutila zan bere denporan, ze sendoa, ze galanta, ez egoan erri guztian bera langorik, ez egoan nok eskurik ezarri eion; ze gorputz ederra, ze konbersasiño gozoa, ze lagun ona, ze adiskide benetakoa, ez eukan bere gauzarik; berak berba egiten ebanean guztiak eukazan aoa

zabalik. Erdue bada, eta ikusi egizu zelan dagoan arako gorputz sendoa, ezta azur pillo bat baxen. Begiratu zaitez, begiratu zaitez espillu orretan. Olanxe aurkituko zara denpora gitxi barru. *Veni et vide.* Erdue neskatilla zoroa, idigi egizu obia edo sepultura ori. Nor da or dakutsun ori? Da zure lagun laztan bat. O ze neskatxia zan, ze arpegi ederra eukan, ze azal zuria, ze gorputz zoragarria. Erromeriara yoianean mutil guztiak egozan bere begira zoraturik ebiltzan bere atsean, bere ullea bakarrik zan asko edozein edertuteko. Erdue bada, eta ikusi egizu, zetan geratu direan miraaritzko gauza orreek guztiok (guzti orrek). Arako arpegi miraaritzkoa dago kalaberak eginik, azal zuria baltziturik, gorputza usteldurik, eta arako ulle non eroian bere ardurea eta zein apainduten eban sereni eta lazuakaz, ezta agiri. Galdu zirean erromeriak, galdu zirean yolasak, galdu zirean dantzak, eta galdu zirean buru atan erabiltzan axezko gogo arroak. Erdue oraindion urrago, eta ikusi egizuz zuri izaitea emon eutsuezanak. Atxurru egizu zure aasaben obia edo sepultura ori. Orrako azur pillo ori da zure aita, ar orreek zure ama eta usteltasun ezain, eta atsitu ori zure aistak. *Putredini dixi pater meus es tu, mater mea et soror mea vermibus.* Orra zetan geratu direan, eta geratuko direan mundu onetako anditasun, arrotasun, edertasun eta gozatasun guztiak. Bai Kristiñauak, eun urte barru Elexa onetan gagozan guzti guztiok ez gara azur pillo, eta luur puska bat baño izango.

Zer daukagu bada arrotu al gaizan gauzarik? Zetan geratuko da guk euki al daigun guztia? Guztia bihurtuko da auts, guztia ar, guztia sartuko da obia edo sepultura baten non geratuko garean guztiak... aazturik. Zetako bada, arrotu leiteke gizon bat, auts zati bat baño ez izanik? Da benturaz ondasunak daukazalako, edo diru ugarien yaube dalako? Eztituz bereak, iñoenak dira, bapere bagarik yatsiko da obia edo sepulturara. Da sendoa, indartsua edo ederra dalako? A! Denpora gitxi barru ezta izango azur pillo bat, luur zati bat eta aarren yanaria baño. Ai ze ezain, baltz, eta ustelik aurkituko dan egun gitxi barru! Zek bada arrotu leike luur zati bat? Zek soberbiaz bete auts puska bat? Au bageunka begien aurrean, begiratu bagendu zer garean, zetan bihurtuko garean, & ginatkeez ainbeste eregiko. Beti gitxitan eukiko ginatkeez, beti humildurik biziko ginatkeez. Auxe gukanik nai dau Elexa santeak dirauskunean luurra zara, eta luur bihurtuko zara. Gura dau ezagutu daigun gure ezer-eza, ezaukera onegaz geure aragia arimearen agindura euki daigun, eta penitenziako bidetik ibili gaitzean zein dan opa neutsun.



Bigarren puntua

Penitenziarako daukagun astuntasun guztia pekatuzko aragi onetarik dator dino San Paulo-k, Jaungoikoak Adan egin ebanean aragia edo gorputza egoan arimearen agindura, egoalako arimea Jaunaren agindura. Baia yagi zanean arimea, eregi zan aragia bere arimearen kontra, eta emetik asi zan arako Apostoluari negar eragiten eutsan gerra bizia. *Caro concupiscit adversus spiritum, spiritus autem adversus carnem*. Aragiak luurrezko eta pisutsua legez gorroto deutso penitenziari, eztau gura mortifikaziñoa, nekez daroa kurutzea, eta nai leuke lege bagarik ibili. Arimeak beste aldetik gura leuke gorde Jaungoikoak emon eutsan nagusitasuna gorputzaren ganean, makurtu bere gogortasuna, kendu bere guraariak eta ifini penitenziaplean. Baia, zer yazo oi da? Yarrantuten deutsa arimeak gorputzari, doa bere guraari zitelen ondoren, izanik nagusi eta agintari egiten da serbitzaile, itxiten deutsa bere gustu ziteletan ibiltan, eta sartuten da pekatuaren bide okerretan, eta doa bere galtzainera. Ze erremedio bada gorputza eziteko, eta aragia aspertuteko? *Memento homo quia pulvis es, et in pulverem reverteris*. Gomuta izan zer yazoko yakun egun gitxi barru, euki beti gogoan zelan aurkituko garean il ezkeru.

Bai neure enzula maiteak, eriotzea begien aurrean eukitea bakarrik asko izango da gure aragiari gorroto santu bat eukiteko, eta gorroto one-gaz Jaungoikoaren borondatepean aspiratu, eta eziteko, santu andi eta askogan egin ebana legez. Isabel Erregiñaren gorputz il eta atsituia ikusiak sartu eban S. Franzisko Borja-ko penitentzia ikaragarritzko batetik: onexek itxi erazo eutsazan ondasun, anditasun, olgura eta munduak opa eutsazan honra andiak: berak artu erazo eutsan bere aragiaren kontra gerrarik biziena, eta berba baten esatarren egin eban orain dakusgun leezko santu andi. Nok egin eban Sta. Margarita Kortona-koa pekatari anditik santa miragarri, eta eskandalu bildurgarritik birtuteen exenplu? Eriotzearen gomuteak. Nos itsuago ebilen bere gurari loien erdian, nos egoan Jaungoikoaren geien aazturik, nos yoian arinago infernurako bidetik, ikusi eban bere adiskide galgarriaren gorputz il, ezain, eta atsituia, eta auxe bakarrik asko izan zan eroian bide okerretik atsera biurtuteko, eta zerurako bide artezekatik sartuteko. Etzaitez arritu; eriotzaren konsideraziñoak egin dituzan aldantza oneek ikusiak, bada, ez deusku ezek bere obeto adierazoten ze igarokorrak direan mundu onetako gauza guztiak, berak baño. Ez dogu iñon bere obeto ikusten ze gitxitan euki bear dogun ara-

gia berak baño. Bera da espillu ziur bat zeinetan dakuskun klaru klaru, eta guzur bagarik auts puska bat baño ez gareala, arren yanaria, eta autsa.

Eta ezpabere sartu gaitezan geure barruan, begiratu daigun zelan aurkituko garean il ezkeru, pensadu gaitezan sepultura baten sarturik luur pisu ikaragarritzko bat geure ganean dogula, iluntasun guztizko itsaltsu baten bakar bakarrik aarrak baño beste lagun bagarik, onako buru au kalabera biurturik pistia loien bizi-leku, esku onexek eurok baltzitu eta ezaindurik, aragia usteldurik, gorputz guztiak azur pillo bat eta adiskide andienak (gandik) aazturik eta itxirik, eta ikusiko dogu zelan konsideraziño onexek bakarrik eroango gaituzan ezagututera ze zorakeria neurribagea dan auts egingo dan aragia gaiti geure ardura andiagoea eukitea arimeagaitik baño, eta laztanago izaitea Jaungoikoak bere esposa maitetzat, zeruko erreginatatzat, eta mundu guztiaren yaubetzat autu edo eskojidurik daukana baño luur zati bat. Orregaitik diño S. Juan Krisostomok, eztago irauten daben gauzarik, guztia doa, guztia galtzen da, guztia igaroten da. Iragoten da eguzkia, iragoten da ilargia, iragoten dira izarrak, iragoten da luurra, iragoten dira zeruak: galtzen dira diruak, galtzen dira olguraak, galtzen da edertasuna: arimea da bakarrik betiko iraungo dabena, betiko izango (biziko) dana, eta orregaitio bere gizon zoroak, gizon itxuak, gizon sensun bageak geiagotan dauka gustu zitel bertatik igaroten dan bat, olgura bertatikotsu bat, zeruak eta daukazan gauzeetarik baliotsuena baño. O ze zurzea, o ze sensun bagaak garean! Aazturik daukagu, itxirik eta saldurik J. K^oren odolagaz garbituriko arimea; galdu gura dogu betiko Jaungoikoaren alabea eta zeru-luurraren yaubea ez ukatutearren geure areririk andienari, zein dan gorputza, bertatiko gustu zitai bat. Yazo leiteke buruera zoroagorik? Ikusi leiteke itsutasun gogorragorik?

Baia ez Jauna, ez. Ez deutzat autortuko gorputz geisto oneri gurarririk. Ezteutsat emongo bide-bako olgurarik pekatuzko aragi oneri, beti eukiko dot arimearen agindura, eziko dot penitenziagaz. Badakit, Jauna, astun egingo yakana kurutzearen pisua; baia gogoz eta borondatez artu dagian eztot burutik kenduko zetan geratuko dan. Auxe da Jauna, biztuko nabena zure lege santuan artez ibilteko. Eztot beste gauzarik gura mundu onetan bizi nasan artean zure borondatea egitea baxen, eldu deinean neure azkena bildurrik ez eukiteko eriotzeari eta enzuteko zure aotik bendizino gozoa, zeinegaz sartuko nasan betiko atseginetan. Amen.



2. GARIZUMAKO DOMEKETARAKO IKAS-BIDEEN AURREKO SARTZAIERAK

(B, 113-121. or.)

LENENGO DOMEKARAKO

Dominum Deum tuum adorabis, et illi soli servies.
Matth. c.4.v.10

1. Elexa ama santeak, gu penitentzia egiten biztuteko, iminten deusku gaur Ebanjelioan J.K°. gure Jaunak ermu bakar baten berrogei egunean egin eban baraua. Ain izan zan gogorra barau au eze, ez eban ezerbere artu denpora guzti onetan. Igarorik egun oneek, sartu yakan gose andi bat. Ez eban galdu Demonioak Salbagillea tentetako era au, eta alan eldurik beragana esan eutsan: Jaungoikoaren Semea bazara, ogi biurtu egizuz arri oneek. Etzan aserratu Jaungoiko guztizko esku andikoaren seme benetakoa lotsabakotasun onegaz, eta ontzatasun, ta mantsotasun andiategaz, erantzun eutsan: Ezta ogi utsagaz bizi gizona, ezpada Jaungoikoaren aotik urteiten daben berbeagaz. Goia artu eutsan berba onekaz Demonioari; baia ain tematia ta andiustea (buru-eretzia) dana legez, uste izan eban oraindiokoarren azpiratuko ebal gizona; eta barriro tentetako eroan eban Elexako lekuri altuenera, eta esan eutsan: bota egizu emetik beera zure burua, ze etxatzu gatzik egingo, bada Jaungoikoak berak agindurik deutse Aingeruai zaindu eta yagon zaiezala gatzik egin ze dakizun. Eranzun eutsan Jaungoiko-gizon egiazko J.K°.k: Ezta olangorik egin bear, ze esanik dauko berak: Ez eikezu tentau zeure Jaun ta Jaungoioa. Ikusirik Demonioak deungaro urte'etsala bigarren go tena-aldi onek bere, asmetan dau irugarren bat, zeinetan egin zituzan aletin guztia Jaungoioa?en semea galduteko eta pekatura yausi arazoteko. Daroa bada mendi gora baten bizkarrik goienara, andixe erakusten deusaz munduko erri, uri, erreinu ta ondasunak, eta guzurraren guraso guzurti galdu onek esaten deutso: bakutsu; onexek guztiok neureak dira; baita guztioen yaube egingo zaitudaz, lurren ganean auspez iminita, adoretan banozu. Aserratu yakon zan orduan J.K°. Demonioaren kontra, Jaungoioari berari bakarrik datorkion honrea beretzat gura ebalako eta esan eutsan: oa ortik,

Satanas; ken adi neure begien aurretik, ze papelean yatzak: ire Jaun ta Jaungoioa adorauko dok, eta bera, ta ez besterik, serbiduko dok. Berba indar andiko onekaz astindu eban Diabru gaizkina, baita ondatu bere infernuko garren artean: etorri yakazan Aingeruak, eta ekarri eutsen zer yan. Auxe da, neure Krisk., gaurko eguneko Ebanjelioak dirauskuna, eta berean Jaungoikoaren semeak, gure maisu eginik, irakasten deuskuz yakinbide andiak: baia euren artean, neure eretzian andiena, arako azkenengo berbeetan dirauskuna; Zeure Jaun ta Jaungoioa adoraduko dozu, ta bera bakarrik serbiduko dozu. Auxe da Jaungoioak imini deuskuzan aginteetarik lelengoa ta nagusiena; baita onexegaitik esan eutsen J.K°.k berak beste aldi baten Fariseoi, itandu eutsenean ea zein zan legeko lelengo agindua; «Maite izan egizu zeure Jaungoiko Jauna biotz guztitik, gogo osoagaz, eta indar ta aletin guztiagaz: auxe da aurrengo agindua, ta bertantxe sartuten dira lege guztiak ta antxinako Igarlari Santuak diñoen guztia». Berau bada izango da gaurko berba-geia, eta azaldu ta esplikaduko deusuet Jaungoikoaren legeko lenengo mandamentua.

Jaungoikoaren lelengo mandamentuak, etc.

[Ikus 1. mandamentua 2. liburukian]

BIGARREN DOMEKARAKO IKASBIDE-AURREA

Transfiguratus est ante eos.
Math.c.17.v.2.

2. Gaurko Ebanjelioan gogora dakargu geure Elexa ama Santeak, J.K°.k bere diszipuluak erakutsi eutsen mirari guztizkoa, ziertu ta seguru egon zitezan egia dala esanik eutsen guztia, baita bera zala gerorako agindurik eutsen gloriaren antz eta irudin egin egina. Onetarako eroan zituzan Tabor-go mendi ganera. S. Pedro, Santiago, eta onen anaie S. Juan ebanjelisteak, eta iruroen begietan bestetu ta argi argi egin zan. J.K°. geure Jaunak, gizona zanez, eukan sortu zanetik ara guk zeruan euko dogun gloria; eta orain ez eban besterik egin, ezpabere kanpora atera besteak ikusi leien, gloria onen tangatxu bat. Geratu zan bada Jaunaren arpegia oraindikoa-rrren eguzkia udako eguerdietan baxen bere askozaz argiago ta ederrago, eta bere sonekoak edurra bera baño zuriago. Ordu berean agertu zirean Moises ta Elias J.K°.gaz berbetan (Lc. 9. v. 31), euren artean eragoioela, gugaitik Jerusalem-en ikusi bearko eban zituzan neke gogor, ta eriotza ase-



rrerari. Ikusirik S. Pedro-k onenbeste gloria, onenbeste edertasun, ta onenbeste miraari, ez eukean andik eguño bere alde egin gura, eta bertantxe egon gureagaz, beragan eztagoan batek legez, zoro-zororik esan eutsan J.K°.ri: Jauna, onen onena litzateke gu ementxe betiko egotea. Baderitxazu, emen egin giñai iz iru etxetxu, edo iru txaoia; bata zuretzako, bestea Moisesentzako, irugarrena barriz Elias-entzako. Au esan orduko odoi guztizko argi batek bere barruan artu zituzan, eta odoien erdi-erdtik urte'eban Aita Eternoaren bozak, ziñoala: ara emen, auxe dot nire Seme maite-laztan, nogan daukadan nire atsegin ta poz andia: bere esanak egin bear dozuez. Bildurrez ikara ikara geratu zirean iru Apostoluak, eta ain konorte (adin) bagarik eze, egon ezinik, oñen ganean, auspez lurrean etzin zirean. Bitartean barriz Moises-ek eta Elias-ek andik alde egin ebeen. Eldu yaken bada Jesu Kristo eta yagiten agindu ezker esan eutsen: begira, ez esan iñori emen ikusi dozuena, arik-eta ni ilen arterik biztu artean.

3. Deritxat, Kristiñauak, mirari andi au ikusi gura bero beroan sartu zareela au entzunda, eta zuen artean zagozela: A, bada, menditxu atan egon bagina, J.K°.ren edertasun zoragarria ikusteko! Ikusi bagina iru Apostolu zorionekoen laguntzan! Entzun bagenduz Aita-Eternoaren, bere Seme bakarraren, Moises-ta Eliasen berbaak! Alperrik eze, ezken-duan besterik bear zorioneko-zorionekoak izaiteko. Baia, Kristiñauak, eztaukagu zetan onen damurik euki egunean egunean ikusi giñaike Jaungoikoaren semea gloriāz, mirariz ta edertasunez yanzirik, ez gorputzeko begiakaz, baia bai arimakoakaz. Eztaukagu onetarako zetan yoa Tabor-go mendiko aldatsetik atxina: bertantxe, eta edozein bere Elexatan ikusiko dogu nos gura, biztu gura b'ogu gure fedea; ementxe enzungo doguz, an enzun zirean baño, guretzat berba gozoagoak. A bageunke bear geunkean fedea, oraindiokoarren S. Pedro-k baxen bere pozago esango geunskio Altara orretantxe dagoan Salbagilleari; Jauna, guztiz da ona gu emen egotea. Baia, au non da? A, Kristiñau negar egitekoa da, baia eztaukagu siniste makal, epel, ganorabako, ezetako eztan bat baño, eta orregaitik astun egiten yaku Elexara etortea, eta luzero bertan egotea: nekez gatoz J.K°. ikustera, eta nekezago gagoz bere aurrean. Zer diñot? Yai-egunetan, bai yaiegunetan, meza enzun bearra daukagun egun oneetan, zelango atxakiak ez dira asmetan ez etorteko Elexara? Eta arrastaka ta gura ta gur'ez legez etorrita bere, zeinbat egoten dira meza denporan deboziño bagarik, mezeari eztagokazala, albora begira, eta mezarik laburreena luze egiten yakeela? Negarra erazoteko gauzea da bene-benetan, eta sinistu bere ezin leikeana gere begiakaz lanzean bein ikusiko ezipagendu. Onan-

go epeltasuna, edo otz gogorra, edo zelan esango deusagun, kendu al banengi, kenduteko asmuakaz, banator gaurko egun onetan, eta onetarako berba egingo deusuet Meza-enzunda yaiegunetan egin bear doguzan osterantzeko gauzeen ganean.

Jaungoikoaren legeko irugarren mandamentuak, etc.

[Ikus 3. mandamentua 2. liburukian]

IRUGARREN DOMEKAKO IKAS-BIDE AURREKO SARTZAIERIA

Erat Jesus ejiciens Demonium, et illud erat mutum.

Luc.c.11.v 4.

4. Mutu bat daukagu gaurko Ebanjelioan, baia berba-laari (barritsu) asko; baita txarrago eta deungagoak egozan, miña libre erabilenak, katigu eukeenak baño; bada mutuaren miña loturik ta katigu beeukan Demonioak, berba-laarien arimeen yaube zan; barriz deungago da, ta askozaz okerrago arimea pekatuakaz lotuta eukitea, gorputza Demonioak katigu eukitea baño, gaurko eguneko Ebanjelioan dakuskuna legez, zeinetan esaten dan, ze J.K°.k egin eban mirariagaz, mutua libre ta berbeagaz geratu zala, berba-laari (berba-erio) barritsuak barriz leen baxen okerrago ta gaistoago. Alantxe diño S. Juan Krisostomo-k. Ekarri eutsen, bada, geure Jaunari gaizkiñak eukazan gizon bat, zeinek barbarik arean bere ezin egin eban, barruan eukan Demonioak mututu egin ebalako. Eta erregutu eutsen, arren bada librau eiala gizon ç alango yaube gogorranik. Errukiturik Salbagillea, enzutea emon eutsan euren eskariak; eta bere damuan urte'eragin eutsan Demonio gaikiñari, eta berbetan asi zan orduragiño mutu izan zana. Mirari txitozko andi au ikusita bertan egozan yenteak asi zirean Jaungoikoa bedeinketan. Baia ez Eskriba eta Fariseo gogorak, ze idigi bearrean euren begiak ikusteko J.K°. zala Jaungoiko egiazkoa, geiagotaki gogortu zirean euren pekatuan. Ezin ukatu eben, guztien begien aurrean egin zan, miraria; baia eztabe sinistu gura Jaungoikoaganik eukala onangoetarako eskua, eta alan diño Berzebu edo Demonioagaz daukala zer ikusi, eta onen indar ta eskuagaz egin ebalako. Beste batzuk, barriz, tentazar eskatuten eutsen gure ganekeo zeruan alango mirarizko gauzaren bat egin egiala. Baia, o Jaunaren ontsatasun, ta epetasun guztizkoa! Beekusan euren intenziño (asmu) okerrak, eta orregaitarren bere ez eutsen agirakarik egin, diño S. Juan Krisostomo andiak; eta bakarrik, zein



guzurrak balio dakien, dirautse egia humiltasun andiagaz. Ezin iraun leike, dirautse, bakerik eztaukan (eztaukan) erriak, bada alkarren kontra bada-bilz euren artean erreinu barrukoak, laster egingo dabe bata besteen ganean erriko etxeak. Orain bada Demonioak botetan badau gizonagani Demonioa, ezin onen erreinuak iraun leike. Beste aldetik, barriz, nik Berzeburen izenean botetan badodaz Demonioak, zuen semeak noen birtutez botetan dituez? Itandu eikioezue arren, eta, nire fabore urten dagiela, eta nire alde egin daiela? Barriz, nik Jaungoikoaren izenean, eta berak emoniko indarragaz botetan badodaz, eldu da zuen artera bere erreinua. Esango baleutsena legez, gura ta gur'ez autortu ta konfesadu bear dozue ikusi dozuen miraria Jaungoikoaganik etorri dala; baita, nire eskutik egin daben ezker, neu nasala, sarri-askotan esanik deusuedan, bere seme, ta Mesias benetakoa, zuek itxaroten zenduen errege andia ta munduko osasun ta Salbagillea.

5. Neu nas, dirautsa oraindion, neu nas zuen arerio au goitu edo ben-zidu dodana. Orain artean etzan eldu mundu onetara bera baxen indar-tsuagorik; eta orregaitik seguru egon da, eta bake andian euki dau bere nagusitasuna. Baia neu nas bera baño indar andiagokoa, eta alan neuk aterako dot bizi dan etsetik. Baia ain da kruela ta gogorra ze, botarik leen eukan bizi-lekurik kanpora, dabil leku bakar ta ermuetatik arterik artu ezinik. Gero bere gogaiturik diño bere artean; banoa, bada, leen itxi nenduan etxera. Orretarako artzean dituz zazpi lagun bera baño okerragoak alegin geiago egiteko, ta eurakaz naste, sartzean da lengo gizonagan; eta aror non gizagaxoa geratuten dan leen baño deungago. Js. gure maiteak oneek esaten zituzan artean, yente-arteko andra batek eregi eban boza, ta esan eutsan: Zorionekoa da, zu erabili zinduzan, sabela, eta zorionekoak artu zenduzan (ugatzak) bularrak. Egia da, andrea, diño Jaunak, diñozuna, baia, askoz zorionekoagoak dira nire esanak enzun ta egiten dituezanak. Ara emen, Kristiñauak, gaurko Ebanjelioak dirauskuna: berean dakusgu Jaungoikoaren Semearen eskueskune guztizkoa; dakusgu arako bere ontasun andia, zeinegaz errukiturik mutuagaz, biurtu eutsan berbea, egiten eutsala miraari andi onegaz txitoxko mesede andi bat. Baia nire eretxian mesede andiagoa egingo litxakio askori, miña kenduagaz, eta berba bagarik betiko itxiagaz; ze Jaungoikoak daki zeinbat daroazan miñak infernu-ko ondarretara. Zeinbat juramentu guzurrezko, ta alper; zeinbat birao; zeinbat berba loi; zeinbat iraina ta injuria; zeinbat deungaro esaka ta murmuraziño! Baita, zer dira oneek, ezipada beste ainbeste katea lodi, gizonak bere galtzaiera ta betiko kondenaziñora daroezanak? Baia zelan guztien

artean kalterik geien egiten dabena dan biraoa edo maldiziñoa, auxe da orain azaldu ta esplikaduko deusuedana..

Da, bada, biraoa, etc.

[Ikus 2. mandamentua 2. liburukian]

IRUGARREN DOMEKARAKO

Cum eiecisset Demonium locutus est mutus.

Luc.11.v.14.

Modu askotan adierazoten deusku Elexa santeak gizon batek pekatuan dagoanean daukan negargarritzko egokera edo estadua. Batzuetan diño dala gizon kaden, geixo, adinbako bat legez: beste batzuetan seme geisto, eta esker deungako bere Aitaganik igesi dabilen bat legez: beste batzuetan gorputz il atsitu eta usteldu bat legez. Baia gaurko Ebanjelioan iminten deusku itsu, mutu eta gor baten irudian, nogan dagoan sarturik Demonio gaikiña. Irudi guzti oneetan adietan emon gura deusku ze kalte gogorak egiten dituzan pekatuak gure arimaan, bildur izan gaitezan pekatuan yausten. Auxe berau nai neuke nik bere adierazo gox onetan alegin guztiagaz iñes egin dagizuen beraganik, eta alan esango deusuet lelen-go zer egiten daben bere buruagaz. Emetik ezagutuko dogu, ze mesede andia egiten deuskan Jaungoikoak pekatutik ateraten dabenari. Mesede au ezagutu daigun egin gura izan eban gaurko miraaria mutuari berbea emonagaz.

LAUGARREN DOMEKARAKO IKAS-BIDEAREN BERBA AURREKOA

Accepit Jesus panes, et cum gratias egisset

distribuit discumbentibus;

similiter et ex piscibus quantum volebant.

Joan c.6 v.11.

6. Mirari andi bat dakargu gaurko eguneko Ebanjelioan geure Elexa ama santeak, bada dirausku ze, bost ogi ta arrain bigaz emendatu, ta ase zituzala J.K.k, bost milla gizon, aren baten. Urte eban aren Majestadeak Galileako itxasoko beste aldera, yente guztiz andi bat bere yarra ebal.



Oneek guztiok yoazan bere atsean, ekusi zituezalako, gexoak osatuten egin zituzan, guztiko miragarri andiak. Eldu zirean, bada, ermu bakar batera goseak illik, eta zer yan bagarik. Ikusi zituzan Jesus laztanak, eta euren errukiz beterik esan eutsan S. Felipe-ri tentazar (ze berak bekian zer egingo eban): Ea Felipe, zegaz erosiko dogu onei yaten emoiteko ogia? Ai, Jauna, erantzun eutsan S. Felipe-k; ezta berreun errealeko ogia elitza-teke asko izango, bakotxari puska bana emoiteko. Aurrean egoan S. Andres-ek esan eutsan: Jauna, ementxe dago mutiltxu bat garagarrezko bost ogi eta arrain bitzukaz, baia, bestelako gauzea! oneek zer dira ain-besteentzako? Orduan J.K°.k esan eutsen: yesarri-arazo egizue. Yarririk bada basamortu atako elbitza ganean ainbeste milla gizon, artu zituzan Jaungoikoaren Semeak bost ogiak, eta bere Aita Eternoari eskerrak emon ezkerro, asi zan bakotxari emoiten ogietatik eta arrañetatik naikoa. Eta ase ase egin ezkerro, agindu eutsen Apostolui batuteko enparau zirean otzurrak. Baita, bakizue zeinbat batzaindu (zituezan) eben? Amabi zarankada. Ikaraturik geratu zirean olango gauzea ikusita, eta alan esaten eben J.K°. zala Jaungoikoak atxinatik agindurik eukan Igarlari, edo Profeta santua, eta Mesias agindua. Baita etzirean onetan parau, ze artu zituezan, euren Errege egiteko asmuak. Jaunak barriz, yakinik euren gogoen barria, iñesi egin eutsen bakar-bakarririk, ta ostendu yaken mendi, gura bo'zu, baso baten. Auxe da, Kristiñauak, gaur J.K°.k bere atsean ebiltzezanai egin eutsen konbitea: etzan konbite onetan erregalu andirik ikusi, ezta ardaorik bere. Gura izan baleu, ondo errez yakan ardaoa emoitea, beñolan Kanaako ezteguetan legetxe, ura ardao eginda bere; baia ezeutsen beste gauzarik emon, ezpabere garagarrez eginiko ogia, eta arrañak; adietan emoiteko J.K°.ren bideetatik ezin ebili leitekeala, yan-edanetan dabilena. Baia oraindokoarrea ardao larregiak geiago urrunduten dituz gizonak Jaungoikoaren bideetatik; ze Espiritu Santuak berak dirausku ardaoa dala fedea, eta sinistea gizonai larga arazoten deutseena. Baita eztau bakarrik galtzean Kristinautzea, oraindokoarren bere kenduten deutse gizonai gizon izaitea. Orregaitik berba egingo deusuet ardao lar edateko edo ordituteko ekanduaren ganean. Bakit probetxu gitxi aterako dodana.

[Ikus 2. liburukian 5. mandamentua, ordikeriari buruz]

Ikasbidearen akaberea

Baia ez, Neure enzula maiteak: iñes egizue edan-larregirik, lagun ordiak-ganik; edan egizue zuen erregela onean bear dozuena, baia ez geiegarik, ez orditu giñokorik. Onan geiagotuko yatsuez indarrak, osasuna, dirua, esku-artekoa, bakea ta izen ona. Ezi egizue zuen gorputz

orreek, ukaturik onango bide-bako gustu zitel, arimeen galtzaigarri direnak; merezidu dagizuen beste munduan artutea arako J.K°.k euren kurutztea daroenai iskindurik, ta agindurik deutsen gloriako koroia. Amen; alan gerta deilla.

BOSTKARREN DOMEKAKO IKASBIDEAREN ASIKEREA

Si veritatem dico vobis
quare non creditis mihi?
Joann.c.8.v.46

7. J.K°. geure Jauna daukagu gaurko Ebanjelioan adietan emon gura Eskriba ta Fariseoi bere Jaungoikotasuna, oneek barriz sinistu gura ezik Salbagilleak diñozan egia, eta esaten pekatari oker bat, eta gizon galdu bat dala. Orregaitik dirautse Jaunak: zuen artekorik nor izango da niri pekatoren bat arpegian ezarteko? Egia badirautsuet, zetan sinistuten ezteustazue? Jaungoikoarena danak enzuten dituz Jaungoikoaren berbaak, baita zuek enzuten ezpadozue, Jaungoikoaren semeak etzareelako, da. Aserratu yaken onegaz Eskriba ta Fariseoi, ta esan eutsen: badiñogu guk Samaria-rra zareala ta Demonioa aldean daukazula. Demonioarik nik eztaukat eranzun eutsen, Jaunak; nik egiten dodana da, nire Aita Jaungoikoari honrea emon, baita zuek lotsea galduten deustazue. Yakin bear dozue ez nabilena nire honrearen atzean, bago bai ori nok egin, eta bai nok justizia egin bere. Bene-benetan ta egia guztiagaz dirautsuet: nire esanak egiten dituzanak eztau beinbere eriotzarik ikusiko. Oneetara erantzun eutsen: Ara, ondo ezpadiñogu Demonioa daukazula. Geure guraso Abraham andia iltzan, Profeta igarlariak il zirian, eta zuk diñozu zure esanak egiten dituzana ezala eguño bere ilgo. Zeu altzara Abraham gure aita baño andiago, edo Profetaak baño geiago? Nor egiten dozu zure buru ori? yakin egizue, eranzun eutsen J.K°.k; yakin egizue, eranzun eutsen J.K°.k; yakin egizue ze Abraham-en betiko biotz biotzeko guraria izan zala, ni ikustea. Eta ni ikusiagaz poztu zan. Ezin ulertu ez aitu eukean Judegu itsutuak au zelan izan zatekean, eta alan esan eutsen: Berrogeta amar urte oraindokoarren eztaukazuz, eta Abraham baño atxinakoagoa nasala. Baita alantxe zan, ze K° Jaungoikoa danez betikoa da, ta Abraham eta mundua bera baño bere lenagokoa. Baia Judeguak, su emon baleutse-na legez egia andi ta errespetogarri onegaz, artu zituezan arriak, berari



arrika egiteko. Baia eskutadu ta ostendu yaken begietatik, eta urten eban Elexatik kanpora.

8. Ze egia andiak esan zituzan Ebanjelio onetan J.K^o.k! ze irakatzigarri, ta doktrina zoragarriak! Ze berba osasuntsuak! Baia ez eben sartu, ez sustrairik bota biotz gogor aetan. Enzun zituezan, baia ez eben aitua gura izan, belarri batetik sartuak bestetik urteiten eutsen, ezerbere erantzi bagarik gogortu zituezalako euren biotzak: Isaias-ek atxinatik esanik eukana legez. Zeinbateri yazoten ete yake gaurko egunean auxe berau? Gaurko Ebanjelioko berbaak etzituzan esan J.K^o.k. Eskriba ta Fariseo-entzako bakarrik: Kristiñau guztientzako esan zituzan. Guztioi dagoku arako berbea: *Egia badirautsuet, zegaitik sinistuten ezteustazue?* Baita asko dira gorturik dagozanak berba oneek ez enzutearren. Ardi galduak legez, euren arzain onaren deia yarraitu bearrean, dabiltz deslai ekandu zitel ta deungeen atsean, guraago dabeela beti betiko galduak izan gustutxu bategaitik, betiko zorionekoak izan baño neke puska bat igarorik. Baia au alan izanik ekandu guztiakaz, alanbere eztau beste ekanduk onenbeste gogortuten Kristiñaua, Jaungoikoaren deia ezentzuteko zein da aragizko pekatuak. Eztau bestek ainbeste itsututen gizona. Orregaitik gura neunke onen ganean berba egin. Ba'kit eztana erraz bear dan legez.

[Ikus 6. mandamentua (bi sermoi) 2. liburukian]

Ikas-bidearen azkena

9. Jaungoikoaren Ama, Birjina guztiz garbia, idigi egiguzuz gure ari-mako begiak lo egin zedaigun pekatuaren eriotzan. Argitu eiguzuz geure sensunak ezagututeko ze gogorrak direan pekatu zorigogorreko onen kateak ta kalteak. Emon eiguzu arren indarra Demonioaren sare eta lakio oneek urratuteko, eta garbi izaiteko berba, egikune, gogo ta pensamentuetan; merezidu daigun gere aragiaren naikunde ta gurakuntzaak goiturik, Jaungoikoaren semearen olgura ta libertadean ibiltea zeruko bideetatik, gero-bere araxe eldu gaitzean, antxe beti-betiro kantetako Jaungoikoaren errukitasun andiak. Atan gerta daiteala. Amen.

3. GARIZUMARAKO LENENGO DOMEKARAKO PENITENZIAREN GANEKO SERMOIA

(B, 215-219. or.)

Ecce nunc tempus acceptabile,
ecce nunc dies salutis.
2 Corinth. c.6, 2.

Aldi guztiak dira onak geure pekatuen penitentzia egiteko: baño guztietarik onena da Garizuma santua: Orregaiti Elexa Ama santeak denpora onetan geure begien aurrean ifinten deusku ge. Jesukristo Jaunak basamortuan gugaiti egin eban penitentzia, bere ejenpluagaz bizturik ge. pekatuen penitentzia egin daigun. Bada izanik Jaun au geure maisua, ez bakarrik berbakaz, baita bere eginakgaz irakatsi gura izan euskun zerurako bidea. Beekian argala zana ge. aragia, eta gogor egingo yakona penitentziako bidea: orregaiti kapitae ona legez gura izan eban ge. aurreti joan. Ez beste gauza gaitik bada Elexa Ama Santeak, ge. ama ona legez, erakasten deusku Jgkoaren Semea leku bakar baten lagun bagarik bere gorputza non etxun ez eukala, berrogei egunean zizpuru artean Aita Eternoari ge. pekatuak gaiti erregututen eutsala.

Idigi egiguz, pekataria, zeure arimako begiak, eta gogotan artu egizuz J.K^o. ge. Jaunak irago zituzan berrogei egun oneek, eta ikusiko dozu zer egin bear dozun zeure pekatuak gaiti. Bada ainbeste egin beeban Jaun onek izanik pekatu bagea, Aitaeternoaren seme bakarra, Jgko. egiazkoa, zeruaren eta lurraren egillea; zer egin bear dozue zuek zeuen pekatuak gaiti? Ze errazoe dago Jesus maitea nekaturik aurkituteko, eta zuek pekatuz beterik egon ezkerro penitentiari gorroto eretxiteko? Ze errazoe dago pekatu bagakoak penitentzia egiteko, eta zuek pekatu artean pozez egoteko? Ze errazoe dago zeru-lurren egillea zizpuru ta negar artean bizi izateko; eta zuek lur puskatxu bat izanik, atseginez beterik egoteko? O Jgkoaren ontasuna, eta gizonaren biotzeko gogortasuna! Zeinbat zu onago, ainbat eta gu gagoz deungago. Zeinbat eta on geiago egiten deutsezun gizonai, ainbat eta esker deungagokoak dagoz eurak.

Eta zuek, kristiñauak, nos artean izango zare ain esker deungakoak zeuen Jgkoaganako? Nos artean eukiko dozuez zeuen biotzak gogortu-



rik? Yagi zaiteze nosbait zeuen pekatuetarik, eta begiratu egizue zeuen arimea gaiti. Oraintxe da aldirik onena: *ecce nunc tempus acceptabile*. Oraintxe da denporea pekatuak itxirik Ygkoa gana bihurtuteko. Baña zelan uste dozue? Penitenziako bideti: onetarako gaur esango deusuet zelan egin bear dozuen.

Puntu bakarra

Diabruak pekatariari iminten deusant tentaziñorik andiena da, penitenziaren atzerakuntzea, seguru legez iminten deusala geroago, eta obeto aurkituko direala penitentzia au egiteko. Eta ainbeste itsututen dituz eze, gauza zurrak legez sinistu eragiten deuse eze geroago egingo dabeena: bada san Agustinek diñon legez, emoten deuse seguridadea, beragaz galduak izan (ditzat) deitezan. Sensun bagako seguridade onegaz pozturik pekatariak bizi dira euren pekatuetan sarturik, eta penitenziaren yaramonik egin bagarik. Baia esan egidazu pekataria: zetan daukazu zeure seguridade ori ifinirik? Uste al dozu nos edo nos obeto egongo zareala penitentzia egiteko? Sei ilabete barru, edo urte bete barru, erantzuten dozu, egingo dot penitentzia: bada orduan egongo naz zer eginik eztauka-dala: auzi au akabadu (amaitu) ezker, edo arazu ta zer egin andi onek itxi ezker. Auxe erantzuten dabee pekatariarik geienak: eta txarrago dana, beste batzuk erantzun daroe: Orain ezin egin nei penitentzia: gazte nazan arte olgadu bear naz: orain seme asko daukadaz, arrabiadu eragiten deuse: ezetara ezin neike eurak daukadazan artean Yangoikoagana biotz osotik biurtu: bakotxa bere lekuetan imini ezker, eta bakarrik geratu ezker, eztot beste gauzarik biotzean eukiko Yangoikoa baño. Auxe da, kristiñauak, mundukoen esakerea, eta ezta besterik, ezpada Diabruak emoten daben putza, diño San Agustinek. Auxe esaten dozu: auxe sinistuten dozu eta auxe yazoko yatzula uste dozu. Baia esan, pekataria: zetatik, edo nongo sustraitik daukazu zuk penitentzia egingo dozulako ori? Nok esan deusurdu izango dozula zuk astia, grazia, ta penitentzia egiteko gogo? Iru gauza onek bagarik penitentzia ezin egin zinaike. Eta, badakizu orduan eukiko dozula (dozun) astia? Badakizu emon gurako deusurdu Yangoikoak bere grazia lagungarria? Badakizu zuk zeuk egin gurako dozun orduan penitentzia? Ezin zuk iñondik yakin zinaike. Bada nondik zagoz zu ain bete betean, buruak emoten deusurdu aldian penitentzia egingo dozula? Iñondik bere ez kristiñaua: iñondik bere ez. Orregaitik bada

eztozu gerorako itxi bear penitentzia ori; eztakizulako eukiko dozun ez astirik, ez graziarik, ez gogorik.

Lelengo egin bear dozu ainbat lasterren penitentzia eztakizulako gero astirik izango dozun. Gauza ikaragarria da beintzat, ze, izanik ain laburra gizonaren bizitza, ain asko ta anditzarrak pekatuak, ain sarritakoak batbateko eriotzak, eta ain itzaltzua geroko bizitzaren gogoraziñoa ta akordua, orregaitik bere gura izatea pekatariak euren buruen betiko kondena-ziñoa, eta betiko zeruko gozo atsegingarrien ain yaramon gitxi egitea. Gogora egizuz orain arteko zeure bizitza, oraingño egin dozuzan pekatuak, eta erabili dozuzan bide gaistoak, eta euretatik atera zinaike ea badaukazu errazoe onik uste izateko Yangoikoak zuri emongo deusula penitentzia egiteko astia eta abaeguna. Baakit Yangoikoaren ontasuna andia ta andia dala; baia orregaz batera esaten deusurdu Espiritu Santuak, ez luzatuteko egunerik egunera beragana bihurtutea, zegaitik eze ustez uste baakoan etorriko da zure ganean bere aserrea, eta betiko galdurik geldituko zara. Zeinbat eta zeinbat penitentzia egiteko gogo eukeenak yatzi dira ain bagarik infernuetara? Nos gitxiago uste ebeen eldu yaken euren azkeneko eguna, eta ez eutseen ezer balio izan euren gogo ero orreek. Alaintxe yazo yakon arako Ebanjelioak dakarren aberatsari: batu zituzan ondasun guztiz andiak, egin zituzan etse zabal-ederrak, eukazan yanari ta edari gozo naikoak, etzakazan falta gogoak emoten eutsazan gustu ta atsegingarri guztiak, eta bizi zan guztizko gozoz ta pozez uriolaturik. Eta alan esaten eutsan bere buruari: «Ea urlia, badozak urte askotarako ondasunak: eztaukak bada yan, edan, ondo bizi, ta ire buruari gura yoan guztia emon baño». Baia, ai! onetan egoala entzun eban zerutik boz ikaragarri bat, esaten eutsala: «A ero garbia!, gaur gabeen kenduko deue bizitza, ta ondasun orreek noenak izango dozak?». Beste onenbeste bear bada yazoko da zugaz, pekataria: gaur gabeen il bearko zara (dozu), baita, zer izango da zugaz? Eta zeure bizitzeagaz, ze kontu emongo dozu?

Gizon guztiak dakie, yakin, au yazo lekikiela, baia iñok bere eztau gura onen ganean bururik ausi. Kontrara pekatari asko dagoz uste dabeenak eze, euren eskuan daukeela gura dabeen artean bizi izatea, eta gura dabeen legez euren gogora zatituten dituez euren urteak. Auxe egingo dot gazte nazan artean, auxe ta auxe geroago, eta azkenean, au ta bestea egin ezker, biurtuko naz biotzetik Yangoikoagana, eta egingo dot penitentzia. Onelangoai esan lekikioe bete betean Yudit-ek beñolan Betulia-ko sazerdoteai zirautsena: «Zeuek buruak emoten deusurdu legez Yangoikoaren errukiari iminten deusazuez aldiak, eta zeuen gogora neurtuten ta ebagiten deusazuez egunak». Ai! ta ze zorigororrekoak direan onelan



euren egunak ta urteak atalduten dituezanak, ta zartzaroko azkenengo egunak penitenziarako itxiten dituezanak, urteak eta egunak eurenak bale-beezan legez! Nok emon deutsuz pekataria, ainbeste urte, edo nori erosi deutsazuz zureak izateko? Agertu al yatzu Aingeruren bat, eta belarrira emon, etzareala ilgo Garizuma au yoan artean? Zelan bada zagoz penitenzia egin bagarik? Zelan darabiltzu zure burua arri ain labanaren ganean, betiko zori-deungako izateko bide bidean? Zegaitik eze oraindino ezteutsu Yangoikoak asti yakiniñ iñori bere agindu; ezteutsu zuri oraindiño esan izango dozula astirik penitenzia egiteko. Berak bakarrik, bai bakarrik, ta ez bestek, daki noragiño elduko direan zure egunak. Gitxien uste dozunean etorriko yatzu bera, kontu artutera. Orduan bai, ordu atan ezagutuko dozu, alperrik izango bada bere, ze ondo izango zenduan orain penitenzia eginda. Orduan negarretan urturik, esango dozu, baita ondo gogotik: Ai bada, penitenzia egin baneu denporaz! Orduan guztiz larriturik billatuko dozu penitenzia egiteko astia, baita ez yatzu emongo. Bada kristiñaua, ez ikusteko zeure burua alango estutasunean, oraintxe egin bear dozu penitenzia ori, abaugune on au daukazun artean.

Eta yakinda bere izango dozula penitenziarako asti ori, agaz guztiaz bere bertatik eta ainbat lasterren egin bearco zenduke penitenzia, ze ezta-kizu Yaungoikoak emon gurako deutsun egiteko grazia edo laguntasuna. Egia da, eta alan izan doa batzuetan, eze pekatariñ itzuenari emon leikiola Yaungoikoak grazia lagungarri ori, eta alantxe biurtu zirean Yaunagan san Paulo, san Mateo, santa Maria Madalenea eta beste asko ta asko; baia edozeinek egin al balei penitenzia bere graziagaz, ezin iñok bere egin leike grazia au bagarik, Trento-ko Konzilio santuak diñoan legez. Pekatari guztiai grazia au emoten yake; baia ez beti ta nos-gura, ezpada Yaungoikoak gura dabenean. Baita zer uste dau Yaungoikoaren grazia orain ezer egiten eztaben kristiñauak? Orain ezer egiten ezpadozu, uste dozu gero zuk gura dozunean emongo deutsula? Baliteke, baia gatx egiten da sinistuten. Errazago sinistu liteke, bide ohea dakarta, eze aserraturik Yauna zure pekatuakaz ukatuko deutsula, askori ukatu deutsan legez. Orduan bear bada erantzungo deutsu: «Deiegin neuntsun, eta zuk ez ninduzun entzun. Bada neuk bere orain dei egiten deustazunean ez deutsut aitu gura». Orduan diño Yaun onek irri ta barre egingo deutsula: Orain artean munduari, Diabruari, eta aragiari yarraitu deutsezu: zoaz, zoaz orain eurak gana penitenzia egiteko grazia-eske. Zer? Gogor deritxazu oneri Yaungoikoarentzat? Uste al dozu Yaun errukior orrek ezin legikea-la alango gauza gogorrik? Esan, arren: balioa gizon bat Erregegana, eta

balirautso: Yauna, gaztea nazan artean ta indarrak azkar daukadazan artean nik daukat ustea berorren arerioakaz bat eginik bizi izateko, eta nire bearrik badauke, nire indar guztiagaz berorren kontra gerran ibiliko naz; baia zaartu ezkerro, eta indarrak makaldu ezkerro, itxiko dodaz berorren arerioak, eta orduantxe berorren gana biurturik, izango natxako adiskide kutuna, guztiz andia; eta orretarako ezteust berorren adiskidetasuna ukatu bearco. Alan esango baleuskio bada, zer deritxazu erantzungo leuskiola Erregek gizon azartu, eztakit zelango lotsabaako oneri? Eta gero artuko leukeala zartzaroan adiskidetat? Emongo leuskiola bere adiskidetasuna? Begiak arpegian daukazan edozeinek esango dau ezetz. Bada neure kristiñaua, auxe berau egiten dozu zuk Yaungoikoagaz. Orain gazte zarean artean, edo zeuen pekatuetan sarturik zagozen artean, Yaunaren arerioakaz bat eginik zabiltz: ordikeriakaz batzuk adiskide eginik, eta beste batzuk pekatu loi zantarrakaz, lapurretakaz, eta gorrotoakaz. Eurakaz batera egiten deutsazu gerra latza ta aserrea: pekatu mortal bakotxagaz barrien barri yosten deutsazu kurutzean bere seme Yesukristo. Eta orregaitarren bere bete betean zagoz, zuk dei eginda, antxe prest prestik idigiko deutsula zabal zabal bere graziaren atea? Andia da (egia da, ta ezteutsu iñok ukatuko) andia da, diñot, Yaun onen errukia ta biotz samurra; alanbere bildur, ta bildur andia erantzun eztagizun antxinako dontzella zoroai erantzun eutsena: «Etzatzuedaz». Ez, etzaitudaz gura adiskidetat: leen zeure adiskide izan gura izan neban: dei egin neuntsun predikadorean, eta konfessoreen bitartekoz: opa neuntsun neure grazia: zuk barriz geiago gura izan zenduan ibili zeure atseginkeria ta poz-zoro zitalen artean: ainbeste ta ainbeste bider ezetan artu ez dozu nire grazia: bada neuk bere ezteutsut orain emon gura, zuk gura dozunean.

Bada neure Kristiñaua, oraintxe Yaungoikoak grazia opa deutsun artean, Bere laguntasunagaz batera urratu egizuz pekatuen kate orreek, ze laguntasun ori bagarik ezin urratu zinaikez, ta gero ameneko eztozu izango. Eta, zer egingo dozu orduan? Nogana etxungo zara, Yaungoikoak itziten bazaitu? Zeure galdua orduan beintzat! Ezin geiagoko errukarria aurkituko zara, Yaungoikoak zeure deiari bapere yaramonik egin bagarik, burla, irri ta barre egin dagizunean. Eta auxe da luzatu bagarik penitenzia egiteko dagoan bigarren errazoa: irugarrena barriz ez yakitea gero izango badau pekatariak penitenzia egiteko gogo zintzo ta zolia.

Orretan bere orain gogor egiten baiako pekatariari bere pekatuen esaminea egitea, geroago astunago egingo yako; zegaitik eze zeinbat geiagore direan pekatuak, ainbat eta aldatz-gora garratzago egiten da eurak burutara ekarte. Orain gatx eta gazi egiten baiako pekatu eginen damua



izatea, ta betiko itxi bearra ordikeria, berba loi nasaiaik, atseginkeria zitalak, eta osterantxako pekatuak, gaziago eta gatzago egingo yako onik bost, amar edo ogei urtera, ekandu deungea gogortu eta sendotu danean, eta ainbeste pekatu esateko lotsea azi ta geiagotu danean. Eta, zer? Orain errazago dozunean gura eztozuna, gero gatzago ta gogorrago dozunean gurako dozula? Nok sinistuko dau ori? Berez beintzat okerretara dator eta gatx dana nai ezpada, gatzago dana gitxiago gura izaten da, eta zuk zeuk alantxe ebatsiko zeunke beste edozeinbere gauzatan.

Izango dana bada, ta yazoko yatzuna da ze, zeure burua ainbeste pekatugaz ikusirik, etsiko deutzazu buruari; usteko dozu zuk ezetara bere ezin ondo konfesadu ziñatekezala, ezin gauza onik egin ziñaikeala. Ai! esango dozu zeure artean, zelan nik esaminea egin ta burutara ekarri, nik egin dodazan ainbeste pekatu? zelan askatu alango matasa nastitua? Zelan esango deutzadaz konfesoareari ainbeste pekatu, ta alango itzal tzarrak? eta zelan egongo naz aurrera pekatu bagarik? Ni, seigarrengoan garbi, nire gorputz deungaro ekanduak bakerik emoten ezteustanean? Zelan itxiko dot tabernara bidea, nire larregiak eta ordikeriak gaitik konfesoareak esango deustan legez? Zelan adiskidetu ta tratadu urliagaz ta urleziagaz, esango deustan legez? Ai! Orain ezin nei: geroago egingo dot, onik onenbeste urtegarrenean, ain alditan, onen alditan egingo dot; orain ez deust lagun-duten ez arpegiak, ez biotzak. Eta zelan gero diñoanak bego diñoan, alantxe ibiliko da beti geroko luzamentuetan, beinbere oraingorik aitatu bagarik, beinbere bere burua erabagi bagarik. Beti gurako leuke; beinbere gurako eztau; beti egiteko, sekulan egin ez. Geroago ta gatzago, ta azkenean, eriotzako ordua aitatu dau, eta... eta orduan bere eztau egingo, orduan iños baño gatzago izan dabelako. Bildur bada, bildur beti luzatuaz luzatuaz darabiltzuenok zuen penitentzia ta Yaungoikoagana biurtutea, ze alan ibilita, eztozue bear bada izango aztirik, Yaunaren graziairik, ez egiteko gogorik; edo beinik bein ez irurak; baita irurak bagarik ezin ezer egin ziñaike; eta ezer egin bagarik, yakina da, betiko galduko zaree: eta infernuan betiko damu gauza ezteirean izango dozuez. Ikusi eztagizun.

GARIZUMAKO LENENGO DOMEKARAKO PENITENZIAREN GANEKO SERMOI BERA, PAPEL ZINTZOAGO BATETIK ARTUA

(B, 220-224. or.)

Cum jejunasset quadraginta diebus,
et quadraginta noctibus, postea esuriit.
Math. c.4 v.2.

Garizuma santu onetako sermoi oneri asierea emoteko ezin berba obagorik artu neike san Paulo Apostoluenak baño: «Ara emen, eldu yakuz egun onak; onexek dira osasunerako egunak»: onexek arako egunak zeintzuetan dirauskun Yaunak entzungo gaituzala, eta lagunduko deuskula. Urteko egun guztiak dira santuak Yaungoikoagana biurtuteko: guztietan dago Yauna prest, aita biotz samurrekoa legez, gu bere besartean artu, eta estuturik, amudioz beteriko laztan gozoak guri emoteko; baia orregaitik bere garizumako egunak dira onenak geure aita betikoaren adiskidetasuna ondo ondo irabazteko. Aldi onetan iños baño dei geiago egiten deusku Yaungoikoak: idigiten deuskuz bere errukizko ateak: eta gura dau, eze, guk itzirik bide okerrak, beragana biurtu gaitzean. Egun oneetan iños baño zoliago erregututen deutsa Elexa ama santeak Yaungoiko bere espaso maiteari parkatu dagiola bere puebluari, eta ez dagiala bere arerioaren eskuetan itzi, bere odolagaz garbituriko gizona. Orregaitik bada, neure enzula maiteak, eztoguz igaroten itzi bear egun osasungei onek, ez osasunerako daukagun abaegun eder au. Biztu gaitzean penitentzia egitera. Urratu dagiguzan geure biotzak damuaren andiz. Onetara biztu gura gaituz Elexa ama santeak, ifinten deuskula gaurko ebanjelio santuan, Yaungoikoaren Semeak gure pekatuak gaitik erremu baten egin eban penitentzia, yakin dagiguntzat eze, ainbeste egin beeban Zeru-lurren egilleak geugaitik, zer egin bear dogun geuk geure onerako. Ze biotz ain gogo-bagako aurtu leiteke, zein da gurako eztaben penitentzia egin, Ygkoaren semea orretan ikusita?

Gora dagiguzan, Kristiñauak, geure begiak mendi itzaltsu atara; ikusi dagigun zer bizi-modu arrigarri egiten daben berrogei egun oneetan, Yaungoiko guztia daian baten Semeak, eta ikasi dagigun guk bere zer egin bear dogun pekatuak-gaitik. Antxe aurkituko dogu Aita betikoaren Seme bakar maitea, zeru-lurren egillea, munduaren yaubea, eta Ygko egiazkoa, leku ikaragarri baten, lagun bagarik, etse bagarik, zer yan eztaukala, ez oerik non etzan, gau-egunak igaroten bere Aita eterno betikoari gugaitik erregututen, negar ta zizpuru artean, Ygko-agaz gizonen arteko bitarteko eginik. Au ikusirik, nok penitentzia egingo eztau? Nori astun ta garratz egingo yako gorputza nekatu bearra? Baia alantxe ain da itsua gizona, ain sentzun bagea, eta ain esker deungakoa bere egillearentzat eze, ezteutso yarraitu gura erakusten deusdan bidetik. Zarraturik daukez euren bela-



rriak, artzain onaren deiak ez entzutearren, eta itxiten dituez begiak mirarizko ikusgarri erakutsi-andiko au ez ikustearren. Guraago dabee euren ekandu zitai, ta olgura lotsagarriai yarraitu, Ygko.aren oñatsa osasuntsuetatik ibili baño, geroko itziten dabeela euren arimearen onerako bear egitea. Baia engañadurik zagoze kristiñauak, uste badozue orain gorturik egonik Yaunaren dei gozoak entzuteko, gero zuek gura dozuenean entzungo deusuela ta penitentzia egiteko astia, grazia ta gogoa emongo deusuela. Bildur izan zinaitekeze ukatu egingo deusuela, eta penitentzia bagarik artuko zaituela eriotzeak. Bildur santu auxe gura neunke euki dagizuen zeuroen biotzetan, penitentzia luzatu ez dagizuentzat; eta alan, izango da ne. gaurko sermoi-geia, zeuei adierazotea, ta ulertu eragitea, ainbat lasterren egin bear dozuela zeuroen pekatuen penitentzia, luzatu bagarik eriotzako ordurako, etc.

Lenengo zatia

Laburrak dira gizonaren egunak diño Job Profeta-igarla Stua. Ygkoak bakarrik daki nogiño elduko direan: berak izentadu eban norainoko ori, eta eztira aurrerago iragoko. Izanik au ain gauza ziurra, eta egiazko andi andia, orregaitik bere ain da eskergea gizonaren itsumendia eze, bete betean egon doaz, eurak gura dabeen asti guztia izango dabeela penitentzia egiteko. Esan leike ze, euren eskuan daukeezala orduak, illak, eta urteak. «Orain eztaukat astirik ezetarako bere, diño batzuk, neure bizi guztia da dandarrez arrastaka ibiltea; lagun asko daukat etsean; umeak gogait-arazoten deuste, eta galdu eragiten deuste arimea; ta ardura bagarik geratu naitenean, guzti au biurtuko naz Ygkoagana». Beste batzuk esan daroe: «Zer egin oneek amaitu ta esku arterik kendu ezkerro, ne. auzi onek atzera-aurrera egin ezkerro, ta bakean geratu ezkerro, izango da era ta sasoi ona Ygkoagana biurtuteko». Beste batzuk deungagotik yoten dabee. «Aldiari berea emon bear yako, esan oi daroe mutil-neskatilla zoroak. Orain gaztea naz, ta gazteak olgadu bear dau. Zaartuta gero Ygkoagana etxungo naz. Orain odola bere bizia dago: biziak dira bere gurariak eta erraz eztira erraz lotuten. Zartzaroan odolak oztuta, izango da abaegun galanta konfesiño onak egin, da bizitzea onduteko». Onelango atxakiak ateraten dituez askok eta auxe da egunean bein dantzugun leloa. Baia au guzti au eztala Demoniñoak, emoten dituzan putzak baño besterik, diño s. Agustin andiak. «Emon daroa, diño Santuak, emoten dau Demoniñoak

geroko bildur-eza, gero arimak alan galduteko». Gogora egizuz orain arteko zure pekatuak, erabili dozuzan bide makurrak, eta Ygkoari biurtu deusazuzan esker deungak, egin deusuzan mesedeen alderako, eta ikusiko dozu begian, ea errazoeirik badaukazu uste izateko Yaunak emongo deusula, buruan darabiltzun asti-une ori penitentzia egiteko. Lasterrago sinistu zinaike aserre daukazula zeure gogortasunagaitik, eta bere deiai egiten deusezun gor-egite orregaitik; eta ukatu egingo deusula, ta galdurik gedituko zareala. Baakit nik, eta ori egia garbia da, andia dala bere ontasuna, neurri bagakoa bere biotz-biguna, eta azkenik eztaukana bere errukia; baia ara orregaitik zelan zematuten gaituzan Ygkoak berak Salomon yakintsuaren aotik: «Ez egizu, dirausku, egunerik egunera luzatu zeure penitentzia, ta Ygkoagana biurtutea; bada bestelan beingoan yausiko da zure ganean bere aserretasuna, eta galdurik geratuko zara». Zeinbateri yazo ez yake zori gogor ori? Luzatu ta luzatu ebili zirean bere penitentzia, zuek orain legez, usterik gero eukiko ebeela astia, etorri yaken bat batean eriotzea, ez ebeen lekurik izan ezetarako bere, eta euren esperantza guztiak uts yo ebeen: ta ez eutsen ezer balio izan euren gerorako uste beteak, eta gogo benetakoak.

Alantxe yazo yakan arako ebanjelioak aitatuten daben aberatsari. Batu zituan onek ondasun guztiz ugariak; egin ebazan etse zabal ederrak; eukazan gura al leikezan yanari, olgura, atseginak: gauza guztiak eukazan bere gogora bete betean, eta zan guztiz zorionekoa mundukora. Bere burua alan ikusita, zirautsan buruari: «Ea urlia, badituzak, bai, ondasunak naroro; eztaukak bada ezpada yan, edan, ondo bizi ire gogora, ta ire buruari emon gura yoan guztia (baño)». Baia, ai! oraindo erakeria orreek buruari esaten ziñarduala, esan eutsan Ygkoak: «Ai, eroa! gaur gabeen kenduko deube bizitzea, ta, noenak izango dozak ondasun orreek?». Beste onenbeste yazo lekikezu zuri: zuk uste dozu eze urte askotako bizitzea daukazula; baia bear bada gaur gabeen Ygkoak dei egingo deusula. Baia zer diñot nik gaur gabeen? Al dakizu zuk, mutil, neskatilla, edo zareana zareala, eta alango geroko kontuakaz zabiltzana, al dakizu ordu bateko bizitzea badaukazu, edo memento onetan eriotza ilunak yo ta botako bazaituz? Ze agindu, ze berba, ze eskritura egin deusula onetarako, orduan kontu estua artuko deusula Yaunak? Eta au alan bada, zer izango da zugaz? Ze kontu emongo deusula Yaun oneri? Ta, zetan geratuko dira zure uste, gogo ta propositu guztiak? Zer balioko deusula gero bizitzea onduteko darabiltzuzan adi ta gogo sendook? A! au alan yazoten baiatzu zeure errukiena! Damuen damuz esan bearko dozu: «Zori-gaistoko nire gerorako gogo eroak! Zori-gogorreko nik penitentzia egiteko era-



bili nituzan atzerapen ta luzakuntzak! Madarikatuak biurtu yataz neure uste, esperantza ta proposituak! Ai bada ne. arimearen galdua sekulako ta eternidade guztirako! eta neure negargarria!». Kontu bada Ygkoagana biurtutea luzatu ez egiteaz, gizon eta andra, mutil eta neskatilla, gazte eta zar kontu beste onenbeste yazo ez dakizuen.

Guztiak ao betean autortuten dabee egia au: guztiak dakie garbiro eztaukela ordu segururik; baia eztaikit zek nagituten edo sortuten dituzan, bada eurenak balituezan legez bizitzako aldiak, izendatuten dituez urteak. Esan oi dabe askok: «Grain gazte nazan artean au egingo dot, gero bes-tea, eta gero au ta bestea egin ezkerro, biurtuko naz Ygkoagana. Orduan-txe egingo dot penitentzia. Ai ze bete betean esan lekikioen onelangoai. Yuditek beñolan Betuliako Sazerdote Agintariai zirautsena: «Nortzuk tza-ree zuek Ygkoaren tentazar ibilteko?». Ai zuen zoroak! bada arturik Ygko-ari eskua, izentetan deusazue Yaunari erruki izateko aldia, eta zuen gogo-ra ta zuen burutik zati egiten dozuen egunak. Baia esan: «Nok zureak egin dituz egunak eta urteak, zuk onetara zatituteko? Etorri ete yatzu zerutik Aingeruren bat, eta esan, biziko zareala garizuma onetan? Egin al dozu Ygkoagaz eskrituraren bat, zeinetan erosi deusazuzan urteak? Berba emon al deutsu Yaunak ezteutsula bizitzea kenduko onenbeste egun, il, edo urtetan? Eztakit nik nondik esan zinaikedan orlango gauzarik. Zelan bada azartuten zara izentetan ta atal egiten zeure egunak, zeuk zelan gura, azkenengoa itxiten dozula Ygkoagana etxuteko?». Ara bada, ne. kris-tiñaua, zer dirautsun Ygkoak: «Etorriko natzatzu ixi ixilik gau lapurra legez: eztozu yakingo nos, edo ze ordutan natortzun. Orduan eskatuko deustazu denporea, eta ezteutsut laketuko ez emongo. Orduan ezagutuko dozu, ze zoro garbia izan zarean Ygkoa gana biurtutea luzatuagaz, baia ezteutsu orduan ezaguera orrek ezer balioko. Eztagiguzan euki geure buruak arri ain labanaren ganean; epea ta asti-unea daukagun artean egin dagigun al dogun guztia dirausku S. Paulo Apk. Entzun dagiguzan orain Ygkoaren deiak ta deadarrak, entzun gagizan (tzat) berak arako urreratu-rik azkenengo eguna, dei egin degiogunean; eze berak dirausku esateko «oraindo asti luzea daukat», zegaitik eze guztiz aserratatzen dau gogoera onek, eta dakar ge. ganera bere justizia, bigarren zati onetan ikusiko dozuena legez.

Bigarren zatia

Bazenki bere gero gura dozun asti guztia izango dozula Ygkoagaz ondo paretako, etzeunke orregaitik bere gerokoaren begira egon bear penitentzia egiteko; bada eztakizu lekua izan arren, emon gurako deusun Yaunak egiteko grazia. Egia da pekatarririk andienari ta gogorrenari emon leikiola, eta batzuetan emoten deutzazala bere doe ta grazia, eta orregaz edozeinek egin leikeala penitentzia. Alantxe egin eben S. Mateok, S. Pau-lok, Sta. Maria Madalenak, eta beste pekatari askok: baia bera bagarik ezin iñok egin leike. Grazia au guztiai emoten yake, baia ez beti, Ygkoak gura dabenean baño: eta berak bakarrik daki nox gurako daben, eta zelan emongo daben. Baita orain Ygkoak opa deusun grazia gitxitan daukazu pekataria, baderitxazu emongo deusula zeuri gogoak emoten deusun-ean? Bildur izateko da, erantzun eztagizun arako Yakintsuaren aotik zematurik daukan moduan. «Dei egin neuntsun, ezeunstan erantzun: zabaldu neuntsuzan», neure graziako besoak, euren artean estuturik, laz-tan gozoak emoteko, eta ezeunstan begiratu bere; ezelan bere artu ez zen-duzan nik emoniko buruak; bada nik bere irri ta barre egingo deusut, arako zeure azkenengo eguna eldurik, dei egiten deustazunean, ezteutsut entzungo erregurik; billatuko nozu, ta enozu aurkituko». Auxe berau dirausku Ye.K°k. «Orduan ibiliko zara ne. billa, ta ez nozu topaduko, eta zeure pekatuan ilgo zara».

Gogor egingo yatzu bear bada berba au, eta usteko dozu eze, ezta-bela alangorik egingo Ygko. batek, noren errukitasuna dan neurri baakoa. Baia nik irudi bategaz adietan emongo deusut. Balilloako Erregeri gizon bat, ta balerautsa: «Yauna, tratu bat egin gura neunke berorregaz, eta modu onetan. Orain gazte nazan artean, ta indarrak lagunduten deusten artean, berorren arerioen alde ibilteko asmuak daukadaz: ne. bear badira, lagunduko deutset alegina, eta eurakaz bat eginik, ibiliko naz erruz berorren kontra gerra bizian: baia zartzaroan, arako indarrik eztaukadanean, berorregana biurtuko naz, berorren adiskide izango naz, eta orretarako ezteust ukatu bearko berorren adiskidetasuna». Zer deritxazu erantzungo leuskiola Erregek gizon oneri? Uste dozu esango leuskiola ondo eginik dagoala ta yoateko, bera beti antxe izango dabelata? Uste dozu artuko leu-keala adiskidetzat, beragana biurtu gura leukeenean? Edozeinberek esan-go dau ze parebagako zorakeria ta nabarbenkeria dala ori esatea, ta alan uste izatea.

Bada kristiñaua, beste onenbeste egiten dozu Ygkoagaz zeuk, luzatu ta atzeratu gura dozunean pekatuen penitentzia. Orain zabiltz bat eginik pekatuagaz, zeintzuk direan bere areriorik gogorrenak. Eurakaz batera egiten deusazu gerrarik biziena: kurutzean yosten dozu barriro bere



Semea, ta egiten deutzazu burla ta algara: eta orregaitik bere, uste dozu eze gogoak emoten deutsunean bere atetan dei egiteko, bere adiskidetzat artuko zaituzala? Esan deutsu leenago andia dala bere biguntasuna eta samurrak bere erraiak; baia alan da guzti begiraturen badogu Eskritura santuan zer egin daben onelangoakaz bildurturik ta arriturik geratuko gara. Zer yazo yakan Antioko Erregeari? Bizi izantzan bere denpora guztian Ygkoa gomuta bagarik, bere kontra gerra egiten. Loitu eban bere tenplua, banatu Yerusalengo uria, il Sazerdoteak, eta egin zituzan beste kalte ikaragarri asko. Eldu zan gero bere ezagututen bere gaistakeriak, eta asi zan Yaunari parka eske; baia alperrik; bada ez eban miserikordiarik alkanzadu, eta iltzan bizi izantzan modu moduan. Bardin yazo yakan Saul, Yudas, ta beste askori. Orregaitik bildur izan ziñaitেকে, erantzun eztagizun arako Birjina sinzorga-zoroai legez: «Etzazaudaz. Orain artean sarri ta sarri zeure adiskide izan gura izan naz: sarri ta sarri opa izan deutsut neure grazia: baia eztozu zuk gura izan: bada neuk bere eztot orain gura, zeuk gura dozunean. Oraingño ni baño laztanago izan dozuz ne. arerioak, ne. deiak baño obeto entzun dozuz eurenak: eurai yarraitu deutezu. Zoaz bada eurak gana; eskatu egioezu penitentzia egiteko grazia».

Nogana biurtuko zara orduan pekatari triste? Nori eskatuko deutzazu grazia? Eta, zelan entzungo deutzazuz Yaunari burla oneek? Zelango izango da zure naibagea, ta biotzeko iluntasuna! esan dagizunean Yaunak, arako otsein alperrari zirautsana: «Eztozu ne. diruagaz ezer irabazi gura izan: eztago bada orain zuretzat kartzela ilun bat baño, non beti betiko pagadu ta atera bearko dozuzan, niri egin deustazuzan destiañak ta (desprezioak) ostikopean erabilteak». Lotsaturik, mututurik, eta arriturik geratuko zara kristiñaua orduan. Ezagutuko dozu, orain ezagutu gura eztozuna; baia ezteutsu orduan ezer balioko ezaguera orrek. A ze zorigorrek egunen begira zagozen Ygkoagaz bakeak egitea atzeratuten dozuenok, zuei beste onenbeste yazo badakizue! O ze zori-gaistokoak zuen burutasunak! Ikusi eztagizun bada zeure burua estutasun onetan ezagutu egizu orain egia andi au, eta ez egizu luzatu penitentzia, zein dan biderik onena, ta seguruen, Ygkoaren grazia orduan aurkituteko. Biurtu zaitez bada beragana laster biotz guztiagaz, negar benetakoakaz. Erdibitu egizu ze. biotza damuaren damuz. Kendu egizuz okerrerietarako bide gaisto eta lagunok: bada asko ta larregi dira oraingñoko zitalkeriak. Ez egizu bada biarko luzatu penitentzia, zegaitik ze eztakizu elduko bazara biarko egun orretara. Gaur daukazu Yaunaren laguntasuna; oraintxe daukazu era ona, ez egizu bada abaegun au alperrik galdu. Asi zaitez ainbat lasterren: oraintxe pekatu guztiak gomuntara ekarri, ta damu ta proposi-

tu oso bategaz zeatz konfesetara. Andiak izan arren zure pekatuak, andia goa da Yaunaren errukitasunaren iturria. Ez lotsatu bada ze. arimako zau-riak zeruko mediku oneri erakusten: ze au eginik, mundu onetan arimean penitenziagaz ondo osatu ezker, alkanzadu ta yadietsiko dozu bestean Aita Eternoaren laguntasunean betiko osasuna eukitea, zein dan zuei opa deutsuedana Aitearen, ta Semearen, ta Espiritu Santuaren izenean. Amen.



4. GARIZUMA ARRATSALDEETAKO EUSKERAZKO SERMOEAK. SARTZAIERIA

(B, 121. or.)

In omnibus operibus tuis memorare novissima tua,
et in aeternum non peccabis.
Eccl.c.7 v.40.

1. Mundu onetako gauza guztietan agiri da Jaungoiko esku-andikoa-ren ontasuna: bada direanak egin zituzan gizonaren onerako: zeruak, luna, eguzkia, izarrak, abere edo animaliak, eta beste dakusguzan gauza guztiak. Eta ez bakarrik oneek, azaz ganetik mundu onetan direan gatz, neke, lan, eta naibageak bere ao betean dirauskue Jaungoikoa guztizko on-ona dala guretzako. Alazo baten diño onen ganean S. Juan Krisostomo-k:ezta gitxiago igarten Jaungoikoak deuskun amodioa gu kastigetea, palagetea baño: eta alan ezta maitetsuago, ez laztanago gloriako ondasun ta pozak aginduten deuskuzanean, infernuko penakaz zema-zemaka yagokunean baño. Baita esan leiteke, diño santu andi onek beronexek, oraindokoarren andiagoa dala infernuagaz zematut'orduan erakusten deuskun amodioa, zerua opa deuskunean baño. Zegaitik-ze indar geiago dauko eriotza, juizio ta infernuaren bildurak gu pekatu ta ekandu deungeetatik aterateko, gloriaren akorduak baxen. Orregaitik pekatu egin bagarik bizi izaiteko eztago gauza obarik, geure begien aurrean gure bizitzearen atserenak eukitea baño (eztago geure begien aurrean... eukitea langorik), dirausku Jaungoikoak berak.

2. Zegaitik gero? itanduten dau S. Bernardo-k. Bildur onek kentzean dabelako pekatua, eta biztuten gaituzalako egikera edo obra onak egiteko. Gomuta izanak, gero ta gero bere zetan yoko dogun, amatetan dau aragiaren sua, S. Juan Krisostomo-k diñoandi, kenduten dau ondasunen zale-tasun larregia, beera egiten dau gure andigura ta asko-erexia, bigunduten dau biotzeko gogortasuna, eziten dau aragia, eregiten dau arimea, biztu karidadea, exetu Jaungoikoaganako amodioa, eta maite izan eragiten deusku areriorik andiena. Eta beingoan esateko, Santu onen ustez (erexian), ezin leitekean gauzea da, au sarri buruan darabilenak pekatu egitea eta ezta onelangoa sekula bere infernura joango. Okerretara barriz, zori-

gogorrekoa, ta betiko galdua izango da gauza oneek aiztuten dituzana. Auxegaitik artuko dodaz garizuma onetako neure sermoe-gei ta berba-bidegarritzat. Baita mundu onetako neke, lan eta arduraak epetasun eta pazienza andiategaz igaro daizuezan, esango deusuet, zelango saria daukazuen zeruan: eta ezagutu dagizuen, zeinek zarratuten deuskuzan zeruko atea, eta botaten gaituzan infernura, adietan emango deusuedaz pekatuaren kalteak. Ara bada ze-en ganean berba egingo deusuedan bost domeka oneetan: gaur enzungo dozuez zeinbat, eta zelangoak direan pekatuak dakarguzan gatzak. Bigarreanean, ze itzaltsua dan eriotzea, eta zelau aurkituko zareen orduan. Irugarrenean esango deusuet ze ikaragarritzakoa izango dan eriotza-ostean Jaungoikoari emon bearko deusagun kontu estua. Laugarrenean ze arrigarritzakoa direan infernuko su, ala, min ta penak. Bostgarrenean, barriz, ze zori-onekoak direan zeruko atsegin eta pozgarri txitozko andiak.

3. Jaungoikoaren ama, Aingeruen erregiña, eta gizonen itxaromen edo esperanza, izan zaitez bitarteko zure Seme Jesus-egaz gure artean, eta alkanzadu egiguzuz beraganik bear dana legez, sermoeak egin eta enzuteko bear doguzan graziak: adi-erazoteko neure enzula maiteai ze iraun-gitxikoak direan mundu onetako gauzaak, eta zeinbat balio dabeen bestekoak. Yosi egizuz, arren, geure biotzak Jaungoikoaren bildur santuagaz bere legeko bide artezetatik ibili gaitez. Ea bada, geure ama ona, ama laztana, eta amodioz bete! emon egiguzu eskua gure ekandu deungeetatik urteiteko; gorde gaizuz geure arerioen atzamarretatik, eta bialdu egiguzu grazia ugaria, gure arimaak edertuta, Jaungoikoaren seme maite egin gagizan. Auxe eskatuten deusugu gure biotz guztitik esaten deusugula Aingeruagaz batera Abe Maria.



5. PEKATUAREN GANEKO SERMOEA

(B, 122-126. or.)

Per unum hominem peccatum intravit
in mundum et per peccatum mors.
Paul. ad Rom. c.5.v.12.

1. Neurribakoak dira pekatuak munduari ekarri deutsazan kalteak. Gure lenengo gurasoen pekatu bakar batek ekarri euskuzan, geugan dakusguzan gatz, neke, lan eta zori gogorreko gauza guztiak. Berak imini ginduzan Demoniñoaren agindupean; berak kondenau ginduzan erio-tzara, zarratu euskuzan zeruko ateak, eta egin ginduzan Jaungoikoaren arerio. Ain izan zan andia pekatu onegaitik egin genduan zorra ze, ez egoan gizon eta Aingeru guztien artean zegaz kitutu edo zegaz pagadu; eta alan beartzan Jaungoikoa bera gizon eginda, modu onetan, gure pekatuak arturik, bere odola emoitea. Baia, o gizon itsuaren itsumendia! Azturik, bada, kalte oneek, eta gomuta izan bagarik zer kosta yakan Aita Eternoaren Semeari, gu pekatuetatik ateratea, bera bere guraz biurtuten da, pekatu astunaren kateakaz estututera. Baita asko ezpailitzana legez bat edo beste egitea, ur otza legetxe parra-parra edaten dituz pekatuak. A bada: ondo balekie zer egiten dabeen Jaungoikoagaz, eta zelango kalteak dakarrezan euren buruentzat alperrik, eze gogo gitxiago eukiko leuke zelanbere pekatu egiteko. Orregaitik bada esango deusuet arrastegi onetan, lenengo zer egiten dozuen Jgkoagaz pekatu egiten dozuen bakotxean; eta bigarren, zelango kalteak dakarzuezan pekatuak.

Lenengo zatia

2. Gauza oker bi egin dituz nire eskergaistoko yente onek, ziraitsen israel-tarrai Jaungoikoak Jeremias-en aotik. Izanik ni euren Jauna, ni euren yaube ta ongillea, neu itxita pekatuen atsean dabiltz. Auxe berau errazoe andiagoagaz esan leigu geuri Jaun onek, bada izanik askozaz andiagoak geuri eginiko mesedeak, andiagoa da eta gogorragoa gure esker-deungea. Egin ginduzan ezer-ezetik, emon euskun bere antzeko arima bat, baita imini zituzan gure agindura bere eskuetatik urteniko gauza guztiak. Barriz ezagutu gura bagarik gizonak txitozko mesede andi oneek, biurtu zan

Jaungoikoaren kontra pekatu guztiz eskergeakaz, gerra bizia egiten. Baia, o Jaungoikoaren ezin-esanezko ontasuna! nos eta geiago bere Majestadearen kontra yaigiten zirean gizonak, orduantxe erakusten deutse bere biotza euren amodioan errerik. Orduantxe bialdu euskun bere Seme bakarra gu Demoniñoaren agindutik aterateko, eta bere seme egiteko. Egin eban Jesus onak Aitaren esana; baia, zer kosta etxakan? Abeletxetxu baten lasto artean yaio bear izan eban: bere prezio andia baño andiagoko odola yaiota zortzigarren egunerako emon bear izan eban. Barriz ogeta amairu urtean, zelango neke, lan, izardi, gose, egarri eta arduraak ikusi bear izan etzituzan? Eta nok esan, bere pasiño gogorrean igaro zituzanak? Ainbeste larritasun, ainbeste zauri, bost milla ta geiago azote, arantzazko koroe gogorra, esku-oñetako untze lodiak, eta nok daki zer? Bai, Kristiñauak, Jaungoikoaren seme J.K^o.k, bere aitagaz Jaungoiko dan seme onek emon eban gugaitik bere bizitza kurutze baten yosirik neke, min-alen, eta dexionragarrizko lotsarien artean.

3. Nok usteko ez eban odolezko itxaso onetan itorik geratuko zireala sekulako mundu onetako pekatu guztiak? Nok esango ez eban etzala izango gizonik, ainbeste amodio Jaungoikoagan ikusita, pekatu biurtuko zanik? Nok sinistuko eban oraindokoarren bere gogorturik geratuko zala gizonaren biotza? Bai, ai ene, neure Kristiñauak! lar bere lar dakusgu atxinakoak baxen deungagoak ezpagara, beintzat obeak ez kareala. J.K^o. gure Jaunaren odolagaz erosiak izanik, barrien barri zapalduten dogu balio andiko odol au. Bai, pekataria, auxe yazoten dala, pekatu egiten dozun bakotxean dirautsu S. Paulo Apostoluak (Hebr. 10. cv. 20). Aizturik, Jaun onek egin deusuzan mesedeak, ostikopean darabiltzu bere odola, eta zeure pekatuaz barriro loituten dozu bere gorputza, eta ezetan bere eztaukazuz gugaitik egin dituzan miraari guztiak, eta gugaitik igaro dituzan neke, lan, pasiño ta eriotzea. Zer dago au baño gauza ikaragarriagorik? A Kristiñaua, bazenki ondo zer balio daben Jesus onaren pasiño, ta eriotza ta odolak, auxe asko izango litzateke nonbaist santu andi bat izaiteko, diño S. Juan Krisostomo-k. Batu egizuz santu guztiak egin dituezan penitentzia, gaubela, gogortasun, barau, negar eta zizpuruak: Martiri guztiak ikusi dituezan presondegi, ezpata, su, katea, ta ganeko ikaragarritzko nekeak: eta zeruko Aingeru guztien merezimentuak. Direanak, bada, bat eginda bere, eztira eltzean Jesus onaren odol tanta baten baliora: bada guzti guztiok Ama Birjinearen merezimentuakaz naste bat egin da bere elitzatekez asko izango parketako pekatu bakar bat bere; barriz Jesus maitearen odol tistilla bat asko da guztien parkaziñorako. Eta orregaitik bere ain da andia gizonaren zorakeria ze, mundu onetako guraari



zitel txikienagaitik salduten dau zeru-lurrak dauken ondasunik andiena, gura leukeala bere aldetik, Jaungoikorik ezpalego, eta bere eskuak ezarten deutzazala bere borondate deungeagaz.

4. Ameneko usteko dozu au lar esatea dala. Enzun bada S. Bernardo-k dirautsuna. Gauza ikaragarritzkoa da, baia lar (geiegi) bere egia da, gizonaren borondate deungeak Jaungoikoa ilten dabela. Bada pekatu egiten daben bakotxak gurako leuke Jaungoikorik ezpalego, edo bai gitxie-nez bera kastigetako eskunerik ezpaleuko, baita au ezta beste gauzarik Jaungoikoa Jaungoiko izan eztedila gura izaitea baño. Beste-ain-beste diño Job santuak: pekatariak pekatua egiten daben orduan (egit-orduan), bere besoa gora egiten dau Jaungoikoa yo-iteko legetxe. Ain gauza lotsabakoa bada, eta ainbeste kastigu merezidu badau gurasoa yo-itera egiten dabenak, zer izango ete da auxe berau bere Jaungoikoaren, bere egillearen, bere salbatzailearen, ta bere Jaun ta yaubearen kontra egiten dabenak? Baita ezta emen geratuten pekatari itsuaren gogortasuna, bada benebenetan ilten dau aleginez Jaungoikoa berbera, diño S. Juan Krisostomo-k. Bada onelangoa Jaungoikoaren arerioakaz batzaindu egiten da, al daian gatz guztia egiteko, baita al balegi, zerura igon, ta bertantxe ilgo leuke Jaungoikoa bera, kastigadu zedaian. Onetara dator S. Paulo Apostoluak diñoana: pekatariak, pekatu eginagaz, barriro yosten dau kurutzean Jaungoikoaren semea, barriro burlazar ta irri-barreka yagoko. Ai neure mai-teak, nok euki leikean Apostolu andi onen indar eta espiritu guztia, zuei adietan emoiteko zer dan Jesus maitea pekatuakaz iltea! Yakin egizue bada dala bere negargarritzko neke, larri, eta tormentu guztiak barrieztetea, bost milla ta geiago azote emotea, arantza gogorreko koroia buruan sartutea, kurutzearen pisua baxen andiago bat bere lepo ganean imintea, eta kurutze baten untze lodiakaz yosita eriotza lotsagarritzko bat emoiteko.

5. Bein baño geiagotan aserratu egin izango zare, baita tint, Judasen eta Yudegen kontra Jaungoikoaren Semeagaz egin zituezan gogortasunak enzut-orduan, diño S. Juan Krisostomo-k, bada ara, yakin bear dozue eze, andiagoo dala zuen itsumendia aena baño, gogorragoa zuen oker-gaistoa, eta eskergeagoo zuen pekatua. Zegaitik-ze aek ez ebeen ezagutu J.K.º Jaungoikoaren semetzat; uste ebeen gizon galdu, guzurti oker bat zala, eta alan ain eriotza gogorra emoten eutsenean euren eretxian Jaungoikoaren borondatea egiten ebeen, eta bengetan ebeen euren legea ta Moises-en honrea. Egia da ez eukela euren errakuntzan atxakiarik, bada J.K.º. geure Jaunak, egin zituzan miraariak asko ta asko zirean edozeineri sinistu eragiteko Jaungoikoa zala; baia beindanik bein ez ebeen ezagutu, ze ganekoa ez eutsen eriotzea emongo, diño S. Paulo Apostoluak (1 Cor. c. 2. v.

8.). Orregaitik kurutzean egoala esan eutsan bere Aita Eternoari J.K.ºk.: Aita parkatu egioezu, ze eztakie zer egiten dabeen. Baia zuek ezaguturik nor dan Jesus amodioz betea, yakinik Jaungoiko egiazkoa dana, Aita Eternoaren seme bakarra dana, zeru lurraren egillea dana, eta aintzakotzat sinistu eta konfesadurik, orregaiti bere zatituten deutzazue zuen pekatuakaz, bere aragiak, urratuten deutzazue bere burua, zulatuten deutzazue bere esku-oñak, eta azkenean emoiten deutzazue eriotza guztiz nekatu bat. Au da, Kristiñauak, Jaun oneri emoten deutzazuen mesedeen orde? Onexek, euki deutsuen amodioaren, eta erakutsi deutsuen ontasunaren eskerrak? Ezta bera zuen Aita, zuen egillea, zuen salbatzailea, zuen Erredentorea? Bada, zelan daukazue bera ilteko biotzik? Zelan bera ilteko gogorik? Zelan bera yosteko borondaterik eta kurutze baten eskegirik ikusteko begirik?

6. Auxe da, Jesus ona, pekatariak emoiten deutsuen ondo eginen pagua, auxe, eurai eginiko mesedeen saria. Eurakganako amodioz beterik, emon deutsezu daukazun guztia: asko ez eretxirik eurak zeure antzera, ta irudira eginari, zeure odolgiñokoa emon dozu, eurak pekatuen menpetik ateratearren. Baia, o gizonaren ezin-esanezko gogortasuna! Ezagutu gura bagarik zeu euren ongilletzat, ostera yosten zaituez kurutze baten, Yudeguak baxen untze gogorragoakaz. Baia, Jauna, andia bada bere gizonaren gogortasuna, andiagoo da zuk edozein bere gauzatarako daukazun eskua. Ea bada, Jesus maitea, bigundu egizuz gure biotzak ezagutu daigun gure pekatuaren eskergetasuna, baita asko ezpada onen ezaupidea berari gorroto artuteko, izan bedi edolanbere yakitea zelango kalteak dakarguzan gure arimearen arerio aserre onek, eta auxe da esan deutsuedan.

Bigarren zatia

7. Ain da andia gizonaren biotzeko astuntasuna ze, ezta ezetara bere biurtuko, ez izanik bere onen, edo gatxen bildurragaitik. Andia da zelan-bere Jaungoikoari zor deutzagun amodioa, eta ezin-esanezkoak dira berak egin deuskuzan mesedeak, eta orregaitik ez geunke auxe baño besterik bear, Jaungoikoaren adiskidetasuna galduten bildur izaiteko. Alanbere au ezta asko izaiten gizon esker gaistoko zoroa pekatuen gorrotoan sartzaiteko: baita orretarako indar geiago euki daroa beragaz bere buruari egiten deutzazan kalteen ezaupideak, Jaungoikoari emoiten deutzazan atsakabeen anditasunak baño. Enzuzue bada pekatuaren kalteak.



8. Eskritura Santea irakurtea baño bear eztogu ezagututeko ze negar-garrizkoak direan pekatuak munduari ekarri deutzazan gatzak (1 Pet. 3. v. 20). Pekatuakaitik geratu zan lurra uriolakaz estaldurik, eta zortzi gizonez ganeko guztiak itorik: pekatuakaitik yatsi zan zerutik sua Sodoma, Gomorra eta beste iru Uriren ganera, eta zireanak erre zirean. Dabid Erregearen pekatuagaitik iurogeta amar milla gizon il zirean. Ermuan egin ebeen pekatuagaitik ogeta amairu milla Israel-tarrai emon eutsen eriotzea. Jaungoikorearen puebluari pekatuakaitik etorri oi yakozan neke, lan, gatz, eta gauza gogor guztiak. Zegaitik iminten zituzan Jaungoikoak euren arerioen menpean? Euren pekatuakaitik. Zegaitik eroan zituezan katea astunakaz esturik Ejipto, Asiria, Babilonia ta Damasko-ko Erregeak? Euren pekatuakaitik. Zegaitik deritxazue dagozala gaurko egunean errege bagarik, lege bagarik, elexa ta altara bagarik? Euren pekatuakaitik. Baia, zer daukagu, zer yoan Israel-ekoakgana? Geuk geure egunetan dakusguz pekatuaren kalte txitozko eskergaak. (Denpora) Aldi onetan dakusguzan auzi, supituko (beingoango) eriotza, su, gose, pobreza, labore falta ta beste neke ta gatz guztiak pekatuetatik datoz. Alantxe esaten eutsen Moises-en bitartekoz Jaungoikoak berak Yudeguai (Deut. 28). Emon deutsuedan lege santua gordetan ezpadozue, zori-gogorrekoak izango zaree zuen gauza guztietan: zorigogorrekoak urian, ta zorigogorrekoak kanpoan; zorigogorrekoak etxean, ta zorigogorrekoak soloan. Ereingo dozue garia ta artoa, eta eztozue ezerbere artuko: euria bear dozuenean, eztau egingo; eta eguzkia bear dozuenean, ezta ikusiko (agertuko). Bronzezkoa izango yatzue zerua, eta burrunezkoa lurra. Biralduko deutsuet gosetea, gatxa, eta zori gaistoa; ilgo deutsuedaz ardiak, aariak, idiak, beiak, zaldiak. Suak, eta eguraldi txarrak erre ta galduko deutsuez etxeak, mastuiak, sagastiak, ortuak eta (mendiak) basoak. Kenduko deutsuedaz eriotza gogorragaz semeak, alabak eta gurasoak. Emongo deutsuet gatxa gatxaren ganean, nekea nekearen ganean, eta zauria zauriaren ganean. Azke-nean barriz, kenduko zaituedaz lurraren ganetik, eta ilgo zare biotzeko bildur itzal artean.

9. Gatz oneek guztiok, baita askozaz bere geiago yazoko yakazala dirautso Jaungoikoak bere puebluari, berak emoniko legea gorde ezik. Bada Moises-en bitartekoz emoniko lege gogorra ez gordeteak ainbeste gatz merezietan beeban, zeinbat eta zelangoak deritxazue mereziduko dituzala, J.K^o.k emoniko lege bigun, santu ta amodioz betea ez gordeteak? Zeinbat andiagoak izango dira lege onen kontrako pekatuak dakarguzan kalteak? Ain dira andiak ze, mundu onetan dakusguzan guztiak bat egin-da bere eztira asko beragaitik artuten dogun zorra pagetako, Jaunaren

ontasun ta errukitasunak parkatu ezik. Eta, arren bada, mundu onetan ikusiko bagenduz gatz eta neke andiak, eta onetan geratuko balitz pekatuen kalte guztia! Baia bildur nas, Kristiñauak, bildur nas, zein beste mundura eldu daitezcan emen pagadu gura eztoguna, an pagadu arazo zedai-guen. Baita andiak badira pekatuak gorputzari ekarten deutzazan kalteak, andiagoak dira zelanbere arimeari egiten deutzazanak. Da arimea pekatu egin baño leen, Espiritu Santuaren bizi leku, Jaungoikorearen egoitza, Aita Eternoaren seme, J.K^o.ren anaie, S. Pedro-k diñoandi, Jaungoikotasunaren partilla, eta laguna. Baia, zer uste dozue, egiten deutzala pekatuak? Lapur batzuk bideazko bateri egin leikioena. Sarri-askotan yazo oi da gizonen bat bere bidean yoatea diru zati andi bategaz. Urteiten deutse lapurrak, eta ez bakarrik kenduten deutse darioan diru guztia, baita bere ilten dabee ta bertantxe itxiten dabe lurrean luze, zauriz beterik, billosik, odolusturik eta ezain ezain eginik. Beste onenbeste egiten deutso pekatuak arimeari. Kenduten deutsoz graziaren ondasunak, bat-bere itxi bagarik, zauriz ta llagaz betetan dau: ilten dau, baita itxiten dau mundu onetan dagoan gauzarik ezainena baño ezainago; eta ain billosik ze, ezteutso isten zegaz estaldu Jaungoikorearen aurrean bere ezaintasuna. Orregaitik diño Ezekiel Profeta igarlariak: Pekatuak uxalduten dau gizon santua (c. 3.), eukan santidaderik, albora (iges) eragiten deutso bere ontasunetik, eta ezteutse balioko arean ordura arteko obra on guztiak.

10. Bai, Kristiñaua, bai: bazeunkaz, santu guztiak euki dituezan merezimentuak bere, pekatu bakar bat asko litzateke guzti guztiak beingoan galduteko. Ekarri bazenduz Jaungoikorearen ezauerara Apostoluak baño yente are geiago; (igaro) ikusi bazenduz martire guztiak baxen pre-sondegi neke, su, orio irakin, metal urtu, azote ta tormentu gogorragoak; egin bazenduz konfessore eta birjina guztiak baño penitenzia, barau, gogortada, ta gaubela andiagoak; direanak beingoan galduko zeunkez pekatu bategaitik. Bazeunkoz zeruko santu eta Aingeru guztien graziak bere, pekatu egin orduko bapere bagarik geratuko zinatekez. Gur'uzu enzun geiago? Bada ara, ta ikaratu zaitez enzut-orduan. Bazeunko Andra Birjina Maria-Santisimeak eta J.K^o.k berberak daukeen grazia bere pekatu bat bakarrik eginik (egin orduko) dan-dana galduko zeunke. Ai, ta zelan esan ginaian pekatuan dagoan arimea gaitik Jeremias-ek beñolan negarretan urturik ziñoana: Sartu da arerioa, arimako urian, eta eukazan gauzarik onenak artu dituz: itxi dau guztiz pobrerik, banaturik eta ilik! Baia, o gizonaren miragarritzko gogortasuna! Ain da andia euren itsukeria ze, ur otza legetxe parra-parra edaten dituez pekatuak: geiago yoakela uste dabee mundu onetako gauzarik txikien txikiena (edozein ezerezkeria) galtzean.



Jaungoikoaren grazia eta adiskidetasuna bagarik geratuten direanean baño (geratutean). Galduten badozu mundu onetako ondasunen bat; erretan baiatzu etxeren bat, galduten baiatzu idi, bei, aari edo beste ganaduren bat; zelango penea, zelango nekea! Mundu guztia arakatuten dozu bera topetako, gau ta egun zabilz mendirik mendi, etxerik-etxe, laarrarik laarra ta bazterrik bazter bere atsean. Ilten baiatzu maite dozun seme-alabaren bat, edo senar, emazte edo gurasoren bat, zelango negarrak, zelango ziz-puruak! Kenduten badeutsue diru puskaren bat, zelango atsakabea, zelango tristezea! Eztago nok poztu zagizan; guztia da gomuta izaitea, galdu dozun gauzea, ezin kendurik zeure burutik: barriz ezteutsu ardura-rik zeruan ta munduan daukazu onenagaitik; eztozu yaramaiten zeure arimea ilik euki arren.

11. Idigi egizuz, arren, zeure fedeko begiak zeure arimea pekatuan dagoanean ikusteko: begiratu egiozu zelan dagoan ilik, Demonioño bat dirudiala, ikatza baño baltzago, gorputz atsitu bat baño bere atsituago. Ikusi egizu zelan dagozan bere yaube eginik Demonioñoak, eta zelan daukeen katea lodi ta astunakaz estuta. Eta arritu ta ikaratu zaitez ikusirik arpilloa gorputz ustean legetxe, dabiltezala Diabruak zeure arimaan batekorik bestekora. Baita galtzaiera onei asko ezpaderitxazu, yakin eizu oraindo pekatu egiten dozunean uxatuten dozula Jaungoiko guztiz maitea zure arimarik, eta bein-betiko agurra egiten deutzazula J.K°. geure Jaunari, Andra Birjina Maria guztiz gozoari, ta Zeruko Aingeru ta Santu-Santai: galtzean dozuz Jaungoikoaren semeak, bere ikaragarritzko eriotzeagaz irabazi euskuzan, txitozko ondasun ta merezimentuak; eta eziñ ziñoakez zerura. Agur, diñozu alango orduan, agur, agur, zeru ederrak, etzaituedaz nik gura neure bizi-lekutzat; guraago dot neure pekatu, guraari eta gustu zitaletan ero erorik ibili, zuen atsegin, pozgarri eta kontentu artean beti-betiko bizi baño. Agur zeruko santu eta Aingeru guztiak, ez egizue nigaitik erregutu, eztot gura zuekaz batera bizi zeruko glorian, eztot gura zuen lagun izan; naiago dot Demonioñoakaz naste erretan sekula betiko infernuan egon. Agur Ama Birjina Maria, eztot zure arpegirik ikusi bere gura, ez egiozu nigaitik erregutu zure seme Jesus-eri, ze gurago dot neure pekatuetan sarturik egon: naiago dot neure arerio gogorrakaz naste bizi infernuko su, neke, ta zorigogorrean, zure laguntzan bizi baño. Agur zeu bere, neure salbatzaille, Erredentore ta Egilla, gorroto deutsut, etzaituedaz ikusi gura: bota nagizu zure aurretik Infernuetara: bada gurago dot zure gorrotoan eta ezin-ikusian bizi, pekatua itxi baño. Ba'kit infernuetara betiko noiala, baia ezta ardura: ezteust arean, mundu onetan nagoan artean neure gustua egiten badot.

12. Zer dirautsazu, Jesus Maitea, pekatari galdu oneri? Zer esango deutsat? Neure semea, neure maitea, nire Kristiñau laztana, ze gatx egin deutsut nik, edo zetan izan natxatzu astuna ta gogaitgarria? Ze pekatu ikusi dozu nigan, modu lotsagarritzko onetan ni itxiteko? Edo, zetako zure ta nire arerioai, niri baño amodio geiago euki deutsezu? Egin deutsue orreek nik baño mesede geiago? Egin zaituz ezerbere ezetik Demonioñoak? Emon deutsu bizitzea munduak? Edo al dira andiagoak, aragiak emon daikeuzan atsegin, poz-aldi ta kontentuak, nik zuretzat zeruan daukadazanak baño? Eta oneri gitxi baderitxazu, ez munduak, ez Demonioñoak, ez aragiak, ezpabere, neuk, neuxek erredimidu ta erosi zaitudaz, ez urre-zuri ta gorriagaz, ez zerubakaz, ez eguzki, irargi ta izarraz, ezpabere neure balio andiko odolagaz. Testigu dira artu nituzan bost milla ta geiago azote; testigu buruan daukadan koroe gogor au; testigu esku-oñak bate-rik bestera zulatu deuten untze gogor oneek: testigu dira dakusuzan zauri edo llaa oneek: eta testigu kurutze au, zeinetan yosirik nakutsun. Baia orregaitik bere min andiagoa emoten deust zu galdu bearrak. Auxa da nire biotza erdibituten daben ezpatea. Ea bada nire seme laztana etzaituez galdu, erdu nigana. Bildur bazara ainbeste pekatugaz nigana etorten, yakin egizu etzaitudazala botako. Enituzan bota S. Paulo, S. Mateo, Sta. Maria Magdalenea eta beste pekatari asko ta andiak. Ea bada, neure Kristiñau maitea, bizkortu zaitez, erdu laster; eta bazagoz ikatza baño bere baltzago, eta Demonioñoak baño bere ezainago, edurra baño zuriago, eta eguzkia baxen ederrago egingo zaitudaz. Poztu zaitez, pekataria, opa deustun parkaziñoagaz, eldu zaitez Jesus maite onen onetara, eta esan egiozu negarretan urturik: Neure Jesu-Kristo Jauna.



6. PEKATURAKO BIDEA EMOTEA

[ESKANDALUZKO PEKATUA]

(J, 201-210. or.)

Vae mundo a scandales...

Vae homini illi per quem scandalum venit.

Math.c.18.v.7.

Pekatu bat munduan askok eta askok egiten dabeena: pekatu bat bestea baxen arima geiago galduten dabena; pekatu bat zeinen kontra Yesukristo-k zemakuntza itzalakaz berba egin eban: auxe da gaur nire berba-biderako artuten dodan geia. Besteai (lagunai) pekatutako bidea emotea, auxe da pekatu orren zabaldua, ainbesteen galgarria, eta zeinen kontra erakutsi eban ainbeste su Ygkoaren Semeak. Pekatu guztiz zabaldua, bai, eta eztaikit esan eztagidan geienak egiten dabeela. Bada, nok esan lei: nik garbi daukat burua, nik iñori bere ezteutsat deungarorako biderik emon? Ai! orretarako ezta bear, askok oker usteko dabeen legez, pekatu egiteko esatea, ez alangorako burutasunik, edo aurrera biderik emotea: asko da, ziñoian antxina Tertuliano-k, eta diñoie gero ta gaurko egunean teologo yakintsuak, eurak egin leikeen gauza okerren bat euren begietan egitea. Baita, zein da ori egiten eztabena? Ze bildur artuten yako besteen aurretiko ondo ezta edo oker dana egiteari, edo deunga dana esateari?

Emeti gero zer? Ai! gatxagaz dagon bat asko izaten da erri guztia, eta batzuetan erreinu guztia atsituteko. Eta ainbestek pekatuaren gatx okerragaz galduta dagozanak eta besteai eztitu (eradendu, ezarri, erantzi) ezin nik dabilatzazanak? zer egin bearko eztabe? Egiten dabeena eta yazoten dana da, ainbeste ta ainbeste donga egitea, mundu guztia galdutea, eta infernua gizon-emakumez bete-bete egitea. Onek sumin andi bat emon eutsan J.K.ri, eta biguntasuna eta errukia bera zan Yaun gozo au asi zan ai ai bildurgarrika, bai alango bideak emoten dituezanen kontra, bai orretati galduten direanen kontra. Ai munduagaz, ziñoian, pekatutako bideak gaiti! Ai onelango bide dongaak emoten dituezanakaz! Oba leukee oneek errota-arri bat iduneti (samati) estuta, itxasoan ondatuko balituez. Onelango berbakaz adietan emoten ebalu guztizko kalte andien begira dagozala bitzuok. Onetati agiri da ze mesedegarria izan lekikezuen onen ganeke sermoia, eta zorionekoak zuek, beratati alango biderik geiago ez emoteko, eta leen emonen penitentzia egiteko bideak eta asmuak artuten bado-

zuek, eta nik esker andiak emon bearko deutsadaz Jaunari neure bidez mesede andi ori egiten badeutsue. Dendatu bear dot bada, ea Jangoikoa lagun dodala, ea alangoren bat egin al banegi.

Eta, ze berba-bide oberik artu nei nik J.K.º.k, aitatu deutsuedazan berbetan artu ebana baño? Bai, Jaun au uste dot artu niri bide ori erakusteko gidaaritzat. Esango deutsuet bada bere berbakaz. *Vae mundo a scandalis*: ai munduagaz pekatu bideak gaiti! Eta, zegaiti? Bide txar orreek askoren ta askoren arimeetan egiten dituezan kalte ikaragarriak gaiti: auxe izango da lenengo zatia. *Vae homini illi per quem scandalum venit*: ai deungerako bidea emoten dabeenagaz! Eta, zegaiti? Bere buruaren ganera dakan kalteak gaiti: ara emen bigarren zatia. Berba baten pekatutako bidea emoten dabenak bere buruari, eta besteai egiten deutsezan kalteak egingo dabe ne. sermoi-gei guztia.

Vae mundo a scandales... Vae homini illi per quem scandalum venit. Math. c.18. v.7.

Arratsalde onetan Ygkoa lagun dodala esan bear deutsuet geienak bear dozuen, eta ondo arturik mesede andia egingo deutsuen sermoia. Bear bada zuek entzuten dozuenean besteai pekatutako bidea emotearen ganean izango dala, eztozue alan usteko, eta zuen artean esango dozue: zer, geienak bear doguna? Geienak emoten al dogu pekatutako bidea? Orren gaistoak egin gura gaituz geienak? Ez, eztaoagu guk orrelango pekatu tzar andirik egiten: olango pekatu eskergaak gitxitan ikusten direanak dira. Onelan uste dabe askok munduan, eta emeti dator gauza oneri ain bildur gitxi artutea. Baia ezta ori olan, eta deungerako bidea emoteko ezta bear errian berba leku andia iminiko daben, edo imini leikean pekatuturik, eta ain gitxi pekatu egiteko garbiro esatea, edo orretarako buru txarra emotea, osterantzekoakaz bere sarri ta sarri emon yoake. Orretarako asko da ziñoian Tertuliano-k, eurak egin leikeen gauza txarren bat euren begietan egitea, eta au geienak egiten dabe edo egin daroazue. Eztago munduan pekatuturik eztaukanik, eta besterik uste dabenak berak bere buruari guzurra sinistu eragiten deuto. Geienai esteutse ezer (arean, ardura) euren ondo ezta iñoren aurretiko egin gaiti. Eta ar-or asko dana pekatutako oñ okerra emoteko: ar-or geienak pekatutako bidea emoten. Eta, emeti zer? Geienak indar geiago dauken legez deungerako, enparaduak onerako baño, emeti gero pekatuak geiagotutea, eta mundua deungagotutea: emeti ainbeste pekatu ta pekatari: emeti ainbeste kalte arimeetan. Orregaiti esan deutsuet zeuen arimeen mesedegarri andia izan leitekeala gaurko sermoia, eta alantxe izango da izan bere, zuen biotzean alango pekatu ikaragarrien gorrotoa beratati sartuko baneutsue.



Eta, ze berba-bide oberik artu nei nik orretarako, Yesukristo ge. Jau-nak artu eban zemakuntzazkoa baño? Jgko ta gizon egiazko onek, bigun-tasuna eta errukia berbera dan Yaun andi onek, alango pekatu-bide deun-geen ganean berba egiten eban baten, su santu bat artuta (asi zan aiaika itzalakaz zemaka bai zemaka bide txar orreek artuta pekatu egiten ebenai, bai bide orreek emoten dituezanai. *Vae mundo a scandalis* esan eban: ai munduagaz pekatu-bideak gaiti. *Vae homini illi per quem scandalum venit*: ai pekaturako bidea emoten dabenagaz. Auxe da bada zuen onerako nik artuten dodan sermoi bidea) asi zan aiaika, adierazoten ebalu oker andiak egozala bai pekaturako bidea emoten dabenentzako, bai bide ori artuten dabenentzako. Nik bada bere berbaak artuta esango deusuet: *Vae mundo a scandalis*, ai munduagaz pekatu-bideak gaiti! Eta, zegaiti? Bide txar orreek askoren ta askoren arimeetan egiten dituezan kalteak gaiti: auxe izango da lenengo zatia. *Vae homini illi per quem scandalum venit*, ai deunge-rako bidea emoten dabenagaz! Eta, zegaiti? Bere buruen ganera dakazan kalteak gaiti: ara emen bigarren zatia. Berba baten pekaturako bidea emo-ten dabenak bere buruari, ta besteai egiten deusezan kalteak izango da ne. sermoi-gei guztia. Zorionekoa ni, pekatu itzal onen bildurra ta gorro-toa zuen biotzetan sartuta bera egiterik alderatuten bazaituedaz.

Modu bitara emon yoake geien besteai deungerako bidea. Bata da iñori pekatu dan gauzea egiteko aginduten yakanean, edo orretarako burutasuna, aurrera-bidea edo gantza emoten yakanean edo bestea zelan-alan orretan iminten danean. Alan egiten dabe gurasoak, umeai ezer ostu-teko aginduten deuseanean: alan iñori guzzurren ganean bere alde yura-mentu egiteko esaten deusanak: alan besteren bateri esaten deusanak eztagiola lagunari parkatu esan deusan berba txarra; bera legez balitz kerella bat esarriko leuskiola: baita bere alan emon daroe askok munduan seigarrenerako bidea. Bigarren bide deungea emoteko modua da oker dana edo oker dirudiana besteren aurreti egiten danean, besteak orretati gero orrenbeste egiteko burua artuko badau, edo artu al baleike. Eta au yazoko da beti iñoren aurrean gauza txarra egiten danean ain onak ezpa-dira ori dakusnak eze ikusia gaiti eztaben okerrera biderik artuko, edo ain deungaak zeinda ori bagarik bardin bardin egingo leuken. Pekaturako bidea emotea da berba loiak (barre-eragingarriak izanagaiti) besteen aurreti, guztiz bere gazteenetati, esatea; kanta ipuin edo destaña zikinak esatea: baatzako dantzaak egitea; mosua, laztana besartean artzea, ukiera okerra mutilak neskeari edo bestera neskeak mutilan egitea; emakume gauzeak soña bear eztan legez erabiltea.... eta arabere geiago gazte gaixo-ai seigarrenerako zantarkerietarako begiak idigitea. Pekaturako bidea

emoten dabe gurasoak umeen aurreti biraoak, aienak, berba zantarrak, gaztezaroko zorakeriak esaten dituezanen, edo anditxu egin ezkeru eura-kaz naste eratzen badituez, edo euren gelaan, orregaiti geldi egoten eztaikiela, eta ondo eztan besteren bat seme-alaba orren begietan egiten badabe. Beste onetariko asko sermoian bertan aitatuko deusuedaz. Au aurretik dozuela, ikusi daigun zelango kalteak egiten deusezan besteai alango bide-txar emollaak.

Ai bada gogotan artuko balebe besteai pekaturako bidea emoten dabiltzazanak, zelango kalte eskergaak egiten deusezan! ezteritxat izan-go leukeela orretarako biotzik. Oneek dira arako Ygkoak diñozan gizon gaixoz galduak, erri guztia atsitu bear dabeenak; oneek, Ygkoaren izena arako antxinako Profeta guzurti okerrak legez erririk garbitu gura dabee-nak, eta oneek San Paulok ziñoan gizon gaisto errebesa legez, diabruaren lanak eta zer-eginak egin bear dituezanak. Bai beintzat onelango kristiñau txarrak galduten dituez arimaak, kenduten deutse Ygkoaren grazia ta adiskidetasuna, galarazoten deutse zeru ederra, ta ondatuten dituez infer-nu gogorrean. Baakizue gero au zer dan? Egon izantzare iños zuen artean zeinbat balio bear daben arima batek? Baia, eta nok au aditu? Nok ber-bakaz ulertu eragin?

Jesus laztana! zuk erosi zenduzan arima orreek nekeakaz zeure odo-lagaz, eta zeure Eriotzeagaz, eta zuk dakizu ondo ondo zeinbat balio daben arima batek. Esaiezu bada, arren, arimaak bildur bagarik galduten dabiltzazanak arima orren balioaren anditasuna. Erdu ona gatxerako bide okerra emoten dozuna, edo emon izan dozuna, eta emen entzungo dozu Yaun onen aoti arimearen balioaren barria. Baakizu Yaun au dala Ygko egiazkoa, Trinitadeko bigarren personea? Baakizu berau gizonen arimaak pekatuik aterata zerurako irabaztearren gizon egintzala, bizitza gogorra, pasiño garratza ta eriotza itzala igaro ebala? Bai, baakizu: baia orreek gogoari obeto emoteko, yarri zaitez belauniko santokristo baten aurrean, eta begira ondo ondo ze errukarri gaixo eginik dagoan.

Begira bada zelan daukan burua arantzaz galdurik, arpegia matralla-koakaz baltziturik, anditurik ta ezaindurik, gorputza azotez ebagirik, eta dana bururik eta beatzetara birrindurik eta zati oso bagarik. Eta alan ikus-ten dozunean alen alez il aginean itandu egiozu: Yauna, zek edo nok eka-rri zaituz onetara? Ze esku gogorrek, ze borraru itzal biotz-baakok egin izan dau zuga onelango desgarraria? Zu zeru-lurren egillea, zu Ainge-ruen errege, zu Ig-ko egiazkoaren seme bakarra, zu gizonen agintaria, zu pekatu baakoa, ta zu Ygko berbera, eta, onetara? Gaisto okerraren eriotza gogorra ikusi bearrera? Gizonik satzena legez guztien ostiko-peera, guz-



tien barregarri izatera? Eta entzungo dozu erantzuten deitsula: Ai gizona, zu ta besteak pekatuak aterata zerura eroatearren daroadaz nik oneek guztiok: eta arima bakar bat irabaztearren bear balitz beste onenbeste, beste onenbeste, ta milla bider beste onenbeste eroango neunkez, eta ondo pozik. Ainbeste egiten dot nik gizonaren arimea.

Baita zuk pekatuak bidea emoten dozunak, zer egiten dozu? Ygkoak ainbeste nekegiz irabazi izan daben arimea zuk galarazoten deitsazu: Ygkoaren semeak bere eriotza gogorragaz biztu izan daben arimea, zuk ilten deitsazu; eta Ygkoaren Semeak ainbeste egiten daben arimea zuk betiko infernuan ondatuten dozu. O nabarbenkeri azia! O lotsa bagakeri eskergea! O kalte ezin geiagokoa! Ai! ondo esan eban San Bernardok, geiago erakusten eutsala Y.K.^ori bide deungea emoten dabenak, eriotza gogorra emon eutsen Yudegu okerrak baño: bada aek, okerre bazan bere, emon eutsen berak ain biotzeti ge. onerako gura eban eriotzea; ez yakinean bazan bere, ge. onerako bota-arazo eutsen bere odol ederra: baia gatxerako bidea emoten dabenak bere aldeti daneti barrien barri emoten deuto lengo eriotza, iñorentzat gauza eztana, eta bai il ta galdu egiten deitsazala lengo eriotzeagaz erosi ta biztu zan arimea, edo arimaak.

Baita baakizu onetan zabilzan lotsa-galduko pekataria, baakizu ze kalte gogorak yatorkezan zuk pekatu eragiten deutezun arimai? Ai bada! nik orain egin al banengi antxina andra andi Agripinak bere Semeari egin eutsana! Onen Seme zan esku-urratu galdu bat, diruak ta diruak gatx bagarik emona gaiti ezer ez eutsana! Bein baten bada Seme orrek berreun ta berrogeta amar millaren bat erreal emoteko agindu ebanean, seme ori alango bide makurretati aterateko, ekarri eragin zituzan direanak, eta bere begien aurrean mai baten zabaldu ta esan eutsan: ene seme ara, ara, zer emoten doan. Onenbeste egin al banengi nik, oraintxe zure begien aurrean iminiko neuskezuz emeti zeru ederra bere betiko atsegintasun ta pozkari gozoakaz, andi infernu itzala bere sekulako neke aserre guztiakaz. Erdu, esango neuskezu. Lenengo zerua aurreti zenduala, erdu ona, ara auxa da Kristo-k bera biotzetik maite dabenentzat eta bere esana egiten dabeenentzat pretauta daukan leku ederra: auxa zeru-lurretako erregeak bere ondasun ta aberastasun andien alardoa egiteko edertu izan daben toki zabala: ara an non dagozan izer polit eginik ainbeste milla santu-santa: ainbeste milla millinoe Aingeru: ara an Maria Santisimea irargi bete ederra: ara an Yesukristo bera eguzki argi eginik: ara Ygkoa bera milla eguzki baño ederrago. Emen guztiak bizi dira alkarren bake onean, eta eder-ereti gozoan: iñok eztaki emen zer dan gatxa, gaixoa, nekea, mina ta naibagea: guzti guztiak bizi dira zoriontasun, atsegin ta pozezko ibaian

uriolaturik. Eta oneek guztiok eztira urte baterako, ez berrogei edo lau- rogei urterako, ez eun bir-milla, edo berreun milla urterako, ezpada betiko ta betiko, ta milla bider betiko.

Onelango gauzakaz gogorturik eta zoraturik legez ikusten zindudazanean, erakutsiko neuskezu beste alde baten infernu bildurgarria. An ikusi bearko zendukez argi motel baten bidez demoniño ikaragarriak, sugogorra, eta bertan dagozan osterantzeko gauza arrigarriak: zure belarriak entzun bearko leukez ango neke bildurgarri artean dagozan zorigaistokoen aiariak, txilioak, uluak, eta garraxiak: eta suurrak emongo leuskeuez bertako kirats ta atsitasun naskagarri guztiak. Eta ikareak eta bildurak konorte puskaren itxi, eta arnasa betetan asi zintezkanean esango neuskezu: ara, oneek nekeok eztira urte baterako, ez milla urterako; dira sekula ta betikoak. Baia, zer erakutsi? Bildur nas zein orretan gengo- zala bata baster bateti besteak besteti, ze. umeak, ogitukoak, lagunak, urten leikezuen sua ta garra dariela, zu bertan apurtu gurarik, eta dirautsuela: euk, euk, galdu gozak, euk ona betiko ondatu gozak: bada emen euk bere erre bear dok, emen betiko galduta egon bear dok.

Baia nik oneek zure begien aurrean imini ezinagaiti, fedeak darakutsu, eta zuk dakizun egia argia da, onak zerurako direala, non izango dituezan arako ez begik ikusi, ez belarrik entzun, ez gizoneri biotzek eguño emon izan ezteutsazan pozkariak: deungaak barriz betiko suetarako direala, non sekulako neke, ala, zorigaisto ta amurru ezin esan al artean erretan ta ernegetan egon bearko dabeen. Bada zuk pekatuak bide txarra emoten dozunak, zuk Ygkoaren Semeak ainbeste nekegiz, eta eriotza ain garratzagaz erosi ta biztu zituzan arimai betiko zeruko atsegintasun orreek galerazoten deutezuz: eta betiko infernuko neke ezin geiagoko orreek ekarten deutezuz betiko zoriontasun ederra, kendu, betiko zorigatz itzala emon.

Ai nok leukean orain San Paulo Apostolu andiaren biotz guztia, eta bere berotasun ederra orain zuei, berak beste aldi baten Korintokoai legez, zoli zoli esateko: *Peribit infirmus in tua scientia frater propter quem Christus mortuus est?* Zer? Zuek sinistu batek pekatua gaiti zeru ederra galdu, ta infernu gogorra irabazi egiten dabela: alangorik yazon eztakion J.K.^ok kurutze baten lotsarizko eriotza itzala igaro ebala: eta orregaitik pere, galdu gurako dozue gaixo ori, zuek gatxerako bidea emonda? Gurasoa zeure umearen aurreti berba loiak, biraoak, arrenak, eta ahenak esaten dozuzana, edo zugaz batera eratzota, begiak bear eztanerako idigiten deutsazuna, *Peribit*, baukazu biotzik betiko galduteko zeure ume gaixo ori, zueingaiti iltzan K.^o? Ugazaba gaistoa loikeriako suan erretan zagozana,



Peribit, izango dozu biotza betiko galduteko K^oren odolagaz eresia izan-tzan zeure otsein gaixoa; zeinek bear bada, zeure etsera bagarik ez eban alangoen barririk yakingo?

Lotsa galduko mutilla, seigarrengoa besterik zeure berbeetan, eskue-tan ta egikunetan eztakizuna, *Peribit*, galdu gurako dozu betiko infernue-tara arako neskatilla garbia, edo neskatillaak, alango burutasunik bere ez eukeenak, edo arako mutil inozente, zantarkerien barririk bapere ez ekia-na? Neska urten, zorapillo, zarabankadea, *Peribit*, emon bear deutzazu bide deungea zeure irri-barreakaz, edo barre zantzoakaz, zeure berba arin ernariakaz, edo nasaiakaz alango amesik ez eban mutilari; edo zeure ukie-ra (ukutza)kaz, eta zantarkeriakaz erakutsi biar deutzazu lagunari ez ekia-na, eta beinbere yakin bear ez ebana? Nonbait zuek etzare zuen artean egon zer galarazoten deutzazuen, eta ze kalte eskergaak egiten deutzazue-zan, osterantzean eztot uste ezelanbere alango gauzarik egingo zendu-keenik.

Esan egidazue ezpabere, entzungo bazendue or dabilela gizonen bat bideetara urteten, diru moltso andiak kenduten, eta eriotzaak egiten: edo lagunak artu, etseetan sartu, etse bere galantak ezer bagarik itxi, eta etse-koak bere ilten, zer esango zendukee alango gizona gaiti? Ze kastigu uste-ko zendukee asko dala arentzako? Zer eretxiko zeunskioe aren kalteai?

Bada, zer dauko zer ikusi gizon oker, errebes, galdu orrek egiten dituzan kalte guztiak zuek egiten dozuezanakaz? Gizon orrek kenduten dituz mundu onetako ondasunak eta gorputzeko bizitzea, zuek galarazo-ten deutzazue arimako grazia ta ondasunak; ilten dozuez Jesukristo geure Yaunak bere eriotzeagaz biztu, garbitu ta edertu zituzan arimaak. Lapur orrek garbituten deutsez denpora gitxi barru itxi bearko dituezan gauzaak; zuek eragozten deutzazue betiko zeruko atsegintasunik ede-rrak, eta egiten dozuez betiko infernuko neke gogorren yaube. Eta, zer dauke zer ikusi kalte batzuk besteakaz? mundu onetako kalteak andiko aldeko kalteakaz: egun bireko ondasunak galtzeiak betiko zorionak galdu bearragaz: begi itxi-idigi bateko alak betiko min, ala ta zorigaistoakaz?

Ez beintzat. Auxe da munduan egin leitekezan okerreria kaltegarrien artean kaltegarriena: auxe da diabruen egikune okerra. Bada, zer geiago egiten dau diabruak? Sareak zabaldu, lakioak eta tranpaak imini arimai yausi eragiteko? Deungerako bideak eta gantza emon? Okerrera pala-gau, loren-yau, ta kili egin? gero infernuan galduteko? Gerrea egin Ygko-aren lege gordetan dabeenai, eta Yesukristo-ren sillua daukenari? Eta ori guzti ori eztozue zuek egiten deungerorako bideak emonda? Bai, bai, zuek gaiti ondo ta ondo esan lei San Yoan-ek pistiaren izenagaz Antikris-

toagaiti esan ebana: zuei laketu (emon) izan yatzuela onai gerra egiteko ta azpiratuteko eskurantzea (eskua). Bai, zuei ondo ta ondo emon lekikezue San Paulo-k onelangoetan ebilen bateri emon eutsan diabruaren semea-ren izena; edo Satanas-ena, J.K^o.k san Pedro-ri bein baten emon eutsan legez ondo etzan gauzarako biruak emoten ondo-ustean bazan bere abiau yakalako). Lotsatu zaiteze bada, lotsatu: eta arpegia yausi bekizue alango eskergetasuna egin izan dozuelako: baia yausi bekizue zuen onerako, eta alangoen damutasun benetakoaz Ygkoagana biurtuteko. Ganekoan gal-duak zare eta zuen ganean ikusiko dozue Yaun onen esku gogorra. Onen ganean orain egin bear deutsuet ea besteen kalteen anditasunak erasonen bat egin deutsuenak, ekarri al baziñadez guztiz ondutera, pekaturako bideak emoteak zuen ganera ekarriko deutsuezan kalte ikaragarriak era-kutsita.

Bigarren zatia

Zeuei adietan emoteko bide deungea emoten dabiltzazanak kastigu ikaragarriak izango dituezala asko liteke esatea leen entzun deustazuena, zelan Y.K^o.k. esan eban: ai pekaturako bidea emoten dabenez! bada san-tuak eta yakitunak ao batez dirauskue eze, eskritura santuan ai ai iñorgai-ti esaten danean, esan gura dala eze arentzat izango direala kastigu esker-gaak. Baia nik zuei egia au argi obean imini gura deutsuet. Ara bada berba baten zer erakutsiteko gogoan nagoan. I. Pekatu onek emoten dau osterantzeko pekatuak baño infernurako bide geiago, eta II. bera izango da infernuan besteak baño gogorrago kastigadua. Entzun bada.

1. Esan deutsuet leen zelan deungerorako bidea emoten dabena gal-duten dituzan, Y.K^o. ge. Yaunak ainbeste nekegaz, ta eriotza ain gogorraz irabazi ta biztu zituzan arimaak. Emeti yatorko 1^o izatea bere pekatua osterantzekoak baxen okerragoa: yatorko 2n. izatea, nok bere kontra Ygkoaren aurrean eskatu: eta yatorko 3n. bere kontra aserre (ta errime) izatea sententzia emon bear deutsan yueza. Eta onek alan izanda , zeen begira dagoala uste dozue bide oker ori emoten dabena?

1^o Eta zuek entzuten deustazuenean pekaturako bidea emotea dala bestelako pekatuak baxen okerragoa, uste izango dozue eze, nik berba egiten dodala egiten dituzan kalteak gaiti, eta ezteutsuet nik ezezkorik esango. Egia da ori bere, baia eztozue ori okerragoa izateko bide bakarra. Beste alde bateti bere bauko pekatu onek osterantzekoak baño oben tx-



rragoa, eta da bide emoten dabenaren lepora datozalako bide atati gero egingo direan pekatu guztiak. Ezteutsat nik au neure aragiari kenduten. San Basilio andiak esana da alango bide txarrak emoten dituzanen erru Ygkoak iminiko dituzala, besteak gero atati egin daikezan pekatuak, baita eurak il da, egingo dituezanak bere.

Baita ez beronek ez bestek esango ezpaleu bere, berez datorren gauzea da. Izan bere pekatu bidea da ereiten dan azia, zeinetarik gero ernetan direan ainbeste bekatu-buru, barriro ereingo direanak. Eta, eztira orreek izango ereintzallearentzat? Da larrari, edo sasiari emon yakan su apurra, zeinek gerora gerora indarrak artu, zabaldu, eta basoak, eta baso ederrak erre bear dituzan. Eta, etxakola guztien errua emongo lenengo sua emon ebanari? Bai beiritzat, Ygkoak Jeroboan-en lepora egin zituzan, berak bidea emonda bere, aldiko Israel-darrak, eta giza-aldi askotakoak egin zituezan pekatuak, eta eskritura santuak bera ilda bere bere (ondo-rengo) oñordeko Erregeen pekatuak aitutean. Jeroboan gora, Jeroboan bera, beti gogoan dituz Jeroboan-en pekatuak, euretan guztien sustraia billatu bear baleuen legez. *Peccata Jeroboam qui peccaverat et peccare fecerat Israel*. Zuk bide-deunga emollea, uste izango dozu bear bada eze, bide txar ori emoten daben gauzea egit-orduan, pekatu bakar bat egin zenduala. Izan bedi, ondo, zuk gura badozu, yakitunak besterik esango badeuskue bere, baia pekatu ori izango dozu pekatu ernaria, beste askoren yaube egingo zaituzana. Zeuk emon dozun oñ orretati erne ta sortuko direan pekatu guztiak zeure bizkarrera datoz, eta Ygkoak sartuko deusuz zuk eginen artean. Ai, ze kontu ikaragarria beintzat, baia gitxik gogotan artu gura dabena! Bera gaiti eztogu au ain arin igaro bear.

Guraso txarra, umeak Yaunaren bildurpean aziten eztozuzana, erdu ona ikusten zelanbait zeure pekatuen erreskada luzea. Guztien kontu arteza guztiak dakizan Ygkoak atera leikezu, eta nosbait aterako deusuz: baia ni ez nas gura orain artean legezitsu mustuan bizi zaitezana. Zeuk, barbarako, daukazu arturik birao edo yuramentu urtika egoteko (iñarduteko) izkune txarra, edo lagunari iraunak, errieltaak, aserrre-aldiak emotekoa, edo ardaoan yaustekoa (igarotekoa), edo seigarrengo berbetan, edo ganekoetan etzara garbia. Ara bada, zeure umeak ikusi edo entzun egingo dabe, zeure eten eta oben dongea, eta, yakina da, ikasiko dabe beste ainbeste egiten, eta zu langoxe egin-eginak urtengo dabe, eta besterik sinistutea zorakeria da. Ezkonduko dira biar edo etsi ume orreek, irakatsiko deutse euren umeai, oneek eurenai, oneek eurenai, eta alantxe Ygkoak dakian belaureragiño yalgiko yake gurasoetarik umeai, maiorazgia legez ekandu okerra: eta ori da, ta ez besterik zuek esan daroazuna, etse-

ren baten abe txarra izatea, edo angoak zan gaistoa izan bearra. Ezta ori guztia: zuri eta aei ikasiko deusue lagunak, auzoak, errikoak eta erbeste-koak: irakatsi bearko deutse Ygkoak dakizan lagunai, oneek besteai, aek besteai, eta alan. Zeinbat pekatu deritxazu oneek guztiok egingo ditueza-la? Zeinbat? Bada orreek guztiok datoz zeure lepo-ganera eta Ygkoak artuko deusuz zuk eginak legetxe. *Qui peccaverat, et peccare fecerat*.

Zeuk mutil gazte, edo zuk neskatiila irakasten deusazu lagun bateri seigarreneko bear eztan zantarkeria, edo zure esanagaz, zure eginagaz begiak idigiten deusazuz alango gauzeetarako. Bein onetara ezkeronekez egongo da galdi, eta berak egin ezeze, baita besteren batzuei irakatsi bearko deutse. Oneek beste ainbeste, besteak beste ainbeste, eta alan yoango da Ygkoak dakian artean. Zeinbat pekatu egingo dituez guztien artean: zeinbat? Bada guztiak datoz zeure bizkarrera, eta direanak ezarriko deusuz Ygkoak zuk eginak legetxe. *Qui peccaverat et peccare fecerat*. Alantxe da gitxi goiti beeti beste muetetako pekatuakaz bere, eta ezta izango euren artean bat, bein deungerorako bidea emon ezkerone, bere eredian bat pekatu andi tzar askoren yaube egingo eztabenik. O zelangoko pekatu erreskada luzea ganean dabeela agertu bearko dabeen Ygkoaren aurrean onelango bide gaistoak emoten dituezanak! Eta ainbeste kalte egiten dituzan pekatu batek, ainbeste pekatu ain andi tzarren yabe egiten daben pekatu batek, eztau infernurako bide andia emongo? Zeinek gero geiago?

Eztakit nik emeti baiatorke pekatu-bide emolleai, izan oi dabeen biotzeko itsutasuna ta gogortasuna. Eztituez geienean ezagututen onelango pekatuak, eztituez konfesetan, eztaroe euren ganean damutasunik artuten: eta ansia bagarik eta ardura bagarik bizi oi dira bapere okerrik egin izan ezpaleben legez. Yazoten yake onelangoai Dabid erregeri legez. Dabid errege artean ain santua izantzana, argala legez yausi zan Bersabe andra ezkonduagaz. Eta kateak katea daroian legez, bere pekatua estalduteko, Urias, aren senarra il, eta andra orregaz ezkondu egin zan. Bere erreinu guztian berba leku andia imini eban, eta ez ebilen beste zer-esanik: orregaiti bere Dabid sor ta gor, eta Ygkoagana biurtuteko burutasunik ez. Alantxe egontzan urte oso baten, eta bear bada egongo zan sekula ta betiko Ygkoak berak Natan Profeta santua biraldu (agindu, bota) ezpaleutso. Alantxe bada yazoten yake pekatuak bide txarra emoten dabeen askori, eta egunean bein ikusten dogun gauzea da ori.

Neskaren bat basterretako bear ez litekezan ibilkune ta erabillkuneak gaiti seindun sortu izango da: eztau orregaitik pere bere burua ostu naiko, eta guztien begietara zabaldu gurako dau bere pekatua. Erri guztian dabil zer-esana, eta guztiak, zantar egiten dabe, eta eztau pekatutzat bere artu-



ko besteak esaten imintea, eta ameneko eztau konfesiñean autortuko ezta bere burua alan ikusteko egin bear izan daben pekatua. Biziko da deungaro urlia mesedea berak dakianagaz, edo bein bategaz, bein bestegaz, al daben guztiakaz ibili bearko dau. Eztago errian ori ez dakianik guztiak orpoak yaten deutsez; eta bera epetasun zabalean eta bake andian bizi da, alango bideak itxiteko asmu bagarik, eta eztau aintzat bere artuten alango pekatu agiriakaz besteai deungerako bidea emotea. Ordiak, yuramentu edo birao pitean bein egiten dabeenak, berba loiak non gura esaten dakiezanak... eztituez ezagututen euren pekatuak, eta konfesau bere egin ez oi dituez. O Ygko andial atzera biralduko (aginduko) bazeunsku Natan Profetea, eta zeinbateri esan bearko leuskion beñolan Dabid erregeri legez: *tu es ille vir.. blasfemare fecisti...* Zu, zu zara zeu askori Ygkoaren kontrako gauzaak eragin deutsezuna.

2º. Baia euren pekatuak ezagutu eza gaiti bere batuten dituez oneek lagunak euren kontra Ygkoaren aurrean errime egin bearko dabeenak. Zeinbat arima eder pekatuan galdu izan dituezan, ainbat arerio oker izango dituez, euren kastigua Yaunari eskatuteko. Umeak, neba-arrebaak, lagunak, aideak, adiskideak ta ainbaakoak, berba baten zuk galdu dozuzan guztiak, zuk galduak galdu dituezanak, eta oneek eta oneek galduak, guztiak bat egingo dira zeure kontra, zeure kastigua eske, edo obato esateko ya orainganik dagoz zeure kontra yagita, bada zelan Ygkoarentzat eztagoan leengorik ez gerokorik, orainganik dantzuz gero egingo deutsezan deadarrak. Eta, ze kastigu? Infernu gogorra ez besterik: betiko su gogorra, infernuko su ikaragarri aek: zuk eurai egin deutsezun kalte berbera. Zer, pekaturako bide-emollea, uste zenduan ezetz? Ez eutsun gogoak alangorik emon? Baia, zer? Ygkoak berak diñoanez, kristiñauen arerioak iltzitzezanen arimaak deadarrez dagokaz, euren odolaren bengaiia eske: Ygko berak esan eutsan Kain-eri, berak il eban anaie Abel-en odola bere kontra deadarka egokala: eta oraindo geiago dana alogerekoai galarazo yaken euren aloger irabaziak deadarrez egon doaz yustizia eske Yaunaren aurrean; eta zuk il dozuzan arimaak, zuk infernura bota dozuzan arimaak, zuk zeru ederra eragotzi deusazun arimaak? eztabela zeure kontra kastigua eskatuko? Eskatuko dabe, bai: eta errime, eta aserre eskatuko dabeela: gau ta egun itxi-aldirik egin bere bagarik, egongo yakaz eske ta eske.

Yauna, esango deutse, zugaiti ondatuta datzazan infernuko ondarretati, Yauna zeuk dakizu ondo nok daukan gu emen egoteko errua. Uriak bai, uriak bota gaituz infernu onetara: beragaitik eze ezkinean gu onerako: zerurako ginean, baia berak pekatu bide deungea emonda, galarazo deusku zeru eder ori, eta ondatu gaituz infernu ikaragarritzko onetan. Eta

bada zeuk esanik daukazu bakotxari berea emongo deusazula, betor bere ganera zeure aserrea, emoiozu egin deuskun kaltearen modu-modukoxe kastigua, izan bedi bera bere betiko galdua. Zer Yauna? gugaz baño etzara gogorra (arteza) izango? Eztabe geure lagun izan bear geure pekatuen erru guztia daukeenak? Gu emen betiko galdurik su itzal onen erdian erretan, eta gu onetara ekarri gaituezanak betiko zeruan? Ai! ez Yauna; ezta ori lege.

Eta, zer deritxazue, entzungo eztituzala, zuek galdu dozuezan ari-meen eskariak? Sor ta gor egingo yakeela, zuei infernurako bidea ez emoteko? Baliteke: baia nik zuen eskuetan itxi gura dot, zuek erabagiteko. Zeuek dakizue, eta niri entzun deustazue zeinbat egin eban J.Kº. Ygko ta gizon egiazkoak gizonak irabazteko eta zerura eroateko; zelan mundu onetara orretarako etorri zan; zelan ikusi bear izan eban bizitza gogorra, pasiño garratza, eta eriotza bildurgarria. Berberak esan eban gatx-bidea emonda arimaak galtzen dabiltzazanak-gaiti eze, oba leukeela onelangoak errota-arri bat iduneti (samati) estuta itxasoan ondatu balituez: eta au esan eban diño san Bernardo-k ulertuten (adietan) emoteko, gero ain alagiñako nekeak eta alaak izan bearko dituezala infernuan eze, aen parean eriotzea pozik artu leien. Zuek galerazo deusazue berak ainbeste nekegaz, eta ardura ain andiagaz irabazi zituzan arima orreek: galdu deusazue betiko, berak ain laztan zituzan arimaak. Zuek galduriko arima orreek ezteutse besterik eskatuten ezpada bere berbea yagoteko, eta berak alango pekatarienzat eginda daukazan zemakuntzaak zuen buruen ganera ekarteko. Zer diñozue bada, entzungo deutse? Erakutsiko deusue, eurak zuentzako eskatuten deuten infernu gogorra?

3º. Niri deritxat eze zuen kontra aserre, ta aserre baño bere aserrea-ego gongo dala, eta iñoren eskatu bearrik bere izango eztabela zuei alango kastigua emoteko. Baakizue zelan egon doian azten egoan artza, umeak kendu deutsezanean: zelan orroeka mendi guztia beera ekarri bear daben: zelan ori egin deusana erpa artean baleuko, bertantxe apurtuko leukean? Bada alantxe diño Ygkoak urtengo deusela pekatariak: eta au guztientzat bada bere, askoz bere obeto esan bear da pekaturako bidea emon dabeenak gaiti, bada oneek dira benetan umeak kendu deutseezanak, kurutzean ainbeste minegaz egin zituzan seme-alabaak: oneek dira il izan deutseezanak arako bere maiteak, zeinei ukututea bera dan Yaunari beseiñean ukututea legetxe.

Yesukristo-k bada, zeineri Aita-eternoak emonik deusana guztiai kontu artu, ta betiko sententzia emoteko esku bete bete esan bearko deutse onelango bide deungakoai beste aldi baten Saulo-ri kristiñauak karze-



letan sartuten yoianean esan eutsana: *Ego sum Iesus, quem tu persequeris*: ni nas Yesus zuek galdu gurarik ibili zareena. Eta oneek berbook Saulo-ri, bere onerako esanda bere onenbeste bildur, ikara ta itzal emon beutsen eze, bertantxe yausi zan zaldi ganeti beera, ikararen andiz dardar orria legez ebilela, eta non egoan, edo zertzan bere ozta ekiala, zer egingo ez deutse pekatubide emolleai? Aurrera daroazala bere karguak, ezteutse onei esan bearako, ni gose ta egarri nintzan, eta zuek ez zeusten yaten ez edaten emon; gaixorik edo preso nengoan, eta zuek ez zintxatzen etorri ni ikusten. Ez. Esan bearako deutse: zuek niri betiko zerua galarazo deustazue, betiko infernua emon deustazue. Zelan, Yauna, guk zuri zerua galarazo? Zelan infernua emon? Bai, ze nireetakorik txikienari egin zeuntse-na niri neuri egin zeunsten. Zoaze bada, zoaze madarikatuok, diabruarentzat prestaute dagozan betiko suetara, zuek galdu dozuezanakaz naste zuen pekatuak, eta besteai eraginak pagetara.

II. Bai, auxe da pekatuak bide okerra emoteak daukan azkenengo zori-gatxa besteai eraginiko pekatuen kastiguan bere eroan bearra. Alan-txe dirautsu San Agustin-ek: «zeinbateri okerrerako gantza emon izan deustazun, ainbategaz, eta ainbategaiti betiko kastiguak ikusi bearako dozuz». Beste onenbeste esaten dabe san Basiliok ta san Eusebio Emisenok. Baita, ze besterik izan leiteke?, noberaren ganera badatoz, batek besteai eragin deustazan pekatu guztiak, baita aetati gero aek eta besteak egin izan dituezanak? Ai ze ikaragarritzko lana au! Auxe, neure entzula onak, gura neuskezue zuen biotzetan errime yosi: bada ain gogorrak, eta bildurgarriak badira bakotxari bere pekatuak gaiti infernuan emongo yakazan kastiguak, zer izango da aen ganeti emoten baiakaz besteak egin izan dituezan ainbesteenak?

Ementxe, kristiñauak, gura neunke al dozuen gogorik andienagaz entzungo bazendue orain nik esango deustuedana: bada berariz (berenberegiz) itxi dot leku onetarako, ea puskatxu bat bigunduta zagozela, sinistu nai badozue, osterantzean zuen onerako esanda bere sinistu gura izaten eztozuena. Geure misioetan ekin daroakegu, eta ez bein, ta bai sarri ta sarri fiestean, dantza nastuen, ta gaubegireen ta onelakoen kontrako berbeteari, dakigulako eze orreek geienean eta geienentzako pekatuak eta pekatu andietarako bide andia izaten direala. Orregaitik pere alperrak izaten dira askorentzat geure aleginak, eta eztago nok orrei burutan sartu. Ara bada zeen begira dagozan, alangoak egiteko bidea emon edo galera-zo al leikeela ez galerazo, edo eurretara dabilzanak.

Egiten da erriren baten fiestea, baatoz erriko gazteak, eta albo errietakoak bere: izaten dira dantzaak; gazte orreek egiten dituez milla zantar-

keria dantzaan bertan, etserako bidean eta etsean: esaten dituez berba loiak; artuten dituez aurrera bere orreek eta geiago egiteko bideak: askori idigiten yakez begiak deungerako: izaten dira ordikeriak, errieltaak, eta errieltetati gorrotoak, kerellaak, auziak. Aurten alan egin dalako, egiten da beste ainbeste datorren urtean: yarraituten yako bestean, eta arik urte eta urteetan. O Ygko maitea! eta zelango pekatu erreskadea! Zuk Yauna, eta ez bestek yakin lei zeinbat eta ze ikaragarriak direan orreek guztiok. Bada zeuk fiestarako bidea emon dozuna, zeuk daukazuz zeure lepo-ganean orreek guztiok; guztioen kontu Ygkoak artuko deustu, eta guztioen kastigua infernuan emongo deustu. Zuk gurasoa zeure umea alango lekura agindu dozulako, daukazuz zeure bizkarrean zeure ume orrek egin, egingo ta eragingo dituzan pekatuak: guztioen kontu Yangoikoak eskatuko deustu, eta guztioen kastigua infernuan emongo deustu. Zeuk gaztea daukazuz zeure lepoan zuk bidea emonda besteak egin, egingo, ta eragingo dituezan pekatuak. Beste ainbeste esan bear da bere moduan yolas, gaubigira, baatzar nastu, ta onelangoen ganean.

Eztira oneek ipuiñak, ez neure asmuak, eta arren alan balira, eze buruko ala asko geure buruari kenduko geunskio. Baia Ygkoak daki nik sermoi guztian eztan gauzarik esan ezteutsuedala, yakinen ganean beinik bein, eta ez nas bere ni zalea, iñor bildurtutearren eztan gauzea, edo dan baño geiago esaten. Zabilte, zabilte orreetan eta Ygkoak aterarik izango dituz orreek kontuok, eta berak erakutsiko deusta infernuko suari zelango indarrak bearako dituzan zuei guztien kastigua emoteko. Baia, zer diñot nik suari? Zeuek pekatuak bidea emonda galdu dozuezan arimaak eurak zeuen seme-alabaak, lagunak, adiskideak eta orreek izango dira zeuen borraru gogorrak, euren biraoakaz ta araoakaz apurtu ta ondatu bearako zaituezanak.

O ze pekatu bildurgarria dan gatxerako bidea emotea! Bai beintzat, bada berak emoten dau beste osterantzeko pekatuak baño infernurako bide geiago, egiten dabela bestek ez legez besteen pekatuen yaube ta errudun: batuten dituzala bestek ez legez Ygkoaren alderako ainbeste arerio ta salatzalle aserre, eta egiten dabela besteak baño aserreago yuez izan bearako daben Yesukristo: berau azkenez izango da infernuko suakaz besteak baño gogorrako kastigadua.

Orreek alan direala, esango deustazue iñori pekatuak bidea emon badeustagu, gureak egin eban, errazki geure buruari itxiko deustagu, eta galdutzat emon bearako doguz. Ez alangorik, ne.kk., oneek alan dira, baia eztozue zuen buruak galdutzat emon bear orregaiti. Bide deunga ori emon ebeen asko ta asko dagoz zeruan. Dabid-ek, Manases-ek, eta Mada-



leneak alango bideak emon zituezan, eta gaur dan egunean dagoz Ygkoa ikusten. Baia esan bear artez, eta atzera ta aurrera bagarik, ori egin ezkerro gatzago dozuela zerua, zegaitik eze zuen ganean dozuez besteen ainbeste ta ainbeste pekatu, zuen kontra deadarrez daukazuez zuek galdu dozuezanak, eta atati gero galduko direanak, eta Y.K°.ri zuekaz aserre iza-teko bide andia emon izan deutzazue. Orregaiti zerurako izango bazare osterantzekoak baño geiago egin bearko dozue.

Eta, baakizue zer? Ara bada san Eusebio Emiseno-k diñoana. Bes-teen arimeen kalteagaz berea galdu izan dabenak, besteai ejenplo ona era-kutsita irabazi bear dau. Eta alan egin bear dozuena da, konfesiño on baten bitartez Ygkoagana etorteko aleginak egin ezkerro, zuek-gan dagoa-na egin bear dozue Yaunari galerazo deutzazuezanen orde beste arima batzuk irabazteko. Ori egingo dozue lenengo zeuen bizi-modu onagaz: sarritxu orretarako konfesetara etorri, sarritxu geure Yauna artutera, egu-neango errosario santua, eta ereak aginduten badeutsue mez-entzutea bere, yaiegunetako kurutzetakoak egitea, altaraak ikustea, limosnaak egi-tea, eta gauza guztietan modu ona (erakustea) agertutea, eta kristiñautas-unak erakusten daben bizitzea. Gero onezaz ostan aleginak egin bear dozuez besteen pekatuak eta pekatu-bideak eragozteko: berba loiak, yolas nastuak, baatzako dantzaak, gau-begiraak, erroldaak, fiestaak edo al dozuezanak. Orregaz zeuek irabazten dozuezan arimaak Ygko-aren aurrean zuen alde egingo dabe, eta estaldu ta indarra kenduko deutse bes-teen zeuen kontrako deadarrai. Orregaitik pere Dabid-ek legez, ez begien aurrean beti, kendu bere bagarik, erabili pekatu ori, Yaunari bere parka-ziñoa eskatuteko: bada guztiz da ikaragarria, eta bear bada ya zuek gaiti batzuk batzuk infernuan datzaz, edo orretarako bidean dagoz.

Ara ze bildurgarria eretxi yakon Berengario-ri eriotzako orduan bes-teak galduten ibilia. Gizon onek Sakramentu santu altarakoaren ganean eregia erakutsirik, askori galdu eragin eutsan orren ganeko fede ona. Eto-rrri yakon gero ta gero bere guztioi elduko yakun il bearra damutu yakon ordu atan alango eregiak erakutsi izana, eta alango bide deungaak besteai emona, eta, ustez beinik bein, aleginak egin zituzan Ygkoagaz ondo pare-tako. Baia pekatu guztiak bildurtasuna emoten beutsen bere, besteen ari-maak galdu bearrak ikara ikara eukan, eta ikara onen artean ziñoian: ai bada! Zer izango da nigaz! Nik uste neukean Ygkoak neure damuari ta egin dodan penitenziari begiratuta parkatuko eustazala neure pekatuak: baia eta, nik galdu dodazan arimaak? eta, nik zerurako biderik atera doda-zan arimaak? nok oneek gaiti erantzungo dau? Ai ene errukiena! Kris-tiñauak beste onenbeste yazo ze dakizuen laster bai laster eta biotzerik Ygkoagana bear dozue.

7. PEKATU-BIDEEN GANEKO SERMOEA [ARRISKU ETA OKASIOAK]

(B, 145-152. or.)

Convertere ad Dominum, et relinque peccata,
deprecare ante faciem Domini, et minue offendicula...
et gloriaberis in miserationibus illius.
Eccli. cap. 17.v.21,22 et 27.

1. Mundu onetan gagozan artean, ardura andi bategaz bizi bear gara, bada guztiz dira andiak inguraturik gaukezan pelleburuak. Orregaitik dirausku Jaungoikoak berak: Begira zelan zabiltzan bada zure bide guztiak lakioz eta sarek beterik dagoz. Berba onexek beti beti euki bear geunkez geure begien aurrean, diño San Juan Krisostomo-k ze auxe asko izango da pekatuan yausi ez eiteko. Auxe ondo begiratuagaz ezagutuko dogu zelan iges egin bear dogun pekatuen pelleburuetatik; bada yakingo dogu alperrik urtengo dogula pekatutik kenduten ezpadoguz bere okasiño ta bideak, eta ezin esan giñaikeala pekatuak itxiteko gogo edo propositu sen-dorik daukagula, pelleburuetan geratu gura bagara. Ain da gatx pekatua-ren pelleburuan egonik ez pekatuan yaustea ze, S. Bernardo-k diño, miraari andiagoa dala, ilak biztutea baxen. Eta alan, neure enzula maiteak, ez deutsue ezerbere balioko pekatuak urteiteak, pekatuaren pelleburu ta bideak kendu ezik. Orregaitik bada arratsalde onetan esango deutsuet lelengo puntuan zelan pekatuaren pelleburuak kentzean ezpadozuez gura ta guraezik yausiko zareen pekatuan. Bigarrenean zelan guztiz kendu bear dozuezan pekatuaren bide ta okasiño guztiak bat bere itxi bagarik.

Lenengo zatia

2. Eztau Demoniñoak beingoan pekatuetara tentetan. Daki ze bein-go beingoan tentauko baleu benturaz ez gendukela gurako. Pekatua berez guztiz da ezaina, eta bildur andiegia emoiten dau beingoan gura izaiteko: orregaitik puskaka puskaka pekatuak bildurra galdu-erazoten dau. Lenengo ifinten dau okasiñoa, gero guraari otz bat, gero izioten dau guraari au, eta guenian yausi erazoten dau pekatuan. Auxe da Jaungoiko-ak diñoana: pekatuaren pelleburuan egon gura dabena pekatuan yausi



egingo dala, eta gauza txikien yaramonik egiten eztabena, andietan geldika geldika yausi egingo dala. Modu onetantxe yausi dira pekatu guztietan gizonik geienak. Lelengo munduan egin zan pekatuan au guztiz klaru ikusiko dogu. Gu guztion ama Ebak ez eban beingoan yan, Demonioñoak yateko esan eutsan, sagarra. Lelengo begiratu eutsan, eta ikusi eban guztiz ederra zana. Gero artu eban eskuetan, gero azkenean sartu zan yateko gurarian, eta yan eban. Beste ainbeste yazo zan Kain madarikatuagaz. Ez eban beingoan Demonioñoak tentau bere anaie Abel iltera, zein pekatuaren anditasunak bildurtu egian, ezpabere lenengo opetzi eta agindu erazo eutsan Jaungoikoari gauzarik txarreena, gero bete eban enbidiaz ta ikusiezinez; azkanean barriz tentau eban bere anaie il egian. Zer egin eban Esau-gaz, eta zelan galdu eban bere aitaren bendizioña? Lenengo euki eban yateko guraaria, beragaitik saldu egin eban lelungotasuna, edo maiorazgia, eta guenian eldu zan bere anaie Jakob il gura izaitera.

3. Nondik asi zan Judas-en galtzaia ta kondenaziñoa? Nok esan leike! Lelengo ezin-ikusitik; gero sartu zan diruen zaletasun ta guraaria; andik asi zan oñoten ta deungaro esaten; otzitu zan bere maisuaren amodioan, eta eldu zan guenian bere Jaungoikoa salduta, eta desesperadurik bere burua urkatuta. Ez neunke, neure Kristiñauak, amairik emongo beste onelango exenpluak ekarri gura banituz, bada Eskritura santea guztiz dago beterik. Faraon, Sanson, Saul, Salomon, Akab, Athalia, Josan, Nabukodonosor, Antioko, beste asko onantxe yausi zirean pekatu guztiz ikaragarritzkoetan. Gorputzeko gatxetan, Kristiñauak, yazoten dana, yazo oi doa arimakoetan bere. Geixoa geienetan ez oi da beingoan eldu: lelengo sentietan dau buruko min puska bat, gorputzeko astuntasuna, alboko min txiki bat, edo alango gauza txikiren bat. Orduan itanduten badeutsue zer dozun, bertatik eranzuten dozu: ezta ezer, laster igaroko yat: baia, zer yazoten da? Gero baño gero azi egiten (aziten) da mina, oean etxun bear, barberuari, edo medikuari dei egin bear yako, Sakramentuak artu bear dira, guztiz txaarrik dagoalako eta aror gauza gitxitzat egoana, non gatx andi bat egiten dan. Baia, zetako nabil, Ne. Enzuk., irudi oneek ekarten? Eztot zuek baxen beste testigurik bear, egia esan gura badeustazue. Aste guztian egongo zaree ardaoaren gomute edo akordu bagarik: elduten da yaieguna, eta orra non zoazen tabernara. Itanduko baneutsue, ea nora zoazen eranzungo zeuzkede: Aita, aste guztian egon nas bada bearrean, eta orain banoa puskatxu bat dibertietan, kuartillutxu bat edango dot, eta gero iluntzean etxera. Sartuten zare tabernan; topetan dozuez adiskide bi edo iru; asten zare edaten; ardaoa doa, ardaoa dator, ya igaro zare esan zenduen neurritik, asten zare yokoan: yokatuten dozue edan dozuen

ardaoa, berotuten zare, eta yakin bagarik ze ordu dan elduten da gauerdia. Urteiten dozue etxerako, biderik zabalenak estu ta bedar dozuezala, eta orra non dagoan infernua, emazteak berbatxu bat esan badagi deadarra batetik, demonioñoa bestetik biraoa ta añaena eta aserrea, eta ameneko golpeak. Biaramonean barriz bearrik egiteko gogo bagarik. Nondik datoz gatx guzti oneek? Okasiñoetik. Tabernan sartu ezpaziña, etzan onango gauzarik izango, denporaz yoango zinean etxera, eta igaroko zenduan bake andi baten gaua.

4. Zer yazo oi da geienetan? Aserratuten zare alkarregaz, esaten dozuez berba astunak, edo bear bada ezarten dozuez eskuak, eta lauziri balio eztaben gauzea gaitik zabiltze alkar ezin ikusirik, ateretan dozue kerella bat, asten zaree auzitan, daukazuen guztia eskribauak, eta letra duak daroatzue eta geratuten zaree zer yan eztaukazuela, ez zegaz semeak mantenidu. Zer esango dot aragiaren pekatuak gaitik? Batzainduten dira yolas eta erromerietan yente gazteak eta deritxazue beingoan yausten direala pekatu andietan? Ez, Kristk., lenengoan ezta begiraune bat baño, andik igaroten da berba gangarretara, gero guraari txaarretara, eta azkenean yausi ezkerro pekatu obrazkoan, eta lotsea galdu ezkerro eztago egiten eztan pekatuak. Eztot zeuek baxen beste testigurik bear. Zeuek dakizue ondo zer yazo yatsuen orrelango pekatuakaz, ze eztot nik loitu gura euren ezaintasunagaz leku santu au. Baia geienak eranzuten dabe: Aita, beti beti dagoz orren ganean prediketari; baia nik neure bizian bere eztot ezer sentidu, eztot pensamentu deungarik bere euki. Ai! neure enzulaak, engañadurik zagozela deritxat, zegaitik ze dakusdana da Santu guztiak okasiñoen igesi dabiltzana, eta orregaitik bere beti beti dagoz bildurrez euren aragiak egiten deuten gerreagaitik. S. Paulo Apostoluan dakusgu au ondo klaru. Ainbeste miraari egin ezkerro, ainbeste penitencia egin ezkerro, ainbeste barau, ainbeste gose, ainbeste gaubela irago ezkerro, bere gorputzari urte luzeetan atseginik emon bagarik bizi ezkerro, etzan aragiaren tentaziñoetatik libre aurkitu; eta alan esaten oi eban: nire aragia beti dabil arimearen kontra. Baita zuek ainbeste santidade euki bagarik, deritxazue, modu orretan alkarregaz nastaurik ibilirik, garbi garbirik geratuten zareela. Eztakit; bildur izan zinaitekeze zeuen buruak engañetan dozuezala. Konzienzia bear dan moduan arakatu ta esaminauko bazendue, eta arimako argiagaz ondo begiratuko bazendue, deritxat ez zeunkeela ori esango.

5. Eztakit, Kristiñauak, nondik nora euki zinaikeen au seguridade au. Santurik andienak dakusguz munduti iñesi. San Jeronimo sartuten da ermu ikaragarritzko baten, eta aintxe dago negar, zizpuru, eta oraziño



artean eta orregaitarren bere eztagoala seguru deretxo. Itanduten badeutsazue, Bijilanzio-k esaten eutsana legez, zetako kondenetan dan ain bizi-modu ikaragarritzokora? bertatik esango deutsue: argala nas, aragiz yanzirik nago, eta orregaitik nabil okasiñoetatik iñes. San Antonio Abad, S. Paulo, S. Hilarion eta beste santu guztiz andiak mundutik igesi dabiltz eta sarturik Tebaida-ko mendietan eztauke beste zer-eginik euren ganean ardura andi bateko gaubelak egitea baño, eta orregaitik eztagozala seguru uste dabee. Eta deritxazue benturaz ez ebeela ainbeste bildur euki bear? Ai neure enzula maiteak, zeinbat eta zeinbat yausi dira santidade guztiz anditik ikaragarritzoko pekatuetan! Exenplu guztiz asko ekarri neikezue; bat esango deutsuet. Yakobo eritxon padar edo ermitaño bat bizi izan zan berrogeta amar urtean. Ezin esan noragiño eldu zan denpora onetan bere santidadea; guztiz izan zirean andiak penitenziak, denpora guzti au igaro eban negar zizpuru eta oraziño artean, eta ain santu andi izaitera eldu zan, ze, bere miraari guztizkoak arriturik eukeezan andik egozan erri guztiak. Osatuten zituzan geixoak, biztuten zituzan ilak, eta botaten zituzan gorputzetatik Demonioak. Ekarri eutsen besteen artean neskatiilla gazte bat osatuteko, edo atara egian beraganik Diabru gaiskiña. Atara eban bada, baia zer deritxazue yazo zala? Geratu zan egunen batzuetan neskatiilla au lezatic kanpora, eta ar-or non pekatu egin eban beragaz. Baita etzan emen geratu bere pekatua: ze lotsaturik, eta yakingo zalako bildurragaz artu eban kañibeta edo kutxillo bat, eta il ezkeru bota eban neskatiilla ibai bate-ra. Eta Jaungoikoak biraldu ezik Aingeru bat Infernuko penak erakutsi egiozan, ya yoiian mundura bere aragiaren gustu zitelak kunplietan.

6. Orain bada, Santu andi au ainbeste penitenzia egin ezketiño, ainbeste Santidade alkanzau ezketiño, ainbeste miraari egin ezketiño, bere aragia errazoaren azpian imini ezketiño, anra bategaz bakarrik aurkitu zalako, pekatuan yausi bazan, eta pekatuak pekatuaren ganean ifini bazituzan, zelan uste zinakee etzareela pekatuan yausiko ainbeste pelleburutan zuen buruak sartu arren? Au ezin izan leiteke, Kristiñauak, eta kendu ezik pelleburu ta pekatubide orreek gox edo berandu yausiko zaree. Okasiño orreek peste gogorra dira, diño S. Bernardo-k, eta gatxa sentidu bagarik gorputzean sartuten dana legez, alantxe igaroten da okasiñoa biotzeragiño. Peste eta gatx onegaz il dira santu andi asko diño S. Agustinek. Sinistu egidazue, diño Santu andi onek, sinistu egidazue, Jaungoikoaren aurrean nago, eta berak daki guzurrik ez diñodala; ikusi dodaz gizon santu eta andiak zeintzuk eneban sinistuko iñondik bere yausi egingo zireanik pekatuan; baia okasiñoa eldu danean, pekatuak goia-artu eutsen, eta ben-zidurik geratu zirean. Eztakusgu Dabid Erregea yausirik? Baita, zegaitik?

Begirakune bategaitik. Eztakusgu Saul Errege kondenadurik? Eta, zegaitik? Ezin-ikusi bategaitik. Eztakusgu Salomon galdurik? Eztakusgu beste asko okasiñoak gaitik pekatuetan sarturik eta au gu baño sendoago, irri-meago eta santuago izanik? Bada, Kristiñauak, eztaigun ainbeste konfianza geugan euki, bildur izan gaitezana, eta iges egin daigun pekatubideetatik, eta modu onetan ibiliko gara zerurako, orain ikusiko dozuena legez.

Bigarren zatia

7. Aserraturik dagoala mundu guztien kontra dirautso Jaungoikoak Ezekiel Igarla edo Profeteari, eta orregaitik laster etorriko dala gizon guztien ganean bere aserrakuntzea. Ezta geratuko iñor bere, diño Jaun onek, guztien amaia, ta azkena dator bertatik, eta nire justiziaren ezpategaz il egingo dodaz direanak; guztia izango da nekea, guztia gosea, gatxa, atsa-kabea, naibagea, pestilenzia; ilgo dira soloan dagozanak; eriotzea etorriko da urietan bizi direak gana, eta ezteutsat iñori bere, iñori bere parkatuko. Eta, zegaitik gatx guzti oneek? pekatuz beterik dagoalako mundu guztia. Baña, Jauna, ezta iñor bere zure justiziaganik salbaduko? Eztau iñok zure aserretik iñes egingo? Bai. Eta, Zeintzuk izango dira? Pekatuen bildur izan direanak, eta orregaitik eurentatik iges egin dabeenak. Auxe berau dirautsuet nik bere, Kristiñauak; gura dozue zerura eldu? Bada onetarako pekatuak guztiz itxi bear dozue, eta pekatuak guztiz itxiteko itxi bear dozue euren okasiño edo pelleburuak bere. Eta au bakizue zelan? Ara bada S. Juan Krisostomo-k dirautsu. Begiratu egizu ondo zelango pekatuetan yausi zirean oraingiño, eta zek yausi erazo deutsun, eta sustraitik atera egizu okasiño au. Oraingiño ordi izan bazara, ez eldu tabernara bere, oraingiño pekatu loietan yausi egin bazara, iges egin arako pekatu egin dozun lagunaganik. Oraingiño berba loiak esan badozuz itxi txantxako berbaak bere. Oraingiño bestegaz aserratu bazara, ez aderdeko berbarik bere euki beragaz. Berba baten, Kristiñauak, itxi bear deutsazuez pekatuari ate guztiak.

8. Baia bertatik dantzut zer eranzungo deustazun. Ai, Aita, esango dozu, gauza gogorregia da ori. Nor egongo da tabernara yoan bagarik? Eztogu berbarik egingo andrakaz, edo gizonakaz? Ez gara yolas edo erromerietara yoango? Ezkara txantxa alegrauko? Bada orretarako itxi daiguzan etxeak, eta erriak, eta goazan mendietara penitenzia egiten. Eztiñot nik ori modu orretan: ezipabere oraingiño gauza orreek pekatuan yausi



eiteko bidean imini bazaituez. Eta esango baneu bere, ze larregi eskatuko neuskezu? Esan egidazu Kristiñaua, esango baleutsue tabernako etxea yausi aginean dagoala, yoango zinatekez? Bazenki ardaoak beneoa daukala, edango zeunke? Esango baleutsue arako pekatu egin dozun anreagaz berba egiten badozu, edo aserratu zarean gizonagaz aderde burlezarreko berbarik badaukazu, daukazun guztia kenduko deusuela, eta urkamendi baten iminiko zaituela, berba egingo zeunke, edo bakarrik egongo zinatekez? Ezetz eranzungo deustazu. Bada, non da gure sensuna? non da gure errazoa? Obipe edo sepultura baten atsiturik eta usteldurik geratuko dan gorputz bat gordetako egiten doguz aleginak, etxiten doguz naien doguzan gauzaak, eta beti betiko iraungo daben arimeagaitik, zein daukan Jaungoikoak bere alaba, eta zeruko yaubegeitzat auturik? eztugu gustutxu bat bere itxi gura? Arimearen medikuak esaten badeutsu argalik zagozala oraindio, eta itxi dagizuzala au edo beste gauzea; ezin egin leiteke: baia gorputzekoak geiago aginduten badau bere, pozik egiten da osasuna alkanzearren. Ara bada, neure enzulaak, guztiz itxiten ezpadozuez peleburi orreek laster barriro yausi egingo zaree pekatu andietan, ze Espiritu Santuak diño ze, pekaturako bidea gura dabena bertan yausiko dala. Ezpadozuez itxiten pelleburi orreek, gura ta gura ez yausi egingo zaree, eta gero negarretan urturik ezagutuko dozue nik errazoa neukana, askok orain artean negar egin dabeena legez.

9. Guztiz dira gitxi pelleburuan imini ezkeroko pekatuan yausi eztireanak; eta onek pelleburuetatik iñesi egin balebe etzirean yausiko diño S. Juan Krisostomo-k. Gu guztioen lelenko Amak begiratu egin ezpaleutso Jaungoikoak yan ez eiteko agindu eutsan sagarrari, etzan yausiko yaateko tentaziñoan, eta ez euskuzan ekarriko geugan dakusguzan neke, lan eta gatxak. Jose-ren anaieak goitu baleudek lenengeran eukeen ikusi-ezintxu piskea etzirean elduko eriotzea emon gura izaitera, ez eudeen erbestera salduko, eta ez eutsen euren aitari ainbeste atsakaba emongo. Zegaitik eldu zan Judas madarikatua bere maisua saldutera? Beste Apostoluai eutsen ezin-ikusia lenengeran kendu ez ebalako; au kendu baleu, etzan ikusiko, gerora eldu zan negargarrizko estadian. Erreka bategaz yazoten dana yazo oi da pekatuagaz bere. Errekak asieran iturritxu bat baxen ezтира, eurak igaroiteko eztoa bear zubirik, dakarren ur guztia eskuakaz, arri bategaz edo luur puska bategaz geratu leiteke, ur gitxi oneri batzanduten yako beste ur zatitxu bat ya da puska bat geiago; emetik iturri bat, bestetik beste bat egiten da errekatxu txiki bat, ta zeinbat eta beerago ainbat eta ur geiago, eta azkenean ya da ibai andi bat, elduten da gero uriola bat, eztago beretzat zubirik, eztago presarik, eztago errotarik: guztia banatu-

ten dau, eta daroa beragaz. Ara emen pekatuaren irudia: lenengeran okasño txiker bat izan doa, gero pekatutxu bat, gero andiago bat, eta azkenez egin ezkeroko ekandu edo usadio txarra, eta eldu danean tentaziñoaren uriolea, eztago zek geratu dagian, gitxitan dagoz lotsaaria, Jaungoikoaren legea, grazia galdutea, arimea iltea eta beste aurkitu al leian gauza guztiak. Ikusi gura dozue Eskritura sagraduan egia au? Enzuzue bada.

10. Eldu zan Jakob Patriarkea Palestinara, eta imini eban bere bizilekua Siken-go uriaren albo baten. An egoan artean egin zan fiesta edo erromeria bat Siken-en. Eskaturik lizenzia, urte eban Dina bere alabeak angok andrak zelangoak zirean ikusten. Ikusi eban Dina erri atako Erregearen Semeak, izio zan bere amodio ta guraari bizian, eta agindu eutsen bere kriaduai ekarteko etsera neskattilla axe: egin ebeen onek bere agindua; artu ebeen eta ekarri eutsen bere Yauregi edo Palaziora, non kendu eutsan zaldun onek bere osotasun, donzellatasun edo birjinitadea. Pekatu onegaz sartu zan geiago Dinaganako amodioan gizon gazte a, eta esan eutsan aitari artu eiola emaztetzat anra axe. Joan zan Siken-go Errege Jakobgana, eta esan eutsan zelan bere semeak ezkondu gura eban bere alabeagaz, eta alan emon leiola. Enzunik Jakob-en semeak zer yazo zan euren arrebeagaz, eta aserraturik lotsaari agaz artu zituezan bengetako gogoak. Baña eskututearren euren asmuak ez ebeen sentimenturik erakutsi; eta alan eranzun eutseen Erregeri au ezin egin leitekeala lelenko Siken-go gizon guztiak zirkunzidau ezik, edo ebagiten ezpeeben aragi zatitxu bat gorputzeko alde minbera baten. Etorri zan pozik onetara bere semearen guraaria egiterren. Baia, zer yazo zala uste dozue? Sartuten dira Jakob-en Semeak Siken-go urian irugarren egunean, zeinetan egozan gizon guztiak ala edo minez beterik. Ilten dituez Erregea eta bere semea, ilten dituez gizonak, ezteutse parkatuten agura, anra, ez ume txikerrai bere, iruliten dituez etseak, su emoitene deutse erriari, eta geratuten da galdurik eta dan dana ondatu ta akabaurik Sikengo uria. Eta, zelan geratu zan Jakob? Negarretan urturik bere semeak, eta alabeak egin ebeena gaitik, eta iñesi urten bearrik erri atatiak bere kontra etorri ez zeitezan.

11. Nok sinistu eragingo eutsan Dinari bere erromeriara bearrak ainbeste gatx ekarriko zituzala? Nok usteko euan ainbeste kalte etorriko zireala bere buruera atatik? Bada beste ainbeste yazoko yatsue zuei, Kristiñauak, pekatuen bideak ta pelleburuak itxi ezik. Zoaze, zoaze tabernara, ze ikusiko dozue zelan larregi edango dozuen; zelan yokoan yarriko zareen, zelan aserraturiko zareen, zelan berandu etsera etorriko zareen, zelan infernua irudingo dauen zuen etseak, eta zelan azkenez guztiz pobrerik geratuko zareen, zer yan ez zer yanzi eztaukazuela. Zegaitik ze,



nori datorkioz aserrea, gatxa, nekea; nori itsutasuna, nori gauza deunga guztiak? Diño Jaungoikoak. Eta berak eranzuten dau: ardoazale direanai. Orregaitik diño: Ez egiozu begiratu ardaoari kolore gorria daukanean, eta basuan guztia ederrik dagoanean. Bakizu, gero, zegaitik? Bere guraaritan sartu ze zaitez; ze sarri esaten oi dozu: ai ze kolorea daukan, ezin itxi leikio. Guztiz gozo eta bigun igaroten da eztaarritik bera; baia zer egiten dau barruan Espiritu Santuak berak dirautsu: Guenian sugeak legetxe usigiko deutso eta benenoz beteko dau. Zoaze, zoaze yolas eta erromerietara, batzaindu zaiteze zuek baxen zoro eta gangarrago batzuekaz; zabilteze sensun bagarik, eta esan egizue orregaitio bere eztagoala pellebururik; azkenak esango dau. Deretxat Dinari yazo egin yakana, yazo egingo yatsuela: geratuko zare galdurik, onra bagarik; orduantxe negarretan urturik ya erremediorik eztaukanean esango dozue egia esan nebala, eta geratuko zare arako esate zoroan: nok esango eban, nok sinistuko eban. Itxi egiezue gurasoak seme alabai nai dituezan lagunakaz ibiltan, gura daben artean, ez egizue ardurarik artu goxetik etxera etorri deitezan, emon egioezu gura daben eskubide edo lizenzia: etorriko da egunen bat zeinetan aurkituko zareen Jakob baño bere atsakabe, naibage eta pesadunbre geiagogaz. Eztozue orduan erremediauko esanagaz: yakin izan baneu zelan ebagiko neutsazan laguntasun oneek. Lenengotik kendu bear dozuez okasiñoak, pelleburuak burua ateraten asi egin daitezanean, bertatik ito bear dozuez diño San Juan Krisostomo-k, bada bestelan indarra artuten itxi badeioezu, eurak ilgo zaitueze erremedio bagarik. Etxe baten sua exetuten danean, laster elduten badira eta gitxi dan artean pitxar bete uragaz amatetan da, baia indarra artuten badau, erreka bateko ur guztia bere ezta asko amatetako. Bada orrenbeste yazoko yatzue lenengeratik kenduten ezpadozuez okasiñoak Wolfango eritxon gizon bateri yazo yakana legez.

12. Eukan zu lango Jaun eta Baroe Wolfango-k bere izeneko seme bat zein azi eban ardura andi bategaz Jaungoikoaren bildur santuan, eta Ama Birjinearen deboziñoan. Eldu zanean amalau urtera bialdu eban Ungriako erregeren Yauregi edo Palazioara obeto azi zedin. Urte bete eta geiagoan iraun eban gurasoak irakatsi eutsan deboziñoan. Baia baturik beste Erregeren paje bizitza galduko bategaz asi zan bere laguntasunagaz bere deboziñoan otzituten guztia itxi artean. (Kontu lagun deungakaz!) Ikusi ebanean Demoniñoak modu onetan asi yakan tentetan Palazioan egoan Dama eder baten bitartekoz. Eskribidu eutsan onek amodioz beteriko karta bat zeinetan erakusten eutsazan bere guraari loiak. Engañadurik onegaz yausi zan Dama onegaz pekatu guztiz ezainetan, eta ainbeste itsutu zirean alkarregaz ze, galdurik Jaungoikoaren bildurra, eldu zirean

uri guztiko eskandalu izaitera. Enzun ebanean Erregek oneek biok eukan bizi-modu galdua artu zituzan alkarganik apartetako moduak, eta onetarako sartu gura izan eban konbentu baten Lukrezia (auxe zan Dama madarikatu onen uzena). Baia yakinik biok Erregeren gogoartu ebeen al egien diru guztia eta baturik eukeezan joia guztiak iges egin ebeen Alemania-ra, non bizi zirean ezkondurik balegozan legez ikaragarritzko pekatuetan sarturik eta itsuturik alkarreganako amodioan. Baia, o Jaungoiko andiaren neurribako errukitasunak! zein amatau ezin izan eudeen Wolfgangoren pekatu guztiak! Bialduten eutsazan biotzera argi-aldi santuak; dei egiten eutsan beragana biurtu zedin: baia ain egoan gogor bere pekatuan ze, ez eban yaramonik egiten. Orregaitarren bere ez eban itxi Jaunaren ontasunak gizon galdu au. Agertu yakon J.K^o. gure Jauna bere ama guztiz santeagaz batera, eta esan eutsan: Zer da au Wolfango? Nos artean izango zara niganako esker deungakoa? Zein da ederragoa Lukrezia, ala ni? Andra bategaiti itxi gura dozu Jaungoikoak? Eta Lukreziagaitik nire ama eta zeruko erregiña? Ea bada neure Seme Wolfango etzaitez galdu: erdu nigana, izan gaitez adiskide, ze gura badozu zure pekatu guztiak parkatuko deusudaz, eta zorioneko egingo zaitudaz. Arri bat deritxat bigunduko eudeela berba oneek, baia arria baxen gogorago egoan Wolfgangoren biotza, eta alan ez eban yaramonik egin. Geratu zan bere pekatuetan, eta aurrera eroazan bere pekatuak. Baia orra non bete zan bere pekatuen neurria, eta kastigadu eban Jaungoikoak laster ikusiko dozuen legez. Konbidadu eban egun baterako adiskide batek eta erregutu eutsan yoateko Lukreziagaz naste uritik kanpora eukan etse batera non igaroko ebeen eguna aleganzia andian; eldu zanean gaua ondo afaldu ezkeru euki eudeen komedia eta sarao andi bat, eta amaiturik etxun zirean guztiak lotara: baia aror non gauerdian agertu zirean Demoniñoak, Lukrezia burdiña gorizko anda batzuetan ekarrela, eta bere alboan ifinirik Wolfango eroan zituezan biak infernuetara. Orain bada, Kristiñauak, nondik etorri yakan gizon galdu oneri galzaimen edo perdiziño au? Okasiñoa ez itxiagaitik: iñes egin baleu arako paje galduaganik, etxakazan gatx oneek etorriko. Iges egizue bada okasiño guztietatik, eldu zaiteze Jaun onegana, eta esan egizue Neure Jesukristo Yauna.



8. PEKATURA BARRIRO BIORTUTEN DIREANEN GANEKO SERMOEA

(B, 153-157. or.)

Avertere ab injustitia tua.
Eccle. c.17.v.23

1. Zorionekoa izaiteko ezta asko Jaungoikoagana biurtutea, ze oste-
ra beraganik inesi egiten badau beraganik, eta barriro yausten bada bere
arerioaren agindupean galduko dau zerurako eukan eskubidea, bada
J.K°.k ez diño Jaungoikoagana biurtuten dana salbauko dala, ezpabere
azkenagiño Jaunagaz dagoana pekatuetara biurtu bagarik. Baia, zer diñot?
Jaungoikoagana etorri ezker, atzera biurtuten dana, eta oster lengo
estadu negargarritzkoan yausten dana, bildur izan daiteke eztala barriro
Jaunaren graziara biurtuko, eta leen baño deungago geratuko dala. Gauza
arrigarria benetan, eta zein zorigogor au yazo dakizun, ta bein pekatu-
rik urten badozu, oster biurtu zein zaitez, adierazoko deusut puntu bitan
ze gatx dan bein Jaungoikoagana etorri ezker, oster iges egin dabena,
barriro Jaunagana etortea. Lenengo Jaungoikoaren aldetik, bigarren-
go zeure aldetik. Jaungoikoaren adiskide izanik pekatuan yausten dana nekez
yagiko da, Jaunak emongo ezteusalako benturaz andik urteiteko sokorru
edo laguntzarik, lelengo puntua. Jaunaren grazia galduten dabena nekez
biurtuko da barriro artutera, gatxago izango yakolako Demonioaren
eskupetik urteitea, bigarren puntua.

Lenengo zatia

2. Neurri bakoa da Jaunaren ontasuna, eta ain andia bere biguntasu-
na ze, berak dirausku ze edozein bere ordutan beragana etorri dedin
pekataririk itsutuena ta ezainena, berak artuko dabela, eta guztiz loirik
badago bere berak garbitu, edertu, eta apainduko dabela. Baia ezin peka-
turik beragana iñoz biurtu leiteke berak bere graziagaz lagundu bagarik,
eta ainbeste aserraturik da bere adiskideak bere arerio biurtutea ze ezta
ezez bere ainbeste sikatuten bere errukiako, ta miserikordiako iturria zein
da esker deunga onek bada auxa da Jaun oneri egin zinaion injuriarik

andiena, zegaitik ze da esatea bera baño ohea dala Demonioa eta orre-
gaitik naiago dozula ugazabatza bera (Jaungoikoa) baxen. Gogor egiten
yatzu au alan dala sinistutea? Ara bada. Pekatuan zengozanean zinean
Demonioaren serbitzalle, eta bera zeunkan zeure ugazabatza. Pekaturik
urtenik, penitenziaren bitarteko grazia zatozanean, itxiten dozu leen
zeunkan ugazaba, artuten dozu Jaungoikoa ugazabatza. Orain bada
Demonioa eta Jaungoikoa biak euki dozuz ugazabatza, biak dakizu
zelangoak direan, eta nogaz obeto yoan yatsun. Bada itxiten badozu
Jauna, eta bazoaz pekatuaren bitarteko Demonioaren serbitzalle izai-
ten, da aituten emoitea ugazaba obatzat daukazula Demonioa Jaungoi-
koa baño eta orregaitik zatozala bera serbieten. Eta deritxazu Jaungoi-
koagana oster biurtuten zarenean artu gurako zaituzala bere etxean eta
adiskidetasunean? Eztakit, Kk. Kontu egizu daukazula otsein kriadutza
gizon bat zein egoan kartzela baten urkamendi batera kondenaturik, egin
zituzan gatx ikaragarriakgaitik, eta zor andiak gaitik. Pagadu ta kitu egin
zenduzan bere zorrak, eta atera zenduan kartzelatik kanpora, iminten zen-
duala bere orde zeure seme bat, ekarri zenduan etsera, euki zenduan
seme bat bailitzan legez, zeure maian yan zeuk yaten zenduan guztia, zeu-
gaz bizi, zeugaz ibili; eta onegaz ez kontentaturik oneri asko ez eretxirik
egin zenduan ondasun guztien yaubegei ta herederu, eta diru andien
yaube. Aizturik gizon esker deungako onek zor eutsuzan mesedeak, ilten
deutsuz zeure semeak, zatituten dituz zeure etseko tresna guztiak, erretan
dituz zure etse guztiak, eta iges eginik zukanik, bat egiten da zure arerio-
rik kruelenakaz, al daian gerrarik kruelena, eurakaz batera zuri egiteko;
baia damutu yakolako, eta parka eskatu deusulako, artuten dozu zeure
adiskidetza, dakarzu etxera, eta ifinten dozu leen egoana legez. Orain
bada biurtuko balitz au gizon au leengo esker deungara, eta eginik leen
baño bere gatx eta kalte andiangoak, iñes egingo baleu barriro leen legez
zure arerioagana, leen baxen gerra gogorrigo bat egiteko, artuko zeun-
ke lengo moduan zeure kriadutza, eroango zeunke zeure etsera, eta imi-
niko zeunke lenagoko moduan damutu yakolako, eta parka eske yagotsu-
lako? Eztakit, Kristiñauak, nekez sinistuko neuke, eneuke ain laster zure
baiezkoaren fiadore urtengo.

3. Ara bada, Ne.Ka., beste onenbeste eta geiago yazo da Jaungoi-
koagaz zure artean. Zengozan pekatuaren presondegi edo kartzela ilun eta
atsituan zorrez beterik eta eriotzara kondenaturik. Etzeunkan zegaz paga-
du zor oneen, ez nok libradu eriotza gogorretik. Errukiturik (errukituta)
zugaz Jaungoikoa atera zenduzan kartzela gogor onetatik, pagadu zituzan
zor guztiak, emaiten ebala zure orde bere Seme maite bakarria eriotzara



kondenadua izan zedin. Eroan zinduzan bere etsera, zein dan Elexa Santea, egin zinduzan bere ondasun andien yaube, yarri zinean beragaz mai baten, eta emon deutsu yanari bere gorputza, eta edaari bere odola, eta esan deutsu bere ondasunen eta zeruko Erreinuaren yaube-gei ta herederu zareala, eta ondo serbietan badozu, eta beraganik iges egiten ezpadozu, emongo deutsula, ez luurreko erreinuren bat, ez urre edo zirar zatiren bat, ezpada iños bere amaituko ez galduko ez dan erreinua. Baia, zer egin zenduan zuk? Aazturik neurri bagako mesede guzti oneek galdu zenduzan ondasun guztiak, il zenduan bere seme bakar maitea, iñesi egin zenduan beraganik, esan zenduan bere Seme izan gura etzenduala, egin zinean Demonioaren serbitzaille, eta beragaz bat eginik, ibili zara zeure Egilla andiaren kontra gerra andian edo bizian. Damutu yatzun ain esker deungako Jaun andi onegaz izaitea (izana), parka eskatu zeuntsan, eta biurtu zinean beragana; eta aitzurik Aita bigun onek bere kontra egin zenduzan gatx eta gaistakeriaak, ezarri eutsuzan bere besoak, estutu zinduzan bere bularraren kontra, emon eutsuzan mosu eta laztan gozoak, yanzi zinduzan soñeko ederrakaz, eroan zinduzan bere etsera, egin eban Aingeruakaz batera fiesta andi bat, zu biurtu zinealako, atzera emon eutsuzan galdu zenduzan ondasunak, eta agindu eutsun bere Erreinu guztien herederu ta yaube egingo zinduzala ostera iges egiten ezpazenduan. Eta, eukiko dozu biotzik Jaun onek emon deutsuzan ondasunak botetako? Eukiko dozu biotzik bere Seme maite bakarra (bakar maitea) barrien barri il eiteko? Eukiko dozu biotzik beraganik beste bein iñesi egiteko? Eukiko dozu biotzik bere arerio ta Demonioaren agindupeko izaiteko? Eta beragaz bat eginik Aita ain maite, ain bigun, ain on, ain ongilleari gerra egiteko? Eta deritxazu gero zuk gura dozunean Jaun onegana biurtu izango al dozula eta gura badozu bere, artu gurako zaituzala Jaun onek?

4. Eztakit, Ka., zer esango deutsudan (esan daizudan), esan deutsut leen bere eztaukala neurririk bere ondasunak, kabubakoa dala bere biguntasuna, eta azken bakoa bere errukia, alan bere ara zer dirauskun S. Paulo Apk. Ezin leitekean gauzea da diño Apostolu andi onek, ezin leitekean gauzea da bein argituak izan direanak, Jaunaren doeagaz ase izan direanak, eta Espiritu Santua artu dabeenak, ostera pekatura biurtuten badira, Jaungoikoaren Semea kruzifiketan daudeela, eta burla ta barre egiten deuteela, barriro biurtutea penitentzia egitera, zegaitik ze, diño, gure biotza luurra legez da. Luur onak artuten dau Jaunak biralduriko euri ta iñontza: bada emoitzen badau egikera edo obra onen berarra, bedeinkatua izango da, baia emoitzen ez badau, pekatuen sasi eta arantzak baxen, urrean dago madarikatua izaiteko. Beste ain beste diño S. Pedro Apk.: Jaungoikoagana

bein etorri ezkerro, ostera itxiko badozu, eta lengo bekatuetara biurtu egingo bazara, oba zeunkean zeure pekatuetan egon, oba zeunkean Demonioaren serbitzalle izan, oba zeunkean ez etorri Jaunagana; ze ainbeste aserratuten dau Jaungoikoa esker deunga onek ze diño: Ai ze zori galdukoak direan, erabilezan bide artezak itxirik, bide okerretara biurtuten direanak! Eztabe onelangoak amai edo azken onik eukiko (izango). Zegaitik gero? Ai Ne.ENZULA maiteak, uleak laztutekoa da S. Paulo Apk. diñoana: Geure borondatez pekatu egiten badogu, diño, Jaunaren adiskide bein izan azkerro, eztaukagu zek adiskide egin gagizan Jaungoikoagaz, eztaukagu zek bigundu dagian bere aserrea. Eztago onelangoentzat, ezpabere juizio ikaragarri bat, eta su bildurgarri bat, zeinek erre eta kiskilduko dituzan Jaunaren arerioak. Bildur izan zinatekez, lenengo egin dagizun pekatuan, etorriko dala zure ganera Jaunaren aserrakuntzea guztia, eta betiko galdurik geratuko zareala, pekatuak itxiteko, eta penitentzia egiteko aztirik euki bere bagarik. Bakizu, gero, zegaitik? Ara bada.

5. Gauza guztiak egin dituz Jaunak; eta daukaz ifinirik bere pisu eta neurrian, eta ezin ezek neurri onetarik urten leike, eta alan guztiak yazoko dira, berak izentadurik ta iminirik daukan moduan Beste gauza guztietan legez dauko ifinirik bere, zeinbat pekatu baktotxari parkatuko deutzan, batzuei ogei, beste batzuei berrogei, onei geiago, aei gitxiago, diño S. Agustin-ek. Orain bada, ezin yakin zinaike zeinbat pekatugiaño itxarongo deutsun Jaunak; eztakizu ea bere yakituriak iminiriko neurria beterik badago azkenengo egin zenduanagaz; eta au alan bada urrango egin daitezunak eztauko parkaziñorik, bera izango da zure kondenagarria. Alan-txe yazo zala diño S. Paulo Apk. Noe-ren egunetan. Pazientzia ta epetasun andi bategaz itxaron eutsen gizonai onako Jaunak, berak bere neurribako yakituriagaz imini zituzan pekatuetara eldu arte guztian; barriz eldu zanean a, beingo beingoan etorri zirean uriolak eta zirean zireanak geratu zirean itorik. Pazientzia andi bategaz sufridu (ikus) zituzan Sodoma eta Gomorra-tarren pekatuak euren neurria bete ginokoan, baia bete zanean, beingo beingo baten yatsi zan zerutik sua, eta erri ta erritar guztiak geratu zirean errerik, penitentzia egiteko aztirik emon bere bagarik. Alantxe yazo egin yaken beste askori. Jaunaren ezin ezagutu leitekean justizia onekek euki bear gaituz bildur santu bategaz ikara, beste bein pekatura biurtu ez eiteko, bada ezin inondik bere yakin ginaike atzerango egin genduanagaz, bete bada gure pekatuen neurria. Orregaitik artu daigun S. Paulo Apk. emoitzen deuskun, itunde (konseju) ta bide ona. Jaunaren adiskide bagara gagozan zorion onetan, eta ez gaitezan biurtu ostera Demonioaren aginduko ta eskupeko izaitera; ze beste bein yausi egiten bagara bere



lakioetan, leen baxen gatzago izango yaku urteitea geure argaltasunagaitik, eta Demonioaren ardura andiagoa gaitik zein dan.

Bigarren zatia

6. Jaungoikoak ukatuko ezpaleusku bere, pekatura biurtu esketiño, leen emon oi euskun grazia ta laguntasuna, orregaitik bere guztiz gatzago izango litzatekegu barriro bere adiskidetasunera biurtutea, bada leen yagi ginean graziagaz ez kara yagiko, ze oster a yausi ez kero indar gitxiagogaz aurkituko gara Demonioaren kontra egiteko. Arimako gatzetan yazo oi da, gorputzekoetan yazo oi dana. Sarri ikusi izango dozue geixo andi bategaz dagoala norbait: bisitetan dau Medikua, emoitene deusaz osasungei edo medizina, urteiten dau gatzetik edo enfermedadetik, eta ya dago osaturik; biurtuten bada gatzera, edo egiten badau errekaidarik, leen baxen deungago geratuten da eta sarri-askotan yazo oi da lelen goan osatu zana, bigarreanean iltea. Bardin yazo oi da beso, oñ, esku edo kade-raren bat urratuten danean, leengoan osatuten erraz izan arren, biurtuten bada urratutera, guztiz da gatz osatutea. Auxe berau yazoten da arimeagaz; leengo yausten danean eztau oraindiokoarren oiturarik edo ekandurik artu; baia oster a yausten bada ekandua artuten asten da indar gitxiago dauko Demonioaren tentazinoen kontra, eta zeinbat eta pekatu geiagotan yausten dan, ainbat eta indar geiago galtzen dau arimeak. Dagonen taiu edo idolotzarrean daukagu onen irudi bat. Arako Filisteoen Sazerdoteak imini ebeanean testamentuko kutxea taiu onen ondoan, aurkitu ebeen, Dagon biaramonean lurrean altaratik yausirik. Biurtu ebeen leengo lekura; biurtuten dira biaramonean, eta ez bakarrik aurkitu ebeen yausirik, baita bere eskuak urratutik, eta burua ebagirik. Onenbeste yazoko yatsue zuei bere. Pekatu egin zenduenean yausi egin zinean graziaren altaratik; non zengozan Jaungoikoagaz batera, artu zinduezan Sazerdoteak penitentiaren bitartekoz, eta imini zinduezan, leen zengozan lekuan. Bada orain barriro yausten bazare, ezta leen legez izango, ze galduko dozue eskuak; au da, gitxituko yatsue indarrak, Jaungoikoagana biurtuteko, eta obra onak egiteko. Ebagiko yatsue burua, ilunduten yatsuela zensuna, egin dozuen pekatuaren ezaintasuna ezagututeko, galduten dozuela miina. Jaunari parka eskatuteko, eta geratuten zareala Dagon legetxe zubil bat eginik mobimentu bagarik eta gogo bagarik Jaungoikoaganantza ibiliteko.

7. Sinistu gura ezpadozue au, enzuzue J.K. bere Ebanjelioan diñoana, eta gura ta gura ez konfesadu bearko dozue egia au. Adierazoteko Salbagilleak, Jaungoikoagana etorri ezkerokoan pekatura biurtuten danaren egokera, edo estadu negargarria, dirausku: Demonioa gizonaganik urten ez kero dabil leku bakar eta lurritatik [sic] bizi lekuen atzean (billa), baia ezin aurkitu dau, eta alan diño bere artean; biurtu nadin (banoa bada) lengo lekura. Aurkituten dau uts utsik garbirik, eta berak gura daben moduan apaindurik. Artuten dituz beragaz naste beste zazpi Demonio bera baxen txarragoak, eta sartutik bertan, egiten dabee euren bizi leku, eta aror non geratuten dan gizon zorigalduko ori, leengo pekatuan egoanean baño bere deungago. Obeto ezagutu dagizuen pekatura barriro biurtuten danaren pelleburu andia, enzuzue irudi auxe. Enzu izango dozue, eta bear bada edonos ikusi bere bai, zelan justiziak sartzen daben gizon bat preso. Eztau lenengeran karzelazainak ain gogor artuten, eztau estu ifinten, itxiten deuto nosean bein gizonen bategaz, edo adiskideren bategaz berba egiten. Ezteusaz ainbeste grillu iminten, eztau atearen bere ain ardura andi andirik eukiten. Iges egiten dau; bertatik aspertuten da Karzelazaina, biralduten dau emetik gizon bat, bestetik beste bat, eskribetan yake justiziai iñondik agiri bada oratu daioen, eta ezta itxiten aleginik egin bagakorik leen egoan lekura ekarteko. Artuten dabee gero bere, eta ifinten dabe lengo karzelan. Deritxazue, ne.Kk., leengo biguntasunagaz eukiko dabela karzelazainak? Ez beintzat, ne. Enz.k., ez, iminten dau leku seguruenean, leen grillu batzukaz beeukan, ifinten deusaz bitzuk edo irutzuk, leen giltz bategaz zarratuten beeban, bigaz edo irugaz zarratuten dau orain, leen gordetzaile batek yagoten beeban bik edo iruk gordetan daude orain, zarratuten deusaz orain bentana leio eta zulo guztiak, gau ta egun (egunez ta gaubez) ikusten dau ea ondo lotutik dagoan, ezteutso adiskideakaz berba egiten itxi gura, eta guztia beingoan esatarren, oster a iges egiteko itxaromenik edo esperantzarik ezteutso itxiten.

8. Onenbeste yazoten da pekatariagaz Demonioaren artean. Lengo pekatu egiten dabenean gizonak, geratuten da Demonioaren presondegi edo karzelan. Orduan eztau ain astun artuten, geratuten yako deboziñoren bat edo beste, obra onen bat edo beste. Baia, zer yazoten da? iñesi egin zenduan presondegi edo karzelati? Bada bertatik artuten dituz Demonioak al daizan asmuak, barrien barrian zu bere agindupeera, ta eskupeera biurtuteko, biralduten dituz batetik tentaziñoak, bestetik okasiñoak, emetik guraariak, andik pelleburuak. Pensamentu deungaak, aserreak, ibileraak, bideunak, yolasak, erromeriak, berba-aldi loiak, kanta gangarrak, tabernea, soñu zoroak, eta pekatura garozan gauza guztiak.



Demoniñoak gu barriro artuteko bialdu dituzan kriaduak dira, eta bera bere euren artean dabil; zure zorigogorra bekatuaren presondegira edo karzelara barriro bihurtuten bazaitu! leen baxen gatzago izango yatzu andik urteitea, geiagotuko dituz kateak eta grilluak, iminten deutsula pekatuak konfesetan etorteko nagitasuna, eurak esateko lotsea; kenduko (galerazoko) deutsu adiskideagaz berba egitea kenduten deutsula leen Santuak ganako zeunkan deboziñoa; zarratuko deutsuz ate, bentana leio, eta zilo guztiak. Ba'kizu, gero, zelan? Ara bada. Ba'ki gaiskinak nondik leen iges egin zeuntsan, eta alegin guztia egingo dau bide au zarratuteko. Leen Ama Birjinaren edo beste Santuren baten deboziñoa izan bazan atera zinduzana, epeldu edo otzituko deutsu debozino au, geiagotuten (askotuten) dituzala zure zereginak, gomuta bere izan ze dakizun. Leen urten bazenduan eriotzaren edo infernuaren bildurragaitik, aaztu erazoko deutsuz gure azken ikaragarri bi oneek. Sermoiaren batek atera bazinduzan leenago bere presondegi edo karzelatik, beteko zaituz eurak enzuteko nagitasunez. Limosnearen bitartekoz urten bazenduan sinistu erazoko deutsu zeure gauzaren bat Jaungoikoagaitik emoten badozu pobrezan andian yausiko zareela. Geiagotuko dituz zeure zereginak, etxe ta familiarren arduraak, zein konfesadu zaitez, sinistu eragiten deutsula leenago dala seme alaben ardurea, eta beste eginberrak, konfesetea baño, eta batagaz ta besteagaz ezin kunplidu leitekeala, bada gura ta gura ez aserratu bear dala eurakaz, ezin leitekean gauzea dala maldizino eta birao egiteko ekandua galdutea, eta Seme-alabaak dagozan artean ezin euki leitekeala ondo konfesetako bear dan bakea. Berba baten leenago Demonioño batek bakarrik (bakar batek) zainduten bazinduzan, zortzik gero yagongo zaituez, diño J.K°.k, eta gero eukiko dozun egokera edo estadua, leenago zeunkana baxen txarragoa izango da.

9. Zer egingo dozu orduan? Zelan urtengo dozu presondegi edo karzela ilun, atsitu eta gogor orretatik? Orduan esan daikezu antxina Jeremias-ek Jerusalem-en izenean esaten ebana. Orma lodiz edo muralla ezin urratu al neinkezanez inguratu nau. Ain modutan estutu nau ze ezin urten neike nagoan lekutik. Grillu ta katea astun eta sendoak ezarri deustaz ganera. Arri landuakaz zarratu dituz urteiteko (urten) bideak, eta iruli dituz iges egiteko moduak. Eta zer yazoko yatzu negargarriko estadu onetan? Atzeratu eta atzeratu penitentzia, eta pekatu bata bestea dakarrena legeaz ezarri pekatuak pekatuaren ganean. Auxe diño Isaias Igarla edo Profeteak. Ai ze zori-gogorrekoak, direan, diño Jaungoikoaren izenean, niganik iges egiten daudeen Semeak! bada eurak ezarten dituez pekatuak pekatuaren ganean. Bada S. Gregorio Andiak diñoandi penitenziako ura-

kaz laster garbituten ezpadira pekatuak, bere pisuagaz dakar gizona beste pekatu batera, eta oneek biotz pisu andiagoa daukena legeaz errazago dakarde bestera, eta modu onetan yausten da gizon itsutua pekatuaren ondo edo ondarregino, eta orduan ozta ozta dauko erremediorik; ze diño Espiritu Santuak: Pekatariak, pekatuen ondora edo ondarrera elduten danean, guztia dauko gitxitan. Ez deuse ardurarik emoiten ez infernuko penaak, ez zerua galduteak (galdu bearak), ez Jaungoikoa aserraturik eukiteak, ez beste mundu onetan, ez bestean yazo al leikion gatzek ez nekek, bere pekatuak aurrera daroaz bada gogorturik bere ekandu ziteletan, guraago dau infernuko sugar bizietan yausi, bere ekandu zitelak itxi baño, naiago dau zerua, eta Jaungoikoa arpegiz arpegi ikustea galdu, bere gurariak baño. Zek aterako dau pekatari zori gogorreko au pekatuaren presondegi edo karzela onetatik? Bildur izan leiteke yausi ze dedin Infernuko karzela beti betiko. Orregaitik bada, Kk., urten badozue pekatutik zagoze zorioneko egokera edo estadu orretan, dirautsue S. Paulo Apk., eta etzaiteze biurtu beste bein Demonioñoren agindupeera. Errazago izango yatsue Jaungoikoaren adiskidetasunean egotea, oster bertara biurtutea baño. Eta zuen argaltasunagaitik, edo Demonioñoren tentaziñoagaitik yausten bazare, ainbat lasterren biurtu egin zaitez Jaungoikoagana penitenziaren bitartekoz, ze itxiten badozue egunen batzuetan itxiko dozue aste osoetan, eta andik luzatuko dozue iletan, eta iletarik elduko zare urtera konfesetako, eta biziko zare Demonioñoren serbitzaille.

10. Ez, Kk., ez, etzaiteze ain zoroak izan. Zein da ugazaba ohea Demonioñoa, ala zeruetako Errege au? Deritxat diraustazula obe dala Jaun onen etsean otseinik txikien izan, Demonioñoren etseko yaun baño. Bada ara zer dirautsun Jaun onek. Neure semea, pekatu egin badozu, ez egizu luzatu nigana biurtutea, eta biurtu ezkeru ez egizu niganik iges egin, zeuk urteiten ezpadozu etzaitudaz nik botako. Eztot nik oraindio iñor nire etxerik bota, eta nosbait urteiten badozu bere biurtu zaitez ainbat lasterren ekandu ziteletan sartu baxen leen. Biurtu zaitez ainbat lasterren zeure Aitagana. Enzun daiguzan Ne. Enza. maiteak, geure aita lastanaren dei oneek, biurtu gaitez beragana, eta etxunik bere oñetan esan deio-gun: Neure J.K°. Jauna.



9. YANGOIKOAGANA BIURTUTEA ERIOZAKO ORDURAKO LUZATUTEN DABEENAK

(A, 1-10. or.)

1. Asko ta lar dira Kristiñauen artean euren bizi-erea (modua) ondu-tea, ta Yangoikoagana biurtutea eriotzako ordurako luzatuten dabeenak. Yaunak berak dirautse, ta dirausku guztiai: «ez luzatu nigana biurtutea, ta ez berantau egunerik egunera, ze ustekabea ta batbatean nire aserrea ganean izango dozue». Dirausku beti prest egoteko, geuk eztakigun orduan etorriko yakulata: gau-lapurra legeztustiz uste bagarik ganean ezarriko yakula, ta beste onetariko asko. Baia alperrik alangoentzat. Egiteagaz, berbeagaz ezpada bere, diño, arako antxinako, Isaias-ek dirauskuzan gaistoena: «guk eriotzeagaz tratua eginda [sic] daukagu. Guzurragan gure usteak imini doguz, eta dana dala, berak yagon gaituz». Baia pekataria, ara zer zirautsen aei Yangoikoak, ta zer dirautsuen zuei. «Nik, nik desegingo dot zeuen eriotzeagazko tratu ori: (iñestasiak) abasuseak lurreratu-ko dau, guzurragan dozuezan zeuen uste zoro orreek, eta euriyasak uriolatuko dabe, berak egiten deutsuen geriz guztia».

Ze zorakeria da au zuena, neure entzula biotzekoak? Nongo axeak artu deutsue burua, zeuen penitenziaren ta zeruaren usteak ain bete betean iminteko, zeuen eskuan eztagozan, ta Yangoikoak abasusea ta euria baxen gauza argalakaz galerazo leikezuezan gauzetan? Eta, ezipazendukeez gero? Eta, Yaunak urratuten badeutsue eriotzeagazko tratu ori, ta erakusten ezipadeutsuez, zuek uste dozuezan astia, abegunea, ere ta laguntasunak? Baia izango doguz, diño, zuek zuen artean. Baia nik dirautsuet, geiago sinistu bear dozuela, eztozuela izango; bada geienak ez oi dabee izan. Gatx egiten yatzue ori sinistuten? Bada nik egingo deutsuet ondo argi: eta erakutsiko deutsuet eze, eriotzako gaix-aldirako itxiten badozue zeuen Yangoikoaganako biurtutea, eztozuela izango gauz'onik egiteko ez unerik, ez bururik, ez konort'onik, ta betiko galdu egingo zareela. Auxe izango da gaurko arrastegi onetako neure berba-bidea. Sinistu eragiten badeutsuet, ta bazakardeez leenbait leen zeuen arimako gauzaak egin, ta bizitzea ondutera, gauza andi bat egin izango dot. Entzun bada.

Itxiten badozue eriotzako ordurako pekatuen konfesiñoa, ta Yangoikoagana biurtutea, ezingo dozue orduan. Ta, baakizue zegaitik? 1º Astirik izango eztozuelako. 2n. astia izanda bere, gatxak itxiko ezteutsuelako. 3n. edo gatxak itxi arren, zuen ekandu txarrak galarazoko deutsuelako. Ara emen iru egia yakin-bear, zeuen biotzetan ondo ondo yosi gura neunkezanak.

1º Dirautsuet bada, lenengo eze, zorakeria garbia dozuela arimako gauzaak itxitea, izango (ba) dozuezen bere eztakizuen aldi baterako, eta zein zeuek baxen deungaak izan eztireanai bere sarri ta askotan ukatu deutsena Yangoikoak. Esan ezipabere: nok esan deutsue gatx luze bategaz (gaixo luze baten ostean) ilgo zareela, ta ez bat-batean, ustez ustebaako eriotzeagaz? (Lendañez) Aurretiaz igarriko deutsazuela zeuen buruai, zeuenak iya egin bear dabela, ta eriotzea ganean dozuela? Nok esan deutsue, itxasoan edo ibai baten itoko (iratoko) etzareela: beera datorren orma batek (azpian artuko) zapalduko etzaituezala: yausi mutu batek bertan il gogorrik itxiko etzaituezala: arerio gaisto batek, lapur oker batek, edo bear bada alango gogo txarrik eztaukan besteren batek, ezetarako leku bagarik beingoan bizitzea kenduko ezteutsuela? Nondik yakiniñai-kee, zeuen barruan sortuko eztala gatxen bat, zeinek berba bagarik beingoan eroango (garbituko) zaituezan? Oneek eta onelangoak ezin yazo lekikezue? Ain baratxi ikusten direanak dira? Urterik izaten da alangoren bat edo bat eztanik?

Zeinbat bider entzun eztozue, urlia ustez osasun onean (oniñoian) arratsean oean etxun, ta goxean illik (aurkitu) topau dabeela: (ulinaia) urlizia maian pozez baskariten (beskariten) dagoala, azidente batek artuta, bertan berba bagarik il egin dala: bestea bidean, bestea soloan, ta ez gitxi pekatu eginda belan (ber-bertati) edo bear bada atan diñardueta, beste aldera (mundura) ezer egiteko lekubagarik yoa direala. «Etorri yakan abadea, esan doa; baia ordurako ez egoan gaixoa ezetarako». Ai ze biotzeketaak: ze zuen arteko bildurak! Ze gogo ederrak! «Ez bada, eztogu atzera begira egon bear, beste onenbeste gerta eztakigun». Uste dozue orreek zireala nora-ezeko burubaako bildur batzuk? Zeinbat pider zeuen begietan bear bada (ameneko) yazon eztira onango bildurgarrizko eriotzaak? Eta zeuen etserik urten bagarik bere, eztozue batzuk batzuk etsapean orrenbeste ikusi? Orain itandu gura deutsuet: zer deritxazue erabili izan dabela Yangoikoak orreek eriotzok zeuen begien aurrean imini, edo zeuen belarrietara eroanda? Bear bada iragarri nai izan deutsue eze, zeue-na bere alangoxe egin eginga izango dozuela. Nok taki zuen barruan



badaukazue bere eriotzea, zeinek bere bearrak egin, ta zuen buruak nox gitxien uste dozuen lurraren ganean ikusiko dozuezan?

Zein da, bada, zuen zorakeria, kristiñauak, iminten dozuenean zeuen salbaziñoa, zeuen eskuan eztagoan ta ain gitxi fietako dan gauzearen pen-sutan? Salbetako (arean) ezer balira adiskideak, ondasunak, aideak, agin-taritasuna, ta orreek, orduan bear bada zerbait esan ziñaikeen. Baia, den-porea? baia ostia? baia, abegunea? Zeinek ori segurutu? Nok baiezkoa emon? Noen esanera dagoz egunak eta urteak? Agindu ziñaikioe eguz-kiari, antxinako Yosuek legez, geldi egoteko, arik-eta zuen arimako are-rioak azpiratu, il, ta desegin artean? Edo Isaias-ek legez, onenbeste bide atzera egiteko, arima orren osasunaren segurantzera izateko? Iñok, ezta dan aberatsenak, agintarienak, ta esku-andikoenak bere, baauko bere eskuan urrango ordua, edo aren izpirik txikiena? Luzatu leike tindi tindi (apur apur) bat pere bere bizitzea? Eztau au Yangoikoak beretzat, eta ondo beretzat gorde?

O ene Yangoikoa! Zeu zara zeu, neure bizitzeari luze-laburra emon deutzazuna: zeu nire buruko ulleak legez, nire urteak bere izendaturik ta iminirik daukazuzana: zeu nire yaiotz-eguna legez neure eriotzako ordua bere erabagirik (ebatsirik) daukazuna: eta zeuk dakizu ea egun au ur edo urrin ala asago daukadan: barriz nik dakidana, eta ezetara bere aaztu bear eztodana da eze, bein bertara egun orretara ezkerro, ezin luzatu neinkeala, ezta dan tangarik (pildinik) txikiena bere, ta berbertatixe agertu bearko dodala zeure aurrean.

Baia esango deustazue bear bada eze, onelango subituko eriotzaak eztireala ain sarriak, nosik-pein batekoak (banaketakoak) baño eztireala izaten. Baia, ai! nik esan bear deutsuet eze, eztireala ain meatzak, ta antxi-na (leen) alango bein edo besteko gitxitan (baxen) baño, ikusten etzana, geure egunetan txatean pitean, ta puntuan bein ikusten (dala) dogula. Baia baderitxazue, ondo, izan bitez onango eriotzaak baratxi (gitxitan) ikusten direanak; baia orregaitik pere bildur izan beartzaree, zegaitik eze alan ilten direan gitxien artekoak zeuek izan (zaitekeze) zinteketze. Bazenkie bere bat paño besterik ilgonan ilgo eztala, orregaitarren bere bildur ori bio-tzean euki beartzeunke: ze eztakizue, ta yakin bere ezin ziñaikee, ea zuek izango bazaree bat ori. Itxasoan ontzi bat daukan merkataria ikara ikara egiten da, dantzuanean ontziren bat galdu izan dala, berea baño beste asko itxasoan izan arren.

Baia nik esan bear deutsuet eze, ez bat ta ez gitxi, eta bai asko ta asko, ta geienak ustez uste bagarik beingoan ilten direala, eta Yangoikoa-ren eguna beti lapurra legez etorri doiala, batek gitxien uste dabenean.

Esan bear deutsuet eze, eriotzako gaixoagaz, eriotzea iya zamaan (esta-rrian) dozuenean bere begitanduko yatzuela eze, oraindokoarren urte luzeak munduan egiteko dozuezala: arimako gauzaak atzeratu ta atzeratu ebiliko zaree...: konfesoarea datorrenean bere usteko dozue... eze ori dala gaixoakaz egin oi dan gauzea; baia zuek ilteko etzagozela: konfesiñoa bere eztozue... egingo Yangoikoaren aurrean agertu bear dozuena legez: gero egiteko, gero esateko zerbait itxiko dozue... Esango deutsuet eze, agonia-ko arnasakaz egonda bere, egongo zareela zeuen artean oraindio egun batzuk baño ezpada bere biziko zareela. Esan bear deutsuet azkenez eze, gaistoen eriotza guztiak izan oi direala ustebaakoak, ta pekatarien artean (koskolik) garaurik bere eztala ilten, ilten dala, sinistuta: eta direan direa-nak ikusi doazala Yangoikoaren aurrean arimako gauzaak arteztu bagarik. Bai, bai: zagoze epetasun andian (zabalean, bake onean) ustez uste baako eriotza subituak baratxi (meatz, gitxitan) ikusten direalata.

2. Baia gura badozue izan dagizuela asti ta abegune ori, eta sazerdo-te batek esan degizuela, beñolan Isaias Profeteak Ezekias Erregeari legez: «ea urlia, iltera zoaz, ta zeure gauzai kobru (buru) emoiezu». Baia zuek zagozen legez egonik, izango ete dozue bururik arimeari begiratureko, ta gauz'onik egiteko? Ara emen bigarren eragozgarria (bidea). Zegaitik eze, nox esaten yako gaixoari geienean, ta zelan egon doa barri ori emoten yakan orduko? Lenengo barritan ezta uste izaten gaixoa ainbestekoa (danik) izango dala, eta etsekoak, ikusten (ra) yoakazanak, ofizialeak, ta gaixoak berak diñoelaster yoango yakala, laster osatuko dala. Asten dira erremedioakaz: bitartean gatzak bere bearrak egiten dituz, ta egunean baño egunean deungago. Gaixoak berak ezteutso igarten bere buruari: bestek barriz, eztabela ondo artuko, larritu egingo dala, au dala, bestea dala, eztauko iñok biotzik esateko. Azkenean, bere buruaren yabe iya eztanean, ezetarako eztagoanean, ta bizirik baño ilik dagoala obato esan leitekenean, orduantxe esaten yako elexakoak egin (artu) bear dituzala. Galanta dago beintzat gauzaak ondo egiteko. Esan ezpabere, zer egin leike urte askotako pekatari galdu batek iya gaixoagaz burua kokorrotu-rik, muña moteldurik, ta gorputza indargeturik, ezetarako adore bagarik dagoanean? Uste dozue orduan egongo dala aren burua ainbeste urteko esaminea egiteko, konzienzia nastitu baten matasaak askatuteko? Gura dozue iya bere buruaren yaube ozta danean, atera dagizan bana-banaan bere birao erreskadaak, seigarreneko, ta beste alde askotako Yangoikoak dakizanak, konfesiño-komuniño okerrak, ta osterantzeko noktaki zer-tzuk? Eta burua ilundurik, ta konkorturik daukanean, ta lo (murdian)



mustuan dagoan batek baño argi geiago eztaukanean, Yaunagana biotzerik biurtuteko [...].

Zer uste dozue dala Yangoikoagana biotzerik biurtutea? «Nik peka-tu egin dot», zelan gurako damuagaz esatea? Ori esan ebeen, baita damu ondo zoliagaz, Saul-ek, Yudas-ek, ta Simon Mago-ak, ta ori baño geiago Antioko-k; baia etzirean Yangoikoagana biotzerik biurtu. Yangoikoagana biurtutea da gorroto izatea gauza guztien ganeti, leen maite zan pekatu deungea, ta lastan izatea, leen gorroto eresten zireanak, edo beinik bein egiten etzireanak, ta Yangoikoak agindurik daukazanak (gauz'onak). Biotza onenbestean aldatu ta barriztetako, zelango alegiñak, zelango gogo betea ta irmea bear ezta? Osasun onean, burua argi, gorputza min bagarik, ta guztiak lagunduten dabenean Yangoikoak daki zelango aldatz gora garratzak, ta zelango mendi gogorrak leundu bear izaten direan. Zeinbat pider esan eztozue konfesorearen belaunetan (oñetan) bere, ezin aztu dozuela ekandu gaistoa, azpian arturik zaukeezala, ezin biotzerik atera dozuela ain gauzatarako eder-erexi ta lera deungea? Ta gura dozue, iya arimea ezpanetan daukazuenean ta ezetarako gauza prestu etzareenean, izan dagizuen alango gauza gatxerako bear dan biotza, bear dan burua, bear dan erabagitasuna, ta bear dan guztia?

Ai, neure Yangoiko maitea! Zeu zagokoz orduan iñosko iñox baxen ardura obeagaz biotzera begira ilten dagoan pekatari okerrari. Eta, zer ikusten dozu beragan asko danik, ainbeste urteko bizitza deunga baten parkaziñoa izateko? Biurtuten da benetan zeugana aren biotz gaistakerian zaldua? Eskatuten deutsu gogo-gogotik ta ondo ondo damuturik bere okerreria andien parkaziñoa? Ala, iya eztago alangoetarako? Ai, Yauna, eztakit nik bere artegasun guztia, ta bere larri guztiak eztirean (ezpadira) eriotzeagaz darabiltzazan burrukaak, ta ez ilteko egiten dituzan aleginak!

Esan egizue ezpabere zuek il aginera bein baño geiagotan eldu ta gero osatu zareenok: guztiz deungarik, ez yoango bai yoango zengozenean, ezer egiten zenduen zeuen arimako kontu okerra zuzenduteko (arteztuteko)? Zetan ziñarduen orduan? Ezta egia eze, orduan burutan zeranbiltzen gogoeta guztiak, lotako amesak legez an aren baten zireala? Ezta egia, eta egia bere ondo andia, eze, ozta ozta gogoan dozuela konfesadu zineela, geure Yauna artu zenduela, oleaziñoa emon eutsuela? Eta orduan il bazine, deritxazue ondo zengozela Yesukristoren aurrean agertuteko?

Eztozue bein baxen sarriago esan eze, zorakeria dala orduko itxitea, orduan ezin gauz'onik egin leitekeala, (aurretiaz, aurrebideaz) leenagotik gauzaak prestadu bear direala? Eta orregaitik pere barriro zeuen buruak

palagadu (lorenyau) bear dozuez, ta ordurako itxi zeuen konfesiño ona, ta Yangoikoagana biurtutea?

Baia geien ikaratu bear gaituzana, ta Yangoiko itzalaren bildurtasun geiago emon bear deuskuna da eze, onelango euren konfesiñoa, ta Yaunagana biurtutea eriotzako ordurako itxiten dabeenakaz egunean bein ikusten doguna eze, euren gaixoan (aldi) asti argiren batzuk badituez, direanak emon bear izaten dituezala ingaratu ta arteztu ezinik testamenua, umeen senipartea, ta etorkizunak. Azkenerako, iya ezetarako gauza eztirean ordurako itxi bear izaten dira arimako gauzaak, artean esango balitxako ikaratu egin litekealata. Orduan, ozta gogorrean nor dan bere ezagutuko dabenean, orduan, bai, dei egiten yako konfesoreari. Konfesiño galanta egingo deusku onelango gaixo erdi-ilak! Gauzaak erdi esanean esaten dituz, erdi esana esan al baleikio ganetiko ukutu arin bat egiteari, edo azaletiko aitatute arin bateri. Baia eztago geiagorako, ta orrenbestegaz gelditu bear. Esan oi deusaguz milla gauza damuaren ganean: egin oi doguz aleginak bere biotza biurtuteko; baia biztu al leiteke iya il da dagoan biotza? Emon daroakegu ezpanetara mun egiteko Santokristoa: baia, ete daki Santokristoa bada, edo zer dan?

Gero bere baiatorko bere ordua: ilten da pekataria. Ai, Yauna! Zer da bere arimeari igaroten yakana? Zer ikusten dau, gorputzerik urten da lasterrean? Eta zeure esku (itzaletan) itzaltzuetan yausten danean, ai ze ikarea berea, lotarik iratzartuta legez, ikusten dabenean bere burua zeure aurre bildurgarrian? Dakus bere begietan infernua aoa zabalik: eta bere bizitze deungeagaz zeure sentenzia gogorraren artean ezta besterik izan, egun gitxiko gaixo baten lo zorroa baño. Kristiñauak, zer besterik esan neikezue nik oneek aitatuten deusuedazanean ezpada arako Dabid Erregeak ziñoana: «entzun, entzun oneek Yangoikoa (aztuta) atzera botata bizi zareenok, gero eriotzeak beingoan artu, ta (nok bere eskuetarik atera, ez izatea) yazo eztakizuen, nok bere eskuetarik atera ez izatea».

3. Baia eztozue gitxiago burutan artu bear orain nik esango deusuedan irugarren egia au, eta da eze, orain baxen argi ta zoli burua eriotzako orduan euki arren, orregaitik pere gatx ta gatx izango dozuela orduan Yaunagana biurtutea, ordura artean luzatuten badozue, zeuen ekandu gaistoakaiti. Zer uste al dozue eze, zeuen urte askotako ekandu txarrak, ta bear bada bizi guztian yarraitu deusueenak, orduan beingoan galduko dozuezala? Uste al dozue ze, artean biotza deungaroagaz yosita bat eginik legez eukita, orduan beingo baten azkatuta, ona izatera ekarriko dozuela? Begira arren zer yazoten dan gaixo andiategaz eleaxakoak egin ezkerok, osatu direanakaz. Ze damuak, euren gaixoan! Ze berba ederrak! Ez bada,



Yangoikoak gaixo onetarik ateraten banau, beste bizitza barri bat egingo dot. Yangoikoak osasuna emoten badeust, enas orain artekoa izango. Osatu zirean, eta gero? Leengo egin eginak. Ai! Eztira oneek lenengo trangadaan egiten direan gauzaak.

Uste dozue neure entzula onak eze, urte luzeetan seigarrengoan gaistoak ta zantarrak izan, eta egun biko gaixoagaz galduko dozuela ekan-du gaistoa, ta alango gauz'etarako lera ta gogo (gaistoa) deungea, ta onak ta garbiak egingo zareela? Ai! Bear bada, Yangoikoari alan gura izanda, orduantxe gogoak emongo (ekarriko) deutsuez gauzarik loienak, ta zantarranak, eta gorputza makal ta yausi dozuela, biotza seigarreneko sutan ta garretan eukiko dozue. Bear bada orduantxe izango dozue etse barruan, edo begien aurrean alaz ezin egonik zagozen oiaren parean pekaturako lagun izan dozuen adiskide deungea. Ai! Yangoikoak esana da eze: onelangoen azurrak gaztetako (zaroko) pekatuz ase ta bete egingo direala, ta okerreria orreek eurakaz luurpean obian etzango lo egingo dabeela. Eta ezta bein ta birritan ikusi dana, ta bai sarri ta askotan, one-tarikoak iltea, alkarrerik betiko adiskidetasuna opaka, ta oraindo berbea aoan daukeela, Diabruak oratu ta euren arimaak infernua ondatuten dituezala. O Yangoiko andia, eta ze bildurgarria zorean, pekatari deungea zeure eskuetatik botata, bere biotz galduaren eskuetan itxiten dozunean!

Uste dozue eze, bere bizi guztia, ondasunak nai oker, nai makur batu (batzandu) ezinik emon dabenak, ta besteen leporik ta besteen kaltean aberaztu danak, ordu atan sinistuko dabela eze, bere ondasunak okerrak ta bide txarrekoak direala, eta naiko dabela, batari ta besteari, berea emonik, bera ta umeak ezer-ez ean kale gorriaren (gogorraren) ganean gelditutea? Ai! Yangoikoak diño onelangoak gaiti eze, atera ta errebesadu bear-ko dituezala, iruntzi zituezan ondasunak: baia ez berak gurako dabelako, ta bai Yangoikoak berak botarazoko deutzazalako. *Divitias quas devoravit, evomet, et de ventre illius extrahet Deus.*

Uste dozue eze, artean fedeko egiak, ta andiko aldeko egia sinistu gura ezik ibili dana, orduan beingoan direanak sinistuko dituzala, ta Yangoikoagana biotz biotzerik biurtuko dala? Orduantxe, bear bada, adierazo gurako dau orreek, alangoen ganean berak besteak baño argi obeak, ta biotz geiago izan dabela, ta eztabela orren damurik ez alango (gauzeen) ipuiñen bildurrik: bear bada eztau gurako eleakorik bat-pere artu egin, ez kristiñaua danik pere erakutsi, ilten ezpada aurrean dagozanai berari gero barre egiteko bidea emongo deutzelata.

Uste dozue eze, emakume buru-erexi bat, bere edertasunak zoraturik, bederatzigarreneko ta seigarreneko zantarkerietan ta pekatuetan onda-

turik bizi izan dana, eztala damuz beteko, itxi bear dituzalako ordurarteko (giñoko) atseingarriak, yaztekoak, ibileraak, ta ain gozo egiten izan yakazan osterantzekoak? Ai! Orduan Yangoikoak alan gura izan da, iya iya ilten dagoanean bere edertasuna gora, bere edertasuna beera, besterik gogotan eztau erabiliko: beti egongo da bere artean ea zer erason kalte egin izango deutan arpegian luzaroko gaixoak (gatxak), ta ezaindu izango dabelako damuagaz; pozik entzun gurako dituz bestek orren ganean esan gura deutzazan labankeriak: eta azkenengo arnasakaz dagoala bere ezingo dau galdu munduko zorakerien zaletasuna: ta esango dau Amalek Erregeak beñolan legez: «Onelan il bear dot neure urterik ederrenetan? *Siccine separat amara mors?* Zuk, Yauna, zuk esanik deuskuzu Eskritura santuan eze, (bakotxa) zelan bizi, alan il egingo dala bakotxa. *Quorum finis erit secundum opera ipsorum.* Seigarrenekoan gaistoak bazaree, alangoxeak ilgo zaree: ondasunen amorru geiegiaz bizi izan bazaree, amurru orrek yarraituko deutsue eriotzako orduan bere: bizi izan bazaree ez gatz ta ez ura Yaingoikoaren gauzeetan, ilgo zaree sen bagarik, ta prestakuntza bero andi bagarik: beti ibili bazaree ontzeko, ontzeko, bein bere ondu bagarik, ilgo zaree gogo onez beterik ta egite onez utsik: bizi izan bazaree bein yausi bein yagi; orain pekatu egin, gero konfesadu: osteria pekatu, osteria penitentzia, zuen eriotzako prestaeraak, konfesiñoak ta besteak izango dozuez argalak, ta indargeak: zuen negarrak urtengo dabee biotz samur batetik, baia ez biotz bete betean (oso osoan) damututik. Berba baten ilgo zaree zeuen pekatuan, Yaungoikoagana biurtuteko astirik ta abegune onik izango eztozuelako; edo badozue, gatxak galerazoko deutsuelako; edo bai beintzat ekandu txarrak: edo azkenez, oi eztana, Yangoikoagana biurtuten bazaree, laster atzera pekatuta biurtuko zareelako.

Zer egin bear dogu bada? Entzun ta egin Yesukristok dirautsuen: «zagoze beti prest, (usterik gitxien) gitxien uste dozuenean ni etorriko natxatzue-eta». Bai esan bear deutsuet, Yermias-ek beste aldi baten Judea-koai legez: «emon Yaungoikoari gloria, zuen bizitzea ondu, konfesiño onak egin, ta biotzetik parkaziñoa eskatu bear deutzazue eriotzako iluntasunak (beak) artu zagiezan baño leen... gero ezipabere alperrik billatuko dozue argia: Yaunak biurtuko deutsue guztia eriotzako geritz ta iluntasun». Esan bear deutsuet San Paulo-ren berbakaz: (astiak) denporeak dirauskun artean on asko egiteko (egin bear dogula)

Esan bear deutsuet Isaias-ek Ezekias Erregeari legez: *Dispone domui tuæ, quia morieris.* Egizue osasun onean, ta geiegi luzatu bagarik zeuen testamentua, aurretiaz (lendañez) emoten deutezuela zuen gauzai izango dabeen bidea: itxiten dozuezala artezturik zuen gauzaak, bada orreek,



obeto eginaz ganeti, ezteutsue galarazoko eriotzako orduan Yangoikoa-gazko gauzaak ondo egiteko ain bearra izango dozuen denporea (astia). *Dispone domui tuæ*. Atera egizuez al dozuezan zorrak, neke puska bategaz bada bere, ondorengoai itxi bagarik aterateko: ezin dozuezanak, paperean garbiro imini egizuez, artez esaten dozuela zer zor dozuen ta nori: zer arturen (arkien) daukazuen ta non: eriotzako ordurako lan txarrak dira orreek; eta alde batetik eztira ondo egiten, eta bestetik barriz eroaten dabee beste gauza obagorako bear dan astia. Oneek guztiok alan zuzen erabili ezkerro, nai eriotzea datorrela ustez uste bagarik, eta ezer (bapere, arean) egiteko leku (asti) bagarik, nai astiro ta leku andia emoten dabela ezta ardura, eta ondo il oi doa, osterantzean deungaro; bada san Agustin-ek esan ebana, ta egia andia, da eze, ezin deungaro il leitekeala ondo bizi izan dana, ta nekez izango dala ondo iltea deungaro bizi zana. Entzun orain exenplu bat.

Inglaterra-n gauzaak naastaurik ebiltzazanean, eta katolikuai biziten bere itxiten etxakeenean (ez eutseenean), egoan gizon aberats bat, onda-sunak galdu gura etzituzana, eta zerua bere ez al balegi. Orretarako bere-tzat egin eban: «zerua irabaztea ez yagok ondo bizi izatean, eta bai ondo iltean. Egingo yoadana bada bakean itxi yegideen, eta neure gauzeetan ukutu ez yegideen izango da ze, kanpotik eta agirian protestante (hereiea) izango nok. Ondo yakiat nik au pekatu mortala doana; baia eriotzako orduan konfesauko nok, eta estuen estuen naiabilela bere, damuaren señale bat emonda absolbiduko naioek». Asmu onegaz konfesorea beti eskuan izateko, artu zituzan konfesore bi, Londres-en, eta beste uritxu baten eukazan etse bietan, banatan bat izateko. Bein baño sarriago ekin eutsan Erlijioso on batek ori etzala ondo: Yaungoikoaren kontra ez ego-ala asmu onik: ak gizonak baño geiago yakin, ta esku geiago daukalata. «Yauna, esaten eutsan, ezin il zintek ez lo zagozala? Ezin, akzidente batek artuta, bertan ilik geratu zintek ez, Yesus esateko asti bagarik? Ezin gelditu (lotu) zintek ez gaixoaren andiagaz (kokorroturik) korromorroturik, zer egiten dozun, eta nontzagozan bere asko eztakizula? Ezin burura egin lekikezu? Ezin gelditu zintek ez yausi mutu bategaz bertantxe ilik? Ezin beste (alde) modu askotara il egin zintek ez, ezetarako (leku) asti bagarik? Ai zorakeria andia da, ain erraz galdu leitekean gauzaren pensuan, gure salbaziñoa, arimea, imintea. Yangoikoari asmuakaz? Belu (Berandu) gauz'onik. Baia berak: izango ebala nonbait konfesetako astia: izango ebala aurki konfesetako erea, ta ez eutsan yaramaiten (yaramoten). One-lan bizi izan zan aberats ori eriotzako orduko konfesiñoaren usteakaz. Baia, zer yazo yakon? O Yaungoiko bildurgarria! Nos ikusiko ete dabee

gizon itsuak zeure kontra eztagoala gauza dan asmu onik? Nos sinistuko ete dabee gizon zoroak eriotza ona egiteko leenagotik arteztu bear direa-la arimako gauzaak? Bein baten bada yoiala gizon ori Londres-ko etseti eta beste uriko bere etsera, akzidente batek emon eutsan. Arin arinke...

[Sermoiari orrialde bat edo falta zaio. Arantzazuko artxibokoa]



10. ZE BIDE TI GALDUTEN DIREAN PEKATARIAK: PEKATARI GOGORTUEN GANEAN

(J, 189-199. or.)

Curavimus Babilonem et non est sanata;
derelinquamus eam.
Jerem, c.51.v.9

Ai kristiñauak! bazenkie zelan daukadan nik biotza gaurko arratsal-deko sermoia egiteko! Banator egitera Jgkoak.mundu onetan pekatari baten emon leikion kastigurik gogorrenaren ganean. Berba egin gura deusuet arako pekatariak pekatu eginagaz ta eginagaz gero ta gero bere artu oi daben biotzeko gogortasunaren ganean, arako Jgkoak ezin beragaz ezer aterarik gogaiturik legez bere eskuti itxita dirautsanean: zabiltz zabiltz zeure gogora, egizu gura dozuna, pekatuz ase ase egin zaitez. Eta onelango gauza itzal au gogora etorteak neure biotza ilun ilun eta larri larri egiten deust. Ai baneunko nik orain antxinako Profeta santuak izan ebeen santutasuna ta indarra onango gauza itzal ikaragarrien ganean bear dan legez egiteko! Isaías, Jeremias, Ezekiel nok euki leikean orain zuen indar guztia, neure entzula maiteak ulertuten emoteko zer dan, ta ze bildurgarria dan Ygkoak pekatari itsuai mundu onetan emoten deutsen kastigu gogorra, arako bere eskurik itxita pekatuan gogortuten itxiten deutsenean! Baia, izango ete litzateke asko ori indar guztiori alango ikaragarritzko kastiguaren ganean bear dan legez egiteko? Balitz or neure entzulai esatea euren pekatuak gaiti galdu bearko dituezala euren ondasun guztiak, asko izango litzateke zuk legez, Isaías, narrugorrian billosik urtetea. Balitz or esatea pekatuakaiti preso kastigu eroango dituezala erbesteko erri (aragoetara) urrunetara, asko izango litzateke zuk legez, Jeremias, kateaz beterik urtetea. Balitz esan bearra euren pekatuakaiti goseta andi eskergaak ikusi bearra asko izango litzateke zuk legez, Ezekiel, berrogei egunean yatea errari utsa bei korotzagaz nastauta. Baia egin bear dodanean Jgkoak pekatariari gogortuten itxita emoten deutsen kastigurik gogorrenaren ganean, zer egin nei, edo zer esan nei? Ai! eztakit nik ondoen izango ez bada esatea zuk legez, Jeremias, ume bat nasala eta eztakidala barbarik egiten (berbetan eztakidala).

Pekataria, pekatuaren lo zorroan gogor gogorrik zagozana, esan eikezu antxina beste batek legez: nik pekatu egin dot, baia, ze gatz izan dot orregaitik? Bear bada zeure buru-ganean daukazu Jgkoak. munduan emoten daben kastigurik gogorrena, edo ameneko urrean zagoz kastigu ori zure ganean ikusteko. Bear bada ya orainganik zagoz infernuko ilinti baltz izateko ebagirik, edo ebagi izateko urrean. Iratzartu zaitez, iratzartu al bazintekoz eta begiratu egiozu zeure buruari guztiz galdua izan baño leen. Eta ori egin daizuntzat nik arrastegi onetan zer dan biotzeko gogortasuna (azalduko deusut).

Eta asi baño leen, yakin bear dozue Ygkoak iñori bere iñori bere ezteutsala ukatuten zerua irabazteko bear direan besteko graziak. Baia grazia eta laguntza oneek modu bitakoak izan oi dira: batzuk dira zerurako bidean paretako egin eginak direanak; beste batzuk dira pekataria beingoan zerurako bidean paretako eztireanak, ezipabere beste gauzonen bat egiteko, zein eginda emongo litxakion, geldi geldi emongo litxakion zeruko bidean sartuteko grazia bere. Lelengo moduko graziai esan daroakioe Teologuak grazia urrekoak, bigarrenai grazia urrenekoak. Alan pekatari batek Jgkoaren bidean yarteko bear dau damu zolia, ta zindoa, bear dau aleginez konfesiño ona, bada ori egiteko grazia Jgkoak emoten badeutso, izango da grazia urrekoa. Baia emongo ezipaleutso, konfesateko grazia, ezipabere beste gauzonen bat egiteko, barbarako, limosnea, edo oraziñoa egiteko, zein eginda gero emongo leuskion konfesiñoa bere egiteko grazia, orrek izango leuke grazia urrunekoa. Orrelango grazia urrenekoak ezteutsez Jgkoak iñori bere ukatuten ezta pekatariarik andienari bere; baia bai, eta askori, grazia urrekoak.

Yakinda egon bear zare bere pekatariak pekatu eginagaz ta eginagaz artuten dabeela pekatu orrentzako etxuntasun, zaletasun, eta egarri andia, eta egiten direala Jgkoaren graziai indar eta kontra andiak egitera. Emeti yatorke gero izkunez pekatu egitea eta Jaunaren graziai ez erantzutea, eta onetara eldu direan pekatariak esan yoake pekatari gogortuak, Jgkoaren graziakaz onduten eztirealako, eta ondu bere egingo eztirealako. Au yakinda, entzuzue orain zelan asten dan gogortasun ori; zelango aurrera bideak dituzan, eta zetara yoten daben geroenean.

Induraverunt cervicem suam supra petram,
et noluerunt reverti.... confregerunt
jugum, ruperunt vincula...
Numquid super his non visitabo dicit Dominus?



Aut super gentem hujuscemodi
non ulciscetur anima mea?
Jerem. c.5. v.3, 5 et 29..

Fedeak erakusten deuskun egia ederra da: bizi garean artean, eta arnaseak dirauskun artean edozeinbere ordutan Ygkoagana biurtu gintekezala, eta biotzerik egiten badogu, izango dogula geure pekatuen parkaziñoa. Ezekiel profeta santuaren aotik Yaunak berak diño eze, eztabela berak gura pekatariaren eriotzarik, ez iñoren galtzairik; ezpada guztiak ondu eta bizi ditezan. Baia, zer diñot nik, esan? Yuramentuaren azpian dirausku Yaun orreek ze pekataria onduten dan edozein bere ordurik eta geiago ezteutsela gatzik ekarriko ordura-arteko (artietako) pekatuak. Ori alan da, baia orregaz batera Eskritura santuan esaten yaku eze, Ygkoak batzuen begiak itsutu egiten dituzala, eta euren biotzak gogortu, begiakaz ezer ikusi eztagientzat, eta biotzagaz ezer aditu (ulertu) eztagientzat; esaten yaku eze, Ygko orrek gura dabenen erruki dauela, eta gura dituzanak gogortu egiten dituzala. Yaun orrek bere aoti egiten deutse pekatariak zemakuntza bildugarri au: «Nik deiez egin da zeuek muker egon zareelako, nik eskua luzatuta, zeuek begiratu bere eztozelako; ostikopean erabili izan dozuelako nire ondo-erakutsiak, eta nire agirakai yaramonik bere egin ezteutsezuelako, nik bere zeuen eriotzako orduan barre egingo deutsuet, eta burlazar egongo natxatsue bildur zareen aldi txarra etorri dakizunean. Orduan, diño aurrera, dei egingo deuste, baia nik ez entzun egin-go deutseet, Yaunaren bildurra alde-batera bota ebeelako».

Zelan da bada ori, esango deustazue, alde bateti Ygkoak guztiak ondu gura, guztiai parkatu gura, guztiak salbau gura; eta besteti, barriz, batzuk itsutu, gogortu; beste batzuei barre egin, dei egiten deustenean bere, ez entzun egin? Zelan dan au? Ai! ori da bada biotza minez bete bear deuskuna. Ygkoak guztiai dei egiten deutse, guztiak ondu gura dituz, guztiai yagoke parkaziñoa opaka; baia askok ezteutse yaramaiten, aurrera eroan gura dituez euren okerreriak; Yaunak dei, eurak ez entzun; Yaunak deadar, eurak gor; eta onelan eurakaz pelaska, eta burruka legez ebili ezkerro, azkenean gogaiturik legez esaten dau bere artean: bada, eztozu nire esanik egin gura? Or dozula; egizu gura dozun guztia, eze ni nire aldeti nago. Zeu etorriko zatxataz eskupera; eriotzean nik atrapaduko zaitudaz eta orduan alkar ikusiko dogu. Onetara ezkerro bere, egia esateko, emoten deutsez bere grazia, laguntasun batzuk, eta dei batzuk; baia ez lengo dei zoliak eta laguntasun indartsuak, eta zelan eurak pekatu eginagaz eta eginagaz euren biotzak lengo aldean gogorrek egin izan dituezan,

leen dei zoliagoai ez entzun egiten beutseen, gero motelagoai obeto egin-go deutse, eta leen laguntasun eta grazia indar andiagokoakaz onduten ezpazirean, gero laburragoakaz gitxiago onduko dira. Onelangoai esan daroakegu Ig-koak. gogortuak, ez Ygkoak gogortasun ori emon deutseelako, ezpada ze Ygko orrek ainbeste alegin alper eurakaz egin ezkerro, lengo yaramon andirik egiten ezteutseelako, eta orregaz gero eurak euren buruak gogortuten dituezalako. Eta ori egitera ezkerro, ai ze zorigaistokoak direan pekatariak! Ya egin eban eurenak: iltea besterik bear eztabe infernua ikusteko. Onduko balira orain bere, artuko leukeez Ygkoak: bear dan legez damutuko balitxake, parkatuko leuskioe; baia etxake damutuko eztera onduko; eta alan yakina da euren infernura bearra.

Izango eta da neure entzuleen artean alango pekatari gogorturik? Izango eta da alangorik? Eztakit nik: baia beldur nas, izateko urrean asko zagozela. Baia ez: iratzartu bear dozue arratsalde onetan: ezagutu bear dozue ze arri labanaren ganean zagozen labrast (larraprust) egin eta infernua yausteko. Beintzat nik orretarako aleginak egiteko asmuak dakardaz. Entzun bada zeen ganean izango dan gaurko arratsaldeko sermoia. Era-kutsiko deutsuet nondi asten dan pekatari bat galduten; zelango bideak daroazan gero; eta zetara yoten daben azkenean. Edo laburrago esateko azaldauko deutsuedaz pekatari gogorraren asiarea, geroko bideak, eta azken txarra.

Cum diabolus jam misisset in cor ut
traderet eum Judas Simonis Iscariotae.
Joann. c. 13.v.2.

Oneek berbok entzun dozuez puntuan kantau dan Ebanjelio santuan: Diabruak emon eutsala Judas-eri Jesukristo salduteko burua; eta nik euretati bidea artuten dot zuei berba egiteko pekatari gogortuen ganean, eta zuei iragarteko zelango bideetati galdu oi direan pekatari errukarriak, euren pekatuen ondarrean eta biotzeko gogortasunean yo artean. Orretan bere, Kk., begiraturen badogu zer egiten daben J.K.k Judas-en aurrean, eta Judasegaz beragaz, eta zer egiten daben Judas gaistoak, zer ikusiko dogu Judas-egan, gizon guztizko oker bat, eta pekatari gogortu bat baño?

J.K°. ge. Jaunak afaria yan ezkerro, yagiten da mairik, kenduten dituz ganeko soñekoak, ifinten dau garriti miesa eun garbi bat, garbituten deutsez banaan banaan oñak Apostulu guztiai Judas euren artean zala. Yesar-



ten da barriro lengo lekuan; bertantxe asmetan dau modu miragarritzko bat, bere gorputza gizonai yanari emoteko, eta bere odola euren edari egiteko eta bera oso osorik eta bizi bizirik ogiaren eta ardaoaren irudian euren bularrean sartuteko; emoten deutso Judas-eri berak bere eskuz komuniño santua. Baia Judas ori ezta orregaiti bapere onduten, ezta arean atzeratuten bera salduteko arturik eukazan asmuetati. Ulertuten emoten deutso J.K.k. Judaseri, berak bakiela aren gogoen barri, bekiala zelango asmu txarrak darabiltzazan esku artean. Baia orregaiti bere Judas beti gogor, beti gaisto, eta onduteko gogo bagarik.

Baia, zer diñot nik, leen legez gogor eta onduteko gogo bagarik? Leen baño gogorrango egiten da Judas, leen baño gaistoago, eta egarri geiago erakusten dau bere Maisu Jauna salduteko. Eta alan diño Ebanjelio Santuak komunio santua artuta berla sartu zala Judas-en biotzean Sata-nas, eta beingoan urten ebal bere maisua gau atan berean bere arerio gogorren eskuetan iminteko gogoagaz. Auxe da, Kk., pekatari askogaz yazoten danaren irudi egin egin. Onenbestean sartuten eta gogortuten dira euren pekatuetan eze ez tira ezegaz bere onduten, ez sermoiakaz, ez liburu santuakaz, ez Jaunaren deiakaz ez areanegaz bere. Ai eta zeinbat onetariko izan oi direan Misiño santuak egiten direan errietan. Batzuk Misiñoa errian izan arren, ez tira sermoietara elduten, eta besteak Jgkoaren bideetan sartuten direan artean, geldituten dira eurak leen baño deungo ta gogorrango. Beste batzuk batoz sermoietara edo ikustearren Predikadoreak zelan egiten daben, edo euren kreitua yagotearren, eta munduaren begietan eder-erestearren. Baia entzunda entzunda bere ez tira onduten, eta iñosko alditan Jgkoaren. berbeagaz ikara aldi bat artuten badabe, laster aztuten yakez entzun dituezan berbaak, eta galduten dabe ikara ori. Gauza ikaragarria beintzat, eta bildur andia emon bear deuskuna. Zuen biotzetan onelango bildur santu au sartu dedin, eta kontuz ibili zaitezen alango negargarritzko moduetara ez etorteko, berba egingo deusuet biotzeko gogortasunaren ganean.

1. Ezta iñor beingoan ta batpatean deunga deunga egiten. Pekatari-rik andienak asi dira gauza txiki bateti, gauza txiki onen atzean egin dabe gauza andia gotxu bat, gero andia gotxu bat, geroago osteria andia gotxu bat, eta ibilian ibilian, eldu dira azkenean pekatu anditzarrak bere egitera eta galdu batzuk izatera. Gorputzeko gatzakaz yazo oi dana, yazo oi da ari-mako gatzakaz bere. Gorputzeko gatzak eztoaz beingoan etorri: lelengo sentietan da burukomin puskatxu bat, gorputzeko astuntasuna, alboko errenkuratxu bat. Orduan itanduten badeuskue ea zer dogun, laster erantzun daroagu: e! Ezta ezer, laster yoango yat. Baia gerora gerora deunge-

tuaz doa gatxa, etxun bear izaten da oean, ofizialeari edo medikuari deiegin bear, elexakoak artu bear; eta atarik atara (atan onetan) eriotzea bere etorri doa. Alantxe da bada pekatuakaz bere, eta pekatari andito tzar guztiai yazo yake arako Jgkoaren esana: gauza gitxien yaramonik egiten ezta-bena bera geldi-geldi andietan bere yausiko da.

Nondik uste dozue asi direala lapurto tzar andiak? Lauziri laumarai ostuteti: sagar bat, arrautza bat, arta mitxer bat, kabilla bat kenduteti. Gero kendu zituzan diru apur batzuk, egin eutsen soñerako gurasoai laborea: geroago kendu zituzan orreek baño geiago zirean gauzak: eta azkanean lapur galdu eginik ortxe dabil bideetara urtetan ta ondasun andiak ostuten, edo lagunak artu eta etseetan sartu eta etse beroa galantak ezer bagarik itxiten. Nondik asi zan galduten arako gaurko egunean seigarrenekoan begi bietagiño ondatuta bizi dan gazte ori? Lelengera etzan izan dantza nastu baten edo gau bigira baten labankeriatxu bat epe-lik entzutea baxen, gero gogoz eta barrez entzuten zituzan berba arinak eta zelebkeriak, geroago berba nasaik bere bai; geroago abiau zan beste-eari erantzuten, eta berak bere beste ainbeste esaten; geroago izan eban ukiera arintxu bat, gero zirri bat, gero mosu bat, gero laztanga bat, gero-ago zantarkeria bat, eskua bear eztan tokietati erabilte bat, eta gerora gerora aragizkoan bere yausi zan. Lelengoa egin ezkerro errazagoa izaten da bigarrena, errazagoa oraindo irugarrena eta laugarrena; eta azkenean onenbestean bota dituz itzalak eta galdu deutse bildurra aragizko orrei eze, ur otza legetxe parra parra edaten dituz gaurko egunean.

Auxe da pekatari galdu guztiak eroan daben bidea: pekatu mortal tzarren oña beti izan da pekatu txikiren bat. Birao andien oña birao txikerra, guzur andien oña guzur txikerra, murmuraziño andiena murmuraziño txikerra. Gurasoai lotsa txarra artuteena burrufada (murruskada) bat, gorroto andiena ezin ikusi bat, ordi galantenak tragutxu bat geiago ezartea, eta alan besteetan. Nondik asi zan zorigogorreko Kainen galdubearra? Dakiguneti bere lelengo pekatua izan zan Jgkoari opatutea artu zituzan frutuetarik txondorrenak eta motxorrenak; gero izan zan bere anaie Abel-eganako ezin ikusia; geroago gorroto gogorra bere bai; gero il eban anaie ori, eta azkenean penitenziarik egin gura bagarik ebili zan Jgkoaganik igesi. Saul Erregearen galtzaieraren oña ta asierea izan zan Jgkoaren agindu txiki bat ez yagotea; gero ausi eban beste andia gotxu bat; gero ezin ikusi izan eban Dabid; geroago ain gorroto aserrea sartu yakon biotzean eze askotan ta askotan ibili zan nondi nora ilgo eban Dabid ori, eta azkanean iltzan pekatari gogor eginik.



Baia, zetarako izango dot burua austeaz onelango yazokuntzaren atzean gaurko Ebanjelioak aitatuten deuskun Judas-egan badaukagu onen ganeko yazokune ikaragarritzko bat? Judas-egaiti dirauskue S. Agustinek, S. Leonek, S. Gregorio Nazianzenok eta beste yakitun askok lelengo asikera guztizko santu andi bat izan zala, eta milagro andiak bere egin zituzala. Baia ara gerora zetara yo eban. Eta, bakizue zein izan zan bere galdu bearraren sustrai guztia? Judas-ek eukan lagunen arteko diruen kontua: atarik atara asi zan ziri-miri zerbait bere aldera atzeratuten eta lapurreta txikiak egiten; otzitu zan J.K.^o. eta Apostoluakganako amodioan, deungaro bere esan eban Madalenea gaiti: ibili ta ibili J.K.^o. Jgko. ta gizon egiazkoa saldu eban, eta komuniño santua deungaro artu eban; eta azkenez bere buruagaz ernegauta berak bere eskuz urkatuta iltzan pekatari gogor eginik. Alantxe izaten da pekatari gogortuen galtzaierea pekatu txikiren bateti.

2. Baia, zelango izan doa euren aurrerantzako bizitzea? Ai! guztiz deungea eta pekatuz alde guztietarik betea. Onelango pekatariak pekatu txikiak eginagaz ta eginagaz lotsea galduten deutse onelango pekatu txikiak, eta artzen dituez bideak pekatu anditxuagoak bere egiteko; onei lotsea geldu geldu galduta datoz egitera pekatu mortalak bere; onei bere laster lotsea galduten deutse eta onelango pekatu mortalak eginaz yausten da pekataria pekatuen ondarrera, eta, orduan? Orduan Jgkoak berak diñoana: Bekataria pekatuen ondarrean yausi danean *contemnit*, eztau ezeren yaramonik egiten, eztau ezegaitik bildurrik artuten, ezteutso ezeri bere lotsarik yagoten. Ezteutse lotsarik artuten ez gurasoi, ez maisuai, ez bere buruari zor deusaz kleitu ta izen onari, ez munduaren esan errazoazkoai, ez Jgkoari berari. Eta alan orretara ezkeru ur otza legez parra parra edaten dituz pekatuak. Judasegaitik Ebanjelioak diñoana yazoten yake onelango pekatari galduai: sartuten yake Satanas barruan, eta onelango yaubea biotzean daukeela, zer egin leie ezipada diabruaren obra gaistoak, pekatua, ta pekatua?

Ikusi dozue zer yazoten dan ibiakaz neguan arako euri andiak egin da uriolea etorri danean? Bada auxe da pekatari galduagaz yazoten danaren irudi egin-egina. Ibiak lelengo eran eztira izaten iturritxu batzuk baxen. Iturritxu onek dakarren ur guztiari geldieragin leikio eskuagaz, orbel batzukaz, arri bategaz, zoi bategaz, edo edozein gauzagaz. Ur puska oneri batzaiten yako beste iturri baten ura, gero beste batena, gero beste batena, eta geldu geldu egiten da erreka bat. Erreka oneri batuten yako emeti erreka bat, besteti beste bat, besteti beste bat, eta egiten da ibai bat. Datuz gero eurtiza andiak, egiten da uriolea; eta orduan zegaz lotuko da

(lotuten dabe) ibai ori? Ezegaz bere ez. Ateretan dituz ondaretik aretx zar lodi sustrai ta erro andietakoak; daroaz urrunetara arri astun pisu andikoak; daroaz errotak, zubiak, presak, olaak, berba baten, ezteutso lotsarik aurrean iminten yakan edozein gauzari.

Ea ezipabere, zer yazoten da seigarrenekoan begi bietagiño ondatuta bizi direanakaz? Leleng'ueran, zelango lotsea emoten eutsen aragizko pekatuak ez eze, baita bere edozein zantarkeriak, edozein berba-loik! Alangoren bat ikusi edo entzuten ebeen orduko, gorri gorri egiten yaken arpegia, eta non egozan bere ozta ozta yakiten ebeen. Gerora berbai lotsea galduta bere, ze lotsea gauza txarra egiteko! Zeinbat bider ebili zirean egin gurarik eta lotsaarren esan ezinik? Geroago egiten abiau zireanean, ori egiteko bazterretati, eta okeluetati ebili zirean, eta iñok yakin legioen bere gura ez ebeen. Baia gero azkanean onenbestean galdu deutse lotsea seigarreneko orreri eze eztirudi ezipabere ori dala beuren yana, beuren edana, beuren loa, beuren guztia. Gau ta egun, lagunagaz ta bakarrean, ezkutuan ta agirian, plazai, bideai ta ellexai eurai bere parkatu bagarik beti darabildez esku artean seigarrenekoa. Beuren gogoak ezteutse besterik ekarten seigarrenekoa baño: beuren miñak eztaki beste barbarik egiten seigarrenekoak baño: beuren eskuak beti dagoz prest zantarkeriak egiteko: beuren gorputza beti bero seigarrenekoan ibilteko. Al daben guztian al daben guztiakaz dabilz; ezteutse parkatuten ez neskatileari, ez alargunari, ez ezkonduari, (ez libreari), ez atzeari, ez aldeari ez batari ta ez besteari. Eta S. Pedro-k diñoan legez, eztakie onelangoak zelan itxi pekatu egitea.

Zer yazoten da tratu okerretan sartuta bizi direanakaz? Lelengoa bildurrez ebiltzazan puskatxu bat euren aldera kenduteko, atzeratuteko, apur bat neurrian ta pisuan laburrago (gazatxuago) emoteko: gero ardura bagarik ta bildur bagarik ostuten dabe geitxuagotxu izan arren edo asko izan arren bere, ezteutse ezer tratu okerrak egin arren, eta erri guztiaren aotan ibili arren, eta lapurren izena izan (entzun) arren, ezteutse ardura aberaztuten badira eze [sic]. Zer da yazoten dana arako ordi konkorr galduagaz? Arako lelengo ardaoan igarota bere buruaren yaube etzala guztien aurrean barregarri eginik parau zanean, zelango lotsea biaramunean!, zelango atserakuntzea iñoren aurrean agertuteko! Ta gaurko egunean? Al daben guztian ordituten da bapere ezteutsala guztien aotan ibiliagaitik, guztiak bera orditatz daukeela. Ibili zaiteze alan bein banaan pekatari anditzar guztietati, eta ikusiko dozue zelan lelengoa lotsa andi bat eta bildur andi bat artuten eutsen pekatuari; zelan yoan direan geldu geldu apurka apurka bildur ori galduaz; eta zelan azkanean itzalak guztiak galdurik,



ezteutsen ezeri bere lotsarik artuten; zelan eztituzan ezek bere atzeratuten pekatu egiterik, eta alan ur otza legez zarra zarra edaten dabeela, eta ezta-kiela zelan itxi pekatu egiteari.

3. Emetik yatorke onelango pekatariak euren gaistokerian gogorturik egotea, eta ezegaz bere ez ondutea, ezta bear dan bidean sartutea. Arpelak dira onelangoentzat beste modutako pekatariak onak izatera ekarteko asko izaten direanak: arpelak sermoiak, arpelak liburu santuak, arpelak sakramentuak, arpelak ejenplu onak, arpelak errian yazoten direan subituko eriotzak, arpelak euren ganera Jgkoak biralduen dituzan kastiguak, arpelak euren biotzetara Jaun onek biralduen deutseezan argi-aldiak eta dei gozoak. Bera ebiliko da alangoetati igesi, berak itxiko dituz begiak, berak zerratuko (gortuko) dituz belarriak, berak gogortuko dau biotza alangorik ez ikusi, ez entzun, ta ez artu egiteko. Eta iñosko alditan biotzez kontra ta gogoaz bestera alangoren batek artuten dabenean, ezta onerako puskatxu bat bere zirkinduko, edo laster itoko dituz biotzean erne ta biztuko yakazan (biztu lekikezan) samurtasunak eta gogo santuak.

Judas-egan daukagu onen ganeko irudi ta yazokera bildurgarri bat. Egoan Judas J.K°.ren eskolan: bizi zan Jgko ta gizon onegaz eta Apostolu santuakaz batera; egunean egunean ikusten zituzan onen exenplu on ezin obeak, eta bere aurrean egin zirean milagro ta mirari guztiz andiak, eta beste Apostoluak bere lagunak geroago ta obeago egiten zirean artean, Judas geroago ta okerrago egitentzan eta onenbestean eze artu zituzan asmuak bere Maisu Jauna zeru-lurraren yaubea salduteko, eta bera ilteko ebilkozan arerioen eskuetan iminteko. Onetara ezker bere garbituten deutsez J.K°.k oñak apostolui Judas bera euren arteantzala; lotsatuten da S. Pedro bere Maisua bere oñetan alan ikusirik; baia Judas ezta orregaiti bigunduten. Ulertutera emoten deutso J.K°.k bekiala berak aren biotzaren barri; bekiala ak eskuartearen ze dollorkeria erabilen; baia ezta Judas orregaitik atzeratuten, eta bere burua guztien aurrean garbi egin gura dau: emoten deutso Jesusek bere korputz santua komuniñoan yaten, ta bere odola edaten, eta orduan urteten dau J.K°.ren arerioagaz egoten, eta onek ekarten Jaun ori preso artuteko. Bator soldaduakaz eta Pontifizen otsein mutilakaz Jesus preso egitera, emoten deutso, besteai irudina emoteko, bere arpegian guzurrezko mosua; eta ori ezer ezpalitz legez esaten deutso J.K°.k bapere aserratu bagarik, guztiz gozoro: adiskidea, mosu bategaz salduten nozu? Baia ezta orregaiti bigunduten. Damututen yako azkenean bere oker egin arako bere Maisua ain gogor artuten ikusi ebanean, baia ezta orduan bere onduteko asmorik artuten, eta Jgkoari parka eskatu bearrean, eta penitentzia egin bearrean, bere burua urkatuten dau.

Bai, Kk., bai; arpelak izango dira pekatari gogortuak onduteko alegin guztiak, ezta berak ondu gurako, eta alegin orrei utsean yo eragingo deutse. O eta zeinbat onetariko ikusten direan gure artean! Eztaukazue begiratu baxen zer yazoten dan askogaz misiño denporan. Bator misiñoa erri batera, asten dira sermoiak eta orra non datozen lagunak eurrez ta bide beteetan Jgkoaren berbea entzuten. Baia pekatari gogortuak edo eztabe oñik iminten elexan, edo badatoz izango da munduaren esa-mesa gaiti, edo ikustearren predikadoreak zelan egiten dabenean. Dei egiten da konfesetara etorteko, batoz asko ta asko euren arimak garbitu gurarik, eta Jgoikoagaz bakeak egin gurarik. Baia pekatari gogortuak? Orreek bai. Eztira konfessorearen oñetara elduteko, edo elduko dira onduteko gogo bagarik, pekatu-laguna etseti kanpora kendu gura eztabela, pekatuen bideetati, dantza nastuetati, gau-bigireetati, mutil-neskatillen batzarretati alde egin gura bagarik, ekandu gaistoak galdu gura bagarik, bakotxari berea biurtu bagarik, eta biotza otz otzik eta gogorturik daukala. Baita izan doaz onen artean damu artuten dabenean Misiñoa errira datorrelako, eta aleginak egiten dituezanak galarazoteko, zein Jgkoak bere berbeagaz biotzera bildurren batzuk bota dagioezan, edo zein pekatu-laguna sermoiakaz ondu dakien.

Egongo da errian bat edo bat txikitarik asi zana seigarreneko zantarkeriak egiten, andi eginda pekatuak bere andiago eta ugariago egin dituzana, tratu okerrean sarturik dagoana, edo ardaoan sarri igaroten dana; konfesiño, komuniño onik egiten eztabena eta berba baten azur ta guzti pekatuz eta okerkeriaz betebeterik dagoana. Jgkoak bere erruki andiz biralduen deutzaz nekeak, eta betetan deutzaz arantzaz bere bide guztiak, ea iñondi ekarri al balegi ona izatera. Galduten dituz auziak; suak erretan deutzaz etseak; urak daroioz presak eta errotak; ilten yako laguna, ilten yakaz umeak; galduten dau osasuna, eta beti dabil gaxoki eta makal. Artuten daue nekeak nekeen ganean, atsakabeak atsakabeen ganean, naitakoak naibakoen ganean; ozta ozta dauko aldi gozorik ez pozezkorik; eztirudi besterik, ezpabere Jgkoak bere gauza guztiak asensioz eta beaztunez bete deutzazala, ea alan ama batek umeari ugatza legez galerazo al baleio pekatu-gauzeetarako daukan zaletasuna eta oneretxia. Baia ondo arpelik: arpelik yo (ebagi) dau Jgkoak bere zigorragaz, arpelik bana bana egin dau; ezta ikasi gura izan Jaunak irakatsi gura izan deutzan bidea; aurrera eroan gura dituz orain arteko bide makurrak eta gaistoak.

Bai, arpelik izango dira Jgkoak, besteak onduteko artu daroazan bideak, ezta ezegaz bere onduko: ezta ezegaz bere bear dan bidean sartuko. Zer egingo dau bada Jaunak onelango pekataria bide onean sartute-



ko? Artuko dituz beste bide gogor eta indar andiko batzuk? Baia onelango bideak ezteutsaz iñori zor, eta berak dakizan eta berak gura dituzan aldiren batzuetan baño artuten eztituz. Eta artuta bere, onduko ete litzateke pekatari ori? Eztakit nik: bildur nas onduko elitzatekeala. Nik dakust eskritura santua bete beterik alango pekatari gogortu onelango bide indartsuakaz bere ondu eztireanakaz. Ze kastigu gogorragoak eta itzalagoak egin eukeezan Jgkoak Faraon gogorragaz egin zituzanak baño? Eta, ondu zan? Ez beintzat, eta geroago ta gogorrago egintzan. Ze predikadore obarik biraldu eukion Herodes-eri S. Juan Bautistea baño? Eta, itxi eutsan koñateagazko adiskidetasun loiar? Ez beintzat; eta atati artu eban Sn. Juan Bautista ori ilteko bidea. Etzan asko izan zeruko Angeru bat agertutea Balan gaistoa onduteko, eta aurrera eroan eban bere gaistokeria. Etzan asko izan J.K°. Jgko ta gizonak egin zituzan milagro andiak, ez bere sermoi guztiak Yudegu gogorren biotzak bigunduteko, eta onak izatera ekarteko, eta euretati (andixe) artu ebeen bidea J.K°. bera kurutze baten ilteko. Eta J.K° berberaren esana da, eta egia J.K°.ren esana legez, Jaungoikoaren legeak diñoanagaz, eta Profeta santu Jaunaren partez egiten dabenen berbakaz onduten eztireanak, elitekezala ondu ezta il bat beste munduti prediketan baletorke bere. Eta alan onei Jgkoak ondoen ondoen egin leikioena da, ainbat lasterren mundu onetarik garbitutea, eta infernuko ondarretan ondatutea; bada zeinbat eta mundu onetan geiago dagozan, ainbat eta pekatu geiago egingo dituez, eta infernu gogorragoa irabaziko dabe.

O ze bildurgarria dan, eta ze negargarria arima gogor baten suerte zorigaistokoa! Ze su gitxitati asi dan, eta zelango abaro andi zabal ederra erre dan, ezegaz bere amata ezin dala artu daben garrak! Pekatu txikieta-ti asi zan galduten pekataria, eta geldi geldi eldu zan andiak bere egitera; galdu eutsen onei bere lotsea, eta ardura bagarik ezer ezpalira legez egiten dituz: eta gogorturik bere biotza ezta ezegaz bere onduten, ez bear dan bidera etorten.

Eta itanduten badeustazue ea zer diñodan zuekaiti, ea zuek pekatuan gogorturik bazagoze, nik esango deusuet zeuen biotzari begiratuteko eta oneek esango deusuela bazagoze edo ezpazagoze. Begira sermoiakaz bigundu bazare, eta aleginak egiten badozue zuen arimak garbituteko, pekatu bideetati alboratuteko, ekandu txarrak galduteko, bakotxari berea biurtuteko, azpaldiko zorrai erantzuteko, eta berba baten Kristiñau onak izateko, etzagoze gogorturik. Baia alango indarrrik egiten ezpadozue, zuen biotzak ezetara bere bigunduten ezpadira, eta lengo pekatuetan lotuten bazare, bildur izan beartzare pekatuan gogortuta dagozala zuen biotzak.

Bein danik bein pekatu asko ta anditzarrak egin dozuezanok bildur izan beartzare gogortuteko bidean zagozela, eta orretarako aurrera andiak eginda daukazuezala.

Eta guztien artean bildur izan bear dira besteai pekatutako bideak emon deutseezanak; bada besteai onerako bidea emoten deutseenak zeruan izer ederren moduan argi egingo dabeen legez, alantxe besteak galduten dituezanak izan bearko dabee infernuko ilinti baltz bertako surtan erre bearko direanak. Bildur bildur bada gurasoak, zuen biraoakaz, ta araoakaz, zuen ahenakaz, zuen berba loiakaz, eta iñoren deungaro esanakaz zuen umeai pekatutako bidea emoten badeutsazue; bildur zuekaz naste eratzoagaz bear eztanerako begiak idigiten badeutsazue; bildur, fiestetara, yolasetara, gaubeleetara, bigireetara yoaten itxiagaz zantarkeriak eta loikeriak egiteko bideak emoten badeutsazue. Bildur bildur batzarreetan, eskaratzeetan, bear-lekuetan esaten dituezan zelegekeria eta berba arin loiakaz gazteak euren artean erretan iminten dituezanak. Bildur bildur neskatiila, artean garbiak, pekatutako bidea emonda galdurik itxi dituezanak. Bildur bildur mutil gazteai zantarkeriak eta loikeriak egiten irakasten deutseezanak. Bildur bildur euren yoko larregiakaz, alperkeriakaz, ordikeriakaz, askori galdu batzuk izateko bideak emoten deutseezanakaz. Oneek eta olangoak bildur izan bear dira euren biotzak pekatuan gogorturik dagozala edo orretarako bideak darabildeezala, eta gero ta gero bere orretara yo bearko dabeela. Eta zuen artean badago iñor alangorik, bildurtu bedi, eta egin begiz aleginak bere biotza samurtuteko eta Jgkoaren bideetan sartuteko. Eta alegin orrek egiten badituz agiri dau oraindokoarren gogorturik eztagoala. Baia ez luzatu, bada laster sartu lekikezue biotzeko gogortasun ori. Ea bada gaur entzuten badozue Jaunaren deia, *nolite obdurare corda vestra*.



1. ERIOTZEAREN GANEKO SERMOIA

(B, 127-131. or.)

O mors, quam amara est memoria tua!
Eccli. c.41.v.1.

1. Guztiz da garratza eriotzearen gomutea dirausku Yaungoikoak berberak. Baia bildurgarria bada bere, eztago bera baxen gauza obagorik bakotxari pekatuak inñesi eragiteko, biotza garbi gordetako (gorderazoteko), eta pekatuen penitentzia benetakoa eragiteko; egikune edo obra (gauz) onak egiten bizi izaiteko, eta zerua alkanzetako. Orregaitik bada begien aurrean iminiko deusuet eriotzaren gomuta au, erakusten deusuedala lenengo zelan aurkituko zaren ilaginean zagozanean; eta bigarrenengo zelan egongo zaren il ezkerro. Eta auxa izango da arratsalde onetako nire zeregina.

4. ATALA

Lenengo zatia

2. Ez yakiteak non, nos, eta zelan ilgo garean bildur andi bat emoitzen dau, eta berau gaitik bakarrik ez geunke ordu lauren baten bere pekatuan egon bear. Alantxe dirausku Jesus onak: «egon zaiteze bizkor ta prest gau ta egun, bada eztakizue nos elduko dan zuen ordua» Gitxien uste dozuenean ta ardura gitxien daukazuenean, orduantxe etorriko nas (natxatxue ni) ixil-isilik lapurra legetxe». Ez, eztakizue gaur, biar ala etsi izango dan zuen atserengo ordua, ezta sermoi guzti au enzun baño leen izango bada bere. Eta auxa gaitik zuen bizitzako memento guztietan egon bear dozue, eriotzako orduan aurkitu (egon) gurako zeunkena legetxe (zeunken moduan). Nok esango eutsan aberats esku-eutsi diruzale-zororari, bere dirutsa andia, ondasun galantak, eta azienda zabalak kontetan ziñarduanean, gau atan berean zireanak itxi bearko zituzala? Baita, zelangoa geratuko zan enzun bear izan ebanean zerutik deadar bat: A gizon itsu eta a gizon zoroa! gaur gaubean kenduko deusue arimea, baita, noenak izango dira (dituk) orreek ondasunok? Nok esango eutsan Herodes-eri urregorritz burutik beatzetara yanzirik egoanean, eta bere biotza arro arro eginda eretxiz ta putzez beterik eukanean, yente guztiak esaten eutsalako etzala bera gizona ta bai Yaungoikoa, ordu atan berean, ta leku atan-



txe bertan ikusiko ebal bere gorputza arrez beterik, eta atsiturik eta bere arimea infernuko gar beroen artean berpertatik ikusiko zala? Nok esango eutsan Holofernes-eri oera yoat'orduan, baita ez asmu ononakaz, gau atantxe infernuetara yausiko zala beti betiko? Eta, nok esango deutsue zuei, pekatu mortalean zagozenoi, gau gabea oera etxunda, biar goxean yagiko zareela?

3. Alanbere, Kristiñaua, daigun, gura bozu, oe baten gexo luze baten ostein ilgo zareala. Baia, a! zelangoa egongo zara orduan? Burutik beatzetara min alaz beterik, lorik egin ezinik, arterik artu ezinik, kalenturaz erre-rik, egarriz ito bearrez, berbarik egin ezinik, eta burua non daukazu bere ozta-ozta dakizula. Zelango atsakabea, zelango pesadunbrea artuko dozun esan daizuenean Medikua eta Barberuak, guztiz txarra zagozala, eta alan disponidu (prestadu) bear zareala Sakramentu santuak artuteko (Elexakoa egiteko)! Asiko zara konzienzia examinetan, eta pekatuen billakuntzea egiten, baia, zelan egingo dozu ainbat neke, ainbat larri, ta minen artean? Orain buruko mintxu bat daukazu orduko etzagoz abe-maritxu bat bere (errezetako) esateko, zer egingo dozu bada minarren arterik artu ezinda zagozanean? A! Orduan zelanbere artuko zeunke bazeunke onduteko orain daukazu eta ain erraz galtzen dozun astiunea ta era-aldia (estimetan eztozun denporea, ta ezetan bere eztaukazu astiunea). Gurako dozu egunen bat edo beste luzatu ea alak zerbaist gitxituten badira; baia eztaugatak eperik emoitene, eta ainbat lasterren konfesadu bear zara. Barriz, zelangoa izango ete da konfesiño au? Eriotzearen bildurak alde batetik, eta minen anditasunak bestetik, eztabee itxiten pekatuak burura ekarten; eztabee itxiten biotza Yaungoikoagana biurtuten; eztabee itxiten bear dan damuaririk artuten; eurak daroe atenziño ta buru guztia. Orregaitik da ain pellebruz betea ordu atako konfesiñoa. Baia, zer egingo da (yako) ezpada-go geiagorako (denporarik ez) astirik? Gero bere konfesetan da zelan alan, baita artu bere (Sakramentu santua) gure Yauna. Sakramentu oneek gexo-ari atsegin emon bear leuskioe, bada eurak dira benetan gure pozgarria; baia yakin ezin leikeana legez ondo ala deungaro konfesau ete danez, beste aldetik barriz orduko konfesiño geienak arrastaka eginak izan oi direana legez, onexek beronek estutuko dau gexo tristea.

Eta onetara ezker, nok, edo zek poztuko dau gaxo tristea? Egunerik egunera, ta ordurik ordura txartuten da, deungagora doa gatxa, ta ibili ta ibili eltzean yako eriotzako ordua. Otzituten yakaz oñak, yagiten yako bularra: auztuten yakaz begiak; galduten yakaz indarrak; yausten yakaz pulsuak, eta dago oean baterik bestera aldatuteko (gorputzari eragiteko, itzuliteko) bere balio (aginte, adore) bagarik. Esaten deutse eztaukala

erremediorik, eta alan artu bear dabela oleaziño santua. Barriz au artu ezkerokoan, nora biurtuko dituz begiak? Iminten badituz igaroko urteetan, antxe dakus erabatera legez, errazoera eldu zanik eta ordugiño pekatu guztiak. Ikusiko dituz esan dituzan arako berba loiak (arinak), arako bere adiskide nasaikaz euki dituzan pensamentu zikin, eskutasun loi eta egikera deungaak: lapurretak, ordikeriak, tranpak, engañoak, aserakuntzak, ta gorrotoak: egin dituzan konfesiño txarrak, pekatu mortalean artu dituzan komuniñoak: antxe zeatz zeatz ikusiko dituz egin dituzan pekatu txikerren giñoak; baita direnak erabatera esango deutse: Ea; guztiok gara zure semeak, zeuk egin gozuz, eta zeugaz naste yoan bear dogu Yaungoikoaren aurrera, eta geuk salatu edo akusaduko zaituguz bere aurrean. Onen pekatu guztioen ezaintasunak bildurtuko (lotsatuko) dau gexo tristea, euren anditasunak larrituko dau, euren pisuak igongo deutso buru ganera, eta makurtuko dabee lurragiño, Dabid erregeak ziñoana legez.

4. Ifinten badituz bere begiak aurretik daukazan gauzeetan, eztabee gitxiago bildurtuko, ta larrituko. Aurkituko da, diño S. Juan Krisostomok, Demoniño ezain eta bildurgarrik beterik (inguraturik). Ikusiko dituz zelango ardureagaz (zur ta bizkor) dabiltezan bera galtzeako (galtzearen). Botako deutseez batzuetan desesperaziño tentaziñoak, esaten deusela, ya dagoala emonik bere kondenaziño sententzia, eta eztaukala zer uste izan Yaungoikoaren miseriordia (ontasun) ta errukitasunean: beste batzuetan eztaukala bildurrik zetan artu; (bada) neurribakoa dala Yaunaren ontasuna, baita, bere aldetik ezer egin ez arren, parkatuko deusazala pekatuak. Bein esango deutsee oraindokoarren osatuko dala, beste bein (gero) ondasunen ta munduko gustuen gurariz beteko deutsee burua. Baita, zelango larritasuna, ta bildurra berea, ainbat arerioen artean bere burua ikust-orduan? Biotzeko egalak yausiko yakaz, eta geratuko da deskonortaurik legetxe, zer yazoten yakan (non dagoan bere) eztekiela. Begiratuten badau gerora (geroko gauzetara) ikusiko dau ordu gitxi barru il bear debela, baita agertu J.K°.ren aurrean bere bizi guztiko kontu emoitene; barriz ez yakin (bagarik) zelan urtengo daben, eta zelangoa izango dan, emongo yakan, sententzia, ala betiko zorionekoa, ala sekulako zorigorrekkoa. O ze larritasunak, Kristiñauak! Ze izerdi otzak! Ze tristea, ta nekea! Orduan ezagutuko dau ze deungaro egin daben, osasuna eukan artean penitentzia egiazko bat ez egin: orduan esango dau: zetan emon dot nik neure bizitzea? O Santu andi bat izan banintz, neure eskuan egoana legez! Egin banituz, Santuak ermuetan egin zituezan penitentiak; iñoz pekatuak egin ezpanendu; neure guraari ta ekandu zitelai yarraitu



ezpaneuntse: ezerbere ostu ezpaneu; bestegaz (iñogaz) aserrarik egon (aserratu) ezpaninz, eta ordikerietan eguño bere ibili ezpaninz! Ai! orain baneunko galdu dodazan egun galantetatik bat, Yaungoikoari parka eskatuteko! Baia, o ene penea! Ya eztago niretzako alango egunik; eztau gatzak eperik emoiten, baita eriotzeak ya dauko besoa gora, nire bizitzea ebagiteko. Ene larria! Ene tristea!

5. Nok edo zek poztuko zaituz ordu atan, pekataria? Senarrak, emazteak, edo seme-alabak? Eurak ikusiak berak burura ekarriko deusuz eura-kaitik egin dozuzan pekatuak. Zeinbat bider Yaungoikoa ofendidu zenuen Senar-emazteok ezkondu aurrean: zeinbat bider aserratu eragin (pekatutako bidea emon) deusazun, seme-alabai aziera txarra emonagaz, eta euren aurrean gauza okerren bat eginagaz; eurak burura ekarri erazoko deusue zeinbat lapurreria, tranpa, eta engaño egin dozuezan eurentzako ondasunak batutearren (batu ezinik). Poztu zeinkez andra Birjina Maria-ren ontasun ta biotz bigunak? Lotsaren lotsaz egongo zara bear bada, ikusirik eztozula zeure bizi guztian ezerbere egin beragaitik (aren alderako). Azkenean, barriz, Yaungoikoaren errukiak eta errai samurrak poztu egingo zaituez? O zure tristea! O zure galdua! Eztozu arpegirik bere eukiko (izango) berari erregututeko, yakinik zure bizi guztian eztozula besterik egin, bera ofendidu baxen. Sarri askotan dei egin deuszu, eta zeuk ezteutsazu yaramon bere; berba egin deuszu, baita zeuk enzun bere egin ez: bere egapean artu gura izan zaituz, zuk barriz eztozu yoan bere gura izan. Baita, zelan asartu ta atrebiduko zara orain beragana elduten, bere errukiaren atetan yoiten, ainbat bider kurutze baten yosi badozu zeure pekatuakaz? Eta dei eginda bere, deritxazu eranzungo deutzula? Bildur izan zinatekez ez enzun egingo deusula ta yaramonik (kausiñorik) bere egingo ezteusula. Ba'kit nik ondobakoa dala bere errukitasuna, ta neurririk eztaukena bere ontasunak; baia ba'ntzut Jaungoikoak berak diñoala: gitxitan euki dozuz orain artean nire konsellu ta agirakak, yaramonik bere egin ezteustazu dei egin deusudanean; bada nik bere irri ta barre egingo deusut zuri eriotzako orduan, eta burlazar egongo natxatzu, bildur zarean aldia eldu dakizunean.

6. Larritasun eta tristeza onen artean gurako leuke pekatariak luzatuko balitxakio puskatzu bat bizitzea, pekatuak gaitik negar egiteko; baia bete dira epeak, eztago onezkero denporarik. Ya dago pulstu bagarik, begiak irulirik, kolorea galdurik, gorputz guztia otz otz eginik (otz otzik), ta arimea urten aginean daukala. Gero ta gero emoten dau azkeneko arnasea, urteiten dau arimeak gorputz atatik, eta agur egin dau obezeak. Au da, neure enzula maiteak, mundu onetako gizon ta andra guztiak eukiko

(izango) dabeen akaberea; guztiok igaro bear dogu pausu (ordu) larri ta itzal au. Bai pekatariak, bai: eun urte garrengo luzeen luzeenez, (urtegarren dala luzeen luzeenez, urtegarrengo luzeen luzeen izanez) bere Elexa Santa onetan gagozan guzti guztiok igaroko dogu, eta ikusi egingo gara yoat'aldi latz ta ikaragarri onetan. Zer balioko deuskue orduan mundu onetako zorion, ondasun, ta eskuarteko andiak? Non dira zuen guraari okerrak, ta mundu onetako yolas, pozaldi ta atseginak? Non ainbeste nekegaz, ainbeste izerdi ta pellebrugaz irabazi dozuezan diru ta ondasunak? Non dira zuen adiskide maiteak, senideak, gurasoak, senar edo emazte eta seme-alabak? Egioezue dei bat etorri dakizuezan: esan egioezue poz-alditxu bat emon deizuela daroazuen bide orretan. Baia, o negar egiteko gauzea! Bakar, pobre, ta billos billosik etorri zineen mundu onetara, baita bakarrik, eta utsik urten bearko dozue; bizi izan zareen artean egin dozuezan obra on edo txarrak lagunduko deutsee zuen arimai, bestekek ez. Baia itxi daiogun bein oneri, ikusteko bigarren zatian, leen esan deusuedana legez, zer yazoten yakan zuek il ezkeru zuen gorputzari.

Bigarren zatia

7. Eztau ezek bere ainbeste lurrera egiten (lurreratuten) gure arroke-ria, gangarra, ta eretxitasuna (andiustea), zein da gogora ekarteak il ezkeru zelan geratuko garean. Auxe ondo ondo gogoan eukitea da asko ezetan bere ez eukiteko mundu onetako zorion, doe, ondasun ta gauza guztiak. Gogoeta onek, berak bakarrik gitxituko deuskuz aragiaren gurari zitelak: bizkortuko gaituz penitentzia egiteko, baita emongo deusku indarra gitxitan euki ta pazienziar igaroiteko mundu onetako neke, lan, eta gatzak. Berau bakarrik izan zan asko, Salomon-eri erasoteko mundu onetan egoan guztia axe puska bat (irudi utsa) baño etzala. Eguño zorionekorik mundu onetan izan bada, Salomon onek izan bear eban. Eukazan mundu onetako olgura ta ondasun euki al guztiak. Bera Errege zala beegoan Jerusalem-en, kaleetan arriak lainbeste, urte ta urregorri. Zelango etseak bereak, ain andiak ta alazoko galantak! Zeinbat otsein eder! Zeinbat musika ta kantalaria belarriai gustu emoitiko! Zelango mai modu guztiko yanariz ta ardao gozoz beteak, naroro ta opaaro yan ta edateko! Zelango etse-barruko edergarri, ta urregorritzko tresnaak! Zelango maztui, sagazti, arestui; zelango ortu ederrak! Zeinbat milla buru ganadu ze, ta gorritzkoak! Baia, zetako da burua austea onango gauzaak izentetan



(izentau ezinik), Salomon-ek berberak badiño eguño bere buruari ukatu ez eutsala ez ikustea berak gura eban guztia (gauzarik), ez artutea asmau al leitekezan gustu da dibersiñogarriak (dibersiñogarririk)? Alanbere nos edo nos imini zituzan begiak (imini zan adi) bere atserengo orduan (orduari), eta ikusi ebanean zetan yoko ebeen anditasun ta ondasun guztiok, esan bear izan eban sekula aitzu (burutik joan) bear elitzakegun berba au: guztia da utsa ta putza, guztia axe tanga bat guztia ezerbere eza. Eukazan nai zituzan olgura guztiak, batu zituzan ondasun andiak, egin zituzan etxe zoragarriak, eukazan gura zituzan otsein guztiak, bizi zan gura zituzan gustu ta kontentu artean, eta ez eutsazan ukatu bere begi ta biotzari nai ebeen gauzarik: baia imini zituzan begiak bere azkenean eta ikusi ebanean zetan geratuko zan anditasun guzti au bertatik esan eban: Guztia da utsa, etc.

8. Bai zelanbere, neure Kristiñauak, ezteusku ezek bere obato begiak idigi eragingo, mundu onetako ezerbere eztasuna ikusteko, mundu onetarik urten ezkerro zelan geratuko garean gogora ekarteak baño. Ikusi egizu zelan geratuko dan zure gorputz ori arimeak urten ezkerro. Ain geratuko (lotuko) da ezain eta bildurgarri ze, eztabe biotzik eukiko beragaz denpora luzean egoteko ez emazteak, ez senarrak, ez semeak, ez adiskideak, ez iñok: guztiak dagoz mututurik. Enzunik il-kanpaiak itanduten dabee batzuk: nor il da? Urlia. Yaungoikoaren glorian gerta deilla; eranzuten dabee; ta onexegaz bakarrik pagetan deusuz munduak bera serbietarren artu dozuzan ardurak, emon dozuzan izerdi eta pausuak. Ainbat lasterren kendu gura zaituez begietatik, iminten zaituez anda batzuetan, baita bote-tan zaituez sepultura baten, ganean lurra emoitzen deusue. Ezarriko deusue lur zati bat (ganetik) zeure ganean, baita agur mundua zuretzako, eta zu munduentzako. Alper alperrik eukiko (izango) dozuz ondasun andiak, alperrik hazienda zabalen yaube izango zara, alperrik izango zara etsagun maiorazgu, markes, konde, duke, prinziipe, errege, edo enperadore, bada orduan bardin bardin izango zara pobrerik pobreenagaz. Lur gogorra izango da zure oea (diño Isaias-ek) beste gizonen baten buru-azurra izango da zure aburtiko, burruko ta almoadea, eta zure estalgia izango da azur atsituak ta lur kiratsa, (ta ameneko guztien ganetik arri andi bat iminiko deusue); barriz zure ondasunak ta lagunak izango dira zitza, zedena ta arrak.

9. Bai, neure enzula maitea, bai; urte gitxi barru orrako gorputz ori, berak gura dituzan mizkeria ta gustu guztiak emoten deusazuzan gorputza, egongo da iñok ikusi bere ezingo daben modukoa. Orrako buru ori, zeinetan daukazuzan (darabilzuzan) ainbeste gogoeta ero ta pensamentu

erexi, atsiturik, ezaindurik, aragi bagarik, garaun bagarik, eta buru-azur motz motz bat eginda (eginik) aurkituko da. Orrako sabel ori zein ase-tearren zabiltzan nekatuturik ta arduraz beterik, ar pillo bat biurtuko da. Orrako esku orreek zeintzuekaz iñoena ostuten dozun, ta besteai gatz eginda, J.K°. bera barrien barri kurutzean yosten dozun, egongo direz baltziturik, etxurabakoturik, eta azurrak bata besteen ganean agiri direala. Orrako oñok zeintzuekaz zabiltzazan pekatu-bide galgarrietatik azur utsak baño eztira izango, ta bear bada egongo dira okelu ilunen baten ausirik, urratuturik eta zatituturik. Eta beingo baten esateko: ori gorputz ori, zein daukazun zure Yaungoikotzat, atsitu, usteldu, ezaindu, eta arren bizi leku izango da. Non egongo da, bada, orduan arako zure edertasuna? Non arako ulle zoragarria, zeinetan zeunkazan iminirik zure arduraak (ardura guztiak)? Non arako erakutsi gurarik erabilten zenduan (ebiltzen zinean) arpegi ederra? Non da arako gorputz eregi, mardo ta galanta zeineri uste zenduan etxakala bein bere gatzik elduko? Non dira arako zure indar guztizkoak, zeintzuekaz uste zenduan edozeineri goia-artuko zeuntsala, baita banaan-banaan benziduko zenduzala errian egozan (zirean) gizon guztiak? Zer egin zan arako diruakaz zeintzuk irabaztearren ibili oi zinean gau ta egun nekepean amurruturik (arrastaka) eta bear bada arimako gal-tzaigarrietatik, ta pekatu-bideetatik? Guzti guztiak kendu deusuz erio-tzeak, eta agertu zara mundu onetako gauza bagarik, billosik, ezaindurik, eta azur uts eginik. Sepultura itzaleko iluntasun artean geratu dira zure erokeria ta fanfareriak; zure eretxitasun eta andiguraak; zure uste andi ta gustu zitelen guraariak.

10. O neure Kristiñauak, baneunko nik orain Ezekiel Profeta igarlari andiaren santidadea ta espiritua (eskubidea), sepultura orreetan dagozan azurrari yaigiten aginduteko! Ikusiko zeunkez zuen gurasoak, zuen osabaak, zuen senar ta emazteak; zuen seme-alabak, eta zuen adiskiderik andienak (kutunenak) azur utsetan, eta nortzuk direan bere igarri ezin lekikiela; ez zein dan (izan zan) aberatsa, zein pobrea: zein ugazaba, zein otseina, zein errege eta zein nekazalea. Baia bein ainbesterako eskurik ezin dodan ezkerokoan, eldu gaitezan geu eurakana; idigi daigun pensamentuaz biar-etsian eukiko (izango) dogun bizi lekua, baita ikusi daiguzan gugaz naste egongo direan, lagunak. Itandu daioegun ea zer balio izan deutseen aberatsak mundu onetan izanak; zer balio izan deutseen erriko gizon andi (nagusi), eta urietako agintari izanak: zerazienda ta baster zabalak eukiak; euren seme-alabai diru galantak itxiak, euren bizi guztia asmau al besteko pozgarrietan, guraarrietan, mizkeria ta erokerietan emonak, eta eranzungo deusue: ezerbere ez: eztira gauza izan areane'ko, gure



galtzaigarrikako ez izanik. Arren bada, orrei zorakeria guztioi itxita, eurentan galdu genduan denporea, negarretan, zizpuruetan ta penitenziagiñan, emon bagendu! Uxela orain beste ezagutu bagendu zorakeria andi bat zireana, axe puska bat, eta ames bat zireana! O eta ze beste modutan ikusiko geintekizan gure buruak gaurko egunean! Enzun daigun, Kristiñauak, zelan dirauskuen artuteko emoitene deuskuen (euren) konsellua, bada eurak dakusguzana legetxe, gure burubak bere denpora gitxi barru ikusiko doguzala. Begiratu egin gaitezcan ispillu triste onetan, eta eztaiguzan, yaramonik egin bere bagarik, itxi euren esanak. Berba ixil ta mutua-kaz, baia ondo zoli ta bildurgarriakaz dirauskue eurek gomuta daigula zelan dakusguzan, bada (ze) gure aldia bere euren langoa izango dala (elduko yakula) Guri atso yazo yakuna, diño, zuei biar yazo egingo yatzue. Guri atso lurra emon euskuena legez, zuei bere biar emongo deusue. Gu orain lurpean ondo ondo zakaturik, ilun itzal artean, atsitudasunez ta kiretzez beterik gagozana legetxe, zuek bere biar-etsian egon bearko dozue.

11. Orain bada, neure Kristiñauak, ain zoroak etaitsuak izango zaremetik aurrera, zein da ardura geiago eukiko dozuen gorputzagaz, arimeagaz baño? Non da zuen sensuna? Non da zuen errazoa (burua)? Esan egidazue ze zorakeria garbiagorik izan leiteke zein da izanik arimea J.K°.ren odolagaz garbitua, zeruko yaubetzat, Espiritu Santuaren bizilekutzat eta J.K°.ren analetzat autua, bera aitzuta, arrak yango dabeen gorputzaren ardurearen ardureagaz amurruturik ibiltea? A, kristiñauak, (ondo ederto diño onen ganean S. Juan Krisostomo-k:) guztia igaroiten da, guztia galtzean da, guztia akabetan da: Igaroten dira diruak, zorion ta ondasunak, baita edertasuna bere; igaroten dira ilabeteak, egunak eta urteak: gauza bakar bat dakusgu beti irauten dabena, betikoa izango dana, eta eguño bere ilgo eztana; eta auxa da gure arimea. Eta orregaitearren bere pekatariitsuak guraago dituez mundu onetako, axeak daroazan gauza uts ta zoroak beti iraungo dabeen atseginak baño; guraago dituez beti betiko negar, zispuru ta tormentuak igaro, arrak jango dabeen gorputza penitenziaren azpian erabili baño. Guraago dituz beti betiko negar, zispuru ta tormentuak igaro, arrak yango dabeen gorputza penitenziaren azpian erabili baño. Guraago dituz gorputz ta arimea galdu betiko, neke puska bat gorputzari emon baño. Iratzartu zaitez bada, pekataria, nosedo-nos (bein edo bein) pekatuaren lo zorrotik, yaigi zaitez ilen arterik, baita ikusi egizu zer kosta yakan Yaun oneri zu Demoninoaren atzamarrretatik atertea. Ara emen: begira ondo ondo ze mantso dagoan. Baia yakin bear dozu eze, pekatuan sarturik egon gura badozu orain zure Aita

biguna dana, gero Juez zorrotz ta gogorra izango dozula. Ara bada ordu atan lotsaturik ikusi zezaitzan, osasuna daukazun artean irabazi egizuz arimearentzat zeruko ondasunak. Baia, ai ene Jesus laztana! Zer egingo dot nik zure laguntasuna euki ezik? Ba'kit, Yauna, merezidu eztodana mesede au, neure biotzeko gogortasunagaitik.

12. Baia andiak badira bere nire pekatuak, andiagoda da zure ontasuna ta errukia. Euren ezaintasunak ikaratuten (bildurtuten) nau, ta ainbeste izaiteak ikara dardar narabil; baia nogana elduko nas erremedio eske zugana ez izanik? Ea bada, nire Aita biotzekoa, ez nagizu bota zure begien aurretik. Enzun egizuz nire deiak, nire negarrak, nire zotinak, ta izan zaitez nire erruki. Osatu nagizu arren, bada nire azurrak direanak ikara gogorrek artu dituz. O neure Jesus ona! O neure Jesus laztana! Eriotzako ordu itzal au gogora yatortan bakotxean, bildurraren bildurrak arimea konorte bagarik legetxe itxi daroat. Zer egingo dot triste onek ordu atan? Nogana yoango nas zugana izan ezik? Imini nagizu ordu estu atan zure alboan, esanik nire arimeari lapur onari kurutze orretatik esan zeuntsana: gaur egongo zara nigaz naste zeruko glorian. Bai, Kristiñauak, prest dago Jesus maitea zori-oneko dei au egiteko, zuek pekatua itxita beragana biurtuten bazare. Ea, bada, Kristiñauak, eldu zaitez kurutze onen oñetara, eta damurik andienagaz, bera ainbat pekatugaz ofendidu dozuelako esan egioezue biotz guztiz: Neure Yesu-Kristo Yauna.



2. ERIOTZA OSTEKO, EDO BAKOTXAREN JUDIZIOAREN GANEKO SERMOIA

(B, 197-202. or.)

Omnes nos manifestari oportet ante tribunal Christi
ut reddat unus quisque propria corporis
qui gessit sive bonum, sive malum.
2.Corin. c.5.v.10

1. Salomon-ek munduan ikusi zituzan zorakerietarik andienen artean, etzan gitxien arritu ebana izan ain ardura bagarik gizonak pekatu egitea. Begiratu eban nondik yaïoten ete yaken seguridade au, eta ikusi eban, eta ezagutu eban ze yatorkela ikustetik Jaungoikoak etzituzala bertatik kastigetan euren gaistokeriak, eta Jaungoikoaren pazienza andi au gaitik bildur bagarik pekatu egiten ebeela. Baia pazienza onexek beronek biztu bear gaitu ainbat lasterren pekatuak itxi eta penitencia egitera dirausku S. Paulo Apk. Zeinbat eta geiago luzatuten dan kastigua, ainbat eta gogorrango izango da gero. Etorriko da Jaunaren eguna ixil ixilik lapur bat legetxe eta aterako dituz argitara gure biotzeko basterrik ezkutuenak. Orduan ikusiko dira gure pensamenturik txikienak; artuko dabela diño bere justiziako ezpatea, eta gogor kastigaduko dituzala bere kontra egini-ko pekatuak. Gauza bi onexek egiten dabee ain itzaltsu Jaungoikoak egin-gan daben judizioa: bere yakituriak eta bere justiziak. Bere yakituriak aterako dituz argitara zure pekatuak ezkutuenak ta bapere itxi bagarik, lenengo puntua. Jaungoikoaren justizia, edo arteztasunak juzgaduko dituz zure pekatuak erruki bagarik, bigarren puntua. Lelengoan beteko zare bildurrez zuen biotzean bada pekatuak. Bigarrenean ikusiko dozue zelango euki bear dozuen, ez aserratuteko Juez ain gogor bat.

Lenengo zatia

2. Arimeak gorputzetik urten ezkeren lenengo emongo daben pausua J.K°.ren aurrera izango da, bere bizi guztiko kontu emoiterra. Ain izango da zeatza, ain estua kontu au ze, ezta geratuko argitara urtengo eztaben

pekatuak. Egikera edo obrarik aaztuenak, barbarik ixilenak, eta pensamenturik ezkutuenak ifiniko dira agirian. Baia ze ikaragarria, ze itsaltsua, ze bildurgarria deritxazue izango dala judizio au? Eztago gizon ez Aingeruen artean adietan emon leikean miñik. Alan bere zerbaist ulertu dagizuen ara zer dirauskun S. Juan Krisostomo-k. Yarriko da Jaungoikoaren Semea, Daniel Igarlari edo Profeteak ikusi ebana legeaz, suzko yarleku, edo tronu baten, bere aotik urtengo dau sugar biziak, bere berbaak izango dira ezpata zorrotz bat langoak, milla millinoe Aingeruk eukiko dabe euren erdian, edo inguratuko dabee, alde batetik egongo dira Demonioak zu salatu edo akusetako, bestetik Aingeru guardako yagolea zugaitik berba egiteko, eskoatatik dago gloriako koroia ondo urteiten badozu, ezkerretatik barriz infernua kondenaziño sententzia emoitene baiatzu. Aingeru eta Demonio guzti onen erdi erdian egongo zara zu lotzaz beterik, bildurrez ikara gogorrean. Idikiko da zure konzienziako liburua eta iminiko dau Jaungoikoak bere neurribako yakituriarena. Aintxe urtengo dabe Aingeru eta Demonioen begietara zure pekatu guztiak euren ezaintasun eta anditasun ikaragarriagaz. Aintxe agertuko dira arako zeuk bakarrik baño bestek iñok eztakizuzan pekatu-eskergeak, arako zure biotzeko gorrotoak, arako zeuk bakarrik baño bestek iñok eztakizuzan pekatu-eskergeak, arako zure biotzeko gorrotoak, arako zeuk zeure aragiagaz egin dozuzan loikeriak, arako gau utsez, eta iñok etzenkusala egin dozuzan lapurkeriak, arako beste pekatu zeinen gomuteak betetan zaituzan orain lotsaz. Ze larria izango da zurea, ze bildurra, ze lotsaaria ikusi dagizuzanean arako pekatu itzuzi, eta ezainak zeintzuk etzeunkean gura luurrak berak bere yakin deizuzan, eta zeintzuk bear bada emoitene eutsuen lotseagaitik etzanean azartu edo atrebidu konfesetan!

3. Esan egidazu konfesaduko bazina nigaz, eta esango bazeustaz zeure bizi guztian egin dozuzan pekatuak, eta aitzurik nik ixilik egoteko daukadan obligaziño estua, asiko banintz pulpitu onetatik direanak zabal-duten zure senar, emazte, guraso, anaie, adiskide eta ezaunak dantzuela zelan geratuko zinateke? Esango baneu gizon bategaz pekatu loi eta barre-garrietan ibilirik, zeure ondrea ez galdutearren seña galdu egin dozula; galdurik zeure gizonari zor deusazun amodioa beste bategaz ibili zareala; zeure aragiagaz egin dozuzala pekatu guztiz ezainak: zu izan zareala urlia Elexako lapurtea egin dabena: Ainbat auzitan guzurragaz juramentu egin dozula; eta modu onetan zeatz zeatz esango banituz direan direanak etzinatekeze erdi ilik geratuko? Bada emen euki zinaikean lotsaari guztia ezta orduan eukiko dozunaren gerizea bere, zegaitik ze gatx guzti oneek esan arren ameneko ez leukede guztiak sinistuko, eta artu zinaike moduren bat



ni guzurteetako, edo ukatu ziñaikez; baia juizio atan ezin pekatu txikien bere ukatu leike, ze guzti guztien aurrean agertuko dira, eta zure konzienzia eukiko dozu testigurik gogorren ta okerrera: berak deadar egingo dau zure kontra, eta mundu guztia aurrean salatuko zaituz. Berak esango dau sarri ta sarri agiraka egiten eutsula pekatu egiten ziñoazanean, etzituzala iños itxi kastigu bagarik zure pekatuak aginkada, usigi edo erremordimientuakaz, eta pekatu eginez gero beti egoala deadar ta deadar ea iratzartu zendizan. Beste aldetik Demonioak izango dira salataririk eta akusatzaillerik kruelenak, eurak aterako dituez zure pekatuak ezkutuenak. Eurak esango dabee naiago izan zenduzala enzun guzurrezko berbaak, Jaunaren dei gozoak baxen; naiago izan zenduala euren agindupeko izan Jaungoikoaren seme baxen; eta eurak ikusi zituezala zure pekatu guztiak, eta eskatuko deutse Juezari ifini zagizala euren eskuetan infernue-tara eroateko, zure pekatuak merezi dabeena legez.

4. Baia zure konzienzia eta Demonioak ixilik egongo balira bere, munduan direan gauza guztiak yagiko dira zure kontra, diño Eskritura Santeak, guztiak berba egingo dabee eta izango dira zure gestakerien testigu; zeure etxeko ormeetako arriak deadar egingo, diño Habakuk Igarlari edo Profeteak; eta etseko zurak deadarrez egongo dira. Zeure oeko izarak esango dabee aintxe bakarrik ta ilunean zengozala uste zenduanean, egin zenduzala loieria eskergagarriak; zeure gelako olak, eta adrilluak esango dabee antxe bakar bakarrik zengozanean, artuten zenduzala asmu eta gogo okerrak lagun proximuaren kontra. Etxeak, arbolaak, ortuak, soloak, bedarrak, mendiak, atxak, eta ganeko gauza guztiak izango dira zure kontra; ukatu ezin zinaikezan testiguak dira. Au yakiteak ikara bildurrez eukan S. Jeronimo, berak dinoandi. Beti beti nago, diño Santu andi onek, larri, eta atsakabez beterik, ozta ozta azartu edo atrebietan nas arnasa bere artuten, dakidalako neure gelako ate, bentana, adrillu, ol eta ormaak izango direala neuk, bakarrik nagoala, egiten dodan gauzarik txikien testigu, ta direnak deadar egingo dabeela nire kontra. Baia, zetan nago, neure Kk.? Eztatu gure Jaun eta Jaungoikoak testigurik bear gure pekatu guztiak argitan iminteko euren ezaintasun guztiagaz, ezin aurkitu leiteke bere neurribagako yakituriaganik ezkutadu ez ostendu al leikean gauzarik, gizonaren malizia ta okerkeria guztiak ezin beraganik estaldurik euki leike, pensamenturik ez gogoaldirik txikiena bere. Eta, deritxazu eztituzala argitara atera gurako Aingeru eta Demonioen begietara zure gaistokeriak? Ai Ne.Ka., enzuzu zer dirautsun bere Igarla edo Profeteen aotik.

5. Azkenengo egunean ezteutsut ezer parkatuko, diño Ezekielen bitartekoz: agiri agirian iminiko dot zure ezaintasun guztia, zure lapurke-

ria, pekatu loi eta ordikeriak. Ikusiko dira, diño Isaias-ek, zure lotsagarri guztiak; eztago au eragotzi leikedanik. Botako deutsudaz arpegira zure okerkeria guztiak, arakatuko ditudaz zeure bizi guztian emon dozuzan pausuak, bapere itxi бага. Oraingño yakin izan dozu zelan eskutadu zeure bizimodu geistoa. Sinistu eragin izan deutseezu gizonai ona zareala ixilean, eta eurak ezin yakin leien moduan egin dozuzalako egikune edo obra deungeenak. Baia ezteutsue oraingoan nigaz balioko asmu orreek. Ementxe ikusiko dozue emen dagozan Aingeru, eta Demonioak, ze gaiskiñak izan zirean, ze deungaak, ze lotsagarrikoak. Ezin ukatu zinai ket emen argitara aterako deutsudan pekatuak; ze neuk ikusi zindudazan egiten. Arako ilunean eta bakarrik zengozala zeure aragiagaz pekatu loiak egiten zenduanean antxe nengoan ni adi, eta ikusi zindudazan. Arako gaez inoen solo, ortu, eta etsera ziñoazanean, eta ostuten zenduanean bildur bagarik iñok yakingo ez eutsulakoan, antxe negoa ni begira eta ikusi zindudazan. Arako iñoen senar edo emazteagaz pekatu egiten zengozanean lekuri ezkutuean eta okelurik ostenduanean, lotsabagarik bakarrik zengozalakoan, bertantxe nengoan neu zuri adi, eta ikusi zindudazan. Arako zeure buruan asmu txarrak artuten zenduanean zeure are-rioagandik bengetako, neuk ikusi nituzan zure pensamentu eta gogoeta guztiak. Arako guzurragaz juramentu egiten zenduanean, eta besteri dirua emoten zeuntsanean egiteko, antxe nengoan ni eta ikusi zindudazan. Neure aurrean, neure begien aurrean egin zenduzan pekatu ikaragarriko oneek. Orduan ixilik egon nintzan, neure begiakaz ikusi arren zure bizi galdua. Gura neban pazienzia onegaz irabazi zure biotza itxirik zure pekatuak nigana etorri zintezan, baia itsuturik zu pazienzia onegaz, uste izan zenduan zu legezkoa nintzana eta enekusala zure bizimodua. Baia oraintxe bertan atera gura ditudaz zure pekatu guztiak; zeure begien aurrean iminiko deutsut zure bizi guztia. Ikusi egizue zeruak, ikusi egizu luurra, ikusi egizue Aingeruak, ikusi egizue Demonioak gizon esker gaistoko onen lotsabakotasun eskergea.

6. Zer eranzungo deutzazu, pekatari tristea, Jaungoiko oneri? Ze atxakia emon zinaio? Ai, Kk., milla itaunde egiten baditu, ezin bateri bere erantzun leio, diño Job Santuak. Eztozu aurkituko zer eranzun. Alperrik ukatu gurako dozuz, alperrik artuko dozuz al daizuzan asmuak eskutatuteko. Alperrik esango dozu gurasoak, emazteak, senarrak edo umeak euren jenio deungeagaz galdu erazo eutsuela pazienzia; ze artu al daizuzan atxakia guztiak ezteutsue arean balioko zeure ezaintasun (andia) atsitua estalduteko. Artu egizuz orain, baderitxazu, arako denpora baten aztu oi zenduzan okerkeriak, egia ezkutetako. Billatu egizuz testiguren batzuk



zure fabore juramentu egin daien; eskatu egiezu adiskide batzuei erregu-tu deioela Juezari zugaitik; topadu egizuz enpeñuren batzuk Juezentzako; ukatu egizuz zeure erruak, eta sinistu dagien egia diñozula, ezarri egiozuz zure buruari maldiziño ikaragarriak; emon egiozu Juezari diru zati andi-ren bat; eroan egiozuz erregaluren batzuk sententzia ondo emon deizun. Baia, ai! eztai judizio atan onelango asmuak balioko. Alperrik izango zara mundu onetan gizon altsu, eta esku edo poderio andikoa; alperrik eukiko dozuz adiskide andiak; alperrik yakingo dozuz auzirik okerrenak arteztu-ten; alperrik izango zara ondasuntsu bat, eta diru ugarien yaube, etzaituez libraduko egun ikaragarri eta aserre atan. Orduan bai idigiko dozuzala begiak ezagututeko ze gitxi balio daben Jaunaren aurrean tranpa eta engañoak egiten yakiteak: auzi deungea dagoanean testigu guzurtiak ero-atea; Juezen begiak diru eta erregaluakaz itsututea; eta beste mundu one-tako auzietan egiten oi direan asmuak. Mututu, arritu eta lotsaturik gera-tuko zara, lapur bat ostu daben gauzea eskuetan dabela artuten dabeenean geratu oi dana legez, diño Jeremias-ek; edo andra ezkonduak bere sena-rrak bestegaz pekatu egiten topetan dabenean legez. Kk., idigi daiguzan nos edo nos geure arimako begiak eta ezagutu daigun ze gitxi balio daben mundu onetan andi edo miragarritzat daukagun guztiak; eta ezau-era one-gaz egin daigun alegina benetako arimako ondasunak batuteko, bada eurakgaz eranzungo deutsegu Jaungoikoaren justiziak egingo deuskuzan kargu ikaragarritzkoai. Euren itzaltasuna da Sermoiaren bigarren zatia.

Bigarren zatia

7. Ezteusku ezek bere obeto adierazoten Jaungoikoaren gudanako ontasun, biguntasun eta amodioa, egin deuskuzan mesede neurribakoak baño, diño S. Juan Krisostomo-k. Eurretan dakusku Aita maitetsu, ardu-ratsu, eta samur bat, zeinegaitik esan geinkean eztabela beste zereginik euki gu ondo ifintea baxen. Euren gomuteak egiten gaituz esker oneko Jaun ain on bat ganako. Berak maitarazoten deusku ain laztan izan gaitu-zana, ezagutu eragiten deusku zeinbat zor deusagun, eta garoaz zor au al dogun guztia pagetara. Pekatu egiten badogu, gomuta onek emoiten deusku itxaromen edo esperanza, eta gaukaz desesperaziñoan yausi ez gaitazan; bada irakazten deusku andiak badira bere gure pekatuak, guztiz dala andiagoa bere errukitasuna, eta parka eskatuten badeutsagu, beti dagoala prest, eta besoak zabalik, ez bakarrik parkatuteko, baita bere bula-

rraren kontra estutu eta laztan gozoak emoiteko, graziaren soñeko ede-rragaz apainduteko, eta bere seme maitetzat bere etsean eukiteko. Baia mesede andi oneek mundu onetan bizi garean artean gure pozgarri badi-ra, gure kondenagarri izango dira juizio atan, eta euren ganean egingo yakuz kargu gogorrak. Eurak ezagututen emongo dabee zeinbat egin daben Jaungoikoak gu salbetako, eta ze gitxi egin dogun guk, eta konde-netan ez gareala Jaunaren erruz, ezipabere geurez.

8. Yarririk bada yar leku, edo tronu bildurgarrian, eta iminirik zu bere aurrean, asiko yatzu kontu zeatz eta estua artuten. Emon egidazu zeure biziko kontu, esango deutsu arpegi aserre eta itzaltsu bategaz. Ze irabazi atera dozu zeure ardurara ifini nituzan talentu edo diruakaz. Zer egin dozu emon neutsuzan ondasunakaz. Ea Aingeruak, Jerusalem santako auzoak, juzgadu egizue nire eta gizon onen artean. Ikusi egizue nire berauganako ardura, amodio eta ontasuna, eta beronen niganako astunta-suna ze neurribakoak izan direan egin deusadazan mesedeak, eta ze arri-garria ta eskergea biurtu deustan esker deungea. Nik egin zindudazan ezerbere ezetatik, gizon esker gaistokoa, eta emon neutsun arima bat neure antz edo irudira; egin zindudazan mundu guztiko agintari, eta ifini nituzan gauza guztiak zure eskupean. Zerurik imini baneban; luurra egin baneban, itxasoak izaiterik artu beeban, abere, arbola edo zuaitz, mendi, arri, ur, su, eta beste gauzarik badakutsu; guztia egin neban zure onerako. Neu izan nas zeure aita bigun, maitetsu eta arduraz bete bat; neure eskue-tatik euki dozu bear izan dozun guztia: osasuna, bizitzea, yanaria, yazte-koa, eguzkia, euria, eta beste gauza guztiak. Aberats izan bazara, euki badozu ondasunik, diruen yaube izan bazara, neuk emon deusut. Ezto-zu euki, eta ezin euki bere egin zinaian nik emon bagako gauza onik. Eta baderitxazu au gitxi dala, begira zer izango zan zugaz egin ezpaneutsu gogoak emon al leikean mesederik andiena? Zengozan pekatupean Demonioaren agindu gogorraren azpian presondegi edo karzela ilun, itzaltsu eta atsitan, zauriturik, gexorik eta negargarritzko eriotzara kon-denadurik. Etzeunkan nok atera zengizan, neuk zure erruki izan ezpaneu. Enintzan kontentadu, eta ez neutsan asko eretxi nekezko estadu onetarik zu aterateari, erantadu ta eregi gura izan zindudazan neure seme maite izatera, zeruko ondasun guztien yaubegei edo herederu, eta zeruko erre-i-nuko Prinzipe nagusi. Zuri neurri bagako mesede au egiteko eneban biral-du Patriarka eta Igarla edo Profetaren bat, ez santu edo beste gizon andi-ren bat, ez Aingeru, Kerubin edo Serafinen bat. Neu neu, neu yatzi nin-tzan zerutik lurrera, artu neban zure izaitea, eta egin nintzan gizon. Zugai-tik yaio nintzan abeletxetxu baten; lenengo euki neban oea askatxu bat



izan zan, lastoak baño beste erropa ta soñeko bagarik. Zugaitik bizi izan nintzan gose, egarri, neke, lan, eta pobreza artean. Zugaitik irago neban negargarritzko pasiño kruela, zugaitik artu nituzan bostmilla azote ta geiago, euki neban neure buruan aranzazko koroï gogor bategaz, eta geratu nintzan zauri andi bat eginik burutik beatzera. Zugaitik galdu neban neure bizitzea lotsaariz beteriko kurutze baten, ultze gogorrekaz yosirik.

9. Andiak izan badira bere mesede guzti oneek, eneuntsan orregaitik asko eretxi, baita ekarri zindudazan Alexa Santara, non ifini neutsuzan Sakramentu Santuak zeure argaltasuna gaitik, nosbaist yausten bazinean bere, aintxe zeunkan penitenziako Sakramentua graziara biurtuteko. Aintxe egon nas zure lagun eginik, eta nai zenduan guztian yarririk neugaz mai baten yan zengian neure gorputza. Ezin ukatu zinaikez mesede guzti oneek, ze mundu guztiak dakiz, testigu dira Aingeruak, testigu zerua, testigu luurra, testigu nire esku, oiñ eta bularrean dakusuzan zauri oneek; eta testigu kurutze au, non emon neban azkenengo arnasea. Orain bada esai-zue zer geiago egin bear neban gizon onegaz, eta eneban egin. Baia a Seme gogorra, O maztui madarikatua, uste nebanean birtute eta santidadearen fruta eta maats gozoak emongo zenduzala, eztozu ekarri sasi, eta arantza gogorrek baño, ni barriro zulatu, zatitu, eta zaurituteko. Nos dei andiagoak egiten neutsuzan, orduantxe niganik urrinago iges egiten zenduan; nos berba gozoago egiten neutsun, orduan lotsabakotasunik andienagaz botaten zenduan nire legea, eta esaten zeustan: Eztot gura zure zerbitzalle izan. Nire Aingeruak, izan zaiteze Juez nire eta gizon onen artean, eta esaizue zer egin bear dodan beronegaz. Ne.Ka., zer eranzungo deutsazu orduan Jaun oneri? Ze deskargu emongo deutsazu? Eztozu aurkituko zer esan. Ze larritasuna zurea! Ze estutasuna! Ze bildurra, ikusirik zeure burua infernuko demoniñoen eskuetan yausi aginean! Zer egingo zeunke ordu atan santurik andienen merezimentu guztiak eukitarren? Ai, eta zelan gurako dozun zeure bizi guztia igaro bazendu penitentzia, nekegarri, barau, gaubela eta oraziño artean! Zelan gurako dozun santu andi bat baziña; iños ikusi ezpazenduz orain ainbeste gura dozuzan atsegin, olgura, yolas, dantza, ondasun, yoko, edaari eta beste gustuak.

10. Orduan esango dozu: ai orain baneunko arako arpelik galdu neban denporea, arako zetan irago enenkizan ordu eta egun osoak, neure pekatuen penitentzia egiteko, eta arimako ondasunak irabazteko. Eta ze poz, ze atsegin artuko zeunke esango baleutsu Jaungoikoak biurtu zatezala mundu onetara urte bete edo biko! Eta esan egidazu igaroko zeunke denporea, orain igaroten dozun moduan? Biurtuko zinatekez orduan oraingo pekatuetara, ordikeria, murmuraziño, loikeria, dantza, yolas, eta

beste gustu zitaletara? Etzeunkez begiratu zorakeriatzat mundu onetako ondasun, anditasun, onra, eta arrokeriak? Etzeunke bene benetan artuko penitenziako bidea? Baia, ai N^e.E^a.M^a, ezyatzu emongo orain emoten yatzun denporea. Alperrik dei egingo dozu arako donzella zoroak lege: Jauna, Jauna, emon egidazu obra onak egiteko aztia. Ze eranzungo deutsu Jaunak aei erantzun eutsena lege: zarratu zan atea. Aztia zeunkanean, etzenduan gura izan: bada orain gura dozunean, etxatzu aztirik emongo. Sarri ta sarri denporea zan artean opa izan neutsun neure laguntasuna, idigirik euki nituzan neure miserikordiako ateak, eta etzenduan euretatik sartu izan gura: ya zarratu dira, eta ez dira geiago idigiko. Nogana biurtuko zara ordu atan, pekatari tristea? Nori erregutuko deutsazu? Ama Birjina Santisimeari? Ai berak eranzungo deutsu bizitzea iraun eutsun arte guztian egon zala prest zure erreguak enzuteko, sarri ta sarri gura izan ebala bere bitartekotasuna billatu zengian; baia etzenduan nai izan, eta edonos ezer eskatu bazenduan bakarrik izan zala deboziño bagarik eta oztasun andi bategaz, irago dala denporea, eztala ya ama bigun samur eta errukiz betea leen lege, ezpabere zure biotzeko gogortasunaren testigu eta salatari. Dei egingo deutsazu zure Aingeru gordezalleari. Ai! eranzungo deutsu, amaren sabelean sortu zineanetik, eta orduragiño euki dabela zure ardurea, etzaituzala eguño bere bakarrik itxi, beti beti egin dabela alegina Jaungoikoaren bideetatik eroateko; sarri eta sarri atera gura izan zinduzala pekatutik penitentzia egiteko argialdiak biralduagaz, baia etzenduzala artu gura izan. Amaitu ta azkendu zala bere denporea, eta eztaukala zugaz zer eginik.

11. Zer egingo dozu orduan, pekatari nekatua? Jueza aserraturik, bere ama gorrik, Aingeru yagoleak yaramonik ez egin, eta zeru luur ta ganeko (Jgk. eginiko) gauza guztiak zure kontra. Guztiori larritu, eta estuturik, gurako dozu yaio ezpazina, eta ikusirik au ezin dan gauzea dala, asiko zara negarretan urturik esaten mendiai: yausi zaiteze nire ganean, eta azpian artu nagizue; eta atxai eztaldu nagizu ikusi etzagidan arako yar-leku ikaragarritzko atan yesaririk dagoan Juez aserratua, baia etxatzu au autortuko ez emongo. Ebiliko zara eriotzearen atsean, eta eztozu aurkituko: gurako dozu eta eriotzeak iges egingo dau zukanik. Aintxe egon beariko dozu Demonioz inguraturik Juez aserratu baten aurrean, zein doian zeure sententzia emoitera. Ze larritasuna! Ze atsakabea! Ze bildurra! Ze esturea! Sentenziaren begira egon bearra, yakin bagarik zer enzungo daben Jaunaren aotik: ala berba gozo ta amudioz beteak, ala berba astun, gogor, eta odoi edo trumoe bat baxen itzaltsuagoak. Alde batetik Aingeruak, sen-



tenzia ona emoten baiatzu, euren erdian artuta zerura eroateko betiko atsegin eta zorioneko azken bagako pozaldietara, eta, beste aldetik, Demonioño kruelak amurraturik sententzia deungea emoten baiatzu, zure ganean ezarririk katee sendoakaz loturik beti betiko suetara eroateko.

12. Kristiñauak, ba'ukagu federik, baukagu errazoerik? Sinisturen dogu gura ta gur'ez ikusiko gareala ikaragarritzko estukuntza onetan? Baietz, eranzungo deustazue. Bada non da gure fedea, non da gure sinistea? Non da gure errazoea? Sinisturik denpora gitxi barru aurkituko gareala modu itzaltsu onetan, eztozu ardura geiago ifinten sententzia on bat merezietako lauzuri edo laumarai balioko ezpaleuena legez. Andia da zelanbere gure itsumendia; eta gogorra baño bere gogorragoa gure biotza, bada yakinik, sinisturik, eta konfesadurik gox edo berandu nai ta nai ez aurkituko gareala egotaldi garratz, eta tranze eskerga onetan; egon gura izaitea sententzia gogor bat eukiteko peleuruan, eta enzuteko Jaungoiko baten aotik: Zoaz madarikatu ori betiko suetara. Gura dozu bota deizun Jesus onak sententzia bildurgarri au? Enzuteak bakarrik laztuten dituz unleak. Nai dozu esan daizun: erdu bedeinkatu ori. Aita betikoak zuretzako gorderik daukan erreinua artuten? Nok enzun gurako ezta ain berba gozo ori? Bada zeure eskuan daukazu. Au alkanzetako bear dozun guztia emoten deutsu Jaunak. Baia zer egiten dozu onetarako? Ze ardura ifinten dozu? Bapere ez, Kk., bapere ez, eta orregaitik esan leiteke ezteutsula ardurarik sententzia onak edo txarrak urten, edo obeto esatearren kondena-ziño-ko sentenziaren billa zabiltzazala, bada alegin guztiagaz zabiltz zeure egikera edo obra kondenagarrietan. Yagi zaitez nosbait pekatuaren lo zorro orretarik, eta asi zaitez sententzia on bat merezi izaiteko moduak artuten. Ara emen sententzia au emongo daben Jauna. Ara ze otzan, edo manso, ze bigun, ze errukior dagoan besoak zabalik prest zure erreguak enzun eta zure pekatuak parkatuteko. Oraintxe eldu bear zara errukizko denporea dan artean, eta atea itxi baño leenago, ze bein zarratuten bada zarratu, eztozu aurkituko nok eranzun deizun. Ez egizu luzatu, bada ezta-kizu nos zarratuko dan denpora au, eldu zaitez beragana. Aita bigun, samur eta maitetsu dan artean, bakeak egizuz beronegaz, izan ez dakizun gero Juez gogor, eta erruki bagea. Eskatu egiozu garbitu zagizala orain bere odolagaz, aberaztu zagizala bere ondasunakaz, gero entzun dagizun bere aotik betiko iraungo daben bedeinkaziñoa; esan egiozu onetarako Neure J.K°. Jauna.

3. INFERNUAREN GANEKO SERMOEA

(B, 133-138. or.)

Dominus dabit ignem, et vermes ut urantur
et sentiant usque in sempiternum.
Judith, cap.16.v.21.

1. Eztago neure kristiñauak, mundu onetan infernuarena baño begiraune eta gogoeta bildurgarriagorik, eta alan guztiz astun egiten yake, eta garratz euren guraari zitai eta pekatuetan sarturik bizi direanai: bere izena enzunagaz beste bagarik, ikaraturik geratuten dira desesperadurik legetxe, baita gomuteak betetan deutsez beaztun minez euren gozotasun eta olgu-raak. Orregaitik eneunke bere ganean barbarik egingo, banenki ni ixilik egonagaz amatau edo gitxituko litzatekezala angos suak, edo berba egina-gaz geiagotuko litzatekezala; baia ez berba egin arren geiagotuko dira, ezta ixilik egon arren gitxituko bere; nai berba egin, nai egin ez, beti sen baten izango dira; ni ixilik egon arren, etzare andik librauko, eta bear bada nik berba eginda, etzare an yausiko, ze dirausku S. Juan Krisostomo-k eztagoala Infernua begien aurrean eukitea langorik infernura ez yoateko, arimako pekatuen orban edo loikeriak garbituteko. Ango suen ala, eta zorigogor ikaragarritzkoen gomuteak pekatari txito asko ta andiak atera dituz ekandu deungeetatik, eta ameneko beste onenbeste zuei yazo leki-kezue. Orregaitik, bada, iminiko deusuet arraztegi onetan zeuen begien aurrean Infernuko mineen anditasun eskergea, zati bitan: lelengoa da suak an emoiten daben tormentua, eta bigarrena konzienziako arrak emoten dabena.

Lenengo zatia

2. Esanik J.K°.k arpegi aserre ta berba gogorrekaz pekatari galduari: «zoaz ortik zorigogorreko ori, Diabruentzako iminita dagozan suetara»; yausiko da arako leku ilun eta itzalera, non guztia da nekea, lana, atsakabea ta argi-bako sua: non eztagoan gauza onik, ez artezik, ezpabere dea-darra, negarra, ulua, garraxia ta arrabia. Ezta leku onetan eukiko kondena-du tristeak atsegin ez argi puska bat; eztira iños bere ala eta tormentuak azkenduko, ez gitxituko; eztira bere negar anpuluak eguño bere leortu-



ko. Egongo da gosez amurruturik, eta etxako ogi apurtxu bat bere emongo: egongo da egarriz itoten, eta etxako ur tangatxu bat bere emongo, emon etxakana legez ainbeste milla urte onetan arako J.K^o.k ebanjelioan diñoan aberatzari. Guztia izango da mina, guztia ala, guztia zorigogorra, guztia amurrua; bere alde eta sensun guztiak egongo dira, esan bere esan ezin leikezan min-alez yosirik. Begiak ainbat Demoniño ain ezain, eta ikaragarri ikusiagaz: ze bat bakar-bakarrik mundu onetan agertuko balitz, bera izango litzateke asko, gizon guztiak ilik geratuteko. Belarriak eztabe enzungo deadarra, negarra, zispurua, inziria, garraxia, biraoa, ta blasfemiak baxen. Suurak eukiko dituz asufre, uia eta beste ke atsitu kiretzakaz, eta ainbeste kondenadu ustelen usain atsagaz beterik. Gustua beaztunik mingotzenagaz, eta beneno gogorrenagaz: azkenean, barriz, gorputz guztia eukiko dau erroerik, burdiña gori bat sutegiti urte-itorduan dagoana legez.

3. Yatsi gaitezan, neure Kristiñauak, gure arimako begiakaz leku ataraxe, baita ikusi daigun su ikaragarri au. Kontu daigun suzko edo berun (edo plomo) urtuzko itxaso bat irakiten: antxe kondenadu tristeak sarturik arrañoak itxasoan dagozana legetxe, euren alde guztietatik sua dariela: aotik sua, surretatik sua, belarrietatik sua, begietatik sua, esku, oin, sabel, eta beste alde guztietatik sua: bere garaun, odol eta aragia urturik, eta irakiten: an guztiak dagoz bata besteen kontra estuturik, sardinak otsaran legetxe, zirkirik bere ezin dabeela. A ze bizi-modu negargarria! Ze egokuna bildurgarria! A ikustekorik errukigarriena! Baita, A pekatuaren malizia eskergea! Baia oraindokoarren zerbaist obeto ezagutu gura badogu infernuko nekatuen egokera itsaltsua uste egizue gizon bat dagoala buruko min andi bategaz, begiak kanpora urtenik, belarriak anditurik, aoa puslaturik, aginak alez ausirik, azurrak urraturik, aragia usteldurik, eskuak ebagirik, oñak zapalduak: batetik alboko mina, bestetik tripa alak, samaan garrotilloa, oñetan errematizmu gogorra; kalenturaz erretan, egarriz itoten; eta esku, oiñ eta beste alderik minarren baterik bestera eroan ez mobidu ezin dabela. Ze ikusgarri errukigarria egongo litzateke! Zelango negarrak egingo leukezan! Ze inziriak! Nok bere erruki eukiko eleuke?

4. Bada ara, neure Kristiñauak, au guzti au ezta infernuko penarik txikien gerizea bere, bada ak gizon ak euki leike oe bat, edo bai gitxienez lurra non etxun; baia infernuko tristeak eztauko su ikaragarritzko bat baxen non etxun. Gexo ak artu leike atsegin apur bat baterik bestera aldatuagaz; barriz infernukoak ezin zirkintxu bat bere egin leike; ze an yausten dan moduan egon bearko dan betiko. Gexo ak euki leikez seme, guraso, senide edo adiskideren batzuk ikusita konsuelugarri emon leikioenak

bere erruki izanagaz eta berba bigun eta onakaz: baia infernukoak eztaueukiko bere borraru direan Demoniñoak baxen beste lagunik, eta beste kondenaduak, zeintzukaz egongo dan aginka, alkar zatituten direala, txakur amurrutu batzuk legetxe. Gexo ak eskindu ta opa leioz Yaungoikoari bere min ta nekeak bere pekatuen ordean, zeinek emoiten daben pozandi bat: infenuko kondenaduak, barriz, ezta atsegintxu au bere ezin euki leie, bada gorrotoz begiratuten deutse Yaunari, eta dauke euren areriorik andienentzat. Gexo ak baki nos edo nos, eriotzeagaz baño ezpada bere, azkendu ta kenduko direala bere gatzak: baia infernukoak eztauko alan gorik, dakialako betiko izango direana, eta Yaungoiko dan arte guztian iraungo dabela, eternidade guztirako beragaz izango dituzala.

5. Geratu gaitezan puska bat ementxe, neure Kristiñauak, eta begiratu daigun, al dogun ondoen, zer dan betiko iraupide au, kaburik ez eukite au, eta iños bere, iños bere, iños bere ez azkendute au. Kontu egizue mundu guztia dagoala areaz zeruetaragiño beterik, eta eun milla urterik eun milla urtera kenduten dala garautxu bat. Zeinbat milla millinoe urte bearko ete litzatekez area pillo au kentzeako? Bada nos edo nos dana kenduko, ta aldatuko litzateke: barriz eztira eguño bere amaituko, eztabee iñosko aldian atserenik izango infernukoen penaak. Igaroko dira egunak egunen atsean, asteak asteen atsean, ilak ilen atsean, urteak urteen atsean; igaroko dira eun urte, igaroko dira milla urte, igaroko dira amar milla, eun milla, igaroko dira milla milla millinoe, eta beti egongo dira infernuko nekatuak leengo lekuan erre eta kiskilduten. Asiko da begiratuten ea ikusi ta begiztau al daian, urrunetik baño ezpada bere, bere ikaragarritzko neke ta zori gogorren azkena, eta eztau ikusiko, eta gogoeta onek, pensamentu onexek emongo deutso, min eta alarik andiena. Negarretan urturik esango dau erremedio-bako zispuru artean: Nos akabauko dira tormentu ikaragarri onek? Iñoz bere ez. Nos amatauko da su au? Iños bere ez. Nos gitxituko dira ala eta min onek? Iños bere ez, Nos urtengo dot emetik? Iños bere ez. Nok nire erruki eukiko dau? iñok bere ez. Nok pozal ditxu bat edonos emongo deutso? iñok bere ez. Eztago niretzako erremediorik? Emetik milla urtera ezta izango? Ez. Emetik amar milla urtera? Ez. Emetik milla millinoe urtera? Ezta bere, zer egingo dot bada? A ene triste! egonda egon: erre ta erre: kiskildu ta kiskildu; desesperadu (ernegau, amurrutu), aginka egin nire aragai (buruari) arrabiaren arrabiagaz, negar, zispuru ta garraxika sekula betiko egon. Onelantxe dago, neure Kristiñauak, Kain zori-galdukoa igaroko sei milla urte oneetan, eta alantxe egongo da geure Yaungoikoa Yaungoiko dan arte guztian, beti, beti-betiko. O betiko zori-gogorra! O azkenbako iraute betikoa! Ze latz, eta ze



itsaltsua dan zure gomutea! Eta orregaitik bere ain da gogorra gure biotza ze, au guzti au ezta asko ardura artu erazoteko leku atatik alde egitearren.

6. Yaigi gaitezan nos edo nos lo zorro onetatik, eta enzun daigun S. Juan Krisostomo-k dirauskuna. Zeinbat urte biziko zareala uste dozu? Itanduten dau Santu andi onek. Elexa onetan gagozanak eranzun bear bageunskio, esango geunke batzuk ogei urte; beste batzuk ogeita bost, edo berrogei. Baia daigun eun urte biziko zarela, edo geiago; baita gura b'ozue Juizioko egunera artean; bitartean, barriz, biziko zarela gura dozuen atsegin, olgura, pozgarri eta gozo artean: ta beingoan esateko, gizon batek mundu onetan gura al leikezan zorionez beterik, edo esan daroaguna legez, esnetan legetxe. Baia ezin aurrera igaro zinaitekeze: gox edo berandu etorriko da zure bizitzearen atserengoa. Baita orduan, zer izan zala usteko dozue bizi izan zareen denpora guztia? Bart egin dozuen loa, edo amesa langoa. Ezpabere esan egidazue, zer deritxazue dala bizi izan zareen arte guztia? Deritxazue atso zenbiltzela oraindio ume, zuen lagunakaz yokoan, edo enredetan eta olgetan. Zeinbat bidar esan daroazue arako ume edo gazte denporako (egunetako) gauzaren bat konteta-orduan, eta esan ezkerro zeinbat urte igaro direan yazo zala: ze laster doazan urteak! Atso yazo zala uste dot. Bada ez tira geldiago igaroko ganeko urteak atsean itxi dozuezanak baño. Orregaitik ziñoan Job santuak: emakumea (andrea) ganik yaioko gizona denpora (apur bat bizi orduko) gitxi barru betetan da gatxez: urteiten dau lora eder batek legez, eta lei oztzak edo eguzki beroak yo orduko, gerizeak legetxe iñesi egiten dau: eztago iños sen baten. Ume denporea doa sensun bagarik, eta ezer yakin ez eza-gutu bagarik: bator gaztetasuna, eta eldu orduko beingoan gagoz atso-agurak eginik: geure bizi guztia geroko betikoaren parean puntutxu bat da, begi itxi-idigi bat, edo obeto esatearren, ezerberezerkia bat. Itandu dagiogun ezpabere Kaineri; ea zer deritxan mundu onetan bizi izan zan denporeari: eta eranzungo deusku, ozta gomuta dabela bizi izan zanik: urrunera begiztetan dabela bere bizitzea puntutxu txiker, nekez ikusi leikean bat legez, eta begitanduten yakala yai o orduko iltzala. Auxe diño oraintxe, neure Kristiñauak, infernuko guztiak: Eskritura Santeak dirauskuni, eta auxe berau esango dozue zuek bere, zori-gogorrez an yausten bazare. Eta orregaitik bere denpora apur, puska onegaitik, eta berean euki al dagizuezan gustutxu beingo bateko batzukaitik, gura dogu arimea galdu beti-betiko? Neure Kristiñauak, ez gaitezan ain zoroak izan; ukatu daio-guzan gorputzari bere guraariak, izan zedin euren gomutea infernuan gure (arerio ta) nekerik aserreena: eta aror non daukazuen

Bigarren zatia

7. Ezin esanezkoak, eta guztiz ikaragarriak dira, benetan, infernuko suak kondenaduai emaiten deusezean min-ala eta tormentuak; baia ez tira, ez, txikerragoak izango konzienziako arrak emongo deusezean. Gauza bigaz egongo da ar au gau ta egun aginka zatituten ta urratuten infernuko tristearen biotza; igaro dabeen bizitzea gomuteagaz, eta galdu daben zeruko gloriaren anditasunaren ezaukereagaz. Etorriko yakaz burura, diño Espiritu Santuak, bere pekatu guztiak, eta mundu onetan egin zituzan gatxak (okerkeriak) izango dira bere salatari, edo akusadore-rik aserrean. Gomutauko dau ze errukiorra dan Yaungoikoa, eta zenbat bider atera gura izan daben (eban) pekatutik: onetarako biraldu eutsazala gatxak, nekeak, pobreza, eta lanak: onetarako dei egin eutsala batzuetan bere biotzera bialduten eutsazan argi-aldiakaz, beste batzuetan predikadorean, eta konfessoreen bitartekoz: sarri ta sarri bildurtu gura izan ebala, orain daukazan tormentu ikaragarrien gomuteagaz, barriz berak bere biotz gogorragaz gitxitan euki zituzala Yaungoikoaren ardura guztiak, eta gurago izan ebala bere gurari zitalai yarraitu, ezen-ez Yaungoikoak erakusten eutsan bideti ibili. Pensamentu onekaz amurruturik usika egingo deuse bere aragai (buruari), zatitu, eta urrutuko dituz aginka, beteko da tristeza itzalez, eta esango dau damu eta garbai ezetako eztan bategaz. Non dira orain arako nire adiskide eta lagun maiteak, zeintzukaz ainbat pozegaz neukazan (euki oi nituzan) nire guraariak, olgurak (dantza), eta yolasak? Non dira arako oe bigun ta astinduak (astin eginak), non arako yateko, ta edateko gozo zalegarriak? Non dira munduan neunkazan atseginak (atsegintasunak)? Non dira arako soñeko eder eta baliozkoak, neure burua apaindutearren, eta munduaren aurrean (begietan) eder iruditearren, prezioari begiratu bagarik, eta bear izan bagarik (ez nituzala) erosten nituzanak? Zer balio deuste orain arako ainbat arduraz, ainbat izerdiz, ainbat gaubelaz, ainbat tranpa ta engañuz baturiko (batu nituzan) ondasunak?. Zer balio deust orain nire asko-eretxiak, andigurreak, agintari izanak, eta gura neban guztiagaz beti urteintek?. Zer balio deust orain neure alde, eta adiskideak ondo akomodetek, izan bazan injustiziagaz, eta beste obeago bateri emon bear yakanagaz? Igaro zirean direanak odoi gerizea igaro oi dana legez, yoan zirean egaz aldetik doan (yoan oi dan) txoria legez oñatsik ez igargarririk itxi bagarik (Sap. 5.). Eta zeinbat eneban



burua galdu arean balio ezteusten guraari ta ondasunakaitik? Gau ta egun egon niñoan arterik artu bere egin bagarik, burua austen, nondik nora geien irabaziko neban: Nik ikusi nituzan otzak, beroak, indriskak, iñastasiak, euriak, edurrak, diru apur bat irabaztearren! Galdu nituzan gau ta gaberdiak neure loikerietako lagunakaz egotarren, eta iñoen gauzea ostutearren! A! beste onenbeste egin izan baneu neure arimegaitik! ze beste modutan ikusiko neunkean nik orain neure burua! Errazago izango neban zerura yoatea, erabili dodazan bideetatik ibiltea baxen. Adu-galdukoak izan daitezala, arren, nire lan eta neke guztiak: adu-galdukoak nire gustu zitalak; adu gogorrekoak gorputza ondo eukiteko emon nituzan izerdi eta pausuak: adu-gogorrekoak pobreai emon bearrean, aberaztuteko, eta gorderik eukiteko batzaindu nituzan diruak eta ondasunak, baita adu-gogorrekoak nire gorputza, zein libradu ezin izan dabeen arrak'anik nire alegin guztiak, bada oraintxe dago ustelduta (obia edo sepultura baten) lurpean, eta nos edo nos etorri bearko dau su ikaragarritzko oneetara. Onexek dira, neure Kristiñauak angoson, kanta eta berbaikunaak.

8. Bigarren, konzienziako arrak infernuan dagoanari emongo deustan, paratzagako usikadea izango da burura ekar-arazotea santuak zeruan dauken zori-on ta suertea. Ikusirik euren gloria, eta zoragarritzko pozak, beteko da atsakabez, eta gogaitgarritzko tristuraz, eta negarretan urturik, ta aiaika itsalakaz esango dau: Ai! Ara zelan dagozan Yaungoikoaren seme eginda, munduan bizi ginean artean arako nik gitxitan neukazanak. Nik ezetan bere enekazan, arako nire asmu eta tranpak, egin gura etzituezean, burla ta barre egiten neuntsen, ni legez etzebiltzalako danzetatik, yolas eta dibersiñoetatik, eta lagundu gura ez eustelako (meriendetan) gaubaz ibiltan, lapurretan egiten eta tabernara yoaten. Sinpletzat neukazan sarri konfesetan zirealako, Elexan errezetan egozalako, al eiezan sermoiak enzuten zituezalako, eta pekatu zala enzuten ebeen (gauzarik) guztia egin gura ez ebeelako. Eskrupuloso batzuk zireala esaten oi neban, yai-egunetan bearrik egin gura ez ebeelako, gugaz batu gura etzirealako, berba arinik esaten bagenduan agiraka egiten euskuelako, eta geure erokeriak enzun gura etzituezalako. Neu bai izan nasala zoroa eta sensunbakoa. Ikusiko dau gizon aberats zeken-esku-eutsiak gloriako atsegin artean arako berak ateetatik limosna bagarik deadarrez eta agiraka kendu eban pobre-txu billos eta goseak-ila: yakingo dau Yaungoikoak biralduta eutsala bere atetara, eta orduan limosnea egin baleutso, Yaungoikoak bere sarri biralduta eutsazala grazia geiago eta salbaduko zala, eta ez emonagaitik dagoala su aetan kiskilduten. Ikusiko dau seme galdu, geisto, eta agindu-txarrekoak Angeru artean bere ama, noen esanik egin gura izan ez eban,

baita ezagutuko dau aen agirakak, ta oñoteak bere onerako zireala: aginduten beutsan gaubaz etxetik urten ez eiteko, goxetik etxera etorteko: esaten eutsanean etzediala lagun deungakaz batzaindu, ez zedila yokoan imini, iges (alde) egiala neskatillakanik; txotxaturik egoala esaten eba; baia bera izan zala benetako sensunbagea, bere konselluen yaramonik egiten ez eban. Ikusiko dituz besteak argiz yantzirik, eta zeruko prinzipie eta jaun andi eginik arako berak bere loikerietan, lapurrerietan, eta ordikerietan euki zituzan lagunak: baita berak egin gura izan ez eban, penitentzia egin ebeelako, libradu zireala berak daukan suerte zori-gogorreko-tik, eta dagozala Yaungoikoaren seme eginik, bera barriz Demonioaren menpeko ta aginduko. Ezauera onegaz beteko da amurru gogorrez, diño Dabid Erregeak, aginakaz karraskada bildurparriak egingo dituz; ta bere artean karramarritu ta arrabiako da.

9. Amurruturik (ernegaurik) gogoaldi (gogoeta) oneekaz, biurtuko da bere buruaren kontra, apurtuko dituz bere aragiak eta ikusirik eztagoala iñondi bere erremediorik (urteiteko biderik), eta zarraturik dagozala beretzako miserikordiaren ateak esango dau negar, larri, eta garraxi artean: *Ergo erravimus a via veritatis*. Neuk, neuk daukat errua, neuk uts egin dot: gura izan baneu neure eskuan neunkan zerua, ze neure borondatera, neure aukera, ta eskojiara ifini eustan Yaungoikoak; baia nik gurago izan neban neure guraari zitalai yarraitu, Yaunaren legea gorde baño, eta orregaitik uts egin dot bidea. *Ergo...* Sarri ta sarri esan eusten konfesoreak zer yazoko yatan, itxi ezik yoko larregiari, taberneari, (danzea), eta beste pekatu-bide galtzaigarriai; baia nik uste neban ze estuegiak zireala konfesoreak. Sarri askotan esan eusten predikadoreak Demonioaren asmuak gu galdutekoak zireala, guk mutil-neskatillak alkarren artean egiten genduzan batzaarrak, kanta zoroak, danza, eta yolasak; itxi nengiola birao egiteari; biurtu nengizala lapurreriakaz, tranpakaz eta engañuakaz batu ta artu nituzan gauzaak, nik barriz enituzan egin gura izaiten, nik neukazan txotxakeriatzat ta eskrupulutzat: uste neban eze gu bildurtutearren esaten zituezala onango gauzaak: baia oraintxe dakust egia ziñoela, eta neuk uts egin nebala. *Ergo...* Oraintxe gomuta dot arako lagun geistoagaz egin neban pekatu loa; andixek erne yatan ekandu zitala; zeinbat aziago ainbat eta indar geiago artute'eban, eta ibili ta ibili berak onaxe ekarri nau: Oraintxe gogoan dodaz, arako nire artu-emon, eta saldu-erosi okerrak aberaztu gureagaz egin nituzanak: beti neunkan bildurra egin al baneban ala ez; baia diru zaletasunak (irabazteko amurruak) itsutu ninduan, eta eneuntzan kausiñorik egiten; baita alan galdu nintzan betiko. *Ergo...* A! Urliak eta urleziak egin ebeen penitentzia egin baneu, ze zori-onekoa izan-



go nintzan ni orain! Aek nire lagun izan zirean; neugaz egin ebeen pekatu, neugaz naste ibili zirean ordikerietan, lapurrerietan eta loikerietan: baia denporaz akordau zirean; itxi ninduen ni, eta egin ebeen euren pekatuen penitentzia: zorotzat neukazan nik orduan: gura neban lengo moduan ibili zitezan; baia eurak eukeen sensuna, neu barriz nintzan zoroa ta sensunbako utsa. Amaitu zan aen penitentzia, amaitu zirean nire gustu lotsagarriak bere, baia ezta azkendu, ez azkenduko bere, ez euren gloria, ez nire tormentuak. *Ergo...* Auxe da, Kristiñauak, arako Ygkoak diñoan iños bere ilgo eztan konzienziako arra.

10. Zer egingo dau tristeak bere burua alan ikusita? Asiko da, ea begiztau egin al balegi bere neke ikaragarrien azkena: baia ezin. Kontua aterako dau ea ogei milla urteren buruan azkenik izango dabenez; baia eztaue izango. Ea, bada, eun milla urte-garrego edo gitxienez bost eun milla urte garrego; baia orduan bere orain legez. Ea ezpabere milla millinoe urte igarota, edo itxasoak dituzan urtanga lainbeste millinoe urte igarota; baia orduan bere orain legetxe; zegaitik-eze eternidadeak, zorigogorrekoko betikoak eztauko azkenik, eztauko ondorik, ez iños ez izaiterik. Zer egingo dau, bada, ikusirik urteiteko biderik eztagoala, eta Yaungoikoa dan arte guztirako zori-galduko izango dala? Asiko da biraoka bai biraoka. Zori-gogorrekoa izan deila arren egin ninduan aita, zori-gogorrekoa sortu ninduan ama. Zori-gogorrekoa bedaratzilabeteen erabili ninduan sabela, eta ugatza emon eustan bularra. Zorigogorrekoa yan neban ogia, eta edan neban ura. Zori-gogorrekoak niri yaioten, aziten, bizi izaten eta pekatu egiten lagundu eusten guztiak. Baita eztira emen geldituko bere biraok: begiunduko yako, Yaungoikoak, Y.K°.k, bere ama guztiz santeak eta beste zeruko Angeru eta Santuak deitsela errua, eta egingo dituz euren kontra birao guztiz eskergaak, eta blasfemia enteroko ikaragarriak. Baia ezteiguzan enzun; itxi daioegun leku itzal atan dagozanai euren susterrak (izpiak) erabilten; eta iratzarturik geure pekatuen lo zorrotik biurtu gaitez gure senera, baita artu daigun bertan yausi ez eiteko modua. Ezagutu daigun, onetarako, ze zoroak garean pekatu egiten dogun bakotxean.

11. Izan bere, neure Kristiñauak, non da gure sensuna pekatu egiten dogunean yakinik beragaitik yausi bearko gareala onango betiko zori-deungan? Esan egidazu ezpabere, pekataria zareana zarea, iminiko baleude laba, karobi, edo sutegi ondo exetu bat, eta esango baleutsue, antxe alboan dagoan sagartxu bat yan egiten badozu (yaterakoan, yatera ezkerokoan), bertatik sartu egingo zaituezala laba, karobi edo sutegian, asartuko zinatekez sagarrari aginakaz eltzean? Eukiko zeunke biotzik gustu zital axegaitik su atan errerik ilteko bidean ifinten (zure burua imin-

teko)? Ezetz eranzungo dozu nire eretxian. Eta, berpertatik igaroten dan guraaritu bategaitik imini gura dozu zure burua infernuan yausteko bidean? Zer dauko zer ikusi mundu onetako surik andienak, infernuko penarik txikienagaz? Guztiz andia izan arren laba, karobi edo sutegirik gorienean euki al zeunkean min-ala edo tormentua, geien-geien bere kredo baten bitartean bere ez leuke iraungo, bada bertatik edo ito edo erreko (erre egingo) zinatekez: baia infernuko suak ez dira bein bere amatauko, ta eztozu zeuk bein bere bizitzea galduko: beti-betikoa izango da ango erre bearra. Eta alan bere gatx txiki baten yausi ez eitearren egiten doguna, eztozu egin gura gatx, neke, eta zorigogorrik ikaragarrietan ez yausteko: bertatiko suari bildur andia, betikoari barriz bapere bildurrik ez. Ederto baten (ondo) diño S. Juan Krisostomo-k umetxu txikerrak legetxe gareala: Oneek, diño, papaoa ikusten badabe bildurrez betetan dira, eta ezteutse bildurrik suari (garrari); eta kandela exetua dakusen'ako, oratu gura deutse argiari. Dexonraren baten yausiko bada, lotsaariren bat igaroko bada, Errege edo beste gizon andiren bat aserratuko bada, bertatik itxiko da naietan dan gauzea; barriz Yaungoikoa aserratu ez eitearren (eiteko), eta betiko dexonran eta lotsaariran yausi ez eitarren, eztozu itxi gura guraaririk txikienena, ta ikuskiena.

12. Kristiñauak, birik bat; edo eztaukagu federik, edo ez beintzat sensunik: bada sinistuko bagendu infernu bat dagoala, eta sensuna bageunko, ez geunke ain ardura gitxi eukiko, andik libretako. Eztaigun esan kristiñauak gareala; eztaigun esan sinistuten dogula infernu bat dagoala, eta pekatuan ilten dana an yausiko dala; ze ikusirik gure bizi-modua edozeinek esango deusku, guzurra diñogula. O Jesus ona! O Jesus laztana! Nos artean egongo gara itsuturik? Nos artean izango gara zoroak? Esaten dogu eztagoala gauza gogorrakorik zugaz betiko aserre egotea baxen, zure gloriatik erbesteturik eta kanpora botarik, betiko erretan egotea baxen: baia gure bizi-moduak deadar egiten dau eztozula sinistuten, ze sinistu ezkerokoan, ez ginatkeez egongo neke zori-negargarrikoko oneetan yausi egiteko (yausteko) pellebruan. O Jauna, Jauna! Eternidade oso baten egongo al nas zure izen santua blasfemetan, zure kontra biraoka, zuri gorroto deitsudala, eta zure arerio gogor eginik? Ez Jauna, ez Jauna; ez alangorik, ezta izango alangorik. Bene-benetan artzean dot gogo sendo eta eragille bat alegina egiteko leku itsal atan yausi ez eiteko: eztot luzatu gura zugana biurtutea; oraintxe, oraintxe etxun gura nas zure oñetara, eta bizitza barri bat egiteko proposituagaz dirautsut biotz guztitik: Neure J.K°. Yauna.



4. INFERNUA

(J, 158-171. or.)

Discedite a me maledicti in ignem aeternum.
Math. 25.v. 41.

Ai kristiñauak! bazenkie ondo zelan daukadan nik biotza gaurko arratsaldeko sermoia egiteko! Banator egitera Yaungoikoak pekatariak andiko (beste) munduan emoten deutseezan kastigu ezin gogorragoen ganean, arako pekatu mortalean ilda bere esku (gogorraren) itzalaren azpian artuten dituzanean: eta onelango gauza ikaragarri au gogora etorteak larri larri egiten deust neure biotz guztia. Ai baneunko nik orain antxinako profeta santuen besteko santutasun eta indarra, onelango gauza bildurgarriaren ganean bear dan legez egiteko! Isaías, Yeremias, Ezekiel, ai nok leuken orain zeuen biotz andia, zeuen berba itzal ta indartsuak, neure entzula maiteai adietan (ulertuten) emoteko ze bildurgarria dan Jgkoak pekatari itsuai infernuan emoten deutseen kastigua! Baia, izango ete liteke asko ori indar guztiori alango ikaragarritzko kastinguen ganean bear dan legez egiteko? Balitz, or, neure entzulai esatea euren pekatuak gaiti galdu bearko dituezala euren ondasun guztiak, asko izango liteke zeuk legez, Isaías, narru gorrian billosik, eta ortozik guztien begietara urtetea. Balitz, or, esatea pekatuak gaiti preso katigu eroango dituezala erbesteko erri urrinetara (asagoetara), asko izango liteke zeuk legez, Yeremias, urkia ta kateak idunean doazala ibiltea. Balitz esan bearra euren pekatuak gaiti goseta andi eskergeak ikusi bearko dituezala, asko izango liteke, zeuk legez, Ezekiel, berrogei egunean yatea errari utsa beikorotzagaz errea. Baia egin bear dodanean Ygkoak pekatariak infernuan emoten deutseen kastigu ezin da besteko gogorren ganean, zer egin nei nik, edo zer esan nei? Ai! eztakit nik ondoen izango ezpada esatea zeuk legez, Yeremias, umea nazala eta berbetan eztakidala.

Pekataria, pekatuaren lo sorroan gogor gogorrik zagozana, bai bai, esan eikezu, esan eikezu: «nik pekatu egin dot: baia, ze gatx etorri yat niri orregaitik? Bear bada iya iya zeure buru ganean daukazu Ygkoaren esku gogorra, eta ameneko urrean zagoz kastigu ori zeure ganean ikusteko. Bear bada iya orainganik zagoz infernuko ilinti baltz izateko ebagirik, edo ebagia izateko urrean. Iratazartu zaitez, iratazartu al bazintekenez, eta begiratu egiozu zeure buruari guztiz galdua izan baño leen. Eta ori egiteko,

nik arrastegi onetan erakutsi gura deutsut zein gogorrek eta bildurgarriak direan infernuan ikusibear direan neke ta minak. Baia enaz ni lotuko zeuei banaan banaan adierazo ezinik bertako kirats atsitu naskagarriak, ez ango labaño zorrotz, kako luze, burdiña gori, berun urtuak; ez ango txilio, deadar, ulu, aiari, eta negar belarri-arraillagarriak: ez ango etxurabagako demonio borrreru krubel erruki-bagakoak, ezta osterantzako nekegarri ezin andiagoak. Bakar bakarrik bada berba egingo deutsuet Yesukristo geure yaunak yudizioke egunean gaistoai emongo deutseen sentenzian aitatuko dituzan (peneen) nekeen ganean. Esango deutse bada Yaunak deungo-okerrai: «Ken zakidaze neure begiera aurretik madarikatuok, su betikoetara»: zeintzuetan berbetan aitatuko dituz neke ikaragarri bi, infernuko sua (*in ignem*), eta bertan betiko egon bearra (*aeternum*); eta biotzuoen ganean bein banaan egingo deutsuet, sermoiak izango dituzan beste ainbeste zatitan. Lenengo zatian esango deutsuet, ze ikaragarria, ta gogorra dan infernuko sua. Bigarrenean, ze nekegarri itzala dan betiko an egon bearra. Bildurgarria da, egia esateko, sermoia, baia arimearen onerako ezin ohea: bada san Yoan Krisostomo-k diñoan-di (ez), «infernua gogooan erabili izan dabenik, ez garaurik (koskolik) bere infernuan eztago: barriz infernua alde batera botata euki izan dabeenak, arako izan dira (danak) guztiak».

Ygko. andia, infernu gogor orren giltzaak eskuan dozuzana, gaurko arratsalde onetan bear neunkez nik giltz orreek. Betoza ona, arren, Yauna, puska baterako. Eztodaz gura an betiko galdurik dagozanak ateretako. Zeuk ara bota dozuzan ezker, ondo botata dagoz, eta begoz. Begoz bai euren damu gogorrean, erre bidiz, kiskaldu bidiz, ernegadu begie, amurratu begie sekula ta betiko. Baia nik gura neunkeana da, besterik geiago leku ikaragarritzko atara yoan eztedila, eta orretarako, eta ez beste gauzatarako, zabal zabalik imini nai neunskioe neure entzula maiteai infernu arrigarri ori. Bein-danik bein, Yaun errukior eta esku-andikoa, emoiozu entzula oneen onerako nire berbai indarra eta indarra, eta izan bidiz oneek giltz-ordeko ederrak, alik ondoen begien aurrean iminteko leku itzal atako ikusibear ezin bildurgarriagoak.

Dagoala infernuan gaistoak kastigetako benetako sua, dirausku Yesukristo-k berak leen esan deutsuedazan berbeetan. Egia berau esaten yaku Eskritura santuko makina bat lekutan, eta alan sinistu bere egiten dabe kristiñau guztiak. Orretan bere, neure entzula onak, izanik infernua Ygkoak pekatuen kastigugarriako imini izan daben leku ikaragarria, ezti-rudi ezelanbere asmadu leitekeala sua baño mingarri eta nekegarri gogor-ragorik. Eztaukazue gogora ekarri baxen zer yazo oi dan etse baten suak



artu izan dabenean. Zelango negarrak izaten eztira: zelango deadarrak? Zer egiten ezta su atarik iges egiteko? Beste biderik ezpadago, bentanati beera botetan da burua, eta eztago edozein bere gauza egingo ez leukean bertan errerik ez gelditutearren. Baia iños garrak alde guztietatik zabaldua bat edo bat erdian artuten badabe, eta urten-bide guztiak galazoten badeutseez, ai! au bai dala ikusgarri triste! Asten da erretan: narrua (azala) tximurtu ta pustillatuten yako, urtuten yakaz aragiak, irakiten deutso odolak, kiskalduten da, eta geratuten da ikatz baltz bat eginik. Eta esku-artean darabilgun infernuko su gogorrari urreago egiten gatxakozala, eztozue eguño bere artu Falaris-en zezenaren entzuterik? Biotz bagako gizon oker onek, berak gura zituzanak gogorrango ilteko, burdiñazko (bronzeko) zezen bat eragin, gizonak billosik barruan sartu, eta gero azpitik astirotxu suagaz bero bero, edo gori egiten eban zezena eta alan erretan zirean edo urtu egiten zirean ezin esanezko nekeagaz iñora bere ezin ebeen barruko errukarri gaixoak, orroeka mundua beera ekarri bear ebeela. Bein danik bein entzun izango dozue zelan san Lorentzo (Llorente) eta beste santu asko burdina gorien ganean iminita geldi geldi erre egin zituezan: alderdi bata kizkaldu ezker, bestera egiten zituezala, agaz beste ainbeste egiteko, eta onelan eriotza ikaragarritzko bat emoten eutseen. Alanbere, ez egizue uste eze infernuko sua mundu onetako sua langoa dala.

Ez, diño san Agustin-ek, geure su au infernuko suaren aldean su usaiña baño ezta. Arako Nabukodonosor erregeak exetu eragin eban labea, zeinen garrak berrogeta bederatzi beso gora igote eban, etzan infernuko suaren aldean ke puska bat baxen, diño san Bernardo-k. Arako Sodoma, ta Gomorra-ren ganean zerurik yausi zan sua, eta zeiniek uri orreek auts egin ezker, eurak egozan lekua bera bere erre, eta ondatu eban, etzan santu onen eretxian infernukoaren parean lasta-zuzi (lasta moltso) baten garraren kea baño. Mundu onetako sua da Ygkoak bere ontasunez geure bearretarako, eta geure onerako egin eban sua, eta orregaitik ez eutsan emon onetarako bear dan indarra baño geiago. Baia infernuko sua da su bat Ygkoak egin izan dabena pekatari bere arerioak kastigetako, baita berak bere aserrearen axe indartsuagaz putz egiten deutso, erakusteko zelango gorroto gogorra deusnan pekatuari. Eta, nok gogoan artu ze indarra, ze kar ta su emon izan deusnan su kastigatzaille, eta minemolle oneri?

Ai! Ygkoaren eskua esku gogorra da kastigetako. Orain mundu onetan gagozan artean bigun artuten gaituz, eta iñosko alditan geure kontra aserraturik kastigetan bagaituz, berak diño eze, eztakiala zelan egin ase-

rreagaz batera (naste) bere ontasuna, eta errukia erakutsi bagarik. Sarri ta sarri bere burua alabetan dau esaten dabela eze, bera dala guztiz ona, guztiz errukiorra, txito errai-samurretakoa, ta epetasun ta pazienza andikoa; lur guztia barren baterik eta bestera bere errukiz bete beterik dagoala ainbesterañokoan eze, zeru guztia bete eta zeruak eurak baño bere gorago eltzean dan errukitasun ori. Alan-da guzti, zelango kastigu eskergagarriak egin eztituz Yaunak, bere aserre-aldi banaka batzuetan? Eta, zer deretxazue izan direala kastigu eskergarri orreek? Ygkoak berak diñoandi (diño-anez), kastigetan asi baño besterik ez. Nik egia esan bear deusnet, baia ni ikara ikara egiten naz, eta eztot yakiten zer esan bere arako irakurten dodanean Eskritura santuan Ygkoak aserre aldi batzuetan egin izan dituzan kastigu tzar eskergaak, eta guztien ostean ikusten dodanean Ygkoak berak diñoala eze, a guztia etzala izan aserre apur bat baño besterik.

Eskritura santuan esaten da Ygkoak Israel-darren pekatuakaitik biraldu (agindu) zituzala Yerusalen-era Kaldea-ko soldadu krubel gogorrrak, zeintzuk millaka iltzitzezan gizon, emakume, agura zar, eta ume txikergiañokoak; galdu zituezan neskattillaak, loitu zituezan andira ezkonduak, garbitu eutseezan diru ta ondasun guztiak; su emon eutseen etseai, eta azkenean il etzitzezan guztiak kautibu eroan zituezan euren errira, Kaldeara. Eta orregaitik bere Ygkoak berak diño Ezekiel profeta santuaren bitartekoz eze, au guztiau etzala izan bere aserrearen tantaka bakar bat baño. Irakurten da Eskritura berean eze, barregarri erabili zituzala Yudeatarrak Antioko errege gaistoak egin eutsen gerreagaz, eta euren arteko asko ezin esanezko gogortasunaz il eraginik, ain modutan eze askok esate'ebeen oba eukeela il bere, ainbeste gauza (alango gauzaak) ikusi baño. Eta alanbere Makabeo-en arteko batek diño eze, puska-puska bat aserratu yakala (Ygkoa) euren kontra. Baita alan bada puskatxu bat aserraturik dagoanean, eta ain gogorra bada bere aserrearen tantaka bat baño botetan eztabenean, zer izango ete da irrima aserratu eta botetan dituzanean ez kolorearen tantakak (tistillak) ezipabere errekaak, ibaiak, itxasoak? Bada au egiten dau infernuan, eta orretarako egin eban infernuko sua.

Orretarako Ygkoak sartu zituzan su onetan munduko min, ala, eta nekegarri guztiak, eta bera bat izanik, emoten dituz Ygkoak berak dakizana min, ta doloreak. Askotan ikaratu izango zare entzunik Martiri santuai, eta beste askori emon eroakeezan neke, eta ala ikaragarriak: zelan burdiña (burruña, parrilla) gorien ganean iminita geldi geldi erretan zituezan; zelan burdiñazko orraziakaz gorputzeko alderdi biak eratzi, eta apurtuten eutseezan; zelan atz-azal arteetati kañabera atal mee zorrotzak sartuten eutseezan; zelan mallu astunakaz kadera-besoetako azurrak birrin-



duten eutseezan. Entzun izango dozue zelan sartu eroezan berun (edo plomo) urtutan, edo uia eta orio irakitan: zelan kurutzeetan untzeakaz yosi eta breatan edo uiatan bustiriko alkondaraak yantzi eta su emoten eutseen bertan erretako; zelan gizon bizia lurrean (zelaian) aratinik luze luze egin, ganetik gorpu il bat auzpez ezarri, eta biok billoxik estu arpegiz arpegi, bularrez bular, besoz beso, eta kaderaz kadera, eta alan itxite'eben bertan, ilaren atsak, usteltasunak, eta arrak yan ta il legientzat, eta Ygkoak dakizan beste asko. (v. 5. 2.)

Eta, zeinbat ikusi bear izaten ez eben kartzela gogorretan bertako atsagaz, goseagaz, egarriagaz, iluntasunagaz? Asko izango da bein gogorra ekarte Biktora Afrikano-k onen ganean diñoana. Diño bada eze, Ubandal-arrak Afrika-errian imini zituezala erabatera kartzela baten bost milla lau gitxiago, eta ez eutseela itxiten ezetarako bere andik urteten, eta antxe egozala gau ta egun gixagaixo errukarriak, sardinak zestoan legetxe estu estu, belaun-etagiño euren loi artean sarturik. Bein sartu ginean geu bertan, diño berak, eta ain izan zan kiratsa, ain naskagarria (iguinagarria) ango sunda txarra eze, etzirudian iñondi bere alango kirats atsiturik eta penagarririk izan leitekeala. Beste aldeti barriz, zeinbat gaixo eta min ikaragarri igaro (eroan) bear eztoguz geuk gizon emakumeok? Buruko-mina, begietakoa, belarrietakoa, aginetakoa, zamakoa (eztarrikoa), azurretakoa: alboko-inkea (alboroengoa), tripa-ala gogorrak, udaminak (eraitekoak): errematismoena, arriena, biziena, eta nok-taki-zer. Batzandu egizuez bada oneek guztiok, eta bat egin dozuezan ezker, esango deusue san Jeronimo-k eze oneek guztiok eta beste asmadu al leitekezan guztiak emoten dituzala infernuko suak. Oraindo bere geiago esango deutse santu andi onek san Isidorogaz, eta san Agustin-egaz (batera) naste: esan doguzan guztiak, eta beste, munduan direan eta izan leitekezan min, ala, neke, atsakaba, ikusgarri guztiak ezer (arean) eztireala, eta atsegingarri artu leitekeezala infernuko suaren aldean.

Bai, neure biotzeko entzulaak, bai: ezta ezer infernuko suaren aldean burdiña gorien ganean erre bearra, edo orio irakitan prixidu bearra; yolasgarria da azurrak golpeka birrin birrin egitea, edo atzazal arteetatik kañabera atal zorrotzak sartutea; eta atsegina artutea da osterantzeko min, ala, neke, naibagako eta atsakaba gogorrenak ikusi bearra. Ez egizue uste eze au larregi esatea dala : ezta bear dan baxen gitxiago esatea baño; edo obato esateko, ezta ezer esatea baño. Utsak dira: ezer esan gura eztabeenak dira alde onetan bizi gareanen berbaak andiko aldiko nekeak eta ikusgarriak adierazoteko (ulertu eragiteko). Infernuko bat etorri bear litxakegu sua ta garra dariola, ondo dakianak legez geuri orreek zer direan esa-

teko, eta ori ta guzti eliteke asko izango gauzea bera bera dan legez geure zenzun laburrak ulertuteko (adituteko). Baia au alan bada bere, emetik atera ziñaie zeuek zelan edo alan zelango ikaragarritzko gogorra izan bear-ko daben infernuko suak. Guztiok dakigu, fedeak alan darakuskula, eze, infernuko su bildugarri orrek espiritu utsak direan demoniñoai eta gizonen arimai min eta ala ezin gogorragoak emoten deutsezala. Eta alangoa bada espiritu utsakaz, zer izango da, edo zelangoa izan bearko dau su itzal orrek?

Onezaz ganetik, baago infernuan beste gauza bat su ikaragarritzko au neketsuagoa eta eroan-ezinagoa egiten dabeena, eta da ezin iñondi bere, ez ezetara bere izatea min-aleen aringarririk, ez atseginaren apurrik. Bir-milla urte egin da Yesukristok esan eban aberatza infernuan dagoala ur tanta bakar bat eske ta eske, bere miñertza bustiteko. Zer da ur tanta bat infernuko gar artean dagoan batentzako? Alanbere ezta apur ori bere etxako oraindokoarren emon, eta ez emongo bere. Mundu onetako neke, min, eta atsakabeen artean garratzen garratzenak direala bere, beti izaten da nondi andi zer-edo zer zegaz neke orreek arindu edo gitxitu; infernuan ezta alango gauzarik, ezta apurrik bere. Mundu onetan gaixo andi bategaz dagoanak, minen minez ezin egonik egon arren, beti eukiko dau oe zantzar bat baño ezpada bere non etxun, eta okerren dala bere, lur gogorra gitxienez izango dau; infernukoak eztauko esan dogun su arrigarria baño beste oerik, ez beste lurrik non etzan. Geixo orrek artu leike arnasa apur bat baterik bestera bere burua aldatuaz edo itzuliaz: infernukoak, nora aldatu leike surik eztagoan lekura, alde guztietatik suz ta suz inguratutik badagoz? Geixo orrek euki leikez seme, guraso, senide, edo adiskideren batzuk, zeintzuk bera ikusita biotza tangatxu bat zabalduko deutseen: baia infernukoak ezta izango beste lagunik, ezpada bere borrarri ikaragarri direan demoniñoak, eta beste kondenadu lagunak; zeintzukaz gorroto gogorrean, eta txakur amurratuak legez alkar zatituten baño bizi ezingo dan. Gaixo orrek opa (opetzi, opatu) leikioz Ygkoari bere alak, ta bere neke guztiak bere pekatuen zorren alderako, zeinek emon daroion biotzeko argi eta atsegintasun andia; infernukoak ezta atsegin au bere ezin euki leie, bada gorrotoz begiratuten deutse Ygkoari, eta daukee euren areriorik okerrenentzat. Gaixo orrek, eta nekepean dagoan beste edozeinek baaki bein edo bein, eriotzeagaz baño ezpada bere, yoango yakazala bere gatxak; baia infernukoak eztauko alangorik, dakialako bere zorigalduko izan bearrak Ygkoa dan arte guztian iraun (yarraitu) bearko deusala.

Ementxe bada, su ikaragarritzko onen erdian egongo dira sekulabetik infernuko zorigogorreko madarikatuak, erreten eta erreten, eta alde



guztietatik sua dariela. Goitik ta beetik sua, alboetatik sua, aurretik ta atzetik sua, begietatik sua, belarrietatik sua, ao-surretatik sua, aragietatik sua, azurretatik sua, unetatik sua, eta alde-guztietatik sua. Oi ze arrigarizko min-alak, ze amurruak ikusi bearko dituezan. Ze negarrak, ze uluak, ze txilioak, ze garraxiak entzungo direan zori gogorreko leku atan! Yagiko dira bata besteen kontra, alkarren erru iminten dabeela eurak leku atan egon bearra! Senar-emazteak esango dabe eze, an dagozala eurak alkarren artean ezkondu aurrean eta ezkondu ezkerro egin zituezan pekatu zantarrak gaitik, eta arren bada alango lagunik eguño ezagutu ezpalebee. Umeak gurasoi erru guztia ezarriko (egotziko) deutse, eurakaz naustean oe batean eratzanda erakutsi eutseelako bear etzana egiten; euren aurretik birao eginda, beste ainbeste egiteko oña emo'eutseelako; itxi eutseelako yantzeetatik, fiesteetatik, yolaseetatik, gau-begireetatik, eta Ygkoak dakizantz basterreetatik ibilten: eta ez eutseelako galarazo adiskidetasun okerra, ezkontzea galdu ze zidin atxakiagaz. Gurasoak euren umeen kontra egongo dira txakur eginik, orreek oñ-onean imintearren, eta ondo ikustearren egin zituezan lukurreria eta tratu okerrak gaitik, eta eurai gustu emotearren laketu eutseezan gauzaak gaitik betiko galduak izan bearko dabeelata. Adiskideak adiskidearen erru emongo dau bere galdu bearra; lagunak lagunaren erru; eta guztiak esango dabee, oba eukeela, eta arren sekula yaio ezpallira, O ze birao latsak entzungo direan; ze maldiziño aserreak! Madarikatuak izan ditezala, arren bada, sekula betiko nire aita-amak, nire senar-edo emaztea, nire seme-alabaak, nire adiskide ta lagunak; madarikatua nik artu neban bularra, eta nik yan neban ogia: madarikatua ni bizi izan nintzan etsea, eta bere ganean ni euki ninduan lurra. Madarikatua, arren bada Ygkoa, madarikatuak zeruko santu-santaak, madarikatua Maria-santisimea.

Zer diñozue onetara zeuek, neure biotzeko entzulaak? Baago zeuen artean iñor onako su bero artean, onako bildurgarritzko gar artean egoteko gogorik eta biotzik daukanik? Izango zara zeu, zeure gorputz orreri atsegin emoteko, nai yan-edanean dala, nai aragizko zikinkerietan dala asmu billa zabiltzan ori? Izango zara zeu, emon deusuen atsakabea, egin deusuen iraina, esan deusuen berba astuna parkatu ezinik zabiltzan ori? Izango zara zeu, zeineri barauaren izena entzun orduko, edo penitentsiaren izena aitatu orduko biotza larri larri egiten yatzun? Baia ara baño leen ikusi bear zeunkee ea su atarako onak bazare. Sartu egizue, ea, surtan ez gorputz guztia, ez besoa bere; sartuko dozue bada eskuko atz bat, eta ori bere a-txikinderea (txikia) eta ez luzaro eukiteko bere, abe-mariatxu bat esaten dan artean baño eztozue an eukiko. Ezin dozuela euki esango

dozue. Bada zoroak, eta zoroak baxen zoroagoak, orain emeko surtan, infernukoaren parean, su iskia baño eztan su baten ain asti laburrean eskuko atz bakar bat ezin euki badozue, zelan egongo zare betiko ta betiko buruz sartuta infernuko su gogor ikaragarri atan? Bada ara, kristiñauak, onduten ezipazare, su bildurgarri orretarako zare, eze Ygkoak esanik dauko, gaisto deungaak bertarako direala. Eta bein ara ezkerro an egon bearko dozue Ygkoa Ygko dan arte guztian, sekula arik urten bagarik. Eta, baakizue ze ikaragarria dan infernuko betiko egote ori? Bada nik erakutsiko deusuet agindu deusuedan bigarren zatian.

Betiko! betiko! Ai, ze berba andia, eta asko baño geiago esan gura dabena! Betiko; Ygkoa dan arte guztirako! Eta, nok azaldu zer esan gura daben betiko orrek, eta infernuan betiko egon bearrak? Ez yaioen artean iñok, bear dan legez beintzat. Alanbere lan au neure lepo ganean artu dodan ezkerro, eginbear dot alegina, santu eta asko-yakinen esakune batzukaz, eta eurak dakarden irudi bat edoategaz ea zeuei zerbait adierazo (ulertu eragin) al baneizue. Ea bada, neure entzulaak, prestau zaitez, gauza itzal onen ganean esango deusuedana entzuteko. Da bada betiko izatea, diño san Dionisiok, egunen erreskada luze bat, bein bere, bein bere azkenik izango eztabena. Da, diño aita San Bernardo-k, izate bat iru izateak edo denporaak beragan artuten dituzana: lengoa, oraingoa, eta etorteko dagoana. Da urteen yoan-etorri bat, beti atzera ta aurrera, jira ta bira dabilena, iños bere atzerengo urtera eldu bagarik. Da biribil biribil dagoan gauzea legez, zeineri bein ta bein ta askotan inguru emon arren, oster ta barriro asten yakan emoten, azkenik, edo non gelditu bearrik topetan ez yakala. Alantxe diño santu eta yakitun askok. Baia esakunok baxen obeto adierazoko deuskue zer dan betiko izan bear ori san Buena-ventura-k dakarren irudi batek. Ara bada, entzun. Kontu daigun infernuko batek eun urterik eun urtera bere begietatik negar anpullu (malko) bakar bat botetan dabela, eta anpulluka anpulluka ibai andi bat egitera elduten dala. Zeinbat urte bearko ete litekez orretarako? Ai! Nok taki ori? Ygkoak berak, munduan bestek ez. Bada urteok guztiok, urtea doa, urtea dator, igaroko dira, baita bere bear direanak egiteko urtean beingo negar anpulluakaz mundu zabaleko iturri, erreka, ibai, eta itxaso guztietan dagoan lainbeste (gaña) ur. Au bai dala urte erreskadea! Burua galduten da onen kontua atera gurarik (ezinik).

Onek urte guztiok bada, eta beste ainbeste, eta beste ainbeste, eta milla bider beste ainbeste yoango dira, baia betiko izan bearra, eta betiko infernuan egon bearra orduantxe asiko da, urte bakotx bat yoan ezipailiztan legetxe. Bai, alper da, diño santu andi onek, yoango dira egaztiak



daukeezan lumaak baxen urte geiago; yoango dira gizaseme, emakume, eta abere guztiak dituezan ulleak baxen urte geiago; yoango dira zugetz eta arbola guztiak dituezan orri, lora ta frutu guztiak baxen urte geiago; yoango dira landeetan, zelaietan, eta mendietan dagozan berarrak baxen urte geiago; yoan bearko dabe ibaietan dagozan ondar, eta area garauak baxen urte geiago; yoan bearko dabe pozuetan, iturrietan, erreketan, ibaietan, eta itxasoetan direan ur tantaak baxen bere urte geiago. Baia infernukoak milliño asko urte daukeez oraindo an egiteko, edo obeto esateko an egon bearko dabe iños azkenik izango eztabeen urteetan. Orduan bere ezin esango da: «asko da; onegiño baño eltzean ezta betiko izan bear au; ementxe dauko bere muga-arria, eta onerik aurrera ezta egunik geiago izango». Orduantxe bere asi barria izango da, eta yoan bearko dabe beste ainbeste urte, eta milla asko bider beste ainbeste, bere bizian atzerengo urterik ikusi bagarik.

Auxe guztiau doa mundu onetako nekeetarik eta beste aldeko neketara. Mundu onetan gagozan artean beti daukagu nondi andi, zelan edo alan edo arindu edo yoan egingo yakuzalakoa. Gaixo bagara, baakigu atzera edo aurrera edo osatu edo il egingo gareala; kartzela itzal baten dagoanak baaki nos edo bein andik urtengo dabela, edo libre bere etserako, edo presidioetarako, edo urkamendirako baño ezpada bere, eta agaz bereak egin izango dabela. Baakigu nekeak, atsakabaak, naibagaak, zorigaistoak betikoak eztireala izaten: eta ibili ta ibili edo gitxitu, edo guztiz yoan bearrak direala, eriotzeagaz baño ezpada bere. Baia andiko mundukoak eztira alangoak: gaurkoa da biar, biarkoa etsi, etsikoa etsidamu (etsirimo, etsi gei); aurtengoa datorren urtean, eta arik urte eta urte garreanean, eta sekula guztian. Kontu ikaragarri onek deadar eragiten deutso san Agustin-eri: «O betiko izan bearra! zeugan gogoa imini (parau) ezkeron penitentzia egiten eztabenak edo federik eztauko, edo ez beintzat bururik».

Orain neure kristiñauak, entzunak entzunda, gura dot zeuen artean kontu bat egin dagizuen. Edozeinek daki ze luze egiten yakan gauba gaixo andi bategaz artaga eta larri dagoanari: zelan kontetan dituzan ordu guztiak, zelan dagoan estu bai estu gox-aldeko argia nos elduko yakon. Baia, zer diñot nik gaixoa? zein (nor) da zeuen artean osasun onerik onenean dagoala bere, egongo litzatekeana gau oso baten alderdi baten ganera, ez batera ta ez bestera zirkin bat egin bagarik, oerik bigunenean egonda bere? Bada emengo gaixoak emengo gaubari, ain laster yoaten yakun gaubari, ain luze eresten badeutso, eta osasun-dunak bere geldi geldi alde baten ganera egoteko danean, zer eretxiko deutse infernuan dagozanak ango gau luze betikoari? Ai gau luzea, gau baltza, gau itzala! Gau ikaraga-

rria ollar-yoterik, ez egun-sentirik izango eztabena, eta bere bizian argirik ikusiko eztabena! Ze nekegarria, ze zori-gogorra izango dan argituko eztaben gau ilun atan egon bearra, eta etzan bearra, ez emengo gaixoak legez oe bigun-onean, ezpabere laba gori beroan, suagaz dagoan kario-bian! Ondo itanduten dau Isaias Profeteak: alango lekuan, su ain beroan, betiko gar artean, nor egongo da? nor biziko da? nok iraungo dau? Ezin euki dozue ikatz bizi bat, txingar bat luzaro eskuan erreten deusuelako: zer izango da bada suz eta garrez kanpoti ta barrutik (barruneti), arimaan ta gorputzean inguraturik egotea, eta burdin goria legez goriturik eta su eginik egotea, eta betiko alan egon bearra?

Ain ikaragarria da betiko iraun bear onek infernukoai emoten deus-ten neke ta atsakabea eze, Ygkoa ikusi ezinez osterantzeko guztiak ezteutsee ainbeste emoten; ez onago bere. Ez leen esan deusuedan ango su bildurgarri-gogorrek eta ain gitxi ango kañibet zorrotzak, mallu astunak, azote gogorrek, eta etxurabagako demoniño arrigarriak eurak bere. Eta alan aingeru batek esango baleutse Ygkoaren partez infernuan dagozanai: «ea gazteak, barri onak (dakartzuedaz). Yakin egizue bada eze, itxasoko ur guztia, eta mundu zabaleko ur guztiak iñurri batek urtean beingo ase aldiagaz edan dagizanean, yoango yatzuezala min eta neke orreek». One-lan bada berba egingo baleutse, argituko litxake biotza; ez litxake arik aurrera leengo nekearen erdia egingo. Eta argitu bere bear, zegaitik eze munduko ur guztiak itxasoa euren artean dala, iñurri batek edateko bear direan urteak geldi geldi yoango dira bein edo bein: eze iñurriak gitxi edana gaitik, beti zer-edo-zer edaten dau; baia infernukoan neke-minak oneek guztiok yoanda bere, eztira yoango: orduan barrien barri asiko dira urte bakar bat igaro ezpailtzen legetxe. Ai ene entzula maiteak, gogoari emoten deusadan bakotxean zer izango ete dan neke aekgaz, eta nos gel-dituko ete direan, eta azkenik ezin ikusi deutseedanean, ez ondorik idoro, ez akaberarik topau (aurkitu), konorte guztia galduten dot, eta nekez dakit non nagoan bere. Zegaitik eze, zelan Ygkoak eztaben izango ez azkenik, ta ez amairik, alantxe neke gogor orreek bere izango eztabe amairik ez azkenik eta iraun bearko dabe Ygkoak dirauan arte guztian.

Zer esango dabe zorigogorreko galdu orreek euren buruak alan ikusita? Zer esango dabe? Esan bearko dau orretariko bakotxak: «*gustan gustavi... paululum mellis, et ecce ego morior*». Ai nire zori gaistokoa! Ai nire adugogorrekoa! Munduko gustu arin zitel batzuk gaitik etorri naz leku itzal ikaragarri onetara. Umekeria batzuk gaitik galdu dot betiko zerua, eta emon deusat neure buruari betiko eriotza infernuko au: «*gustans gustavi... paululum mellis*». Eztagoala ya onezkero erremediorik? Eztagoala emetik



urteterik? Emen egon bearko dodala ikaragarritzko neke, gogortada eta alen artean betiko, bai betiko, eta milla bider betiko? Bein bere, bein bere eztabeela azkenik ikusiko nire min eskerga oneek? «*Et ecce ego morior*». Ai, eta zelan nire bizia etzan izan axe tanga (tindi) bat baño! Oi, zelan ni yaio ni il, guztia bat izantzan! Ai, ta zelan munduko ondasun, atsegintasun eta poz-zoro guztiak eztirean izan utsa ta ezerezkeria baxen! «*Paululum mellis*!». Non neunkan nik burua? Non neunkan zenzuna? Yakinik onango neke betikoak egozala, nenbilen ni arrapaka legez, beingoan yoan bear yatazan gozoen atzean? «*Paululum mellis*?». Zer daukat nik orain ain zoro nerabil-den aragiaren atsegin zikinak-gaz? Zer iñoen diru ta ondasun, lege etzan bidetik nireganatuta, nireak balirean legez eukiakgaz? Zer ain gozo egiten yatan eta ainbeste bider katutu eragin eustan ardaoagaz? Zer munduko poz-zoro eta atsegintasun ero burua zoratu eragin bear izan eusteenakaz? «*Paululum mellis*?». Ai! Ez besterik ezpabere toki ikaragarritzko onetara etorri bearra, «*et ecce ego morior*». Baita, nos urtengo dot onerik? Iños bere ez. Nos yoango yataz neke-min oneek? Bein bere ez. Nos gitxienez (edolan bere) arindu edo gitxituko yataz? sekula bere ez. «*Et ecce ego morior*». Emen egon bearko dodala itxasoak dituzan ur tantaak lainbeste (gaña, goara) millinoe urte yoanda bere? Bai. Ai ene! Nosko yoango ete dira urte orreek guztiok? Baia, ai! ta ai! gero bere ibili ta ibili yoango dira, baia nik zorigogorreko galdu onek emen egon bearko dot, egun bakar bat yoan ezpailitzan legetxe. «*Et ecce ego morior*». Ernegauko dabe, amurratuko dira, eta euren burua apurtu gurako dabe: eriotzea etorri dakien gurako dabe, baia eriotzarik eurentzat ezta izango: an egon bearko dabe beti ilten, eta bein bere il bagarik; beti amaituten, eta bein bere azkenik ikusi bagarik.

Neure biotzeko entzula maiteak, egiak ete dira oneek? Bai egiak dira, eta egiak bere egia andiak eta zoliak. Eta zeuek egia oneek, sinistuten ete dozuez? Ez, ezkagoz geu orain oneek sinistuten eztirean errian; eta iñok sinistu gura ezpadituz, or konpon dabela, berak ikusiko dau beste aldean iya sinistutea gauza eztabenean. Bada, zelan da au? Oneek egiak izan, eta zeuek alan sinistu, eta, zelan bizi zare bizi zareen legez? Zelan ain bildur bagarik pekatu egiten dozue? Ezer oker baiatortzue: biraoa, demoniñoa, añaena, besterik ez dakizue. Seigarrenekoan beti bizi bear dozue begieta-giño ondaturik; atara yoten eztaben berbeak eztauko gatzik, zirri ta mirri alkarregaz ezpazagoze neska-mutilak eta beste asko, motz zagozela deritxazue, okeluetan (zokondoetan) zer igaroten dan Ygkoak daki. Tratu oker bat egiteko iñoren bearrik eztaukazue, irabazia badago eze. Iñoen bere askok ixilik egiten bakizue. Eta, infernua sinistu? Eta betiko infernua dagoala sinistu? Antxina fedebagako yentilak esan eben kristiñauak gaitik

eze, infernua sinistu ta, deungaak bazirean, zentzunen apurrik ez ebeela; eta zeuen arteko geienak gaitik beste orrenbeste esan bearko dala nago ni, zeuen bizi-moduari begiratuta.

Zer da au, kristiñauak? Ala uste al dozue berakauteko nekeren batzuk direala infernuko nekeak? Baia, ai! esaten eban antxina san Jeronimo-k, eztabiltz aderde, min ikaragarriak emoten direan lekuan. Ai, kristiñauak, ainbeste bildur emon bear leuskegu infernu itzal orrek eze, bagenki bat bakar bakarrik baño arako eztala, orregaitik beti bildurrez ikara bizi bear gintekez (genduke), ea bat ori geu izango gareanez. Zer egin bear dogu bada, yakinik ez bat, ez bi ezeze, ezpada asko ta asko eta geienak infernurako izango direala? Baakutsue zeinbat lagun batu izan zareen elexa onetan gaurko sermoia entzuteko? Eta, zeuen arteko zeinbat deritxazue infernurako izango zareela? Itaune au berau egiten eutsen san Yoan Krisostomo-k Antiokia-arrai. Zeinbat deritxazue, esaten eutsen, zeinbat izango direala erri onetan zerurako izango direanak? Antiokia-k izango zituzan aldi atan eun milla kristiñau beerenetik. Eta, zer deretxazue (uste dozue) erantzun ebala santu asko-yakinak? Biotza ausi bagarik ezin entzun leitekeana. «Ozta ozta izango dira larrienetik (gorenetik, garaenetik) bere eun, eta orreek bere eztakit, eztakit». Nekez sinistuten eban santu andi onek erri atako milla kristiñaurik bat salbaduko zala. Eta, uste dozue berba bildurgarri oneek esan zituzala esateagaitik, edo bildur aldi bat emotea gaitik beste bagarik? Ez beintzat. Santuak berak dirautse zegaitik alan sinistuten daben. Ume deungaro aziak, guraso ardura bagakoak, gauz'onak egiteko, eta txarrak eragozteko egarri gitxi, eta pekatuetarako nasaitasun andia ekusazalako. Eta, zeuen artean ikusten da alango gauzarik? Ai! Arren bada ezpailitz ikusiko, baia lar bere lar ikusten da.

Eta onetatik, zeinbat izango dira bada zeuen artean infernurako izango eztireanak? Izango da bat, izango dira bi? (Eztot) Enaz ni orretan ez sartu ta ez urten gura. Baia antxinako esakerea da eta egia, zelan bizi alan il egiten dala. Zelan bizi zare bada geienak? Ondo ilteko moduan? Ai! Ni bildur naz geienak pekatu mortalean bizi zareela. Eztot ondo esan; baakit nik, eta baakat nondik yakin bere pekatuan bizi oi zareela, eta orregaitik bildur naz geienak infernurako izango zareela. Kristiñauak, arin arinka, eta esan daigun lauoinka goaz beste alderako, laster egin bear dogu etse-aldatzea, eta sartu bear dogu geure betiko etsean. Nos edo bein bada geure buruari begiratu daiogun. Urte yoanak, yoan; egun galduak, galdu; baia eztozue oraindo berandurik. Ea bada len bait leen Ygko-agana biur-tu bear dozue bizitza barri baten bitartez. Orretarako ezpekizue bein bere burutik kendu (yoan) betiko infernu au, eta ikusiko dozue ze ona dan



pekaturako gogo guztia galarazoteko. Ara zer yazo yakon urrengo exenpluko gizonari.

Beda izen andiko gizon yakitun eta santuak esaten dau eze, Nortunbria aldean iltzala Drikelmo eritxon gizon bat, eta gero barriro biztu zala mundu onetako argitara. Oneri ilik egoan artean erakutsi eutsan Ygkoak infernu gogorra, eta ango suak, eta beste an ikusi bearreko guztiak. Berak esan eroian zer eta zelango bildurgarrizko (gauza) itzalak ikusi bear izan zituzan, baia berak esan ezta (arren) bere, ondo ta ondo agiri eban bere bizi-moduan, nonbaiste bere gogortasun ezin ikaragarriagoren batzuk ikusi bear izan zituzala, ze edozeineri arritu eragin leikion berak bere buruari emoten eutsan bizitza, ezinda geiagoan gogorrak. Sartu zan konbentu baten, eta an guztizko bere barau latzak egin eroazan; lo lur gogor-raren ganean; zilizio ikaragarriak soñean erabiltzazan; garrian, barriz, erabilen burdiñazko (burruñezko) katea orratz txikiz alde guztietatik bete beterik egoana. Bere burua azote krubelez apurtu bear eban, odol beroa ugari gorputz guztiti eriola. Eta iñok esaten beeutsan ea zegaiti orren gogor artuten eban bere burua, erantzun eroian: «*Acerbiora ego vidi*», oneek baxen gauza gogorragoak ikusita daukadaz nik beste aldean. Neguaren biotz biotzean konbentuaren parean leiturik eta engalasaturik egon yoian errekan, leikarraldoa alde bateti zatitu, eta antxe sartu oi zan abitu ta guzti idunagiño (samaraiño): eta andik urten da bere, ez eban soñekorik aldatu bearko. Eta iñok ezer esateetsanean, erantzun oi eban: «*Frigidiora ego vidi*», oneek baxen otz gordinagoak andiko aldean ikusita nago ni. Zar-tzar eginda bere ez eutsan bere buruari bapere bakerik emon.

Neure entzulaak, ezta Drikelmo bakarrik andiko mundurako; geu bere bagara; eta bizitza ona ezpadaroagu, ak arimako begiakaz baño ikusi ez ebana, geuk geure buruan ikusi bearko dogu. Zeri begira zagoze bada? Oneek eztira atzera begira egoteko gauzaak. Ea bada arin, goazan guztiok Yesukristoren oñetara, geure pekatuen parkaziñoa eskatutera. Yesus laz-tana! Yesus maitea! Ni infernura yoan nintekeala? Beti betiko galdu nin-tekeala? betiko ta betiko zeure arpegi ederra ikusi bagarik, demoniño (ikaragarrien) okerren artean neure burua ikusi neiala? Zer izango da nigaz, ori yazoten baiat? Ai nire zori-gaistokoa ori ikusteko banaz! Oba neun-kean orretarako bein bere ez yaio (ezpanintz). Oneek gogora etorteak, Yauna, larri larri egin deust neure biotza. Baia ezta ori bakarrik niri negar eragin bear deustan gauzea; eze nik baakit eze, nire pekatuak bear ebeen saria emon izan bazeust, antxiñarik an egon bear neunkeala; eta neure biotzeko esker andiagaz autortu bear dot, zeure ontasunari zor deustada-la an ezpanago. O neure Yesus gozoa! O neure biotza! Zer ikusi zenduan

nigan, beste askori egin ez zeuntsan mesedea niri egiteko? Eta orregaitik bere, ez neure onari begiraturik, ez zeuri zor deustudan esker onari begiraturik, ezteutsat pekatu egiteari itxiko? Beti ebili bearko dot gaur onduko, biar onduko? Ez Yauna, ez: emen, oraintxe geiago luzatu bagarik artuten dot gogo egin egina ez geiago (aurrera) pekatu egiteko, eta biziera barri bat egiteko. Leen egina bere ondo damu dot, eta parka eskeka nago-tzu. Biztu egizu, arren, Yauna neure biotz il au, biotz biotzerik parkaziñoa eskatuteko esaten deustudala orretarako neure Yesukristo Yauna.



5. PURGATORIOKO ARIMEEN LENENGO SERMOIA

(B, 177-181.or.)

Audierunt quia ingemisco ego,
et non est qui consoletur me.
Thren. c.1.v.21.

1. Jerusalemgo uriak bere estutasun andien artean euki eban nekerik andiena zan bere burua bakarrik ikustea. Aberats egoanean Dabid eta Salomon-en egunetan, guztiak gura euden adiskidetzat euki. Erregeak emoitzen eutsezan doe andiak: uri ta erriak ekarten eutsen ondasun andiak: erreinuak gura ebeen bere laguntasuna, eta guztiak dei egiten eutsen ao betean zorioneko eta bedekateak: baia arako bere arerioen menpean ikusi zanean eta guztia banatu pobre, eta negargarritzko premiña estuturik egoanean etzan aurkitu nok poztu egian: arako leen guzurrezko adiskide zireanak, burla eta barre egite eutsen, eta lagunik maiteenak zireala esaten ebeenak, areriorik gogorren biurtu yakozan. Leenago alabetan ebeenak, orain zorrotzuten dituez euren miñak bere kontra, eta leen anditasun, edertasun eta ondasunakaz poztuten zireanak, gero atsegin artuten dabe iruli, banatu eta erroerik dakuselako. Eskerdeunga gogor onexek minik andiena emoitzen eutsen, eta alan ziñoan, esan bere Jeremias Profeteak Jerusalem-en izenean: Dei egin neutsen adiskideai; baia ez eusten iñok yaramonik egiten. *Vocavi amicos meos et ipsi deceperunt me.* Enzun zituezan nire negarrak, baia ez ninduan iñok pere poztu egin gura izan. *Audierunt*, etc. Ain zan andia adiskide onen gogortasunak emoten eutsan nekea ze, eskatuten eutsan Jaunari arren bada ikusi egiala gogortasun ikaragarri au, eta emon eioela merezidu euden kastigua, eta diño alantxe egingo dabela Jaunak. *Reddes, eis vicem, Domine, secundum opera manuum suarum.* Jerusalemgo uriaren bakartasunean daukagu, N^e. E^a. M^k, Purgatorioan dagozan arima bakar ta aztuaren irudi benetako bat. Leenago maite ebeenak ezteutse yaramonik egiten, eta eztaude aurkituten euren adiskiderik andienen artean bere gomuta danik. A zelan esan leikeen Jerusalem-ek baño bere errazoe andiagoagaz: «deadar egiten dot su gar bizi onen erditik, eta eztago enzun gura nabenik. *Vocavi.* Enzun dituez nire negar, zizpuru eta erre-guak; baia eztago errukirik euki gura deustanik. *Audierunt*, etc. Baia bildur

izan daitekez gizon biotz gogorreko oneek beste onen beste yazo zedakien. Etorriko da egunen bat, zeinetan aurkituko direan ni nagoan moduan, eta orduan neurtuko dituez, ni eurak neurtuten naben neurriagaz. Auxe eskatuten deutsee arima areek antxina Jeremias-ek Jerusalem-en izenean burla ta barre egiten eutsenen kontra eskatuten eutsana legez. *Reddes eis vicem, Domine, secundum opera manuum suarum.* Aror non daukazuene neure sermoe-gei edo asuntua zati bitan: lelengoan esango deusuet ze gogortasun ikaragarria dan Purgatorioko arimaak aitzurik eukitea; eta bigarreanean zeinbat aserratuten daben gogortasun onek Jaungoikoa.

2. Trentoko Batzaar edo konzilioak irakasten deusku J.K^o. gure Jau-nak emon eutsezala Elexa Santeari eskubidea parkamenak emoteko ta konzeditako. Parkamena edo induljenzia ezta beste gauzarik ezipabere pekatu egiten dogun bakotxean, gure ganean artuten dogun zorra pagetea. Onetarako yakin bear dogu ze Elexa ama santeak daukala ondasun aberats edo andi bat: ondasun au da, J.K^o., bere ama guztiz santa, eta ganeko Santu-Santeen merezimentu ta irabaziak. Orain bada esatea Parkamena dagoala da adietan emoitea Aita Santuak edo Obispo Jaunak idigi daudeela ondasun au, bertantxe artu daigun zegaz kitutu deusagun Jaungoikoari zorra. Ara obeto ulertu dagizuen irudintxu bat. Zor bazeutsez edonori eun bat dukat, eta ez eukirik zegaz kitu egin, irigiko baleutsue gizon aberats batek bere diru edo ondasun guztiak dirautsuela artu dagizuela, eta pagadu zeuen zorra, erraz erraz pagadu zinaike zeuena izan ez arren: bada auxe berau egin ginaike Aita Santuak, Elexako ondasunak parkamenen bitartekoz idigiten deuskuzanean berak aginduten dabena egin giñai. Parkamenak ez bakarrik irabazi ginaikez guretzako, baita bere purgatorioko arimeentzako: baia ez edozein parkamen, ezipada eskubide onegaz autortu edo konzeditan direanak. Asko eta andiak dira arimak gaiti irabazi leitekezanak: Aita-gurea, eta Abe-maria bat errazaduagaz gauze arimeen kanpaea yoten danean irapazten dira induljenziak: auxe berau eginik norbait il eta kanpaea enzuten danean bardin irabazten diraz. Beste parkamen guztiz asko irabazi leitekez purgatorioko arimeentzako. Orregaitik txito da oitura ta ekandu ona Elexara sartzen danean Gure Jau-naren estaziñoa esan, edo altarak bisitetea edo ikustea. Ara emen ze gauza erraza dan, Ne.Kk., arimaak Purgatoriorik ateratea, eta alan-da guzti bere auxe puska au bere nekea egiteko. Askok ta askok gura dabe meza aurrean Elexako ateetan barriketan egon barrura sartu eta estaziño bat arimak gaiti erreza baño, mezako denporea bere luze egiten yakela. Kk., ez gaitzezan ain gogorrak izan arimakaz: egin daigun alegina betiko atsegina artu



daïen, ze aintxe eukiko dituguz gure bitarteko Jaunari erregututeko, biraldu deigula bere grazia. Abe-Maria.

Lelengo zatia

3. Ezin aurkitu leiteke mundu onetan gogortasun andiagorik, nekez beterik dagoanari gatx egitea baño, S. Juan Krisostomo-k diñoaneti, ze au egiten dabenen krueltasuna ez bakarrik elduten da sensunbako animalien gogortasunera, baia andiagoea bere ba abererik uzuenena baño; bada ezibakoena izan arren, beti maitetu edo ametan ditu bere lagun eta irudikoa. Baia atsakabez beterik dagoanari min egiten deutsanak ezta laztan bere izaite edo naturalezea eta zeinbat eta andiagoea dan iragoten dan lana, ainbat eta gogorragea da ari gatx egiten deutsanen biotza. Ain gogor ere-txi eutsan Dabid Erregeari modu erruki bagako onek ze, kastigurik itsaltsu eta ikaragarriena eskatuten eutsan Jaunari gogortasun au egiten ebeenen kontra. Ezarri egiozu, Jauna, zirautsen, gatxa gatzaren ganean, eta ez egizu beren errukirik euki: ez egizu onelangoa ifini justuen artean; ez egizu eskribidu salbaziñoeko liburuan, bada zu kastigetan dozunen kontra yaigiten dira, eta neureen mineen ganean egiten deustez zauriak. Ain kastigu andia merezidu beeben Dabiden kontra egozanak, nos erruki geiagoe euki bear ebeen, eta ain gogor eskatuten beutsan Jaungoikoari gizon erruki baga oneen kastigua, zer deritxazue mereziko eztabela purgatorioko arimeen dei, negar eta zizpuruak entzun gura eztituzanak? bada arima aek igaroten dituezan neke ala eta tormentuak, ez bakarrik dira Dabid Erregek igaroiten zituzanak baño andiagoeak, baita mundu onetan asmau (eta pensau) ta gogoeak emon al leikezanak baxen bere andiagoeak, bada S. Agustin-ek diñoandi, pena ta neke andiagoea da purgatorioan puntutxu baten egotea mundu onetako neke eta min guztiak igaroea baño.

4. Ze gogortasun, ze krueldade andiagorik su ikaragarritzko arterik deiez eta deadarrez dagoan arimeari ez yaramonik egitea baño? Esan egidazue, Ne.Kk., ikusiko bazendue gizon bat karobi, laba edo sutegi isio baten yausirik deadarrez an dagoan lagun bateri, eta onek eskuetan emonik atera al daiala ezteutsala yaramonik egin gura, zer esango zeunkee? Etzeunke esango arria baño biotz gogorragea daukala? Kruelago dala abererik uzuenena baño bere? Yausten da bada arima tristeza purgatorioko su ikaragarrien erdira, deadarrez erregututen deusku arren atera deigula leku itsaltsu atati; eta izanik guri ain erraz eskari au, ezteutsagu kausiñoirik

egin gura. Gogortasun neurribagea benetan! krueldade parebagea! Deadar egiten dau lau-oñekoak, diño S. Agustinek, eta beste lagun guztiak irrinza egiten dabe: yausten da troka, edo leza baten idi, bei, zaldi, edo mandoren bat, eta guztiak doaz bertatik andik ateraten. Yausten da Jaungoikoaren irudira eginiko arimea purgatorioko su ikaragarritzkoen erdira, deadar egiten dau, erregututen dau negarretan urturik, eta eztago nok enzun dagian: ezteutso iñok eskua emon gura, leza itzaltsu atatik urteiteko. Begira, gizon sensunbakoea, deiez yagotzun ori bear bada zeure aita da, arako izaitea emon eutsun aita, arako zugaitik ainbeste emon eban aita, arako zuri yateko, yasteko, bizi izaiteko, eta beste bear zenduan guztia irabazteko nekepean bizi izan zan aita, bere guraari guztia zu ondo ikustea izan da eta ameneko zuri eutsun amodio larregiak dauko erre eta kiskilduten. Orrako presondegi edo kartzela ilun orretatik deiez yagotzun zure ama, da benturaz arako izaitea emon eutsun ama, bederatzi illabeteen bere sabelean erabili zenduzana, eta zu mundura etorteko ainbat min eta ala igaro zituzana; berak azi zenduzan bere ugatz gozoagaz. Zeinbat gau galduko zituzan zu zainduterren? Zeinbat bider itxi eban bere aoko kopaua zuri yaten emoterren? Eta alan da guzti ezteutsazu ori baxen yaramon geiagoe egingo? Eztituzuz enzun gurako bere negar zizpuru, eta zotin tristeak? Bada benetan diñot animaliarik sensunbakoenak baño bere biotz astunagoa daukazula, bada abererik ezibageenak ezagututen dituz bere gurasoak, yarraituten deutse eta ezagututen dabe euren moduan deuten esker ona. Ilten dozuezala zeuen gurasoak diño Espiritu Santuak.

5. Obeto ezagututeko gogortasun onen aserrea ta anditasun eskergea eztaukagu begiratu baño zer eskatuten dabeen arima oneek. Ezteutsue eskatuten itxiteko zuen etse, seme, alaba, senar edo emaztea, ez galdu dagizuezala diru, ondasun, edo haziendak; ez ibili zaitezala elexarik-elexa, ez egin dagizuezala penitencia, barau, eta gaubelaak; gitxiagogaz kontentetan dira; bakarrik eskatuten deutsue atera dagiozuela meza bat, edo ezin badozue, gitxienez enzun dagizuela, erreza du dagizuela estaziñoen bat, bisitadu dagizuezala altarak, konfesadu eta komulgadu zaiteezala bere ize-nean, irabazi deiozuela induljenzia bat edo beste, eta onelango beste gauza erraz batzuk. Au guzti au egin zinaike neke andi bagarik, eta zeure bear ta zereginak itxi bagarik, diru eta ondasunak galdu bagarik, alperrik zagozen artean, edo meza aurrean barriketan zagozen artean. Eta, au puskatxu au bere eztozue egin gurako zuen gurasoak gaitik? Zer egingo zeunkee, zer esango zeunkee eskatuko baleutsue egiteko eurak gaitik eurak zuek gaitik egin dabeen lainbeste, galdu dagizuezala gau osoak eurak zuek gaitik galdu dituezana legez: egon zaitezala goxerik arratsera bearrean



eurak zuek gaitik egon direana legez, emon daizuezala zeuen diru eta ondasunak eurak gaitik gastau dituezana legez? Eta alanbere, eztozue egingo auxe puska au bere zuekgaitik ainbeste egin dabeenak gaitik? Eztozue enzun gurako izaitea emon eutsuenen negar zizpuru eta erre-guak? Bada ara, zuen zori gogorrekoa etorriko da egunen bat, zeinetan aurkituko zareen orain arek dagozan moduan, eta eztozue orduan eukiko nok yaramonik egin (daizuen), ze kastigu onexegaz zematuten dituz Jaungoikoak besteen errukirik eztaukeenak, eta obeto ezagutu dagizuen egia au, enzuzue zeinbat aserratuten daben Jaungoikoa gogortasun onek.

Bigarren zatia

6. Sarri yagoku esaten Espiritu Santua yustuak dagozala eskatuten Jaunari kastigadu dagizala eurekaz gogor izan direanak, edo euren erruki izan eztireanak, eurak premiña eta nekepean egozanean. Nor arrituko ezta, Dabid Erregeak Jaunari beragaz esker deungako izan direanentzat eskatuten deusnan kastigu edo benganzeagaz? (Sal. 108). Imini begi, Jauna, dirautso, onen nagusi pekataria eta Diabrua euki daiala bere esko-ako alboti, judizioan kondenadurik urten daiala, eta pekatu sortu dakiola bere eskaria, edo oraziñoa; egun gitxi bizi deila, bere semeak ume zurtz geratu deitezala, eta alargun bere emazte, aterik ate eskean ibili deitezala bere semeak, eta bota daiezala euren etseetatik: eztaiala aurkitu lagundu gura deusnanik, eta eztaiala iñok pere errukirik euki, eztaiala iñok bere bere izena gomuta, eta batu deitezala bere kontra guraso eta aasaben pekatu guztiak. Eta zegaitik, deritxazue, eskatuten ebala Dabidek benganza eta kastigu ain gogorra eta itzaltsu au bere arerioentzako? A, Ne. Kk.! Bere errukirik euki gura izan ez ebeelako *pro eo quod non est recordatus facere misericordiam*. Dabid-ek beronek eskatuten eutsan Jaunari beste leku baten, arren bada enzun egizala Santuen deadarrak, zeintzuk eskatuten eutsen biortuteko zazpi bider geiago arerioak egin eutsezan gatzak. S. Juan Ebanjelisteak dirausku, ikusi zituzala altarapean arimak, erregututen Jaunari, bengadu egiala euren odola. Eta deritxazue ezabela arima purgatoriokoak zure eurak ganako gogortasunaren kastigua eskatuko? Eskatuko daude, sarri eskatu dabena legez: deadar egingo dabe euren seme, eta oñordekoen kontra, Abel-en odolak Kainen kontra, eta Nabotenak Akaben kontra baño bere sendoago ta zoliago.

7. Eta, uste dozue eztituzala enzungo Jaungoikoak deadar oneek, edo eztituzala bengadu gurako eurai egiten yakazan gatzak? Enzuzue zer diñoan Moises-ek: «Jaungoikoak bengauko dau bere serbitzalleen odola, eta galduko dituz euren arerioak». Jeuskristok berak arako juez alargun pobre bateri justizia egin eutsanen irudian adierazoten deusku ze laster enzuten dituzan bere serbitzalleen eta arima santeen negarrak, eta euren arerioen kontra egiten dituezan eskabideak. Deritxazue eztituzala Jaungoikoak kastigaduko bere adiskideai egiten yakazan gatzak? Bene-benetan dirautsuet laster egingo dabela benganzea. *Dico vobis quod cito faciet vindictam illorum*. Eztau luzatuko zuen kastigua; laster kastigaduko dau arimak ganako daukezuen astuntasun eta gogortasuna, zeinegaz eztozuen egin gura zeuen guraso, aide eta ongillaak euren testamentuetan agindu eutsue-na, *cito*, etc. Laster galduko dozue zeuen ondasunak, erreko yatzue etseak, kenduko deusue haziendea, ostuko deusue ganaduak, edo etorriko yatzue beste kalteren batzuk, *cito*, etc. Laster sartuko da zuen etsean gatzak, galduko dozue osasuna, ilgo yatzue seme-alabak, senarra, edo emaztea, eta geratuko zaree pobre, kaden eta erkinik. *Cito*, etc. Laster ikusiko dozue labore faltea, gosea, premiña, nekea ta tristezea, *cito*, etc. Eta, zegaitik? zeuen gurasoak aitzu dozuezalako, eurak itxi eutsuezan obligaziñoak bete gura eztozuezalako.

8. Zeinbat bider dakusgu beste onenbeste? Itxiten ditu gizon batek ondasun andiak, errepartetan dituez semeak euren artean, abietan dira gizon andi eta aberats izaten: apainduten dituez etxeak, yasten soñeko ederrakaz, mai ugaria, otseñak naiko beste, guztiak dagoz eurai begira, eta beingo beingoan, nondik nora eztakiela, gastetan dira ondasunak, aurkituten dira guztiz pobre, zer yan eztaukela, altsiz yanzirik, eta iñok yaramonik egiten ezteusela. Artzen dau beste batek hazienda zabal eta aberatz bat gurasoakganik, eta urte gitxi barru asten da auzi bat, erretan dira etseak, egiten dira zorrak, saldu bear dira soloak, eta orra non eztaukan zer yan, ez zer yanzi. Daukaz beste batek gurasoak itxiriko ondasun eta hazienda andiak, etse miragarriak, yanari gozoak, oe bigunak, naiko beste kriadu, eta berba baten esateko, dauko gizon batek gura al leikean guztia. Baia zer deutso? Beti dago geixorik, yanariak gatz egiten deutso, ezin urten dau etxetik, eztauko ezetan pozik, lorik pere ezin egin dau, beti dago argal. Itanduko bagendu nondik datoza gatz guzti onek? Batzuk esango leuke ardurarik ez etxeko gobernurik eztaukelako: beste batzuk desfortunea dala: beste batzuk dala geixokia, eta guztiak gaitik (guztien-tzako) aurkitu gurako leukee atxakiaren bat nori errua ezarri. Baia sarri eta sarri neke onek biralдутen dituz Jaungoikoak, purgatorioko arimak aztu-



rik dagozalako: euren testamentuak kunplidu gura eztirealako, agindu zituezan mezaak, limosnak, edo beste obra onak atera gura eztirealako. Askok dauke maldiziñoa ilen ondasunak osturik daukezalako S. Bizente Ferre-ek diñoaneti: *ideo multi habent maledictionem, quia detinent bona mortuorum*. Eta uxala mundu onetan geratuko balitz gizon biotzbako onen kastigua, eta gordeko ezpalitz beste mundura beti betiko irauteko, baia bildur izan daitekez infernuetan yausi ezteitezan, eta ango su ikaragarrien artean negar egin eztaien ilakganako euki ebeen gogortasuna, bada diño Espiritu Santuak; biotz gogorra deungaro aurkituko dala azkenengo egunean. *Cor durum male habebit in novissimo*.

9. Bildurrez beterik euki bear gaituz, Ne. Kk., sentenzia onek, bada atserengo egunean deungaro urteiten badogu betiko galduak izango gara, eta pelleburu onetan dagoz arima purgatoriokoakaz gogor dana, bada bere kontra deadar egingo dabe, eta Jaunak enzungo dituz eta bengauko dituz, eta eztago mundu onetan ez bestean gauza itsaltzuagorik Jaungoiko biziaren eskuetan yaustea baño, S. Paulo Apk. diñoandi: *horrendum est incidere in manus Dei viventis*. Alegina egin daigun, Ne. Kk., ordu ikaragarri atan sentenzia on bat (euki) daigun arima purgatoriokoakaz errukiorrak izanagaz, bada dirausku Jaunak bedeinkatuak direala errukiorrak, bada eurak aurkituko dabela errukia. Auxe izango da modurik onena, gero bere eurakaz gu bat eginik, Jauna beti beti alabetako zeruko atsegin artean. Amen.

6. PURGATORIOKO ARIMEEN GANEKO BIGARREN SERMOIA

(B, 181-185. or.)

Dum tempus habemus operemur bonum
ad omnes, maxime autem ad domesticos fidei.
Galat. c.6.v.10

1. Bakotxak mundu onetan ereiten dabena artuko dau bestean, dirautse S. Paulo Apk. Galazia-tarrai, aragiaren guraari zitalak ereiten dituzanak aragiaren usteltasuna artuko dau: baia egikera edo obra onen azia ereiten dabena betiko bizitzearen frutu gozoa batuko dau. Ez gaitez an alperak izan bear on onetan, bada bere denporan artuko dogu saria. Ea bada, denporea, edo astia daukagun artean egin deiegun on guztia gizonai. *Ergo dum tempus habemus operemur bonum ad omnes* eta guztiz bere geugaz fede edo siniskera bat daukenai. *Maxime autem ad domesticos fidei*. Berba oneetan irakazten deusku Apostoluak, bizitza onek dirauan artean batu bear doguzala arimako ondasunak, eta irabazteko modurik onena dala guztiakaz karidadea eukitea, eta zeinbat eta neketsu, geixo eta pobreago dan bat, ainbat eta geiago merezietan dala onelangoai egiten yakan mesedeagaz. Irudi bategaz adierazo gura deusku. Gorputzeko alde guztiak, diño, dauke bat bestean ardura andi bat, eta oneetatik bat gexotuten bada, guztiak nekatuten dira, eta zeinbat eta min andiagoa daukan, ainbat eta neke geiago artuten dabe besteak. Auxe berau egin bear dogu bada guk bere. Kristiñau guztiok gara gorputz bat, buru bat daukagu bakarrik zein dan Jesukristo, guztiok gara bata bestean parte edo alde, eta orregaitik euki bear dogu bata bestean ardura. Zeinbat eta andiagoak direan euren min eta nekeak, ainbat eta erruki geiago euki bear deutseegu, eta alegin geiago egin bear dogu gatx onen erremedietako. Orain bada, En. Kk., ze gorputz onen alde edo partek dauko min, neke eta ala andiagorik Purgatorioko arimaak baño, eta orregaitik nok eurak baño erruki geiago emon bear deuskue? Eta ze modutan arimako ondasunak obeto irabazi ginaikez, euren onerako al daigun on guztia eginagaz baxen?

2. Ez gaitez an gogorak izan arima nekez aseriko areekaz, ezteiguzan zarratu geure belarriak euren deiai. Astia daukagun artean egin daigun al dogun on guztia geugaz fede bat daukeen arima oneekaz, aurkitu daigun gero eriotza ostein: bada orduan ezta merezietako denporea izan-



go, ezpada ondo edo deungaro eginen saria artuteko, eta Apostoluak diñoana legez, ezin orduan erein leiteke, eta alan emetik ezpadarogu, goseak ilik egongo gara. Ez daigun uste emen geraten direanak bialduko deuskuezala an bear doguna, geuk orain an dagozanak gaitik ezer egin gura ezpadogu, ze Abdiak Igarla edo Profeteak diñoandi, zeuk besteak trateetan dozuzan moduan, trataduko zaituez zeu bere. Gogorra bazara eurakaz, gogorrek izango dira zugaz zeure semeak, aideak, eta adiskideak. Alperrik itxiko dozuz ondasun andiak, alperrik aginduko dozu zure azkenengo orduan atera deizuezala mezaak eta beste Elexa santeak ifinirik daukazan oraziñoak. Alperrik erregutuko deutseezu seme, oñordeko eta adiskideai gomuta zaiezala, alegin guzti oneek zteutsue arean balioko. Auxa da, Ne. Ea. Mk., zeuen begien aurrean imini gura neuskezuena gaurko gox onetan biztu zaitez an al daizuen guztia egitera arimeen onerako. Eta alan esango deusuet lenengo bizi zaren artean obra onak egin bear dozuezala, itxi bagarik bestek egin dagizan zuek gaitik il ezker. Esango deusuet gero egikera edo obra onen artean geien balioko deusua dala Purgatorioko arimaak gaitik egitea.

3. Fedeko artikulua da Purgatorioa dagoana: zein dan leku bat non dagozan arimak garbituten mundu onetatik eroan zituezan orban edo mantxaak eta pekatuen bitartez egin zituezan zorrak (kitututen), bada ezin sartu leiteke zeruan txito garbi eztagoan gauzarik, eta orregaitik mundu onetatik orbandurik, ta loiturik urteiten daben arimea, aintxe garbitu bear da, zeruan sartuko bada. Guztiz dira gogor eta ikaragarriak, an iragoten direan min eta tormentuak. Dira, barriz, modu bitakoak. Batari deritxo kaltezkua. Besteari sensun edo sentiduzkoa. Kaltezkua edo dañuzkoa da zeru, eta Jaungoikoaren arpegirik erbestetu edo desterradurik egonak emoten deutseen nekea. Dakie zeruko gozotasuna eta atsegina ain direala zoragarri eta andiak ze, eztala euren gerizea bere begik ikusi, belarririk enzun, ez gogok gura al leikean guztiak, eta mundu onetan bizi zirean artean ardura puska bat geiago euki baleude poz arean artean aurkituko zireala, eta onexek neke mingotzez betetan dituz. Sensun edo sentiduzko pena eta nekea da ango su, iluntasun eta tormentuak emoten deusena. Arima oneek ezpadagoz bere mundu onetan, Elexa santearen parte edo alde dira eta alan dauke gugaz Santuen komuniñoa. Orregaitik lagundu giñaioe ikaragarritzko su areetatik urteiteko orazino, meza, limosna, barau, nekegarri eta beste edozeinbere egikera edo obra onakaz. Onexek dira, Ne.Kk., Purgatorioko arimak gaitik egin bear doguzan gauzaak, eta ez arrokeria edo soberbia zoroak aurkitu dituzanak. Zer balio deusa zure senar, emazte, seme edo gurasoen arimeari egun luzee-

tan negar ta uluetan egoteak adietan emoteko auzo eta adiskideai sentimentu andi bat artu dozula? Eta benturaz benturaz au kanpotikoa baxen ezta izango, barruan poz andi bat daukazula bere ondasunen yaube itxi zaituzalako, edo nai dozuna egiteko eskuikunean geratu zarealako. Zer balioko deutso arimeari yan-edanak, eta ameneko ordituteak? Ondo da obia, edo sepulturearen ardura eukitea; ondo da senide eta adiskideai entierurako dei egitea, baia au izan bear da ila gaitik Jaungoikoari erregututeko eta ez esan daien: a ze entieru ta illeta ederra euki daben, zeinbat yente etorri dan! Gauza guzti oneek bizien poza dira, ez ilen atsegina, diño S. Agustin-ek. Orregaitik ezta gastu oneetan ifini bear ilen onra ta atsegina, ezpabere leku atatik ainbat lasterren aterateko dituezanetan. Onexek egin bear doguz ainbat lasterren yoan deitezan Jaungoikoa arpegiz arpegi ikustera. Eskatu deiogun jaunari mesede auxa bitartekotzat ifinten dogula bere Ama Santea, dirautsagula Aingeruagaz batera: Abe Maria.

Lenengo zatia

4. Gatx eta zorakeria andi bat ikusi dot mundu onetan ziñoan Salomon yakintsuak, eta sarri yazo oi da. Aurkituten dira gizon batzuk zeintzuei emon deutseezan Jaungoikoak hazienda zabalak, eta ondasun ugariak, eta orregaitik bere ezta eurakaz balio gura, eta daukaz gorderik, eta il deinean beste batek heredaduten dituz, eta nai daben moduan gastetan dituz. Au erakeria andia, eta miseria andia da. Berba oneetan adierazo gura deuskuz Salomon-ek, diño S. Jeronimo-k, arako gizon aberatz ondasun, eta diruz beteak, zeintzuk eukirik zegaz arimako ondasunak irabazi, eztabeen gura euren seme eta oñordekoak aberatz istearren, uste dabeela oneek esker oneko izango direala, eztituezala aztuko eta al dagien guztia egingo dabeela Purgatorioan badago ainbat lasterren andik aterateko. Baia guztiz dagoz engañadurik, eta bete betean uts egiten dabe, ze Salomonek diñoana legez, billosik etorri zana legez mundu onetara, billosik urtengo dau emetik. Sartuko dabe obia edo sepulturako ilunpean, eta egun gitxi barru eztau iñok gomuta izango. Arako bere Seme, arako bere oñordeko, nortzuk ondo itxitarren ez eban limosna bat emon gura izaiten, nortzuk aberaztuteren arrastaka bizi izan zan, egikera eta obra on asko itxiten zituzala lenen lenen aztuko dabee, eta ez bakarrik eztabe ezer egingo beragaitik, baia eztituez bete edo konplidu gurako bere testamantuan agindu dituzan meza, funziño, eta beste memoriak. Egia au ezagu-



tuteko, eztaukaguz begiak idigi baño. Egunean egunean dantzuguz esaten oñordeko edo herederuak ezteutsala ezer itxi, beste obligaziño gitxiago deutsanari geiago emon deutsala, geiago balio dabeela ifini deutzazan kargaak, toke yakon herenzia baño, eta guztiak pagetarakoan, ez bakarrik ez yakala ezer geratuko, baia kalte andiak etorriko yakazala, bada bere dirutik ifini bearko dabela herenziari falta yakona. Atxakia oneekaz eztira atera gura ilak euren testamentuetan eginiko agindu edo mandaak, eta aizturik itxiten dira anaie, guraso, eta adiskiderik andienen arimaak.

5. Eta deritxazu oneek baxen esker obekoak izango direala zure seme, alaba, eta ganeko oñordekoak, edo obeto sarieztatuko deutsuezala euren aberaztuteko emoiten dozuzan izerdi, iragoten dozuzan neke, eta artuten dozuzan arazuak? Uste dozu orain esan arren etzaituzala iños aztuko, beti beti Jaunari erregutuko deutsala zugaitik; gordeko deutsula berba au? Eztakit, Kk. Baia ara zer diñoan Espiritu Santuak. Askok ta askok gura dabena artu artean opetzi eta promesa andiakaz mun egiten deutse eskuan emongo dabenari, eta humiltasun guztizko bategaz esaten dabee guztiz sendo, esker oneko izango direala euren ongilleagaz; barriz, eldu deinean imini yakan egin-bearra edo obligaziñoa, pagetako epea al daien guztia luzatuteko. *In tempore redditionis postulabit tempus.* Estutu gura badabe pagadu dagian arimai zor deutsena, berba astunak eranzungo eta murmuraduko dau. *Loquetur verba taedii, et murmurationum.* Badauko zegaz atera testamentuan itxi zirean agindu edo mandaak, eranzungo dau eztaukala obligaziñorik, eta ifiniko dau auzi bat ez pagetearren. *Si potuerit redde-re adversabitur.* Eta zerbait pagetan badau ozta izango da erdia, *Solidi vix reddit dimidium.* Pagadu ezin badau, orduan bai biraoak, maldiziñoak eta aserreak obligaziñoia ifini eutsenen kontra. *Sin autem convitia et maledicta reddit illi.* Izan bedi andi eta zabala itxi deutsan aziendea, eta txito txikia obligaziñoa, bada orregaitio esango dau andiagoa dala daukan kargea, eta alan egin deutsan mesedeen orde, sarri berba gogorrek egingo dituz bere ongillearen kontra. *Pro beneficio reddit illi contumeliam.*

6. Baia Jaungoikoak berak esango ezpeleusku bere au, ez geunke geure begiakaz dakuskuna baño besterik bear, ezagututeko ze egia andia dan. Sarri eta sarri dakusgu herederuak aaztuten euren ongilleagaz. Al daiezan asmuen billa atzean dabilte testamentuan imini eutseezan obligaziño egin bearrak ez pagetako, eta norbaitek estutu gura badituz bear dabeenera, leenago auzi gogor eta luze bateri yarraituko deutse zor au pagadu baño. Zeinbat onelango auzi ikusten dira mundu zabalean! gozetan dira errenta andiak, baia ezta lauziri emon gura ondasun oneek itxi zituezanak gaitik. Eta yakinik egunean egunean au yazoten dala, bizi gura

zara nekepean, beti arrastaka atsegin bagarik Jaungoikoa ozta ozta gomuta dozula, zeure arimea aazturik, ondasunak seme eta oñordekoentzat oneek esker oneko izango direanen usteagaz? Etzaitez zoroa izan, artu egizu Jeremias-en itundute edo konseillua. Kontu bakotxak bere proximuagaz, diño, ez beiteke fiadu bere adiskiderik urkoenetan bere, ze seme eta adiskiderik andiena, oker eta tranpaz ibiliko da. Esan egizu Salomonegaz, zetako ainbeste adikatuten nas mundu onetako ondasunak gaitik? Zetako engañetan dot neure arimea ondo ifinterren, eta aberatz itxiterren, neure seme eta oñekoak, yakin bagarik zelangoak urtengo daben, eroak ala yakintsuak, esker oneko edo deungakoak? Pensamentu onegaz itxi egizu seme eta aideai deutseezun amodio larregi eta zoro ori, zeinnek aitzu eragite deutsun ardurarik bearrena, zein dan arimako ondasunak batzaindutea. Ara zer dirauskun Espiritu Santuak: Bizitzeak dirauan artean egizu arimeagaitik al daizun guztia, ze beste munduko iluntasunean bearrik ezin egin leiteke, ezta aurkituten yakituriarik, ez yanaririk, ez egikera edo obra onik egiterik.

7. Baia emon daigun, Ka, zure seme, alaba, senide eta oñordekoak, nortzuk aberatz isten dozuezan esker oneko izango direala, ezagutuko dituezala zugandik artu dituezan mesedeak, eta aterako dituezala mezaak zure arimeagaitik, irabaziko dituezala induljenzia edo parkamenak, erre-zaduko dituezala errosario eta estazinoak eta egingo dabeela al daiena zure onerako. Baia orain zeuk an dagozan arimaak gaitik ezer egin gura ezpadozu, deritxazu orduan balioko deutsuela? Ai, N^e. E^a M^k, bildur izan zinatekez zein arako Jaungoiko artezak zuei kendu eta emon deioen arako zuek baxen ardura andiago bat arimaak gaitik erregututeko euki dabeenai. Askogaz au yazo dala dirauskue Elexako Irakurlari edo Dokto-reak. S. Agustin-ek (diño) zelan merezi mundu onetan, alantxe balioko deuskuela bestean gugaitik egingo direan oraziñoak. Gura dozu bada balio daizuen il ezkeru zugaitik egingo direan eskaari, meza, oraziño, eta beste egikera edo obrak? Egizu bada orain an dagozanakgaitik al daizun guztia, bada zelan egin eurakgaitik, alantxe egingo da zugaitik, eta artuko dau Jaungoikoak. Berak diño zeuk zeure proximua neurtuten dozun neurriagaz, neurtua izango zara. Neurri ugariagaz neurtuten badozuz Purgatorioko arimaak ugari artuko dozuz an zagozanean meza, oraziño, eta parkamenak: baia urri sikua bazara euren alderako, urri eta siku izango dira zuretzako bere. Orra non daukazuen



Bigarren zatia

8. J.K°. eta Apostoluak sarri eta estuago agindu dabeen onoi edo birtutea karidadea da, eta alan birtute guztiakaz apaindurik egon leitezana bere diszipuluak gura eukean S. Paulo Apk. Baia alanbere dirautse Kolo-sa-koai gauza guztien ganetik euki egizue alkarganako karidadea, ze bera da guztien koroe eta guena. Guztiakganako zabaldu zedin karidade au nai eukean, eta dirautse guztiakgaitik oraziño egin daiela: Errege, nagusi, agintari, juez eta beste edozeingaitik; baia orregaitik gura leuke ardura andiago bat euki santu eta onakaz, eta onexen premina eta bearrak lenen sokorridu daiguzan. Badirautse bere Galazia-koai, guztiai mesede egin deioela bertatik diño, baia geiago eurakaz fede bat daukenai. Erromatarrai badirautse areriogiñoakoi limosnea egiteko, nai dau santuen premiñen ardura geiago euki daiela, eta alan zeinbat eta santuago dan premiña daukana, eta zeinbat gogorrigo dan estukuntzea, ainbat gogo obeagaz begiraturen deutso Jaunak onelangoakaz egiten dan karidadea. Purgatorioko arimakgan daukaguz gauza bi oneek. Dira santaak eta Jaungoikoaren adiskideak, eta ain modutan ze ezin galdu leie santidade au, eztabe orbanduko graziaren soñeko ederra, eta beragaz sartuko dira egunen baten zeruko Jaunaren estegetan. Eztira iños bere Jaunaren arerio izango, eztira iños demoniñoaren agindupean yausiko; beti izango dira J.K°.ren esposa maite, bere bizileku, ta Jaungoikoaren seme eta zeruko herederu eta yau-begei. Mundu onetan dagoan santurik andiena eztago seguru; bada beti dago arerio gogorrez inguraturik, eta grazia galduteko pelleburuan; baia Purgatorioko arimaak eztauke alango pellebururik, eztagoz aragi argalez yanzirik, eztauko Demoniñoak eurak tentateko eskubiderik eta alan guztiz dagoz seguru. Zelango gogo eta borondateagaz artuko dituz bada Jaunak bere esposa, bere seme ain laztanai egiten yakezan on eta mesedeak?

9. Begiraturen badogu zer igaroten dabeen, ikusiko dogu mundu onetan irago direan ta irago al leitekezan neke eta tormentu guztiak ezti-reala euren geriza bere. Dagoz ikaragarritzko suz beteriko leza ilun baten ondiaturik euren Aita zerukoaren etxetik erbestetu edo desterradurik. Euren guraari guztia da Aita betikoa arpegiz arpegi ikustea, baia eztira elduko zorian au eukitera arik eta euren ganean daukeen zor guztia kitutu artean. Ain dagoz pobre ze, eztauke zegaz (kitu) egin. Dagoz leku itsal-tsu atan zarraturik, eta ezin idigi dituez ateak, dagoz grillu gogorraz loturik, baia eztauke indarrik soka eta katee oneek urratu, ez askatuteko. Jaungoikoaren justiziako azoteak zaurituten dituz eta ezin eskutadu dira

esku gogor onegandik. Egia da txito laztan dituzana, baia garbi garbi egin artean arerio kruel balitz legez kastigetan dituz: egia da aita samur batek seme biotzeko bat baxen geiago maitetu edo ametan dituzala; baia arik eta zorra kitu egin artean gizonik gogorrenak baño gogortoago artzen dituz, eta Job santuan diñoana legez kruel ta aserre gogor biurtu da eurentzako, eta arerio eskerga batek legez ezarten dau euren ganera bere esku astuna. Mundu onetan Jaun arek biralduten dituzan gastiguak zer dauke zer ikusi Purgatorioan arimeen ganera biralduten dituzanakaz? Batu bediz gizon guztiak emen igaro al daiezanak: gexo, min, ala zauri, gatx eta nekeak. Martiri guztiak irago dituezan azote, presondegi edo kartzela, su, berun urtu, laba gori-isio eta eriotza kruelak, gizonik kruel gogor eta asmularie-nak asmau ta aurkitu al daiezanak: bada eztira aoan artzeko bere an arima tristeak igaroiten dituezanen parean.

10. Orain bada, Ne. Kk., zelango gogo, zelango borondateagaz, zelango gustuagaz artuko da Jaungoikoak bere adiskide ain andiai egiten yaken mesede guztizko au? Eta ze sari itxaron ez ginaike Jaun ain on auganik bere seme maiteai egiten deutsegun atsegin eta zorionagaitik? Berak diño poz andiagoagaz artuten dabela pobrea sokorrietea, ume zur-tzari lagundutea, eta alarguna zaindutea, aari, idi eta beien sakrifizio guz-tiak baño, eta au egiten ebanaren ganean guztiz ugari botako zituzala bere miserikordiaren ondasunak. Bada zeinbat eta pozago artuko dau Purga-torioko arimai egiten yaken ona, izanik munduan direan alargun, ume-zurtza eta larritu guztiak baxen errukigarriago? Zeinbat eta bedeinkaziño ugariago artuko dituez onen ongilaak aenak baño? Bere izenean emoiten dan pitxar bete ur otzen saria galduko ezpada, ze sari artuko dau Purga-torioko arima bedeinkatuai zeruko atea idigi eta betiko atsegin eta gozo-tasun aetan sartuten dituzanak? S. Bernardino Senakok dirausku obra onen bat arima aek gaitik egiten dogunean, geiago merezietan dogula amar bider geiago egingo bagendu baño. Bizien bat gaitik lotu, zarratu, gexo, billos eta goseak ilik balego bere, ze mundu onetako gexo, eta kar-zelan sartu, eta burdiñaz yosirik dagoana nondik edo andik balia leiteke, barriz suzko leza atan dagoana eziñ iñondik bere balia leiteke. Biztu gai-tezan bada, Kk., oraintxe denporea daukagun artean al daigun on guztia egitera, bada eriotzako gaua etorri ezkeru ezin bearrik egin leiteke, diraus-ku Salbagilleak. Eztaigun iñoren ardurara itxi geuk egin al daigun gauzea, ze gu emetik yoan ezkeru, aizturik eukiko gaituez emen geratuten direa-nak. Zeinbat eta ondasun geiago itxi, ainbat eta aitzuago eukiko zaitueze. Naiagoko dabe andikeria, guraari eta zorakerietan gastadu zuek itxiten deusazueena, zuen onean, eta zuek zeruko atseginetan sartuten lagundu-



ten baño. Egizue bada al daizuen guztia arima aek gaitik, bada mundu onetatik urten dagizuenean, aurkituko dozue ez bakarrik egiten dozuena bapere falta bagarik, baita eun biderrez geiagoturik. Euki egizue miseri-kordia, eta errukitu zaitetze su aetan dagozanakaz, eta Jaunak eukiko dau zuekaz, bere errukia. Berak diño: zori-onekoak errukiorrak, zegaitik ze eurak aurkituko dabe errukia. Suertetsuak izango zare pobre eta neketsu aei ondo egiten badeutsazue, bada egun gogor eta estuan Jaungoikoak ondo aterako zaituez, eta eroango zaituez kabubagako atsegin artera, beti beti bera alabadu dagizuen Aingeruakaz batera. Amen.

7. PURGATORIOKO ARIMEEN IRUGARREN SERMOEA

(B, 186-191. or.)

Memor esto iudicii mei, sic enim erit
et tuum; mihi heri, et tibi hodie.
Eccli. 38. v.23.

1. Exeturik Elexa Ama Santea bere Semeen zorionen guraarian beti emon deutse bera alkanzetako bear dituezan gauza guztiak, eta idigiten deutsez zorion onetara elduteko bideak. Yaiota bertatik egiten dituz J.K°.ren seme bateoaren bitartez; armadu eta sendotuten (indartu ta gogortuten) dituz arerioen tentaziñoen kontra Konfirmaziñoako sakramentuagaz, ase eta mantenietan dituz altarako sakramentuagaz: gexotuten badira pekatuaren gatxagaz, Penitenziako sakramentuan imini deutse, eurak bear dabeen, osasungei edo medizinea. Idigiten dituz J.K°.k itxi eutsazan ondasun guztiak, eurak aberaztu deitezan (aberazteko); eta guztia beingoan esateko ezteutse ukatuten betiko atseginetara elduteko bear dabeen gauzarik. Eztira amaituten edo akabetan (azkenduten) ardura oneek bere semeen eriotzeagaz; il ezkeru bere egiten dituz alegin guztiak ainbat lasterren urten daien Purgatorioko ala, pena eta sutegetik, eta eldu daitezan Jaungoikoaren arpegia ikustera. Onetarako beti beti dago Jaungoikoari erregututen (erreguka) arren bada atera dagizala leza atatik, eta eroan dagizala zeruko gozamentura. Onetarako opa deutsaz sakrifizioak edo meza santuak, bigunduteko eurakaz Jaunaren justizia (gogortasuna); eta onetaraxe biztu gura dituz mundu onetan bizi direan Semeak, eurak gaitik Jaungoikoari opa ta iskindutera euren meza, oraziño, barau, limosna, eta beste (osterantxako) obra on guztiak. Eta gogo obeagaz egin daigun Elexearen esana, dirausku ze, on guztiz andiak etorriko yakuzala miseri-kordiaz beteriko obra oneetatik, eta ez dugula galduko gere saria, bada guztiz dala osasuntsua ilak gaitik erregututea. *Salubris est cogitatio pro defunctis exorare*: bada gure onerako izango dala Purgatorioko arimaak gaitik egiten dogun guztia.

2. Ez, Kk., eztaigun uste izan galduko dogula Purgatorioko arimak gaitik egiten doguna, ez; guzti guztia aurkituko dogu beste munduan azirik eta geiagoturik, diño Jaungk. berak. Onetaraxe eroan gura gaituz Espiritu Santuak, eta alan dirausku arimen izenean: gomuta egizu nigaz yazo



dana (zer yazo dan), *memor esto iudicii mei*, ze bardin bardin yazoko da zugaz bere, *sic enim erit et tuum*. Ni su onen erdian nagoana legez, aurkituko zara zu benturaz denpora gitxi barru, eta orain nigaitik egiten dozun guztiak orduan balioko deutsu, eta zure onerako izango da; zuk orain nigaz egiten dozun moduan, egingo dabe zugaz orduan. *Sicut fecisti sic fiet*. Zuk orain nigaitik erregututen badozu, ez yatzu orduan bitartekorik Jau-naren aurrean faltako; barriz aitzurik banaukazu, aitzurik egongo zara orduan zeu bere. Auxe da, Ne.Ea.Mk., adietan emongo deutsuedana gox onetan zati bitan. Lelengo esango deutsuet zeinbat irabazten dozuen ari-mai al dozuen on guztia eginagaz: bigarren-go, zeinbat gatx dakarzu-zen ganera eurak aitzurik eukiagaz. Lenengoan ikusiko dozue zelan ainbat lasterren aterako zaituezan Jaungoikoak Purgatoriotik, orain an dagozanak aterateko aleginak egiten badozue; bigarren-ean ikusiko dozue zelan Jaungoikoak denpora luzean su atan eukiko zaituezan orain an dagozanen yaramonik egiten ezpadozue. Eta yakin daizuen zelan lagundu al deiezuen andik urteiten, enzuzue urrengo

Doktrinea

3. Elexa Ama Santeak irakasten deusku, eta alan sinistu bere egin bear dogu, dagoala Purgatorioa, zein dan leku bat non dagozan grazian il zirean arimaak garbituten, pagetan dituezala mundu onetan bear dan moduan pagadu etzituezan pekatuen zorrak. Eztago miñik aituten emon leikeanik zelangoak direan zor onen pagu igaraiten dituezan pena, neke eta tormentuak. Pena eta tormentu oneek modu bitakoak dira: bata da sua, iluntasuna, eta beste onelango penak; bestea da zerutik erbestetadurik edo desterradurik egonak eta Jaungoikoaren arpegia ez ikusiak emoit-ten deutsena. Arima oneek beste munduan egon arren Elexa bat bakarrik egiten dabe gugaz naste, edo dira Elexearen parte, eta lagundu ginaioe leku atarik urteiten eta zerura elduten, bada dauke gugaz naste Santuen Komuniñoa, au da, dauke parte gure obra onetan. Arimaak gaitik Jaun-goikoari opa giñaiozan obrak dira oraziñoa, limosnea, mezaak atera, edo enzutea, barauak, nekeak, (lanak edo) zeregiñak, eta guztien artean indul-jen-ziak. Da, bada, induljenzia edo parkamena, pekatuak gaitik merezidu dan penea parkatutea J.K°. Birjina Andra Maria, eta beste santu-santeen merezimentuak gaitik. Au obeto aditu dagizuen yakin bear dozue ze, J.K°.k itxi ebalia Elexa santan bere merezimentuen ondasun andi bat, edo

daukazala Elexa santeak ondasun andi batzuk, zeintzuk direan J.K°.k, Ama Birjineak, eta ganeko Santu-santak irabazi zituezan merezimentuak. Ondasun onen giltzak daukaz Aita Santu Erromakoak. Guk pekatu egi-ten dogunean artuten dogu zor bat geure ganean, zein parkatu arren, pekatua ezta beti pagetan. Orregaitik esatea induljenzia edo parkamena dagoala, ezta beste gauzarik ezpada adietan emoitea Aita Santuak idigi dabezala ondasun oneek, eta eginik berak aginduten da bena, eurentatik pagetan dogula, pekatuak gaitik egin genduan zorra. Gura dozue yakin au zelan dan? Ara bada. Zor baleutsazuz norbaiteri, daigun kontu, eun dobroa, eta ez eukirik zegaz pagadu, eroango bazenduz gizon aberatz batek bere etxera, eta idigirik diruz beteriko utxabalda edo kaxa bat, esan-go baleutsu, artu dagizula zorra kituteko bear dozun guztia, errez pagadu zinaike zeure zorra diru onegaz iñoena izan arren. Bardin da parkamena.

4. Eta ez bakarrik guretzako, baita bere Arimentzako irabazi ginaikez parkamenak, baia ez guztiak, ezpabere arako Aita Santuak autortu edo konzedietan dituezanak arimeentzako apliketako gura badogu, zelangoak direan Garizuman, eta beste denpora askotan altarak bisitaduagaz irabaz-ten direanak, eta alan guztiz da gauza ona egunean egunean, edo elexara datorren guztian altarak bisitetea, Arimeentzako parkamena irabazteko gogoagaz, egunean egunean Arimeena yoten dabeenean *Aitagurea* bat *eta Abemaria* bat belauniko esatea, ze onegaz irabazten dira induljenziak Pur-gatorioko Arimeentzako. Norbaist ilten danean *Aitagurea* bat, eta Abe-maria beragaitik errezaduagaz, irabazten dira induljenziak Defuntu aren-tzako. Onaintxe lagundu bear yakoe arimai, ez beste banidade eta zorake-riakaz, ez egun eta aste osoak negarretan emonagaz, negar guzurrezkoa-kaz, sarri yazo oi dana legez, zer-esango dabenagaitik, eta euren barruan poz andi bat daukela benturaz, il dalako. Ondo da bere norbaist ilten danean aideak eta adiskideak konbidetea eta deiegitea entierrurako: barriz izan bear da guztiak bat eginik, Jaungoikoari erregutu deioen, bada Jau-nak borondate onagaz enzuten dau askoren oraziñoa; eta ez, esan dagien zeinbat yente egon dan entierru, hondra edo illetan, bada au banidade utsa da eta ezteutso ezer balio arimeari, beragaitik erregututen ezpadabe. Kk., biztu gaitezan al daigun guztia Arimakgaitik egitera, ze sari andi bat dauko oparik Jaungoikoak obra on au gaitik, eta beste munduan aurkitu-ko dogu geuretzat arimak gaitik egiten dogun guztia, eta emen bere mese-de andiak artuko doguz Jungoikoaganik, sermoe onetan enzungo dozue-na legez, zein ondo esateko, bear dot Jaungoikoaren laguntasuna eta gra-zia: eskatu deiogun, bitartekotzat iminirik bere Ama. Abe Maria.



Lelengo zatia

5. Eztau Jaungoikoak sari bagarik itxiten guk egiten dogun obra onik. Ezin sinistu ginaike, dirausku S. Paulo Apostoluak, aitzuko dabela Jaunak gure ondo egina; dan txikien txikiena gomutauko dau, beragaitik guk merezi dogun bere saria emoteko. Berak dirausku ondo sarieztatu ta pagaduko deuskula bere izenean emoten badogu pitxar bete ur, eta ez bakarrik dirausku pagaduko (emongo) deuskula obra onen gure saria, baita eun bider geiago bere. Eta ainbeste ardura badauko Jaunak egiten (egin) dogun obra edo egikune txikiena pagetako, ze sari emongo deusku Purgatorioko Arimak gaitik egiten (arimen alderako) dogun karidadeagaitik, izanik au ain bere gustukoa (gogokoa)? Gura dozue yakin zeinbat gusetan yakan Jaungoikoari Purgatorioko Arimakaz egiten dan obra ona? Ara bada: obra on onegaz betetan doguz J.K.^o. geure Jaunak erredenzinoko misterioak egitean euki dituzan guraariak, eta daroaguz zelanbait kabura bere arrigarritzko egikerak. Etorri bazan zerutik lurrera Jaungoikoaren Semea, bizi izan bazan ogeta amairu urtean mundu onetan, artu (ikusi) bazituzan ainbeste neke, pena, ala, zauri eta azote bere negargarritzko pasiñoan, bota beeban bere zanetako odol guztia, eta emon beeban bere bizitzea kurutze gogor baten lotsaririk andienean lapur bien erdian, au guzti au egin eban gu zerura eroatearren. Eztabe Purgatorioan dagozan arimaak artuko J.K.^o. irabaziriko gloria au, arik eta mundu onetan pekatuakaz egin zituezan zorrak pagadu (kitutu) artean. Ezin eurak pagadu leiez, bada eriotzea ezker ezin merezidu leie; dagoz arako Jerusalem-en egoan gizon kaden pobrea legez, bere (euren) burua osasuneko iturrira botateko indar bage; dagoz arako gau ilunean, zeinetan ezin iñok obra onik egin leike; iñok pagadu ta kitutu bear dituz euren zorrak, bestek izan bear dau bitarteko; berba baten, dagoz gizon bat presondegi edo kartzela baten zorrak gaitik legez, lauziri bagarik bere zorrak pagetako. Orregaitik, bada, geuk geure oraziñoakaz Purgatoriotik ateraten doguzanean bertan dagozan arimaak, egiten gara Jaungoikoagaz euren artean bitarteko; ateraten doguz pekatupeetik; idigiten deutseguz zeruko ateak; eta egiten doguz bakeak Jaungoikoaren eta euren artean moduren baten J.K.^o.k. bere eriotzeagaz egin ebana legez. Ara zelan.

6. Jaungoikoaren justiziak emon eban eriotzako sententzia gizonaren kontra; barriz, bere miserikordiak parkatu gura eutsan gizonari; justiziak eskatuten eutsan gizonari kitu egin ta pagadu egiola pekatuagaz egin eban

zorra, eta au egin artean ez eutsan parkatu gura, miserikordiak gura ebana legez; baia ez eukan gizonak zegaz pagadu zor au. Zer egin eban bada J.K.^o.k? Artu zituzan bere ganean gizonaren zorrak; pagadu eutsan Aita-ren justiziari, eskatu eban guztia, eta idigi eutsazan miserikordiari bideak bere ontasuna gizonari erakusteko. Auxe berau egiten dogu, bada, guk pere Jaungoikoagaz Purgatorioko arimeen artean. Jaungoikoaren miserikordiak atera gura leuez su atatik, eta eroan betiko atseginetara, ze guztiz dituz laztan arima oneek, eta eurak guztiz dabe maite Jauna: dira bere esposa maite, dagoz bere graziagaz ederturik: baia bere justiziak eztau isten, ifinirik ta ebatsirik daukalako ezala bere etsean gauza loirik sartuko, eta alan daukaz, euki bere, zerutik erbestaurik, arik eta zor guztia, dan dana, kitu egin artean. Eta, zer egiten dogu guk eurak gaitik erregututen dogunean, parkamenak irabazten doguzanean, eta beste obra onen bat egiten dogunean? Kendu Jaungoiko eta arimeen artean dagoan (arte) orma lodia, S. Paulo Apk. diñoana legez, zeinek galarazoten eutsen alkar-gana batutea, eta zeinek eukazan katigu arimaak, Jaungoikoagana elduteko. Eta, ze mesede, ze bedeinkaziño, ze ondasun artuko dogu Jaungoiko-aganik obra onen sari, izanik ain bere gogokoa, zeinegaz poztuten dogun zerua, geiagotuten doguz zeruko Prinzipeak, eta arturik geure lepoan, esate baten, daroaguz Aita betikoaren etxera, zeruko artzainak legez arako deslai ebilen ardi tristea? Orretan ze, Ne.Kk., andiak izan bearko dau artuko dogun sariak. Eun bider geiago emongo deuskula diño Jaungoikoak berak, Arimakaz egiten dogun karidadea gaitik. Zorionekoa dala diño Dabid Erregeak Purgatorioko Arima tristeai al daiana egiten deusena, bada Jaungoikoak libraduko dau egun deunga eta gogorrean, zein dan jui-zioko eguna.

7. Beste aldetik, ze sari andiagorik, zeruan Prinzipe andi bat geure bitarteko eginik eukitea baxen, eta zeinek zor deuskun bere libertadea? Zelango pozez bete bear gaituz gogora ekarteak, Jaungoikoaren aurrean daukagula arima bat geuk geure oraziñoakaz Purgatoriotik aterarik ara eroan doguna, non dagoan gugaitik erregututen? Eta, zer itxaron bear eztogu adiskide oneganik, izanik arimea Jaungoikoaren esposa maite, eta zeruko Prinzesa? Zegaitik ze eztau iños bere aitzuko guganik (gure esku-tik) artu daben mesedea, beti gomutauko dabe Arimaak euren ongillak izan gareana; bada izanik ain andia zeruan dagozanen karidadea, ezteutse itxiten egin yaken mesedea aztuten, eta alan ezin izan leitekez esker deungako, eta beti beti dagoz erregututen euren ongillak gaitik Jaunari. A! Zelango amodioagaz, zelango karidadeagaz eskatuko deutse Jaunari eza-rri dagizala, arren, bere bedeinkazinoak eurak Purgatoriotik atera ditue-



zanen ganera! Aintxe eskatuten deutse, diño S. Ambrosio-k; sarieztatu egioezue, Jauna, irabazi andiakaz, preso geunkezan lakioak urraturik, leza ilunetik atera gaituezanai. Zeuk esan zenduan, zorionekoak direala errukiorrak, zeuganik errukia alkanzaduko dabeelako: bada ezagutu begie agindu onen egia gure errukia euki dabeenak (erruki izan direanak), arturik zure eskuetatik errukitasunez beteriko saria. Baita, uste dozue, Kk., eztituzala enzun gurako geure Jaun eta Jaungoikoak, Arimaak zeruan egiten deutseezan erreku (eskari) oneek? Ez, Kk., ez alangorik. Deadar egingo dabe santuak, diño Dabid Erregeak, eta Jaunak enzungo dituz deadar oneek, zegaitik eze bere belarriak beti dagoz zur eta prest euren deiak enzuteko.

8. Antxina enzun zituzan Moises-enak, eta eurak gaitik parkatu eutsan bere puebluari, eta amatu eban bere aserrea, zeinegaz galdu gura zituzan Israel-tarrak. Enzun zituzan Josue-nak, eta eurak zireala medio, geldirik egon zan eguzkia sartutera yoianean. Enzun zituzan Elias-enak, eta eurak gaitik ez eban euririk egin iru urtean eta sei ilabeteen, eta barriro euria egin eban berak oraziño eginagaz. Enzun zituzan Eliseo-enak eta eurak gaitik orio puska bategaz bete zituzan (zirean) andra alargun pobretxu batentzako etxean eukazan (zituzan) onzi eta pitxer guztiak. Eta ain indar andikoak izan bazirean onen eta beste askoren oraziñoak, eta ain borondate osoagaz enzuten bazituzan Jaungoikoak, zelan enzungo eztituz zeruan dagozan arimeenak? Areek pekatuaren aragiz yanzirik egozan oraindiñokoarren, Arimaak, barriz, eztauke pekatuaren astuntasunik; areek oraindiñokoarren erbestean egozan, barriz oneek ya dagoz Aita betikoaren etxean, zein dakusen arpegiz arpegi zeruko Erreinuko Prinzipa andi eginik. Orregaitik, bada, ziertu egon bear gara, Arimaak aztuko eztabeela egin deutseen mesedea, eta beti egongo direala gugaitik erregututen; eta Jaungoikoak ukatuko ezteutsela gugaitik eskatuten dabeen gauzarik, eta alan neurribako ondasun andiak artuko doguzala Arimaak gaitik erregututen badogu. Barriz, zer yazoko yaku aitzurik badaukaguz? Enzun egizue

Bigarren zatian

9. Geure proximuagaz errukiorrak izateak Jaunaren errukiak gure ganera dakazana legez, alantxe eurakaz errukirik ez eukiteak (izateak) dakar gure ganera Jaunaren aserrea. Judizioko egunean enzungo dabee

onak J.K^o.ren aotik bendiziño zorionekoak obra miserikordiazkoak egin zituezalako. Deungaak, barriz, betiko galduak enzungo dabee sententzia bildurgarria egin etzituezalako. Orregaitik diño Santiago Apk. errukibako juizioa egingo yakala errukirik eztaukanari. Eta alan zelangoak zareen zuek Purgatorioko Arimakaz, alaintxe izango dira zuekaz zeuen ostekoak. Orain yaramonik egiten ezpadeutsazue, gortuten bazaree euren deietara, azturik badaukazue, ezpadozue ezer egin gura Purgatorioko su, pena eta tormentuetatik aterateko, aztuko dira zuekaz bere, eta ezteutsue yaramonik egingo an zagozanean, ez senarrak, ez emazteak, ez seme alabaak, ez aideak, ez adiskideak, eta ameneko ameneko oneek zuek gaitik erregututen badabe bere, eztituz zuen onerako artu gurako Juez artezak, eta zuentzako ateraten direan mezaak, errezetan direan oraziñoak, irabazten direan parkamenak, eta egiten direan beste obra on guztiak bear bada artuko dituz zuek baxen deboziño andiago bat arimaak ganako euki dabeenentzat. Sarri eta sarri au yazo dala dirauskue Yakintsuak eta Elexako Historiak. Bai gizon gogorr-arritzkoak, bai Kristiñau biotz gogorrekoak, eta errukirik arean bakoak; egun gitxi barru aurkituko zare benturaz Purgatorioko su garren artean, orain arima tristeak dagozan legetxe, eta orduan, zuek aek neurtuten dozuezan neurriagaz, neurtuko zaitueze zuek bere: eta zuen kontra biurtuko da orain arima bedekatuakaz daukazuen gogortasun ori.

10. Ondaturik leza ilun eta suzko atan, alde guztietatik gar biziz inguraturik, minen minez negarretan urturik, eztozue eukiko nok poztu, eztozue aurkituko nok enzun daizuen. Orduan ezagutuko dozue ze deungaro egin zenduen, ez yaramonik egitea arimai, munduan bizi zineen artean. A, zelango larri, estutasun eta naibageakaz esango (esan bearko) dozuen Joseen anaiak Ejipto-n legez: *Merito haec patimur quia peccavimus in fratrem nostrum, dum deprecaretur nos et non audivimus*. Errazoe andiagaz nago ni su ikaragarritzko onen erdian, guztiak aatzurik, itxirik eta inok kausiñorik egin bagarik, ze neuk bere ez nituzan enzun gura izaiten neure anaien errekuak, leku onetatixek dei egiten eusteanean. Orregaiti etorri da nire ganera pena eta neke ikaragarri au. *Idcirco venit super nos ista tribulatio*. Ai ene penea! Esango dozue Job santuagaz: deadar egiten dot, baia eztago enzun dagidanik, dei egingo dot, eta ezteust iñok yaramonik egingo. Neure Semeak eurak, zeintzuk ondo ifintearren ainbat izerdi bota dodan, eta ain neke andietan bizi izan nasan, azturik bere baño aztuagorik nuke. Barriz, ze miraari gizonak ez yaramoitea, Jaungoikoak berak ezpadau nigana begiratu gura? Neure arerio eginik dago arako Jaungoiko bigun eta errukiorra, eta bere beso ta esku astunagaz nauko pena eta su eskeragarri onen erdian. Bai, ondo eza-



guturik daukat ondo ta ondo merezidu dodala bakartasun au, eta iñok ez yaramonik egitea, ze nik bere munduan bizi nintzan artean, ez neuntsen yaramonik egin, emen egozan arimai, ez nituzan enzun gura izaiten Predikadoreen bitartez egiten eusteezan deiak. Orrexegaitik etorri da nire gane-ra pena au. *Iddcirco venit super nos ista tribulatio.*

11. Deritxazue, Kk., etzareela egunen baten zispuru eta zotinen artean ikusiko, edo etzareela iños Purgatorioan egongo? Ain garbirik mundu onetarik urtengo dozuela uste dozue? Altaretan (altare ganean) gaurko egunean dakusguzan santu batzuk gaitik dirauskue euren bizitzak, euren arimaak Purgatorioan egozala euren gorputzak miraari andiak egiten egozan denporan. Zer izango da, bada, ain santu eztireanakaz? Alan, bada, egin daigun alegin guztia, Arimaak ainbat lasterren leku ilun eta suzko atatik aterateko, geuk bere, an yausi gaitezanean, euki daigun nok atera. Irabazi daiguzan adiskideak zeruan gugaitik erregutu dagien zeruko Erregearen aurrean. Auxe egitera biztuten zaitueze Arimaak eurak. Muturirik dagoz, eztarabildez euren miñak; baia Elexara sartuten zareen bako-txean, euren sepultura ganean emoiten dozuezan pausu bako-txean yago-tzuez esaten berba ixil bategaz, baia guztiz sendoagaz, ta indar zolizkoa-gaz: seme gogorra, emazte kruela, anaie esker deungakoa, adiskide erru-ki bagea, atera nagizu leku itsaltzu onetarik; bigundu egizu Jaunaren ase-rra, eta lagundu egidazu zerura elduten. Meza bat ateratea, limosna bat emoitea, edo beste obra onen bat egitea kostu gitxikoa da zuretzat, eta probetxu andikoa niretzat; eta au ezin badozu, gitxienez Elexara zatoza-nean irabazi egizu niretzako parkamenen bat, errezadu eikezu estaziñoren bat, enzun meza bat. Ze gauza errezagorik au baxen? Eta orregaitik bere, eztozu egingo? A seme gogorra! A emazte esker deungakoa! A senide kruela! Ori da niri zor deustazuna, euki neuntsun amodioagaitik, eta egin neuntsuzan mesedeak gaitik? Gomuta egizu, ene Semea, zeinbat bear egin dodan, zeinbat izerdi bota dodazan eta ze lanak igaro dodazan zu azite-ko, zuretzako yanaria irabazteko, eta zuri bear dozun guztia emoiteko; zeinbat gau eder galdu dodazan, eta zeinbat bider itxi dodan loa, zu ondo ikustarren. Ezteutsut eskatuten beste ainbeste egin daizula zuk nigaitik, gitxiagogaz kontentetan nas. Ezteutsut eskatuten kendu daizula aotik kopaua niri emotearren, nik sarri egin nebana legez. Meza bat enzunagaz, edo atereagaz, parkamen bat irabaziagaz, limosna bat emonagaz konten-tetan nas, eta, ukatuko deustazu, ene Semea, eskaari au, izanik ni zure gurasoa? eta ain gogorra izango zara, izatea zuri nik emon ezkeru?

12. Bada gitxitan badaukazu niganako dozun zor andi au, begiratu egizu zure onerako izango dala, nigaitik egiten dozun guztia; eta zure

gatxerako ni aitzurik eukitea. Ni nakutsun moduan ikusiko zara zeu bear bada denpora gitxi barru. Ni juzgadu naben estutasunagaz, juzgaduko zaituz zeu Jaungoikoak. *Memor esto iudicii mei, sic enim erit et tuum.* Nigaz atzo yazo zana, yazoko da gaur zugaz. *Mihi heri, tibi hodie.* Atzo sepultura onetan botaten ikusi ninduzuna legez, botako zaituez gaur zu, eta ni orain azturik naukazuna legez, egongo zara zu, *Mihi heri, tibi hodie.* A seme krue-la! Yakin egizu ze, nik itxiriko ondasunakaz zu olgura artean zabiltzazan artean, ementxe nagoana ni su ikaragarritzko onen erdian, zuri euki neu-tsun amodio larregia pagetan. Zu ondo ikusteko guraariak nauko emen, eta, zu zagoz nigaz aazturik? Ara bada, yakin egizu, ni neurtuten nozun neurriagaz neurtua izango zareala zeu bere. Etorriko da zure atserengo ordua, kenduko deusuez ain maite dozuzan ondasun orreek, yatziko zara leku onetaraxe, eta etxatzu faltako semerik (seme bat) edo beste oñorde-koren bat zeñek eukiko zaituzan aitzurik, zuk ni orain naukazuna legetxe. Kk., ez gaitezan ain gogorrak izan Purgatorioko arimakaz, ze eurakaz gogorrak izaitea geure buruakaz gogorrak izaitea da. Yatsi gaitezan su eta tormentu aetara geure pentsamentuagaz, eta ikusi daigun zelan dagozan erre eta kiskilduten gure adiskide, aide, ezaun, anaie eta gurasoak bentu-raz. Erregutu deiogun Jaunari eurak gaitik, eta esan deiogun Elexa San-teagaz batera: Emon egioezu, Jauna, betiko atsegina, eta eroan egizuz zeruko argitara. Eroan egizuz zeure etsera, aintxe ikusi daitezan zure San-tuakaz naste, beti beti bedekintuten zaituezala. *Requiescant in pace.* Amen.



8. ZERUKO GLORIAREN GANeko SERMOEA

(B, 139-144. or.)

Oculus non vidit, nec auris audivit, nec in cor hominis ascendit quae
praeparavit Deus his qui diligunt ilium. 1 Corinth. c.2.v.9

1. Ain da andi eta miragarria Jaungoikoak bere maitelariantzat gorderik daukan gloria ze, diño S. Paulo Apk., ez begiak ikusi dabela, ez belarriak enzun dabela, ez gizonen biotzera eldu dala ze gloria, eta ondasun dauken gorderik bera maite dabenentzat. Asi zan bein gloriaren ganean eskribietan S. Agustin, eta agertu yakan S. Jeronimo, eta esan eutsan: ze uste darabiltsu, Agustin? Deritxazu emon zinaia adietan zer dan gloria? Bada etzara (kapaz) espliketako lainbeste santurik txikienak daukan pozik puskeena. Yakin egizu errezago egingo yatsula mundu guztia esku barruan artutea, edo itxasoko ur guztia zulotxu baten sartutea, zuk pen-setan dozunagaz urteitea baño. Izanik S. Paulo Apa. ain yakintsua eta Espiritu Santuz betea, esaten oi eban ezin esan leikeala zer enzun eban irugarren zerura igon ebanean; bada Santu andi oneek mututurik geratuten badira berba egiten dabeenean gloriaren ganean, zelan azartuko nas ni berba egiten? Baia orregaitik bere, al daidan moduan, zerbaist esango deusuet ezagutu daizuen ze gitxi egiten dogun ara elduteko, eta biztu zaitzezan mundu onetako nekeak pazienza andi bategaz eroatera. Lenengo, bada, berba egungo dot zeruko gloriaren ganean; bigarrenean, barriz, ze gitxitan daukagun ain asko balio daben gauzea.

Lelengo zatia

2. Emoiteko S. Juan Ebanjelisteak zeruaren irudi bat, dirausku era-kutsi eutsala Angeru batek Jerusalem-go uri santua: guztia zan urregorritzkoa, ain garbi, ain eder ta ain argi, zein da kristalik ta bidiriorik garbiena; bere orma lodi edo murallak arri diamante, esmeralda, eta arri baliozkoak zirean: ate bakotxa zan prezio bako margarita bat, eztau uri onek eguzki bearrik, bada Jaungoikoak berak argi egiten deutso eta arako orban baga-ko bildotza da bere argia, eztago an gaurik, ezpada beti eguna; eztago uri

atan ez goserik, ez egarririk, ez otzik, ez berorik, ez nekerik, ez negarrik, ez zizpururik, ez gatxik, ez eriotzarik, ez bildurrik: guztia izango da betiko poza, atseгина, barrea eta olgurea. An enzuten dira musika zoragarriak, kanta gozoak, soñu barriak, Jaungoikoaren alabanzak; uri atan bizi direan guztiak dira Erregeak, yakintsuak, aberatsak, eta milla eguzki baño ederragoak. Eta alan, agertuko balitz zeruetako Santu bat mundu onetan an daukan argitasun eta edertasunagaz, asko izango litzateke eguzkia ilunduteko, eta ain egongo ginatekez kokoturik berari begira ze, ez geunke komuta izango ez yatekorik, ez edatekorik, ez lorik, gure gurari guztia berari begira egotea izango litzateke, eta usteko geunke ya gagozala zeruan. Zer izango da, barriz, ainbat milla millinoe ikustea, bakotxa eguzkia baxen argiagorik? Batetik Patriarka eta Profetak, bestetik Apostoluak eta Martirak, emetik Konfesoreak, andik Birjinak, guztiak gure adiskide maite eta laztan eginik. Ain da andia alkarreganako daukeen amodioa ze, eztago amarik bere semea ain maite dabenik, zein Santu aek arkal maite direan. Eztago an aserrikerik ez gorrotorik, ez ezin alkar ikusirik, ez eta otz-tasunik bere; guztia da amodio bizia, guztia karidadea, ongurea; geure gorputz eta arimaak egongo dira kontentu, atsegin, poz eta olguraz aserik, iños bere galdu baga.

3. Gere begiakaz ikusiko dogu Jaungoikoaren Ama: baia zelango edertasunagaz? Mundu onetan bizi zan artean ain zan beneragarria ze, S. Dionisio-k ikusi ebanean, arriturik eta mututurik geratu zan, eta esan oi eban ze, fedeak erakutzi ezik, ez egoala Jaungoiko bat baño, usteko ebal Jaungoikoren bat zala. Zelangoa izango da bada orain daukan edertasuna, eta ze poza artuko dogu bera ikusiagaz? Ama guztiz Santa au biziko balitz mundu onetan, zer egingo ez geunke bera ikustearren, beragaz berba egitearren, eta beragaz etse baten bizi izaitearren? Bada mundu onetan bera ikusiagaz euki zinaikean zori-ona ezta ezer, zeruan eukiko dozunen aldean; ez bakarrik ikusiko dozu, ez bakarrik biziko zara beragaz etxe baten, baita bere izango zara beragaz adiskide, maitetu, edo amaduko dozu bera, bere seme bazina baño bere geiagorik. Baia guztien ganetik, zer izango da Jaungoikoa bera arpegiz arpegi ikustea, bere yakituria, eskubide, arteztasun, santidade, ontasun, eta beste perfeziño guztiakaz? Antxe ezagutuko dozu zelan dan Trinitadeko misterioa, Aitea, Semea eta Espiritu Santua, iru persona eta Jaungoiko egiazko bat: zelan yazo zan Enkarnaziñoko misterioa, zelan dagozan orain J.K°.gan izaite edo naturaleza bi eta Persona bakar bat, eta beste misterio orain ezautu al doguzanok. Bera-gan ikusiko dogu ispillu argi baten legez mundu guztia, lurra, itxasoa, zeruak, izarrak, eta beste dagoan guztia: ezagutuko doguz izan direan, ta



izango direan gizon guztiak, eta beingo baten esatarren, ezta aurkituko guk yakingo eztogun gauzarik. Ain izango da andia gure yakituria, ze bere parean munduan izan direan eta izango direan Filosofo, Teologu eta beste gizon guztien yakituria ezta kea baxen. Eta, ze argitasun eukiko ez dogu, edo etorriko ez yaku Jaungoikoa arpegiz arpegi ikusirik? Moises egunen batzuetan Aingeru bategaz egon zalako, ainbeste argi eta arraioz beterik yatsi zan menditik, ze ezin begiratu eutsen Israeltarrak arpegira, ezin sufridu ebenen euren begiak ainbeste argitasun, eta orregaitik eurekaz berba egingo beeban, pañulu, edo zapi bategaz estaldu bear izaten eban arpegia. Bada ainbeste argitu bazan Moises-en gorputz astun ta ilkorra, zelangoa izango da geure gorputz eta arima ilkortasun ta astuntasun bagaak eukiko dabena Yaungoikoa berbera ikusiagaz? Argitasun au moduren baten adierazoteko S. Paulo Apk. dirausku elduko gareala Jaungoikoaren argitasunaren irudi izaitera, bada bere argiagaz beragaz argituko gara, burdina bat sutegei baten sartuten danean legez, zeinek eztirudian burdiña, ezpada sua bera. Alantxe bada gorputzak ezta irudiko gorputz ilkor astun eta iluna, ezpabere Jaungoikoa bera. Eta alan diño S. Juan Ebanjelisteak agertu dakigunean Jauna bera leezkoak izango gareala, ikusiko dogulako bera dan moduan.

4. Andia bada bere gloria au, ez litzatekez orregaitik beragaz kontentu egongo borondatea, beti betiko izango dana ezpaleki, ze galduteko bildurak mingoztu eta garraztuko leukez bere poz eta atsegin guztiak, mundu onetan yazo oi dana legez. Euki begiz gizonak gura dituzan gura-ri guztiak, ondasunak, diruak, yanariak, musikak, osasuna, indarrak eta asmau al leikezan olgurak, eldu bedi Errege, edo Aita Santu izaitera, ez begi euki gatzik, tristezarik, nekerik, lanik, ardurarik, areriorik, otzik, berorik ez pena emon al leion gauzarik; bada ez direala betiko izango yakitea da asko tristetuteko; bere bizi guztiko izango direala, eta eun urte biziko dala bere, ezta asko miñ eta neke au gozatuteko. Baia zeruko ondasunak eztauke onelango bildurrik. Daki an dagoanak eztireala iños gitxituko, eztireala iños akabaduko, eta eztireala iños galduko; beti beti Jaungoikoa dan arte guztian egongo dala poz eta atsegin artean gozo eta olguraz (beterik) aserik; bere sentiduak artuko dabeen gozotasuna, ezin miñek azaldu ta esplikaui lei; begiak J.K°.ren gorputza, bere Ama guztiz gozoa eta ainbeste milla millinoe Santu zoragarriak ikusiagaz. Belarriak soñu gozo musika eder eta Jaungoikoaren alabanza miraarigarriak enzunagaz. Surrak Santuak emongo dabeen usain gozoagaz, eta beste gorputzeko alde guztiak esan, enzun, eta pensadu bere ezin al eikezan atsegin eta kontentuekak. Bere entendimentua edo adina zeruan eta munduan gizon, eta

Angeru artean yazo dan guztia ezagutuagaz. Borondatea Jangoikoa, Santu eta Angeru guztiak maite izanagaz, eta memoria beragaz yazo dan gomuteagaz. Mundu onetan egin dituzan pekatuak eurak pozez beteko dabe, bada ikusiko dau Jaungoikoak beragaz euki daberrukitasuna, bada ezta gura izan galdu dedin bere pekatuak merezidu ebeena legez. Infernuko pena ikaragarriak geiagotuko dabe bere gloria, ezaguturik zelango su, ala, neke, eta tormentuetarik atara daberrukitasuna; ze asko ta asko yausi egin dira an berak baño pekatu gitxiagogaz. Berba baten, eukiko dau on guztia nekeren apurrik бага, osasuna gatx бага, poza neke бага, aberaztasuna pobreza бага, asetasuna palagu бага, edertasuna ezaintasun бага eta gloria osoa azken бага.

5. O Kristinauak, ze zabala den Jangoikoaren etxea, eta ze luzea bere aziendea! O geure Jaunaren bizilekua! O Errege andiaren Yauregi ta Palazioa! Gauza andiak esan dira zugaitik. Eskritura Santeak, Elexako Aita Santuak eta Yakintsuak aletin guztizko andiak egin dituez adierazoteko zure edertasuna, zure anditasuna, eta zukan dagozan ondasun txitozko ugariak; baia guztiz geratu dira labur, eta euren esan al guztiak ezta zure gerizea bere. A ze maitegarriak direan, Jauna, zure etse bizitzak! Nire ari-mearen guraari ta gogo guztiak dira ortxe bizi izaitea; nire aragi eta biotza pozez betetan da ortxe biziko dalako usteagaz. Bedeinkatuak, Jauna, eta zorionekoak milla bider zure etxean bizi direanak, beti beti egongo dira zeu alabetan. Gauza bat, neure Jaungoikoa, eskatuten deusut, eta auxe bakarrik billatuko dot, eta da zure etsean bizi izaitea, ikusteko zure maitelarentzat gorderik daukazuzan atsegin,poz eta gozoak. Kristiñauak, ez gara biztuko bear egiten Jaungoikoagana eltzeako, beragaz batera bizi izaiteko? Geiagotan eukiko doguz bertatik igaroiten direan munduko guraaren apur puska oneek, arako zeruko poz ta alguraak baxen? Ai ze zoroak garean! Mundu onetan dakuzkuna da gaur alegre bagagaz, biar triste gagozala; orain osasuna badaukagu, gero gexo gareala, gaur aberats bagara, biar pobre gagozala; eztago ordu segururik, barrea eta negarra, gozoroa, ta zizpurua nastaurik dabiltzaz, eta orregaitarren bere, guraari guzurti oneek gaitik nekatuten gara, eta arako beti betiko gozo ta argitasunak gaitik, eztogu arean egin gura, pausutxu bat emoitea astun egiten yaku. Zorakeria auxe adietan emoitea izango da



Bigarren zatia

6. Ikusi dozue igaroko Domekeetan ze larria dan eriotzako ordua, ze estua Juizioan emon bearko dozuen kontu zeatza, ze ikaragarriak infernuko min eta alak, eta ze miragarriak zeruko poz eta atseginak. Zer falta da bada? Zeurok eskojidu dagizuela zer gura: ala betiko zori onekoak izaittea zeruan, ala adu gogorrekoak infernuan. Zuen eskuan imini deutsue Yaungoikoak ura eta sua, diño Espiritu Santuak; nora gura ezarri eskua, eta alan kontentu bazare ez iñoen erru imini; zuen guraz, eta zuek autu ta eskojiduta kondenaduko zare. Zer nai dozue, bada, orain? Zer eskojietan dozue? Deritxat Elexa onetan zagozan guztiok diñozuela zerua eskojietan dozuela, salbadu gura zareela. Auxe diño Elexa Santearen seme guztiak, eta auxe esan oi ebeen orain infernuan dagozan Kristiñauak bere mundu onetan bizi zirean artean, eta sinisturik egozan elduko zireala nox edo nox Jaungoikoa arpegiz arpegi ikustera. Baia ezteutsue guraari, edo gura-iski oneek balioko aei euren itxaromena ta uste osoak balio ez eutse-na legez. Ai ze zoroak garean, Ne.Ea.Mk., izanik ain erraz zerura eldutea, geuk gura dogulako ango gloria galzea, eta geure borondatez infernura yoatea, izanik ain bigunak, ain leunak zeruko bideak, eta ain gogorrek, ain garratzak, eta ain okerrak infernurakoak! Au alan eztala baderitxazue, eta astunak egiten baiatzue Jaungoikoagana garoazenak, begiratu baño eztaukezue ze nekeak igaroten dituezan kondenaziñoko bidetik dabiltzazanak, ze atsegin, eta pozez beterik zerukotik doazanak, eta ezin ukatu izango dozue dirautsuedan egia. Ze ardurak darabiltz iñoena kendu gura daben lapurrak ezagutu eztaien, edo artu eztaien! Galduten dau loa, galduten dau gaua, gaurik ilunena, edo euritsuena benturaz, eskojietan, ta aututen dau onetarako igaroten dituz euriak, edurrak, izotzak eta indriskak, eta orregaitio bere bildurrez beterik dago; beti dago begira iñor agiri ete dan, zaratatu bat bada, betetan da bildurrez eta eztago seguru gauzea ezkutadu ta ostendu artean. Baita, deritxazue gura daben gustuagaz eta bakeagaz euki edo gozaduko dabela osturiko gauzea? Ai, En. Ek., beti dago bildurrez yakingo ete dan ala ez nor izan zan lapurra, ezagutu ete daben yaubeak falta yakana; justiziak ete dakian, eta lapurtzat artuko ete daben. Ain izango da andia eukiko daben bildurra, ze bertatik gurako dau ostu ezpaleu. Guzurren bat erantetan bada, falso testimoniorik eregiten bada, edo guzurragaz yuramentu egiten bada, eztago atseginik, sarri loa galtzen da, (egunez eta gauaz) gau ta egun dago pensetan zabalduko, eta igarriko ete deutsee, artuko nabe guzurrean. Ardao zalea bada, ze alegin,

eta asmuak zegaz edan topetako; ze gauak, ze estropezuak, ze lupatzak, ze buruko minak, eta ze nekeak. Lar bere yakinak dira pekatu loietan dabiltzanen nekeak, galduten dira gau osoak, eguraldi gogorrek eta denpora kruelak gurari zitai bat eukitearren. Ze ardurak zein iñok ikusi daizan, eta gero gustuak alkanzadu ezkerro, ze bildurrak yakingo ete dan ala ez; seindun bada ala ez; eta agertuten bada, nekeak, auziak, ezin ikusiak, onrea galdurik, eta beste milla naibage. Gatz lotsarizkoz betetan bada, zelango minak, eta alak urte osoetan kuretan eta beste burutik beatzetarako neke guztiz yakina, eta bear litzatekean baño ezagunagoak. Zabaldu egizuez beste kondenaziñoko bide guztietatik begiak, eta eztozue bat bakarrik aurkituko garratz eta astun eztanik.

7. Baia daigun kontu onelango bildur бага eukiko dozuzala gura dozuzan guraariak, eztitu iñok yakingo, eztozula iñoen ardurarik eukiko, eztozula eurok alkanzetako ardura edo nekerik eukiko, eta bete beteanean eurakaz aseko zareala. Bada ara, eztozu orregaitik bere bake osoan eukiko, edo gozaduko: antxe aurkituko dozu zeure zelataririk eta salatzailek (andiena ta) gogorrera, zein dan zure konzienzia; eztago bera baxen borregu edo berdigu kruelagorik, diño S. Juan Krisostomo-k, beti beti dago aginka, beti usigiten, beti yaten pekatariaren biotza, ezteutsa bakean isten etsean ez kanpoan, kalean ez elexan, oian ez maian, gauez ez egunez, ez beste leku ez ordutan. Batu egizuz al daizuzan dibersiñoak, eta yolasak, komediak, zezenak, dantza eta sonuak, yanak eta edanak, yokoak eta berba-aldiak: bada eztozuz ixilduko zeure konzienziako arraren dea-darrak. Nox pozago zagozan naienez dozun gauzeetan, asmaduko dozu bere aginkada kruela eta garraztuko dituz zeure gusto guztiak. Alantxe yazo yakan Babilonia-ko Errege Baltasar-eri: ain zirean gogor eta sendoak bere konzienziako deadarrak ze, ezin iñondik bere ixildu zituzan. Eukazan ondasun ugariak, musika genero guztikoak, Yauregi edo palazio arrigarriak; zan Errege andia, egoan maian erregalu artean, yanari eta edaari gozoz inguratutik ta emakumez beterik, eta etxakon falta gizon batek mundu onetan gura al leikean gauzarik. Alan-da guzti, pozgarri guzti onek etzirean asko izan kentzeako bere biotzeko neke, arantza ta usikadak. Eukazan ainbat milla gizon bere agindura. Soldadu sendoak gordetan ebeen, eta orregaitik bere egoan bildurrez beterik, eukan arpegia kolore бага, bere pensamentu tristeak zatituten eutsen biotza, eta ikara dar dar ebiltzan bere belaun ta kaderak, diño Eskritura Sagraduak. Baita, zerk bildurtuten eban onela? bere pekatuak. Ain zan ikaragarria Antioko Erregeari Jerusalem-en egin zituzan pekatuen gomuteak emoiteneutsan tristezea, ze ezin iñondik bere poztu zan, ez eukazan ondasunak,



ez inguraten ebeen soldaduak, ez irabazi zituzan bitoriak, ez Errege izai-teak emon eutsan atseginak egosikaturik, ezin lorik eginik, ezin oean bere egon zala, eta berak konfesetan ta autortuten eban gax ta neke oneek emoitene eutzazala bere konzienziako arrak. Zetara eldu zan Judas mada-rikatua? Ezin eroanik bere konzienziako arraren deadar eta aginkadak, astun egiten yakan bizia, eta arinago ta erongarriago egiten yakan eriotza itsala, deadar oneek enzutea baxen, eta alan eldu zan bere burua urkatu-tera.

8. Ez gaitezan, Kk., ain urrin yoan egia au ezagututeko, zeurok zaree testigurik asko. Esan egidazue egia, zelan aurkitu zaree pekatuen bat egin dozunean? Ze tristeza sentidu dozue! Ze iluntasuna, ze pisua, ze astunta-suna! Dibersio, yolas, eta olgurarik andienen erdian etzengozen gogo bagarik? Etzenduezan asmetan zeuen barru barruan konzienziako ots eskerge batzuk, zeintzuk garraztuten eutsuezan zeuen gusturik andienak? Eta pekatuan zagozela ikusi bazare iños gerran edo eriotzako pellebu-ruan, ze ikarak biotzak! Zer emongo zenduen pisu eta astuntasun au bagarik egotarren? Zer egingo etzenduen, zelango tormentuak iragoko etzenduezan, zueganik kendutarren astuntasun au? Aurkitu leiteke au baxen neke andiagorik? Euki dozue iñox bildur andiagorik? Orregaitik diño Jaungoikoak berak: Pekatariak iñok yarraitu bagarik, dabil iñesi. Bai, Ka., gura ta gur'ez autortuko dozu Dabid Erregeagaz, zure pekatua beti beti dagoala zure kontra. Baia konzienzia garbi dagoanean, ze poza, ze atsegina! Mundu onetako yolas, ondasun, erreinu eta zorion guztiak ezti-ra ainbeste onelango atsegin eta alegriarik emoitoko.

9. Ezpabere, esan egidazu arako nosbaist pekatuan egon ezketiño, al daizun ondoen konfesadu zareanean eta zure arimatik pekatuen karga pisutsua bota dozunean, zelango poz, zelango atsegin, zelango olgurea sentidu dozu? Emon deutsu eguño onelango argitasun eta alegriarik beste gauzak, ez ondasunak, ez konbitak, ez fiestak ez gurarik. Gura ta gura ez konfesadu bear dozu egi au. Izan bere grazian dagoanak Jaungoikoa dauko beragan, eta Jaungoikoa daukanak dauko beragan zorion guztia; eta orregaitik nekerik andienak, premiñarik estuenak, eta gaxik gogorre-nak pozgarri biortuten yakaz. Alan ziñoan S. Paulo Apk.: Jaungoikoa gure aldetik euki azkero, nor yagiko da gure kontra? Nok edo zek gax egin lei-kegu? Ez agintariak, ez Erregeak, ez bizitzeak, ez eriotzeak, ez ezpateak, ez suak, ez Demoniñoak, ezta infernu guztiak bere. Enzun egizue orain-do zer ziñoan Apostolu andi onek beronek. Ain izan dira andiak eta gogorrek Asia-n igaro bear izan dodazan gaxak ze, ozta ozta eroan izan dodaz, eta ainbestean estutu nabe ze eneukan bizi izaiteko bere gogorik.

Alan-da guzti bere poz andi bategaz igaroiten nituzan neure barruan, konzienzia garbirik neukalako; ze nire gloria guztia konzienziaren esana da. Ikusi egizue auxe berau Patriarka, Profeta, Apostolu, Martiri... Zer diñot? Emakume, eta donzella gazte eta argaletan egin zituezan Errege arro, eta agintari kruelak egin alak bildurtuteko euren biotzak; baia etzan asko izan euren eskubide guztia; ezpata, berun edo plomo siotsu urtua, laba exetu, eta beste milla asmu kruelak etzirean euren poza geiagotuteko baño: geiagotuten badira tormentuak, aziten da euren atsegina; zeinbat eta su geiago artuten dabeen borrreru, eta Demoniñoaren arrabiak, ainbat eta arpegi argiagagaz dagoz min eta ala ikaragarrien erdian: parrilla gorietan dagoz, oerik bigunenean balegozan legetxe. Sugar bizien erdian aurkituten dira larrosa artean balegozan legetxe, eta mairik ugarienean ez litzatekez ain pozik egongo, zein dagozan euren aragiak zatitu eta urratu-ten deutseezanean. Eta, zetatik datorkioe sendotasun, eta poz au? Euren konzienziako garbitasunetik.

10. Orain bada, Ne.Ek., ikusi dozue ze erreza dan zeruko bidea, ze pozik dabilatzazan bide onetatik doazanak, ze gogor, latz eta garratza infer-nukoa; eta orregaitio bere gura dogu aldats pika eta gaxtatik yoan infer-nuko su ikaragarrietara, bide leun eta bardinetatik zeruko atseginetara baxen? Non dago au baño zorakeria andiagorik? Non au baño itsumendi ilunagorik? Idigi daiguzan nos edo nos geure arimako begiak, eta baderi-txagu oraindio bere bear gitxiago egiten dala infernurako bidean, zerura-koan baño, begiratu daigun zer aginduten deuskun zerua alkanzetako eta zer egiten dogun mundu onetako galduko direan gauzak gaitik, eta ikusi-ko dogu ezteuskula eskatuten biar itxiko doguzan ondasunak gaitik egiten dogun laurenik bere. Jangoikoak eskatuten ez deusku bere mandamentua gordetea baxen, eta onetarako eztaukaguz zer artu geure ganean mun-duan iragoten direan lanak: Diru piska bat irabazi gura dabenak, ze lanak igaroiten dituz! Gau ta egun dago pensetan nondik nora geien irabazi daian. Igaroiten dituz otzak, beroak, leiak, edurrak, indiskak, ekatxak; artuten dituz ibilera luzeak eta neketsuak, eta (fiadurik) iminirik bizitzea olen batzuren pensuan, botetan dau burua itxasoaren erdira. Arakatuten dau mundurik erdia eta alanbere irapazi on bat ateraten badau, pozik ira-goten dituz izerdi eta neke andi guzti oneek. Baia irabaziko bada indul-jenzia, edo parkamen bat, edo egingo bada beste obra onen bat, guztia da nagitasuna, guztia atserabidea; ezin konfesetan yoan leiteke, otz egiten dau, eta bat goxetik ezpadoa, egun guztia galdu bear da.

11. Auzi bat badago, zelango ibilerak, zelango enpeñuak! Ondo urtei-teko berba egin bear bada aserre danen bateri, nondik edo nondik bera-



gaz bakeak egiteko aurkituko dau modua. Baia aginduten bada gaiskinen bateri, edo bere proximuari Jaungoikoagaiti parkatu dagiola, eranzuten dau ezin parkatu leiola. «Onrea galdu deust, zer esango dabee nigaitik berbaz beragaz ikusten banaude? Galduko neuke estimaziño guztia». Konbit bat egin bear bada edo beste okasiñoren bat badago, egingo da gastu andi bat, topauko da nondik edo andik, gero beste gauzaren baten gitxiago gastauko bada bere. Baia limosna bat egin bear bada, zorrak kitutu ta pagadu bear badira, eztago zegaz, «nekez elduten yat eguneko gas-turako, eta nire moduko persona batek ezin gastadu leike! (gitxiago) yanzi, mai ta etsean». Erromeriarren bat badago, urtengo dau etxetik eguerdiko eguzki beroagaz, igaroko dira aldatsik gogorrenak. Baia sermoe edo beste Elexa edo deboziñoren batera yoan bear bada, «Nok urtengo dau etsetik bero onegaz? Gatxen batek emon leio». Zezenak dagoz? Ea bada aoan kopadua dala, leku bat artzera, arratsalde guztian eguzki begira erretan egongo bada bere. Baia sermoian egongo bada bere yarririk gerizetan, eta atsegin onean bere, «Ze luzea dan! ezin enzun leike». Berba baten, guztia egiten da mundua gaitik, eta ezer egin gura ezta zeruagaitik. Kristiñauak, ain gitxi balio dabela zeruak uste dozue, edo larregi eskatuten deusuela Jaungoikoak? Ikusi egizue zer egin eban berak, eta lotsaturik geratuko zare. Begiratu egiozue burutik beatzetara. Ara zelan dagoan zauri andi bat eginik. Eta, zegaitik dago modu onetan? Guk zerua artu daigun. Egin dozu zuk beste onenbeste? Ezin esan zinaike; eta orregaitik bere, astun egingo yatzu, aginduten deustun puskea egitea? O gizonaren biotzaren astuna! Nos artean egongo zare gogorturik zeuen ekandu gaistoetan? Nos artean euki gura dozue zuen ganean pekatuaren pisu eskergea? Erdue, Jaun onegana eta beronek kenduko deustue zeuen karga ikaraga- rri ori; baia erdue zeuen biotzeko damu andi bategaz, eta negarretan urtu- rik esan egiozue bene benetan: Neure Jesukristo Jauna.

9. ZERUKO GLORIA

(A, 1-10. or.)

Satiabor cum apparuerit gloria tua.
Psalmo. 16.v.15

Mundu zabaleko gizon guztiak onduteko asko dan egia miragarri bat erakutsi gura deusuet gaur: eta da eriotzea ezker, betiko zeru eder bat egongo dala oneentzat. Onek beti betiko kontu onek, onduko leukez gizon guzti guztiak, gogoan sarri balerabille. Berau da asko, ez bakarrik sinistu eragiteko, egin errazak direala Jaungoikoaren lege santua, eta bere agindu guztiak; baita bere arinak nekerik andienak, eta penitentiariak bil- durgarrienak. Eztago itandu baño Dabid Errege Santuari, ea zer yazoten yakan, beti iraungo daben gloria au gogora etorzean? Berak erantzungo deusku, zelan gauak artega, loak ezin arturik, igaroten zituzan: Zelan bere begi bietatik negar- anpullu beroak zara zara erioan, eta Jaunari esaten eutsala: «Ezta asetuko, ez beteko neure biotz au, ene Jaungoikoa, zeu glo- rian ikusiartean». Modu onetan berba egiten eban Dabid Errege Santuak. Ikusten zan mundu onetan euki al eikezan zorionen artean, etxakazan falta ez ondasunik, ez ondarririk, ez beste gauzarik. Zan Errege andi bat, bere menpekoak maite ebana: alan bere ekusan bere biotzean utsuna andi bat Jaungoikoagaz beragaz baño beteko etzana; eta gogoratutean bizi zala mundu pelleburuz, eta arrilabanez beteriko baten, eta laprast egin, yausi, eta galdu leikeala ainbeste gura ebana, ezin bakerik euki eban bere bio- tzak, arik eta zerura yoan artean.

Gura neunke, neure entzula maitiak, arratsalde onetan zuen biotze- tan onelango gurari bizi bat erantsi. Onetarako gura neuke erakutsi, zelan- goak dirian ango gozamenak, ango edertasuna, ango aberastasuna, ango pozkaria, eta betiko iraute onegaz onak obetu daitezcan, eta deungak, eza- guturik euren alboan ezer eztiriala mundu onetako gauzak, onek itxia, zerukoen ardura andi bat artu dagien. Bakit au bear dan moduan ezin nei- keana, bada Sn. Pablok dirausku ze, iñok eztabela eguño ez entzun, ez ikusi, ez yakin zer izan leitekean zerukoen gloria. Baita bein baten Sn. Jeronimok Sn. Agustini, zeruko gloriaren ganean eskribietako usteak eukazala, zerutik agertuta esan beutsan: Ze uste darabiltzu, Agustín? Deritxazu adierazo zinaikeala ez zer dan gloria, ezpada santurik txikienak daukan pozik puskeena bere? Yakin egizu errezago izango yatzula itxaso-



ko ur guztia zulotxu baten sartutea, gogo orregaz urtetea baño. Bada orain nik santu onen yakituriaren gerizarik bere eztaukadala, eta beste aldetik pekatu askogaz neure adimentua ilundurik, zelan adierazoko deusuet zer dan zeruko gloria? Dana dala zerbait esango al deusuet, eta alan nire sermoigeki guztia izango da, erakustea 1º Jaungoikoak ze gloria andia daukan gorderik bere legea gordetan dabenentzat. 2n. Zer egin bear dozuen gloria au irabazteko. Entzun bada gogo gogotik.

Zerbaist adituteko, zer izan leitekean zeruko gloria, ondo izango da gogora ekartea Saba Erregiñari Salomonegaz yazo yakana. Erregina onek Salomonen anditasunaren ganean txito gauza andiak entzun zituzan bere errian; eta ezin sinisturik ainbeste izan leitekeala, yoan zan Jerusalemara bere begiakaz ikusteko egiak bazirian entzun zituzanak. Baña Salomonen aurrera eldu zaneke, konorte, eta sentidu bagarik legez geratu zan. Ikusi zituzan ango etse ederrak, eta yardin politak, ainbeste kriadu guztizko yazteko ederrakaz, eta ango ezin esaneko ondasunak; entzuten zituzan ango musika pozgarriak; bere surretara etorkazan ango usain gozoak; yaten zituezan ango maiko guztizko yanariak; eta erdi kokoturik ainbeste ikusiaz esan eban: «Bedeinkatua modu onetan imini zaituzan Jaungoikoa, eta bedeinkatuak zure aurrean dabiltezanak, eta zure yakituria entzuten daben kriaduak, eta otseñak. Asko entzun dot neure errian; baña ezta izan ikusten dodanaren erdia bere, eta ez neuke sinistuko ikusiko ezpaneu». Auxe baño asko geiago yazoko yake onai zerura doazanean. Entzun izan dabe zeruan alango edo olango gozamina eta pozak dagozala! Baña glorian sartu orduan esan bearko dabe, ez Saba Erregina legez, eztala izan erdia; ezpada eztala ezer izan, entzun dabena, an ikusi dabenerako.

Zeruan ikusiko da, diño S. Juan Ebanjelistiak, lau aldeko uri txito zabal, eta eder bat, guztia urregorritzkoa, ain garbia, eta ain argia zein da kristalik garbiena; bere inguruko ormak dira diamante, eta beste arri baliosokoak, ate bakotxa da prezio baako margarita bat; eztauko uri onek eguzki bearrik, bada Jaungoikoak berak argituten dau, eta arako orban baako bildotza da bere argia; eztago uri onetan gaurik, ezpada beti eguna; eztago goserik, ez egarriarik, ez otsik, ez berorik, ez nekerik, ez zippururik, ez eriotzarik, ez bildurrik; guztia izango da betiko poza, atsegina, alegria, barrea, eta olgurea. Uri onetan bizi direanak guztiak dira Erregeak, Yakin-tzuak, aberatzak eta milla eguzki baño ederragoak, eta alan agertu balekigu zeruko santu bat, an daukan edertasun guztiagaz, kokoturik berari begira egongo ginaitekez, ainbestean ze, ez geunke beste gauzarik gomuta izango, eta usteko geunke ya zeruan gagozala. Zer izango da bada ainbeste milla millinoe ikustia? Bateti Patriarka eta Profetak, bestetik Apos-

toluak eta Martirak, emetik konfesoreak, andik Birjinak, guztiak gure adiskide maite eta laztan eginik?

Eta, zer izango da ikustea Aingeru, eta Santu guztien Erregina, Jaungoikoaren Ama Maria Sma? Oraindiño geiago, zer izango da ikustea Jesukristo berbera, Jaungoiko eta gizon egiakzkoa? Zerura doianak, bada, oneek guztiok ikusiko dituz gloriak, eta edergarritz jantzirik. Zelangoa izango da, bada, orduan bere poza? Orduan bai esan bearko dabela, gauza andiak esan yakuzan zeruagaitik; baina ezer eztira izan ikusten doguzanarako. Bardin yazoko da beste gorputzeko sentzun guztiakaz: euren belarriak, alako murmuraziñorako, berba loi, eta labanetarako sarraturik egon zireanak, eta guztiz zabalik entzuteko pobreen eskariak, konfesoren eta predikadoreen esanak, eta Jaungoikoaren berbak, an beti beti entzungo dituez Angeru eta Santuen kanta eta soñu miragarriak. Arako eskuak ainbeste limosna egin, geisoai lagundu, eta beste karidadeko (obrak) gauzak egin zituenak, an eukiko dabe zetro bana, eta artuko dabe zeruko erreinuaren posesiñoa. Arako buruak mundu onetan ainbeste pensamentu, eta gogo santu, eta ainbeste ardura obligaziñoakaz kunplietako izan ebenak, an eukiko dabe koroe eder bana. Baña, nos amaituko neuke esan bear banituz Eskritura Santuetan esaten yakuzan zeruko gustu, olgantz, atsegin, eta pozkariak? Ikusten direanean modu onetan, esango dabe, S. Pedro Alkantarakoak legez: O zorioneko penitenzia! O zorioneko neke, eta penak, onenbeste gloria ekarri deutenak! Etzirian ezer onenbeste atseginerako.

Zer diñozue onetara, neure entzulak; izango dira zuentzat atsegin guzti oneek? Yakin gura badozue, entzun, ez niri, ezpada Jaungoikoari berari: neu serbietan nabenak yango dabe zeruan Mana, eztia baño gozogo dan yateko bat; baña pekatariak igaro bearko dabe gose arrabiadu bat. Onak edango dabe gustuz beteriko edari bat; baña pekatariak eukiko dabe egarri amurrutu bat; onak alabaduko nabe santuen laguntzan; baña pekatariak deadarrez, txilioka, eta garraxika doloreen dolorez infernuan egon bearko dabe. Etzaiteze engañau, esango deusuet Sn. Pablogaz: bakotxak bizitza onetan eraiten dabena, orixe artuko dau eriotzan: aragian eraiten badau, aragitik artuko dau usteltasuna. Yakin egizue bada, eztiriala zeruan sartuko, munduko zorakeriatatik iges eginda, Jaungoikoaren gauzeetan ibili gura eztabeenak; yakin egizue ze, arako begiak, orain ain zabalik dagozanak gauza loietarako, eta pekatuen okasiñoetarako, ezituezala ikusiko, ez zeruko yauregi (ederrak) urregorritzkoak, ez bertan bizi direan santu santaak; arako belarriak orain murmuraziñorako ain zabalik dagozanak, geratuko dira zeruko kanta miragarriak entzun bagarik; arako



eskuak orain gauza loietarako baño eztireanak, eztauke zetan usterik izan, zeru-ederraren posesiñoa artuko dabeela; bakar bakarrik izango dira oneek gauzok, edo errubakoentzat, edo pekatu egin badabe, penitentziaren bidez garbitu direanentzat. Alan bada, pekatariak, edo zeuen bizitza aldatu eta ondu, edo errazki agur egingo deutzazue zeruari: agur santu-santai, agur Maria SS.meari, eta agur Jesu-Kristori, ze eztira pekatarietzat zeruan gorputzerako dagozan gozamenak, ezta orain esaten noatzuezan arimakoak bere.

Ona eta justoa, diño Eskritura Santuak, uste eban baño leenago ilten bada, bere arimea bakean eta deskantsuan geratuko da. Ozta urten izango dau bizitza onetarik, eta orra non Jaungoikoak eroango daben bere gloriara eta betiko deskantsura. Bere arimeak mundu onetan gorputzean egoanean lokarri asko eukazan Jaungoikoa ezagututeko eta maite-tuteko; baño bein zeruan sartu ezker, gloriako argiagaz sendaturik, ondo erraz ezagutu, eta maite izango dau Jaungoikoa, beti gogoratuko da, esker onak emoteko, berein mesede on bere eskurik artu zituzala. Onegaz bere memoriak, adimentuak, eta borondateak, ezin esaneko zorion, eta gozamenak eukiko dituz zeruan. Memoriak gogora ekarriko dau gauza onetan igaro zituzala Jaungoikoak emon eutsazan indar eta graziak. Ze poza ari-mearena gogoratuten danean bere ondasunak emon zituzala pobre askoren sokorruan! Ze poza gogora dakarrenean sakramentu santuak sarri artuta, bere obligaziñoak ondo bete zituzala! Ze poza guraso batena gomutetan danean bere exenplo eder eta azi-bide onagaz zerurako azi zituzala seme-alabak! Ze poza seme batentzat gogoratuagaz arduraz egin zituzala gurasoen esan eta agindu errazoezkoak! Ze atsegina eta gloria zeruko justoentzat, yakinagaz etzitezala alperrik artu euren arimak, Jaungoikoaren argitasun eta laguntasunak eurakaz egin zituezala obra on asko, pazienziagaz eroan nekeak, benzidu tentaziñoak! Orduan bai alabauko dabela Jaungoikoa, eta bedeinkatuko dabela bere izen santual!

Adimentuak, barriz, ikusiko dau Jaungoikoa aurrez aur, arpegiz arpegi, eta bera dana legez. Ezagutuko dau zelan berba bakar batez egin zituzan ezer ezetik gauza guztiak, eta zelan berak iraunerazo eta gobernetan dituzan. Ezagutuko dau argiro zelan izan leitekean Jaungoiko bakar bat baño ez izanik, iru persona izatea; zelan dan enkarnaziñoako misterioa, eta beste emen sinistu zituzan, eta Eskritura santetan sartuta dagozan misterio santu, eta egiak. Yakingo dituz filosofia, Teologia, istoria, eta beste zientzia guztiak. Mundu onetan bizi garean artean, burua ausi eta nekatu ezker bere, ozta dakigu egia zierturen bat, Jaungoikoak esan deuskuzanen ganeti. Batzuk diño bat, beste batzuk beste bat, eta onan-

go ezda-baidetan bizi gara iluntasun eskerga batzuen artean; baño an ezta alan izango, zegaitik eze bein Jaungoikoa ikusi ezker beragan ikusiko dituez ispillu argi, eta garbi baten legez, beste gauza guztiak. Andiak dira izan bere gure adimentuak, eta memoriak zeruan artuko dituezan poz atsegin, eta gloria; baño eztira txikiagoak, eta alde batera andiagoak dira gure borondateak eukiko dituzanak.

Eztago asetuteko gauza gatzagorik gure borondatea baño: au da egunean egunean ikusten dogun egia bat: zegaitik eze eztituez betetan bere utsunak, ez ondasunak, ez yakituriak, ez olgantzak, ez ezek; beti geiagura, beti gose. Baña santuak zeruan sartu deitezanarako, eta Jaungoikoa ikusi daienerako, beteko dira (bere) euren utsuna guztiak, asetuko dira, eta eztira geiagoren billa ibilliko. Jauna, ziñoian Sn. Agustinek, Jauna zukanako egin ginduzuzan, eta ezin bakerik euki lei gure biotz onek, zeugan egon artean. Orduan Jaungoikoa argiro ikusi ezker, geure borondatea isioko da amodiozko su erexegi baten, eta ezauera, eta amodio andi onegaz, pozez eta atseginez beteko da arimea ganez egin artean. Jaungoikoa izango yake zerukoai gura daben guztia, diño Sn. Pablok. Eta au zegaitik? Itanduten dau Sn. Agustinek, eta berak erantzuten dau, Jaungoikoa izango dalako arimientzat mundu onetan billatuten eben guztia, izango dalako mundu onetan anditzat eukun guztia. Gura zituezan ondasunak? bada beragan aurkituko dituez mundu onetako aberatz guztiak eukuzan baño ondasun geiago. Berba baten, emen on eretxen guztia, Jaungoikoa maite izanagaz eukiko dabe; onegaz eukiko dituez gozamen, pozkari, atsegin, eta zorion guztiak, eta eztabe iños yakingo zer dan nekea, premiña, gexoa, ez atsakabea.

Andiak badira bere atsegin, eta gloria guzti oneek, ez litzateke eura-kaz kontentu egongo gure borondatea, beti betiko izango direala ezpaleki, bada galduteko bildurrak mingoztu, eta garraztuko leukez bere poz, eta atsegin guztiak, mundu onetan yazoten dan legez. Euki begiz gizonak nai dituzan gurari guztiak, mundu onetan yazoten dan legez. Euki begiz gizonak nai dituzan gurari guztiak, ondasunak, diruak, yanariak, musikak, osasuna, eta asmau al leikezan olgurak; eldu bedi mundu onetako nago-siena izatera, ez begi euki gatzik, nekerik, lanik, ardurarik, areriorik, ez penarik emon al leion gauzarik; bada eztiriala betiko izango gogoratutea da asko, bere biotza tristetuteko. Baña zeruko zorionak, eztauke onelan-go bildurrik: an dagoanak ondo daki, eztiriala iños amaituko, eztiriala iños galduko, eztiriala iños gitxituko; beti beti Jaungoikoa dan artean, atsegin, eta pozen erdian egongo dala. Orain bada, zer deretxazue egin leitekeala zerura yoatearren? zer igaro leitekeala, angok gorputzeko eta arimako



gozamenak eukitearren? Etzagoze egun guztian bear da bear diru apur bat irabaztearren? Etzagoze negu ta uda eguzkira ta eurira, izerdituten eta nekatuten, frutu batzuk, zeuen lengo pobrezan isten zaituezan batzuk artuteko? Eta zeruko ondasun ugari, balioso, eta guztiz aberatz egingo zaituezanak gaitik ain gitxi egingo dozue? ain gitxi? Bai ain gitxi, eta alan erakutsi gura deusuet esatera noian bigarren zatian, zer egin bear dozuen zerua irabazteko.

Bigarren puntua

Etorri yakon Jesukristori bein baten gizon gazte bat, eta itandu eutsan: «Maisu ona, eta, zer egin bearko dot zerua irabazteko?». Eta erantzun eutsan Jaunak: «Zerua gura badozu, gorde egizuz mandamentuak». Orra berba gitxitan Jesukristo berberaren aotik, zer egin bear dozuen zerua irabazteko: mandamentuak gorde: Jaungoikoaren legeko amarrak, Elexaren bostak, euretan sartuten dirianak, eta bakotxaren bizi moduak eskatuten dituzanak. Orreek yagonik, eztozue pekatuak egingo: orreek gorderik egingo dozuez obra onak, eta izango dozue Dabid Errege Santuak beartzala ziñoana; Jaunaren etsera igoteko, eta bere leku santuan egoteko, mandamentuak gorde.

Baña esango deustazue: Ai Aita! ori esaten erraz da, egiten da gatz eze. Bai, alantxe da, eta bakust nik egiten gatz dala. Baña ainbeste balio daben gauza bat irabazteko, ez al dira gauza gatzak egin bear? Munduan bere balio andiko gauzak irabazteko, eztira aldatzak, eta mendiak leundu bear izaten? Oean luze luze egonik irabazten da bizitzea? Alpertzar eginik bizi izanda, berotuten da etsea? Eskuari igortzea da asko auziak irabazteko? Ai! ez. Olangoak irabazteko neke andiagoak artu bear oi dira askotan, zerua irabazteko eskatuten yatzuezanak baño; eta alan-bere orreek artuten dira; eta zerua irabazteko dirianak eztira egin gura, gatz direalata. Ai bada! Zerua irabazteko bazenbiltze osterantzeko gogotik gura dozuezan gauzetarako baxen zindo, ez neuskezue nik esango, ez, eztozuela alegina egiten.

Gatzak direala diñozue. Eta nik geiago dirautsuet: Jaungoikoaren laguntasunak bagarik, bear dan legez egin-ezinak direala; baño Jaungoikoak lagundurik errazak. Sartu bekizue biotzean Jaungoiko orren bildurtasuna; egizuez zeuek-gan dagozanak; eska zakioze Jaunari eskua eta laguntasuna eskariakaz, orazinoakaz, sakramentu santuak sarri-artuagaz, limos-

nak eginagaz, eta alangoakaz, eta alperrik eze, alango ain gatz eresten deusazuen gauzai gatxtasunik geiena yoango yake. Eztira aztutekoak Sn. Agustinen berba eder oneek: «*Amanti suave; non amanti, durum est. Amanti suave est, Dominus dedit suavitatem*». Jesukristoren bustarria Jauna maite dabenentzat biguna eta gozoa da; maite eztabenentzat gogorra. Maite dabenentzat biguna eta gozoa: Jaunak berak emongo dau gozotasuna.

Gauzarik arrigarrienak, eta gogorrenak, gozoak eta eroan errazak egiten dituz iñori asko gureak. Gurasoak zeinbat neke galant ikusi bear eztituz umeak aziteko? Eta alan da guzti, umeai deusn lazintasunak gogoz arrerazoten deusaz ain gogorrek eta luzeak izanda bere. Merkatarriak, itxasoan dabilenak, nekazaleak berein izerdi galant, berein buruko min eder ikusi bear izaten dituez irabazia izateko; baño gauzea gureak, eta etseari begiratu bearrak, umeak leku onetan imini naiak, gogoz eroan eragiten deusez guztiak, gogorrek izan arren. Sortuta biztu beiteke bada zuen biotzean Jaungoikoaganako amodiotasuna, eta gauza gatzak bere errazak eta gozoak egingo yatzuez.

Baita bakizue zein dan amodiotasun ori sortuteko, biztuteko, eta irakazteko bidea? Geure eskuan dagozanak, eta Jaungoikoari ondo eretxiko yakozala dakiguzanak albait geien, eta albait ondoen egitea; edo beste berba batzukaz: zerua irabazteko aleginak egitea. Munduan gagozan artean Jesukristok diñoanez, soloan bear egiten dabeen atxurlariak legez gara. Geure arloa, eta sailla dogu zerua irabaztea, eta salbetea. Eta zelan atxurlariak laborea artuteko bear dituzan bere izerdia, eta zeruko azaro onak, alantxe guk bere zerua irabazteko bear dogu geure alegina, eta Jaungoikoaren grazia, eta laguntasuna. Baña Jaungoikoaren aldeti danak eztau bein bere utsik izaten, geuk geure aldetik danean utsik egiten ezpadogu; eta zeinbat eta geuk alegin geiago, ainbat eta Jaungoikoak bere laguntasun obeak, eta grazia ugariagoak. Egin daiguzan bada salbaziño saillelan lan andiak. Egizuez laietaak, baita zaindu, zeuen bizitzea pekatuakaz luur otz gorri eginik dagoana, konfesiño jeneralen bitartez goikoaz bera, eta barrukoaz kanpora egiten dozuela. Goldatu (exatu), areatu, eta atxurtu egizuez, osteian sarri egiten dozuezan konfesiño-komuniñoakaz, saztu eta zimaurtu errezuakaz, limosnakaz, eta ganeko obra onakaz, eta ikusiko dozue Jaungoikoaren azaro onakaz zelango indarrak, eta gurentasunak artuko dituzan zeuen biotzetan beraganako lazintasunak, eta ze erraz, ze bigun, eta ze gozo egiten yatzuezan leen aitatuak guztiak. *Amanti suave est. Dominus dedit suavitatem*. Baña alperrak bagara, zer besterik izango dogu, ezpada Jaungoikoak alperren soloagaitik diñoana, gure solo guztiak irea, asuna eta sasia izatea? Izango dira bai, baita ugari, pekatu txikiak, pekatu



mortalak, eta arima alde guztietatik Diabruentzat zabalak. Berba baten, zerura gura dabenak, berotu bear dau bere biotza sarritako konfesiño-komuniñoakaz, egunean askotako, edo pitean beingo oraziñoakaz, aleginezko limosnakaz, eta osterantzeko gauza on eginakaz.

Baña zeatzago, eta argiroago erakutsi gura deutsuet zerua irabazteko bidea. Ara onen ganean zer dirauskun Jesu-kristo geure Jaunak: *Quaerite primum regnum Dei*. Billatu egizue gauza guztien ganeti zeruko erreñua. Ez buruko min andirik artu, zer yan, eta edango dozuen, edo zegaz yantziko zareen: zeruan dozuen Aitak ondo daki zuek orreek bear dozuezala, eta berak artuko dau orreen ardurea, eta berak emongo deutsue bear dozue-na. Ezteusku berba onetan galarazoten Jaunak, dirausku Sn. Agustinek, zeruaz osterantzeko ardurea; baño gura dau geure zeruko ardurea beste ganetiko ardura guztiak baño andiagoa izan dedin, eta guztien ganetikoa, eta beste ardurak onetara ekarri daiguzan: «Bakotxak begiratu eta egin leikeez, diño oraindo santuak, etseak, edo lagunak aginduten deutsezanak; baño eztau uste bear ze, gauza bi direala zerua irabaztea, eta orreek egitea. Ez beintzat: eztira bi, bat baño. Zerua irabazi bear da orreek egiten direala; eta orreek egin bear dira, eurakaz Jaungoikoa serbidu, eta zerua irabazten dala». Dotrina ederra beintzat, eta bein bere gogotik, eta begien aurretik yoan bear etxakuna; eta ori egiten eztogulako, asko baño geiago galdu daroagu.

Ez bada, kristiñauak, zerua irabazteko eztozue etseak, ondasunak, umeak, eta guztia itxita mendi bakarretara, edo konbentuetara bearrik: ez alangorik. Etxatzue bere galerazoten beste gauzeen ardurea; eragozten yatzuena da ardura larregia: eragozten yatzuena da pekatuzko ardurea, edo pekaturako bidea eta olla emon leikezuena. Esaten yatzue ze, zeuen dan legezko arduretan Jaungoikoa eta zerua billatu bear dozuela, eginik guztia. Jaungoikoak alan gura dabelako, zeuen obligaziñoia eta egin bearrai erantzutearren, eta deungaro dan gauzarik egin bagarik; edo S. Pablaren berbakaz esateko: «Yaten badozue, edaten badozue, edo beste edozein gauza egiten badozue, guztia egizue Jesu-kristo gure Jaunaren izenean».

Egin bear dozue bideazkoak egin daroena. Bidean dabilen batek yan, edan, lo, berba, eta osterantzeko bear dituzanak egiten dituz. Baña guztiak egiten dituz bidean ibilteko bear dituzalako, edo bai ori galarazoten ezteutsela. Baaki ezer yan, eta edan bagarik, ez leukeala indarrik, ez aginterik izango; geldi aldirik, eta lorik egin bagarik ez leuskiola gorputzak lagunduko. Baita eztituz orreek artuten bere zeregin bakarria edo nagusiena legez; ezpada ze orreek igaropidez, edo bide batez bear bestean egin ezkerro, bere bideari barriro ekiten deutso. Zer? Etzirian ezkonduak eta

gurasoak izan Sn. Isidro, eta bere emazte Santa Maria Buruko? Etzirian ezkonduak, eta gurasoak eta ganeti Erregeak izan Sn. Fernando Española, eta Sn. Luis Franzia? Eztakusguz altara ganetan modu guztiko santuak, gurasoak, umeak; ugezabak, otseñak, soldaduak, tratulariak, nekazaleak, bearginak, eta bestelangoak? Eta, orreek guztiok ez eben zerua irabazi, eta irabazi bere, gurasoen, tratularien, nekazaleen, eta besterikoen eginakaz?

Zelan bada egin bearko dogu, esango deustazue, zeru eder ori irabazteko? Ai bada, entzungo baneutsue biotzerik esaten, Sn. Juan Bautisteari atxina askok esate'eutsen berba ori! Baña batzuk bai, besteak ez, entzun gurako dozue zelan bear dan ori, eta esan bear deutsuet. Ezkondu batek bada egiten dau zerurako bidea, egiten dituzanean Jaungoikoagaitik, Jaungoikoak iminirik daukan moduan, lagunagazko bake ona, umeen azierea, otseñen ardurea, eta etseko ingurua, pekatu direan gauzak galarazota. Tratulari batek egiten dituz zerurako lanak, saldu-erosietan Jaungoikoak erakutsirik daukan baxen garbi dabilenean: iñor neurrian, pisuan, gauzeetan, prezioan engañadu bagarik, lege eztan traturik egin bagarik. Atxurlariak, nekazaleak, beargiñak irabazten dabe zerua, euren lanakaz, izardiakaz, eta yoan-etorriakaz, orreek egiten badituez Jaungoikoagaitik eta Jaungoikoa begien aurrean darabildela. Gazte batek egiten dituz zerurako irabaziak, gurasoen, edo ugaza ugazaba-andren esanak, pekatu etzirianak, Jaungoikoagaitik, eta Jaungoikoarenak balira legez egiten dituzanean.

Aberatza zara, edo esku-artean ondo zagoz? Bada, zer daukazu limosnak egin baño? pobre nekatu ai al dozuna emon; premiñan dagozanak emendatu, orregaz irabazteko Jesu-kristoren aotik entzutea arako alangoak egiten dituzenai esango deutsen berba gozoa, bere zeruan sartuteko? Nekatu argala zara? Bada onean, eta pazienziatan eroan eikezuz zeure meetasunak eta ezunaak, iñoren kontra emon bagarik, zeure arteko bakea galdu bagarik, yakinik Jaungoikoak alantxe gura dabela, eta orregaz irabaziko dozu Jaunak gogoz pobre dirianai agindurik deutsen zorientasun doatsua. Nekepean bizi zara: bizitzarik emoten ezteutsu lagunak; umeak asko erakusten deutsu; barregarri zabiltz iñok deutsun gorrotoaz kalte andiak egiten deutsuzala; osasun txatxarra dozu, edo bear bada oe baten zaukaz Jaunak, oñen ganean egoteko adore bagarik? Bada orra non eskuetara etorri yatzun zerua, eta zeru andia irabazteko bide ederra: eroan egizuz orreek nekeok Jaungoikoagaiti, eta zeure pekatuen zorren alderako, eta orregaz Jaungoikoak daki zelango zerua erosiko dozun. Onelan bada Jaungoikoak imini zaituezan bizi moduan, eta lekuan, irabazi ziñai-



ke zerua, mendietara ez beste leku bakarretara bagarik. Eta berba gitxia-gotan yakin gura badozue zelan zerua irabazi, ara bada: lelengo lelengo, eta guztien aurreti pekatuak kendu, eta arimea garbi garbi erabili: gero egizue kristinau onak egin daroezan gauzatxu onak, eta albait ondoen; eskini eta opa eikiozue Jaungoikoari zuen pekatuen zorren alderako, eta orra berba bitan zerua irabazteko bear dozun guztia.

Itanduko baneu pulpitu onetatik gorputzaren ala arimearen onaren ardura geiago euki bear dogun, deritxat ze guztiok aobatez erantzungo zeuskedala, Aita, Ori nok eztaki? Lenago da arimearen ona gorputzarena baño; bada arimea galduten bada guztia galdu zan, eta eztau ezer balio mundu onetan aberatz, andi eta Errege bera bere izateak, arimea infernua jausten bada. Auxe diño mundu guztiak. Guztiak dauke egia au eza-guturik, baña, orregatik bere, ezta ezezagaitik gitxiago egiten, arimearen ona gatikbaño; eta baldin baderetxazue ponderaziño larregia dala au, begiratu egizue zer egiten dan gorputzaren onagaitik, eta onegaz bakarrik konfesauko dozue egia diñodala.

Gizon batek geriz puzka bat erakutsi gura badau, eztau ezezagaitik bear geiago egiten, leku ereigira igotea gaitik baño; eztau beste gauza gaitik augaiti beste lan igaroko; augaiti artuten dira nekeak, augaiti igaroten dira peligrak, augaiti galduten dira diru ta ondasunak; augaitik gitxitan dago bizitzea bera. Zeinbat bizitza dakusguz galdurik gizon batzuen Errege izateko guraria gaitik? Zeinbat odolez luurra bustirik, zeinbat etse erre, ta uri irulirik? Zelango gerrak, zelango ibillerak, zelango eriotzak, zelango gastuak? Mundu guztia errebolbidurik ibiliko dira, batak besteak baño andiago izateko guraria gaitik. Eta zer atera dabe gizonak euren neke, lan, izardi, eta ibillera onekaz? Zer irabazi dabe ainbeste gerra, ainbeste eriotza, eta ainbeste odolegaz? Ezerbere ez. Il zirian jaio ezipalira legez, isilik geratu zan euren izena, eta sepultura baten lurpetu zan beti iraungo ebalaste izan ebeen anditasun, honrra, eta gloria guztia.

Nok egiten dau zerua gaitik, diruak irabazteko beste? Gizon batek aberaztu gura badau, ze lanak igaroten dituz! Egunez eta gauez dago gogotan, ze modu artuko daben geien irabazteko; ze saldu erosik ondoren urtengo deus; zelan urten leikian tratu onetan edo bestean, eta bein tratu oneetatik batera gogoia ezarri ezker, ezta atsegini artuten; batzuetan saldu, beste batzuetan erosi, orain joan batera, gero bestera, eta irabazteko esperantzarik badauko, itxiten dau etsea, itxiten da familia, itxiten da atsegina, yaigiko da gauerdian bearbada, igaroko dira pozik otzak, beroak, euriak, eta erurrak. Baña zeruko ondasunak irabazteko, ze atzerakuntzea! ze nagitasuna! ze astuntasuna! eta zeinbat atxakia! Aste osoak

beragaitik ezer egin bagarik, gomutarik, geien bere erdi lotan eta arin arinka esanik errosario bat. Esaten bada induljenziak dagozala ain egunetan konfesau ta komulgauagaz, Elexea bisitauagaz, erantzuten da bein da bear egitea; elduten da yai-eguna, eta, zer egiten da orduan bere zeruagaitik? orduan bere bear egin, eta eragin semealabai, otseñai, ganaduak yan bear dabela; batzuk euren zorroakaz errotara eta oster, beste batzuk andik eta emetik euren tratu eta saldu erosietara. Etorri gura badau euren semealaba edo otseñen batek yai-egunetan konfesetan, induljenziak irabazten? askotan etxake itxiten: au edo bestea egin bear dabela. Zer da, bada, yaiegunetan bere zeruagaitik egiten dana, eta mende dagozanai egiten itxiten yakena? Ozta ozta entzuten da meza bat, eta ori bere aginduta dagoalako, eta Elespean berbetan, sazerdotea altara urten artean, egonik; eta mezea amaituten daneko arin arinetan Elexatik urtenik, igarorik beste aldi guztia, edo bearrean, edo dantzan, edo tabernan, edo yokoan, edo benturaz gauza deungagoetan.

Zeinbat geiago egiten ezta gorputzaren onagaitik, zeruagaitik baño? Geixotuten bada gorputza, bertatik medikua, ofizialea, gatxak indarra artu baño lenago; aginduten badira edatekorik garratzenak bere, bertatik artuten dira osasuna gaitik, eta nondik edo andik billatuten da zegaz ekarri ezipalitz bere; eta esaten badeutso mediku edo ofizialiak eztagiala urten etsetik, itxiko da taberna, itxiko da fiestea, eta itxiko dira guren guren diran gauzak, osatutearren. Yausten da barriz arima gaixoa pekatuen gatxagaz, zeinek eragozten deus zerua, eta eukirik doarik medikua eta erremedioa, ezta ezer egin gura. Egunerik egunera, asterik atera, ilerik ilera, eta askotan urterik urtera izten da pekatuaren gatx gogorakaz urte osoetan. Elduten da nos edo bein konfesorengana, zein dan arimako medikua, eta egiten yakaz astun eta gogor aginduten deusazan medesinak; agindu badagio ezteiteala yoan tabernara, an edango dabena bere etsean bere fameliagaz edan dagiala tabernari itxirik; agindu badakio eztitela ibili fiestatara an dagozan okasiñoen axiak arimea gaixotu ezteion: esan bekio biurtu dagiola bakotxari deungaro eroana eta galarazoa: agindu bekio parkatu dagiola gatx egin, edo deungaro esan deusnari, berari bere Jaungoikoak parkatu dagion: adiskidatu deiteala arerioagaz: agindu bekio egunean egunean egiteko esaminea bere eten eta argaltasunak obeto ezagututeko: esaten baiako sarritxu konfesetako, ordu laurentxu baten konsideretako Jesukristoren pasiñoa, edo gizonaren azkenak, eta dagizala sarritan, obligaziñoa daukan legez, fedeko, esperanza, eta karidadeko aktoak, alan Jaungoikoaren amodioan geiago biztuteko edo beste onelango gauzaren bat aginduten badeutso ere arimearen salbaziñoarako:



«ezin medezina au artu da», eta diño bere artean: «Larregi estututen nau konfessore onek, eta enaz beronegana geiago biurtuko». Dirautso konfessoreak osatutearren arimea pekatuaren gatxetik, ostera gaixotu eztakion, itxi biar dituzala arako leen gaixotu ebeen gauzak, arako berbeta nasai, izen zikinak, arako lagun-gaisto eta adiskidetasunak, arako ainbeste zikin-keria eta zantarkeria yazoten diran fiesta, yolasak, batzarrak, gaubegirak, errondak, dantza nastuak eta besteak, arako yoko eta tabernak non ainbeste bidar yausi zan pekatuan; baña ezta yaramonik egiten, eta eztira artu gura zerua irabazteko diran gauza oneek. Gosetuten da gorputza, emoten yako janaria goxian, eguerdian eta arratsian, eta arimeari sei illabetetik sei illabetera; eta benturaz, baña, zer diñot benturaz? zeinbat eztagoz Elexa onetan, eta ameneko guraso izanik, urterik urtera baño konfesau eta komulgetan eztirianak, etsean eskandalua emonik? Zeinbateg dauko euren arimea goseak ilik, eta Sakramentu Santu altarakoen janari eta edaririk emon bagarik urte guztian? Eta orduan bere, zegaitik? Ez zeruaren ardurea daukelako, ezpada txartelen bildurrez eta abade Maisuak kastigatu ze dagizan. Sermoetara joatea neke ta gogor egiten da. Berba baten, gorputzak daroaz egunak, gaubak, asteak eta urteak; beretzat bearra, beretzat etsea, beretzat oia, beretzat jaztekoa, beretzat janaria; eta guztia beretzat, eta arimia azturik, eta iños zerurik gomuta bagarik.

Begiraturen badogu zelango ardurak artuten direan diruak eta ondusunak ondo gordetako, eta iñok ostu eztagioezan, ikusiko doguz gauaz atiak ondo zarraturik, kutxa eta eskaparotak giltzez itxirik, eta lapurrak dabilazala entzuten bada, egiten da gau-bela, geituten direala ardurak, eta artuten direala inon direan neurri guztiak, ezer ostu ze dagioen; baña, egiten da onelako gauzarik zeruagaitik? Esan egidazue zuek guraso zorigaldukoak, itxiten dozuez ondo eta arduraz zeuen etseko atearak zuen umeak gauaz goruen atxakian, arta zuritan, eta beste neska mutilen batzarretara urten ze dagien? artuten dozue bear dan ardurea zuen umeak plaketan, jolasetan, ola ta karobietan, dantzetan ibili ezteitezan, an batuten dirian personaren batzuk galarazo eztagion zerurako bidea? Ai zerua, zerua! ze aitzurik zagozan, eta ze gitxi ezagututen dan zure balioa! Bada jakinik infernuko lapurrez beterik dagoala mundu guztia, guri zerua eragotzeko: jakin arren demonino lapur bildurgarriak daukazala lakio ta sareak alde guztietatik ifinirik guri pekatuan jausi eraginik zerua eragotzeko, ezta ardurarik ezetan artu gura, ezta alderatu gura okasiñoetatik, eta eztira bere itxigura ao, begi eta belarrietako atearak demoniñoak andi sartuteko okasiñoa iminten dabenean guri zerua galarazoteko.

Ai ze andia dan gizonaren zorotasuna! bada bide leun, bigun, eta errazagoetatik zerura joan leitekezanak, doaz euren borondategi infernuko sutegetara, bide askoz oker, gogor eta garratzagoetati. Ezpabere esan egidazue egia, zeuen gustu eta guraria jadiestetiagaitik pekatu mortalean jausi zarenok: euki dozue bakian eta atseginez zeuen biotza, pekatu mortal ori egin zenduenetik ona? Etxatzue sarritan etorri gogora egin zenduen pekatuen gorrototasuna, nai dala etsean, nai dala oean, nai dala soloan, nai Elexan? Baña, nora noa? Pekatari tristea, oraintxe bertan etzaitue ikaratu eta bildurtuten egin zenduen pekatuak? Instante onetan bertan ezteutsuez emoten kizketada gogorak zeuen biotzean? Egia esan gura badozue, ezin ukatu zineikee konfesau бага, beste Dabid batek legez, beti dagoala zeuen kontra egin zenduen pekatua. *Pecatum meum contra me est semper*.

Begira, nere entzula maiteak, zeinbat neke ta lan, zeinbat atsakabe eta mingotstasun igaroten dirian munduagaiti eta gorputzaren onagaiti eta azkenean infernura joatearren, eta ze onelako gitxi egiten dan zeruagaitik. Baña zer diñot? Zeruko gauzetarako guztia egiten da astun eta gogor. Pobreak limosna emoteko, ostua atsera biurtuteko, zorak pagetako esaten da «eztaukat zegaz, nekez elduten yat neure burua mantenduteko», baña egin bear bada konbit bat, bago; okasinoren bat edo gurari zitalen bat alkanzadu gura bada, ezta begiraturen gastura; Erromeriaren bat badago, itxiko yako etseko zereginari, goxetik urtengo da etsetik, eta igaroko dira mendirik eta aldatzik gogorrenak eguzki beroagaz izan arren bere, baña sermoera edo elxako gauzetara joan bear bada, esaten da etsean daukat zer egin, aldatza dago, eta bero andia egiten dau agiño yoteko. Elexan puskatxu bat egotia luze egiten da. Meza Santua astirotxu esaten bada, sermoan minutu batzuk luzeseago badago, esaten da, ezin entzun lei urliazen meza, ezin yoa leiteke urleziaren sermoara, eta egongo dira alperrerietan ordu osoetan, jokoetan, murmurazinoetan; berba baten, igaroko dira ordu osoak pekatu gauzetan, pozik otzak, beroak, nekeak, lanak, izardiak munduagaitik, eta ezta ezer egin gura zeruagaitik. Agindu begi konfessoreak edo Predikadoreak kendu dagiezala moda ta banaiak, itxi dagiezala fiestak, batzarrak, dantzak, jolasak, jokoak, tabernak, eta ezta jaramonik egiten. Esan begi sarritxutan konfesau ta komulgau deitezala, Jaungoikoaren bildur santuan bizi, eta arimea zuri zuri erabilteko, eta ezta jaramoten.

Neure kristinaubak, nondi dator itxumendi au? Nondi dator ain bear gitxi egitea zerua gaitik? Nondi dator ain gitxitan eukitea zeruko gloria? Da benturaz larregi eskatuten deuskulako bera gaitik Jaungoikoak? Ikusi egizue bada zer egin eban beronek, eta geratuko zare lotsaturik. Begiratu



egiozue zelangoa dagoan, eztauko bere gorputzian alde osorik, bere burua dauko arantzazko koroe ikaragarri bategaz zulaturik, bere arpegia mallaturik, bere lepoa azotez zatiturik, eta sorbaldak kruzien pisuaz zulaturik, bere aoa biaz tun eta binagrez mingotzturik, bere esku eta oñak untze gogorrez josirik, eta albo lantza bategaz idigirik, eta guztia bururik biratzera zauri andi andi bat eginik. Eta, zegaitik ori? A! gu zerura erotearren; guk zerua artu daigun. Bada, neure kristiñauak, Jesus maite onek igaro dituz ainbeste neke, lan, ainbeste azote, zauri, eta antzeko eriotza gogorra zeruko atea guri idigiteko, eta egingo yaku astun ara elduteko aginduten yakun puskea? Egingo yaku gogor krutzeke Jesus maite onen legea? Nos artean egongo zare pekatari tristeak itxumendi orretan? Nos artean egongo zare egia onek ez ezagutu gurarik? Nos artean euki gurako dozue pekatuen pisu andia? Erdue ona pekatari errukarriok: erdue, erdue Jesus maite onen oñetara, bada beronek argituko zaitue, beronek kenduko deutsue pekatuen pisu ikaragarri ori; erdue guztiok ona, bada berau da graziaren iturria, zeruetako Errege andia, triste nekatuak poztuten dituzana, pobreak aberaztuten dituzana, eta zeruan santuak atsegin eta gioriaz betetan dituzana. Zugana gatoz, Jesus ona, pekatari guztiok, ezaguturik orain arteko ibillera txar eta egikera gaistoak eskatuten miserikordia: Ez egizuz bada bota gure eskari laburrak; Zuk itxiten bagozuz eztaukagu nogana biurtu, geure biotzeko damu andi bategaz eskatuten deutsugu, geiago negar eta zuzpiroz berbakaz baño esanik: Neure Jesu Kristo Jauna etc.